

Eibarko euskara

Gure hizketaren doinu eta berbak

Asier Sarasua Aranberri
Aintzane Agirrebeña Ubera
Leire Zenarruzabeitia Alonso



Asier Sarasua Aranberri (Eibar, 1969).

Biologoa ikasketaz, aspaldi hasi zen Eibarko euskara eta ohiturak aztertzen. Azken urteotan hainbat lan kaleratu ditu bere herriko kontuen inguruan, esate baterako, *Eibarko hegaztiak* (1996), *Eibarko basarrixak* (1998), *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* (2003) eta *Eibarko mapa toponimikoa* (2005). *Eibartarren Ahotan* proiektuaren bultzatzaile ere izan da.

Aintzane Agirrebeña Ubera (Eibar, 1981).

Euskal filologian lizentziatua. Gaur egun Badihardugu Euskara Elkarteko koordinatzailea da. Eibarko euskararen inguruko hainbat proiektutan parte hartu du, besteak beste, *Eibartarren Ahotan*, *Hiztegi Etnografikoa*, eta Eibarko hiztegia online. Une honetan Zarauzko euskara jasotzen ere badihardu.

Leire Zenarruzabeitia Alonso (Eibar, 1971).

Zuzenbidean (1994) eta Euskal Filologian (2005) lizentziatua. 1997tik UZEIn dihardu lanean Zuzenbide arloko euskal itzultzaile eta terminologo moduan. Lehendik ere Eibarko euskararen inguruko lanetan jardun izan du, Eibarko hiztegia online (www.eibarko-euskara.com) proiektuan parte hartuz.

Eibarko Euskara

Gure hizketaren doinuak eta berbak

Asier Sarasua Aranberri
Aintzane Agirrebeña Ubera
Leire Zenarruzabeitia Alonso



2005

| | |
|-------------------------------------|---|
| Izenburua: | Eibarko euskara. Gure hizketaren doinuak eta berbak. |
| Egileak: | Asier Sarasua Aranberri, Aintzane Agirrebeña Ubera, Leire Zenarruzabeitia Alonso. |
| Azala: | Maite Rementeria Totorika. |
| Azaleko argazkiak: | Jose Luis Irigoien, Asier Sarasua eta Eibarko udal artxiboa. |
| Mapak: | Luis Lonbide Sagastizabal. |
| Argitaratzailea: | Eibarko udala. |
| Maketazioa eta inprenta: | Gertu, Oñati. |
| Ikusentzunezkoak: | <i>Eibartarren Ahotan</i> bilduma (Eibarko udal artxiboa) eta Badihardugu Euskara Elkarte. |
| Ikusentzunezkoen aukeraketa: | Itziar Alberdi Bilbao. |

© Asier Sarasua, Aintzane Agirrebeña eta Leire Zenarruzabeitia (lanarena)

© Eibarko udala (edizioarena)

© Luis Lonbide Sagastizabal (maparena)

© Eibarko udala eta Badihardugu Euskara Elkarte (ikusentzunezkoena)

Lege Gordailua: SS-1462/05

ISBN: 84-89696-40-3

Harremanetarako:

asier@eibar.org (Asier Sarasua)

euskera.i@eibar.net (Eibarko udala, Euskara Saila)

Aitxitxa Koldo eta aitona Antonio
euskaltzale amorratuari;
Maddi eta Manexi

Amari, esker onez

Juan Luis Mugerzari, bihotz-bihotzez

Gure ibilbide laburrian beti albulan izan dittugun
Toribio Etxebarriari eta Juan San Martini

*Asier Sarasua Aranberri
Aintzane Agirrebeña Ubera
Leire Zenarruzabeitia Alonso*

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| I - SARRERA | 23 |
| 1.1.- Iturriak | 27 |
| 1.2.- Ikusentzunezkoak | 33 |
| 1.3.- Transkripzioak eta idaztarauak | 33 |
| 1.4.- Eibar: kokapena eta euskara | 35 |
| 1.4.1.- Eibarko euskararen kokapena ingurukoen artean | 38 |
| 1.4.2.- Euskararen bilakaera Eibarren | 43 |
| 1.4.3.- Euskararen egoera gaur | 48 |
| 2 - EZAUGARRI FONETIKOAK | 57 |
| 2.1.- BOKALISMOA | 58 |
| 2.1.1.- HIATOAK | 58 |
| 2.1.1.1.- Berba amaierako bokal elkarketak | 58 |
| 2.1.1.2.- Berba barruko aldaketak | 64 |
| 2.1.2.- DIPTONGOAK | 66 |
| 2.1.2.1.- Beheranzko diptongoak | 66 |
| 2.1.2.2.- Goranzko diptongoak | 71 |
| 2.1.3.- BOKAL GEMINATUAK | 72 |
| 2.1.4.- ALDAERA NAGUSIAK | 73 |
| 2.1.4.1.- Amaierako -e > -a | 74 |
| 2.1.4.2.- /r/ aurrean bokal irekidura, bereziki e>a | 75 |
| 2.1.4.3.- -e->-a- <i>izan</i> aditzean | 76 |
| 2.1.4.4.- i- / u- txandakatzea hitz hasieran | 76 |
| 2.1.4.5.- -o->-u- NON galdetzailearen eratorrietan | 77 |
| 2.1.4.6.- Gaztelaniazko -(i)ón amaieradun maileguetan | 77 |
| 2.1.4.7.- Gaztelaniazko -(c)ión amaieradun maileguetan | 77 |
| 2.1.4.8.- Gaztelaniazko -or amaieradun maileguetan | 78 |
| 2.1.4.9.- Amaiera kontsonantikoetan -e bokala gehitzea | 78 |
| 2.1.4.10.- a>e / __u, i/ | 78 |
| 2.1.4.11.- Zenbait monosilaboren deklinabidea | 80 |
| 2.2.- KONTSONANTISMOA | 81 |
| 2.2.1.- HERSKARIAK | 81 |
| 2.2.1.1.- Herskariak galtzea | 81 |
| 2.2.1.2.- Aldaera nagusiak | 84 |
| 2.2.2.- SUDURKARIAK | 87 |
| 2.2.3.- ALBOKARIAK | 89 |
| 2.2.4.- DARDARKARIAK | 90 |
| 2.2.4.1.- Dardarkariak galtzea | 91 |
| 2.2.4.2.- Zenbakien deklinabidea | 92 |
| 2.2.4.3.- Kontsonante multzo bereziak: -(s)tr- / fr- | 92 |

| | |
|---|------------|
| 2.2.5.- IGURZKARIAK: J eta F | 93 |
| 2.2.5.1.- <i>j</i> | 93 |
| 2.2.5.2.- <i>f</i> | 93 |
| 2.2.6.- TXISTUKARI FRIKARIAK | 95 |
| 2.2.6.1.- <i>z->tx</i> - afrikatzea | 95 |
| 2.2.7.- AFRIKATUAK | 96 |
| 2.2.7.1.- Afrikatua galtzea | 96 |
| 2.2.8.- H | 97 |
| 2.2.9.- BUSTIDURAK | 98 |
| 2.2.9.1.- <i>i + n > iñ</i> | 99 |
| 2.2.9.2.- <i>i + l > ill</i> | 100 |
| 2.2.9.3.- <i>i + t > itt > itx</i> | 100 |
| 2.2.9.4.- <i>i + tz > (i)tx</i> | 101 |
| 2.2.9.5.- <i>i + ts > tx</i> | 101 |
| 2.2.9.6.- <i>j + z > jx</i> baina <i>i + z > is</i> | 102 |
| 2.2.9.7.- <i>i + s > ix</i> | 102 |
| 2.2.9.8.- <i>i + x > itx</i> | 102 |
| 2.2.9.9.- <i>ild, ind > ildd, indd</i> | 103 |
| 2.2.9.10.- <i>ilt, int > iltt, intt</i> | 104 |
| 2.2.9.11.- Bustidurak - Laburpena | 104 |
| 2.2.10.- ARAU MORFOFONOLOGIKOAK | 105 |
| 2.2.10.1.- EZ + aditza: | 106 |
| 2.2.10.2.- <i>n-, l-, r-</i> ostean txistukari frikariak gordetzea | 108 |
| 2.2.10.3.- Adizkien hasierako <i>d-</i> galtzea | 109 |
| 2.2.10.4.- <i>Ba- + dV- > b(a)V</i> | 110 |
| 2.2.10.5.- <i>bihar > bia > bi</i> | 110 |
| 2.2.10.6.- Aditz nagusiaren amaierako <i>-n</i> galtzea | 111 |
| 2.2.10.7.- Aditz laguntzailearen hasierako <i>j-</i> galtzea | 113 |
| 2.2.10.8.- Ergatiboko zein pluraleko <i>-k</i> marka galtzea | 113 |
| 2.2.10.9.- <i>-k + b- > p-</i> | 113 |
| 2.2.10.10.- <i>-k + d- > ez dago aldaketarik</i> | 114 |
| 2.2.10.11.- <i>-t + b- > p-</i> | 114 |
| 2.2.10.12.- Berba amaierako <i>-t</i> herskaria galtzea | 114 |
| 2.2.10.13.- Berba amaierako afrikatua desfrikatzea: <i>tz/ts > s</i> | 115 |
| 2.2.11.- TOPONIMOEN BILAKAERA | 116 |
| 2.3. - ALDAERA LEXIKALEN ZERRENDA | 117 |
| 2.4. - EZAUGARRI FONOLOGIKOEN TAULA | 121 |
| 3 - EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK | 125 |
| 3.1.- DEKLINABIDEA | 125 |
| 3.1.1.- DEKLINABIDE-ATZIZKIAK | 125 |
| 1) Nominatiboa [NOR/ZER] | 126 |
| 2) Ergatiboa [NORK/ZERK] | 128 |
| 3) Datiboa [NORI/ZERI] | 128 |
| 4) Jabetza-genitiboa [NOREN] | 129 |
| 5) Partitiboa [-rik] | 131 |
| 6) Instrumentala [ZEREZ] | 133 |
| 7) Soziatiboa [NOREKIN/ZEREKIN - NOREGAZ/ZEREGAZ] | 134 |
| 8) Motibatiboa [NORENGATIK/ZERGATIK] | 135 |

| | |
|---|------------|
| 9) Destinatioa [NORENDAKO - NORENTZAT - NORENTZAKO] | 136 |
| 10) Prolatioa [-tzat] | 138 |
| 11) Leku-denborazko genitioa [NONGO] | 139 |
| 12) Inesioa [NON/NORENGAN] | 141 |
| 13) Ablatioa [NONDIK/NORENGANDIK] | 143 |
| 14) Adlatioa [NORA/NORENGANA] | 145 |
| 15) Muga-adlatioa [NORAINO/NORENGANAINO] | 148 |
| 16) Hurbiltze-adlatioa [NORUTZ/NORENGANUTZ] | 149 |
| 3.1.2.- MUGAGABE PLURALA: -TZU(K) | 150 |
| 3.1.3. IZENEN DEKLINABIDE-TAULAK | 151 |
| 3.1.3.1. Izen arrunt bizigabeen deklinabide-taula | 151 |
| 3.1.3.2. Izen arrunt bizidunen deklinabide-taula | 152 |
| 3.1.3.3. Pertsona-izenen deklinabide-taula | 154 |
| 3.1.3.4. Leku-izenen deklinabide-taula | 155 |
| 3.2.- DETERMINATZAILEAK | 156 |
| 3.2.1. MUGATZAILEAK | 156 |
| 3.2.1.1. Artikulua | 156 |
| 3.2.1.2. Erakusleak | 157 |
| 3.2.2. ZENBATZAILEAK | 162 |
| 3.2.2.1. Zenbatzaile zehaztuak edo numeralak: <i>bat, bi, hoge</i> ... | 163 |
| 3.2.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak: <i>horrenbeste, asko, larregi, ugari</i> ... | 164 |
| 3.2.2.3. Zenbatzaile orokorrak: <i>guzti, dana, oso</i> | 167 |
| 3.2.3. DETERMINATZAILE ZEHAZTUGABEAK | 169 |
| 3.3.- IZENORDAINAK | 170 |
| 3.3.1. PERTSONA-IZENORDAINAK | 170 |
| 3.3.1.1. Pertsona-izenordain arruntak | 170 |
| 3.3.1.2. Pertsona-izenordain indartuak | 170 |
| 3.3.1.3. Genitiboko izenordainak | 174 |
| 3.3.2. IZENORDAIN ZEHAZTUGABEAK | 176 |
| 3.3.2.1. Galderazko izenordainak: <i>zein, nor, zertzuk</i> | 177 |
| 3.3.2.2. Galderazko izenordainetatik eratorritakoak: <i>inor, ezer, edozein, zeozer, zera</i> ... | 180 |
| 3.3.3. IZENORDAIN ELKARKARIAK ETA BIHURKARIAK | 182 |
| 3.3.3.1.- Elkarkaria: <i>alkar</i> | 182 |
| 3.3.3.2.- Bihurkaria: <i>X-en burua</i> | 183 |
| 3.4.- POSTPOSIZIO ASKEAK | 184 |
| 3.5.- ADJEKTIBOAK: ADJEKTIBOAK MAILAKATZEKO PARTIKULAK ETA ATZIZKIAK | 191 |
| 3.5.1.- MAILA-ADBERBIOAK | 191 |
| 3.5.2.- <i>-en, -a(g)o</i> eta <i>-e(g)i</i> ATZIZKIAK | 191 |
| 3.5.2.1.- Superlatioa: <i>-en</i> | 191 |
| 3.5.2.2.- Konparatioa: <i>-a(g)o</i> | 192 |
| 3.5.2.3.- Larregitasuna: <i>-e(g)i</i> | 192 |
| 3.5.3.- ADJEKTIBOAK ERREPIKATZEA | 193 |
| 3.5.4.- ATZIZKI TXIKIGARRIAK ETA HANDIGARRIAK | 193 |
| 3. 6.- ERATORPEN-ATZIZKIAK | 194 |
| 1) -ADA/-KADA (1) | 194 |
| 2) -ADA/-KADA (2) | 196 |
| 3) -ARI/-KARI/-LARI/-TARI (-dari) | 197 |

| | |
|--|------------|
| 4) -DI (-ti) | 199 |
| 5) -DUN | 200 |
| 6) -ERA/-KERA (1) | 201 |
| 7) -ERA/-KERA (2) | 202 |
| 8) -ETA/-KETA | 203 |
| 9) -GAITZ (-gatx)/-KAITZ (-katx) | 204 |
| 10) -GARRI/-KARRI (1) | 204 |
| 11) -GARRI/-KARRI (2) | 205 |
| 12) -GILLE/-GIN | 205 |
| 13) -GINTZA | 207 |
| 14) -KERIXA/-ERIXA | 207 |
| 15) -KI (1) | 209 |
| 16) -KI (2) | 209 |
| 17) -KI (3) | 210 |
| 18) -KIZUN | 210 |
| 19) -KOR/-OR | 211 |
| 20) -LE/-TZAILLE (-taille) | 212 |
| 21) -MEN (1) | 215 |
| 22) -MEN (2) /-MENDU/-PEN | 215 |
| 23) -TAR/-AR (1) | 216 |
| 24) -TAR/-AR (2) | 216 |
| 25) -TASUN/-ASUN | 217 |
| 26) -TEGI (-degi)/-EGI | 220 |
| 27) -TI | 221 |
| 28) -TSU | 221 |
| 29) -TZA (1) | 223 |
| 30) -TZA (2) | 224 |
| 31) -TZA (3) | 225 |
| 32) -ZIÑO | 225 |
| 4 - ADITZ SINTAGMA | 229 |
| 4.1.- EIBARKO ADITZAREN EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK | 229 |
| 4.1.1.- Nor-Nori-Nork saileko erroa * <i>etsi</i> da (orok. *-i-) | 229 |
| 4.1.2.- Nor-Nori-Nork saileko * <i>etsi</i> -ren erroan -u- galduta | 230 |
| 4.1.3.- * <i>edun</i> -en erroa -o- edo - <i>au</i> - da | 230 |
| 4.1.4.- * <i>egin</i> erroa, * <i>ezan</i> orokorraren orde | 231 |
| 4.1.5.- Ahalezko orainaren orde hipotetikoa | 231 |
| 4.1.6.- Nor-Nori sailean <i>j</i> -dun adizkiak | 231 |
| 4.1.7.- Nor-Nori saileko iraganaldia: 'oraina + -n' | 232 |
| 4.1.8.- Lehenaldiko 3. pertsonetan Ø ezaugarria (edo bitasuna) | 232 |
| 4.1.9.- Pluralgile ia bakarra -z da | 233 |
| 4.1.10.- Bitasuna pluralgileetan | 233 |
| 4.1.11.- Plurala bikoiztuta: forma pleonastikoak | 235 |
| 4.1.12.- - <i>te</i> pluralgilerik ez da erabiltzen | 235 |
| 4.1.13.- Aditz laguntzaileetako Nori 3. pertsona pluralaren ezaugarria: - <i>e</i> | 235 |
| 4.1.14.- Nork=Haiek adizkietan, pluralgilea desagertu | 236 |
| 4.1.15.- Trinkoen iraganaldian - <i>e</i> - sustraia | 236 |
| 4.1.16.- <i>Ibili</i> eta <i>erabili</i> aditzetan aditz-erroko - <i>l</i> - galdu egiten da | 237 |
| 4.1.17.- <i>Joan</i> eta <i>eroan</i> aditzetan - <i>i</i> - agertzen da | 237 |

| | |
|--|-----|
| 4.1.18.- *edun-en hitanoan <i>j</i> -dun adizkiak | 237 |
| 4.1.19.- <i>j</i> marka alokutiboan | 238 |
| 4.1.20.- Aditz trinko iragangaitzen hitanoan <i>d</i> - marka | 239 |
| 4.1.21.- Hitanoaren adizkietako Nor/Zer pluralen amaierak | 239 |
| 4.1.22.- Hikako zenbait adizkitan sexu-marka soberan | 240 |
| 4.1.23.- Subjuntiboko orainaldian 3. pertsonaren ezaugarria: <i>de</i> - | 240 |
| 4.1.24.- <i>Egon, Jakin</i> eta <i>Erabili</i> adiztetako lehenaldiko pluralean lotura-bokalak | 241 |
| 4.1.25.- Lehenaldiko eta subjuntiboko forma pluraletan lotura-bokala <i>-e</i> - da | 242 |
| 4.1.26.- Nor saileko ahalezkoan <i>-te</i> - elementurik gabeko aditz-formak | 243 |
| 4.1.27.- Nor-Nori saileko ahalezkoan, <i>-te</i> - edo <i>-ki</i> - gabeko aditz-formak | 243 |
| 4.1.28.- Nor-Nori saileko aditz-laguntzailearen baldintza-ondorioan eredu bi | 244 |
| 4.1.29.- Nor-Nori-Nork saileko aditz laguntzailearen ondorioan bi eredu | 244 |
| 4.1.30.- Baldintzan, ondorioarena den <i>ke</i> marka erabiltzeko joera | 245 |
| 4.1.31.- Nork aditz-jokoetan GUK, ZUK eta ZUEK marka errepikatze joera | 245 |
| 4.1.32.- Baldintzan hitanoa erabiltzea | 247 |
| 4.1.33.- Partzipioa gorde egiten da ahalezkoan, subjuntiboan eta aginteran | 248 |
| 4.1.34.- Nork sailtako aginterako formetan * <i>egin</i> aditza | 248 |
| 4.1.35.- Mendeko perpausetan lotura | 249 |
| 4.1.36.- Infinitiboan <i>-(t)u</i> aspektu markaren hiru aldaera darabiltzagu | 251 |
| 4.1.37.- Aditz-izenak | 252 |
| 4.1.38.- Forma burutugabeak | 253 |
| 4.1.39.- Partzipioak atributo gisa | 254 |
| 4.1.40.- <i>-gi</i> motako aditzak | 254 |
| 4.1.41.- Mendebaleko <i>-n</i> amaierako aditzik ez | 255 |
| 4.1.42.- Jokamolde berezia duten zenbait aditz | 255 |
| 4.2. ADBERBIOAK. | 258 |
| 4.2.1. DENBORA-ADBERBIOAK | 258 |
| 4.2.2. LEKU-ADBERBIOAK | 259 |
| 4.2.2.1.- Erakusleetatik eratorritakoak | 259 |
| 4.2.2.2.- <i>Ber-</i> aurrizkidunak | 260 |
| 4.2.2.3.- Zehaztugabeak | 260 |
| 4.2.2.4.- Bestelakoak | 260 |
| 4.2.3. MODU-ADBERBIOAK | 261 |
| 4.2.3.1.- Erakusleetatik eratorritakoak | 261 |
| 4.2.3.2.- Zehaztugabeak | 261 |
| 4.2.3.3.- <i>-TO</i> atzizkiaz osatutakoak | 262 |
| 4.2.3.3.- <i>-TA</i> atzizkiaz osatutakoak | 262 |
| 4.2.3.3.- Bestelakoak | 262 |
| 4.2.4.- Maila-adberbioak | 263 |
| 4.2.5.- Iritzi-adberbioak | 263 |
| 4.3. ADITZ-TAULAK. | 264 |
| NOR | 269 |
| NOR-NORI | 273 |
| NOR-NORK | 279 |
| NOR-NORI-NORK | 287 |
| ADITZ TRINKOAK | 299 |

| | |
|--|-----|
| 5.- SINTAXIA | 313 |
| 5.1.- PERPAUS BAKUNAK | 314 |
| 5.1.1.- Adierazpen-perpauasak | 314 |
| 5.1.2.- Aginte-perpauasak | 315 |
| 5.1.3.- Harridura-perpauasak | 317 |
| 5.1.4.- Galde-perpauasak | 320 |
| 5.2.- JUNTADURAZKO PERPAUSAK | 322 |
| 5.2.1.- Emendiozko juntagailuak | 322 |
| 5.2.2.- Juntagailu hautakariak | 323 |
| 5.2.3.- Aurkaritzako juntagailuak | 327 |
| 5.3.- PERPAUS MENDERATUAK | 329 |
| 5.3.1.- Perpauas osagarriak | 329 |
| 5.3.1.1.- Adierazpen-perpauas osagarriak | 329 |
| 5.3.1.2.- Galde-perpauas osagarriak edo zehargalderak | 331 |
| 5.3.1.3.- Subjuntiboko perpauas osagarriak | 333 |
| 5.3.1.4.- Perpauas osagarri izenlagunak | 333 |
| 5.3.1.5.- Aditz jokatugabedun perpauas osagarriak | 333 |
| 5.3.2.- Perpauas erlatiboak | 334 |
| 5.3.3.- Konparazio-perpauasak | 335 |
| 5.3.3.1.- Berdintasunezko konparazioa | 336 |
| 5.3.3.2.- Desberdintasunezko konparazioa | 338 |
| 5.3.3.3.- Zenbat (eta)... -ago eta gero(ago) eta... -ago erakoak | 340 |
| 5.3.4.- Ondorio-perpauasak | 341 |
| 5.3.5.- Denbora-perpauasak | 342 |
| 5.3.5.1.- NOIZ galdetzaileri erantzuten dioten menderagailuak | 342 |
| 5.3.5.2.- Noizko, Noiztik eta Noiz arte galdetzaileri erantzuten dioten menderagailuak | 344 |
| 5.3.5.3.- Maiztasuna adierazten duten menderagailuak | 345 |
| 5.3.6.- Modu-perpauasak | 345 |
| 5.3.7.- Helburuzko perpauasak | 348 |
| 5.3.8.- Kausa-perpauasak | 350 |
| 5.3.9.- Perpauas kontzesiboak | 354 |
| 5.3.10.- Baldintzazko perpauasak | 355 |
| 5.4.- LOKAILUAK | 358 |
| 5.4.1.- Emendiozko lokailuak | 359 |
| 5.4.2.- Hautakariak | 364 |
| 5.4.3.- Aurkaritzakoak | 366 |
| 5.4.4.- Ondoriozkoak | 370 |
| 5.4.5.- Kausazkoak | 372 |
| 6.- LEXIKOA | 377 |
| 6.1.- Eibarko berba petoak | 377 |
| 6.2.- Gure berbak ere euskara batua dira | 379 |
| 6.3.- Eibarko toponimia | 382 |
| 7 - EIBARKO EUSKARAZ IDATZITAKO TESTUAK | 389 |
| 7.1.- Contubarribat suçediduda | 390 |

| | |
|---|-----|
| 7.2.- Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaraco | 391 |
| 7.3.- Juan Antonio Mogel (1745-1804) | 394 |
| Diálogo segundo..... | 396 |
| Dialogo tercero | 397 |
| 7.4.- Francisco Arrate | 399 |
| Del perdon de las ofensas | 399 |
| 7.5.- Caleco biarguiñac Basarricueri Elesiñuen gañian | 405 |
| 7.6.- Toribio Etxebarria (1887-1968)..... | 408 |
| Senar begi-bakarra eta emazte ariña..... | 408 |
| Jan-txakur bi | 410 |
| Erantzun egokixa | 412 |
| Bixak guzurretan..... | 413 |
| 7.7.- Antonio Iturrioz (1900-1984) | 414 |
| Egazkiñak | 414 |
| 7.8.- Juan San Martin (1922-2005) | 418 |
| Zein baiño zein txartuago | 419 |
| Murgil luzia..... | 419 |
| “Berori” | 420 |
| 8 - GAUR EGUNGO HIZTUNEN LEKUKOTZA..... | 423 |
| 9 - EIBARKO EUSKARAREN KOKAGUNE DIALEKTOLOGIKOA | 511 |
| 9.1.- MENDEBALEKO EUSKALKIAREN EZAUGARRIAK EIBARREN | 511 |
| 9.1.1.- Fonetika eta Fonologia..... | 511 |
| 9.1.2.- Izenaren Morfologia..... | 511 |
| 9.1.3.- Aditzaren Morfologia | 511 |
| 9.1.4.- Sintaxia | 513 |
| 9.1.5.- Aldaerak eta lexikoa | 513 |
| 9.2.- EIBARREN AGERTZEN EZ DIREN MENDEBALEKO ZENBAIT EZAUGARRI .. | 514 |
| 9.2.1.- Fonetika..... | 514 |
| 9.2.2.- Morfosintaxia | 514 |
| 9.3.- SARTALDEKO AZPIEUSKALKITIK BEREIZTEN DUTEN EZAUGARRIAK | 515 |
| 9.3.1.- Fonetika eta Fonologia..... | 515 |
| 9.3.2.- Morfologia | 515 |
| 9.3.3.- Sintaxia | 516 |
| 9.3.4.- Aldaerak eta Lexikoa..... | 516 |
| 9.4.- MENDEBALEKO EUSKALKITIK BEREIZTEN DUTEN ZENBAIT EZAUGARRI. | 516 |
| 9.5.- INGURUKO HERRIETAKO HIZKERETATIK BEREIZTEN DUTEN | |
| EZAUGARRI NAGUSIAK..... | 517 |
| 9.5.1.- Fonetika eta fonologia | 517 |
| 9.5.2.- Izenaren morfologia..... | 517 |
| 9.5.3.- Aditzaren morfologia..... | 518 |
| 9.5.4.- Sintaxia | 519 |
| 9.5.5.- Aldakaerak eta lexikoa | 519 |

| | |
|---|------------------|
| 9.6.- GAZTEEN ARTEAN ALDATZEN ARI DIREN EZAUGARRI NAGUSIAK | 520 |
| 9.6.1.- Fonetika eta fonologia | 520 |
| 9.6.2.- Izenaren morfologia | 521 |
| 9.6.3.- Aditzaren morfologia | 521 |
| 9.6.4.- Sintaxia | 522 |
| 9.6.5.- Aldakaerak eta lexikoa | 522 |
| 10 - BIBLIOGRAFIA | 527 _ |

ALKATEAREN AGURRA

ZORIONAK

Zorionak eta eskerrik asko lan sendo honen egilieri, eta baita Eibarko herrixari be holako ikerlari gogotsuak emotiarren. Alkate moduan harro nago herri honek eitten daben lanakin. Jakizue Eibarko Udala beti egongo dala prest holako lanetan eibartarrerri laguntzeko. Egongo ez da, ba!

Orrixotan topauko dozuen liburu mardul hau Eibarko Euskerian ingurukua da. Gure berbetian doinuak jasotzen dittu, gure altxorra, danon artian zaindu biharrekua.

Eibarrek beti euki izan dittu euskaltzaliak gure herriko euskeria jaso, aztertu eta landu dabenak: Toribio Etxebarria, Juan San Martin, Imanol Laspiur eta beste hainbeste. Liburu asko kaleratu da hamen eindako ikerketa, azterketa eta jasotze-lanekin. Baina lan honi esker garbi ikusten da odol barrixa be badala gure herriko euskerian zainetan. Gaztiak izan arren, honezkero esperientzia haundixa dauke Eibarko euskeria batzen eta jorratzen, eta Eibarko Udalak euren lan bat baino gehixago kaleratu dau. Horretara, gaztiak bai, baina barrixak ez: eskarmentudunak, jantzixak, Asier Sarasua, Aintzane Agirrebeña eta Leire Zenarruzabeitia. Zorionak barriro be, gure herriko berbetian inguruko lan zoragarri honengaittik.

Gure herrixak zuen moduko gazte jendia bihar dau, beste guztiok be zuen jakindurixiak eta goguak busti gaittian. Aurretik einda dagozen lan guztiak tranpolin ederra dira, ondoren datozen gaztiak be Eibarko euskerian ur sakonetan murgildu ahal izateko.

Iñaki Arriola Lopez
Eibarko Alkatea

HITZAURREA

Serafin Basauri Arteaga

Joan deneko 45 urteotan egindako ahaleginari esker, euskararen gainbeherari nola-baiteko galgaren bat jarri izan zaio. Euskararen batasuna, alfabetatzea, ikastola mugimendua, hezkuntza sisteman eta unibertsitatean euskara ezartzea, herritarren eta instituzioen lana...; horrek guztiorrek izan du, bai, aldeko eraginik. Asko dago egiteko, baina maila polita lortu du euskarak literaturan, kazetaritzan, komunikabideetan, eskolan eta unibertsitatean. Urrats handia eman izan da euskararen alde. Horretarako euskara batua behar zen eta horretan jarri izan dira indarrak, euskalkian eta herri hizketan baino gehiago. Egindakoa ez da gutxi, baina bada zer hobetu, gehienbat ahozkoatasunaren aldetik, euskara mintzatuaren egokitasun eta bizitasunaren aldetik. Horren inguruan asko eman lezakeela iruditzen zaigu tokian tokiko euskarak eta zaindu eta landu beharrezkoa dela.

Eibarren hala uste izan dugu beti: euskara biziko bada, euskara batua beharrezkoa dugula, baina baita euskalkia ere. Euskalkiaren edo herriko euskararen alde jardutea ez da euskara batuaren kontrakoa, alderantziz baino; batuak eta euskalkiak elkar elikatzen dute-eta. Aspaldikoak dira Eibarko euskararen alde Toribio Etxebarriaren, Juan San Martinen, Imanol Laspiurren eskutik jasotako lanak eta azken urteotan egindakoak: Udaleko Euskara Batzordearen euskara mintegian, "Egoibarra" batzordean, eibartar hiztunari batua hurreratzeko, gure gutxiespenok uxatzeko, lokuzioak eta esaerak argitaratuz, azentua landuz, deklinabidea, herriko idazle eta idazlanen antologia, ikastunidadea, aditza, hiztegi etnografikoa, "Lexikoia" interneten denon aukeran jartzea, toponimiako lanak, kantuen bilketak, "eta kitto" herri aldizkarian Eibarko euskara jasoan egiten den ahalegin pedagogikoa... Eta orain, hirukote gazte honen eskutik heldu zaiguna: *Eibarko Euskara – Gure hizketaren doinuak eta berbak* liburu bikaina.

Sekulako poza hartu nuen orain dela urte bi asmo honetarako zirriborroa erakutsi zidatenean. Zeren Eibarko euskararen inguruan lan eta liburu ugari argitaratu bada ere, lanok, bakoitza atal baten inguruan egindakoa, sakabanatu samar zeuden eta osotasun baten bilduko zituen lan orokor bat behar genuen, landu gabe zeuden sintaxia eta fonetika ere erantsiz; izan ere, nabarmena zen-eta horren premia.

Eibar aproposa dela diote egileok horrelako lan bat egiteko, aurretik egindako liburu-eruz gainera, ahozkotasuna ere batu delako eibartar adinduei egindako ehundaka elkarrizketa eta grabazioen bidez. Bai. Hala da. Baina hori guztiori taxutzeko eta antolatzeko lan handia da egin dutena; sintaxia eta fonetika ere landu dute, eta ezin egokiago bildu dute dena sintesi-liburu honetan.

Ez dut nik egingo liburu honen azterketa teknikorik, ez da faltako-eta horretarako ni baino jantziagorik. Zerbait esatekotan, hauxe: egileon iritiz espezialistendako lana ez bada ere, maila tekniko nahikoa eman diotela eta, orokorrean, edozein eibartar euskaltzalek ulertzeko modukoa dela. Adibide ugari ditu azalpenaren eta ulermenaren lagungarri. Adibideak, artifizialak eta behartuak ez baina herriarengandik jasotakoak dira, natural-naturalak. Ez dugu-eta alperrik 100 lagun ingururi egindako elkarrizketen altxorra, guztira 400 grabazio-ordukoa. Azalpen bakoitzari egoki jarri dizkiote dagozkion adibideak, elkarrizketa-transkripzioetatik aukeratuak. Askotan, aurkituko dugu azalpen gramatikal bakoitzeko adibide bat baino gehiago, baina bat ere ez dago sobera, gustora irakurtzen dira, gramatikaltasunaz gainera herriko bizitza eta kulturaren berri ere ematen dutelako.

Liburu honek Eibarko euskararen ezaugarri guztiak bildu ditu, azentuarena izan ezik. Eibarko euskara estandarrarekin parekatu eta konparatzeko aukera ematen du eta euskara-maila bion artean hainbesteko alderik ez dagoela erakusteko ere bai. Ezinbestekoa, eibartarron euskararen berri jakiteko, kazetaritzan era jasoan erabiltzeko, irakaskuntzan, eta batez ere eibartar hiztunontzat, geure betiko esaldi zuzenak erabil ditzagun, hobe beharrez edo norberaren berbekin eta esamoldeekin gutxietsita dotore egin nahian, sarritan, batuko berbekin esaldi traketsak egiten jardun gabe. Euskara egokia erabiltzeko hainbat eredu aurkituko ditugu, aukerakoak. Mugagabearen erabilera zuzena ikusiko dugu beste zenbait hizkeratan hain zorrotz betetzen ez dena. "Gure berbak ere euskara batua dira" diote egileok, arrazoi osoz, lexikoari dagokion atalean, berba zerrenda ederra erakutsiz, batuan ere erabil ditzakegun berbak. Joskeraren atala, aztertu eta landu berria, pooolita; makina bat esamolde egoki dago hor, gozamenerako. Eibartarrok geure euskararekin harro jar-tzerainoko liburu dela esango nuke.

Azentua da ukitu ez den arloa. Imanol Laspiurrek egindako lanak mereziko luke hala ere jarraipena, berak egindakoa osatuz joateko. Ez da erraza azentu eta intonazio kontuak azaltzeko metodologia egokia aurkitzea, azentua aldatu egiten da eta esaldi batetik bestera berben arteko loturen arabera, enfasiaren arabera... Kasuistika korapilotsua, arau zehatzak jartzeko. Arlo honetan Imanol Laspiurrek egindako lana daukagu, baita haren gomendioa ere: azentu eta intonazio jatorraz jabetzeko ez dagoela gauza hoberik hiztun zaharren jardunari erreparatzea baino; eta horretarako esango dut oso egokia izan litekeela interneten jarri den "Eibartarren ahotan"eko ahozko artxiboa. Lan ildo interesgarria eta jorratu beharrekoa.

Bistan da Eibarko euskara bizi dela oraindik, eta geureari eutsi nahia nabarmena da gazteen artean, liburu hau berau horren lekuko. "Belaunaldi zaharreko" geure berbetaren iraupenaren gainean dugun kezka badu bere zergatia: gerra ostean izan duen atzerakada handia, 60.eko hamarkadan sortu zen euskaltzale giroan aurre egin bazitzaion ere, atzeraka moteltzen jarraitu duena. Etorkizunean zer izango den ez dakigu, aldaketak izan ditu orainartekoan eta gero ere izango ditu. Lanak izango ditugu geure hizketari eusten, tradizioa berreskuratzen, ahozkotasanari egokitasuna eta bizitasuna ematen eta lan horri lehenbailehen ekin beharra dago, eskoletan, euskaltegietan, unibertsitatean... Beste gauza askoren artean, gazteok moldatu diguten liburu hau tresna egokia izan liteke zeregin horretan, Eibarko euskara berreskuratzen laguntzeko, euskara bera indartzeko, euskara da-eta orokorrean lan honekin irabazten atera dena, batuarentzat ere badagoelako lan honetan eka- rri ederrik.

Belaunaldi gaztearen eskuetan dago Eibarko euskararen biziberritzea. Lortuko duten ala ez geroak esango. Bitartean hona hemen euren ahalegin ederra. Eskerrik asko.

Sarrera

*Eibarren? Eibarren guardia zibillen semiak be
euskeraz eitten juen igual. Derrigor ein bihar.
Bestela ez zittuan enteratzen, ze euskeraz eitten
zuan dana. Dan-dan-dana! Eibar izan dok
euskerarik gehixen ein dan herrixa.*

Ramon Sarasua

I - SARRERA

Dagoeneko gure herriko euskararen inguruko liburu asko kaleratu da, baina orain arte ez da laburpenik egin, Eibarko euskararen ezaugarriak sailean erakutsiko zituen azterketa-lanik. Hemen aurkezten dugun lan honen helburua horixe da, Eibarko euskararen ezaugarri nagusiak azaltzea, gure berbeta nolakoa den aztertzea eta erakustea.

Eibar aproposa da horrelako lan bat egiteko. Aspaldi hasi ziren «eibartarraren» (Eibarko euskararen) gaineko azterketak, 1960 inguruan, eta harrezkero hainbat lan atera dira, beste horrenbeste alderdi landuz. Toribio Etxebarria izan genuen aitzindari; oraindik ere, lan gutxik gainditu dute Toribiok 1965-1966 bitartean kaleratu zuen *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* hiztegia. Ordutik, eta orain arte, mila koloretako lanak kaleratu dira Eibarko euskararen inguruan. Besteak beste, Imanol Laspiurrek deklinabidea batu zuen, Serafin Basaurik gidaturiko lantaldeak aditza, Mikel Sangronizek kantuak, Juanan Argoitiak esakerak, Antxon Narbaizak alderdi soziolinguistikoak, Nerea Aretak izen sintagmaren morfologia... Ahozotasuna ere batu da, eta eibartar adinduei egindako elkarrizketak eta grabazioak ere ehundaka dira.

Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar* liburuaren azala.



Urte askotako lana izan da, elkarlanean egindakoa; Etxebarria eta San Martin aitzindarien ostean kimu berriak erretu dira, eta gure euskara ederto ezagutzen dugu. Oinarri hori guztia eskuartearen izanda, Eibarko euskararen ezaugarriak liburu batera ekartzea... ez dugu esango erraza izan denik, baina bai beste inon baino errazagoa.

Esku artean duzun lan hau ez da espezialistentzako lana. Horrelako lan batek eskatzen duen gutxiengo maila teknikoa eman nahi izan diogu, jakina, baina aldi berean edozein eibartarrek edo euskaltzalek ulertzeko modukoa izan behar zuen, azalpen lehorrak saihestuz eta ahalik eta adibide gehien erabiliz. Adibide horiek, gainera, ahoz jasotakoak dira, eibartar nagusienei egindako elkarrizketetatik jasotakoak, bene-benetakoak, eta uste dugu horrek lagundu egingo duela liburuko azalpenak ulertzen eta Eibarko euskara hobeto ezagutarazten. Azken batean, horixe da, gure ustez, herri bateko euskara islatzeko modurik zuzenena: lekukoen hitza.

Badakigu horrelako lanetan hainbat eztabaida izaten dela, ez baita erraza definitzea zeintzuk diren aztertu beharreko ezaugarriak eta zeintzuk alde batera laga beharreko aldaerak, salbuespenak eta bitxikeriak. Ezaugarri guztiek berdin balio dute? Edo beharbada hierarkia bat eraiki behar da euren artean? Zeintzuk aztertu? Zeintzuk ez? Eztabaida hau bizi-bizirik dago hizkuntzalarien artean, eta erantzuna ez da erraza.

Gure asmo nagusia Eibarko euskararen azterketa egitea izanik, eta ez Eibarkoa beste batzuekin erkatzea, tarteko bidea hartzen ahalegindu gara. Hau da, albo batera laga ditugu gure herriko hizkeran dauden zenbait bitxikeria eta hitz bakanetan gertatzen diren aldaera mordoa (txandakatzeak, asimilazioak, disimilazioak...), baina beste batzuk, berriz, lan honetara ekarri ditugu, nahiz eta jakin ezin ditugula arautzat hartu. Orokortasunak azaltzen ahalegindu gara, neurri batean eibartar gehienok erabiltzen/ezagutzen ditugun ezaugarriak plazaratzen, eta ez etxe bakar batzuetan jasotako adiera edo joskera bereziak. Askotan ez da erraza muga non jarri erabakitzea.

Esan bezala, makina bat lan egin izan da Eibarko euskararen hainbat esparru aztertuz, baina sakabanatu samar geratzen ziren, eta atal batzuk landu gabe zeuden oraindik (sintaxia edo fonetika, esate baterako). Gure helburua sintesi lan bat egitea izan da, Eibarko euskararen ezaugarri guztiak batuz, fonetikatik hasi eta sintaxiraino, tartean morfologia landuz. Amaieran, eibartarrez idatzitako zenbait testu zahar eta gure lekukoei jasotako zenbait pasarte ere gaineratu ditugu. Lexikoa izan da



Juan San Martin eta Toribio Etxebarria Hendaian. *Eibarko udal artxiboa.*

liburu honetan jorratu ez dugun atal bakarra. Dagoeneko Eibarko hiztegia jasotzen duten hiru liburu eder ditugu (Etxebarriaren *Lexicón* lana, *Eibarko hiztegi etnografikoa*, eta *Eibarko esakerak* liburua), eta ez zeukan zentzu handiegirik guk aurrekoek bildutakoa errepikatzea.

Eibarren kanpoko jende asko dago, eta inguruko herrietako hizkerak ere entzuten dira gure artean: Elgoibarkoa, Azkoitikoa, Durangaldekoa, Debagoienekoa... Gu Eibarko jatorrizko jarduna batzen ahalegindu gara, bertakoa, gizaldiz gizaldi gure mendi, haran eta kaleetan gorpuztu dena, bere aberastasun, aje, gabezia eta altxorrek. Eibarren jaio eta bizi izan diren lekukoak bakarrik elkarrizketatu ditugu, kasurik gehienetan gurasoak ere eibartarrak zituztenak. Gazteen jarduna ere aztertu dugu, baina kasu horretan ere gurasoak eibartarrak eta etxeko hizkuntza euskalkia dutena. Belaunaldien artean aldea dagoenean, liburuan ere adierazi egin dugu.

Garbi dago liburu honetan agertzen diren berezitasun asko galtzen ari dela. Bi-hiru belaunalditan euskarak behera egin du Eibarren, eta horrekin batera euskalkia ere ondoezik izan da. Azken hogeitun urteotan euskarak ere berriro dihardu indartzen, baina ziurrenik ez lehengo bizitasunarekin, eta euskalkitik urrunago. Liburu honetan agertzen diren ezaugarri guztiak, beraz, gaur egun bizirik daude, baina auskalo 20-40 urte barru gure artean izango diren. Nekez.

Gure aitxita-amamen belaunaldia izan da azkena ahozketasunean jaiotzen; euskaldun osoak izan dira, euskara erabili izan dute edonon eta edozertarako, gau eta egun, lanean eta etxean. Gerra aurreko azkenengo belaunaldia dira; erabat euskalduna zen Eibar hura ezagutu zuen azkenengo belaunaldia. Orain arte gure zaharregana jotzen genuen iritzi bila. Norengana joko dugu beraiek desagertzen direnean? Non geratuko dira euren berbak eta joskerak?

Beharbada eurak ez dira azkenak izan. Beharbada azkenak gu geu gara, gure aitxita-amamen jariora ezagutzeko aukera izan dugulako. Hemendik aurrerakoek ez dute guk izandako zortetik izango, baina gure eskuetan dago kateari eustea eta beraiek utzi digutena guk geuk hurrengoei ere eskaintzea.

Orain dela 30 urte pasa, 1972an, Serafin Basaurik eta Juan San Martinek Eibarko euskararen inguruko artikulu bat kaleratu zuten *Egan* aldizkarian. Egileek argi eta garbi erakusten dute, artikulu horretan, Eibarko euskara atzeraka doala, eta nekez iraungo duela luzaro. Urteak joan dira, eta Eibarko euskarak hemen jarraitzen du, gure artean, oinazez beteta, baina ez hilzorian, eta belaunaldi gazteei esker, biziberritzeko gogo betez. Horren lekuko, azken urteotan egin izan diren ikerketa eta bilketa guztiak. Gu guztion esku dago, hortaz, 30 urte barru ere oraindik gure artean egotea.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu bide honetan lagundu diguten guztiei. Gehienbat gure lekuko guztiei, liburu honetan agertzen den guztia beraiei zor diegulako. Eskerrak neurri berean zuzentzaileei, Leire Narbaizari, Serafin Basauriri eta Antxon Narbaizari, euren zuzenketa eta oharrei esker liburu honek sekulako irabaziaz izan duelako. Eta amaitzeko, Koldo Zuazori, orain urte batzuk lan hau mamitzeko bultzada ematearren eta gure zirriborroak liburu bihurtzen laguntzearren.

1.1.- ITURRIAK


Liburu honetan agertzen diren ezaugarriak jasotzeko hainbat iturritik edan behar izan dugu. Hiru egileok eibartarrak gara, aspalditik dihardugu Eibarko euskara aztertzen, eta azken urteotan dozenaka lagunekin aritu gara geure herriko hizkera jasotzen eta geure berezitasunak aztertzen. Egindako elkarrizketak ere hainbat izan dira, gehientsuenak Eibarko Udalaren «Eibartarren Ahotan»¹ proiektuaren barnean egindakoak. Proiektu horretan herriko jende nagusiari elkarrizketak egiten zaizkio, hizkera, ohiturak eta ahozko historia jasotzeko asmoarekin. Horiez kanpo ere hainbat elkarrizketa egin izan ditugu, bai liburu honetarako testigantza bila, bai azken urteotan egin ditugun beste bilketa batzuetarako (Eibarko baserrien historia, Eibarko hiztegi etnografikoa, hegaztien izenak, Eibarko toponimia...). Horietan guztietan jasotakoak liburu eta azterketa honetarako erabili ditugu.

Elkarrizketatutako lekuko guztiak eibartarrak dira, Eibarren jaiotakoak, beti bertan bizi izan direnak, eta gehienak 50 urtetik gorakoak. Auzo guztietako lekukoak elkarrizketatu ditugu. Gazteagoei ez diegu elkarrizketa berezirik egin, baina hiztun gazteagoen iritzia ere jaso dugu. Hartara, gazte(ago)en jardunean ezberdintasunak dauden kasuetan, liburuan ere aipatu egin dugu.

Eibartarren Ahotan Ahozko Artxiboa Interneten dago kontsultagai.



¹ Interneten kontsultagai, helbide honetan: http://www.egoibarra.com/Eibar/Eibartarren_Ahotan.



Eibartarren Ahotan proiektuaren aurkezpena, 2005-09-30.
José Valderrey.

Lana biribiltzeko, zenbait liburu eta idazlan ere gainbegiratu ditugu, Eibarren, zorionez, badugulako zer aztertu. Nahitaezko laguntza izan dira, besteak beste, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales del euskera dialectal de Eibar* eta *Lexicón del Euskera Dialectal de Eibar* (1963-1966 bitartean kaleratua eta 1998an berrargitaratua), *Eibarrera Jatorraren Bidetik* (Laspiur, 1999), *Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia* (Izagirre, Lizarralde eta Narbaiza, 2000), *Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea* (Areta, 2003) eta *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* (Basauri eta Sarasua, 2003). Horiekin batera, baita Eibarko euskara jasotzen eta aztertzen duten gainontzeko liburu guztiak ere; Bibliografia atalean dago zerrenda osoa.

Hala ere, oinarrizko iturria gaur egungo eibartarrena izan da. Ondorengo zerrendan agertzen diren lekukoak izan dira lan honetako ezaugarriak finkatzen lagundu diguten hizlari garrantzitsuenak. Guztira 100 lagun inguru dira, eta neurri batean oreka gordetzen ahalegindu gara, bai kaletarren eta baserritarren artean, bai auzoen artean, zein gizonezko eta emakumezkoen artean. Elkarrizketa gehienak guk egindakoak dira, baina batzuk ez. Gure eskerrik beroena elkarrizketa horiek utzi dituztenei.

Zerrenda honetako hizlariez gainera, beste hamaika lagun eta herrikideren jariora ere lagungarri izan zaigu lan hau tajutzeko, gure lagunena, ezagunena eta familia-koena. Guztien izenak ezin jarri sarrera honetan, baina eskerrak beraiei ere, denon ahotik jaso eta ikasi baitugu zeozer, eta kasu askotan, zalantza izan dugunean beraiek argitu digutelako bidea.

Hauek dira kontsultatu ditugun informanteen izen-abizenak²:

Agustín Arana Barinaga, 1913/08/28
Alberto Sarasketa, 1946/05/21
Alejandro Lizarriturri Barrutia, 1914/06/04
Ángel Albizuri Ormaetxea, 1921/07/12
Ángeles Oiarzabal Sagastikoetxea, 1909/05/24
Antonia Salaberria Azkarate, 1906/06/13 (2000)
Antonio Sarasua Gisasola, 1912/07/20 (2002)
Arnaldo Bolunburu Inza, 1933/05/09 (2005)
Asun Angera Illarramendi, 1928/12/03
Asun Larraza Zubiria, 1914/08/15 (2002)
Bartolo Arriola Garate, 1912/11/27
Cándida Eguren, 1911/11/11
Cándido Eguren Zabarte «Oka txiki», 1906/11/25 (2002)
Carmen Sarasua Mugerza, 1925/10/05
Concha Laspiur Zabala, 1924/11/30
Concha Martínez Fuldain, 1908/12/09 (2002)
Danel Zenarruzabeitia Badiola, 1927/01/03
Dolores Tolosa Lariz, 1911/09/17 (2003)
Dominga Mugarza, 1908/05/12
Dunixi Murua Sarasketa, 1931/12/12
Eloisa Narbaiza Narbaiza, 1916/12/01
Emilio Azurmendi Agirre «Sagarbitsa», 1936/09/06
Ernesto Gorosabel Amuategi, 1928/01/04
Euxebi Gisasola Aldazabal, 1922/11/05
Faustina López Larrea, 1908/10/13
Faustino Larrañaga, 1904/08/29
Felisa Atxa-Orbea, 1914/06/09 (2002)
Felisa Pascual Ucín, 1907/07/29 (2002)
Fernando Etxebarria Unamuno, 1927/05/18
Gaspar Álvarez Lucio, 1918/02/01
Gloria Lizundia Echaluze, 1912/03/25
Gonzalo Sarasua Gorrotxategi, 1913/01/10 (2003)
Isabel Irulegi Urizarbarrena, 1914/07/08
Jaione Iraeta Santa Ageda, 1921/04/11
Javier Etxebarria, 1927/10/17 (2002)
Jesusa Unzetabarrenetxea, 1918/03/31

² Zerrenda honetan aipatzen ditugun elkarrizketa gehienak *Eibarko Ahozko Artxiboan* gordeta daude, gehienak bideo formatuan. Eibarko udal artxiboa.



José Agirregomezkorta, 1919/02/09 (2003)
Jose Bergara Baskaran «Agarrazpi», 1928/02/26
José Etxeberria «Querido», 1912/02/18
Jose Gisasola «Zozola», 1912/12/10 (1997)
José Gisasola Albizuri, 1912/09/20
Jose Kareaga Guridi, 1930/03/09
Jose Mari Kruzeta Alberdi, 1930/01/07 (2002)
José Sarasua Gorrotxategi, 1923/07/10
Juan Manuel Jaio, 1927/08/08 (1998)
Juana Arrieta Leceta, 1923/12/27
Juana Rosario Altzerreka Azkonaga, 1911/09/27
Juanita Bolunburu Bernedo, 1923/05/21
Juanita Loiola Bergara, 1916/03/30
Juanito Gisasola «Txoko», 1917/11/10 (2002)
Julián Etxeberria Oruna «Ubitxa», 1913/07/27
Julio Sarasua, 1917/08/15
Justina Orozko Arrillaga, 1929/09/15
Justo Larrañaga, 1912/11/10 (2004)
Ladislao Basauri Arzuaga, 1917/09/03
Leonor Larrañaga Azurza, 1913/07/01 (2002)
Lucía Larreategi San Martin, 1909/12/13 (2002)
Luciana Larreategi Arizaga, 1912/05/28 (2003)
Lucio Gisasola Zubillaga, 1913/01/14
Maria Angeles Zulaika Barrenetxea, 1916/12/04
Mari Asun Azpiri, 1946/05/28
Maria Luisa Maitre-Jean Gorosabel, 1920/08/25
Mari Tere Iturricastillo, 1918/02/11
Maite Aranberri Mendizabal, 1942/09/22
Maite Zangitu Arana, 1945/04/15
Margarita Murgizu Azurmendi, 1910/02/22 (2004)
Marina Basterra Iturbe, 1919 (2003)
Martin Ugarteburu Eizagirre, 1925/10/12
Mercedes Telleria Izagirre, 1913/02/05
Miguel Gallastegi, 1918/02/25
Miguel Zarrabe Ansola, 1922/07/05
Niceto Markano, 1932/04/14
Nicolasa Urtiaga Irusta, 1910/12/06 (2003)
Nieves Marzana Amuategi, 1919/10/05 (2002)
Pantxika Atxalbizuri, 1917/02/24
Paulina Ugarteburu Iriondo, 1915/07/04
Paulino Larrañaga Longarte, 1918/04/13
Paz Gisasola Cisnal, 1907/02/10 (2002)

Pedro Arrizabalaga Iriondo «Zozua», 1906/07/06
Pedro Eiguren Larrañaga «Izkua», 1927/03/28
Pepe Muñoa Zabaleta, 1921/02/09
Perico Irusta, 1928/01/03
Petra Agirregomezkorta Txurruka, 1926/09/23
Polonia Loichate López, 1914/08/08
Ramón Sarasua, 1917/08/(1997)
Roberto Bilbao Azkarate, 1929/01/26
Roberto Isasi Jayo, 1935/07/23
Salvador Marzana Amuategi, 1918/01/09
Secundino Loidi Erkizia, 1919/07/01
Serafín Basauri Arteaga, 1935/04/29
Timoteo Zubiate, 1887/06/10 (1987)
Tomas Idarraga Zulaika, 1914/03/13
Vicenta Unanue Larrañaga, 1911/09/01
Vicente Areta Lezeta, 1938/04/24
V́ctor Lekunberri Arana «Otxabiña», 1913/03/25 (2005)



Azken urteotan Eibarko euskara aztertzen eta biltzen duten hainbat liburu kaleratu da.

1.2.- IKUSENTZUNEZKOAK

Liburu honekin batera DVD bat ere jaso duzu. Teknologia berrien arloan azken urteotan izandako aurrerapenak kontuan hartuta eta gaur egungo baliabide teknikoak gure esku izanik, horixe da gure herriko hizkera jaso eta zabaltzeko biderik onena. Ez dugu esango, beraz, DVDa liburuaren lagungarri denik, alderantzizkoa baizik: DVD horretan aurkituko duzu benetan Eibarko euskararen jatorrasuna eta bizitasuna, orriotan baino.

Pasarterik gehienak Eibarko hiztunenak dira. Horiek guztiok *Eibartarren Ahotan* proiektuaren barruan grabatu dira eta Eibarko Udal Artxiboak utzi dizkigu³. Horiez gainera, bailarako gainontzeko herrietako doinuak jasotzen ere saiatu gara. Neurri handi batean hizkera berdina dugun arren, badira herririk herri agertzen diren ezberdintasunak; grabazio horietan topatuko duzu herri bakoitzaren kantu berezi hori. Azken grabazio horiek Badihardugu Euskara Elkarteak utzi dizkigu, eta *Deba Ibarreko Ahotsak* egitasmo barruan egindako elkarrizketak dira⁴.

1.3.- TRANSKRIPZIOAK ETA IDAZTARAUAK

Herri bateko hizkera jaso eta aztertzeko orduan, arazo handienetako bat transkripzioak egitea da. Orain dela urte batzuk arte transkripzio hertsia-hertsia egiten ziren, laburdura eta kontrakzio guztiekin; transkripzioak ziren hizkerak jasotzeko eta ikertzeko aukera bakarra. Gaur egun, herrietako hizkerak Minidisc, DVD eta CDROM-etan gordetzen dira. Transkripzioak, beraz, hizkera aztertzeko erabili beharrean, dibulgaziorako erabiltzen dira gehienbat. Hori kontuan izanik, guk ere bide horretatik jo dugu.

Fonetika atalean idazkera fonetiko erabili dugu, noski. Hau da, ahoskera errespetatu dugu, eta hiztunek darabilten ahoskera zuzen-zuzenean papereratzten saiatu gara, laburdurak, elipsiak eta gainontzeko fenomenoak aintzat hartuz.

³ Eibartarren Ahotan: http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Ikerketak/Eibartarren_Ahotan

⁴ Deba Ibarreko Ahotsak: <http://www.badihardugu.com/ahotsak>

Gainontzeko ataletan (morfologian, aditzean eta sintaxian) azaltzen diren adibide ia guztiak, ostera, *Eibartarren Ahotan* proiekturako edo *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* libururako egindako transkripzioak dira. Proiektu horietarako irizpide jakin batzuk erabili genituen, ulergarritasuna kontuan hartuz, eta liburu honetara ere bere horretan ekarri ditugu transkripzioak, grafia aldatu barik. Guk sortutako adibideak eta azalpenak ere grafia berarekin gehitu ditugu (*detsat* eta ez *detzat*; *ziran* eta ez *siran*). Kontrakorik ez diogun bitartean, adibide guztiak ahoz jasotakoak dira.

Kontuan izan ez direla transkripzio filologiko edo fonetikoak; tesi linguistiko baterako ez lukete balioko, jakina. Baina helburua dibulgazioa denean, ulergarritasuna ere kontuan izan behar dela uste dugu. Alderdi filologiko hutsa baino, irakurlea da garrantzitsuena guretzat. Irakurleak testua irakurri ahal izatea, ulertzea eta gozatztea; aldi berean, paperean duen hizkera hori Eibarkoa dela ezagutu ahal izatea, identifikatuta sentitzea.

Irizpide nagusiak

Laburpen moduan, hauexek dira hartutako erabaki nagusiak:

1. Irakurketa samurtu egin behar dugu, baina hizlariaren euskara ahalik eta zehatzen idatziz. Ez dugu ez berbarik gehitu, ez asmatu; osatu besterik ez.
2. Berbak beti osorik eta banatuta idatzi ditugu:
esa'eban > *esan eban*
inbiot > *egin bihar dot*
orrepe bai > *horrek be bai*
etxetxuenian > *eitten dittuenian*
3. Eibarren ahoskatu ez arren, H idatzi egin dugu, ulermenaren mesedetan.
4. Eibarren Z>S bihurtzen da eta TS>TZ. Hala ere, ulermena hobetze aldera, idazteko orduan bereizi egin ditugu Z/S eta TS/TZ.
5. Berbak osorik idatzi ditugula esan dugun arren, forma batzuk lexikalizatuta daudela ikusi dugunean, hiztunak esan dituen moduan laga ditugu: *atai*, *egualdi*, *masma*, *isko*, *sur*, *keixa*, *bialdu*, *euki*, *aittu*... Horietan ez dago inongo alternantziarik; eibartar guztiak horrela esaten dituzte (eta ez *atari*, *marasma*, *idisko*, *sudur*, *gereiza*, *aditu*...). Hori dela eta, ez ditugu moldatu; gure uste apa-lean horrela ere aditzen dira eta hobeto gordetzen dute hiztunaren berbeta.

6. Bustidurak adierazi egin ditugu, hiztunak darabilen forma utziz:
 - il > ill (*harmailla, oillotoki...*)
 - in > iñ (*baiña, gaiñian...*)
 - iz > ix (*haixe, elixa, goixero...*) eta -itz- > -tx- (*hatx, gatx, bakotx, atxakixa, bikotx...*)
 - it > itt > itx (hiztun gehienek, gaur egun, bustidura azken muturreraino eramaten dute, baina guk -itt- idaztea hobetsi dugu, arrazoi historikoengatik eta ulermenaren mesedetan).

7. Aldaera fonetikoak hiztunak esan bezala laga ditugu.
 - a) Eibarren finkatuta daudenetan ez dago arazorik, esaten diren moduan laga ditugu: *bedar, baltz, txarri, ogixa...*
 - b) Alternantzia dutenetan, aldian-aldian hiztunak esan duena utzi dugu (f/j, *fan-juan*; p/f, *ipini-ifini*; b/g, *suba-suge*; g/k, *korputz-gorputz*; p/b *parkatu-bar-katu*; m/nb *trumoi-trunboi*; a/e, *hasarratu-hasarretu...*).

1.4.- EIBAR: KOKAPENA ETA EUSKARA

Lan honen jomuga Eibarko euskararen azterketa izanik, ezaugarri nagusiak aztertzen ekin aurretik, nahitaezkoa dugu herriaren kokapenari berari tartetxo bat egitea. Izan ere, gure berbetaren ezaugarriak aztertzeke eta ulertzeko ezinbestekoa da, labur bada ere, Eibarko hizkera bera kokatzea eta inguruko herriekin dituen loturak aipatzea.

Eibar Gipuzkoako mendebaleko muturrean dago, Ego errearen alboan. Bizkaiko Ermua, Zaldibar eta Mallabia ditu mugakide sartaldean, Bizkaiko Markina iparraldean, Elgoibar ekialdean, eta Soraluze, Elgeta eta Bergara hegoaldean. Gipuzkoa eta Bizkaia arteko herri izateak eragin handia izan du bere historian, eta jakina, baita hizkeran ere. Gainera, lurrez herri handiegia izan ez arren (22 Km²), ondo komunikatuta dago eta azken mendeetan inguruko herrien artean garrantzitsuena izan da, alboherrietako biztanleen bilgune (batez ere Elgeta, Soraluze eta Ermukoena). Oraindik ere, neurri handi batean hala da.

Hasiera batean Villanueva de San Andres izenez bataiatu zuten arren, bertako biztanleek berehala ahaztu zuten izen hori eta gaur egungo Eibar izenez ezagutu izan da beti. Lehenagokoa izan arren, legez 1346. urtean jaio zen, eta harrezkero eskualdeko eta probintziako historian, ekonomian eta kulturen izen berezia izan du. Ego



Eibar Iturburutik. *Asier Sarasua*.

errekaren ertzean hazi da gure hiria, iparrean Arrate-Akondia-Urko mendiak eta hegoaldean Laupago-Galdaramiño-Ilordo dituela, mendiz inguratuta, beraz. Bost auzo ditu (Otaola, Agiñaga, Arrate, Mandiola eta Gorosta), baina ez dira oso handiak eta herrigunearekin lotura zuzena izan dute beti (Agiñaga da, neurri batean, salbuespena, Markinarekin ere nolabaiteko lotura izan duelako).

Errepideei dagokienez, Eibarrek bi irteera nagusi ditu, mendebalde-ekialde norabidean. Batetik Bizkaira (Ermura) doana, eta bestetik Gipuzkoarako (Maltzagara eta handik Elgoibarrera eta Soraluze). Beste errepide bi ere baditu (bata Elgeta eta Arabarantz, eta bestea Markinara eta kostalderantz doana), baina ez aurrekoak bezain garrantzitsuak. Horiek izan dira, hortaz, Eibarrekin hartu-eman sendoena izan duten herriak: gehienbat Soraluze eta Ermua, eta pixka bat gutxixeago Elgeta eta Markina. Gehienetan Markinako eta Bergarako azpieuskalkiekin senidetuta aurkeztu izan da Eibarko euskara, baina betiere Ermua eta Soraluzearekin parekatuta. Izan ere, multzo bereko eta senitarteko ditugu Soraluze, Eibar eta Ermuko berbetak. Are gehiago, Ermukoa eta Eibarkoa ia-ia parekoak dira (Aranberri, 1996).

Esan bezala, Eibarren bertan bost auzo daude, eta euren artean ere aldeak egon badaude, auzo horien kokapenaren arabera. Horrela, Kiñarra-Otaola auzokoek

aldamenean duten Soraluze-Elgeta-Bergara inguruko ikututxoak dute, eta Agiñagoek Markina aldekoa. Baina Eibar herri txikia da eremuz, eta erdigune garrantzitsua eta garbia du. Ondorioz, auzo batetik besterako aldea hutsaren hurrengoa da. Agiñaga, Usartzatik bestekaldera dagoenez⁵, berezi samarra izan daiteke zenbait ezaugarritan, lan honetan ikusiko dugunez, baina, oro har, Eibarko auzo guztien artean batasun handia dago. Gurean ez dago Oñati, Aramaio, Markina edo Mungia bezalako herri zabaletan agertzen den auzo batetik besterako alderik. Gaur egun, ezberdintasunak izatekotan, kaletar eta baserritarren artean daude, eta horrez gainera, gehienbat, adinak eta alfabetizazioak eragiten dituenak; ez horrenbeste geografiak eragindakoak.

Ibar estu batean kokatuta, herrigune indartsua, auzoak ez nabarmenegiak, eta beste herri handiegirik ez alboan, Eibarrek eta bere euskarak nortasun berezia hartu dute denboran zehar, inguruko gainontzeko herrietatik bereizten joan dena, eta erabat gorpuztu dena gure herriko aldapetan.



Mertxete eta Areta baserriak, Otaola-Kiñarraga auzoa. *Asier Sarasua*.

⁵ Mendiaz bestekaldera dago Agiñaga, Lea-Artibai arroan. Markinako Barinaga auzoa bertan dute, Markina eta Etxebarri ingurura joateko ohitura izan dute beti, kanposantua dute... Horrek izaera berezia eman dio auzoari. Hala ere, eibartar sentitzen dira eta merkatura ere Eibarrera etorri izan dira, eta hizkeraren ezaugarri nagusiak (salbuespenak salbuespen) Eibarko berberak dira.

1.4.1.- EIBARKO EUSKARAREN KOKAPENA INGURUKOEN ARTEAN

XIX. mende amaierara arte Eibarko euskaraz idatzitako oso testu gutxi aurkituko ditugu: Arrateko kantutegiko zenbait koplak zahar, orain urte gutxi aurkitutako 1685eko koplak batzuk, 1754ko udal ordenantzak, eta azkenik, 1870 inguruan Agiñagako apaiz izandako Francisco Arrateren sermoi gutxi batzuk⁶. Ez dugu, horretara, gure herriko euskaraz idatzitako testu historiko larregirik.

Eibarko euskararen azterketari dagokionez, ostera, hainbat aipamen aurkituko ditugu. Eibarko euskararen inguruko lehenengo aipamena Aita Larramendiren lanetan aurkituko dugu, *Corografía de Guipúzcoa* liburuan, hain zuzen ere (1755 inguruan idatzia)⁷: «*En Elgoibar y más en Eibar empieza el dialecto de Vizcaya en mucha parte: eman eustan, eguin euen, buruagaz, etc. y corre por Placencia, más o menos por Vergara, Mondragón, Arechavaleta, Escoriaza, Salinas, Oñate y todas aquellas aldeas*».

Eibarko hizkera (eta Deba ibarrekoa, oro har) Bizkaikoen artekoa zela ondorengo ikerketa guztietan ere aipatuko dute. Louis Lucien Bonapartek egindako lanean ere, Eibarko euskara bizkaieraren barruan ezarri zuen, Deba ibarreko guztiekin batera (Elgoibartik Gatzagaraino) azpieuskalki berean sartuta eta Markinakotik bananduta⁸. Hortik aurrera ere, hizkuntzalari gehienek antzeko sailkapenari eutsi diote, *eibartarra* Gipuzkoako bizkaieraren eremuan sartuz, Bergarako aldaeran, hain zuzen ere, besteak beste Yrizarrek (1981).

Inguruko herriein duen harremana aztertzeke orduan, Bergarako eta Markinako aldaerekin duen senidetasuna azpimarratu izan da aldioro (Aranberri, 1996; Aurrekoetxea, 1995; Larrañaga, 1998; San Martín, 1981; UNED, 1988; Yrizar, 1981; Zuazo, 1999; Zuazo, 2002). Esate baterako, Juan San Martinek zera dio Eibar inguruko aditz-paradigmak aztertzean: «*Hala ere, gure egunotan, Elgoibarko hizkeran, gipuzkeraren kutsapenez, aditza bera aski nahastua aurkitzen da, baina Eibar, Ermua eta Mallabikoa ordea, Ego errekeren barrutikoak, Markina-Jemein eta Markina-Etxebarrikoarekin elkarrengandik senide hurbil*».

⁶ Eibartarrez idatzitako testu historikoen bilduma, *Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia* liburuan (Eizagirre, Lizarralde eta Narbaiza, 2000). Liburu honen amaieran ere agertzen dira zenbait testu.

⁷ 1882an argitaratua. Goiko aipamena 1969ko ediziotik hartua.

⁸ Hala ere, Markinakoa eta Bergarakoa, biak, Bizkaiko gainontzeokoengandik bereizita.



Bizkaiera barneko azpieuskalkiak Yrizarren arabera (Yrizar, 1981).

Aurrekoetxeak (1995) ere hurrago ikusten du Eibarko euskara Markina-Bolibar inguruko aldaeretatik, Elgoibar eta Bergarakoetatik baino. Hizkerak funtzio bereizlean aztertzerakoan ondokoa dio: *“Hizkeren arteko distantzia handienak eremuaren ekialdean agertzen dira: Gipuzkoako eta Bizkaiko hizkeren arteko mugan... (...) Eibarren kasua ere aipagarria da, Gipuzkoako inguruko hizkerekin baino harreman hobeagoak dituelako Bizkaiko H135 [Markina Etxeberri] edo H132 hizkerekin [Bolibar]”*. Bizkaierako hizkera guztien azterketa fonologikoa egitean ere Eibar aipatzen du eremu kontserbakorrenen (berezi edo isolatuenen) artean: *“Parametro honetan H120 hizkera [Bermeo] da ezaugarri propio gehien duena (...) Nahiko maila handia erakusten dute, baita: H134, H109, H124, H305 eta H303 hizkerak ere”* [Lekeitio, Orozko, Otxandio, Oñati, eta Eibar]. Aurrekoetxeak aipatzen duen hori ez da harrizkoa, herri handiak direlako gehienak, garrantzi handikoak, izaera historiko eta geografiko berezidunak, eta bizkaieraren mugakoak⁹.

Azken urteotan Koldo Zuazok euskalkien mapa berria egin du (Zuazo, 1998). Sei euskalki bereizten ditu eta Bonapartek bizkaiera deitu zion hari *mendebaleko euskalkia* deritzo¹⁰. Eibarkoa horiexen barruan legoke. Deba ibar osoa aztertzean (Zuazo, 1999), hiru multzotan sailkatzen du bertako euskara: *Debagoienekoa* (batetik, Oñatiko aldaera eta, bestetik, Leintz haranekoak: Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta

⁹ Hala ere, Eibarren kasuan, behintzat, kontuan izan behar da Aurrekoetxearen lanean ez direla aztertzen Eibarko euskaratik hurbilago dauden Bizkaiko Ermua batetik, eta Gipuzkoako Elgeta eta Soraluze bestetik, nolabait Bergara aldeko hizkerekin zubi-lana egingo zuketzen herriak.

¹⁰ Izan ere, Gipuzkoako herriak (Deba eskualdea) eta Arabakoak (Legutiano eta Aramaio) ere hartzen ditu.



Zuazok bi azpieuskalkitan banatzen du 'mendebalera': sartaldekkoa eta sortaldekkoa (Zuazo, 2000).

Aramaio), *Debaerdikoa* (Antzuola, Bergara, Soraluze, Elgeta, Eibar eta Ermua) eta *Debabarrenekoa* (Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko hizkerak). Edozelan ere, Debaerdikoen artean bi talde bereiz daitezkeela dio autoreak, Bergara aldekoa (Antzuolakoarekin batera) eta Eibar aldekoa (Soraluze, Elgeta eta Ermua barne).

Autore berari jarraituz, mendebaleko euskalki garbia da Eibarkoa. Gipuzkeraren eragina askoz nabarmenagoa da, ordea, Debabarreneko hizkera gehienetan (Mendaro, Mutriku, Deba, Itziar...), eta horietako batzuk tarteko hizkeratzat jotzen ditu Zuazok. Bergara eta Antzuolako hizkeren inguruan ere gipuzkeraren eragina aipatu izan da hainbat lanetan (Aurrekoetxea, 1995; UNED, 1988; Zuazo, 1999). Eibarko euskara, berriz, hizkera giputzen zenbait ezaugarri ere aurki dakizkioken arren, mendebaleko hizkeren artean sailkatu izan da.

Ikusi dugun bezala, gure herriko hizkera eta ingurukoetakoa aztertu duten guztiek antzeko ikuspegia dute, eta Eibarko euskara Bizkaiko hizkerekin senidetuta aurkeztu dute, batez ere Markinako eta Bergarako azpieuskalkietatik gertu. Guk geuk jasotako datuek ere ideia hori indartu dute. Hartara, Eibarko euskara mendebaleko euskalkian sailkatu behar dugu, sortaldekoko azpieuskalkian, Debaerdiko aldaeren artean eta Eibar ingurukoaren multzoan.

Lan honen helburua Eibarko hizkeraren deskribapena egitea den arren, espero dezagun hemen jasotakoa Eibarko hizkera ingurukoaren artean hobeto kokatzeko ere lagungarri izatea. Lan honetan batu ditugun datu guztiak kontuan hartuz, liburu honen azkenurreko atalean, Eibarko euskararen kokapen dialektologikoa sakonago aztertzen ahaleginduko gara.

Eibar inguruko hizkerak. Berbeta-eskualdeak eta trantsizio guneak koloreka.



1.4.2.- EUSKARAREN BILAKAERA EIBARREN

Eibar herri txikia zen bere jaiotzan, baina industria indartu ahala, XVII-XVIII. mendeetan, handitzen joan zen. Armagintzak XIX. mendetik aurrera bizi izan zituen unerik oparoenak. Lantegi ugari, salmenta handiak, indar handiko lantegiak (Victor Sarasqueta, Orbea, Bonifacio Echevarria, GAC, Beistegui...), ia eibartar guztiak armen inguruan lanean, eta diruaren usainera hainbat kanpotar heldu zen bertara. 1750ean zeuden 1.500 biztanleak 5.382 bihurtu ziren 1890ean. Hasieran Eibarrera heldutako etorkin gehienak Bizkaiko eta Gipuzkoako inguruko herrieta-koak izan ziren.


XX. mendeko lehenengo erdialdean, euskaldun gehienak oraindik ere euskal hiztun ziren arren, euskara atzeraka hasia zen, eta euskaldun askoren artean etsipena, konplexua eta autogorrotoa agertu ziren, batez ere herririk hazienetan eta industriagune-



Mandiola auzoa eta barrenean Urko. *Asier Sarasua*.

etan. Eibar ere halakoxea zen, baina gure herriko egoera oso ezberdina zen. *“Eibarren euskeraz erabiltzen dittugu autu guztiak, bai zerukuak bai lurrekuak”* diosku Toribio Etxebarriak. Horrek esaldiorrek esangura sakona dauka Eibarren eta euskararen arteko loturaz jabetzeko. Industriak sustraiak botatzen ziharduen sasoi haretan, Eibarko bizimoduan euskara zen komunikazio-tresna ia bakarra. Lekukoek eta idazkiek argi lagatzen duten moduan, Eibar euskaraz bizi zen herria zen.

Gerra ostean (1940tik aurrera) gertatu zen bigarren iraultza. Arma-lantegi gehienak bizikletak, autoentzako piezak, makinak edo josteko makinak egiten hasi ziren, eta Eibarko ekonomiak sekulako igoera izan zuen hurrengo 25-30 urteetan. Aldaketa industrial eta ekonomiko horrekin batera jasan zuen hiriak bere historiako aldaketarik handiena, bilakaera ekonomiko horrek ekarri baitzituen aldaketa soziala (milaka lagun enotzera, lan bila) eta urbanistikoa (gerran ia herri osoa erre ondoren, helduberri horientzat milaka etxebizitza egin beharra). Herria, 1945-1975 bitartean, 13.823 biztanletik ia 40.000 biztanlera igo zen, eta erreka aldameneko lurrek gainezka egin ostean, alboetako mendi-malda zorrotzak lapurtu behar izan zituen herriak, gaur egun duen itxura hartu arte. Bigarren giza uholde horretan, inguruko herrietako jendea ez ezik, Euskal Herri kanpotik ere asko etorri ziren.



Aurrera lantegia 1910 inguruan. Antonio Sarasuaren bilduma.




Isasiko konbentua eta Armeria eskola 1920 inguruan. *Eibarko udal artxiboa.*

1936 arte ia herri guztia euskalduna bazen ere, diktaduraren mehatxuak eta milaka kanpotarren etorrerak eragin handia izan zuen ordura arte erabat euskaldun zen herrian. Kanpotarrak herritarrak bezainbeste izanik, ez zuten euskaraz ikasteko beharrik, eta bertako askok ere euskara galdu egin zuten. Dena dela, kultura-mugimendu euskaltzale indartsua jaio zen 1960. hamarkadan, Club Deportivo Eibar, Arrate Kultur Elkarte eta Eibarko Ikastolaren inguruan. Haiiek eutsi zioten Eibarko euskarari sasoi ilun haietan, eta baita ondorengo urteetarako haziak erein ere. Azken 30 urteotan, ikastolen eta alfabetatze-kanpainen eraginez, badihardu berriro ere euskarak goraka. 2001eko datuen arabera, herritarren %51,8 da euskalduna, %14,7 ia euskalduna, eta %33,5 erdalduna. 2002-2003 ikasturteko datuen arabera, Eibarko ikastetxeetan matrikulatutako gazteen artean (6-18 urte bitartekoak), %49,3 D eredukoak dira, %21,2 B eredukoak, eta %29,5 A eredukoak. Haur hezkuntzari dagokionez, ia haur guzti-guztiak B eta D ereduetan matrikulatuta daude.

Euskalkiaren egoera

Euskalkiari dagokionez, duela urte gutxira arte Eibarrek indarrez gorde du bere hizkera, Eibarko berbeta, eraso eta arerio guztien gainetik. XIX. mendetik XX.era jausi horretan, oraindik ere euskalduna-baserritarra-fededuna hirukotea erabat sustraiturik zegoen garaian, Eibarko egoera soziala oso ezberdina zen, eta poliki-poliki sozialismoa errotzen hasia zen. Horrek guztiak susmo txarrak sortu zituen euskaltzale eta abertzaleen artean, ez baitzuten ulertzen euskara erabiltzea komunismoaz, ateismoaz edo iraultza sozialaz hitz egiteko. Eibarko euskarak makinatxo bat eraso izan zituen elizgizonen eta ustezko euskaltzale batzuen eskuetatik, gehienetan arrazoi linguistikoetan baino, politiko eta erlijiosoetan oinarrituz. Inongo arrazoi linguistikorik ez duen ospe txar horrek, baina, oraintsura arte iraun du, eta Eibarko euskararen ustezko mordoilokeria oraindik ere hizpide da zenbaitzuren ahotan.

Hala ere, Eibarko berbetaren aurkako erasoen auzian, kanpokoan aurrean eibartarrok denok baturik egin ohi dugu aurre. Lotsatu beharrean, harrotu eta gureari tinko eutsi diogu, azken batean, euskara guretzat ez delako apaingarri hutsa izan, eguneroko bizitzarako tresna baizik, *autu guztien gainean* jarduteko erreminta, eta gure eguneroko erreminta dugun bitartean, gurea da, eta erabilgarria zaigu. Eibarko euskara “urbanoak” erabilgarritasuna eta sasoian sasoiko bizimodura egoitzeko gaitasuna erakutsi ditu. Juan San Martinen hitzak hartuz, neurri batean «*bidegile ere izan da bertoko euskara*», berrikuntza guztiak hasiera batean eragiten duten modu bateko edo besteko zalapartarekin.



Serafin Basauri, euskarak Eibarren izan duen bultzatzaile nagusietakoa.
José Valderrey.



Eibarko ikastolak 45 urte bete ditu aurten, eta argazkikoak dira bertaratu diren azkenengo umeak. Euren esku dago geroa. *Ainhoa Iturriotz.*

Erasoen aurrean eibartarrok geureari eutsi diogu. Ez dugu gaztelaniara jo, eta inguruko beste herri batzuetan kontrakoa gertatu bada ere, gipuzkerarako joera nabariegirik ere ez da izan, ez herritarren artean, ez agintarien artean. Horretan zeresan handia izan dute, ziurrenik, hiru ezaugarrik: batetik, herrian jauntxorik ez izateak (Bergaran edo Durangon ez bezala); bestetik, azken belaunaldiek ezagutu dituzten apaiz gehienak (edo esanguratsuenak) bizkaitarrak edo Eibar ingurukoak izateak; eta amaitzeko, herriko idazleek ere bertako hizkera erabili eta goraipatu izateak. Herrian izan den joera horrek bertako euskararen ezaugarrietan ere eragin nabaria izan duela iruditzen zaigu.

Gorabeherak gorabehera, Eibarko berbetak ondo eutsi dio edozein erasori, eta mordoilokeria guztien gaintetik, euskara bizi eta aberatsa izan dugu Eibarren, gure arbasoengandik jaso eta geuregana heldu dena, eta oraindik ere bizirik duguna.

1.4.3.- EUSKARAREN EGOERA GAUR

Aurreko orrialdeetan aipatu dugun bezala, euskarak atzerakada handia jasan du Eibarren azken 60 urteotan. Lehen aipatu ditugun arrazoiak direla eta, gaur egun eibartarren erdia, gutxi gorabehera, erdaldun elebakarra da, euskaraz egiteko gauza ez dena. Kale-erabileran ere euskararen lekua ez da guk nahiko genukeenaren parekoa; inguruko herri gehienekin alderatuta (Ermuan izan ezik), den-denetan Eibarren baino euskara gehiago entzuten da. 2004ko kale-neurketen arabera, Eibarko elkarrizketen %20,8 da euskaraz, eta %79,2 gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean.

Azken urteotako bilakaera aztertuta, baina, badira pozik egoteko zenbait datu. Eibarren sekula ez da izan horrenbeste hiztun euskaldunik. Une honetan 15.000 euskaldun inguru bizi gara Eibarren. Ez da gutxi. Gainera, urterik urte goraka doa euskaldunen kopurua eta ikastetxeetan euskaraz ikasten duten haurrena. Gu guztion eskuetan dago, beraz, eta batez ere gazteenen eskuetan, etorkizuna euskaraz bizi ahal izatea.

Hona hemen euskarak gaur egun Eibarren duen lekuaren inguruko zenbait datu¹¹.

Hizkuntza-gaitasuna

| | 1981 | 1986 | 1991 | 1996 | 2001 |
|----------------------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Guztira | 34488 | 32913 | 31187 | 29341 | 27130 |
| Elebidunak | 13144 | 14517 | 14601 | 14565 | 14048 |
| Hartzaileak | 6576 | 4242 | 3882 | 3704 | 4013 |
| Erdaldun elebakarrak | 14768 | 14154 | 12704 | 11072 | 9069 |

¹¹ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako datuak. 2001. urtekoak dira, eta bost urtetik gorako biztanleen datuak dira.

Lehen hizkuntza

| | 1986 | 1991 | 1996 | 2001 |
|------------------------|-------|-------|-------|-------|
| Guztira | 32913 | 31187 | 29341 | 27130 |
| Euskara | 12589 | 13014 | 11761 | 10023 |
| Euskara eta gaztelania | 3393 | 1684 | 1653 | 1976 |
| Gaztelania | 15886 | 15849 | 14875 | 14187 |
| Besterik | 1045 | 640 | 1052 | 944 |

Hizkuntza-bilakaera

| | 1986 | 1991 | 1996 | 2001 |
|------------------------------|-------|-------|-------|-------|
| Guztira | 32913 | 31187 | 29341 | 27130 |
| Euskaldunak | 11464 | 11766 | 10711 | 9249 |
| Jatorrizko elebidunak | 2219 | 1127 | 1210 | 1631 |
| Euskaldun berriak | 834 | 708 | 2644 | 3168 |
| Partzialki euskaldun berriak | 2466 | 2435 | 2489 | 3061 |
| Partzialki erdaldunduak | 1776 | 1447 | 1215 | 952 |
| Guztiz erdaldunduak | 523 | 358 | 278 | 167 |
| Erdaldunak | 13631 | 12346 | 10794 | 8902 |

Etxeko erabilera

| | 1991 | 1996 | 2001 |
|------------------------|-------|-------|-------|
| Guztira | 31187 | 29341 | 27130 |
| Euskara | 6448 | 5234 | 5245 |
| Euskara eta gaztelania | 5776 | 5526 | 5149 |
| Gaztelania | 18733 | 18231 | 16309 |
| Besterik | 230 | 350 | 427 |

HIZKUNTZA-EREDUEN BILAKAERA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA

| | 1983-1984 | 1984-1985 | 1985-1986 | 1986-1987 | 1987-1988 | 1988-1989 | 1989-1990 | 1990-1991 | 1991-1992 | 1992-1993 | 1993-1994 | 1994-1995 | 1995-1996 | 1996-1997 | 1997-1998 | 1998-1999 | 1999-2000 | 2000-2001 | 2001-2002 | 2002-2003 |
|-----------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Guztira | 9756 | 9647 | 9375 | 9218 | 9046 | 8870 | 8842 | 8577 | 8240 | 7971 | 7588 | 7184 | 7059 | 6749 | - | 5460 | 5224 | 4941 | 4732 | 4591 |
| Guztira | 6530 | 6376 | 5845 | 5643 | 5351 | 4944 | 4775 | 4312 | 4099 | 3769 | 3480 | 3259 | 3099 | 2798 | - | 1793 | 1615 | 1511 | 1450 | 1353 |
| A eredia | 931 | 1136 | 1268 | 1433 | 1550 | 1699 | 1828 | 1900 | 1970 | 1987 | 2024 | 1910 | 1804 | 1697 | - | 1582 | 1429 | 1298 | 1189 | 973 |
| B eredia | 1867 | 1959 | 2105 | 2142 | 2145 | 2158 | 2164 | 2138 | 2087 | 2014 | 1932 | 1896 | 2098 | 2204 | - | 2071 | 2150 | 2132 | 2093 | 2265 |
| D eredia | 428 | 176 | 157 | 0 | 0 | 69 | 75 | 227 | 84 | 201 | 152 | 119 | 58 | 50 | - | 14 | 30 | 0 | 0 | 0 |
| X eredia | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Publikoa | 5231 | 5097 | 4883 | 4859 | 4766 | 4676 | 4869 | 4827 | 4676 | 4542 | 5409 | 5131 | 5131 | 4892 | - | 3980 | 3754 | 3522 | 3388 | 3282 |
| Guztira | 4267 | 4270 | 3831 | 3789 | 3573 | 3358 | 3424 | 3124 | 3101 | 2831 | 2626 | 2434 | 2303 | 2076 | - | 1498 | 1350 | 1248 | 1208 | 1150 |
| A eredia | 442 | 488 | 594 | 678 | 743 | 776 | 829 | 871 | 836 | 852 | 1146 | 1081 | 1034 | 933 | - | 736 | 623 | 548 | 494 | 307 |
| B eredia | 132 | 163 | 301 | 392 | 450 | 542 | 616 | 681 | 739 | 755 | 1570 | 1567 | 1794 | 1883 | - | 1746 | 1781 | 1726 | 1686 | 1825 |
| D eredia | 390 | 176 | 157 | 0 | 0 | 0 | 0 | 151 | 0 | 104 | 67 | 49 | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| X eredia | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Pribatua | 2698 | 2705 | 2655 | 2597 | 2600 | 2619 | 2523 | 2407 | 2328 | 2279 | 2179 | 2053 | 1928 | 1857 | - | 1480 | 1470 | 1419 | 1344 | 1309 |
| Guztira | 2263 | 2106 | 2014 | 1854 | 1778 | 1586 | 1351 | 1188 | 998 | 938 | 854 | 825 | 796 | 722 | - | 295 | 265 | 263 | 242 | 203 |
| A eredia | 188 | 305 | 313 | 385 | 443 | 559 | 656 | 712 | 843 | 871 | 878 | 829 | 770 | 764 | - | 846 | 806 | 750 | 695 | 666 |
| B eredia | 209 | 294 | 328 | 358 | 379 | 405 | 441 | 431 | 403 | 373 | 362 | 329 | 304 | 321 | - | 325 | 369 | 406 | 407 | 440 |
| D eredia | 38 | 0 | 0 | 0 | 0 | 69 | 75 | 76 | 84 | 97 | 85 | 70 | 58 | 50 | - | 14 | 30 | 0 | 0 | 0 |
| X eredia | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Ikastola | 1827 | 1845 | 1837 | 1762 | 1680 | 1575 | 1450 | 1343 | 1236 | 1150 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| A eredia | 301 | 343 | 361 | 370 | 364 | 364 | 343 | 317 | 291 | 264 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| B eredia | 1526 | 1502 | 1476 | 1392 | 1316 | 1211 | 1107 | 1026 | 945 | 886 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| D eredia | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| X eredia | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

2004KO KALE NEURKETA¹²

- EUSKARAREN ERABILERA BELAUNALDIKA**

| | Haurrak | Gazteak | Helduak | Zaharrak | Guztira |
|------------|---------|---------|---------|----------|---------|
| Erdaraz | 869 | 632 | 2203 | 1825 | 5528 |
| Euskaraz | 483 | 263 | 327 | 377 | 1450 |
| % Euskaraz | %35,7 | %29,4 | %12,9 | %17,1 | %20,8 |

- EUSKARAREN ERABILERA AUZOKA**

| | Amaña | Ipurua | Urki | Herri Ardatza | Urkizu | Guztira |
|------------|-------|--------|-------|---------------|--------|---------|
| Erdaraz | 832 | 489 | 356 | 2759 | 1092 | 5528 |
| Euskaraz | 260 | 272 | 137 | 578 | 203 | 1450 |
| % Euskaraz | %23,8 | %35,7 | %27,8 | %17,3 | %15,7 | %20,8 |

- EUSKARAREN ERABILERA ESPARRUKA**



| | Jolas-pasealekuak | Erosketak | Txikiteoa | Familia | Guztira |
|------------|-------------------|-----------|-----------|---------|---------|
| Erdaraz | 1178 | 1364 | 1530 | 1456 | 5528 |
| Euskaraz | 610 | 186 | 352 | 302 | 1450 |
| % Euskaraz | %34,1 | %12 | %18,7 | %17,2 | %20,8 |

- EUSKARAREN ERABILERA GAZTE GIROAN (ostiraletan eta jai-giroan)**

| | Gazteak | |
|------------|---------|-------|
| % Euskaraz | 322 | %26,8 |
| % Erdaraz | 879 | %63,2 |

¹² Eibarko udalak eta ...*eta kitto!* euskara elkarteak 2004an egindako kale-neurketatik jasotako datuak.

EUSKARAREN ERABILERA BELAUNALDIKA ETA AUZOKA: 2002-2004



Aztertutako urte-segida (2002-2004) laburregia da joera nabariak antzemateko, baina badira puntu interesgarri batzuk. Euskara gutxien helduek erabiltzen dute, gerra ostean jaiotako belaunaldikoek (asko kanpotik etorriak, eta hemen jaiotako ere, euskaraz ikasi ez zutenak). Zaharren artean ere gaztelania da nagusi. Gainera, urteak igaro ahala, nagusien artean euskararen erabilera beheraka doa, atzetik datorren belaunaldia erdaldunagoa delako. Erabilera-maila handiena, berriz, gazteen eta umeen artean aurkituko dugu, gehienbat azken horien artean. Dena dela, ez dirudi azken urteotan gorakada nabaririk izan denik.

Belaunaldien arteko desoreka horrek ere eragina izan du auzoetan egiten den euskara-kantitatean. Oraintsura arte, herrigunea zen alderdirik euskaldunena, eta auzoak, berriz, kanpotar gehien zituzten inguruak. Familia gazteak auzoetara bizi izatera joaten ari direnez, ingurune horiek ere euskalduntzen ari dira, eta azken neurketaren arabera, auzorik euskaldunenak Urki, Ipurua eta Amaña dira, historikoki erdaldunenak izan direnak.

Hala ere, esan bezala, goiko azterketa hori laburregia da ondorio garbiegirik ateratzeko.

Ezaugarri fonetikoak



*Eta gero, ba, erderarik ez guk! Erderarik bape
ez genkixan, eta ipiñi eskuen, ba, txakur txikixa
multia euskeraz eitten dabenari. Orduen txakur
txikixa be dirua zan, ta bata bestia zaintzen!
Ño! Txakur txikixa zertzeko! Ta hasi giñan, ta
holaxe ikesi gendun erdera pixkat defenditzeko
beste...*

Euxebi Gisasola, "Zumaran"

2. EZAUGARRI FONETIKOAK

Atal honek hiru zati nagusi ditu. Hasteko, Eibarko hizkeraren ezaugarri fonologiko nagusiak zehaztuko ditugu: lehenengo, bokalak (hiatoak, diptongoak, bokal geminatuak eta aldaera nagusiak); gero, kontsonanteak (taldez talde, kontsonanteen kokapena eta aldaerak aztertuz); eta, amaitzeko, palatalizazioak eta arau morfofonologikoak. Ondoren, Eibarko aldaera lexikalen zerrenda txiki bat ere gehitu dugu. Eta azkenik, Aurrekoetxeak (1995) eta Zuazok (1998) euskalkiak eta hizkerak erkatzeko egindako lanetan erabili dituzten ezaugarri fonologikoen zerrenda sartu dugu, eta zerrenda horretan Eibarko ezaugarriak txertatu.

Alderdi fonologikotik aztertzeko orduan, Eibarko euskarak (eta mendebalekoak oro har) ez du bereizgarri larregirik. Gaur egun ihartuta dauden antzinako zenbait arau alde batera utzita (*urten* vs. *irten*, *barri* vs. *berri*, *lora* vs. *lore*, *ezpain* vs. *ezpain*, *atx* vs. *haitz*), bereizgarri gutxi ditu mendebaleko euskarak alderdi honetan (Zuazo, 2003). Hala ere, badira makina bat ezaugarri, aipatzeko modukoak, gure herriko euskarari doinu berezia ematen diotenak. Hurrengo orrialdeetan aztertuko ditugu guztiak.

2.1.- BOKALISMOA

2.1.1.- HIATOAK

2.1.1.1.- Berba amaierako bokal-elkarketak

Alderdi fonetikotik begiratuta, bokalak elkartzekoan gertatzen diren aldakuntzak dira fenomenorik esanguratsuenak Eibarko hizkeran.

A amaieradun berbak

Hauxe dugu mendebaleko hizkeren ezaugarri fonologiko berezi bakarretakoa. Hitz amaieran *-a* duten hitzei nominatibo singularreko mugatzaile-marka gehitzen zaienean, erroa disimilatu egiten da, **a+a>ea**. Bilakaera orokor horrek bigarren mailako hainbat aldaera ditu azpieuskalkiaren arabera. Horrela: **a + a = ea > ia > ie > i**. Hau da: *alabaa > alabea > alabia > alabie > alabi*.

Ezaugarri horrek mendebal osoa hartzen du, eta Gipuzkoako bizkaiera gaindituz, Itziar, Azpeitia eta Goierriaraino heltzen da (Zuazo, 1995).

Eibarren, bi disimilazio gertatzen dira eta, beraz, **-a + -a > ea > ia**:

*alaba + -a > **alabia***
*umekerixa + -a > **umekerixia***
*okela + -a > **okelia***

Nominatiboko mugatu singularrean moduan, berdin egiten dute kasu-marka singular guztiek: ergatiboak, datiboak eta genitiboak (eta baita genitibo-markaren gainean eraikitzen direnek ere):

*alaba + -(a)k > **alabiak***
*umekerixa + -(a)ri > **umekerixiari***
*okela + -(a)n > **okelian** (okelaren)*
*taberna + -(a)kin > **taberniakin** (tabernarekin)*
*aista + -(a)ndako > **aistiandako** (ahizparentzako)*

Hala ere, kontuan izan behar da kasu-marken pluralekin eta beste postposizio-markekin (leku-denborazkoekin, partitiboarekin eta prolatiboarekin) ez dela berdina gertatzen, eta ez zaiela *-i-* eranstean. Izan ere, horrelakoetan ez dago mugatzaile singularreko markarik eta, ondorioz, ezin disimilaziorik gertatu.

erota + ak > errotak
erota + n > errotan
erota + tik > errotatik
erota + ra > errotara
erota + ko > errotako
erota + rutz > errotarutz
erota + tzat > errotatzat
...

Kontu horrek garrantzi handia du, azken urteotan Eibarko euskarara hurreratzeko ahaleginetan sarri entzuten direlako gazteen artean horrelako egitura okerrak:

beran ***alabiak** etorri dira (vs. *alabak*)
astua ***errotian** dago (vs. *errotan*)

Kontuan izan, era berean, *ama*, *aita*, *ugazaba*, *aitajauna*, *jauna*, *amama* eta antzeko berbek ez dutela mugatzailerik hartzen. Esate baterako:

mgg bost **uesaba** euki dittu taillar onek igestik ona
mg sing. Solac-eko **uesaba** ikusi juat Urkusutik gora

Baina *ama*-ren kasuan, normal deklinatzen da ‘animalien ama’ esangura duenean:

gure **txarriamiak** bost txarrikuma euki dittu oinguan

Eibarko euskarak ondo gorde izan ditu beste hizkera batzuetan galdu diren *-a* itsatsi gehienak, ziurrenik, aurreko ezaugarri horren ondorioz. Adibidez: *gausa*, *arrantza*, *abixa*, *ferixa*, *animalixa*, *atxakixa*, *fristixa*, *txarrikerixa*, *tontokerixa*, *jakitturixa*, *famelixa*... eta mailegatutako beste mordoa: *memorixa*, *industria*, *farmasia*... Horiek guztiak ere normal deklinatzen dira. Kasu batzuetan, amaierako bokal hori galtzen ari da gazteen artean, esate baterako, *giltz*, *kate*, *are* (‘hondar’)... baina hiztun nagusi batzuek oraindik ere *giltzia*, *kataia* eta *ar(e)ia* ere erabiltzen dituzte mugagabeen. *Anaia* hitzaren kasuan erabat galdu da *-a* itsatsia, eta *anai* esaten dute eibartar guztiek.

E amaieradun berbak

Deba ibar osoan moduan, **e + a, e, o > ia, ie, io**. Esate baterako¹³:

| | |
|---------------------|---|
| e+a >ia: | <i>etxia, emia, lusia, guria, bakia, esnia, amandria...</i> |
| e+e > ie: | <i>senidien, etxietako, emakumiekin, kotxien...</i> |
| e+o > io: | <i>semiondako, ori etxiori...</i> |

I amaieradun berbak

Amaieran **-i** duten hitzek, mugatzaile marka gehitzen zaienean, **-x-** epentetikoa hartzen dute, **i+a>ixa**: *txorixa, txarrixa, ogixa, mendixa, bustixa, sugastixa* ('zuhaiztia'), *aristixa, arpegixa...*

Berdin, **i+e,o > ix, ixo**: *mendixok, aristixetan, txarrixen, beixok...*

Araua deklinabideko beste atzizki guztiekin ere betetzen da, jakina, eta baita beste atzizki batzuekin ere, besteak beste konparatzaileekin, **-egi, -ago** eta **-en** atzizkiak hartzean. Baina kasu honetan, salbuespenak daude, **-x-** epentetikoa ez delako beti agertzen. *Gitxi* berbak ez du hartzen (*gitxiegi, gitxiao, gitxien*; eta ez **gitxixegi, *gitxixao, *gitxixen*). Gainontzeko izenlagunekin, kontuak ez dira hain argiak. Normalean, **-egi** atzizkiarekin ez dute **-x-** epentetikorik hartzen (*barriegi, txikiegi, aundiegi, bisiegi...*)¹⁴; beste atzizkien kasuan, ostera (**-ago** eta **-en**) normalean **-x-** agertzen da: *barrixena, txikixaua, aundixaua, bustixaua...*

Epentesiaren arau honek hedadura zabala du Euskal Herrian, baina oso ebakera ezberdinekin. Hiru bai gutxienez, sortaldetik sartaldera: **-iya, -ixa**, eta **-idxa**¹⁵. Eibarren erdiko ebakera erabiltzen da (**-ixa**), Deba arro osoan eta inguruan moduan (Azkoitian, Itziarren, Aramaion, Markinan, Ondarroan, Zaldibarren).

Dena dela, lege orokor horri kontra egiten dioten berba multzo bi ere badaude. Bate-tik, gaztelaniazko **-(i)ón** bukaeradun berbetatik mailegatutakoak (*arratoi, meloi, limoi, kamioi...*); bestetik, jatorriz **-ae** (edo **-oe**) bukaera zuten eta egun **-ai** (**-oi**) ahoskatzen diren hitzen multzoa (*anai, gastai, kanpai, biai, egoi...*). Horiek **-e** bukaeradun berben amaiera hartzen dute:

¹³ Salbuespena dira **ke** eta **te** monosilaboak, bokal luzekoak bailiran jokatzeko direlako: **ke+a > keia; te+a>teia**.

¹⁴ Belaunaldi gazteen artean aruntagoak dira **x-**dun formak, *txikixegi, barrixegi...*

¹⁵ **-idxa** adierazten dugun horrek hainbat ebakera izan ditzake.

*anai + a > **anaia** / *anaixa¹⁶*
*hegoi + a > **egoia** / *egoixa*
*kanpai + a > **kanpaia** / *kanpaixa*

Arau orokorraren salbuespen da, era berean, *guztia*¹⁷ hitza. Gazteen artean analogiaz *gustixa* esateko ohitura zabaltzen hasi den arren (Aranberrik, 1996, ohar berbera egiten du Ermurako), Eibarko hizkeran, eskualdeko hizkera gehienetan legez (Soraluzen, Elgetan, Bergaran, Antzuolan...) *gustia* da forma mugatua¹⁸. Horretan ezberdin jokutzen du Bizkaiko inguruko hizkerekin konparatuz gero, gehienetan *gustixa* esaten baita, bai Durangaldean, bai Lea-Artibain, bai Busturialdean (Gaminde, 1999; Bilbao, 2002). Elgoibarren ere *gustixa* esaten da (Leon, 2004).

Hemen Eibarko adibide batzuk:

*Auxe maixau lakotxe edo txikitxuaua isango suan, fusilla dana piesa **gustiak** desmontauta, dana!*

*Karamelerua domeka **gusti-gustietan** etortzen san, kalerik kale. Ardantzara etortzen san ta kantau eitten eban.*

O amaieradun berbak

Deba ibar osoan moduan, **o+a,e,o > ua, ue, uo** da ohiko bilakaera Eibarren. Adibidez: *astua, potolua, berua, mokordua, mausoleua, memelua, artua, besuetan, neskatuok...*

U amaieradun berbak

Talde honetako hitzak ez dira aldatzen deklinabide-kasuak hartzen dituztenean. Adibidez: *dirua, eskua, mirua, katua...*

¹⁶Hala ere, esan behar da gazte gutxi batzuen artean hasi dela zabaltzen orain arte arrotza zen *anaixa* aldaera, ziurrenik analogiaz sortua.

¹⁷Salbuespen da, era berean, *alai* hitza. Berez, forma mugatua *alaixa* beharko zukeen arren, askotan *alaia* egiten da Eibarren; nagusien artean behinik behin. Horretan zeresana izango du, ziurrenik, Eibarko eguneroko hizketan leku txikia izatea (normalean *alégria* esaten baita). Berba erdi-arrotza izanik, eta beharbada *anaia* hitzarekin duen analogiak bultzatuta, normalean ez du epentesirik hartzen.

¹⁸Eibarko euskaraz idatzitako testu zaharrak aztertuz gero, *gustia* zein *gustixa* agertzen da 1754ko udal ordenantzetan, baina *guztia* besterik ez Arrate, Etxebarria eta Iturrioz-en lanetan (Izagirre et al., 2000).

Hala ere, badirudi ez dela beti horrela izan. J. A. Mogel idazle eibartarrak XIX. mende hasieran idatzitako testuetan badira *u+a>uba* tankerako hiatoak (*barberuba, buruba, escuba, miruba, erretilluba...*). 1754ko Eibarko udal ordenantzetan¹⁹ ere agertzen da, lehen aldiz gure inguru honetan (*atrebiduba, onrrauba, graduban, Conzejubaren, errejimenttubac...*), eta Bergarako udal artxiboko XIX. mendeko agirietan ere behin baino gehiagotan ageri da *lauba* ('laua') aldaera.

Gaur egungo hizkeran, baina, ez dago inongo aztarrenik. Ezta 1887an jaiotako Toribio Etxebarria idazlearen lanetan ere, gainontzeko aldaerak ondo adierazten dituen arren. Pixka bat lehenagokoa den Francisco Arrate Agiñagako apaizaren sermoietan ere ez dago horren aztarrenik²⁰.

Gaur egun nahiko hedadura txikia duen bilakaera da (Gipuzkoa iparraldea, Sakana eta Lapurdiko zenbait hizkera²¹) eta, gainera, badirudi hainbat eskualdetan atzeraka doala (Hurtado, 2001). Ziurrenik, Eibar bilakaera horren muga egongo zen, eta azken 150 urteotan erabat desagertu da gure ingurutik. Dena dela, ezin esan lehenago ere gure herriko hizkeran zein hedadura izan zuen, eta Eibarko hizkeratik noiz desagertu zen²².

Arau morfofonologikoen laburpena

Orain artekoak kontuan hartuz, Eibarko hizkeran hitz amaierako bokal-elkartzeen laburpena egin dezakegu, eta inguruko hizkerekin konparaketa egin. Gamindek (2002) Bizkaiko hizkeretan gertatzen diren mugatzaile-egokitzapenak aztertzerakoan, zazpi arau morfofonologiko aipatzen ditu eta, horien arabera, sei eskualdetan banatzen du bizkaiera. Guk, orain arte esandakoaren arabera eta Gaminderen arauak eta sailkapena oinarri hartuta, beste eskualde bi gehituko dizkiogu Gaminderen hasierako taulari, Deba ibarreko hizkerari dagozkienak (kanpoan laga dugu ezaugarri bereziak dituen eta sarritan mendebaleko hizkeretatik bereizten den Debabarrena inguruko hizkeren multzoa: Elgoibar, Mutriku, Mendaro eta Deba). Beheko taulan ikusten den moduan, ez dira izaera bereziko eskualdeak: Debaerdiko hizkerak 6. eskualdeko hizkerekin egiten dute bat; Debagoienak 4. eskualdearekin.

¹⁹ Eibarko Udal Artxiboa, A.22.5.


²⁰ San Martin, 1992.

²¹ Zubeldia, 2005.

²² Lea-Artibain oso azkar desagertu omen zen, 50 urte eskasean, XIX. mende hondarrean (Hualde et al., 1994).

| | a>e/ a | 0>C / i a,e,o | e,o> i, u / a,e,o | a>e/ i,u (C) | a>0 /V |
|-----------------------------|--------------------|-----------------|--------------------------------|--------------------|----------------|
| | | Txertaketa | Bokal itxiera; disimilazioa | /a/ren asimilazioa | Bokalen galera |
| | alaba + a > alabia | ogi + a > ogixa | etxe + a > etxia | etxie, ogixe | alabi, etxi... |
| (1) Eskualdea ²³ | + | - | - | + | - |
| (2) Eskualdea | + | - | - | + | + |
| (3) Eskualdea | + | - | + | + | + |
| (4) Eskualdea | + | + | + | + | - |
| (5) Eskualdea | + | + | + | + | + |
| (6) Eskualdea | + | + | + | - | - |
| (7) Debaerdikoa | + | + | + | - | - |
| (8) Debagoiena | + | + | + | + | - |

2.1. Taula. Gaminde-tik (2002) moldatuta. Azkenengo bi eskualdeak guk gehitutakoak. Debaerdiak (Eibar barne), Ermuarekin egiten du bat; Debagoienak (Oñati izan ezik), Durangaldearekin eta Gernika aldeko hizkerekin. Mapa ere Gaminde, 2002.



Orain arte esandako guztiaren ondorioz, badira Eibarko euskararen hitz amaierako bokaletan gertatzen diren zenbait nahaste. Gero ikusiko dugun moduan, *a* amaieradun berbek eta *e* amaieradunek mugatzailea hartzen dutenean emaitza berbera dutenez (*ale + a > ia*), *e* amaieradun berba asko *a* amaieradun bihurtu dira (*lora, landara, basurda, txitxara...*) (ikus 2.1.4.1. atala). Eta antzera, *olu + a > ua* dugunez, berba askotan nahaste handia dago amaierako bokala zein ote den erabakitzeke, eta txandakatzea hiztun bakoitzak ere izan dezake, unean-unean: *barixaku/-o, miru/-o, modu/-o, eskailu/-o, potzu/-o, perretxiku/-o, pagu/-o, usu/-o, maixu/-o, amorru/-o, piko/-u, katillo/-u*, eta abar...

²³(1) Orozko, Artea, Bedia, Dima, Galdakao, Igorre, Usansolo, Zeanuri, Zeberio, Belako, Markaida, Derio, Sondika, Zamudio, Arakaldo, Arrankudiaga

(2) Bilela, Zabalondo, Erandio, Leioa, Loiu, Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gorkiz, Jatabe, Laukiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz

(3) Larrabetzu, Lezama

(4) Bermeo, Ea, Ibarrangelua, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Larrauri, Meñaka, Meñakabarrena, Ubidea, Otxandio, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Ugao, Zaratamo, Zollo, Busturia, Ereño, Kortezubi, Murueta, Abadiño, Atxondo, Autzagane, Berriz, Euba, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Zaldibar, Durango, Arratzu, Axangiz, Errigoitia, Forua, Mendata, Muxika, Amoroto, Gizaburuaga, Nabarniz, Larraskitu, Arteaga

(5) Elantxobe, Aulestia, Berriatua, Etxebarria, Markina, Mendexa, Munitibar, Ondarroa

(6) Lekeitio, Mundaka, Elorrio, Ermua

2.1.1.2.- Berba barruko aldaketak

Hitz amaieran gertatzen diren aldaketen antzekoak aurkituko ditugu hitzen barruan ere, itxierak eta epentesiak (-x-). Dena dela, kontuan izan behar da ez dagoela ez itxierarik, ezta epentesirik ere hitzaren eremutik kanpo. Hau da, ez hitz elkartuetan (*seme-alaba*, eta ez **semialaba*), ez hitz biren artean (*neska aundixa*, eta ez *neskiaundixa*), ez mailegu berrietan (*geodesia*, eta ez *giodesia*...).

- **e + a,o > ia, io**

Adibide gutxi dauden arren, kasu guztietan gertatzen da. Adibidez:

behar > **biar**
behor > **bior**
lehor > **lior**

- **o + a,e > ua, ue**

Kasu honetan ere banaka batzuk baizik ez daude, baina araua beti betetzen da:

nintzoan > **nitzuan**
jakoe > **jakue** ('zaie')
almoada > **almu(a)ra**
doan > **duan**

- **i + a, e, o > ixa, ixе, ixo**

Kasu honetan hainbat dira adibideak, esate baterako:

gehien > **geixen**
bihar > **bixar**
ia > **ixa**
txilio > **txilixo**
lekario > **lekaixo**
kaiola > **kaixola**
kaio > **kaixo**
abiada > **abixada**
goian > **goixan**
bizio > **bisixo** ('lombriz intestinal')
esaiok > **esaixok**
nekien > **nekixan**
neikion > **neikixon** ('niezaiokeen')
Zumaia > **Sumaixa**
Lekeitio > **Lekeittixo**
Ernio > **Ernixo**

Salbuespen dira, Bizkaiko hizkeren ereduaren aurka joaz, *biotz*, *gorantzia* eta *sorion* (**bixotz*, **gorantzixa*, **sorixon*).

Aipagarriak, era berean, balio bereizlea duten bikote bi. Batetik, *balio* (*valer*) / *balixo* (*valor*); bestetik, *erdixa* (*centro, medio*) / *t'erdia* (*y media, orduetan*)²⁴.

Maileguen kasuan ere salbuespen ugari dago. Gehienetan bai hartzen dute *-x-* epentetikoa (*biologixia, armarixua, radixua, bikarixua, ministerixua...*), baina beste askotan ez: *kriada, sosio, presio* (precio), *merienda, kalsio, komunio, serbizio, demonio*²⁵... Gure laginean ez dugu hitz horien artean *x-*dun forma bakar bat ere aurkitu. Badira *sosixo* eta *komunixo* bezalako formak darabiltzaten hiztunak, baina forma horiek, jatorriz, inguruko beste herri batzuetakoak dira gehiago, bai Bizkaia aldekoak (Mallabia, Zaldibar, kostaldea...), zein Elgoibarkoak²⁶; edo, bestela, gazteek analogiaz sortutakoak. Larrañagak (1998) ere antzeko oharra egiten du Antzuolarako, zaharrenek *junio* eta *julio* dioten bitartean, gazteak *julixo* eta *junixo* esaten hasi direla adieraziz. Elgetan, Bergaran eta Soraluzen ere antzeko joera nabaritu ahal izan dugu guk geuk ere.

Erdaratik mailegatu diren eta *-ia* amaiera duten hitzetan, berriz, nahastea handiago da. Oro har talde handi bi egin daitezke.

- a) erdaraz hiato direnek (*-ía: filosofía, geografía...*) gehienetan *-x-* hartzen dute Eibarko euskaran: *filosofixa, jardinerixa, erromerixa, loterixa, geografixa...* Salbuespenak ere badira, batez ere berrienetan (*poesia, polizia...*)
- b) erdaraz diptongo direnetan (*industria, memoria, farmacia, acacia, historia, justicia, burocracia...*) gehienetan ez da *x-*rik hartzen: *akasia, farmasia, industria, justisia, burokrasia...* Hemen ere salbuespenak badaude, eta bat baino gehiago gainera: *famelixa, parrotxia, sanaorixa...*

Nahaste horren ondorioz, sarritan, berba batzuk bietara erabiltzen dira: *memoria / memorixa; historia / historixa*. Maltza honetako gainontzeko berba guztietan ere, hiztunaren arabera gehiago edo gutxiago erabiltzen da *-x-* epentetiko hori.

²⁴ Kasu honetan ere, gazteen artean bereizketa ez da hain nabarmena, eta analogiaz *t'erdixak* (adibidez, *lau t'erdixetan agertu zan*) esaten hasi dira zenbaitzu. 40-50 urteko belaunalditik gora, ostera, erabat arrotza da hori.

²⁵ Gaztelaniatik mailegatzen diren *-io(n)* amaieradun berba berezi batzuetan, inguruko hizkera batzuetan *-iño* bilakaera gertatzen da: *demoniño, zerbiziño, komuniño*. Eibarren, oro har, ez da horrelako bilakaerarik gertatzen, hiztun gutxi batzuei jaso diegun arren.

²⁶ Esate baterako, Lekeitioko hainbat adibide (Hualde et al., 1994): *krixada, merixenda, konfixantza...* Leonek (2004) ere beste horrenbeste Elgoibarrerako.

2.1.2.- DIPTONGOAK

Silaba berean bi bokal daudenean, diptongo bat osatu dutela esaten da. Euskaraz bi eratakoak daude, beheranzkoak (bokal bietako lehena irekiagoa denean) eta goranzkoak (bokal bietako lehenengoa itxiagoa denean). Aurrenekoak askoz arruntagoak dira euskaraz, eta Eibarren ere hala da.

2.1.2.1.- Beheranzko diptongoak

Euskarak beheranzko bost berezko diptongo ditu: **ai, ei, oi, au, eu**. Eibarren ere bostak aurkituko ditugu:

ai: *erregaixa, aitta, amaika, bai, gaixorik*

ei: *ogei, larogei, sein, bein, geixa(g)o*

oi: *gois, oittu, goi, soi (< zohi)*

au: *gau, ausi, jausi, amalau*

eu: *euli, euri, neuri*

Horietaz gainera, bigarren mailakoak edo sekundarioak ere, bokalarteko kontsonante galeraz sor daitezkeenak, sarri agertzen dira Eibarko euskaran: *atai* (< *atari*), *ganau* (< *ganadu*), *euski* (< *eguzki*), *nausi* (< *nagusi*), *baskaittan* (< *bazkaritan*), *euki* (< *eduki*), *ainka* (< *haginka*)... Forma horietan kontsonantea guztiz galdu da eta forma diptongatua da eibartarron berba artxiboan agertzen den bakarra; forma horiek lexikalizatuta daude. Horiek ez dira nahastu behar, ahozko jardunean batzuetan kontsonantea galdu arren, oraindik ere hiato diren beste hauekin: *be(g)ixa, o(g)ixa,....*

Eredu orokor horretatik abiatuz, diptongoak sarri moldatu egiten dira ahozko jardunean, bai eraldatuz, bai monooptongatuz.... Ikus ditzagun kasurik orokorrenak.

- **-au- > -a-/-o-/-u-**

Hauxe da euskaraz (*au*) diptongorik ugariena (Michelena, 1990). Hala ere, arrunta da monooptongatzea (*a, o, u*), eta hainbat euskalki eta hizkeratan aurkituko ditugu adibideak.

Eskuarki, arruntagoak dira hasierako silaban gertatzen diren laburdurak. Eibarren ere hala dirudi: hitz hasieran monoptongatutako formak erabat lexikalizatu diren bitartean, besteetan forma biak entzun daitezke:²⁷

aurpegi > **arpegi**
laurogei > **larogei**
laurden > **laren**
auntzume > **antxume**
jaungoiko > **jangoiko**
Abauntzaga > **Abontza** (toponimoa)
Auntzesieta > **Antxusieta** (toponimoa)
umau / umotu
arraunka > **arronka**
arpauso > **arposo**
arrausin(ka) > **arrosin(ka)**
intxaur > **intxor**
simaur > **simor**
siraun > **siron**

Hitz amaierako beste zenbait kasutan, ordea, eta beste herri batzuetako joeraren aurka, monoptongazioa ez da gauzatu. Adibidez: *zamau, bakillau...*

Diptongoa soiltzeko joera hori, lexikoan ez eze, forma gramatikalizatuetan ere arrunta da. Are gehiago, “*mucho más a menudo en formas gramaticalizadas, no sólo a causa de la frecuencia de su empleo, sino también por la debilidad del acento*” (Michelena, 1990). Eibarren adizki multzo bitan gertatzen da sinplifikatze hori. Batez ere, *eduki* aditzaren orain aldiko formetan (*daukat* > *dakat*; *jaukat* > *jakat*; *dauk(at)e* > *dake...*); baita, Nor-Nork serieko orainaldiko forma gutxi batzuetan ere (esate baterako, *nauzu* esan beharrean *nazu* edo *nozu* esaten da Eibarren). Ezaugarri hau ere nahikoa hedatuta dago Euskal Herri osoan (Erdozia, 2001).

²⁷ Esan beharra dago, *intxaur*, *simaur* eta *siraun* hitzen kasuan, forma estandarrak arruntagoak direla monoptongatuak baino. Aipatzekoa, bestalde, *arrautza* hitzaren kasua. Inguruko hainbat hizkeratan monoptongatu arren, *arro(l)tza* (Durangaldea, Sakana, Bizkaiko kostaldea...), Eibarren ez da horrelakorik gertatzen eta *arrautza* esaten dute hiztun guztiek. *Haundi* hitzaren kasuan ere, diptongodun forma da nagusi Eibarren, hiztun nagusienek *handi* ere esaten duten arren (kasu honetan, baina, forma diptongatua da berriena).

• **-au- > -eu-**

Bizkaia aldeko zenbait hizkeratan arrunta da **-au->-eu-** bilakaera. Eibarren, ostera, oso arraroa da. Hiztun batzuek horretarako joera duten arren, gehienetan gure herriko hizkeran ez da gauzatzen aldaketa hori, eta nahiko arrotzak dira *geur, leuso, geusa, leu...* formak.

Esan beharra dago, gainera, forma horiek ez dagozkiela auzo, alderdi edo adin bateko hiztunei, hiztun bakoitzaren idiolektoari baizik; hau da, hiztun gutxi batzuen berezitasuna da. Hementxe jaso ditugun zenbait adibide:

*Ta susedidu jatasen **geusak**... Armeruak sittuan arek; baiña armeruak fusillanak. Eta orrek amatralladoranak eta **geusak** jakingo jittuesen.*

*Ya bein pasatzen dittuanian sortzi bat egun-ero, satartu eitten da artua, e! Askoi! Baiña barrittan? **Geur** ein ta bixar? A epela daon artian... artua gosua da, e!*

• **-eu- > -e-**

Badirudi **-eu-** diptongoa aurrekoa baino askoz urriagoa izan dela euskaraz. Eibarren, aurkituko dugun kasu apurretan, ez da aldatzen (*euli, euri, euskera...*).

Aditzetan, ostera, aldaketa ezagun eta ugariak ditugu. Bizkaieraz Nor-Nori-Nork adizkietan **-eu-** da jatorrizko erroa: *neutsan, deusats...* Eibarren, ostera, baserritar batzuen ahotan besterik ez ditugu horrelakoak entzungo²⁸. Hementxe guk jaso dugun adibide bakanetakoa:

*Bai, len-len bai. Gero beterinarixuak ipintzen **eutzen**. Len-len iskua, es seuan inseminasiñorik eta, len-len iskua!*

Gehienetan, Deba ibar osoan eta Lea-Artibai inguruan bezala (Yrizar, 1981), monoptongatu egiten da, baina berezitasun batekin. Inguruko herrietan adizki horien erroa **-o-** den bitartean (*dotzat, notzan, sotzan, jotzat, e.a*), Eibarren **-eu- > -e-** bilakaera gertatu da: *detzat* ('diot'), *netzan* ('nion'), *gentzan* ('genion')...

*Nik es **detzat** iñungo pegarik ikusten. Txikitxua, bai, baiña... ondo. Len be esan **detzut**, eta ari be esan **netzan** lengunian: guk esin doguna ein, esin **detzegu** bestieri eskatu. Es, es, es... Amandriak be olaxe esaten **seskun**.*

²⁸ Testu historikoak aztertuz, *deuzenei* aurkituko dugu 1754ko ordenantzetan, baina hortik aurrera, gaur egungo forma berdinak azalduko zaizkigu beti, forma monoptongatuak: *dechue, dechegun, dechudas...* Francisco Arrateren testuetan (1870 ingurukoak), *detsu, zestan...* Antonio Iturrioren lanetan, eta abar (Izagirre et al., 2000).

Hala ere, esan beharra dago, baserritar batzuen artean (Agiñaga auzoan batez ere) entzun daitekeela Deba ibarreko (eta beste hizkera batzuetako) ezaugarri den **-o-** erro hori. Hemen salbuespen horren adibide bat:

*Ta nere bisitzia amen doia: amen jaixo nitzan, amen batayau, amen [be] ikasi eskolan, amen eskondu, amen nere seme-alabak eta aurrera! Olan noia, arik eta aal doten arte. Dana Agiñakua! Oso-osu-osorik. Kariñua **dotzagu** Agiñari!*

Eutsi*-ren eratorri diren adizki horiekin moduan, *eduki*-ren adizki batzuekin ere antzera gertatzen da. Bilakaera hori arrunta da Bizkaiko hizkeretan, eta baita beste batzuetan ere (Erdozia, 1999). Eibarren lehen aldian **-eu- > **-e-** bilakatzen da, eta orainaldian, gorago esan bezala, **-au-** > **-a-**:

*Nik apoiua dana eingo juat, baiña nik **etxakat** astirik eta urtiak be aurrera joia-sak asike...*

*Es, tabernia **genkan** basarrixan. Bai, tabernia **genkan**, bai. Ni, amalau urtekin asi eta ona, serbitzen nabill, e! Amalau urtetik asitta! Amalau urte **nekasenetik!***

Aditz trinko honen kasuan ere baserritar batzuk (Agiñagakoak bereziki) dira arau orokor horren salbuespen nagusia, jatorrizko formak gordez: *daukat*, *neukan*... Kaletarren artean, berriz, diptongodun adizkiak oso gutxitan entzungo ditugu. Hala ere, bilakaera hori **eutsi* aditzarena baino berriagoa da, eta XX. mende hasierako idazleen artean oraindik *daukat*, *neukan*, *geunkan* bezalako formak agertzen dira²⁹.

Azkenik, *egon* aditzaren lehen aldiko adizki batzuetan ere gertatzen da diptongoaren sinplifikazioa: *geunden* > *genden*; *zeunden* > *senden*. Kontuan izan adizki-talde horretan bizkaieraren adizki seriea ere arrunta dela Eibarren (*gewasen*, *sewasen*, *sewasien/seosien*..), eta horrelakoetan ez dago, jakina, monoptongaziorako lekurik.

²⁹ Adibidez, *zeukan* idazten du Iturriozek eta *daukagus* Arratek. Toribio Etxebarriak ere antzera darabil beti. Zer esanik ez 1754ko ordenantzetan, non adizki guztiak diptongodunak diren: *ezttaucana*, *daucasala*, *baleuca*... (Izagirre et al., 2000).

- **-ai-** eta **-ei-**: **txandakatzeak eta sinplifikazioak**

Michelenaren esanetan *-i* bokaldun diptongoak oso erraz eraldatzen dira (Michelena, 1990). Eibarren ere hamaika adibide aurkitu dugu. Multzo berean sartu ditugun arren, kasu honetan gutxienez hiru aldaketa ditugu (eta batzuetan bat baino gehiago batera). Batetik, *-ai->-ei-* bilakaera; bestetik, *-i-* galtzea; eta hirugarren, *-e->-i-* itxidura. Eibarren azkenengo bilakaera biak arruntagoak dira. Horrela:

bedeinkatu > **bedinkatu**
hodei > **hode/a**
erlakaizten > **erlekisten**
eskaini > **eskeñi** > **eskiñi/eskindu**
bezain > **besin**
hogeita > **ogeta**
egin > **eiñ** > **iñ**
behinik behin > **beiñipeiñ** > **beiñipiñ**
ehiztari > **iztari/itzari**
ibai > **ibi**

-ai- > *-ei-* bilakaera ere gertatzen da, baina ezin esan erabat hedatua dagoenik hiztun guztien artean. Kasu honetan, bi aldaerak entzun ditugu herrian eta, gainera, esango genuke, inguruko beste hizkerek alderatuz (Sakana, Debagoiena, Lea-Artibai...), Eibarrek *ai-*-dun formak erabiltzeko joera askoz handiagoa duela. Beste hainbat ezaugarrirekin gertatzen den moduan, oraingoan ere kalea/baserria da muga nagusi, *ei-*-dun formak baserrietan kalean baino sarriago entzuten direlako, eta baserriko hiztun batzuen jardunean jaso ditugu horrelako formak: *igitei*, *geixo*, *geñian*, *urdei*, *usein*... Hala ere, esan bezala, araua baino salbuespena dira Eibarko hiztun gehienen hizkeran.

- **-ain** > **-an** (**-uin** > **-un**)

Deba arroko hizkera guztietan moduan, *espan*, *san*, *usan*, *orban* eta *laban* esaten da Eibarren; ez, ordea, Bizkaiko hizkera askotako *gan*, *ganera*, e.a.

zain > **san**
orbain > **orban**
ezpain > **espan**
izain > **usan**
labain > **laban**

Antzera, ekialderagoko beste hizkera batzuetan dauden *biguin*, *asuin*, *lurruin*, *muin*... formak, ezezagunak dira Eibarren eta *bigun*, *asun*, *lurrun*... egiten dira. **-uin** gorde duten hitz bakarretan (guk adibide bi besterik ez ditugu aurkitu), beste bila-kaera bat izan dute: *ipuin* > *ipoiñ* eta *higuin* > *igoiñ*.

- **-ae > -ai** eta **-oe > -oi**

Inguruko zenbait herritan oraindik entzun omen daitezke **-ae** amaieradun hitzen forma zaharrak: *anae*, *gastae*, *limoe*.... Antzuolan (Larrañaga, 1998), esate baterako, nagusienek oraindik gordetzen omen dute, gazteen artean galtzen ari den arren. Eibarren ere jaso dugu adibide bakanen bat, eta Aretak (2003) ere aipatzen ditu zenbait adibide, baina ia erabatekoa da **-ae > -ai** eta **-oe > -oi** bilakaera, euskal jatorriko hitzetan, zein maileguetan. Adibidez:

melo > **melo**
anae > **anai**
kanpae > **kanpai**
hegoe > **egoi**
gastae > **gastai**

2.1.2.2.- Goranzko diptongoak

Diptongo hauetan lehenengo bokala da itxiena, eta hauexek dira kasuak: **ja**, **je**, **jo**, **wa**, **we**³⁰. Aritu askoren ustez, euskarari arrotzak zaizkio eta gehienetan maileguz hartutakoak dira. Azkueren ustez, esaterako, erdarari hartutakoak edo erdararen kutsuz erantsitako diptongoak dira. Horren adierazle, mailegatutako hainbat eta hainbat hitz euskarak monoptongatu izana: *portu*, *kontu*, *porru*, *errobera*...

Eibarren, behintzat, hala dela dirudi. Adibide gehienak gaztelaniatik hartutako berbetan agertzen dira; euskarazkoen kasuan, ia beti, kontsonanteak galtzearen ondorioz sortutakoak edo aldaketa fonetikoren baten ondorio dira. Aurkitu ditugun bakarretakoak hauexek dira: *jwan* ('joan'), *gwasen* ('goazen'), *egwardi* ('eguerdi'), *sewek* ('zeuek'), *egwen* ('eguen', 'ostegun'), *egwasten* ('eguasten', 'asteazken'). Antzera gertatzen omen da inguruko herri guztietan, adibidez, Ermuan, Bergaran edo Antzuolan.

³⁰ 'wa' eta 'ja' erara adieraziko ditugu hemendik aurrera goranzko diptongoak. Hau da: *ua*, *ue*, *ia*, *ie*, *io* > *wa*, *we*, *ja*, *je*, *jo*.

Adibideak oraindik urriagoak dira **-i-** bokalak osatzen dituen goranzko diptongoen artean. Horien artean, beharbada, bakarretakoak **-ae** bukaeradun hitzek muga-tzailea hartzen dutenean sortzen dituzten diptongoak dira: *gastaja, egoja, kanpaja...* Ezin esan benetako diptongo direnik ere.

Gaztelaniako hitzetan ere eibartar nagusien artean oso arrunta da diptongo horiek hausteko joera (*me-ri-en-da; de-mo-ni-o; gu-ar-da-so-la; Ma-ri-a-no; I-ña-xi-o; su-er-te*) edo bokal epentetikoa eranstejo joera **-ja-** eta **-jo-** diptongoen kasuan (*lirixo, arma-rixo, istorixa, famelixa...*). Euskal jatorrikoak bokal-multzoa hautsiz ahoskatzen dira: *A-si-er, Er-mu-a, An-gi-o-sar, Es-ki-o...*

Kasu jakin batzuetan bada diptongo horiek apurtzeko beste modu bat ere, kontsonantizazioa: **VwV > VbV**³¹. Horrela: *gawa > gaba; eskuare > eskobara; dawe > dabe; (s)ewan > (s)eban...*

Adizki horietan pertsona nagusi-nagusi apur batzuei diptongodun formak entzuten zaizkien arren, hiatodun formak dira Eibarko eredu (ia) bakarra.

2.1.3.- BOKAL GEMINATUAK

Segidan dauden bi bokal berdinei deitzen zaie bokal geminatu. Bi multzo nagusitan sailkatu ohi dira: batetik, bokal artean *h* duten hitzak; bestetik, bokal arteko beste kontsonanteren bat galtzeagatik sortzen direnak, hau da, bigarren mailakoak.

Lehenengo multzokoak Eibarren ere badira: *txaal, naastau, maatz, saar, miiña, beekua...* Toponimoen artean ere badaude adibideak³²: *Maaldei, Maaspe, Aasua...* Zuazok (2000) Deba ibar osoko bereizgarrien artean sartzen du bokal geminatuen ugaritasun hau, eta Michelenak (1990) ere bokal bikoitzak gehienbat Durangaldean eta Gipuzkoako bizkaieran gorde izan direla dio. Baina Zuazok berak ere badio gazteen artean galtzen ari dela. Ermuan (Aranberri, 1996) eta Arrasaten (Elortza *et. al.*, 1999) ere horrela dela dirudi. Guk aztertutakoaren arabera, Eibar ere ez da salbuespena, eta gazteen artean ez ezik, helduen artean ere askotan ez dira esaten, batez ere hizkera arduragabe eta arinean³³.

³¹ V ikurraren bitartez bokala adierazi nahi dugu.

³² Toponimoen kasuan zailagoa da jakitea ea jatorrizko forma zein zen.

³³ Aretak (2003) ere berbera dio bere tesian, gehienbat Agiñaga auzoan gorde direla azpimarratuz

Kontsonanteak aztertzeko orduan ikusiko dugun moduan, kasu gutxi batzuetan beste kontsonante batek hartzen du leku hori (*adari, arata...*).

Bigarren multzoko bokal geminatuak ere badira, hau da, kontsonante bat galdu ondoren sortzen direnak: VCV > VV. Adibidez:

Gogorra > goorra
Zarata > saata
Badakizue > baakisue
Ateratakoa > ataatakua
Legena > leena

Edozelan ere, geroago aipatuko dugun legez, horrelako kontsonante-galtzeak ez dira ugariegiak Eibarren, batez ere inguruko beste hizkera batzuekin alderatzen baditugu (ikus 2.2.1. atala).

Azkenik, aipatu zenbait kasutan bokal luzatuak ere aurkituko ditugula berez bokal bakarra duten hitzetan: *edeeerra, gogooorra, poolitta, eguuunero...* Luzatze horiek balio indargarria daukate. Gaur egun, gazteen artean, horien lekuan erdaratik mailegatutako *hiper, super* eta antzeko aurrizkiak nagusitu dira.

2.1.4.- ALDAERA NAGUSIAK

Atal honetan hitzun guztiek (edo gehientsuenek) berdin ahoskatzen dituzten hitzak eta neurri batean arautzat jo daitezkeen aldaera-multzo nagusiak bakarrik sartu ditugu. Garbi dago ahozko jardunean beste milaka txandakatze ere gertatzen direla, ia-ia hitzunak adina, baina ezin da esan horiek Eibarko hizkeraren ezaugarri direnik, lekuko bakoitzaren idiolekto edo berbakeraren baitakoak baizik.

Izan ere, euskararen sistema bokalikoa gaztelaniako sistemaren berdina dela pentsatu arren, bokalen arteko aldea txikiagoa da euskaraz, eta txandakatzeak oso ugariak dira. Hasteko, *ale* eta *ou* tankerakoak oso arruntak dira. Gainera, txandakatzeak ez dira bakarrik irekidura-mailan gertatzen; irekidura-maila bereko bokalen artean ere, sail ezberdinen artean, aldaketak gertatzen dira, batez ere *iu* bokalen artean, baina baita *eo* artean ere (Michelena, 1990).

Hemen aldaera nagusiak besterik ez ditugu aurkeztuko. Aldaera gehiago ikusteko, jo atal honen amaieran sartu dugun zerrendara. *Eibarko Euskerian Ikastunidadia* (Sangroniz, 2001) eta *Deba Ibarretik Euskararen Herrira* (Zuazo, 2002) liburuetan ere Eibarko eta inguruko hizkeretako bereizgarri diren hitzen zerrenda luzeak daude. Eta nola ez, Eibarko hiztegieta: *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar* (Etxebarria, 1998) eta *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* (Basauri eta Sarasua, 2003).

2.1.4.1.- Amaierako -e > -a

Aurrerago ikusi dugun moduan, *-a* eta *-e* amaieradun berbek mugatzailea hartzen dutenean emaitza berbera dute (*-al/-e + -a > -ia*). Horren ondorioz, sail bateko eta besteko hitzen arteko nahastea sortu da, eta *e* amaieradun berba asko *-a* amaieradun bihurtu dira (ikus 2.1.1.1. atala).

Hainbat eta hainbat berbatan gertatzen da irekidura hori. Hementxe batzuk:

agura, altara, andra, arata, basurda, bela, betula, erla, erpa, gixarra, golda, kuma, laba, landara, lora, ota, otzara, sarda, satandera, suba, surda, titara, tolara, txitxara, una...

Salbuespen dira, ordea, ez direlako *-a* amaieradun bilakatzen, bi berba hauek: *amandre* (nahiz eta *andra* esan) eta *ule* (nahiz eta *betula* esaten den).

Mendebaleko hizkera guztien ezaugarri den bilakaera hori ondo finkatuta dago Eibarren, dirudienez Bergara aldeko eta Elgoibar aldeko hizkeretan baino biziago, horietan salbuespenak ugariak direlako (Larrañaga, 1998; Zuazo, 2002). Egia da Eibarren ere nahaste handi samarra dagoela hitz batzuen kasuan, esate baterako: *erla, agura, basurda, suba...* Horrelakoetan, hiztun berberak ere, sarri askotan, forma biak darabiltza, edo forma bat singularrerako eta bestea pluralerako (adb. *subé* baina *súbak*). Dena dela, berba gehienek kasuan (*laba, andra, ota, arata, txitxara, betula...*) ez dago inolako alternantziarik.

*Ori [harría] etara ta idixekin jun ta ekarri eitten eben! Ta aspixan sua eittekó lekua lagatzen etzen ta..... otia badakisu ser dan, esta? Erderas es dakit selan esaten jakon... **Lora** orixa dakana! Len **ota** asko seuan emen, ta otia ebagi, sikatu ta otia sartzen jakon aspixan. Ta arekiñ arrixa erre eitten eben.*

2.1.4.2.- /r/ aurrean bokal irekidura, bereziki e>a

Dardarkari azkarraren aurrean, bokalak irekitzeko joera dago hainbat hizkuntzatan, eta baita euskaraz ere (Michelena, 1990). Irekidurarik ezagunena e>a bilakaera da, mendebaleko hizkeretan hainbat adibide dituen. Mendebaleko hizkeren mugak gainditu, eta Urola eta Goierri ingurura ere heldu da (Etxabe eta Garmendia, 2003), eta beste euskalki batzuetan ere aurki daitezke adibideak. Eibarren ere, salbuespenak ugari izan arren, hainbat eta hainbat dira arau hori betetzen duten hitzak.

Bokal arteko dardarkari azkarraren aurrean askotan gertatzen da bilakaera hori: *astartu* ('aztertu'), *asarre*, *txarri*, *barri*, *barriketa*, *basarri*, *entiarro*, *barriro*, *sarrailla*... Eta baita hitz amaieran ere: *bidar*, *istar*, *pitxar*, *bastar*, *taillar*, *pipar*, *puskar*, *muskar*...³⁴

Hala ere, esan bezala, hainbat salbuespen daude.

- 1.- Berba hasieran ez dirudi gertatzen denik: *erres* ('erraz'), *erro*, *errape*, *erramu* ('ereinotz'), *erreka*, *erregaldaria*, *erri*...
- 2.- Badirudi salbuespen direla berba hasieran beste *e* bat duten berbak: *eper*, *eser*, *eder*...
- 3.- Baita *-ker* amaieradun zenbait ere: *oker*, *aker*, *esker*...
- 4.- Amaitzeko, salbuespen da, Durangaldean eta Lea-Artibain bezala, Bizkaiko sartaldean irekitzeko joera duen *gerri*.
- 5.- Dardarkaria kontsonante baten aurrean badago, orduan ez dago bokal irekidurarik gehienetan: *aterpe*, *atertu*, *kerten*, *berba*, *berna*, *bertan*.... Kasu honetan salbuespen dira irekidura egiten duten berbak: *eguardi*, *bardin*, *sarba* ('zerba'), *astartu*, *partika* (burdiaren zatia)... Hitz bakoitzaren kasuan, irekiduraren arrazoia ezberdina izan daiteke (Michelena, 1990).

³⁴Michelenaren ustez (1990), beste talde batekoak omen dira *izardi*, *igarri*, *igari* eta *txintxarri* hitzak. Horietan, hiru bokaleko hitzak denak, bi bokal itxiren artean egotearen ondorioz gertatu omen da e>a irekidura, disimilazioz. Kasu horietan ere, Eibarren *a*-dun formak bakarrik aurkituko ditugu.

Normalean *e>a* irekidura aipatzen den arren, badira ingurune beretsuetan gertatzen diren beste irekidura batzuk, hala nola, *u>o* eta *i>e*. Askoz garrantzi gutxiago dute, baina badira zenbait adibide:

irakurri > **irakorri**³⁵

igurtzi > **igortzi**

kirten > **kerten**

birriñ > **berriñ**

kirru > **kerru** > **karru**

Agirre > *Agerre* > **Agarre** (Eibarko baserria)

Iparragirre > *Iparragerre* > **Iparrágarre** (Eibarko baserria)

2.1.4.3.- *-e->-a-* izan aditzean

-e->-a- bilakaera gertatzen da, era berean, *izan* aditzeko lehenaldiko forma batzuetan:

nintzen > **nitzan**

ginen > **giñan**

zineten > **siñasien**

ziren > **siran**

2.1.4.4.- *i / u-* txandakatzea hitz hasieran

Orain arteko dialektologian bizkaiera gainontzeko euskalkiengandik bereizteko erabili izan den ezaugarri hau Eibarren ere betetzen da. Horretara, mendebal osoan legez, **u** izango dugu Eibarren zenbait berba hasieratan:

irin / **urun**

izain / **usan**³⁶

ile / **ule**

irten / **urten**

igel / **ugaratxo**

³⁵ Horrela agertzen da dagoeneko XVIII. mendean, 1754ko udal ordenantzetan, *idacorri* (Izagirre et al., 2000)

³⁶ Eibarren, kalean behintzat, gehiago erabiltzen da *urbuztana*.

Bilakaera hori, ostera, ez da gertatzen Bizkaiko hizkeretan arruntak diren beste hauetan: *igarixan egin* (**uger*) eta *isen* (**usen*). Ezta ere, hedadura murriztagoa duten hauetan: *itturri* (**uturri*), *ikusi* (**ukusi*), *intxaur* (**untxaur*), *ipoiñ* (**upiñ*)³⁷.

Michelenak (1990) dioten moduan, *ilu* txandakatzeak oso ugariak dira euskaraz, baina gehienetan kasuak sailkatzea eta aldaera bakoitza aztertzea ez da hain lan erraza. Eibarren ere, nola ez, hainbat aldaera jaso ditugu. Hala ere, ezin esan araurik jarraitzen dutenik, eta hemen adibide batzuk aipatu besterik ez ditugu egingo: *gitxi*, *Urkusu* (Urkizu, Eibarko auzoa), *imutxa* ('tximitxa'), *urrin*, *ikubil* ('ukabil'), *iputei* ('upategi'), *ikutu*...

2.1.4.5.- -o->-u- NON galdetzailearen eratorrietan

Non galdetzailearen eratorrietan -o->-u- bilakaera betetzen da:

non > **nun**
nondik > **nundik**
nongo > **nungo**
nondarra > **nuntarra**

2.1.4.6.- Gaztelaniazko -(i)ón amaieradun maileguetan

Gaztelaniatik mailegutzen diren -(i)ón amaieradun berbak -(i)oi ahoskatzen dira Eibarren.

Melón > **melo**
Neón > **neoi**
Camión > **kamio**
Calbetón > **Kalbetoi** (Eibarko kalea)

2.1.4.7.- Gaztelaniazko -(c)ión amaieradun maileguetan

Gaztelaniatik mailegutzen diren -(c)ión amaieradun berbak -(z)iiño ahoskatzen dira Eibarren³⁸.

³⁷ Esate baterako, Bizkaiko kostaldeko zenbait hizkeratan erabiltzen direnak (Bilbao, 2002).

³⁸ Talde honetan *Comunión* hitza salbuespena da. Eibarren *komunío* esaten da.

Estación > **estasiño**
Celebración > **selebrasiño**
Procesión > **prosesiño**

2.1.4.8.- Gaztelaniazko -or amaieradun maileguetan

Gaztelaniatik mailegutzen diren -or amaieradun berbak gutxienez bi modutan agertzen dira Eibarren:

tenedor: **tenedor, tenedore**
aspirador: **aspirador, aspiradore**
ordenador: **ordenador, ordenadore**

2.1.4.9.- Amaiera kontsonantikoetan -e bokala gehitzea

Eibarren, kontsonantez amaitzen diren zenbait hitzetan, hiztun batzuek -e bokala gehitzen dute hitz bukaeran. Batez ere hiru berba dira arau hori betetzen dutenak:

ill / ille ('hil, hilabete')
gaiñ / gañe
goix / goixe

Oro har, gehiago entzuten dira -e amaiera bakoak.

2.1.4.10.- a>e / __u, i/

Bizkaiko ia herri guztietan³⁹ eta Debagoieneko hizkera gehienetan ere arau den asimilazio hori, arau baino salbuespen da Eibarren, eta bere alboko Ermua, Elorrio, Soraluze, Bergara eta Elgetarekin egiten du bat horretan (ikus 2.1.1.1. ataleko taula). Oro har, lasai esan daiteke Eibarren ez dela gauzatzen bilakaera hori. Hemen adibide bat.

³⁹ Bizkaian, kostaldeko Mundaka eta Lekeitio, eta Eibar alboko Elorrio eta Ermua dira salbuespen bakarrak (Gaminde, 2002). Bizkaitik kanpo ere oso hedatuta dago, besteak beste, Gipuzkoa hegoalde osoan, eta Nafarroako hainbat eskualdetan (Zuazo, 2002).

Selaixan dabisenian esta kasorik be! **Iskua** an dao ta... Len-len **iskua** egoten suan amen. **Iskua etxian!** "**Beixa iskuan** eske dao ba" ta artu **beixa** ta **iskua**, txabolara ero bere lekura **eruan**, ta iskotu ta... Gero **beterinarixuak** ipintzen eutzen. Baiña len, koño! **Iskua** nun **dauan**...! Tokatzen bada amen **igual** isko **majua**, ba, bueno...! Arikittatik be **igual** geurera. Urrengo noberak iskorik es ta "i!" Arikittan ero **Barrundixan** ero beste... "Banatok!" ta "Bai, ekarri!" **Iskua** nun tokatzen san... Ausuetan, **etxian** es **baeuan** ba...

Hala ere, ez da erraza fenomeno hau aztertu eta azaltzea, eta salbuespenak asko izan ohi dira. Izan ere, arau hau ez da herri guztietan eta ingurune guztietan berdin betetzen (Gaminde, 2002). Eibarren ere gauza bera gertatzen da: hiztun batzuen jardunean eta ingurune jakin batzuetan bakarrik erabiltzen da, baina ingurune horiek definitzea zaila da. Oro har, kalean nekez entzuten da (edo ia inoiz ere ez), baina baserritar edadetu batzuen artean jaso ahal izan ditugu adibide batzuk, gehienetan hitz solte bakanetan: *ikesi, iketz, ikeratu, beittensio, iguel, juen*...

Hori bai, Agiñaga auzoan, Markinako hizkeraren eraginez, bilakaera hori arrunta ez eze, arau ere badela esan daiteke⁴⁰. Adibidez:

Ta **txarrixek**... serak... **urdaixek** be danak gatzes ein biar **iseten sien**.
Bi edo iru egun euki tta barriro buelta emon ta gatza barriro. Ta gero ipini arri aundi batzuk **gaiñien** ta gatza artzen eben ta gero bein gatza **artu-takuen**, urte **gustien** arek kitto! Arek es **sien** galtzen.

Bilakaera horrek indar handiagoa du *ia* taldeetan, non gehienetan *a>e* bilakaera gertatzen den: *sietz* ('zehatz'), *maietz* ('maiatz'), *miestu* ('mehaztu, bakandu'), *mies-tau* ('miazkatu'), *bietz* ('behatz')... Kasu horietan ia-ia arau dela ere esan daiteke, Agiñagan ez ezik, baita Eibar osoan ere.

⁴⁰ Aretak (2003) ere antzeko oharra egiten du: "disimilatzaileenak ez ezik, murriztaileenak ere badira Aginagakoak. Beraz, hauen jardunak ondoan duten Barinaga auzoko hizkeraren antz handia du".

2.1.4.11.- Zenbait monosilaboren deklinabidea

Aurrerago aipatu dugun moduan, Eibarren *-e + -a > -ia* egiten da. Hala ere, *e* bokalarekin amaitzen diren monosilaboen kasuan, *-eia* egiten da:

ke + a > **keia**

te + a > **teia**

Azken batean, *-ehe* amaiera duten hitzen eredua jarraitzen dute (behe > **beia**; mee > **mehia**; xehe > **seia**).

2.2.- KONTSONANTISMOA

Atal honetan, Eibarren erabiltzen ditugun kontsonanteei buruzko azalpenak bildu dira. Hori bai, gure herriko berbetan bereizgarri edota arau diren ezaugarriak eta aldaketak bakarrik erakutsiko ditugu.

Kontsonanteak taldeka aztertu ondoren, talde bakoitzaren kasuan, lehendabizi ezaugarri orokorrak azalduko ditugu eta, gero, alderdi dialektologikotik begiratu-ta garrantzia duten zenbait aldaketa eta txandakatze aztertuko ditugu.

2.2. Taula. Eibarren erabiltzen diren kontsonanteen taula.

| | Ezpaink. | Ezpain-hortzetakoa | Horzkaria | Hortzobikaria Bizkark. / Apik. | Sabaiaurr. | Sabaikaria | Belarea |
|---------------------------|----------|--------------------|-----------|-----------------------------------|------------|------------|----------|
| Herskari ahoskabea | p | | t | | | tt | k |
| Hersk. ahostuna | b | | d | | | dd | g |
| Sudurkaria | m | | | n | | ñ | |
| Frikaria | | f | | (z) | s | x | y |
| Afrikatua | | | | tz | | tx | |
| Albokaria | | | | l | | ll | |
| Dardarkaria | | | | r | | | |
| Dard. azkarra | | | | rr | | | |

2.2.1.- HERSKARIAK

Herskarien artean sei fonema daude euskaraz, /p/, /t/ eta /k/ ahoskabeak eta /b/, /d/ eta /g/ ahostunak. Hitz hasieran eta barruan denak agertzen dira; amaieran ahoskabeak besterik ez (/p/ eta /t/ kasu bakar batzuetan bakarrik: *bat, bost, eup!*... Eta, jakina, adizkietan: *dot, detsut, daroiat!*...).

2.2.1.1.- Herskariak galtzea

Bokal artean herskariak bigundu egiten dira, eta biguntze horren azken emaitza kontsonanteak galtzea izan daiteke. Galtze hori oso arrunta da zenbait herskariren kasuan. Lege orokor moduan /b,d,g/ ahostunak /p,t,k/ ahoskabeak baino askoz samurrago galtzen direla esan dezakegu, eta ahostuneren artean ere aldea dago: /g/

belarea /d/ horzkaria baino errazago galtzen da, eta azken hori /b/ ezpainbikaria baino errazago. Beraz, /g/ da errazen galtzen den soinua, eta /p/ nekez galtzen da (edo ez da sekula galtzen).

Multzo handi horretan, dena dela, bi talde nagusi egin daitezke. Batetik, hiztun guztien artean gertatzen diren galtzeak daude, lexikalizatuta daudenak; bestetik, hizkera patxadatsuan, unearen eta hiztunaren arabera gertatzen direnak.

Lexikalizatuak

Hitz batzuetan erabatekoa da kontsonantea galtzea; egoera eta hiztun guztietan gertatzen da. Horrelakoetan ez dago inolako alternantziarik. Aurkitu ditugun adibide guztiak /g/ eta /d/ soinuenak dira, hau da, errazen galtzen diren bienak:

eduki > **euki**
bidaldu > **bialdu**
aditu > **aittu**
sudur > **sur**
sagardo > **sa(a)rdau**
eguzki > **euski**
eragin > **eraiñ**
egin > **eiñ**
begiratu > **beiratu**

Jardunaren araberako galtzeak

Bestetik, ahozko jardunean, hiztunaren edo unearen arabera gertatzen diren gale-
rak ditugu. Fenomeno hori euskalki guztietan dugu, eta baita Eibarren ere. Edozelan ere, inguruko beste hizkera batzuekin alderatuz (besteak beste, Urola, Goierri edo Sakana ingurukoekin), kontsonanteak gordetzeko askoz joera handia-
goa dago Eibarren. Adibidez, beste herri batzuetan arau diren *ean* ('edan'), *beak*,
mouan, *gwatu* ('gogoratu'), *proatu* edo *aar*, Eibarren *eran*, *berak*, *moduan*, *gogoratu*, *pro-
bau* eta *adar* dira.

Esan bezala, /g/ da errazen galtzen den herskaria (eta kontsonantea) eta adibide-
en zerrenda amaigabea da. Oro har, *egon*-en adizkietan, *-tegi* atzizkian, *-ago* gra-
duatzaileetan, eta *-gu* marketan ia-ia "araua" da /g/ soinua galtzea:

badago > **badao**⁴¹

dagoz > **dao****z**

nago > **nao**

balego > **baleo**

mintegixa > **mintexia**

sa(ga)rdandegia > **sardandexia**

txikiagoa > **txikixaua**

politagoa > **polittaua**

goizago > **goizao, goixao** ('más temprano')

goizago > **goiz(a)o, goix(a)o** ('temprano')

dogu > **dou**

gentzagun > **gentzaun**

daukagu > **dakau**

detzagu > **detzau**

Gainontzeko kasuetan, /g/ soinuaren galera asko aldatzen da hiztunaren edo jardunaren arabera. Badirudi arruntagoa dela bi bokal berdinen artean, baina ez da beti horrela:

ebagi > ebai

sagarra > saarra

gogorra > goorra

negar > near

Dena dela, esan dugun moduan, Gipuzkoako inguruko hizkerak baino askoz konterbakorragoa da Eibarko berbeta, eta hor goiko hitz bikoteetan ezkerreko zutabea ohikoagoa da gure herrian, hau da, /g/ gordetzen dutenena.

Hitz-kateen loturen eraginez sortzen diren galtzeak alde batera lagata (ikus 2.2.10. atala), gainontzeko herskariak nekez galduko dira Eibarren, eta /d/ eta /k/ soinu-
nuen adibideren bat aurkituko dugun arren, salbuespen gutxi batzuk dira, hizkera

⁴¹ Egon saileko adizkietan, bigarren mailako bilakaera bat ere gertatzen da. Bokalarateko /g/ galdu ondoren, bokala itxi egiten da, diptongoa sortuz: *badao* > *badau*; *dao***z** > *dau***z**; *nao* > *nau*... Hala ere, joera hori gazteengan gertatzen da gehienbat, eta nekez aurkituko dugu nagusiengan.

arinaren ondorio besterik ez, eta Euskal Herri gehienez aurkituko ditugun pareko: *aiskidetu*, *baator* ('badator'), *estaitt* ('ez dakit')... Azken adibide horretan, ziurrenik, hitz amaierako herskariak eragina izan dezake aurreko /k/ ahotsaren galeran (Rotaetxe, 1978), adizki-sail bereko kideetan ez delako galtzen (*estakisu*, *estakixe*...).

2.2.1.2 Aldaera nagusiak

Herskarien arteko galtzeak eta txandakatzek oso ugariak dira Euskal Herri osoan, eta hemen ezin ditugu Eibarko aldaera guztiak aipatu. Nagusiak eta arau bezala finkatutakoak bakarrik azalduko ditugu. Izan ere, Michelenaren hitzak hartuz, "*No escasean los casos de permutación entre oclusivas de distintos órdenes. Influye en unos la inseguridad inherente a la posición inicial, en otros la articulación muy relajada entre vocales de las oclusivas sonoras, que da lugar a desapariciones y falsas restituciones.*" (Michelena, 1990).

Gure lan honetan, beraz, aldaera nagusiak besterik ez ditugu azalduko, Eibarko hiztun guztien edo gehien artean arau direnak.

- **Ahoscabeen aldeko joera hitz hasieran**

Badirudi Eibarko euskararen, berba hasieran, ahoscabeenganako joera garbia dagoela, mailegutan behinik behin. Egia da Larrañagak Antzuolarako egiten duen ohar berbera egin daitekeela Eibarren ere, hau da, nagusienek gaztelaniazko zenbait hitzetan soinuak ahostun egiten dituztela (*ganbixo*, *gorbata*, *dorniau*...); baina, oro har, ahoscabeak dira nagusi, euskararen jatorrizko legearen aurka. Hau da, latinezko *cella*, *causa* edo *corpus* hitzek *gela*, *gauza* eta *gorputz* eman dute euskaraz. Eibarren, ordea, mailegu zein euskal jatorrizkoetan ahoscabeak dira nagusi, batez ere hurrengo silaban beste ahoscabe bat agertzen denean: *pekatu*, *kolko*, *parkatu*, *tanboliñ*, *titi*, *torniau*, *kurutze*, *titara*, *kako*, *kerispe*, *keixa*, *kollara*, *koltza*, *konbidautza*, *katibu*, *karsela*... Salbuespenak ere, jakina, badira: *barre*, *golpe*, *bake*, *gorputz*...

Joera horren eremua oso zabala da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, behintzat, arrunta da. Iturainek (1995) eta Michelenak (1990) ere hainbat adibide eman dizkigute Gipuzkoako beste muturrerako, Orio eta Errenteriarako, hurrenez hurren.

- **Ahoscabeak gordetzeko joera n eta l ostean**

Mendebal osoan bezala, *n* eta *l* ondoren ahoscabeak gorde dira zenbait mailegutan: *denpora*, *jente*, *txanka*, *altara*... Dena dela, kontsonante ahostuna duten aldaerak ere entzuten direla esan behar da.

- **Ahoskabeak ahostuntzeko joera n eta l ostean**

Aurrekoaren kontrako joera ere gerta daiteke. Euskaraz arruntak diren eremuez gainera (geroaldiko aditz formak: *emongo, eruango...*; eta lokatibo kasuak: *Zeraingo, Larraulgo...*), araua berba jakin batzuetara ere hedatu da. Adibidez:

trinko > tringo
tronko > trongo
odolki > odolgi ('goroldio')

- **-ki / -gi**

Euskaraz ezaguna da zenbait aditz sortzeko bi atzizki daudela, euskalkiaren arabera: *-ki* eta *-gi*.

Eibarren, mendebal osoan moduan, bigarren taldekoak erabiltzen ditugu⁴²: *eregi, esegi, ebagi, erabagi...*

Eibarren, zenbait hitzetan ere bikote berbera aurkituko dugu, beharbada analogiaz: *belagi* ('belaki', baserriko tresna), eta goian aipatutako *odolgi* ('odolgi', 'goroldio'). Gure herrian forma biak erabiltzen dira.

- **VdV>VrV bilakaera**

Bokal arteko *d>r* bilakaera oso arrunta da Deba ibar osoan eta inguruan, baita erdaraz hitz egiteko orduan ere (Michelena, 1990; Ormaetxea, 2003; Zuazo, 1999). Eibarren ere bilakaera hori oso arrunta eta ugaria da. Hala izanik ere, esan daiteke jokamolde hori beste hizkera batzuetan baino txikixeagoa dela, batez ere Leintz aldekoekin edota Kostaldekoekin (Ondarroa, Mutriku...) alderatzen badugu.

Berbak berba, eta hitzunak hitzun, **VdV>VrV** bilakaera hori duten hitzak lau talde nagusitan sailka edo mailaka daitezke:

1.- aldaera lege da adizki batzuetan. Batez ere, subjektua *nik* denean eta objektua 3. pertsona plurala: *deuaras* ('dizkiat'), *jittuaras* ('dizkiat'), *badakiras* ('badakizkit'), *dakaras* ('dauzkat'). Aginterako kasu batzuetan ere bai: *etorri ari...* Eta *dare* ('daude') zein *zare* ('zaude') adizkietan.

⁴² Bizkaiko beste herri batzuetan erabiltzen den *jagi*, ostera *jaiki* da beti Eibarren. Aramaion ere *egogi* eta *jagi* jaso ditu Ormaetxeak (2003). Eibarren ez dira erabiltzen.

2.- *ero (edo)* eta *eran (edan)* hitzekin ere lege da.

3.- beste hainbat berbatan ere joera handia dute hiztun gehienek. Hara guk aurkitu ditugun batzuk: *aguro, biria, moruan, lorixa, abare, urabarri, merikua, -di* atzizkidun berbak (*piñarixa, pagarixa...*), *-ada* atzizkidunak (*abixara, erderakara, sartara, patxarra, tarrastara...*) eta abar.

4.- kostaldeko (Mutriku, Ondarroa...) eta Debagoieneko zenbait herritako hitzen arteko *d>r* bilakaera ez da Eibarren gertatzen. Adibidez⁴³, Ondarroan, *ikusireu* ('ikusi du'), *etorrre* ('etorri da'), *pagarau* ('pagatu du'); Lekeition, *laguna rator* ('laguna dator'), *ikusirau* ('ikusi du'); eta Aramaion, *isengorie* ('izango dira'), *astixe rauenien* ('astia dagoenean').

Horrez gainera, eta euskalki gehienetan betetzen den legea aplikatuz⁴⁴, bilakaera ez da betetzen ondoren beste dardarkari bat baldin badator: *adurra* (**arurra*), *adarra* (**ararra*), *edo ederra* (**ererra*), besteak beste.

d>r joera orokor horren alboan, kontrako norantza duten hiperzuzenketa batzuk ere aurkituko ditugu: *aidian, barrido, baillada, bidigarro, idia* ('ira')...

• **g/b txandakatzea**

Ez dira larregi talde honetakoak, baina bai ondo finkatutakoak ia denak⁴⁵.

gurdi / ***burdi***
gurpil / ***burpil***
suge / ***suba***
sugalindare / ***subalindara*** ('sugandila')
oera > ***ogera*** > ***obera*** ('ohera')
auan > ***aguan*** > ***abuan*** ('ahoan')

⁴³ Ondarruko adibideak gureak eta Rotaetxe (1978); Lekeitiokoak Hualde et al. (1994); Aramaiokoak Ormaetxea (2003).

⁴⁴ Hualde et al. (1994): "Rhotacism is blocked when the following syllable contains a rhotic in onset position". Gertakari berbera da 2.2.3. puntuan ikusiko ditugun, *edur, idar, sidar* eta *bedar*.

⁴⁵ Beste hizkera batzuetan (Debagoienean, esaterako) arrunta den *obixa* ('ogia') aldaera ez da Eibarren erabiltzen.

- **Txistukaria gehitzeko joera herskari aurretik**

Berba solte batzuk izan arren, Eibarko hizkeraren bereizgarri direnez, merezi du herskari aurretik txistukaria hartzen duten berba gutxi batzuen berri ematea, euskaraz ez direlako arruntegiak. Bakoitzaren jatorria, ziurrenik, ezberdina izango da.

Guk jaso ahal izan ditugunak hauexek dira:

mutur / **mustur**
arratada / **(t)arrastara**
zakar / **saskar**
muki / **muskira**⁴⁶
mokor / **moskor** ('enbor' adierarekin)

Lehenengoak hedadura geografiko zabala du, eta mendebaleko hizkera gehienek ezaugarri da. Besteen hedadura ez da hain nabarmena.

2.2.2.- SUDURKARIAK

Hiru dira Eibarko euskararen aurkitutako ditugun sudurkariak: **m**, **n** eta **ñ**. Lehena, **n**, hitz hasieran, barruan edo amaieran agertzen zaigu; **m** hasieran eta barruan; eta **ñ** hitz barruan eta amaieran.

- **n galtzea: -n + tz > -tz-**

n sudurkariaren ondoren *tz* txistukaria agertzen denean, sudurkaria desagertu egin daiteke ahoskatzeko orduan. Oso nabaria da *izan* aditzaren lehen aldiko formetan. Esate baterako: *banitza*, *nitzuan*, *nitzan*...

- **-ain amaiera gordetzea**

Beste hizkera batzuen ezaugarri da **-ain** (edo **-uin**) amaiera duten berba batzuetan sudurkaria galtzea. Eibarren ez da sekula gertatzen: *arraiñ* (**arrai*); *usaiñ* (**usai*); *artzaiñ* (**artzai*); *ipuiñ*/*ipoiñ* (**ipui*).

⁴⁶Oso gutxi erabilia. Normalena *moko* da.

- **Berba batzuen amaierako n**

Mendebaleko beste hainbat hizkeratan moduan, Eibarren ere sarri gehitzen (edo gordetzen) da beste hizkera batzuetan agertzen ez den berba amaierako **n** soinua. Kasu bakoitza jatorri ezberdinekoa izanik ere, hementxe adibide gisa zenbait berba: *tantan, sentzun, premiña, miiñ, suiñ, mamiñ, arrosin* ('aharrausi')... Eta baita *selan, olan, alandabe, edoselan*... modu-adberbioen segida osoa ere⁴⁷. Erakusle eta adberbio indartuei ere batzuetan gehitzen zaie, hautazkoa izan arren: *auxen, antxen, amentxen*...

Bizkaiko berbeta batzuetan⁴⁸ agertzen diren *eukin, sartun, hartun, lotun* eta *igon* aditzen formak, ordea, ez dira arruntak Eibarren. Leintz aldeko *txikiñ* ere arrotza da gure herrian.

- **nb/m multzoen arteko txandakatzea**

Badirudi euskarak ez zuela jatorriz /m/ soinurik bere soinu-artxiboan. Ondoren, maileguen bitartez eta **-nb-** multzoa ordezkatzuz sartu omen da fonema hori gure hizkuntzan (Michelena, 1990). Eibarren gaur egun ere dantzan dabilta bi aukera horiek. Batzuetan, estandarrean **m** agertzen den lekuan **nb** agertuko zaigu Eibarren:

trumoi / trunboi
tximista / txinbista
tximutxa / txinbotxa
komeni / konbeni

Beste batzuetan aurkakoa gertatzen da, eta **m** ahoskatzen da estandarrean **nb** arautu dena:

senbat / semat
senbait / semaitt
surrunbillo / surrumillo

Hala ere, ezin esan hiztun guztiak eta kasu guztietan berdin-berdin jokutzen dutenik, eta aukera guztiak entzun daitezke. Oro har esan daiteke, gazteen artean estandarreko formak direla nagusi.

⁴⁷ Ez, ostera, *olango, selango* eta abar. Horrelakoetan: *olako, selako, alako*...

⁴⁸ Hualde et al., 1994.

2.2.3.- ALBOKARIAK

Alboko kontsonanteak *l* eta *ll* dira. Lehenengoa hitz hasieran, erdian eta bukaeran azal daiteke. *ll*, berriz, *i* bokalaren eraginez soinua bustitzean agertzen zaigu, bai hitz erdian, bai amaieran. Aipatzekoa da zaharrenek ondo bereizten dituztela /ll/ eta /y/ soinuak, baina gazteen artean bereizketa hori (ia) erabat galdu dela.

Bustiduren atalerako lagako ditugu *ll* fonemaren inguruko azalpenak, eta oraingo honetan *l*-k egiten dituen zenbait aldaketa berezi ikusiko ditugu. Michelenak (1990) dioenari jarraituz, euskaraz arruntak dira *n* / *l* / *r* arteko nahasteak eta txandakatzeak. Eibarren bai bederen. Ikus ditzagun aldaera nagusiak.

- **l/n**

Zenbait berbatan, *lln* txandakatzea dago. Txandakatze hori berba hasieran zein barruan gerta daiteke:

larru / **narru**
lasai / **nasai**
txillar / **(k)iñar**
imillaun / **imiñaun**
kaltzontzillo / **kansonsillo**
koliflor / **koniflor**
giltzurrun / **guntzurrun**

Inguruko berbeta batzuetan, Debagoienean bertan adibidez, *lahar* / *nahar* bilakaera ere badago; ez dirudi Eibarren gertatzen denik.

- **l/d**

Euskal dialektologian historikoki bizkaieraren ezaugarritzat hartu izan den ezaugarri honetan ere, Eibarrek mendebaleko beste hizkerekin egiten du bat.

elur / **edur**
zilar / **sidar**
belar / **bedar**
ilar / **idar**

Kasu honetan, Michelenari (1990) jarraitzen badiogu, ez dago benetan *ll*/*d* alternantziarik; aitzitik, jatorrizko /r/ baten bilakaera ezberdinak baino ez dira, ziurrenik berba berean bi dardarkari egotea saihesteko. Hau da, **erur* > *elur*/*edur*.

• **-l-/-r- eta -lk-/-rk-**

Kasu honetan, gehienetan, forma biak erabiltzen dira; aldaerak ez daude aurreko kasu bietan bezain finkatuta:

solo / *soro*
mallubi / *marrubi*
olixo / **orixo**
pala / **para**
alasa / **arasa**
amelaun / **amaraun**
durdula / **durdura**
malko / **marko**
aulki / **aurki**
mispilla / **mispira**
txiplistiñ / **txipristiñ**
alkondara / **arkondara**
Miraflores / **Millapros**
ilu / **iru (irutu, irua egin)**
zekale / **sikirixo**
muskillo / **muskira**

2.2.4.- DARDARKARIAK

Bi dardarkari ditugu: bakuna /r/ eta azkarra /rr/. Dardarkari bakuna kontsonante baten aurrean azkar bihurtzen da. Bukaeran ere azkar egiten da. Benetako oposizioa hitz barruan bokalartean gertatzen da.

Hitz hasieran, ostera, dardarkari azkarra baino ez dugu Eibarren. Hala ere, euskarak jatorriz dardarkariz hasten den hitzik ez duenez, maileguetan eta onomatopeia gutxi batzuetan bakarrik aurkituko dugu: *radixua, reklamasiñua, rocka, riki-raka, rra-ass, ri-ra....*

Dardarkariz hasitako hitzak euskarak bere egin dituenean, bere sistemara egokitzeko bokal protetikoa (*a* edo *e*) erantsi izan die aurretik. Eibarren ere ugari dira horrelako adibideak: *errege, erropa, arratoi, arrisku, erresoi* ('arrazoi')... Baina beste hainbat mailegutuan (berrietan, batez ere), bokal protetiko barik darabiltzagu: *rebisiñua, rebistia, radarra, reketiak, rebolusiñua, romanuak, robota....*

2.2.4.1.- Dardarkariak galtzea

Lehenago esan dugun moduan, euskaraz nahiko arrunta da bokal arteko kontsonante ahulak galtzea. /r/ dardarkari bakunaren kasuan ere horrela da. Eibarren ere gertatzen da, baina horretan badu Eibarko hizkerak ingurukoengandik bereizten duen zerbait, askoz indartsuago gordetzen dugulako *r* hori berba egiteko orduan. Herskariekin gertatzen den moduan, kasu honetan ere gordetzailleagoa da Eibarko hizkera inguruko beste zenbait baino (Oñati, Deba, Bergara, Urola aldekoak...).

Hiztunaren arabera aldea egon arren, eta salbuespenak ere nahikotxo izan arren, oro har haxe esan dezakegu:

- 1.- Berba batzuetan **erabat galdu** da dardarkaria. Dardarkaria bi bokal berdin artean badago, **-r(V)-** silaba osoa galtzen da: *masma* ('marasma'), *bixamun* ('biharamon'), *keixa* ('gereiza'), *be* ('bere')... Beste batzuetan, dardarkaria bakarrik galdu da, baina bokal biak diptongatu egin dira: *atai* ('atari'), *argisai* ('argizari'), *afaittan*, *bas-kaittan*⁴⁹, *egualdi* ('eguraldi').... Adibide horietan ere erabatekoa da dardarkaria galtzea; forma horiek lexikalizatuta daude. *Orain* hitzaren kasuan ere, silaba osoa galtzen da: *oiñ* ('orain'), *ointzuan* ('oraintsuan'), *oindiokan* ('oraindikan')...
- 2.- **Nork eta zer** hitzen sailetan dardarkaria galdu egiten da, esate baterako: *setan*, *setarako*, *segaittik*, *iñok*, *nok*...
- 3.- Beste zenbait berbatan ere *r* dardarkari bakuna **leundu** eta galdu egin daiteke: *sa(r)atia* ('zarata'), *arma(r)ixua*, *lo(r)ixa* ('lodia')... Horietan, hiztunaren arabera gehiago ala gutxiago leundu edo galduko da dardarkaria, baina oro har esan daiteke inguruko hizkera guztietan (Bergara, Debagoiena, Urola aldea, Durangaldea...) baino askoz ahulagoa dela joera hori Eibarren. *Bea* ('bera'), *ataa* ('atera'), *Zaautza*, *geo* edo *hoixe* bezalakoak ez ditugu aurkituko Eibarko hizkeran.
- 4.- Azkenik, **deklinabide-kasuen multzoa** dago. Inguruko hizkera guztietan⁵⁰ arrunta da datiboan (-e)ri), partitiboan (-rik) eta adlatibo(eta)n (-ra, -rutz, -rainño)

⁴⁹ Hala ere, *baskarixa* eta *afarixa* esaten da, garbi-garbi, /r/ galdu barik. Inguruko hizkera gehienetan, sarri: *afai/bazkai*. Esate baterako Berrizen (Roman, 2001).

⁵⁰ Inguruko hizkera guztietan gertatzen da: Durangaldean, Lea-Artibain, Debagoienan, Goierri, Urolan... Eibarren izan ezik. Ormaetxeak (2003) Aramaioko adibide ugari dakartza, "adlatiboan oinarritutakoko kasuak bereziki ugariak" direla esanez: *Aixelaa*, *Bittoixaa*, *kartzelaa*, *domekaako*, *erreaka*, *ardliik*... Romanek (2001) Berrizen ere fenomeno arrunta dela dio, batez ere adlatiboan (*mesata*, *Durenga*, *etxa*...). Rotaetxek (1978) hainbat adibide jaso zituen Ondarroan (*eskoik*, *andraik*, *oiñetakoik*). Eibarren ez da horrelakorik.

dardarkaria galtzea: *etxeik, mutillai, aurea, ertzeaiño...* Eibarko euskarak ez du inguruko hizkeren ezaugarri hori. Askoz kontserbakorra da, eta hori dela eta, datiboan (*lagunári, lagúneri*), partitiboan (*etxerik, dirurik, alabarik*) edo adlatiboan (*mendira, ohera, kalera*), garbi-garbi ahoskatzen da dardarkaria. Hiztun batek bestera aldea dago, jakina, baina forma laburtuak oso urriak dira gurean.

Gure bilketaren arabera, badirudi baserri-giroan kalean baino pixka bat gehiago entzuten direla dardarkari gabeko aldaerak. Aretak (2003) ere gauza bera dio. Dena dela, dardarkaria galtzeko joera duten hiztun gutxi horietan ere, bokal itxiekin (*i* eta *u*) ez da kontsonantea galtzen: *dirurik, mendirik, lekurik, ogirik...*

2.2.4.2.- Zenbakiak deklinabidea

Hiru eta lau zenbakiak deklinabidearen analogiaz, *sei, zazpi, zortzi* eta *be(d)ratzi* zenbakiak ere /r/ dardarkariaz deklinatzen dira: *seiretan, saspiretarako, bedratziretan, sortziretatik...*

2.2.4.3.- Kontsonante multzo bereziak: -(s)tr- / fr-

Hauetako berba solte batzuk izan arren, Eibarko hizkeraren bereizgarri direnez, merezi du /r/ gehitzean gure hizkeran agertzen diren kontsonante multzo bitxi hauen berri ematea, euskaraz ez direlako arruntegiak. Guk jaso ahal izan ditugunak hauexek dira:

osto / ostro
masusta / masustra
*piztia / fristixa*⁵¹
kuleto / kuletro

Lehenengoak hedadura geografiko zabalxeagoa duela dirudi, baina beste hirurak Eibar inguruko herrietan besterik ez ditugu entzungo.

⁵¹ *Pristixa* ere erabiltzen da Eibarren.

2.2.5.- IGURZKARIAK: J eta F

2.2.5.1.- j

Jotaren ahoskera erdarazkoaren berbera da Eibarko hizkeran, bai hitz hasieran, eta jakina, baita hitz barruan ere. Gamindek (2002) 6 hizkera multzo bereizten ditu Bizkaian, *j*-ren ahoskera ezberdinak kontuan hartuta.

| | Partizipioa | Nor-nori | Alokutiboa | Txertaketa |
|----------|-------------|----------|------------|------------|
| Markina | j | j | j | x |
| Alestia | j | dx | dx | dx |
| Lekeitio | dx | dx | dx | dx |
| Meñaka | dx | d | dx | dx |
| Gatika | y | d | y | - |
| Zeanuri | y | y | y | - |

Gaminde, 2002.

Sailkapen horri jarraituz, lehenengo taldean, Markina eta Ondarruko hizkeren multzoan sartuko dugu Eibarko hizkera, Deba ibarreko gainontzeko guztiekin batera (Oñati izan ezik). Argigarria da Durangaldean esaten dutena: gure eskualdekook *jijau* egiten dugula.

2.2.5.2.- f

Beste igurzkarria, *f*, badirudi ez dela jatorriz euskararen soinu- artxiboko fonema (Michelena, 1990). Horrek ez du esan nahi, baina, beste hainbatetan adierazi den moduan, euskaldunek ezinezko izan dutela soinu hori ahoskatzea. *f*-ren lekua, hizkera askotan, *p* herskariak hartzen du, baina *f*>*p* ordezkatzeak, batez ere Gipuzkoa inguruko berrikuntza⁵² dirudi gehiago. Iturainek (1995) eta Frailek (1996) hainbat adibide ematen dizkigute Oriorako eta Oiartzunerako, askotan gaztelaniazkoak ere bai.

Berrikuntza hori, neurri batean, Eibarrera ere iritsi zen, eta lekuko batzuek /p/ herskaria darabilte igurzkarriaren ordez: *apesiño*, *palta*, *Pelipe*, *pamelixa*, *paillo*... Hala ere, normalean ez dago frikaria esateko arazorik, eta *f*-dun formak arruntak dira, hitz hasieran

⁵² Berrikuntza diogunean, ez dugu esan nahi azken urteotakoa denik, /f/ soinua agertu ondorengoa baizik; hau da, bigarren mailako bilakaera bat. Izan ere, Eibarren (eta baita Gipuzkoa gehienez ere) zahar-zaharrenak dira ezaugarri hori gordetzen dutenak.

(*ferixa, frontoi, fiña, fenomenua...*), zein hitz barruan (*afaldu, afisiñua...*). Hori bai, badira *p*-z bakarrik entzungo ditugun zenbait forma: *alper, alperriko, alpapa, naparra, Pantxika, perratokixa...* eta, nola ez, baita hedadura zabalagoko *piku, pago* eta abar ere.

Eibarren, gainera, inguruko beste hizkera batzuetan moduan, *f*-ren aldeko joera beste ingurune batzuetan ere aurkituko dugu:

• **p/f txandakatzea**

Eibarko euskaran jatorriz *f* -dun formak gorde ez ezik, jatorriz *p* -dunak diren batzuk ere *f* -dun bilakatzen dira, eta alderantziz. Txandakatzea hitz askotxotan aurkituko dugu. Adibide batzuk ipintze aldera:

*ipini / ifini*⁵³
arpan / arfan (arotzeriako tresna)
prejidu / frejidu
ipar / ifar
pandero / fandero
plater / flater
pabonau / fabonau
prixku / frixku
prakak / frakak
priztixa / fristixa
Millapros / Miraflores (toponimoa eta gaitzizena)

Oro har, Eibarren gehiago entzuten dira *f*-dun formak, baina *f*-dunak ere maiz entzuten dira hiztun nagusien ahotan. *Frakak, frixkua* eta *fristixa* kasuetan arruntagoak ere badira, agian *pr* multzoa ahoskatzeko zailtasuna handiagoa delako.

Eibarren auzo batetik bestera alde txikia dagoen arren, nabarmentzekoa da *f*-dun formak askoz ugariagoak direla Otaola-Kiñarraga auzoko hiztunetan. Bertatik igarotzen zen Eibar-Elgeta-Bergara-Arrasate errepide zaharra, eta Debagoienarekin hartu-eman handiagoa izan dute inguruko baserriarrek; inguru horietako baserriarrek ezkontzak ere arruntak izan dira, eta horrek eragin txiki bat sortu du hizkeran⁵⁴.

⁵³ Azpimarratzekoa da 1754ko udal ordenantzetan dagoeneko *ifini* forma agertzen dela (Eibarko Udal Artxiboa, A.22.5.).

⁵⁴ Esate baterako, Eibarren *juan* forma ia erabatekoa den arren, inguru horretako baserrietan, *fan/fuan* ere entzuten da, Debagoiengan bezala.

2.2.6.- TXISTUKARI FRIKARIAK

Eibarko hizkeran, mendebaleko hizkera guztietan moduan, z neutralizatu egin da s-ren alde. Hau da, s ahoskatzen dugu z -ren lekuan. Hala ere, ez dirudi neutralizazio hori hain zaharra denik. Inguruko zenbait herritan (Lea-Artibai eta Debagoiena inguruan) oraindik ere soinu horren aztarrenak jaso ahal izan ditugu, eta Elexpuruk (Uned, 1989) dioenez, Bergaran oraindik entzun daiteke⁵⁵.

Eibarren, baina, lasai-lasai esan daiteke gaur egun z erabat desagertu dela herriko hizkeran, eta gaur egun darabiltzagun frikariak s eta x direla.

2.2.6.1.- z->tx- afrikatzea

Hitz hasieran nahiko arrunta da z->tx- bilakaera hori, frikaria afrikatuz. Txandakatzea sistematikoa da berba askotan, esate baterako, ondokoetan: *txakur*, *txarri*, *txakilletan*, *txapiño* ('txapin', 'zapatila'), *txasta-txasta*, *txaldun*, *txanka* ('zango'), *txekor*, *txistuan letxe* ('ziztu bizian'), *txintxarri*, *txiba*, *txipristin*, *txindurri*, *txitxara* ('zizare'), *txintxilis/txingilis* ('zintzilik'), *txoko*, *txorta*, *txota*, *txorrostaile*, *txuringa* (prolapso, hemorroide), *txuldar*, *txurrutero*...

Badira, ostera, Gipuzkoa aldean bilakaera hori egiten duten eta Eibarren entzungo ez ditugun beste zenbait adibide:

txuri / **suri**
txuringo / **suringo**
txintxo / **sintzo**
txoro / **soro**
txotx / **sotz**
txulo / **sulo**
txuxen / **susen**
tximur / **simur**
tximel / **simel**

⁵⁵ "La confusión total de los dos órdenes de sibilante es hoy general en Vizcaya, salvo, a lo que se indica, en Marquina Echevarría y Bolibar" (Michelena, 1990). Guk ere konprobatu izan dugu, ez bi herri horietan bakarrik, baita Markinan eta Munitibar-Gerrikaitz inguruan ere. Eta ez bakarrik 80 urteko hizlarien artean; baita 50-60 urtekoen artean ere, nahastea handia den arren. Eibarren ere hiztun bati jaso ahal izan diogu z soinuaren hondarren bat. Hala ere, kontuan izan hiztun hori 1904an jaioa dela eta ama Gerrikaizgoa zuela.

2.2.7.- AFRIKATUAK

Eibarren, mendebal gehienez moduan, **tz** eta **tx** dira erabiltzen diren afrikatu bakarrak. Hirugarrena (**ts**), **tz**-ren alde neutralizatzen da. Izan ere, lau txistukariak bitara ekartzea da euskalki honen bereizgarri fonologiko (ia) bakarra⁵⁶: **z** eta **s**, biak egin dira **s**, eta **tz** eta **ts**, biak **tz**. Salbuespen dira *jatxi*, *atxur*, *itxu*, *intxusa*, *itxaso* eta besteren bat, baina horietan **-i** osteko bustiduraren ondorio da ahoskera hori (ikus, 2.2.9. atala).

2.2.7.1.- Afrikatua galtzea

Aurreko puntuan aipatu dugu nola afrikatzen diren berez hitz hasieran **z-** duten hainbat berba. Aurkako fenomeno ere arrunta da Eibarren ingurune batzuetan.

- **-ns-, -ls-, -rs- eta antzeko multzoak sarri ez dira afrikatzen**

Euskaraz, erdaratik hartutako berbetan, **n**, **l** eta **r** osteko frikariak afrikatu egiten dira gehienetan. Eibarren ez da hain argia kontu hori:

- 1.- berrietan ia sekula ere ez: *konsonantia*, *ansiedadia*, *unibersidadia*, *garsak...*
- 2.- zaharretan forma afrikatuak arruntagoak diren arren (*pentzau*, *antzar*, *kantzau*, *bertzolarixak*, *saltzia...*), horietan ere denetik entzuten da, sarritan hitz bera modu bietara ere esaten baita: *bersolarixak/bertzolarixak*, *salsia/saltzia...*

- **Beste ingurune batzuk**

Gainera, beste ingurune batzuetan ere, desfrikatzeak agertzen dira, **ts** afrikatua **s** frikari bihurtuz, adibideak urriagoak diren arren, esaterako: *amesetan*, *ausi* ('hautsi')...

Aurrerago arau morfofonologikoen atalean ikusiko dugun bezala, hitzen arteko bilkuretara ere hedatzen da frikarien aldeko joera, eta aditz laguntzaileak ez dira afrikatzen beste hainbat hizkeratan moduan. Hau da, *il san*, *juan siran*, *jan seben...* eta antzekoak entzungo ditugu beti Eibarren.

Horren alboan, hiztun batzuek kontrako joera ere badute, frikariak afrikatuz: *erretza* ('erraza'), *orratzi...* Hala ere, hitz gutxi batzuetan, eta hiztun gutxi batzuen kasuan besterik ez. Elgoibar aldeko joera dirudi gehiago.

⁵⁶Hualde et al., 1994; Rotaetxe, 1978; Zuazo, 2003.

2.2.8.- H

Hego Euskal Herri osoan gertatzen den moduan, Eibarren ere ez da *h* ahoskatzen. Gehienetan aztarrenik utzi barik desagertu da, esate baterako, hitz hasieran (*au, ori, erri, ondar....*), edo bokal berdin biren artean (*bee, saar, maatz...*). Baina sarri askotan beste kontsonante bat agertuko zaigu *h*-ak lagatako leku berean.

Gehienetan *d* edo *g* azalduko dira, baina beste batzuetan baita *r* edo *b* ere, behar-bada aurreko bien bilakaeraz, *d>r* eta *g>b* bilakaerok bestela ere gertatzen direlako gure hizkeran: *abade>abare; suge>suba*. Hala ere, hori ez dago hain garbi, gutxienez /r/-ren kasuan, berba bitan *g/r* alternantzia aurkitu dugulako: *ahate > agata, arata; zuhaitz > sugaitz, suraitz*. Ziurrenik jatorri ezberdineko bilakaerak izango dira. Azken batean, *g, d* eta *r* oso gertu daude elkarrengandik, eta erraz nahasten dira euren artean. Adibidez, gaztelaniazko *yeso* hitzaren eratorrian ere alternantzia multzo bera aurkituko dugu: *igeltzero, ideltzero, ireltzero*.

Ezin esan aldaerok sistematizatuta daudenik, hiztunaren arabera (eta ingurunearen arabera) aldatzen baitira, baina bai toki handia dutela Eibarko hizkeran. Hementxe adibide batzuk⁵⁷:

uhal / ugal
ihes / iges
ihar / igar, iger
lehor / legor, ligor
bihurritu / bigurritu
ehun / egun (berregun, lauregun...)
aho / ago, abo (abora, abuan...)
ohe / oge, obero
ahari / adari, arari
sahats / saratz
ahate / arata, agata
mihura / migura
zuhaitz / sugaitz, suraitz

⁵⁷ Aipagarria da, Soroluzen arrunta den *bigar* ('mañana') aldaera, edo Bizkaiko zenbait herritan erabiltzen den *bigotz*, ez direla erabiltzen gurean, *bixar* eta *biotz* baizik.

Batzuetan balio bereizlea ere badu kontsonante horrek, esate baterako *aratia* ('ahatea') / *atia* ('atea') edo *adarixa* ('aharia') / *arixa* ('haria') bikoteen kasuan.

Bokal artean kontsonante bat sartzeko joera hori jatorriz *h*-rik ez dagoen berbetara ere zabaldu da, eta horretara:

neurtu / *negurtu*
zeozer / *segoser*
leun / *legun*
ziur / *sigur*

2.2.9.- BUSTIDURAK

Euskarak bi bustidura-mota ditu: *adierazgarriak* eta *ingurumenduzkoak* (*aurrekariak* edo *automatikoak*).

Adierazgarriak dira hitzari indar edo adiera berezia eman nahi zaionean soinuak "bustiz" gertatzen direnak. Sarri esan ohi da bizkaieraz arrotzak direla talde honetako bustidurak eta, oro har, noizbait izan duten hedadura baino murriztagoa dutela gaur egun (Oñederra, 1990). Eibarren ere, Gipuzkoako beste hizkera gehienetan baino gutxiago ditugu. Hala ere, ezin esan arraroak direnik, ezta gutxiago ere. Guk bildutako batzuk, adibiderako: *goxua*, *baltxa*, *xamurra*, *xamarra*, *xinplia*, *kaxkarra*, *koxkorra*, *xoxua* (gaitzizena)...

Ingurumenduzko bustidurak, ostera, indar handia dauka Eibarko euskaran. Ingurumenduzko bustidura esaten zaio, inguruko *i* batek eragindakoa delako. Esaldi bakarrean adieraztekotan, eta Oñederraren hitzak hartuz (1990): «*bokal(erd) palatal goiko edo itxienak ondorengo kontsonanteari bere ahoskune edo artikulazio puntua "kutsatzen" diola esan daiteke, ahoskatzea bustiz edo palatalizatuz*».

Euskaraz busti daitezkeen hotsak hortzetako eta hortz-hobietakoak dira, ahosku-neari dagokionez. Oro har, ozen eta trabariak asimila daitezke: **t** eta **d** herskariak, **s** eta **z** frikariak, **ts** eta **tz** afrikatuak, eta **n**, **l** ozenak.

Gehienetan bustidura hori eragin duen *i* bokala ez da desagertzen. Horrela, *gaiñerra*, *sailla* edo *aixe* ahoskatzen dute herritar gehienek (salbuespen bakarra *gatxa*, *atxa*, *bikotxa* taldekoak).

Salbuespen batzuk egon arren, oro har esan daiteke txandakatzea sistematikoki betetzen dela Eibarren; bustidura horren indarra hitz amaierara ere zabaltzen da, eta baita erdal izenetara ere. Izan ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste euskalki batzuetan, bustidura ez da hain automatikoa berba amaieran (Oñederra, 1990); Eibarren, ziurrenik, hitz barruan beste edo gehiago.

Ikus ditzagun bustidura-kasuak banan-banan.

2.2.9.1.- i + n > iñ

Zerrenda honetakoak dira, esaterako: *baiña*, *gaiñera*, *oiñ*, *fiñ*, *seiñ*, *beiñ*, *baiño*, *gaiñian*, *Amaiña*, *Asittaiñ*... Maileguetan ere zerrenda luzea da: *kamiñua*, *liñua*, *makiñia*, *piñua*...

Salbuespen bakarra, erdaratik jasotako zenbait mailegu alde batera lagata (*inaugurau*...), *ipini* eta *sinistu* aditzak dira (*ipiñi* /*siñistu* ere esaten den arren). Badirudi, *i-n-i* inguruneko hitzetan (bi *i*-ren artean) ez dela betetzen bustidura automatiko hori⁵⁸. Horrek azalduko luke antzeko zenbait hitz-bikotetan dagoen “kontraesana”: *makiña* baina *makinistia*; *ziñan* baina *sinistu*; *ipiñu* (‘mojón’) baina *ipini*.

Ondorengo lerroetan ikusiko dugun moduan, salbuespen hori **i+l** eta **i+t** inguru- neetara ere zabaltzen da, hau da, **i-C-i** ingurune guztietara (horrela adieraziko dugu *i+kontsonantea+i* ingurunea, kontsonante hori edozein dela ere, *t*, *l* edo *n*). Ez da Eibarko ezaugarri berezia; antzeko egoera gertatzen omen da inguruko hizkera- rik gehienetan: Antzuolan, Aramaion... eta baita apur bat urrunagokoetan ere, besteak beste Zaldibian, Lekeition eta abar.

Gogoan izan, era berean, salbuespen direla gure hizkeraren bereizgarri diren alda- era monoptongatu batzuk: *san* (‘zain’), *orban*, *laban*, *espan* (‘ezpain’) eta *usan* (‘izain’) (ikus 2.1.2.1. atala).

⁵⁸ Oñederrak (1990) hauxe dio, oinarriztat Eibarko adibideak hartuz: “*Forma guzti hauetan, albokoa bi i-ren artean aurkitzen da. Badirudi hitzaren barrenean beste ebakin palatala egotea bustidura gertatzeko eragoz- pen izan daitekeela (...) Beharbada horregatik aurkitzen ditugu ibili eta sinistu bestela asimilazio oparoa duten hizkeretan.*”. Ezaugarri berezi horren adibide garbia *pitiliñ* da, non bustigai diren hiru kontsonanteeta- tik (*t*, *l* eta *n*), azkena bakarrik bustitzen den.

Bestalde, talde honetako kasu bereziak dira *aundiña*, *txikiña* eta *nausiña*. *Aundixena*, *txikixena* eta *nausixena* aldaeren ondoan, forma palatalizatuak agertzen dira Eibarren; hiztun zaharren artean nagusi dira, gainera. Horietan, zenbait euskalkitan erabat erregularra den bokal-multzo murriztea (*ie>i*) gertatu da lehenago, ondoren bustidura eraginez.

2.2.9.2.- i + l > ill

Talde hau ere oso emankorra eta sistematikoa da. Zerrenda honetakoak dira, besteak beste: *morokilla*, *ill*, *oillasko*, *mutilla*, *illuntzian*, *teillatu*, *sailla*, *armailla*, *sarrailla*....

Salbuespen da, oraingo honetan ere, i-C-i inguruneko berba-multzoa, besteak beste: *ibili*, *erabili*, *abilidade*, *pitiliñ*, *bili* ('ahate'), *txilixo*, *txintxilik*, *ixilik*, *txilibito*, *Txilibiton*, *txilibrizkau*, *txiliña*... (hiztun batzuek bustiduraz ere ahoskatzen dituzten arren).

2.2.9.3.- i + t > itt > itx

Bustidura hau ere sistematikoki gertatzen da, nahiz eta kasu honetan ere salbuespen izan i-C-i inguruneko berba gutxi batzuk: *pitilin*, *titi*, *igitai*, *kritikau*... eta baita mailegu berri batzuk ere: *pita*...

Nagusienek (batez ere baserri giroan eta bereziki Agiñaga auzoan) *-itt-* ahoskatzen duten arren, esan behar da eibartar gehienek azken muturreraino daramatela bustidura eta *-itx-* ahoskatzen dutela:

iturria > itturrixa > itxurrixa
menditik > mendittik > menditxik
dituzu > dittusu > ditxusu
zergatik > segaittik > segaitxik
egokitu > egokittu > egokitxu
garbitu > garbittu > garbitxu
polita > politta > politxa
ibilita > ibilitta > ibilitxa

Badirudi bustidura azken muturreraino eramate hori eskualde guztiko joera dela, horrela gertatzen baita Ermuan, Elgoibarren, Mutrikun, eta baita Debagoieneko gazteen artean ere (Aranberri, 1996; Larrañaga, 1998; Zuazo, 1999)⁵⁹. Nahasketa hori, baina, nahiko berria da, herri horietan guztietan hiztun nagusiek oraindik -*itt*- ahoskera gordetzen dutelako, eta baserritarren artean oraindik nahiko arrunta delako. 1920. urte inguruko lekukotzak jasotzen dituen Azkueren *Erizkizundi Irukoitzean*⁶⁰, esate baterako, -*itt*- formak dira nagusi Eibarren eta inguruko herrietan: *zurittu, aitta, eraittaillia, geittu, eraitten, loittu...*

2.2.9.4.- i + tz > (i)tx

Ez da aurrekoak bezain automatikoa. Oñederrak (1990) behintzat zalantzan jartzen du, eta Eibarren forma lexikalizatu pare bat besterik ez daudela dio. Hori onartuta ere, zerrenda luzetxoa dela esan behar dugu. Hona hemen guk jasotako batzuk.

Diptongo ostean: *gatxa, surkatxa* ('izukaitza'), *atxa* ('haitza'), *atxurra, itxari* ('ehiztari'), *aritx* (jatorriz 'areitz'), *bakotxa, bikotxa, birigatxa* (tuberculosis), *gatxizen...*

Eta bokal ostean: *itxulittara, itxundu, urritx, iritxi, itxuski, eratxi...*

2.2.9.5.- i + ts > tx

Kasu honetan badirudi ez dela gertatzen bustidurarik: *bitza, egarritzua, egitzua...* Salbuespen batzuk badaude, hala ere: batetik *barritxua* (bustidura adierazkorra dirudi), eta bestetik *itxaso* eta *itxu* (oso hedadura zabaleko formak, bustidura-sistema ezberdina duten euskalkietan ere horrela ahoskatzen dira maiz) (Oñederra, 1990). Diptongo ostean ere badugu kasu bat: *ja(i)txi/je(i)txi* ('jaitsi').

⁵⁹ Bizkaian ere kostalde osoan hedatuta dago joera hori, eta nahasketa Markinaraino heldu da (Gaminde, 2002; Hualde et al., 1994; Rotaetxe, 1978); ez ordea Berrizera (Bravo, 2001). Rotaetek orain dela 30 urte Ondarroan egindako bilketan *tt* oraindik bizirik omen zegoen nagusien artean, baina ordurako galzorian.

⁶⁰ A. M. Echaide. 1984. *Erizkizundi Irukoitza*. Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo.

2.2.9.6.- j + z > jx baina i + z > is

Aurrekoen ildotik, eta mendebaleko hizkeren antzinako ezaugarriari jarraituz, frikarien kasuan ere antzerako fenomenoak gertatzen da diptongo ostean: *goix, noixian, naixela, keixa, elixa, aixe...* Gaur egun hiztun gehienek kasuan bustidura hau ia erabatekoa izan arren, azpimarratzekoa da nagusi-nagusienek ez dutela bustidura hau horrenbeste egiten, eta arrunta da beraiei *goisian goisao* ('goizean goiz') eta tankera-koak entzutea.

Diptongo ostean bustidura gertatu arren, kontsonante arteko *i* ostean ez dago bustidurarik Eibarren: *gison, isar, isara, bisar...* Bizkaiko beste zenbait hizkerako bustidura bereizgarri hori ezezaguna da gure herrian, *txorixo* bezalako hedadura zabalera salbuespenen bat izan ezik.

Aginterako adizkietan ere ez da Bizkaiko beste hizkera batzuetan arrunta den bustidurarik: *eixu, jaixu, ekarrixu...* Izan aditzaren lehen aldian ere ohikoagoa da forma arrunta (*nais, ais*) bustia baino (*naix, aix*).

Kontsonante aurretik ere ez da sistematikoa palatalizazioa (*aiskoria, iskuia...*), nahiz eta kasu horietan ere bustidura egiten duten hiztunak badiren.

2.2.9.7.- i + s > ix

Euskal Herri ia osoan bezala, ingurune honetan sistematikoa da bustidura: *ixilik, prixa, lixo, bixigu, pixu...* Nabarmentzekoa azken hitz hori, bustidurak balio bereizleak duelako: *pisu* (piso) / *pixu* (peso).

2.2.9.8.- i + x > itx

Aurrekoaren kasu berezi bat dela dirudi, batzuetan txistukaria afrikatu egiten baita ingurune berezi batzuetan. Adibide banaka besterik ez dugu aurkitu eta ez oso hedatuak. Arau baino, salbuespen dira.

*zizare > txixara > **txitxara***
*katamixar > **katamitxar***
*bien bitartean > **bixen bittartian** > bitxen bitxartian*

2.2.9.9.- ild, ind > ildd, indd

/d/ren asimilazioak beste kontsonanteek eskatzen ez duten baldintza bete behar du ingurunearen aldetik, mendebalean bederen: *i* eta bustigaiaren artean *l* edo *n* kontsonanteetako bat behar da.

Kasu hau ez da aurrekoak bezain sistematikoa gure herrian, ezta hurrik eman ere. Bizi-bizirik dago mendebalderago (Mallabia, Zaldibar, Berriz...) eta Debagoiengan, baina ez hain indartsu Eibarren⁶¹. Izan ere, hiztun batzuek bakarrik ahoskatzen dute horrela. Beharbada talde kontsonantiko horien kopurua txikia delako, eta bustidura hau, antza denez, besteak baino berriagoa (Michelena, 1990).

indarra > inddarra
hilda > hildda
eginda > eindda
agindu > ainddu

Bi kasuetan bustidura azken muturreraino eraman daiteke. Hau da: *ind>indd>iññ*, *ild>ildd>ill* edo *int>intt>intx*. Adibidez:

ondiokan > onddokan > oiñokan
ninduan > nindduan > niñuan
nindoian > ninddoian > niñoian
*genduan > *gindduan > giñuan*
bildotza > bilddotza > billotza
bildotzik < bilddotzik < billotzik-billutzik
bildurra > bilddurra > billurra

Kasu guztietan lehenengo aukera edo hirugarrena dira entzuten diren ia bakarrak. Bustidura hori indartsuagoa da baserri giroan kalean baino, eta adinekoen artean gazteen artean baino. Esan bezala, ez da Eibarren indartsu dagoen ezaugarria.

⁶¹ Hualde et al., 1994; Oñederra, 1990.

2.2.9.10.- ilt, int > illt, intt

Ondorengo palatalizazio hauek ere aurrekoen antzeko kasuak dira, baina askoz ere bakanagoak. Batetik, Agiñaga auzo inguruan entzun daitekeen *ilt* > *illt* (*hiltten*) bustidura; eta bestetik, mailegu gutxi batzuetako *int* > *intt* > *intx* (*pintxau*, *zintxa*, *zintxuroi*, *erremintxa*...).

Kasu hauetan ere, badirudi arau nagusia bustidurarik ez egitea dela, batez ere hitzik berrienetan: *pintada*, *interno*, *interes*, *intenta*...

2.2.9.11.- Bustidurak - Laburpena

Orain arte esandakoaren laburpenerako, hona hemen Eibarko bustidura kasuen laburpen-taula:

2.3. Taula. Eibarko bustiduren laburpen-taula

| | Bustidura | Salbuespena | Adibideak |
|-----------------------------------|-----------------------------------|--|---|
| n > ñ | bai, sistematikoki | i-n-i ingurunea: <i>sinistu</i> , <i>ipini</i> ... | <i>gaiñera</i> , <i>oiñ</i> , <i>baiño</i> , <i>piñua</i> , <i>liñua</i> , <i>soiñua</i> , <i>eiñ</i> , <i>txikiña</i> , <i>miñ</i> , <i>usaiñ</i> , <i>jakiñ</i> ... |
| l > ll | bai, sistematikoki | i-l-i ingurunea <i>ibili</i> , <i>bili</i> , <i>txilixo</i> ... | <i>morokilla</i> , <i>oillasko</i> , <i>mutilla</i> , <i>teillatu</i> , <i>abilla</i> , <i>fraille</i> , <i>armailla</i> ... |
| t > tt > tx | bai, sistematikoki | i-t-i ingurunea: <i>pitiliñ</i> , <i>titi</i> , <i>igitai</i> ... | <i>politta</i> , <i>itturrixa</i> , <i>dittut</i> , <i>egokittu</i> , <i>Azpeittittik</i> , <i>aittajauna</i> , <i>baitta</i> ... |
| tz > tx | lexikalizatuta | | <i>gatx</i> , <i>atx</i> , <i>atxur</i> , <i>aritx</i> , <i>bakotx</i> ... |
| ts > tx | ez | <i>itxaso</i> , <i>itxu</i> | |
| z > x | diptongo ostean | bokal ostean: <i>gison</i> , <i>isar</i> , <i>bisar</i> , <i>isara</i> ... | <i>goix</i> , <i>noix</i> , <i>naixela</i> , <i>keixa</i> , <i>elixa</i> , <i>aixe</i> ... |
| s > x | bai, sistematikoki | | <i>ixilik</i> , <i>lixo</i> , <i>pixu</i> , <i>prixa</i> , <i>lixo</i> ... |
| d (nd, ld, td) > dd | nekez, hiztun zahar gutxi batzuek | | <i>eindda</i> , <i>ildda</i> , <i>bilddurtu</i> , <i>inddara</i> , <i>ainddu</i> , <i>nindduan</i> ... |
| t (nt, lt, tt) > tt, tx | mailegu gutxi batzuetan bakarrik | | <i>pintxau</i> , <i>zintxa</i> , <i>sintxuroi</i> , <i>erremintxa</i> ... |

Eta hemen, adibiderako, pasarte adierazgarri bat:

Len **eitten** san **keixapian**. **Keixapia** san **keixia**, ta egusentixan jartzen **siñan**, ta soso-birigarruak etortzen siran. Orduan Eibarren **afisiño** aundixa euan orretarako. **Goixeko** bostetan danak etortzen siran, **keixapera**. Jartzen **siñan** txabola bat **eindda** ta mordua iltzen senduasen:

soso-birigarruak kantidadia. **Beñ** akordatzen **naix**, gabian sapaixan ein genduan lo, basarri baten sapaixan. Akordatzen **naix** ointxe be, sapaixan. Jota, badakisu, sapaixan lastua sartzen jatzun. Jole! Gero jua **giñan**, ta an, su arbola baten ta bestia andik kilometro batera-edo. Ta bat san, Orbeanian biarrian **eitten** eban, ta a **ipinitta** eken beste leku baten. Ta gabian a **bilddurtu** ein san, ta **deittu** etzan gure **aittari**: “*amen bat pasau dok aintxixiketan*” **goixeko** bostetan esan etzan, ta, “*goixeko bostetan selan pasauko dok bat! Eure serak dittuk orrek*”. Ta antxe serian barre mordua ein genduan. **Baiña**, gero, Guardia **Sibillak**-eta **saindu** ein biar siran, Mikeletiak-eta. Mikeletiak txarrauk Guardia **Sibillak baiño**. Mikeletiak segidu **eitten** etzuen aintxixiketan, bertakuk siran-ta! Ta, Guardia **Sibilla** ikusten senduan, ta bai, artu eskero bai. **Baiña** Mikeletiak! Arek gogorak siran!

2.2.10.- ARAU MORFOFONOLOGIKOAK

Atal honetan, hizketa-katean berbak elkartzerakoan gertatzen diren aldaketa fonetikoak aztertuko ditugu. Ingurune jakin batean eta elementu gramatikal jakin batzuk elkartzean sortzen diren aldaketak.

Hainbat eta hainbat daude, baina batzuk besterik ez ditugu azalduko, arruntenak eta ugariak besterik ez, batez ere arautzat har daitezkeenak: aditzekin edo deklinabide-kasu batzuekin gertatzen direnak eta Eibarko hitzun gehienen artean finkatuta daudenak.

Garbi gera bedi, fonetika sintaktikoa aztertzen dugun atal honetako hainbat puntutan zaila dela benetan arau dena zehaztea, idiolektoa –hiztun bakoitzaren hitz egiteko modua– erabakigarria delako hitz-kateak modu batean edo bestean ahoskatzeko orduan. Eta zer esanik ez, hizkera-maila: erlaxatuagoa den, arinagoa, jasoagoa, lagunartekoa... horrek eragin handia izango du berba-kate hauek ahoskatzeko moduan.

Hori hala izanik ere, badira Eibarko euskararen ezaugarri diren zenbait fenomeno orokor. Ikus ditzagun.

2.2.10.1.- EZ + aditza:

- **ez + b-, d- > ezb- / ezd-**

Oso arau orokorra da, ondo sustraitua eta Euskal Herriko hizkera guztietan betetzen dena. Eibarren ere salbuespenik gabe aurkituko dugu.

*es badator > **espadator***

*es dakit > **estakitt***

- **ez + j- > etx-**

Mendebaleko hizkeren artean arruntak dira *j-* ebakeradun adizkiak, batez ere hitano-ko alokutiboko formetan. *Ez* partikularekin batzean *ezj* > *etx* bilakaera gertatzen da:

*es jata > **etxata*** ('ez zait')

*es jakon > **etxakon*** ('ez zitzaion')

*es jakuesen > **etxakuesen*** ('ez zitzaizkien')

*es jakuk > **etxakuk*** ('ez zaiguk')

*es jeuan > **etxeuan*** ('ez zegoan')

*es jebixan > **etxebixan*** ('ez zebilean')

*es jon > **etxon*** ('ez din')

*es jonagu > **etxonau*** ('ez dinagu')

*es juek > **etxuek*** ('ez ditek')

*es juan > **etxuan*** ('ez zian')

Oraindik ere arrunta eta sistematikoa izan arren, gazteagoen artean sarri entzuten dira *es jata*, *es jakon* itxurakoak (beti zukako formetan). Ez dirudi, gainera, oraingo-oraingo berrikuntza edo itxuraldaketa denik, 50-60 urteko hiztunen artean ere bietara entzun daitekeelako. Azpimarratu beharrekoa da, hala ere, hitanoan salbuespenik gabe gorde dela ezaugarri hori, ziurrenik hitanoa gorde duten hiztunak hiztunik "onenak" direlako, hizkuntza-transmisioan interferentzia gutxien izan dute. Hori, ezaugarri honetan moduan, beste zenbait ezaugarritan ere ikusi ahal izan dugu.

*Nik bajakixat ba hori, baiña... **etxatak** etortzen ta kapaz nok gaur gabian, pentsatzen jartzen banok, ez nau luak hartuko ha etorri arte e!*

*Zueri **etxatzue** akordauko baiña hamen, gerra denporan, gasolinarik ez euanian, ikatzakin kamioiak ibiltzen zian! **Etxatzue** akordatzen hori?*

*Nork daki –nik hainbeste bonbardeo pasau dot Bizkai aldian eta Santanderren–, eta nork daki nere aittari **etxakon** jausiko horretako bat.*

*Balio dabela. ¡Ya lo creo! Besterik **etxata** akordatzen eta! Beti musikan sartuta neuan ni, beti.*

Araua ez da erabatekoa **ji** hasten diren hitanoko adizki gutxi batzuetan. Izan ere, adizki hauekin forma biak entzuten diren arren, esan daiteke ugariagoak direla lehenengo zutabekoak:

es jittuat > *etxittuat* ('ez dizkiat')
es jittuk > *etxittuk* ('ez dizkik')
es jittuek > *etxittuek* ('ez dizkiate')

- **ez + l-, n-**

Arau orokor modura esan daiteke /z/ galdu egiten dela, baina ez beti. Hiztunaren arabera aldatzen dela dirudi, eta hiztun berberak ere biak erabil ditzake esaldi berean. Hala ere, nagusien artean gehienetan txistukaria galdu egiten da, eta hori da arau nagusia:

es litzake > **elitzake** ('ez litzateke')
es leuke > **eleuke** ('ez luke')
es noia > **enoia** ('ez noa')
es nitzan > **enitzan** ('ez nintzen')
es neban > **eneban** ('ez nuen')
es najuan > **enajuan** ('ez nian')

- **ez + g-**

Horrelakoetan ez dago aldaketarik. Inguruko hizkera gehienetan arrunta da **g>k** aldaketa (*eskara, eskatos, eskaittusu...*). Eibarren, berriz, ez dago aldaketarik: *es gara, es goias, es giñan, es genduan* ('ez genuen'), *es gaosak* ('ez gaudek')...

- **ez + z-**

Kasu honetan ere berezia da Eibar. Inguruko hizkera gehienetan, Gipuzkoakoetan zein Bizkaikoetan, txistukaria afrikatu egiten da sarri: *e'tzan, e'tziran...* Eibarren, baina, ez dugu sekula horrelakorik aurkituko, eta aldaketarik gabe ahoskatzen dira talde horiek.

es *san* > **esan** ('ez zen)
es *siran* > **esiran** ('ez ziren')
es *suan* > **esuan** ('ez zuan')
es *sittuan* > **esittuan** ('ez zituen')

Kontuan izan, gainera, mendebal osoko ezaugarri dela iraganeko formetako Ø marka (*etorren*, *eban* 'zuen', *ebisen* 'zebiltzan'...). Horietan, jakina, afrikatzeko aukerarik ere ez dago⁶².

es (s)*eben* > **eseben** ('ez zuten')
es (s)*ebisen* > **esebisen** ('ez zebiltzan')
es (s)*etorren* > **esetorren** ('ez zetorren')
es (s)*ekixasen* > **esekixasen** ('ez zekizkien')

- **ez + (h)-**

Hitanoko formetako ezezko esaldietan, oro har, ez dago aldaketarik: *es'ator*, *es'eban* ('ez huen')...

Hala ere, esan beharra dago batzuetan *ez* partikulako -z galtzeko joera dagoela, adibidez: *ez + (h)itzan* > *e'itzan* ('ez hintzen').

2.2.10.2.- n-, l-, r- ostean txistukari frikariak gordetzea

Lehenago aipatu dugun moduan, euskaraz arrunta da *n-*, *l-* eta *r-* ostean frikariak afrikatu bihurtzea, eta joera hori aditz laguntzaileekin ere gauzatzen da (*hil zen* > *hiltzen*; *joan ziren* > *joantziren*; *behar zituen* > *behartzituen*...). Eibarren ez da horrelakorik gertatzen, eta frikariak gordetzen dira, afrikatu barik.

il san > **il san** ('hil zen')
joan siran > **juan siran** ('joan ziren')
biar sittuan > **bia sittuan** ('behar zituen')

⁶² Kontuan izan, hala ere, hiztun batzuek *z-*dun formak darabiltzatela: *zetorren*, *zebillen*... (ikus 4.1.8. atala).

Frikariak bere horretan gordetzea mendebaleko euskalkiaren ezaugarria da (Zuazo, 2003), eta Debabarreneko eta Debagoieneko zenbait hizkeratan betetzen ez den arren⁶³, Eibarren arau garbia da.

2.2.10.3.- Adizkien hasierako *d*-galtzea

Aditz laguntzaileen hasierako *d* soinua askotan galdu egiten da ahozko jardunean:

ekarri desta > **ekarri'esta** ('ekarri dit')
ipini detze > **ipini'etze** ('ipini diote')
ikusi dosu > **ikusi'osu** ('ikusi duzu')

Geroaldiko esaldietan ia-ia arau ere bada, batez ere hitanoan:

ekarriko deskuzu > **ekarrikoskusu** ('ekarriko diguzu')
jango dosue > **jangosue** ('jango duzue')
emongo detzut > **emongotzut** ('emango dizut')
esango destak > **esangostak** ('esango didak')

Kasu horietan, gainera, adibideetan ikusten den moduan, aditz laguntzailearen lehenengo bokala ere galdu egiten da gehienetan.

Aditz laguntzaileak **au**, **eu** edo **ei** diptongoak baditu, orduan ez da hasierako *d* hori galtzen; *da* adizkiaren kasuan ere, gehienetan, ez da galtzen:

ikusi deixon ('ikus diezaion')
ekarri deuat ('ekarri diat')
ipini dau ('ipini du')
ekarriko dau ('ekarriko du')
eldu da ('heldu da')

⁶³ Antzuolan (Larrañaga, 1998) eta Deban (Txurruka eta Urbietta, 2003), adibidez.

Aipatzekoa da geroaldiko hikako forma batzuetan gertatzen den hitz-bilkura. Horietan, aditz laguntzailea **deu-** diptongoaz hasi arren, **d-** fonema galdu egiten da eta aditz nagusiari osorik lotzen zaio, adizki bereziak sortuz:

emongo deudas > **emongearas** ('emango dizkiat')
ekarriko deuat > **ekarrikuat** ('ekarriko diat')
sartuko deuat > **sartukeuat** ('sartuko diat')

Ikusten denez, aditz nagusiaren geroaldiko markako **-o** soinua ere erabat desagertzen da. Ezaugarri orokor hori galtzen ari da gazteen artean.

2.2.10.4.- **Ba- + dV- > b(a)V**

Ba baldintzako partikulari *d-*z hasten den adizkia gehitzean, oro har, *d* herskaria galdu egiten da, silaba-galera eraginez. Gehienetan *a* bokala ere galdu egiten da:

emon ba + detzut > **emon betzut** ('eman badizut')
ikusten ba + dittut > **ikusten b(a)ittut** ('ikusten baditut')
esaten ba + dok > **esaten bok** ('esaten baduk')
jaten ba + dosue > **jaten bosue** ('jaten baduzue')
ikusi ba + dot > **ikusi bot** ('ikusi badut')
artu ba + deuat > **artu beuat** ('hartu badiat')

Ondorengo lau adizkiekin, ordea, gehienetan ez dago aldaketarik eta adizkiak oso-oso ahoskatzen dira: *da*, *dira*, *dau* ('du') eta *dabe* ('dute').

sartzen bada ('sartzen bada')
artu badau ('hartu badu')
eltzen badira ('heltzen badira')
emon badabe ('eman badute')

2.10.5.- **bihar > bia > bi**

Bihar ('behar') aditza ez da sekula osorik ahoskatzen. Gehienetan *bia* forma da aurkituko duguna:

artu biar netzan > **artu bianetzan** ('hartu behar nion')
apurtu egin biar jata > **apurtu ein biajata** ('apurtu egin behar zait')
esan egin biar sestasan > **esan ein biasestasan** ('esan egin behar zenidan')

Gehienetan *dV*- hasten diren adizkietan murrizketa hori muturreraino eramaten da, *bia* > *bi* bilakatuz:

egin biar dosue > **ein biosue** ('egin behar duzue')
jan biar dot > **jan biot** ('jan behar dut')
esan biar destasu > **esan biestas** ('esan behar didazu')
josi biar detzat > **josi bietzat** ('josi behar diot')
erosi biar dosus > **erosi biosus** ('erosi behar dituzu')

Murrizketa hori ez da sistematikoa *da*, *dira*, *dabe*, eta *dau* adizkiekin. Kasu horietan arau orokorra *a* bokala gordetzea da, jardun arinean hitzun batzuek soinu hori ere 'jan' dezaketen arren:

oratu biar da > **oratu biada** ('oratu behar da')
erabili biar dira > **erabili biadira** ('erabili behar dira')
jan biar dabe > **jan biadabe** ('jan behar dute')
edan biar dau > **eran biadau** ('edan behar du')

2.2.10.6.- Aditz nagusiaren amaierako -n galtzea

Aditz nagusia -n hizkiak amaitzen denean, eta aditz laguntzailea kontsonantez hasten denean, ahozko jardunean sarri galtzen da fonema hori. Murrizketa hori araua da bi kasutan:

1.- Aditz nagusiak *-tzen/-ten* marka badu, ia-ia aditz laguntzaile guztiekin:

ekartzen seben > **ekartze seben** ('ekartzen zuten')
emoten jok > **emote jok** ('ematen dik')
jaten neban > **jate neban** ('jaten nuen')
juaten giñan > **juate giñan** ('joaten ginen')
artzen desta > **artz'esta** ('hartzen dit')

2.- Aditz nagusia *-n* hizkiz amaitzen denean (*eman, jan, edan, esan...*), aditz laguntzailea *d*-rekin hasten bada⁶⁴.

emon destak > **emo'estak** ('eman didak')
jan dittue > **ja'ittue** ('jan dituzte')

Goiko adibideetan ikusten den bezala, aditz laguntzaileak *d*- marka duenean, *n*- ez eze, *d*- ere galdu egiten da. Izan ere, erraz galtzen dira, bata (*-n*) zein bestea (*d*-), eta bata galdu ondoren bokal artean geratzen dena ere aise desagertzen da. Beharbada horrexegatik, badirudi elkartzeko horiek ahoskatzeko modu bi daudela: kontsonante biak ahoskatuz (hizkera patxadatsu eta jasoagoan), edo biak galduz (hizkera erlaxatu eta arinagoan). Hau da, aditz laguntzailearen lehen hizkia gordetzen bada, *-n* amaiera ere gorde egiten da ia beti.

jan destasue / **ja'estasue** ('jan didazue')
ein dittue / **eittue** ('egin dituzte')⁶⁵
esan dosue / **esa'osue** ('esan duzue')
erosten destak / **erost'estak** ('erosten didak')
esaten deste / **esat'este** ('esaten didate')

Goiko azpi-arau horren ondorioz, *d*- galtzen ez duten adizkien kasuan (ikus 2.2.10.3 atala), aditz nagusiaren *-n* ere ez da galduko:

jan deixan > (**ja'eixan*) ('jan dezan')
esan dau > (**esa'au*) ('esan du')
etortzen da > (**etortze'a*) ('etortzen da')
eraten dabe > (**erate'abe*) ('edaten dute')

Salbuespen dira, era berean, *b*- kontsonantez hasten diren adizkiekin sortzen diren baturak, baldintzazko egiturak, eta *behar* aditza dutenak. Horietan ez da sekula galtzen *-n* amaiera. Adibidez: *jan badau* ('jan badu'), *ekartzen b'osu* ('ekartzen baduzu'), *emon biada* ('eman behar da')...

⁶⁴ Kontuan izan, dena dela, bilakaera hauek oso lexikalizatuta daudela, eta albuespenak ere asko direla. Esate baterako, *jakin* aditzak ez du sekula berba amaierako *-n* galtzen; aditz laguntzaileen artean ere, batzuek *d*- galtzeko joera dute, beste batzuek ez. Hori ez da bakarrik Eibarko ezaugarria; esate baterako, Hualdek, Elordietak eta Elordietak (1994) ere ohar berbera egiten dute Lekeitorako.

⁶⁵ Adibideetan ikusten den legez, bi bokal berdineko taldeak sortzen direnean, sinplifikazioa gertatzen da: *i-i* > *i* (*eittue*), *e-e* > *e* (*esateste*).

2.2.10.7.- Aditz laguntzailearen hasierako **j-** galtzea

Lehen hizkia *j-* duten aditz laguntzaileek ere sarri galtzen dute fonema hori, nahiz kontsonante ostean, nahiz bokal ostean:

joaten jatzu > **joate'atzu** ('joaten zaizu')
etorri jata > **etorri'ata** ('etorri zait')
deitzen jestak > **deitze'estak** ('deitzen zidak')

2.2.10.8.- Ergatiboko zein pluraleko **-k** marka galtzea

Ergatiboko *-k* marka eta *-k* pluralgilea erraz galtzen dira ondorengo hitza kontsonantez hasten denean. Adibidez:

Sue(k) jan senduen ona atzo gabian!
Liburu gustia(k) gaiñera jausi jakusen nai barik.
Neska(k) berandu eldu dira atzera.
Atzoko eskulturak politta(k) siran.

2.2.10.9.- **-k + b- > p-**

*-k-*z bukatzen den hitzaren ondoren *b-*z hasten den beste bat badator, *kb>p* bilakera gertatzen da sarritan. Hau legeau ez da sistematikoki betetzen berba guztiekin, baina bai zenbait berba motz eta arruntekin, batez ere *be* (*bere*, 'ere'), *bai*, eta *ba* ('bada') hitzekin. Horiek *pe*, *pai*, eta *pa* esaten dira *-k* ostean badatoz:

onek be bai > *one' pe bai*
dirurik bez > *diruri' pez*
arek bai sirala onak! > *are' pai sirala onak!*
badakik ba > *badaki' pa*

Neurri batean, baita hauekin ere: *beste*, *baiña*, *baiño* eta *barren*:

ixildu saitte, guk beste dakisu-eta! > *ixildu saitte, gu' peste dakisu-eta!*
suek baiña berandu elduko sarie > *sue' paiña berandu elduko sarie*
ik baiño diru geixao jakak arek > *i' paiño diru geixao jakak arek*
aldrebes dok barren! > *aldrebes do' parren!*

Gainontzeko hitzetan, ostera, luze eta ez hain arruntetan, normalean ez da **b>p** bila-kaerarik:

*Ser nai dosue sue(k) baskaittarako?
Jesus! Are(k) burrukan pasatzen juek egun osua!
Josemari(k) bidigarro mordua arrapau jittuan eskeran.
One(k) basarrixok Gorostaballekuak dittuk; arek ez, arek Mandiola.*

2.2.10.10.- -k + d- > ez dago aldaketarik

Inguruko zenbait hizkeratan (Lea-Artibaikoetan, esate baterako), **-k + d- > t-** bila-kaera gertatzen da (*Joxek dauka > Joxe tauka*)⁶⁶. Eibarren ez da horrelakorik gertatzen, eta elkarketa horretan ez dago aldaketarik (**-k** herskaria leuntzea besterik ez).

Joxek dauka > Joxe(k) daka

2.2.10.11.- -t + b- > p-

Aurrekoaren antzera, **-t** herskariaren ostean ere **b-** ahostuna ahoskabe bihurtzen da sarritan. Oraingoan ere, gehienbat *bai*, *ba* eta *be* partikulen kasuan:

*bat bai beintzat > ba' **pai** beintzat
es dakit ba > **estaki'pa**
bat be es > **bapes***

2.2.10.12.- Berba amaierako -t herskaria galtzea

Berba amaierako **-t** herskaria, beste kontsonante guztiekin osatzen dituen kontsonante multzoetan, leundu eta galdu egiten da sistematikoki ahozko jardunean:

*artu dot dirua > artu do dirua
bost frontoi > bos frontoi*

⁶⁶ Hualdek, Elordietak eta Elordietak (1994) zein Rotaetxek (1978) hainbat adibide dituzte Lekeitio eta Ondarrurako: *posi tas* (pozik daude), *gixona tira* (gizonak dira), *sema tatos* (zenbat datoz). Eibarren ez dugu horrelakorik aurkituko.

*prest gare > pres gare
bost gison > bos gison
es dakat kentzeko asmorik > estaka kentzeko asmorik
amabost laga dittut > amabos lagaittut
senbat mai > sema mai
es dot nai > esto nai
es dot pentzau > esto pentzau
es dakit senbat lagun > estaki sema lagun
es dot telefonua entzun > esto telefonua entzun
bost txakur > bos txakur*

2.2.10.13.- Berba amaierako afrikatua desafrikatzea: tz/ts > s

Berba amaierako afrikatua (-tz), ahozko jardun normalean, gehienetan desafrikatu egiten da kontsonante baten aurrean:

*berakatz bila > berakas billa
otz neukan > os nekan
aritz txikixa > aris txikixa
zugaitz lodixa > sugais lodixa
aberats lodikotia > aberas lodikotia*

2.2.11.- TOPONIMOEN BILAKAERA

Amaitzeko, toponimoak eratzeko dauden atzizki arruntenen bilakaera nagusiak aztertuko ditugu. Batez ere, ahozko jardunean duen garrantzia eta azken urteotan izan duen desitxuraketa saihesteko asmoz, gazteen jardunean maiz entzuten dire-lako erdararen azentukeraren eta ahoskatzearen mendeko formak, esate baterako: *Éizagan egon gara (Eitzán egon gara); Madariágara goias afaltzera (Madaríxara goias afaltzera), Málzagan azidentia izan da (Maltzán azidentia izan da).*

- **-aga>-a:** *Eitza, Altza, Maltza, Kiñarra, Iskua, Pagua, Ipurua, Agiña, Eltzartzza...*, baina *Untzaga*.
- **-iaga>-ixa:** *Elorrixa, Madarixa, Gorostixa, Itterixa, Aixa, Estixa, Zubixa, Asolixa...*
- **-egi>-ei:** *Urkusei, Orei, Irei, Ordei, Apalatei, Pagei, Eskarei...* **-ei** bukaera diptongoa da.
- **-bieta>-bitta:** *Irusubitta, Sagarbitta, Itturbitta...*
- **-egieta>-ei(tta):** *Akartei(tta), Sa(g)artei(tta), Artei(tta), Kutun(e)itta, Urdanditta...*
- **-koa>-kua:** *Txarakua, Markeskua, Torrekua, Barrenengua...*
- **-eta>-eta:** *Elorreta, Untzeta, Bidebarrixeta...* baina *Gorostieta>Gorosta*.

2.3. - ALDAERA LEXIKALEN ZERRENDA

Lehenago aipatu dugun moduan, herri bateko hizkera aztertzerakoan ezinezkoa da aldaera lexikalak banan-banan aztertzea. Gu, beraz, Eibarko euskararen ezaugarri fonologikoak taldeka eta arau-multzoka azaltzen ahalegindu gara. Dena dela, aldaeren zerrenda txiki bat sartzeari ere interesgarria begitandu zaigu. Ez dira denak, jakina, erabilienak eta interes berezia duten batzuk baizik, batez ere eibartarron lexikoan erabat finkatuta eta ondo errotuta daudenak. Guztira 350 inguru dira.

Hiztun batzuek lagunarteko jardun arinean egin ditzaketan aldaera puntualak, osteraz, ez ditugu zerrenda honetara ekarri. Esate baterako, hiztun batek *ganbrioi* (*kamioi*) esan dezake, eta hurrengo batek *txaparan* (*patxaran*). Horrelakoak ez ditugu sartu, ezin delako esan Eibarko aldaerak direnik, hiztun batzuenak baizik.

Sistematikoak diren bustidurak eta epentesiak ere ez ditugu zerrenda honetan sartu (adibidez, *haixe*, *goixao*, *naix*, *gaixo...*; *geixen*, *kaixola*, *goixan...*). Ezta hiztunaren araberako soinu erlaxatuak eta antzekoak (d<r bilakaerak: *moruan*, *birian...*). Bokalarteko g-ren galera ere lexikalizatuta dauden hitzetan bakarrik adierazi dugu. Fenomeno horiek guztiok aurreko orrietako arauetan azaldu ditugu.

Talde bereko aldaeren artean forma nagusia besterik ez dugu sartu (hau da, *edur* sartu dugu, baina ez *edurte*, *edurtza...*). Kasu batzuetan, zerrenda honetako aldaeraren alboan, estandarreko forma ere erabiltzen da Eibarren (*etzin/etzan/etzun*; *buztarrri/uztarrri...*); horrelakoetan biak sartu ditugu. Eta batzuetan Hiztegi Batuko hitza ere sartu dugu parentesi artean, argibide gisa.

Hemen, bada, zerrenda:

| | | |
|---------------------------|-----------------------|-----------------------|
| adari / arari ('ahari') | alper | antz ('hats, kirats') |
| ainka ('haginka') | alperriko | antzar |
| aista ('ahizpa') | altara | arañeun ('herenegun') |
| aittatu | amelaun / amaraun | arata / aata |
| aittu ('aditu, ulertu') | amen ('hemen') | ardandei |
| aixeri / aseri | anai | ardau |
| alasa / arasa | andra | arfan / arpan |
| alberretxiko / albertxigo | angira / aingira | argisai |
| alkar | antepara / aldapara / | aritz / aretx / aritz |
| alkortu ('elkortu') | andapara | arkondara / alkondara |
| alpapa | antxuma | arotz / alkoz / alotz |

| | | |
|-------------------------------|--------------------------------------|---|
| arpegi | betula | erresoi / errasoi |
| arronka / arraunka ('costra') | bialdu | erropa |
| arrosinka / arrausinka | bidar | esegi |
| asalga ('zarba') | bigura / migura ('mihura') | eskatz ('sukalde') |
| asarretu / asarratu | bildotzik / billotzik / billutzik | eskillaso |
| astartu | bildur / billur | eskobara / eskuara |
| asur ('hezur') | bitzau / pitzau | eskuma |
| atai | bixamun / bixamon (('biharamon')) | espan |
| atara / etara | bixar | esparrau / esparru |
| aterri | burdi | ete |
| atx ('haitz') | burpill / kurpill | etzidamun |
| atxekixa / atxakixa | burruka | etzin / etzun / etzan |
| atxur | burutz ('buruz') | euki |
| atzamar / atzapar | bustarri / ustarri | euskera (('baina 'euskalduna')) |
| aundi / andi | dana | euski |
| aurki / aulki | denpora | famelixa |
| bakillau / bakallau | durdura ('garraztarro') | frakak / prakak |
| bakotx | ebagi | fristixa / pristixa ('piztia') |
| baltz | edur | frixku / prixku / prisko |
| baltzittu | egoi | gaba |
| bardin | egotaldi / egonaldi | gabillara / kabillada |
| barixaku | egualdi | galbai / galbara ('galbahe') |
| barri | eguardi | galtzairu |
| barrido / barriro | elixa | ganau |
| barris | emon | gangor / gangar |
| barristu / barristau | entiarro | gasa ('geza') |
| basarri | erabagi | gastai |
| baskaittan | eran ('edan') | gatx |
| bastar ('bazter') | erdera | gisats ('isats, zuhaitza') |
| basurda | ere('g')i | gisur / gusur |
| bats ('pats') | erla ('erle') | gitxi |
| be ('ere') | erlekisten / erlakisten | goix('a')o / goizao (('goiz, temprano')) |
| bedratzi | ernamun | golda |
| bedar | ernara ('enara') | gorantzia |
| beiratu | ero ('edo') | gu('r')en |
| bekar ('makar') | erpa / erpoi ('erpe') | guntzurrun |
| bela ('berehala') | erraiñ ('errein') | gurpitz / gurpitz ('gurbitz') |
| belagi ('belaki, rastrillo') | | |
| benda / menda ('menta') | | |

| | | |
|--------------------------------------|--------------------------------|---|
| idar | keixa ('gerezia') | miñ ('mihi') |
| ifar / ipar | kerisa | mistillo |
| ifini / ipini | kerru / karru / kirru | mitxelekote / mitxeleta / txinbeleta / tximeleta |
| igabera ('igaraba') | kerten | moskan / mokaran / moskoron |
| igar | kiñar / iñar | mun |
| igari | kipula | muskar |
| igés ('iaz') | kiputx / giputx / giputz | mustur |
| íges ('ihes') | kirikixo | mutxurixo |
| igoñ ('higuin') | koillara | napar |
| igortzi / igurtzi | kolko | narru |
| ikubill ('ukabil') | konbidautza | nasai |
| ikutu | koniflor | nausi |
| ille / ill ('hilabetea') | korotz | nere |
| imiñaun / imillaun | korputz / gorputz | nun |
| imutxa ('zimitz') | kuletro ('perretxikoa') | ode ('hodei') |
| intxarri / txintxarri / sintzarri | kuma | odeixa ('hodi') |
| intxor / intxaur | kurutze | odiatu ('hodeitsu') |
| ipoiñ | laba | oillagortalari |
| iputei ('upategi') | lakatx / lokotz | oiñ ('orain') |
| irakorri | landara | ointsuan |
| iratargi / itargi / illatargi | laren ('laurden') | ojal('a') ('ohial') |
| iruntsi ('irentsi') | larogei | okotz ('kokots') |
| isillu | lelengo ('lehenengo') | ondiokan / oiñokan ('oraindik') |
| istar | lexar / lixar ('lizar') | orban |
| itxain / itxoin | liar / lier / ligar | orixo / olixo |
| itzari / eitzari ('ehiztari') | liño | orolgi / odolki ('goroldio') |
| ixo / ijo / eixo ('eho') | lora | ospal / espal |
| jangoiko | lotaldi | ostro ('hosto, orri') |
| jeitxi / jaitxi | luzetu | ostu / otzittu |
| jente / jende | maietz | ota |
| juan / juen / fuen / fan | mailluki / maillubi / maillabi | otzara |
| jungura ('ingude') | makakorroi / makakorro | para / pala |
| jutaldi / juanaldi | mamiñ | parkatu / barkatu |
| kaixo ('kaio, hegazia') | mantzeliña / manzanilla | partika ('pertika, burdiaren zattia') |
| kako | masma ('marasma, armiarma') | pekatu |
| kalandres ('calandria') | masustra / masusta | |
| kapirixo ('gapiro') | matrailla | |
| katibu / katigu | miestu | |

| | | |
|--|--|---|
| pekotz / pekorotz | subalindara / subilandara | txinbista / tximista |
| perretxikotalari | sugasti | txinbotxa / tximutxa |
| pipar | supill / sunbill ('subil') | txindurri |
| pitxar | sur ('sudur') | txingilis('ka')/txintxilis('ka') |
| prejidu / frejidu / prijidu / frijidu | surda | txingor / txior ('zidor') |
| premiña | surrumillo / surrunbillo | txiplistin / txipristin |
| puskar ('puzker') | sursillo ('sudurzulo') | txirringola/txirrinbola/ txirrindola |
| san ('zain, bena') | susa ('ziza') | txirtxill ('kilker') |
| sapai | taillar | txitxara |
| saratz ('sahats, sauce') | tanboliñ | txixa |
| sarda | tantan / tanga ('tanta') | txixalarri |
| sardandei ('sagardotegi') | tarrastara/tarratara/ arrastara | txorta |
| sardau ('sagardo') | tatarras('ka') / tatarrasian / tarrasian / tarrastaka ('arrastaka') | txuldar / txundar |
| sarrailla | titara | txurрут |
| saskar ('zakar') | titi | uesaba ('ugazaba') |
| sastai ('sats-toki') | tolara / dolare | ufal / ujal ('uholde') |
| sastrapa / sostropo / sostrapa | tolostu | ugal |
| satandera | torniau / dorniau ('torneatu') | ugaratxo ('ugazixo, igel') |
| semeiko / simiko ('semaiko') | tringo | ule |
| sentzun | trunboi / trumoi | ultza / ultze |
| sidar | txakur | un / mun / gun |
| sietz ('zehatz') | txaldun ('zaldun, kartetan') | urrin ('urrin') |
| simor / simaur | txanka ('hanka, zango') | urriska / kurriska |
| sirrindara ('zerrenda') | txankulu ('txokolo') | urrua |
| sobra / sorba ('lore sorta') | txantxagorri | urten |
| soiñoko | txarri | urun |
| soiñujotaille / soiñujole | txekor | usan ('izain') |
| solo | txiba ('ziba') | xagu / sagu |
| suba | | |

2.4. - EZAUGARRI FONOLOGIKOEN TAULA

Hasieran aipatu dugun moduan, azterketa dialektologikoetan sarri nahasten dira ezaugarri batzuk besteekin, ez da izaten hierarkia jakinik, sistematikoak diren ezaugarriak txokokeriekin nahasten dira... Azken urteotan lan ugari egin da orain arteko nahas-mahas hori saihesteko, besteak beste Aurrekoetxeak, Gamindek eta Zuazok egindakoak. Hiru horien artean (eta beste batzuen artean), ezaugarriak sistematizatzeke eta deskribatzeko ahalegina erakutsi izan da; moduren batean, euskal dialektologian aintzat hartzeko ezaugarriak zeintzuk diren, eta baztertzeko modukoak zeintzuk diren argitzeko jarrera bizi-bizirik dago.

Sarreran azaldu dugun moduan, gure asmoa ez da izan Eibarko euskara beste batzuekin erkatzea, eta helburu bakarra gure herriko berbetaren ezaugarri fonologiko nagusiak zehaztea izanik, sistema horretatik kanpoko ezaugarri batzuk ere sartu ditugu. Hala ere, beheko taulan beste lan batzuetan euskararen makrosistemarako proposatutako ezaugarrien zerrenda jaso dugu, eta bertan txertatu ditugu Eibarko hizkeraren ezaugarriak, ondoren egin daitezkeen beste bilketa eta konparaketa lanetan erabilgarri izan daitekeelakoan.

Erabilitako iturriak Aurrekoetxea (1995), Gaminde (2002) eta Zuazo (1998)⁶⁷ izan dira. Hala ere, ez ditugu lan horietako ezaugarri guztiak hartu. Aurrekoetxearen lanetik ez ditugu hartu euskarak berezko dituen ezaugarri orokor-orokorrak. Zuazoren lanetik ez ditugu hartu Iparraldeko eta Ekialdeko hizkeretan bakarrik agertzen diren zenbait ezaugarri berezi (esate baterako, *u>ü* bilakaera, *-rtz-* mul-tzoa, edota *-au>-ou* bilakaera). Gaminderen kasuan, kanpoan laga ditugu azentuaren ingurukoak.


Orain arteko azterketan moduan, hiru ataletan banatu ditugu ezaugarriok: bokalak, kontsonanteak eta fonetika sintaktikoa. Ezaugarrietako batzuk batu egin ditugu. Ezaugarri bakoitzaren kasuan, Eibarren betetzen den (+) ala ez (-) adierazi dugu. Kasu pare batean, arau hori betetzen duten hiztun gutxi batzuk daudenez (+/-) adierazi dugu.

⁶⁷ Bizkaieraren Egituraketa Geolinguistikoa. Aurrekoetxea, 1995. Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan. Gaminde, 2002. Euskalkiak gaur. Zuazo, 1998.

| Ezaugarria | Definizioa | Iturria: | +/- | adib / salbuesp. |
|-------------------------------------|--|----------|-----|--|
| BOKALISMOA: | | | | |
| /a/ ren disimilazioa | -a > -e / a | A, Z, G | + | <i>alaba + a > alabia</i> |
| Bokal itxiera; disimilazioa | e,o > i, u / a,e,o | A, Z, G | + | <i>behar > bihar</i> |
| Kontsonante ezarketa I | 0 > C / i (a, e, o) | A, Z, G | + | <i>ogi + a > ogixa</i> |
| Kontsonante ezarketa II | 0 > C / u (a, e, o) | Z | - | <i>diru + a > dirua</i> |
| Mugatzaileren erabateko asimilazioa | a > 0 / V _ | A, Z, G | - | |
| Asimilazioa | a > e / [i, u] (C) _ | A, Z, G | - | <i>iketza, miestu... eta Agiñaga auzoko hiztunak</i> |
| Bokal txandaketa | -e > -a | Z | + | <i>lora, ota, andra...</i> |
| Berezko /a/ galtzea | -a > ∅ | Z | - | |
| Sinkopak | CVC > CC?? | A, Z | - | <i>salb: bedratzi</i> |
| Aferesiak | V > 0 / # / | A, Z | - | |
| Diptongoak I | eu > au / ei > ai | | - | |
| Diptongoak II | au > eu / ai > ei | Z | +/- | |
| Goranzko diptongoak | | Z | - | |
| Erdal -on amaierak | -one(m) > oi | Z | + | <i>baloi, kamioi...</i> |
| KONTSONANTISMOA: | | | | |
| Palatalizazioa I | l, n, t > ll, ñ, tt / i, j | A, Z | + | <i>baña, mailla, garbittu...</i> |
| Palatalizazioa II | d, t > dd, tt / i [l, n] _ V | A, Z | + | <i>indarra, ildda...</i> |
| Palatalizazioa III | Vj + z/tz > V(j) + x/tx | A, Z | + | <i>gatxa, aixe...</i> |
| Ozen osteko ahostuntzea | (p, t, k) > (b, d, g) / (n, l) _ | A | - | <i>denpora, jente, altara...</i> |
| Ozen osteko afrikatzea | (s, z, x) > (ts, tz, tx) / (n, l, r) _ | A | - | <i>hitz zaharretan bakarrik</i> |
| d > r bilakaera | d > r | Z | + | <i>ero, moruan, urabarrixa, biria</i> |
| f > p bilakaera | f > p | Z | - | |
| Txistukarien neutralizazioa | z > s; ts > tz | Z | + | |
| [x] fonema | | Z, G | /x/ | |
| FONETIKA SINTAKTIKOA: | | | | |
| Herskarien bakuntzea | (-p,-t -k) + (b,-d,-g->) (p,t, k) | A | + | <i>one pe bai</i> |
| Ozen osteko afrikatzea | (s, z) > (ts, tz) / (n, l, r) _ | A | - | <i>il san, esan seban...</i> |
| Txistukari osteko afrikatzea | (s, z) > (ts, tz) / (z) _ | A | - | <i>esiñan, eseban, esekan</i> |
| Frikari osteko ahoskabetzea | (b, d, g) > (p, t, k) / (z) _ | A | + | <i>estator, espada, estaitt...</i> <i>salb: ez + g-: es gara, es goias...</i> |
| Ozen aurreko txistukari galera | (z) > ∅ / (n, l) _ | A | +/- | <i>hiztunaren arabera</i> |

Ezaugarri morfologikoak

Guk euskeraz gaizki eitten genduala, hil eitten genduala, asesinau eitten genduala Eibarko euskeriagaz euskera benetakua. Enkanbio, entzun dittugu –lehengo egunian esan netsun, Gabriel Manterolak zelan esan estan– ez lotsatzeko, Eibarko euskera erabiltzeko gure ahuan. Eibarko euskeriak gauza eder batzuek, jiro batzuek eta hitz batzuek dakazela beste iñungo lekutan ez dagozen modokuak; eta ez lotsatzeko euskeraz eitten, Eibarko euskera eitten. Ni ez naiz lotsatzen, hamen nabill erdi euskeraz, erdi erderaz, baiña ez naiz lotsatzen.



Candido Eguren, "Oka Txiki"

3 - EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Atal honetan, determinatzaile-sintagma osatzen duten elementuak aztertuko ditugu: izena, erakusleak, izenordainak, zenbatzaileak, eta abar. Lehendik ere ondo aztertuta zegoen atal hau Eibarren, batez ere Imanol Laspiurren (1999) eta Nerea Aretaren (2003) lanei esker. Irakurleak bertan aurkituko du datu eta zehaztasun gehiago.

3.1.- DEKLINABIDEA

Lehenengo, Eibarko euskarari erabiltzen diren deklinabide-atzizkiak aztertuko ditugu, banan-banan. Bigarren, izenen deklinabideari buruzko taulak emango ditugu. Azkenik, mugagabe pluralaren erabileraren berri emango dugu.

3.1.1.- DEKLINABIDE-ATZIZKIAK

Euskaraz, determinatzaile-sintagmak dira deklinatzen direnak: atzizkia determinatzaile-sintagmako azken osagaiari erantzen zaio (erakusleari, zenbatzaileari, izenordainari, izenari edo adjektiboari), eta determinatzaile-sintagma osoari dagokio. Atal honetan, baina, izenen eta adjektiboen (izenondoan) adibideak bakarrik aztertuko ditugu. Gainerakoak dagozkien ataletan ikusiko ditugu.

Deklinabide-atzizki guztiak ez dira berdinak. Alde batetik, kasu gramatikalak ditugu (NOR nominatiboa, NORK ergatiboa eta NORI datiboa), eta, bestetik, postposizio-atzizkiak (gainerakoak). Bereizketa horrek badu azalpena: kasu gramatikalez osatutako kasu-sintagmek aditzari komunztadura ezartzen diote. Postposizio-atzizkiez osatutako postposizio-sintagmek, ostera, ez dute inolako eraginik aditzaren komunztaduran.

Postposizio-atzizkiak, berriz, bi multzotan bana daitezke: 1) lekuzkoak ez diren postposizioak: instrumentala, sozietiboa, destinatiboa eta motibatiboa; 2) leku-denborazkoak: inesiboa, adlatiboa, hurbiltze-adlatiboa, muga-adlatiboa, ablatiboa. Leku-denborazko genitiboa ere azken talde honetan sar daiteke. Azkenik, prolativea dugu, baina hori berezia da.

Hauek dira ondorengo lerrootan aztergai izango ditugun deklinabide-atzizkiak:

- 1) Nominatiboa [NOR/ZER]
- 2) Ergatiboa [NORK/ZERK]
- 3) Datiboa [NORI/ZERI]
- 4) Jabetza-genitiboa [NOREN]
- 5) Partitiboa [-rik]
- 6) Instrumentala [ZEREZ]
- 7) Soziatiboa [NOREKIN/ZEREKIN - NOREGAZ/ZEREGAZ]
- 8) Motibatiboa [NORENGATIK/ZERGATIK]
- 9) Destinatiboa [NORENDAKO - NORENTZAT - NORENTZAKO]
- 10) Prolatiboa [-tzat]
- 11) Leku-denborazko genitiboa [NONGO]
- 12) Inesiboa [NON/NORENGAN]
- 13) Ablatiboa [NONDIK/NORENGANDIK]
- 14) Adlatiboa [NORA/NORENGANA]
- 15) Muga-adlatiboa [NORAINO/NORENGANAINO]
- 16) Hurbiltze-adlatiboa [NORUTZ/NORENGANUTZ]

1) Nominatiboa [NOR/ZER]

Aditz iragangaitza duten perpausetan subjektuari dagokion kasua da nominatiboa, eta aditz iragankorreko perpausetan, berriz, objektuari dagokiona.

Ø da nominatiboaren marka. Hala ere, artikulua eranstea, emaitza hauek gertatzen dira:

- Mugagabea: Ø da nominatibo mugagabearen marka.

*Oin zenbat **urte** ekazen honek Basarri hil danak?*

*Ta badakik ze **izen** ipini zetsan hari?*

*Lau **metro** ez zuan, baiña metro bi edo...*

- Singularrean: **-a** da singularreko artikulua marka. Baina bokalez amaitzen diren hitzetan, bokalen elkartzearen ondorioz, zenbait aldaketa fonetiko gertatzen da: *-ia, -ixa, -ua* eta *-a* dira ohikoenak (ikus fonetikako 2.1.1.1. atala: *-a/-e+a>-ia; -i+a>-ixa; -o/-u+a>-ua*).

Aldaparria bajau, **panaderixia** hor Ermuarretakua, ba, aldapariori bajau ta atzera gero Elgeta kaletik gora eruaten jittuen behixak edo zerak... idixak... han soziuz gero hartu deixen.

Eta **elixa erromanikua**, bere kalostriekin, oso politta zan.

Hau zerau, esan duana, mutiko txiki**XA** zuan, txiki-txiki**XA** zuan ta...

Lehenguan egurr**A** eitten zan moduan, ikatz**A** eitten zan moduan...

- Pluralean: **-ak** da pluraleko artikulua marka. Singularrean gertatzen denaren antzera, bokalez amaitutako hitzetan **-ak**, **-iak**, **-ixak** eta **-uak** izan daitezke emaitzak.

Esate baterako, **hillarri biribillak** topau genduzen.

Ta han San Lorenzo egunian karnazeruak **txuletak** eruan, erre ta biba la pepa!
Ta tanboliña egoten zan!

Gu gazt**IAK** giñanian!

Ta gero, ba, ha erretzen zanian, kentzen eben ta zati**XAK** ein, zaku**AK** bete ta gero saltzen zeben, ba, taillarretan!

Erabilerari dagokionez, Eibarko euskaran nominatiboa beste edozein euskalkitan bezala erabiltzen da. Aipatzekoa da, dena dela, mugagabearen erabilera zuzena, beste zenbait hizkeratan hain zorrotz betetzen ez dena.

Nominatibo edo absolutibo mugagabea ondorengo inguruneetan erabiltzen da:

- Zenbatzaile zehaztuekin:

Hiru **abade** pasau dira hamen, hiru **parroko**.

- Zenbatzaile zehaztugabeekin:

... ez nintzala nahikua **persona**, nahikua **gizon**, hárek gizonen kontra jardutzeko.

- Izen bereziekin:

Luis Pedro ni baiño bastante gaztiaua.

- Zer eta zenbat galdetzaileekin:

Ez dakit zenbat **herritxo** ziran eta ixa erdixak eguazen hustuta, ruinan.

Ze **irudi** eta zertzuk eguazen, estiluak.

- Predikatu osagarrietan:

... eta **abade** sartu eben.

2) Ergatiboa [NORK/ZERK]

Ergatiboak subjektuaren funtzioa betetzen du beti, eta aditz iragankorra behar du.

- Ergatiboaren paradigma osoa nominatiboko formei amaieran *-k* jarrita eratzen da; salbuespena, kontsonantez bukatzen diren hitzen forma mugagabeak dira, *-ek* marka hartzen dute eta:

*Ikustekua izango zan zenbat **gizonEK** ein daben hori!*

*Eurak baekixen hori, hangua, ta harek nahi juen handik bialtzia gu, españolena ez zuan izan be ta errezoia eken harek be ta ha geuk hartutako zer bat zuan ta geur be halan segitzen jok **MarruekoseK** Española.*

- Mugatu singularrean ere nominatiboko formari *-k* erantsita sortzen dira forma ergatiboak:

*Nahiz ta kanpuan musikia egon, **frontoiaK** ekan indar haundixa.*

*Ta esan be bai eitten zoskuan guri **amaK**.*

- Pluralean *-ak* da marka, nominatibo pluralaren marka bera, alegia. Hortaz, Eibarren forma aldetik ez dira nominatibo eta ergatibo plurala bereizten; Euskal Herriko eremu zabalean gertatzen den fenomeno da hori.

***ItalianuAK** eta **zerAK** alde ein zeбен eta ni geldittu nintzan.*

*Tronboia joten **zebanAK** bioliña doblatzen zeban eta, badakizu, saxofoia joten **zebanAK** flautak eta zerak.*

*Ta eurak txakur haundi **bixAK** be amari lapurretan ein bihar...*

Hiztun nagusienek azentua erabiltzen dute ergatibo plurala eta singularra bereizteko:

*Haren **gizónak** ein dabena haundixa da, gero!*

*Soziedadian batzen dira **gízonak** zapaturo.*

3) Datiboa [NORI/ZERI]

Datiboak zeharkako osagarriaren funtzioa betetzen du.

- Mugagabea eta mugatu singularrean, nominatiboko oinarrirei **-(r)i** kasu-marka erantsita eratzen dira datiboko formak:

*Enee, zenbat **katurI** emongo zetsan harek jaten!*

*Hasi zan daneri sarrerria duruan ipintzen! Eta **jentiarI** sartzen laga.*

*Uruna pasatzen eban, gero ur berua bota, labaduria bota, **ogixarI** moduan, labaduria bihar dau pixkat, labaduria botatzen etsan, harrotu deixan, ez?*

- Mugatu pluralean, ostera, datiboko formen eraketa bestelakoa da: nominatiboko formei barik, oinarriko hitzari gehitzen zaio kasu-marka **(-e(r)i)**. Aldaerei dagokienez, normalean **-eri** erabiltzen da Eibarren, baserritarren artean **-ei** forma ere entzun daitekeen arren.

*Eta **eskopetERI** be sartzen zetsen, eskopeta **onerI**.*

*Guk esaten gentsen **gaziERI** ezetz, libertadia danentzat dok, ez guretzat bakarrik.*

*Harek esaten eban, partidua ikusten ebanian, **pelotarixERI** begitzen etsen estilua pelotia joteko, zelan joten eban besagaiña eta zelan joten eban kortadia.*

*Hori zerian pasau zan, [...] **kuadrillakuERI** pasau jakuen hori.*

Azpimarratzekoa da datiboko /r/ soinua gorde egiten dutela hiztun gehienek, Deba ibarrean oro har gertatzen denaren kontra⁶⁸. Aipatu dugun moduan, mugagabea eta mugatu singularrean ondo gordetzen da, eta gainera, datibo pluralean ere gehitu egiten da. Eibarko hizkeraren ezaugarri bereizgarria da.

Datibo pluraleko **-eri** marka ez da hain berria, XVIII. eta XIX. mendeetako testu zaharretan ere agertzen delako (Izagirre et al., 2000). Gaur egun ere aldaera hori da nagusi herrian.

4) Jabetza-genitiboa [NOREN]

Determinatzaile-sintagmak jabetza-genitiboaren marka hartzen duenean, izenlagun bihurtzen da, eta, gehienetan, izenaren ezker aldean kokatzen da, eskuin alde-

⁶⁸ Esate baterako, Debagoienean ia inoiz ez da ahoskatzen, ez Bergaran, ez Aramaion, ez Antzuolan...; bai, ostera, Ermuan (Aranberri, 1996; Elexpuru, 2005; Larrañaga, 1998; Ormaetxea, 2003).

an ere ager daitekeen arren. Oro har, jabetasuna adierazten duen kasua dugu hau, baina jabetzarekin zerikusirik ez duten beste hainbat testuingurutan ere erabiltzen da: *-(r)(e)n bat* egituran, datetan (hilabeteari erantsita), postposizio jakin batzuekin (*gaiñian, parian, ...*) eta beste hainbatetan.

- Mugagabea: jabetza-genitiboaren mugagabeko forma nominatibo mugagabeko formei kasu-marka erantsita lortzen da (datiboan moduan). Gehienetan, *-n* kasu-marka da bokalez amaitutako hitzei eransten zaiena; kasu gutxi batzuetan, *-ren* marka ere erabiltzen dute hitzunek (*-(r)(e)n bat* egituretan topatu ditugu *-ren* markaren adibide gehienak). Kontsonantez bukatutako hitzei, berriz, *-en* eransten zaie.

*Edozein **mendIN** magalian aurkittu leikez halakuak.*

*Jakizu zenbat **pertsonaN** gaiñian ein zebeñ berba!*

*Hantxe topau neban, **zikiñEN** artian.*

*Plastiko-zakuakin edo, haiziak ez deizen eruan, **sokan batekin** edo zeozekin lotu puntan ta eurixa ta... eusteko!*

*Karretia ipini han **ultzeREN baten**-edo batuta, ta hantxe "ti-ti", harixa.*

- Mugatu singularra eratzeko, nominatibo singularreko formei *-n* kasu-marka eransten zaie. Gertatzen diren aldaerak nominatiboan aipatutako modukoak dira, hitzaren amaierako letraren arabera, alegia.

***Nobixian** lagunak etorri ziran gero.*

***Abuztuan** zortzixan ein zittuan urtiak.*

***Aman** laguna etorri zanian, orduan hasi ziran kontuak.*

***Astuan** gaiñetik jausi zan ta sekulakua hartu zeban!*

Ikusten denez, Eibarko euskaran, genitibo singularreko formek ez dute euskara batuan eta beste hainbat euskalkitan izaten duten /r/ soinurik. Izenordainak dira salbuespena (ikus 3.3. atala).

- Mugatu pluraleko formak oinarriko hitzari *-en* gehituta lortzen dira. Hitzaren erroaren amaiera zein den, forma bat edo bestea hartuko du (ikus fonetika ataleko 2.1.1.1. puntua).

***Andren** kontuak dira hórrek.*

*Eibarren guardia **zibilien** semiak be euskeraz eitten juen igual.*

Eman ditugun adibideetan ikus daitekeenez, izenlagunaren ondoko izena deklinatu egin daiteke. Askotan gertatzen da izen hori isiltzea eta bere deklinabide-atzizkia izenlagunak jasotzea:

*Eta nere anaia juan zan gizonezkuen koruakin eta ni juan nintzan **neskENekin**.*

Jabetza-genitiboa beste kasu batzuk eratzeko oinarria izaten da. Hala ere, beste euskalki batzuetan genitiboaren gainean eraikitzen diren kasuak nominatiboaren gainean eraikitzen dira Eibarren: *gizonakin, gizona(n)gan, gizona(n)gana, gizona(n)gandik...* Dagokien puntuan ikusiko ditugu banan-banan.

5) Partitiboa [-rik]

Partitiboa mugagabea ageri da beti, eta **-(r)ik** da hartzen duen marka. Aipatzekoa da Eibarko euskaran partitiboaren /r/ gorde egiten dela, Deba ibarrean oro har gertatzen denaren kontra (ikus datiboari buruz esandakoa, eta fonetikako 2.2.4.1. atala).

*Intxaur**RIK** ez zeskuen lagatzen osten, intxaurra saldu eitten eben, baiña gaz-taiña nahi genduana, e?*

*Eibarren mutilla formal bazoian ez jakon kalabaza**RIK** emoten.*

Eibartar guztiek **-rik** marka erabiltzen duten arren, zenbait eibartarri entzuten zaio, lantzean behin, **-rikan** aldaera⁶⁹:

*Han ez dozu bihar jateko**RIKAN** fuerte, esnia euki ezkeru, esnia, eta ogixa.*

Ondorengo testuinguruetan erabiltzen da partitiboa:

- Ezezko perpausetan:

*Eta nik ez dot **dibujorik** ikasi.*

*Ta lantzian behin, **kutxararik** eta ez erabili, holan erain kazueliari.*

*Ta harek ez badozu nahi erosterik, nik ez dot nahi **zapatarik**, nik ez dot erosi-ko **zapatarik**!*

⁶⁹ Eibarkoa baino, Elgoibar aldekoa da **-rikan** forma (Leon, 2004).

- Galderetan:

Tabernarik badao han?

Ezer **barririk** badozu?

- Baldintzazkoetan:

... euskeriak ezer **bererik** badauka fonetismuan, dala 'h' aspirada hori.

Dirurik bagenkagun, pixkat eraten genduanian, kantau eitten genduan.

- Superlatiboetan:

Bonaparte egon zanian, **euskalkirik** zabalena, hain zuzen, Lizarragana, Elkanokuana.

Hauxe da munduko **gauzarik** ederrena.

Batzuetan *eta* partikula hartu dezake indartzaile gisa:

Zein da nik sekula ikusi doten **umerik eta ederrena**? Zein?

- *Barik* (*gabe*) partikularekin, batzuetan:

Dударик barik baliozkotzat joten dot baiña...

Gaztaiña, **oskolik** barik batizu, bai?

- Baiezkoetan, balio enfatikoak eman nahi zaionean izenari:

Gero, *gaiñera*, baekan hor **senitartekorik** Kuban.

Sekula holako **umerik!**

- Adberbioak sortzeko atzizki moduan:

Kasu honetan, hitzak lexikalizatuta daude eta, gehienbat, berba jakin batzuekin bakarrik erabil daiteke: *gaixorik*, *narrutsik*, *ortosik*, *ondoezik*...

Bueno, *nobixia*, *behintzat*, **gazterik** billau gendun, hamazortzi urtekin.

Porke nere gizona **gaixorik** eguan bihotzetik eta ez jakon komeni holako gauzarik.

Eta holan, pasau ein neban **narrutsik**, **bilutsik**, febrero baten -edo martixan lehelen-guetan?- Bidasoako errekiak, kontrabandista batzuegaz.

6) Instrumentala [ZEREZ]

Aditzak adierazten duen prozesua zein tresnaz edo zeren bitartez burutzen den adierazten duen kasua da hau.

Eibarko hiztunok mugagabeen erabiltzen dugu, batez ere, instrumentala. Oro har, bokalez amaitzen diren berbek zuzenean hartzen dute instrumentalaren -z marka, eta kontsonantez amaitzen direnek, berriz, -e- bokala txertatuta (-ez).

*Mendixak **edurreZ** beteta dare.*

*Mikelek salto eitten eban **pozeZ**.*

*Umia gau guztian **negarreZ** egon zan.*

***GabaZ** ein eban Eskola Armerixia.*

Zenbait hitzekin, -az/-ez markak, biak, erabiltzen dira:

*Eta juaten nintzan, esango detsut ba, 86-100 –hortxe ibiltzen zan– taillar bisittatzen nittuan nik **oiñAZ**.*

*Oin ba, oin kotxian juaten gara Arratera eta han ibili, eta lehen ez! Lehen ba, **oiñEZ** edozein lekutara.*

Beste euskalki batzuetan instrumentalaren bidez adierazten dena, soziatiboa, motibatiboa edo inesiboa erabilia adierazten da sarri Eibarren:

- *Soziatiboa:*

***Aizkoria**kin ebagi.*

*Mutillak **gogu**akin eitten eban biharra.*

*... baiña **euskeri**akin ez giñan gu gogoratzen ezertarako be.*

- *Motibatiboa:*

***Harengaittik** berba ein zesten.*

***Gaurkuagaittik** ez dogu beste ezer eingo.*

- *Inesiboa:*

***Trenian** juan giñan.*

*Eta hárek interesakin hartu eben eta laguntzen esten **gabian** eskolara juaten eta lantegixan biharra eitten.*

7) Soziatiboa [NOREKIN/ZEREKIN - NOREGAZ/ZEREGAZ]

Eibarren, *-(e)kin* da soziatiboaren marka nagusia; hain zuzen ere, *-(e)kin* mugagabea, *-akin* singularrean eta *-ekin* pluralean. Mugagabea eta mugatu singularra nominatiboko formen gainean eraikitzen dira, eta plurala, berriz, oinarriko hitzaren gainean zuzenean. Hitzaren amaierako letraren arabera aldarak datiboan azal dutako berak dira.

*Handik, basarrittik _esan detsut, ba_ hoge**urteKIN** eta zer jakingo dozu ba!*

PrimerakuEKIN eta **segundakuEKIN** eta **danEKIN**.

*Eta, ño, zerian, eta miniori bajatu zan eta ipiñi ze**b**en **bárriAKIN** eta **zerAKIN**.*

Normalean, soziatibo-markaren aurretik ez da jabetza-genitiboaren markarik erabiltzen. Jabetza-genitiboaren marka txertatuta duten adibide bakarrak izenordainak eta zenbatzaileak dira (*laurekin, birekin, ...*), eta, euren artean, *birekin* da erabiliena. Hala ere, *bikin, laukin*, eta abarrak ere erabiltzen dira⁷⁰.

*Hiru xemeikokin edo txakur haundi **bIREKIN** ha be plazan euanik haundiña!*

-(e)(g)az forma ere erabiltzen da, baina galtzen ari da, eta nekez aurki daiteke hirurogei urtetik beherako eibartarren artean⁷¹. Zaharrenak dira, beraz, forma hori erabiltzen dutenak, eta, zaharrenean artean, kaletarrek baserritarrek baino gehiago darabilte; Aretak (2003) ere ondorio bera atera du.

Ahoskerari dagokionez, *-(e)(g)az* forma soildua erabiltzen dute hiztunek (kontsonanterik gabe, alegia) oso normala da-eta bokalarteko herskari ahostuna /g/ galitzea. Ondorioz, *-(e)az* forma soilduak instrumentalaren itxura antzekoa daukanez, sarri nahasten dira bi formok, ondo bereizi beharrekoak izan arren.

*... ta egongo ziran, seguramente, zain eureri edadia etortzeko, neska bat**EAZ** edo nes**KEAZ** ...*

⁷⁰ Zenbatzaileen deklinabidearen inguruko informazio zehatzagoa *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua* liburuan (Laspiur, 1999).

⁷¹ Galera hori ez da gaur egungoa. 1754ko ordenantzetan (Eibarko Udal Artxiboa, A.22.5.) *-quin* bakarrik agertzen da, eta gauza bera Francisco Arrate apaizaren sermoietan, 1870 inguruan (San Martín, 1992). Debagoienean arrunta izan arren, badirudi Eibar *-gaz* formaren muga egon dela beti eta sekula ez duela erabat hartu mendebaleko atzizki hori. *-gaz* / *-kin* lehia horretan *-kin* nagusitu izan da orain arte, eta horrela da gaur egun ere.

... ugezaba ta bihargiñak tabernara alkarr**EAZ**, alkarr**EAZ** afaldu ta alkarr**EAZ** kazara ta...

... eur**EAZ** juaten giñan, gaztiak.

Guk Amoroton, juaten giñan, ta ganau**EAZ** dana jositta, zuri-zuri einda.

Eman ditugun adibideetan ikus daitekeenez, sozietiboak kidetasuna adierazten du gehienetan. Adierarik arruntena hori den arren, beste hainbat ere izan ditzake, besteak beste zergatia, modua, nolakotasuna, denbora.

*Bai, ba, han eitten zeban **beruakin** janztekorik be ez.*

*Baekan zelan bizi **dendiakin** baiña biharra, lana einda bizi izatia nahi eban.*

*Bueno, nobixia behintzat gazterik billau gendun, hamazortzi **urtekin**.*

*Eibar ezautu neban nik sei milla **habitantekin**.*

Bestalde, instrumentala edo bizidunen inesiboa erabili ordez, sozietiboa ere erabil-tzen da askotan (ikus instrumentalaz eta inesiboaz esandakoa).

8) Motibatiboa [NORENGATIK/ZERGATIK]

Zergatia adierazteko balio duen postposizio-atzizki honen aldaera nagusia -*(g)aittik* da Eibarko euskaran⁷². Hau da, normalean genitiboko kasu-markarik (-*reln*) ez du hartzen (izenordainetan bai, noski), eta atzizki amaieran ez zaio -*an* gehitzen (-*gatican*). Dena den, lantzean behin amaierako -*an* zein genitiboko kasu-marka ahoskatzen duten hiztunak ere badira.

Askotan, -*gaittik* markaren /g/ herskari ahostuna bokal artean geratzen denez, gal-tzeko joera handia izaten du, eta beraz, -(*e*)*aittik* da Eibarko aldaera fonetiko arrun-tena.

- Beste kasu batzuetan gertatzen den moduan, mugagabean eta mugatu singula-rrean nominatiboko oinarriari eransten zaie -(*g*)*aittik* postposizio-atzizkia; kon-tsonantez bukatutako hitzetan, batzuetan tarteko bokala sartzen da (-*e*) muga-gabea, baina ez beti.

⁷² Eibarren ez dira entzuten, ez Durangaldeko -*ka(i)tik* formaren multzokoak, ez Debagoieneko -*gatic* forma-ren taldekoak.

Eta hille pare **bate(G)AITTIK**, **hiru(G)AITTIK**, neuk abanzau netsan.

Zientu bat **milla(G)AITTIK** edo izan zan diferentzia.

Baiña ostian, edur **pixkatE(G)AITTIK** eta bai.

Eta beraren **ontasuna(G)AITTIK** gogor jartzen zan patronuen kontra.

Nere **lana(G)AITTIK** agradezitzen haixe!

...hor Parlamentuan formau zan Comision Picasso eta harek gauza asko etara nahi zittuan argittara: zelan Erregiak eta militarrek kulpia zeken Afrikako gerriana, Annuaileko **asuntua(G)AITTIK**.

- Mugatu pluralean, berriz, *-e(g)aittik* da marka, eta oinarriko hitzari eransten zaio zuzenean (ondorioz, eransten zaion hitzaren amaierako letraren arabera izaten da emaitza).

Erdeldunak eta gehixago etorri dira hori amorruari zetsena elixiari, euren herri-xetako **persekuziñuE(G)AITTIK** eta **barrikete(G)AITTIK**.

Donostia guardia **zibille(G)AITTIK** hartu zan, e!

Ta baten gaiñera [Gernika esaten gentsan...] **hildakue(G)AITTIK** ez dago ondo esatia baiña, txarrixak!

Zergatia adieraztea da esangura nagusia, baina baditu beste batzuk ere; besteak beste hauek:

- denbora (*gaurkua(g)aittik nahikua ein dou*)
- jarrerak adieraztea (*nire(g)aittik juan zeinke*)
- eta ablatiboaren ordezkua (*amama(g)aittik jakin neban hori*).

9) Destinatiboa [NORENDAKO - NORENTZAT - NORENTZAKO]

Destinatiboaren marka nagusia *-ndako* da Eibarren⁷³. Horrez gainera, *-ntzako* eta *-ntzat* ere erabiltzen dira, baina gure laginaren arabera, askoz gutxiago; kaletarrek baserritarrek baino gehixeago, eta gehien gazteek.

⁷³ Debagoienean ere *-(e)ndako* da atzizki arruntena; Elgoibarren eta Deban, berriz, *-ntzako* eta *-ntzat* dira aukera bakarrak (Zuazo, 1999).

Oro har, jabetza-genitiboan azaldutako arauen arabera itsasten zaio postposizio-marka oinarriari: mugagabea *(-e)ndakol/(-e)ntzakol/(-e)ntzat* eta mugatu singularra *(-ndakol/-ntzakol/-ntzat)* nominatiboko oinarriari, eta mugatu plurala *(-endakol/-entzakol/-entzat)*, berriz, hitzari berari. Era honetan, hitzaren amaieraren arabera sortzen diren emaitzak desberdinak izaten dira.

- **-ndako** formadunak:

*Ta hori izaten zan, kanpoko **jentiaNDAKO** ta... "Joño!" atenziñua deitzen eben.*

*Danak gordetzen ziran gurian... **ArtuaNDAKO** ta **garixaNDAKO**... danak be ez ziran asko egoten ta!*

*Ona zala, batetik, Eibarko **herrixaNDAKO**.*

*Eta nik jakin neban, ha kañoiak gutxi balio zebala **antiaereuENDAKO** -ez zeguan preparauta ondo, ez zeukan, ez polborarik eta ez... ez zeguan amaittu-ta bihar zan moduan-.*

*... baiña bixok nahi dogula ontasuna geuretako eta **bestiENDAKO**.*

*Eurak pentsauta on eitten zala han **bihargiñENDAKO!***

- **-ntzako** formadunak:

***UrriaNTZAKO** haretxek eitten zittuan.*

*Ze, Eibarko ikastolak -esan doten bezela- 60xan sortu ziran, baiña 59xan hasi giñan Mogelen omenaldixakin eta han **umiENTZAKO** esamiñak eta ein genduzen euskerazkuak.*

- **-ntzat** formadunak:

*Eta **amaNTZAT** hori disgusto haundixa zan.*

*Gure aittak be lana eitten zeban **plaentxiatarrentZAT***

Destinatiboa izen bizidunekin erabiltzea da arruntena. Arazoa bizigabeei edo bizigabetzat jotzen direnei lotzen zaienean sortzen da. Izan ere, bizigabeekin *-rako* marka erabiltzea da normalena, baina Eibarko euskararen forma bien alternantzia dago. Hau da, bizigabeekin *-endako* destinatiboa eta *-rako* forma, biak erabiltzen ditugu eibartarrok. Lekuko batzuek diotenez, destinatiboa bizigabeekin erabiltzekotan, bizidun gisa sentitu edo somatu daitezkeen hitzekin izan behar da:

Baiña Eskola **Armerixiandako** [ein] zuan ha.

Ta gero ha eitten da, ba, masia eitten da ta ya, ba, ha aprobetxatzen eben **solorako, soluandako** ona zan ha botata...

Horregaittik ez da rarua ez Espaiña guztian, ez Eibarren, sobre todo, ha hillan 12xan, 1931an ha mobimientua egotia, ha aupadia **Republikiandako** egotia.

Han dake Urkin basarrixa, buztin asko dakana: nahi dabenak juan eta **erreumendako**.

Eta gogoratzen naiz abiazioño **bonbentzat** ojibak eitten genduzela.

10) Prolatiboa [-tzat]

Prolatiboa kasu berezia da, mugagabeen baino ez baita erabiltzen. Prolatiboaren marka (-*tzat*) zuzenean txertatzen zaio hitzari, hitz-amaiera bokalduna zein konsonanteduna izan; hitzaren amaierako letra afrikatua denean (*tz/ts*), frikaritu egi-ten da (*z/s*) (adib.: haritz+*tzat*>hariztzat).

Eibarren nahiko arrunta da prolatiboa erabiltzea, baina betiere aditz jakin batzuekin batera, haren predikatu osagarri modura (-*tzat* + *hartu/eduki/izan/jo/eman/ezagutu*)⁷⁴:

*En fin, danerakuak **laguntZAT hartzen** dittut nik.*

*Ni ez nok sartu komunistetan ez nebalako **hartzen ontZAT** ‘El fin justifica los medios’.*

*Nik nere burua **bildurtitZAT neukan**.*

*Ixa **zorotZAT hartzen** ninduen.*

*Hori gero halako toki baten oso **rarotZAT hartuko** ginduezela eta –1965ian zan–, ein gendun alkatiagana.*

*Bi garai ezagutzen ez ziranak: bata **erromanikoTZAT** –nik ez dot sinisten erromanikua danik–, baiña dagona da erromaniko klostre baten onduan.*

*Bueno, nik **baliozkoTZAT joko** neuke. Dudarik barik **baliozkoTZAT joten** dot baiña...*

⁷⁴Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea (Areta, 2003).

11) Leku-denborazko genitiboa [NONGO]

- Mugagabea: leku-denborazko genitiboaren mugagabeko forma *-(e)(ta)ko* da, baina askotan ez da *-ta-* artizkia erabiltzen. Berez, gaur egun mugagabearen *-etako* forma arrunta izan arren, historikoki ez da hala izan, eta, horrenbestez, ez dakigu eibartarrok *-ta-* hori ez erabiltzeko dugun joera ohitura zaharrei eusten diegulako den ala, aitzitik, gerora sartu dugun berrikuntzaren bat den. Edozein modutan, Eibarko euskararen ezaugarria da *-ta-* artizkia erabili ala ez aukeran izatea. *-ta-* artizkiarekin zein gabe, mugagabearen marka zuzenean eransten zaio hitzari amaiera bokaldunen kasuan, eta *-e-* epentetikoa gehituta amaiera kontsonantedunen kasuan:

*Bai, bizkor, edozein **sasoIKOK** ordu erdi bihar eban orduan hemendik hara juteko.*

*Emoten etsun zenbat **gradoKO** inklinaziñua.*

*Eta eurak ez ziran atrebitzen itxuria esaten eurak ze **famelixaTAKUak** ziran.*

- Singularreko forma *-(e)ko* da eta *-etako* pluralekoa. Marka horiek zuzenean eransten zaizkie hitzei. Singularraren kasuan, kontsonantez bukatutako hitzei loturazko *-e-* jartzen zaie. Gainerako aldaera fonetikoak inguruneak eragindakoak dira.

*Estaziño **kaleKUak** artistak ziran **estaziñoKO** bagoietan.*

*Erosi barik oindiokan ta San Juan bizperia ta **atsaldeKO** seirak!*

HankaKO miñik be ez...

*Biguneixa da **egunEKUa**.*

JaiKO erropia daukanak, **jaiKUa**, ta ez daukanak, garbittu ta dauanakin, ezta?

*Gitxik jakitzen jittuen, han **inguruETAKUak** iñok be ez.*

*Bajatu nintzan, eta han nekazen behian **arkuETAKO** zerian eta danak (...) espektatiban eguazen zer pasatzen ete zan.*

Leku-izenek zuzenean hartzen dute *-(e)ko/-go* marka. Bokalez amaitutakoek *-ko* hartzen dute: *Amañako, Elgetako, etab.* Kontsonantez amaitutakoek, berriz, *-(e)ko* (*-e* hori loturazkoa da) edo *-go* har dezakete (Areta, 2003):

- a) *r* kontsonante dardarkariz amaitutakoek *-ko* hartzen dute ia beti, batez ere ingurukoek (*Elgoibarko, Eibarko, Zaldibarko*);

- b) *l* albokariz amaitutakoen kasua berezia da; lekuko gehienek zuzenean jartzen diote *-go/-ko* marka (*Portugalko, Usurbilgo, Madrilgo*); beste batzuek, loturazko bokala erantsita, *-(e)ko* erabiltzen dute (*Portugaleko, Madrileko*);
- c) *n* kontsonante sudurkariz amaitutakoek *-go* hartzen dute gehienetan (*Azitaingo, Irungo*);
- d) *s/tz* kontsonante txistukariz amaitutakoetan, lekuko batzuek zuzenean jartzen diote *-ko* marka (*Miraballesko, San Andresko, Itoizko*), eta beste batzuek loturazko *-e-* erantsita (*Miraballeseko, San Andreseko, Itoitzeko*).

Leku-denborazko genitiboak leku-denborazko beste atzizkiekin batera dituen ezaugarriak hauek dira:

- Forma mugagabeen eta pluralean *-ta-* artizkia hartzen dute.
- Izen bizigabeen bakarrik eranstean zaie. Jarraian azalduko ditugun leku-denborazko beste postposizio-atzizkiak izen bizidunei ere erants dakizkieke, baina bizidunekin beste forma bat hartzen dute.

Atal honetatik aurrera azalduko ditugun leku-denborazko postposizio-atzizkietan bereizketa hau egingo dugu: bizidunen deklinabidea, batetik, eta bizigabeena, bestetik. Izan ere, postposizio-atzizkien formak desberdinak dira kasu batean eta beste batean. Esan beharra dago, askotan bi deklinabide-moten arteko gurutzaketak gertatzen direla, lekuko zaharrenengan bereziki. Batez ere, bizidunak bizigabe gisa deklinatzen dira sarri:

Ze **alabatan** daka konfiantzia?

Zeure **anaietan** topau zeinke laguntzia.

Aurkakoa ere gerta daiteke, baina ez da batere ohikoa (*Gaztaiangana euli asko juaten da*).

12) Inesiboa [NON/NORENGAN]

a) Bizigabeen deklinabidea (NON)

- Mugagabeko marka **-(e)(ta)n** da. Bokalez amaitzen diren hitzek zuzenean hartzen dute marka, eta kontsonantez amaitzen direnek, berriz, loturazko bokala gehituta. Gehien-gehienetan **-ta-** artizkia tartekatzen da.

Zein **elixataN** emon dabe mezia?

Ta perretxikua eguan edozein **lekuTAN** orduan, ongua ta, sasoian, ezta?

Edozein **baztarRETAN** ta "ra! ra!" ta poltsara!

Ikusi ze gustora daren horrek **euzkiTAN!**

- Singularreko marka **-(e)an** da, baina zehaztopen batzuk egin behar dira. Berezko **-a** duten hitzak beste hitzetatik guztiz bereizten dira, hitzari berari zuzenean lotzen zaio-eta marka (elixaN, errotaN, hankaN). Bokalez amaitutako beste hitz guztien kasuan, nominatiboko forma mugatuari eransten zaio inesiboaren marka (urtiaN, herrixaN, basuaN). Kontsonantez bukatutako hitzek bokalez amaitutakoen emaitza bera izaten dute, loturazko bokala sartzen zaie-eta tartean (lurrIAN, edurrIAN, egunIAN).

Holaxen ipini zerian eta tirua emon etsen **hankaN** edo ez dakit nun.

Baiña hori hasarriori nik neure **onduAN** ez dot ikusi, ez nere **famelixaN**, ez nere lagun **artiAN**.

BidiAN sagarrak ostu, keixa **sasoIAN** keixak ostu... nahiz ta jan ez.

Ta han San Lorenzo **eguniAN** karnazeruak txuletak eruan, erre ta biba la pepa!

Urtian txahal bat korriente ein bihar jok behixak, **urtiAN** bat.

- Pluraleko marka **-etan** da. **-ta-** artizkia beti-beti tartekatzen da pluralean.

Eta harek, ni bautizau ninduanian, despedidia izaterakuan, "ai, ume. Ze leku **txarRETAN** lagatzen haut".

Bilbon egon zanian huelga haundi bat, **minETAN**, hamen berrogetak mutillak egon ziran Eibarko **etxiETAN**, denpora askuan, ez egun bat eta bi.

Eman ditugun adibideetan ikus daitekeenez, inesiboa lekua adierazteko erabiltzea da arruntena, NON galderari erantzuteko, hain zuzen ere. Baina beste esangura batzuekin ere erabiltzen da, besteak beste ondorengoak adierazteko: denbora, jarduera, modua, kopurua eta salneurria.

Txokolate ontza bat janda be, ba, [...] **eguardixan** [...], baiña hobeto ta nik eta beste batzuk jaten genduan bertan, bazkaltzen genduan, bai, jeneralmente.

Bardiñian egongo da baiña gehixago ez, e!

Eskua tapauta, lotuta trapuekin, bai, eta **izardittan** gorputza eta eskuak hotzak.

Esku **hutsian**! Pistola txiki batzuek repartidu ziran **moduan**.

Hasi zan daneri sarrerria **duruan** ipintzen!

Harek, lehenago hemen Eibartik danak, ba, gaztaiña denporan, hamen dana gaztaiña zelan zeguan, goixian juanda danak gaztaiñatar! **Gaztaiñatan** danak.

b) Bizidunen deklinabidea (NORENGAN)

Bizidunen inesiboko atzizkia **-(e)ngan** da, berez, baina oso gutxi erabiltzen da Eibarko euskaran. **-(e)n/-re(n) gain** postposizioa da inesiboa adierazteko modu zehatzena eta orokorra Eibarren.

Aipatzekoa da gaztelaniaz inesiboaren bitartez egiten diren egitura batzuk soziati-boaren bidez adierazten direla eibartarren artean: *-kin konfiantza/esperantza/segurantzza eduki, -kin fijatu, -kin fedea eduki*. Beste euskalki batzuetan, ostera, inesiboa erabiltzen da egitura beretan. Esate baterako:

*Eta **nerekin konfiantza** haundixa eukan eta berak esaten eban: "Zuk ondo eruango dozu. Oso langille eta kriterixo... gustatzen jata".*

Bestalde, arestian esan dugunez, bizigabeen deklinabide-marka erabiltzen da maiz bizidunena erabili beharrean.

Ze **alabatan** daka konfiantzia?

Zeure **anaietan** topau zeinke laguntzia.

Atal honetan aipatzeko modukoa da, era berean, jabegoa eta inesiboa adierazten dituen **-(e)nean** forma. 'Nor baiten etxean' da forma horren esangura; 'etxea' zentzu zabalean hartuta, beheko adibideetan 'negozioa' ere izan daitekeela ikusten da eta:

*Elgeta **TxikixanIAN**, "AYA"n, ipiñi juen enkargau, ezta?*

*Tres cincuenta-kuak da(g)onaz Maria **zapateriaNIAN** ta haretzek dittun hire-tako modukuak.*

AlabianIAN laga dot boltsia.

Lehen tradiziñua zuan, sanjuan bezperan erropia estreiñatzia, eta **ArrietaNIAN** alkandoria erosi, eta harro-harro kalera, Untzagara.

13) Ablatiboa [NONDIK/NORENGANDIK]

a) Bizigabeen deklinabidea (NONDIK)

Bizigabeen deklinabidean, mugagabeko marka **-(e)(ta)tik** da, singularrekoa **-(e)tik**, eta **-etatik** pluralekoa. Amaierako **-k** beti ahoskatzen da, inguruko zenbait hizkerez ez bezala⁷⁵.

- Mugagabeen **-ta-** artizkirik gabeko aldaerak du indar handiena gaur egun Eibarren, **-a** itsatsidun berbetan bereziki.

Edozein **herriTTIK** etortzen zan jendia.

Ze **elixaTIK** esan dozu urten dala?

Urteizu **ureTATIK!**

- Mugatu singularrean postposizio-atzizkia izenari txertatzen zaio zuzenean, ez forma mugatuari. Kontsonantez amaitutako hitzetan loturazko bokala txertatzea da normalena.

... oktubre**TIK** aurrera Azaña presidente jarri zanian.

Baiña guretako inportantiena izan da, lehen eta oin, meritua daka **exilixoTIK** etorri edo **karzelaTIK** urten eta klandestinidadera segiduan, **trenETIK** klandestinidadeko ofiziñara esateko baten.

- Mugatu pluralean **-ta-** artizkia hartzen du beti; esan bezala, **-etatik** da pluralaren marka.

Arrazoi politikua da Republikiak ezin izan ebala ejerzituaren puesto **prinzipaleTATIK** eta administraziñoko puesto **prinzipaleTATIK** faxistak bialdu.

Ta urten **frailliETATIK** ta Korrida Plaza gaiñera foballera ta zeretik juaten giñan, frontoian ostetik, Onaindianeko ha kalia zan, ta etxien parian pasatzen...

⁷⁵ Esate baterako, Aramaion (Ormaetxea, 2002) edo Zaldibarren (Gaminde, 2003). Eibarko testu zaharretan ere **-k** amaieradun markak bakarrik aurkituko ditugu (Eizagirre et. al, 2000).

Leku-izen bereziek, jakina, zuzenean hartzen dute marka, *-ta-* artizkirik gabe. Bokalez amaitutakoek zuzenean hartzen dute, eta kontsonantez amaitutakoek joera bi dituzte: ohikoena postposizio-atzizkia zuzenean hartzea da, eta, horrelakoetan, izenaren amaierako kontsonantea zein den, postposizio-atzizkiko /t/ batzuetan ahostundu egiten da, /d/ bihurtuz; beste aukera bat loturazko bokala eranstea da.

*Bai, lehen zerian bizi giñan, Arrazolan, **SalbadorrETIK** behera beste aldera. **Txontatik** juan eta beste aldera.*

*Bilbon egon zan lehelengo, eta gero **Bilbotik** bateron bat harrapau ebenian esan etsen zelan eguan Etxabe eta bildurtu eta juan ziran **SantanderrETIK** harutz mendi batera.*

***IrundiK** hona zenbat kilometro dagoz, ba?*

Aipatutakoekin batera, *-(e)tikan, -etatikan* eta *-(e)(ta)tikan* ere erabiltzen dira, singularrean, pluralean eta mugagabeen, hurrenez hurren. Badirudi *-an* gehigarria eransteko joera hori, izatekotan, kaletarrena dela, baina kaletarren artean ere oso oso gutxi erabiltzen da. Adibide bakanen bat aurkitu dugu, hala ere:

*Eta Eibarko aiuntamento**TIKAN** hitz ein eban.*

*Hórrek mutillok euren herri**TTIKAN** igesixan edo...*

b) Bizidunen deklinabidea (NORENGANDIK)

Bizidunetan ablatiborako erabiltzen den marka *-(re)(n)(g)andik* da. Beste deklinabide-atzizki batzuetan gertatzen den bezala, jabetza-genitiboaren marka aukerakoa da, baina genitiborik bariko aldaerak *-(e)gandik* genitibo-markadunak *-(re)(n)gandik* baino gehiago erabiltzen dira. Horrez gainera, *-g-* ere normalean galdu egiten da ahozko jardunean. Ezaugarri hori bizidunen deklinabide osoan errepikatzen da.

- Mugagabeko marka nagusia *-(e)gandik* da:

*Ez jatan gustatzen hori eta **askoGANDIK** jasotzen neban, eta orduan zer ein neban?*

*Edozein **neskaGANDIK** jasoko eban harek baietza.*

Kontsonantez amaitutako berbetan loturazko bokala txertatzea aukerakoa da. Ondorioz, hiru aldaera-eredu daude: *gizonGANDIK*, *gizonEGANDIK*, *gizonENGANDIK*.

- Mugatu singularrean, bizigabeetan ez bezala, postposizio-atzizkia (*-gandik*) forma mugatuei txertatzen zaie, bai bokalez amaitutako berbetan bai kontsonantez amaitutakoetan ere.

*Ikasizu zure **semiaGANDIK**.*

***AmaGANDIK** hartu dau semiak jenixo txarra.*

- Mugatu pluralean, loturazko bokala beti txertatzen da: *-egandik* da marka.

*Eta hori ikasitta eguan, **zaharraguEGANDIK** be bai.*

*Hórregandik aparte, hórregandik **problemEGANDIK** aparte, etxe bakoxtian egoten da bateron bat segidu leikiana aurrera entierro zibillakiñ eta beste etxe batzuetan ez dira egoten hórrek.*

Inesiboan moduan, hemen ere aipatzekoa da jabegoa eta ablatiboa adierazten dituen forma: *-(e)netik*.

***AlabiaNETIK** datorren bakoitzian, lorak ekartzen dittu.*

***TxaltxaNETIK** gatoz, ederto afalduta.*

14) Adlatiboa [NORA/NORENGANA]

a) Bizigabeen deklinabidea (NORA, ZERTARA)

Bizigabeetan adlatiborako erabiltzen den marka *-(e)(ta)ra* da. *-(e)(ta)ra* dugu mugagabeko marka, *-(e)ra* singularrekoa, eta *-etara* pluralekoa.

Inguruko hizkeretan atzizki horretako bokalarteko /r/ dardarkaria galtzea arrunta izan arren, eibartarrok aldaera dardarkariduna da gehien erabiltzen duguna. Dardarkaria galtzeko joera hori oso indartsua da inguru guztian (Durangaldean, Debagoienan eta, batez ere, Urola-kostan), baina ez Eibarren. Izan ere, dardarkaria gordetzea da Eibarko euskararen ezaugarrietako bat (ikus 2.2.4.1. atala).

- Mugagabeen, *-(e)(ta)ra* da marka. Gehienetan *-ta-* artizkia erantsi egiten da, ablatiboan ez bezala.

*Lehen juaten zuan **SUTARA** ta ixotu eitten juan ba pipia... ta atrasua haren-tzako!*

*Ta gure tia zana [...] nik ez dakit, ba, zelan zan... juen da **susaTARA** ta zestua, jakingo zu, horrek, zestuak, zestua bete susa ekarri eskun!*

KarakolETARA izaten zan otubrian.

*Ni neu, behintzat, holan, ezer esan barik, edozein **etxeTARA** sartzia... zer esango deuat ba!*

- Mugatu singularrean, **-(e)ra** da marka; postposizio-atzizkia izenari txertatzen zaio zuzenean, ez forma mugatuari. Kontsonantez amaitutako hitzetan loturazko bokala txertatzea da normalena.

*Aittak urten, Beistegiñetik **etxeRA** etortzen ta gu Salbadoretik, **mahaiRA** batera etortzen giñan.*

*Baiña gero **biharrERA** e...!*

- Mugatu pluralaren marka **-etara** da. **-ta-** artizkia beti hartzen du.

*Ta **ofizinETARA** juan ta "Zu, ikatza dakat" ta "Ekarrizu zaku bi!"*

*Kalian bai, **dendETARA** ta, ba, [nahi...] batzuk dendarixak hartzen etsen osua igual ta beste batzuk bi igual!*

Leku-izen bereziek izen arrunten arauak betetzen dituzte. Bokalez amaitutakoek zuzenean hartzen dute marka, eta kontsonantez amaitutakoek, berriz, loturazko bokala tartean dela.

*Ba, **GaldaramiñoRA** igotzia. **SalbadorrERA** konforme [...] ta Galdaramiñora. Gero **UrkoRA** ta Urkotik ikusten genduan Eguarbitza ta **EguarbitzaRA**. Ta gero, ba, gurasuekin igual **IzarraitzERA** ta haunditzen [...] giñazengan, ba, Klub Deportibuan sartu ta medaillia etaratzia zan zerori.*

Adlatiboak norabide esangura ez ezik beste batzuk ere baditu: denbora-tartea, leku-tartea, 'noiz' esangura, modua, leku zehatza, ekintza, 'zeren bila', besteak beste.

*Ta urten fraillietatik ta Korrida Plaza gaiñera **foballera** ta zeretik juaten giñan, frontoian ostetik, Onaindianeko ha kalia zan, ta etxien parian pasatzen...*

*Ta ohiturria zan neskekin, neskian etxera **afaittara!***

*Orduan danak ez zittuan juango Melillara baiña, honenbestetik **honenbeste-ra** edo, **sorteora** edo ez jakixat zelan eitten eben.*

*Beste hogeikua ta... **zentesimara** ein bihar izaten zuan.*

Gure aitta juaten zan **manzanillatara, perretxikutara, karakoletara, intxaurretara...** ta ni juaten nitzan **gaztaiñatara**, gaztaiña sasoian.

Bostetatik **seiretara** biharrian egoten zan.

b) Bizidunen deklinabidea (NORENGANA)

Bizidunetan adlatiborako erabiltzen den marka **-(r)(e)(n)(g)ana** da.

- Mugagabea: adlatiboko markaren aldaeren iturrietako bat postposizio-atzizkiaren aurretik jabetza-genitiboaren marka agertu ala ez da. Izenen eta izenondo arrunten deklinabidean, eibartar zaharrenek genitibo-marka ez erabiltzeko joera dute (*alabarengana* edo *alabangana* esan beharrean, *alabagana* esaten dute).

Genitibo-marka txertatzen ez denean, adlatibo-markako /g/ bokal artean geratzen da, eta, ondorioz, kontsonante hori galtzeko joera egon daiteke (*alabagana* esan beharrean, *alabaana* edo *alabana* esaten da).

Kontsonantez amaitutako hitzetan, postposizio-marka txertatzerakoan loturazko bokala eranstea aukerakoa da. Ondorioz, joera hirukoitza izan daiteke: genitibo-marka hartu ala ez, eta postposizio-atzizkia txertatzean loturazko bokala hartu ala ez: *mutilengana, mutile(g)ana, mutilgana*.

- Mugatu singularrean ere jabetza-genitiboaren marka aukerakoa da, baina joera nagusia ez erabiltzekoa da. Bestalde, bizigabeetan ez bezala, postposizio-atzizkia forma mugatuei txertatzen zaie, bai bokalez amaitutako berbetan bai kontsonantez amaitutakoetan ere.

TiaGANA noia pagia eskatzera.

Bueno, herritik urten baiño lehenago, lehelengo **alkatiaGANA** noia.

Eta jua giñan **parrokuagANA** eta hori, formaziñoz, ikusten zan bestia baiño gehixago.

- Mugatu pluralean, genitibo-marka tartekatzeko joera handiagoa dela ematen du (Areta, 2003), baina ez da, hala ere, erabatekoa. Pluralean, loturazko bokala beti txertatzen da.

Zelan musikia egoten zan, ba hárek guk baiño -behe aldekuak baino- lehenago ikasi eben e, zera: neskekin dantzan ein eta **neskENGANA** arrimatzerá.

Ez zan hara, Ekaingo **gixajuENGANA** eta ez zan jua!

MutillEGANA bazoiaz, kontuz ibilli, gero!

Hemen ere aipatuko dugu adlatiboa eta jabegoa adierazten dituen *-(e)nera* forma, sarri erabiltzen da-eta, 'norbaiten *etxera*' adierazteko ('*etxera*' zentzu zabalean hartuta).

*Ez noia ni Maria **zapateriaNERA** ze neri ez jataz gustatzen ta!*

*Ta gure kuadrillia **TxaltxaNERA** juaten giñuazen orduan.*

*Txakur bat juan da zure **alabiaNERA***

15) Muga-adlatiboa [NORAINO/NORENGAINO]

Postposizio-atzizki honen esangura ohikoa lekuzko muga adieraztea da, nahiz eta bestelako esapideetan ere erabiltzen den. Esangura hori dela-eta, mugimendu-aditzekin erabiltzen da, batez ere.

a) Bizigabeen deklinabidea (NORAINO)

-(e)(ta)raiño(k) da mugagabeko marka, *-(e)raiño(k)* singularrekoa eta *-etaraiño(k)* pluralekoa. Mugagabeen, *-ta-* aukerakoa da. Adlatiboaren atalean azaldutakoak honako ere balio du.

Hemen ere aldaerak gerta daitezke *-ra-* zatia galduz (adlatiboaren atalean azaldutakoaren arabera). Amaierako /k/ ere aukerakoa da, eta berezia da, inguruko herrietan ez baita normalean entzuten.

Oro har, Eibarren, lekuzko kasuak (*-raiño*) eta denborazkoak (*-rarte*) ondo bereizten dira, eta hiztunek ez dituzte nahasten. Muga-adlatiboa, hortaz, lekua adierazteko erabiltzen da, eta oso-oso gutxitan denbora adierazteko.

*Hamen Eguarbitzatik, Elgetatik ixa Anboto **barreERAIÑO**.*

*Azkenian nere **ondoRAIÑO** etorri zuan txakurra.*

*Zan hori zerian, **PlaentxiaRAIÑO**.*

*Gero zuluak ein ta soltau, konparaziño, zati bat eta gero hur emon ta gero limau lehenengotik desbastia hur emon bakarrikan, hur emon ta gero, gero, azken-azkenian dana **zentesimaRAIÑO**.*

*Hemeretzi **urteRAIÑOK** antzerki guztiak euskeraz eitten genduazen.*

b) Bizidunen deklinabidea (NORENGANAINO)

Bizidunekin erabiltzen den marka *-(e)(n)ganaiño(k)* da, baina oso erabilera eta bizitasun murrizta ditu Eibarren. Erabiltzen denean, genitibo-marka aurretik txertatu ala txertatu ez, aldaera ezberdinak gertatzen dira.

Postposizio-atzizki horren orde, beste bide batzuk erabiltzen dira bizidunen formak eratzeko. Adlatiboko bizidunen marka bera erabiltzen dute hiztun batzuek muga-adlatiboa adierazteko *-(r)(e)(n)gana*, baita jabegoa eta adlatiboa adierazten dituen *-enera* forma ere; edo, leku-denborazko postposizio-atzizkien azalpenaren atarian azaldu bezala, forma bizigabea (kasu honetan, muga-adlatiboaren forma bizigabea).

Horiekin batera, jabetza-genitiboa eta muga-adlatiboa adierazten dituen *-neraiño(k)* ere erabiltzen da, '*ren etxeraino*' esangurarekin.

Lagunduko detsut zure **alabiaNERAIÑOK**

16) Hurbiltze-adlatiboa [NORUTZ/NORENGANUTZ]

a) Bizigabeen deklinabidea (NORUTZ)

Mugagabeko marka *-(e)(ta)ruz* da, *-(e)ruz* singularrekoa, eta *-etarutz* pluralekoa. Mugagabeen, *-ta-* aukerakoa da.

Baiña illuntzi baten, bueno, goizaldeRUTZ

Bai, nik egunero liburu bategaz pasiora urtetzen dot bai ZumarragaRUTZ edo bai Beasain aldeRUTZ.

Fronteria itxi zebanian Franziak ez zoian grabaurik, damaskinaurik, FranziarUTZ eta armarik be ez.

EtxeRUTZien!BeheRUTZien astua kargauta [...] ta **gorUTZien** geu jarritta!

b) Bizidunen deklinabidea (NORENGANUTZ)

Bizidunen forma *-(e)(n)gan(ar)utz* litzateke, berez, baina ez da ia-ia erabiltzen.

3.1.2.- MUGAGABE PLURALA: -TZU(K)

Nahiz eta mugagabea, berez, ez den ez singularra ezta plurala ere, Eibarren bada-rabilgu atzizki bat, zentzu aldetik plurala den mugagabeari erreferentzia egiten diona.

Beste ezaugarri askorekin gertatzen den moduan, kasu honetan ere adinekoak dira gehien darabiltenak, eta gazteen artean galtzen ari da.

Gehienetan, izenari txertatuta joaten da atzizki pluralgilea, baina determinatzaileari ere txerta dakiok. Horrela sortutako formek kasu-marka eta postposizio-atzizki gehienak har ditzakete, partitiboa eta instrumentala izan ezik; leku-denborazko kasuetan *-ta-* artizkia ere izaten dute bizigabeen formek.

*Zein **mendiTZUtan** ibilli ziñazien, ba?*

*Ez dakit zein **gizonTZU** etorriko diran.*

*Baiña bidian ze **estuasantZUK** pasauta!*

*Pirineuak polittak dira, zer **mendiTZU** dakezen, eta zer **elixatZU**, eta danetik.*

*Ze **gauzatZUri**?*

*Zer **elixatZUK** dake hori izenori?*

3.1.3. IZENEN DEKLINABIDE-TAULAK

3.1.3.1. Izen arrunt bizigabean deklinabide-taula

Bizigabean deklinabidearen taulak osatzeko, hitz hauek aukeratu ditugu: *elixa, kale, mendi, itsaso, buru, ibar*⁷⁶.

1. Mugagabea

| | elixa | kale | mendi | itsaso | buru | ibar |
|--------------------------|---|--|---|--|--|--|
| Nominatiboa | elixa | kale | mendi | itsaso | buru | ibar |
| Partitiboa | elixarik | kalerik | mendirik | itsasorik | bururik | ibarrik |
| Ergatiboa | elixak | kalek | mendik | itsasok | buruk | ibarrek |
| Datiboa | elixari | kaleri | mendiri | itsasori | bururi | ibari |
| Genitiboa | elixa(re)n | kale(re)n | mendi(re)n | itsaso(re)n | buru(re)n | ibarren |
| Instrumentala | elixaz | kalez | mendiz | itsasoz | buruz | ibarrez |
| Soziatiboa | elixakin elixa(g)az | kalekin kale(g)az | mendikin mendi(g)az | itsasokin itsaso(g)az | burukin buru(g)az | ibarrekin ibarre(g)az |
| Motibatiboa | elixa(g)aitek | kale(g)aitek | mendi(g)aitek | itsaso(g)aitek | buru(g)aitek | ibarre(g)aitek |
| Destinatiboa | elixa(re)ntzat elixa(re)ndako elixa(re)ntzako | kale(re)ntzat kale(re)ndako kale(re)ntzako | mendi(re)ntzat mendi(re)ndako mendi(re)ntzako | itsaso(re)ntzat itsaso(re)ndako itsaso(re)ntzako | buru(re)ntzat buru(re)ndako buru(re)ntzako | ibarrentzat ibarrendako ibarrentzako |
| Prolatiboa | elixatzat | kaletzat | menditzat | itsasotzat | burutzat | ibartzat |
| Leku-genitiboa | elixa(ta)ko | kale(ta)ko | mendi(ta)ko | itsaso(ta)ko | buru(ta)ko | ibarre(ta)ko |
| Inesiboa | elixa(ta)n | kaletan | mendittan | itsasotan | burutan | ibarretan |
| Ablatiboa | elixa(ta)tik | kale(ta)tik | mendi(ta)tik | itsaso(ta)tik | buru(ta)tik | ibarre(ta)tik |
| Adlatiboa | elixatara | kaletara | mendittara | itsasotara | burutara | ibarretara |
| Muga-adlatiboa | elixa(ta)raño(k) | kale(ta)raño(k) | mendi(ta)raño(k) | itsaso(ta)raño(k) | buru(ta)raño(k) | ibarre(ta)raño(k) |
| Heiburu-adlatiboa | elixa(ta)rutz | kale(ta)rutz | mendi(ta)rutz | itsaso(ta)rutz | buru(ta)rutz | ibarre(ta)rutz |

2. Mugatu singularra

| | elixa | kale | mendi | itsaso | buru | ibar |
|--------------------------|--|---|---|---|---|--|
| Nominatiboa | elixa | kalia | mendixa | itsasua | burua | ibarra |
| Partitiboa | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| Ergatiboa | elixiak | kaliak | mendixak | itsasuak | buruak | ibarrak |
| Datiboa | elixiari | kaliari | mendixari | itsasuari | buruari | ibarrari |
| Genitiboa | elixian | kalian | mendixan | itsasuan | buruan | ibarran |
| Instrumentala | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| Soziatiboa | elixiakin elixa(g)az | kaliakin kalia(g)az | mendixakin mendixa(g)az | itsasuakin itsasua(g)az | buruakin burua(g)az | ibarrakin ibarra(g)az |
| Motibatiboa | elixia(g)aitek | kalia(g)aitek | mendixa(g)aitek | itsasua(g)aitek | burua(g)aitek | ibarra(g)aitek |
| Destinatiboa | elixiantzat elixiandako elixiantzako | kaliantzat kaliandako kaliantzako | mendixantzat mendixandako mendixantzako | itsasuantzat itsasuandako itsasuantzako | buruantzat buruandako buruantzako | ibarrantzat ibarrandako ibarrantzako |
| Prolatiboa | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| Leku-genitiboa | elixako | kaleko | mendiko | itsasoko | buruko | ibarreko |
| Inesiboa | elixan | kalian | mendixan | itsasuan | buruan | ibarran |
| Ablatiboa | elixatik | kaletik | mendittik | itsasotik | burutik | ibarretik |
| Adlatiboa | elixara | kalera | mendirara | itsasora | burura | ibarrera |
| Muga-adlatiboa | elixaraño(k) | kalaraiño(k) | mendiraiño(k) | itsasoraño(k) | bururaiño(k) | ibarreraño(k) |
| Heiburu-adlatiboa | elixarutz | kalerutz | mendirutz | itsasorutz | bururutz | ibarrerutz |

⁷⁶ Aurreko atalean azaldu ditugu deklinabide-markek har ditzaketen forma eta aldaera guztiak. Tauletan forma nagusiak jarri ditugu.

3. Mugatu plurala

| | elixa | kale | mendi | itsaso | buru | ibar |
|--------------------------|---|---|---|--|--|--|
| Nominatiboa | elixak | kaliak | mendixak | itsasuak | buruak | ibarrak |
| Partitiboa | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| Ergatiboa | elixak | kaliak | mendixak | itsasuak | buruak | ibarrak |
| Datiboa | elixeri | kaliari | mendixeri | itsasueri | burueri | ibarrerri |
| Genitiboa | elixen | kaliari | mendixen | itsasuen | buruen | ibarren |
| Instrumentala | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| Soziatiboa | elixekin elixe(g)az | kaliekin kalie(g)az | mendixekin mendixe(g)az | itsasuekin itsasue(g)az | buruekin burue(g)az | ibarrekin ibarre(g)az |
| Motibatiboa | elixe(g)aittik | kalie(g)aittik | mendixe(g)aittik | itsasue(g)aittik | burue(g)aittik | ibarre(g)aittik |
| Destinatiboa | elixentzat elixendako elixentzako | kalientzat kaliendako kalientzako | mendixentzat mendixendako mendixentzako | itsasuentzat itsasuentzako itsasuentzako | buruentzat buruentzako buruentzako | ibarrentzat ibarrendako ibarrentzako |
| Prolatiboa | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| Leku-genitiboa | elixetako | kalietako | mendixetako | itsasuetako | buruetako | ibarretako |
| Inesiboa | elixetan | kalietan | mendixetan | itsasuetan | buruetan | ibarretan |
| Ablatiboa | elixetatik | kalietatik | mendixetatik | itsasuetatik | buruetatik | ibarretatik |
| Adlatiboa | elixetara | kalietara | mendixetara | itsasuetara | buruetara | ibarretara |
| Muga-adlatiboa | elixetaraíño(k) | kalietaraíño(k) | mendixetaraíño(k) | itsasuetaraíño(k) | buruetaraíño(k) | ibarretaraíño(k) |
| Helburu-adlatiboa | elixetarutz | kalietarutz | mendixetarutz | itsasuetarutz | buruetarutz | ibarretarutz |

3.1.3.2. Izen arrunt bizidunen deklinabide-taula

Bizidunen deklinabidearen paradigma erakusten duten taulak osatzeko, berba hauek aukeratu ditugu: *seme, alaba, gizon*.

1. Mugagabea

| | alaba | seme | gizon |
|---------------------------------------|---|--|--|
| Nominatiboa | alaba | seme | gizon |
| Partitiboa | alabarik | semerik | gizonik |
| Ergatiboa | alabak | semek | gizonek |
| Datiboa | alabari | semeri | gizoni |
| Genitiboa | alaba(re)n | seme(re)n | gizonen |
| Soziatiboa | alabakin/alaba(g)az | semeekin/seme(g)az | gizonekin/gizone(g)az |
| Motibatiboa | alaba(g)aittik | seme(g)aittik | gizone(g)aittik |
| Destinatiboa | alaba(re)ntzat alaba(re)ndako alaba(re)ntzako | seme(re)ntzat seme(re)ndako seme(re)ntzako | gizonentzat gizonendako gizonentzako |
| Prolatiboa | alabatzat | semetzat | gizontzat |
| Inesiboa | alaba(n)gan | seme(n)gan | gizone(n)gan |
| Ablatiboa | alaba(n)gandik | seme(n)gandik | gizone(n)gandik |
| Adlatiboa | alaba(n)gana | seme(n)gana | gizone(n)gana |
| Muga-adlatiboa * ⁷⁷ | alaba(n)ganaíño | seme(n)ganaíño | gizone(n)ganaíño |
| Hurbiltze-adlatiboa * | alaba(n)ganutz | seme(n)ganutz | gizone(n)ganutz |

⁷⁷ Aurreko azalpenetan esan dugun bezala, muga-adlatiboa eta hurbiltze-adlatiboa ia-ia ez dira erabiltzen bizidunekin

2. Mugatu singularra

| | alaba | seme | gizon |
|----------------------------------|--|---------------------------------------|--|
| Nominatiboa | alaba | semia | gizona |
| Partitiboa | --- | --- | --- |
| Ergatiboa | alabiak | semiak | gizonak |
| Datiboa | alabiar | semiari | gizonari |
| Genitiboa | alabian | semian | gizonan |
| Soziatiboa | alabiakin/alabia(g)az | semiakin/semia(g)az | gizonakin/gizonagaz |
| Motibatiboa | alabiagaittik | semiagaittik | gizonagaittik |
| Destinatiboa | alabiantzat/alabiandako/ alabiantzako | semiantzat/semiandako/ semiantzako | gizonantzat/gizonandako/ gizonantzako |
| Prolatiboa | --- | --- | --- |
| Inesiboa | alabia(n)(g)an | semia(n)(g)an | gizona(n)(g)an |
| Ablatiboa | alabia(n)(g)andik | semia(n)(g)andik | gizona(n)(g)andik |
| Adlatiboa | alabia(n)(g)ana | semia(n)(g)ana | gizona(n)(g)ana |
| Muga-adlatiboa* | alabia(n)(g)anaiaño | semia(n)(g)anaiaño | gizona(n)(g)anaiaño |
| Hurbiltze- adlatiboa* | alabia(n)(g)anutz | semia(n)(g)anutz | gizona(n)(g)anutz |

3. Mugatu plurala

| | alaba | seme | gizon |
|----------------------------------|---------------------------------------|---------------------------------------|--|
| Nominatiboa | alabak | semiak | gizonak |
| Partitiboa | --- | --- | --- |
| Ergatiboa | alabak | semiak | gizonak |
| Datiboa | alaberi | semieri | gizoneri |
| Genitiboa | alaben | semien | gizonen |
| Soziatiboa | alabekin/alabe(g)az | semiekin/semie(g)az | gizonekin/gizone(g)az |
| Motibatiboa | alaben(g)aittik | semien(g)aittik | gizone(g)aittik |
| Destinatiboa | alabentzat/alabendako/ alabentzako | semientzat/semiandako/ semientzako | gizonentzat/gizonandako/ gizonentzako |
| Prolatiboa | --- | --- | --- |
| Inesiboa | alabe(n)(g)an | semie(n)(g)an | gizone(n)(g)an |
| Ablatiboa | alabe(n)(g)andik | semie(n)(g)andik | gizone(n)(g)andik |
| Adlatiboa | alabe(n)(g)ana | semie(n)(g)ana | gizone(n)(g)ana |
| Muga-adlatiboa* | alabe(n)(g)anaiaño | semie(n)(g)anaiaño | gizone(n)(g)anaiaño |
| Hurbiltze- adlatiboa* | alabe(n)(g)anutz | semie(n)(g)anutz | gizone(n)(g)anutz |

3.1.3.3. Pertsona-izenen deklinabide-taula

Pertsona-izenen deklinabidearen paradigma islatzen duten taulak osatzeko, izen hauek aukeratu ditugu: *Amaia*, *Arrate*, *Xabi*, *Imanol*.

| | Amaia | Arrate | Xabi | Imanol |
|------------------------|-------------------------|-----------------------|---------------------|------------------------|
| Nominatiboa | Amaia | Arrate | Xabi | Imanol |
| Partitiboa | Amaiarik | Arraterik | Xabirik | Imanolik |
| Ergatiboa | Amaiak | Arratek | Xabik | Imanolek |
| Datiboa | Amaiarí | Arrateri | Xabiri | Imanoli/Imanoleri |
| Genitiboa | Amaian | Arraten | Xabi(re)n | Imanolen |
| Soziatiboa | Amaia ^{kin} | Arrate ^{kin} | Xabi ^{kin} | Imanole ^{kin} |
| | Amaia(g)az | Arrate(g)az | Xabi(g)az | Imanole(g)az |
| Motibatiboa | Amaiagaittik | Arrategaittik | Xabigaittik | Imanolegaittik |
| Destinatiboa | Amaiantzat | Arratentzat | Xabi(re)ntzat | Imanolentzat |
| | Amaia ^{ndako} | Arratendako | Xabi(re)ndako | Imanolendako |
| | Amaia ^{ntzako} | Arratentzako | Xabi(re)ntzako | Imanolentzako |
| Prolatiboa | Amaiatzat | Arratetzat | Xabitzat | Imanoltzat |
| Inesiboa | Amaia(g)an | Arrate(g)an | Xabi(g)an | Imanole(g)an |
| Ablatiboa | Amaia(g)andik | Arrate(g)andik | Xabi(g)andik | Imanole(g)andik |
| Adlatiboa | Amaia(g)ana | Arrate(g)ana | Xabi(g)ana | Imanole(g)ana |
| Muga-adlatiboa* | Amaia(g)anaiño | Arrate(g)anaiño | Xabi(g)anaiño | Imanole(g)anaiño |

3.1.3.4. Leku-izenen deklinabide-taula

Leku-izenen deklinabidearen paradigma erakusten duten taulak osatzeko, hitz hauek aukeratu ditugu: *Donostia, Ermua, Azpeitia, Lasarte, Oñati, Eibar, Zarautz*.

| | Donostia | Ermua | Azpeitia | Lasarte | Oñati | Eibar | Zarautz |
|---------------------------------|-------------------|----------------|--------------------|------------------|----------------|---------------------|-------------------|
| Nominatiboa | Donostia | Ermua | Azpeitixa | Lasarte | Oñati | Eibar | Zarautz |
| Ergatiboa | Donostiak | Ermuak | Azpeitixak | Lasartek | Oñatik | Eibarrek | Zarautzek |
| Datiboa | Donostiarri | Ermuari | Azpeitixari | Lasarteri | Oñatiri | Eibarrri/Eibarrerri | Zarautzi |
| Jabetza- genitiboa | Donostian | Ermuan | Azpeitixan | Lasarten | Oñatin | Eibarren | Zarautzen |
| Soziatiboa | Donostiakin | Ermuakin | Azpeitixakin | Lasartekin | Oñatikin | Eibarrekin | Zarautzekin |
| | Donostia(g)az | Ermua(g)az | Azpeitixa(g)az | Lasarte(g)az | Oñati(g)az | Eibarre(g)az | Zarautze(g)az |
| Motibatiboa | Donostia(g)aittik | Ermua(g)aittik | Azpeitixa(g)aittik | Lasarte(g)aittik | Oñati(g)aittik | Eibarre(g)aittik | Zarautze(g)aittik |
| Destinatiboa | Donostiantzat | Ermuantzat | Azpeitixantzat | Lasartentzat | Oñatintzat | Eibarrentzat | Zarautzentzat |
| | Donostiantdako | Ermuandako | Azpeitixandako | Lasartendako | Oñatindako | Eibarrendako | Zarautzendako |
| | Donostiantzako | Ermuantzako | Azpeitixantzako | Lasartentzako | Oñatintzako | Eibarrentzako | Zarautzentzako |
| Leku-genitiboa | Donostiako | Ermuko | Azpeitiko | Lasarteko | Oñatiko | Eibarko | Zarautzko |
| Inesiboa | Donostian | Ermuan | Azpeitixan | Lasartera | Oñatin | Eibarrera | Zarautzera |
| Abliatiboa | Donostiatic | Ermutik | Azpeittitik | Lasartetik | Oñattitik | Eibartik | Zarautzik |
| Adlatiboa | Donostiara | Ermura | Azpeittira | Lasartera | Oñatira | Eibarrera | Zarautzera |
| Muga-adlatiboa | Donostiaraino(k) | Ermuraino(k) | Azpeitiraino(k) | Lasarteraino(k) | Oñatiraino(k) | Eibarreraino(k) | Zarautzeraino(k) |
| Hurbiltze- adlatiboa | Donostiarantz | Ermurantz | Azpeitirantz | Lasarterantz | Oñatirantz | Eibarrerantz | Zarautzerantz |

3.2.- DETERMINATZAILEAK

Izenaren edo [izen+adjektibo] multzoaren erreferentzia zehazten laguntzen duten osagaiak dira determinatzaileak, eta hiru motatakoak izan daitezke:

1) Mugatzaileak (artikulua eta erakusleak)

Umia mendira j^uan zan.

Ume **hori** negarrez dago.

2) Zenbatzaileak (zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak)

Txori **bi** ekarri dit^u.

Txori **asko** egoten da inguru horretan.

Honek txori **guztiok** dira guriak.

3) Determinatzaile zehaztugabeak

Edozer gauza esaten dozu zuk.

Zein mendi esaten dozu?

3.2.1. MUGATZAILEAK

3.2.1.1. Artikulua

Deklinabidearen atalean, nominatiboa azaltzean ikusi dugu zer den artikulua. Izena edo [izen+adjektibo] multzoa mugatzeko balio duen partikula da artikulua, eta singularra zein plurala izan daiteke. Nominatiboko mugatu singularraren eta mugatu pluralaren bidez adierazten da: *-a* markaren bidez singularra eta *-ak* markaren bidez plurala.

Ta perretxikua eguan edozein lekutan orduan, *ongua ta, sasoian, ezta?*

Bidian sagarrak ostu, *keixa sasoian keixak* ostu... *nahiz ta jan ez.*

Pluraltasuna ez ezik, hurbiltasuna ere adieraz daiteke artikulua bidez, baina hurbiltasuna adierazteko bide hori pluralean bakarrik da erabilgarri. Plural hurbil delakoa (*-ok*) hiztuna nahiz solaskidea edo biak hartzen direnean erabiltzen da. Eibarko euskaran asko-asko erabiltzen da.

*Gu Txontaku**ok** eta [matadero] ta Barakaldokuak peskan giñan gogorak.*

*Baiña ostian ez, ostian dan**ok** giñan lagunak.*

*Ta ni tonta, tonta, tonta kotxe barruan ta loiba bixak, andra-gizon**ok**, urten ta,
“¡Sal de ahí tía!”*

*Bai, Zumaixara be bix**ok** juan ginttuazen.*

*Eta hónek barrix**ok** -Guerra, Felipe eta bestia... Castellanos- agertu ziran,
gazte-gaztetxuak, ondiokan estudiантиak, hitzak hartu eitten zeбенak eta
ondo, zerian.*

3.2.1.2. Erakusleak

Erakusleek ere izenaren edo [izen+adjektibo] multzoaren erreferentzia mugatzen dute; beti jakineko zerbait dute erreferente, eta izenak berak adierazten duenez, balio erakuslea dute. Determinatzaile-funtzioa dutenean, izenaren edo [izen+adjektibo] multzoaren ondoan joaten dira, eta leku-denborazko atzizki bizidunak zein bizigabeak har ditzakete.

Erakusle arruntak

Ezaguna denez, erakusleek hiru gradu islatzen dituzte, hurrenetik urrunenera: *hau/hónek* (1. gradua), *hori/hórrek* (2. gradua), *ha/hárek* (3. gradua). 1. gradua, berez, hiztunarengandik hurbilen dagoen zerbait edo norbait seinalatzeko erabiltzen da; 2. gradua solaskidearengandik hurbil daudenak aipatzeko; eta 3. gradua bai hiztunarengandik eta bai solaskidearengandik nolabait urrun dagoena seinalatzeko. Hala ere, gradu bakoitzaren erabilera nagusiak aipatutakoak izan arren, beti-beti ez dira modu horretan bereizten.

Taulan ikus daitekeenez, azentua da pluralaren bereizgarria erakusleetan. Izan ere, Eibarren mendebaleko eredua jarraitzen da, eta euskara estandarrean gertatzen ez den moduan, erakusleek sustrai bera dute singularrean nahiz pluralean. Nominatiboan izan ezik, beste kasu guztietan azentuak bereizten ditu singularreko eta pluraleko formak. Oso ezaugarri garrantzitsua da hau Eibarko euskararen, oraindik ere bizi-bizirik dagoena. Beharbada, ergatiboan zertxobait galdu da azentu bereizgarri hori, baina gainontzeko kasuetan bizi-bizirik dago.

Erakusle arruntak

| | 1. gradu sing. | 1. gradu pl. | 2. gradu sing. | 2. gradu pl. | 3. gradu sing. | 3. gradu pl. |
|---------------------------------------|-----------------|-----------------|------------------|------------------|------------------|-----------------|
| Nominatiboa | hau | hónek | hori | hórrek | ha ⁷⁸ | hárek |
| Ergatiboa | honék | hónek | horrék | hórrek | harék | hárek |
| Datiboa | honi/honéri | hóneri | horri/horréri | hórri | hari/haréri | háneri |
| Genitiboa | honén | hónen | horrén | hórren | harén | háren |
| Soziatiboa | honékin | hónekin | horrékin | hórrekin | harékin | háekin |
| | honé(g)az | hóne(g)az | horré(g)az | hórre(g)az | haré(g)az | háre(g)az |
| Destinatiboa | honéndako | hónendako | horréndako | hórrendako | haréndako | hárendako |
| | honéntzat | hónentzat | horréntzat | hórrentzat | haréntzat | hárentzat |
| | honéntzako | hónentzako | horréntzako | hórrentzako | haréntzako | hárentzako |
| Motibatiboa | hone(g)áittik | hóne(g)áittik | horre(g)áittik | hórre(g)áittik | hare(g)áittik | háre(g)áittik |
| Leku-genitiboa | honétako | hónetako | horretáko | hórretako | harétako | háretako |
| Inesiboa | honétan | hónetan | horrétan | hórretan | harétan | háretan |
| Ablatiboa (bizigabe) | honetátik | hónetatik | horretátik | hórretatik | haretátik | háretatik |
| Ablatiboa (bizidun) | hone(n)(g)andik | hóne(n)(g)andik | horré(n)(g)andik | hórre(n)(g)andik | haré(n)(g)andik | háre(n)(g)andik |
| Adlatiboa (bizigabe) | honetára | hónetara | horretára | hórretara | haretára | háretara |
| Adlatiboa (bizidun) | hone(n)(g)ana | hóne(n)(g)ana | horré(n)(g)ana | hórre(n)(g)ana | haré(n)(g)ana | háre(n)(g)ana |
| Muga-adlatiboa (bizigabe) | honetaraiño | hónetaraiño | horretaraiño | hórretaraiño | haretaraiño | háretaraiño |
| Hurbiltze-adlatiboa (bizigabe) | honetarutz | hónetarutz | horretarutz | hórretarutz | haretarutz | háretarutz |

Erakusle indartuak

Erakusle indartuak sortzeko modurik ohikoena erakusle arruntei *-(t)xe* atzizkia jartzeari da: *hauxe/hónetxek, horixe/hórretxek, haxe/háretxek*. Esaten dena bereziki indartzeko erabiltzen dira forma indartuak. Eibarren oso ugariak dira forma indartuak; asko erabiltzen dira.

*Egunero **haxe** biharra eitten neban nik! Eskolatik ogittara, ogi bi hartu ta etxera!*

*Eta hórrek hitzok eta hórrek hetxuok ekarri zeben **horixe** gogortasunori eta lutziori.*

*Pozik **haretxekin** afarixakin!*

*Oseake nik esaten dotena, **hauraxe** ein: alkar maitte eizue.*

Dena dela, forma indartuak balio indartzaile berezirik gabe ere erabiltzen dira. Hiztun batzuek berdin-berdin erabiltzen dituzte forma arruntak zein indartuak, eta, sarri, bata bestearen ondoan erabiltzen dituzte bi formak.

***Haxe, ha, haxe** goiko txikixa igual izengo da.*

Gehienetan atzizki indargarria deklinabide-atzizkiaren aurretik txertatzen da, forma indartua eratzeko. Ondoko taulan ikus daitekeenez, nominatiboan, ergatiboan, datiboan, genitiboan, sozietiboan, motibatiboan, destinatiboan eta bizidunen adlatibo eta ablatiboan atzizki indargarria deklinabide-atzizkiaren aurretik jartzen da beti: *hauxe, honetxek, honetxen; horixe, horretxek, horretxen; haxe, haretxek, haretxen*, etab. Beste kasu guztietan, ostera, zilegi da atzizki indargarria deklinabide-markaren ostean jartzea (Laspiur, 1999); ondorioz, erakusle ezberdinak erabiltzen dira hiztunaren arabera: *honetxetako/honetakotxe, honetxetatik/honetatitxik, honetxetara/honetaratxe...* Hala ere, atzizki indargarria deklinabide-atzizkiaren aurretik jartzea da normalena.

⁷⁸ *Ha* formarekin batera, inguruko herrietako haura ere erabiltzen da, baina askoz ere gutxiago.

Erakusle indartuak

| | 1.gradu sing. | 1.gradu pl. | 2.gradu sing. | 2.gradu pl. | 3.gradu sing. | 3.gradu pl. |
|----------------------------|--------------------|--------------------|---------------------|---------------------|--------------------|--------------------|
| Nominatiboa | hauxe | hónetxek | horixe | hórretxek | haxe/hauraxe | háretxek |
| Ergatiboa | honétxek | hónetxek | horrétxek | hórretxek | harétxek | háretxek |
| Datiboa | honétxeri | hónetxeri | horritxi/horretxéri | hórretxeri | haritxi/haretxéri | háretxeri |
| Genitiboa | honetxén | hónetxen | horretxén | hórretxen | harétxén | háretxen |
| Soziatiboa | honetxékin | hónetxeekin | horretxékin | hórretxeekin | harétxékin | háretxeekin |
| | honetxé(g)az | hónetxé(g)az | horretxé(g)az | hórretxé(g)az | harétxé(g)az | háretxé(g)az |
| Destinatiboa | honetxéndako | hónetxendako | horretxéndako | hórretxendako | harétxéndako | háretxendako |
| | honetxéntzat | hónetxéntzat | horretxéntzat | hórretxéntzat | harétxéntzat | háretxéntzat |
| | honetxéntzako | hónetxéntzako | horretxéntzako | hórretxéntzako | harétxéntzako | háretxéntzako |
| Motibatiboa | honetxé(g)aittik | hónetxe(g)aittik | horretxé(g)aittik | hórretxe(g)aittik | harétxé(g)aittik | háretxe(g)aittik |
| Leku-genitiboa | honetxétako | hónetxetako | horretxétako | hórretxetako | harétxétako | háretxetako |
| | honetakotxe | hónetakotxe | horretakotxe | hórretakotxe | haretakotxe | háretakotxe |
| Inesiboa | honetxétan | hónetxetan | horretxétan | hórretxetan | harétxétan | háretxetan |
| | honetantxe | hónetantxe | horretantxe | hórretantxe | harétantxe | háretantxe |
| Ablatiboa | honetxétatik | hónetxetatik | horretxétatik | hórretxetatik | harétxetatik | háretxetatik |
| (bizigabe) | honetatitxik | hónetatitxik | horretatitxik | hórretatitxik | harétatitxik | háretatitxik |
| Ablatiboa | honetxé(n)(g)andik | hónetxe(n)(g)andik | horretxé(n)(g)andik | hórretxe(n)(g)andik | harétxé(n)(g)andik | háretxe(n)(g)andik |
| (bizidun) | honetxétara | hónetxetara | horretxétara | hórretxetara | harétxétara | háretxétara |
| Adlatiboa | honetaratxe | hónetaratxe | horretaratxe | hórretaratxe | harétaratxe | háretaratxe |
| (bizigabe) | honetxé(n)(g)ana | hónetxe(n)(g)ana | horretxé(n)(g)ana | hórretxe(n)(g)ana | harétxé(n)(g)ana | háretxe(n)(g)ana |
| Adlatiboa | honetxé(n)(g)ana | hónetxe(n)(g)ana | horretxé(n)(g)ana | hórretxe(n)(g)ana | harétxé(n)(g)ana | háretxe(n)(g)ana |
| (bizidun) | honetxétara | hónetxetara | horretxétara | hórretxetara | harétxétara | háretxetara |
| Adlatiboa | honetaraino | hónetaraino | horretetaraino | hórretetaraino | harétetaraino | háretetaraino |
| (bizigabe) | honetarainotxe | hónetarainotxe | horretarainotxe | hórretarainotxe | harétarainotxe | háretarainotxe |
| Hurbiltze-adlatiboa | honetxetarutz | hónetxetarutz | horretxetarutz | hórretxetarutz | harétxetarutz | háretxetarutz |
| (bizigabe) | honetxetarutz | hónetxetarutz | horretxetarutz | hórretxetarutz | harétxetarutz | háretxetarutz |

Erakusleen ezker aldeko kokagunea

Mendebal osoan dago mugatzaileak izenaren ezkerrean zein eskuinean ipintzeko joera, erakusleak indartu nahi direnean. Horrelakoetan, ezkerreko erakusleaz gainera artikulua edo beste erakusle bat ere ezartzen da izenaren eskuin aldean. Eibarko hizkeran oso indartsua da joera hori. Hainbat modutara gauza daiteke, baina, batez ere, bi modu hauetara:

- Erakuslea deklinatuta + izena deklinatuta. Oso arrunta da modu hau. Izena pluralekoa denean plural hurbileko artikulua hartzen du, aurreko erakuslea 1. edo 2. gradukoa denean:

*Beragaz euki neban hizketaldi bat **honen asuntuan** gaiñian eta esan zestan halantxik eta halantxik, gobernadoriak ze amenaza eukin zittuan.*

*Han jeneralian, ba, **hónek komerziuok**...*

*Nik **honek liburuok** danak dakaraz etxian e!*

*Baiña euren artian, **honetxek hitzok** esan zittuan.*

*Ez ba, **harek zapatak** ez badestazuez erosten, ez jittuat ba beste pare bat erosiko.*

***Harek** mekanismo **guztiak** eta **harek alojamientoak** eta zinzelakin zabaldu ein bihar dittuk, e!*

- Erakuslea deklinatuta + [izena + gradu bereko erakuslea (mugatzaile moduan, izenari lotuta), ezkerreko erakuslearen deklinabide-marka berarekin]: *hau elixiau, hori elixiori, ha elixia*. Modu hau ere oso arrunta da.

*Han lokal bat jeguan, **hau danau** baiño haundixagua.*

*Etorri jatan **hori** Trabaku ondoko **basarrikuori**.*

*Ni najoiak **honekin soiñuonekin** bertan gelditzeko, ala?*

***Horrek partiduo**rek ez jakak kolorerik.*

*Eta nik **horrekin ilusiñuorrekin** eitten neban, baiña zensuriari aurkeztu bihar netsan itzulpenakin.*

*Danak: herri gutzia kontra zeguan **horren asuntuorren** gaiñian.*

Aretak (2003) beste zenbait aukera ere aurkezten ditu bere ikerketan. Esate baterako: erakuslea deklinatzeke + [izena + gradu bereko erakuslea deklinatuta] (*hau elixiaugaittik, hori elixiorigaittik, ha elixiagaittik...*); edo erakuslea jabetza-genitiboko forman + [izena + gradu bereko erakuslea jabetza-genitiboko formaren gainean deklinatuta] (*honen elixionengaittik, horren elixiorrengaittik, haren elixiangaittik...*). Aukera horiek askoz gutxiago erabiltzen dira, eta goian aurkeztutako biak dira arruntenak.

Adberbioak erakusleen ordez

Eibartarrok joera dugu leku-denborazko erakuslearen ordez (*honetan, horretako, haretatik, etab.*) leku-denborazko adberbioa deklinatuta erabiltzekoa (*han, handik, hemengo, etab.*). Balio erakusledun adberbio hori izenaren ezker aldean jartzen da (aurreko puntuan azaldutako erakusleen moduan). Eskuarki, adberbioak erakusleen ordez izenaren ezker aldean erabiltzeko aukerarik arruntena hauxe da:

- Adberbio-kategoriako forma deklinatuta + izena deklinatuta: *hamendik elixatik, hortik elixatik, handik elixatik.*

Hamengo etxeko berotasuna haundixa da, gero!

Hamen etxian egoten giñan barriketan.

Eta ni zelan motuan ibiltzen nintzan hamengo inguruetako karreretan, Luis Bergaretxe zan orduan hango, 'Correo Español'-eko, direktore, bueno, 'Vuelta a España'-n...

Oingo zapatuan etortzekua da.

Beste zenbait aukera ere badaude, baina askoz gutxiago erabiltzen dira. Adibidez: adberbio-kategoriako forma deklinatuta + izena + erakuslea deklinatuta: (*hamendik elixa honetatik, hortik elixa horretatik, handik elixa haretatik..*); edo adberbio-kategoriako forma inesiboan + izena + erakuslea behar duen moduan deklinatuta (*hamen elixa honetako, hor elixa horretako, han elixa haretako*). Esan bezala, ez dira hain arruntak.

3.2.2. ZENBATZAILEAK

Zenbatzaileek determinatzaile-sintagmaren zenbatasuna adierazten dute. Hiru sail bereiz daitezke: 1) *zenbatzaile zehaztuak edo numeralak*; 2) *zenbatzaile zehaztugabeak*; 3) *zenbatzaile orokorrak*.

| Zenbatzaile zehaztuak | Zenbatzaile zehaztugabeak | Zenbatzaile orokorrak |
|---|---|-----------------------|
| bat, bi, hiru... bana, biña, hiruna... | asko, gitxi, batzuk, hainbat, honenbeste, horrenbeste, hainbeste, ugari, hutsa, zenbat, nahikua, mordua, larregi, gehixago, gitxiago, pixkat, pilla bat, apur bat, makiña bat, hamaika... | guzti, oso, dana |

3.2.2.1. Zenbatzaile zehaztuak edo numeralak: **bat, bi, hoge...**

Zenbateko zehatza adierazten dute: *bat, mila, hamar,...*

Zenbatzaile hauek kokagune finkoa dute sintagmaren barruan: *bat* eta *bi* zenbatzaileak izan ezik, beste guztiak izenaren ezkerrean agertzen dira. *Bi* zenbatzailearen kasuan, eibartar nagusiek eskuinean jartzen dute gehienetan, baina gazteek gero eta joera handiagoa dute izenaren ezker aldean erabiltzeko.

Bat

Esan bezala, *bat* zenbatzailea beti determinatzaile-sintagmaren eskuin muturrean kokatzen da, mugatzaile bezala. Hain zuzen ere, horregatik hartzen dute batzuetan mugatzaile zehaztugabetzat (izen zenbakarriekin).

*Lehenengo zan horixe, Purificación Iturrioz, ta gero zan eibartar **bat**.*

*Horrek Kalbetoi kalian denda **bat** euki eben, Gabilondo.*

Deba ibarretik euskararen herrira (Zuazo, 2002) liburuan esaten denez, *baten* eta *batian* bereizi egiten dira Deba ibarrean. Eibarko euskararen corpusean, hala ere, *baten* eta *batian* nahastuta erabilitako kasuak ugariak dira; gehienetan, nahastea honetan datza: mugatu singularra (*batian*) erabili ordez mugagabea (*baten*) erabiltzean.

*...ta ha ipinitta zeken **beste baten, beste leku baten**.*

*Han **piñadi baten** eta **zelai baten**.*

*Nik pentsatzen dot beste **bide baten** doiazela.*

*Eta behin etorri ziran, **eskursiño baten** etorri giñazen.*

Mugatu singularra '*batian ... bestian*' egituran erabiltzen da ondo:

*Bestela, poltsilluan edo hartzen badittuzu, **batian** galdu jatzula, **bestian** ez dozula hartu...*

*Nik ez dot hizkuntzia hautatu, bi hizkuntzak dira ofizialak, zein **batian** zein **bestian**.*

*... **batian** 'Poeta y Aldeano', **bestian** 'La Boda de Luis Alonso'.*

Bi

Gorago esan denez, *bi* zenbatzailea ezkerrean nahiz eskuinean koka daiteke. Mendebaleko hizkeraren bereizgarria da *bi* zenbatzailea izenaren eskuin aldean kokatzea. Eibarren ere hori da joera nagusia.

Eta gu **familixa bi** egon giñan hementxe.

Lau metro ez zuan, baiña **metro bi** edo ...

Bueno, orduan, ba, 12-14 lagun ta ibiltzen giñan **urte biren** barruan, eztakizu?

Pauso bira, ezta?

Eguan erreka-zulo billurgarri bat, holan goittik "brnnnn..." **mendi falda bixen** zulua, haundixa ta pago zahar haundixa jo-ta... haraxe behia jota!

Hala ere, gazteek gero eta gehiago darabilte *bi* zenbatzailea izenaren ezker aldean. Izan ere, lasai esan daiteke gaur egun hori dela aukera ia bakarra belaunaldi gazte-enen artean.

Banakariak

Zenbatzaile zehaztuei *-na* atzizkia erantsiz zenbatzaile banakariak lortzen dira. Hitzak berak dioen moduan, 'banatze' adiera dute banakari hauek, eta banatze-eginkizuna betetzeko, zenbatzailea daraman sintagma aurrekari plural bati lotuta egoten da.

*Klaro, pentsaizu zenbat gustauko jatazen umiak! Bat bakarrik! Gu hiru ahizta gara eta hirurok **bana** dakagu.*

*Eta jo genduzen **biña** trikiti hasteko... badakizu orduan!*

3.2.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak: horrenbeste, asko, larregi, ugari...

Zenbatzaile zehaztugabeek kopuru zehaztugabea adierazten dute. Kokaguneari dagokionez, hiru multzotan bana daitezke:

- Izenaren ezkerrean kokatzen direnak: *honenbeste, horrenbeste, hainbeste, zenbat, hutsa.*
- Izenaren eskuinean kokatzen direnak: *x-en bat, asko, gitxi, batzuk, gehixago, gitxia-go, mordua, larregi, ugari, pixkat, apur bat, pilla bat.*
- Izenaren alde batera nahiz bestera koka daitezkeenak: *nahiko, zenbait.*

Hona hemen Eibarko euskararen gehien erabiltzen direnak:

Batzuk

Eibartarrok bereizketarik gabe erabiltzen ditugu 'batzuk' eta 'batzuek' formak, nominatiboan nahiz ergatiboan.

Oseake, harek ekarten eban gero, nik eruandako kartak eta zerak, barriro beste erreka **batzuek**.

Dittuk zinzel modoko **batzuek** ta horretxekin zabaltzen zittuen kanalak eta zerak.

Dedikau eitten ziran **batzuek**!

Beheko suan erre ta gero, ba, **batzuk** jaten eben.

Batzuk zakuan sartuta eruaten eben, beste **batzuk** oiñaz.

Batzuk esaten eben 30 zentimetro.

X-(r)en bat

X-(r)en bat esapidea gutxi gorabeherako kopurua adierazteko erabiltzen da.

Baten batek emongo detsa **kaferen bat** edo **holakoren bat**, engaiñauko juek.

Etxeren bat erosiko dabela esan dau.

Ez jakixat noiz, baiña **egunen baten** agertuko dok.

Asko

Asko izen zenbakarriekin erabiltzen da:

Frente oso gogorra izan zan hori. **Hildako asko** eta ...

Haura aukeratzeko, ba, **jende asko** jausi zan, e!

Izen zenbakaitz neurgaitzekin *handi* eta *luze* adjektiboak erabiltzen dira, besteak beste (*bildur haundixa, denbora luzia, ...*), baina *asko* zenbatzailea ere erabiltzen da zenbaitetan:

Bai, Gandezan **denbora askuan** egon giñan!

Gitxi

Zenbatzaile hau izen zenbakarri zein zenbakaitzekin erabiltzen da.

Partidu gitxi jokatu eta bastante ondo dirua etara.

Zenbat taillar dagan itxitta, zenbat kristal hor taillarretan apurtuta dagozen, eta ze **jente gitxi** ikusten dan lanera juaten horra lekutara.

Baiña, eguardixen **denpora gitxi** geratzen zan ta handik hona etorri, ordu erdi bizkor ibilitta e!

Mordua

Ta gero atzetik etorri zien beste batzuk eta, bueno, *ixa ahaztu be ein jataz, baiña harek **urte mordua** ein eban.*

*Gero, ailegau etxera, kafietesnia zopekin jan, katillu haundi bat bete, **nata morduakin**, ta kendu erropia, freskatu bat hartu, orduan baiñerarik be ez ta dutxarik be ez ta... ahal zan moduan baldiakin garbittu ta musikara gabian dantzan eittera, Untzagara, dantzan eittera.*

*Horrek **kantu mordua** dotore kantatzen giñuazen kuadrilliak.*

Hutsa

Izenaren ezkerrean kokatzen den zenbatzaile hau izen zenbakaitzekin erabiltzen da, gehienbat.

*Eta han, **hutsa diruagaittik**, bai bazkarixa eta bai afarixa lapikukadaka saltzen zan, merke-merke, danendako.*

*Hori bi aldiz pasau da: bat hortxe egunotan -horixe krisisori, 1914kuori- eta gero 1920xan, huelgia egon zanian, bardiña ein zan, orduan be 'cocina popular' ipiñi zan eta lanik ez zekanak horixe rantxuori jaten zeban, **hutsa diruagaz**. Jateko onak, e!*

Askotan, denbora eta espazioa adierazten duten izenekin batera joaten da.

Hutsa denporan heldu giñuazen Bilbora.

Hutsa kilometro daguaz handik Donostiara.

Honenbeste/horrenbeste/hainbeste

*Eneee! **Hainbeste kotxe** dagoz ta mekauden!*

*Esaten eban: "Bueno, nik **honenbeste diru** nahi dot".*

*Eta ikusiko dok Azkoittixan be **horrenbeste periodiko** saltzera ailegatzen danian.*

Nahiko

Izenaren ezkerrean nahiz eskuinean koka daiteke determinatzaile hau, baina eibartarrok gehienetan izenaren ezker aldean erabiltzen dugu, eta artikuluekin.

*Eta **nahikua historixa** jakak.*

*Eta ez neukan **nahikua diru**.*

Txarra zan bestia, ba, anparurik eza, **nahikua apoiorik** ez Legebiltzarraren aldetik bertatik, e!

Baiña harek ez eban... ez zan indartu, **nahikua boto** ez.

Ikusten nitzan ez nitzala **nahikua persona, nahikua gizon**, hárek gizonen kontra jardutzeko.

Pixkat

Juaten ziran frontoira ensaiatzera eta **izardi pixkat** etaraten eben.

Denbora pixkat biot hori prestatzeko.

Ta [...] hasi giñan ta holaxe ikesi gendun, ba, **erdera pixkat**.

Ta, ba, zeozer! **Diru pixkat** hartzen zan ta!

Medikua izatetik aparte, ba, kultura haundiko gizona zuan, baiña gustatzen jakuan **alarde pixkat** eittia be bai bere jakiturixia ta bere harremanak eta...

Apur bat

Ez da oso arrunta Eibarren, baina zenbait adibide jaso ditugu.

(...) eitten genduan, gero **zarata apur bat**, ...

Eta gero, hamen frantsesa bat eibartar batekin ezkondua zeguan eta harekin **apur bat**, eta beste bat, eta horretan, ba, aurrera!

Larregi⁷⁹

Bai, gure ama kutxauak **bihar larregi** eitten eban, dirurik ez eukitzeko.

Jateko larregi ipini eban amak.

Estuasun larregi pasautakua da.

3.2.2.3. Zenbatzaile orokorrak: guzti, dana, oso.

Zenbatzaile hauek orokortasunaz mintzatzeko erabiltzen dira, sintagmako izenak adierazten duenaren multzo osoa adierazteko. Zenbatzaile orokor hauek determinatzaile-sintagmaren eskuineko muturrean kokatzen dira.

⁷⁹ Eibarren nekez entzungo dugu *gehiegi* zenbatzailea, nagusien artean behinik behin. Gazteen artean orain hasi da zabaltzen, eskolaren eta komunikabideen eraginez.

Guzti

Izena mugatzeko erabiltzen da, gehienetan, zenbatzaile hau.

*Pareja bi juan gintzonazen, ta han Kasinuan soziua zonan Luisan anaia. Harek organizauta bailia, ta agure **zahar guztiak** han.*

*Karia da... erre eitten eban lurra ta harek **bitxo guztiak** erre eitten zittun! Harrak, honek beste **gauza guztiak, bitxo guztiak**...*

*Ez dakit zenbat konzejal izango ziran, hamazazpi ala hemeretzi. Nazionalista bat, eta **beste guztiak** republikanuak eta sozialistak izan ziran. Asike, **herri guztia**. Eske... Eibarren mentalidadia eguan, itxuria, republikanua*

*Eibarren **zulo guztietan** bateron batak edo bestiak zegozer eitten eben bizi-kletandako.*

***Domeka guzti-guztietan** etortzen zan, kalerik kale. Ardantzara etortzen zan ta kantau eitten eban. Ha kantua entzutzen genduanian... bueno...! Gure aintxitxiketia... pirulixori erostera!*

*Gauza bat erderaz esatera noia danak ondo aittu deixen: «el derecho a la vida» **gauza guztien** gaiñetik dago.*

Erakusleekin ere erabiltzen da, erreferentziazko izena ezkutatuta. Nabarmentzekoa da erakuslearekin doanean ezkerretara jartzen dugula eibartarrok erakuslea (deklinatuta), Euskaltzaindiak hobesten duen modura:

*Eta **hórrek guztiok**, oseake, beran estilora eitten eben berba.*

***Honek guztiok** dira guriak.*

***Horrekin guztiorrekin** amaittu zan ekitaldixa.*

***Hárentzat guztientzat** ein eben afarixa.*

Beste hizkera batzuetan *guzti* eta *dana* nahasi egiten diren arren, Eibarren bereiztu egiten dira gehienetan, eta *guzti* zenbatzaile funtzioan erabiltzen den bitartean, *dana* izenordain gisa erabiltzen da. Adibide modura ondorengoak:

*Eibar bonbardeatzen ekin etsen eta gure osabari-eta **danak** kendu etsezen, **jenero guztiak** errekisau etsezen.*

*Eta orduan entzun najuan **etxe guztiak** erre zirala, **dan-danak**.*

***Danak** eitten dabe oiñ [Sanblasa]! Oiñ **etxe guztietan** ikasitta dagoz, oin **danak** eitten dabe.*

Dana

Esan bezala, Eibarren ez da arrunta zenbatzaile moduan erabiltzea, *guzti*-ren lekuan, baina aurkitu dugu adibide bakarren bat.

*Ta ekarri zeben falta ziran **pieza danak**.*

*Baiña **eibartar danak**, txarrak eurendako.*

Erakuslearekin agertzen denean, erakuslea eta zenbatzailea biak deklinatuta joaten dira.

*Han lokal bat jeguan, **hau danau** baiño haundixagua.*

*Eta **hori danori** esan zetsan.*

Oso

Guzti eta *oso* zenbatzaileak elkarren ordain izan daitezke, singularrean daudenean. Hala ere, *oso*, batez ere zati daitezkeen izenei lotuta erabiltzen da.

*... musikiak urtetzen zeban, banda **osuk**, ...*

*Gaur armak dare, ba, herri **osuk** apurtzeko modukuak.*

3.2.3. DETERMINATZAILE ZEHAZTUGABEAK

Ez mugatzaile ez zenbatzaile ez den determinatzaile-multzoa dugu hau. Eibarko euskaran erabiltzen diren determinatzaile zehaztugabe nagusiak hauexek dira:

| | |
|------|---------|
| zein | edozein |
| zer | edozer |

Determinatzaile hauek izenaren ezkerretara jartzen dira eta ez dira inoiz mugatzailearekin batera agertzen determinatzaile-sintagman.

*Hori **edozein personari** be.*

***Zein tunel**, hor Maltzakua?*

*La Salle zan Eibarren ala **ze kolejixo**?*

*Poliziak **edozer ordutan**, eta gabian be igual eta egunaz be igual.*

3.3.- IZENORDAINAK

Izenordaina, izenak berak adierazten duenez, izen bat (arrunta zein berezia) aipatu gabe adierazteko erabiltzen den hitza da, mugatzailerik onartzen ez duena. Hiru motatako izenordain hauek izango ditugu aztergai atal honetan:

- 1) Pertsona-izenordainak: *ni, zu, geu, eurak, bera...*
- 2) Izenordain zehaztugabeak: *nor, zein, inor, edozein, ezer...*
- 3) Izenordain bihurkariak eta elkarkariak

3.3.1. PERTSONA-IZENORDAINAK

Bi multzotan bana daitezke pertsona-izenordain zehaztuak: arruntak eta indartuak.

| Pertsona-izenordain arruntak | Pertsona-izenordain indartuak |
|------------------------------|-------------------------------|
| NI | NEU |
| HI | HEU |
| HA | BERA |
| GU | GEU |
| ZU | ZEU |
| ZUEK | ZEUEK |
| HAREK | EURAK |

3.3.1.1. Pertsona-izenordain arruntak

Ondorengo taulan, pertsona-izenordain arrunten paradigma dator jasota.

Hirugarren pertsonan, berez, ez dago pertsona-izenordain arruntik, eta horien orde erakusle arruntak erabiltzen dira. Gehienbat hirugarren gradukoak (*ha* eta *hárek*) dira izenordain moduan erabiltzen diren erakusleak; horregatik, taulan jaso ditugunak ere hirugarren gradukoak dira. Lehenengo eta bigarren gradukoak zeintzuk diren jakiteko, jo bedi erakusleen taulara (3.2.1.2. atala).

3.3.1.2. Pertsona-izenordain indartuak

Mendebal osoan legez, *neuk, heuk, geuk...* erako izenordain indartuak erabili ohi dira Eibarren. Ez dira inguru honetakoak *neronek, herorrek...* egiturakoak.

Taulan jaso ditugun 3. pertsonako izenordain indartuak ere (*berak* eta *eurak*) hirugarren graduko erakusleetatik eratorritakoak dira.

Pertsona-izenordain arruntak

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|-------------------------------|---------------|-------------|---------------|-------------|-------------|------------|---------------|
| Nominatiboa | ni | hi | ha | gu | zu | zuek | hárek |
| Ergatiboa | nik | hik | harék | guk | zuk | zuek | hárek |
| Datiboa | neri | hiri | hari/haréri | guri | zuri | zueri | háleri |
| Jabetza- genitiboa | neré | hire | harén | gure | zure | zuen | háren |
| Soziatiboa | nerekin | hirekin | harékin | gurekin | zurekin | zuekin | hárekin |
| | neré(g)az | hire(g)az | haré(g)az | gure(g)az | zure(g)az | zue(g)az | háre(g)az |
| Destinatiboa | neretako | hiretako | haréndako | guretako | zuretako | zueandako | hárendako |
| | neretzat | hiretzat | haréntzat | guretzat | zuretzat | zuentzat | hárentzat |
| | neretzako | hiretzako | haréntzako | guretzako | zuretzako | zuentzako | hárentzako |
| Motibatiboa | nereregaittik | hiregaittik | harégaittik | guregaittik | zuregaittik | zuegaittik | háregaittik |
| Ablatiboa | neregandik | hiregandik | haré(n)gandik | guregandik | zuregandik | zuegandik | háre(n)gandik |
| Adlatiboa | nerégana | hiregana | haré(n)gana | guregana | zuregana | zuegana | háre(n)gana |

Pertsona-izenordain indartuak

| | NEU | HEU | BERA | GEU | ZEU | ZEUKE | EURAK |
|-------------------------------|--------------|--------------|----------------|--------------|--------------|---------------|---------------|
| Nominatiboa | neu | heu | bera | geu | zeu | zeuk | eurak |
| Ergatiboa | neuk | heuk | berak | geuk | zeuk | zeuk | eurak |
| Datiboa | neuri | heuri | berari | geuri | zeuri | zeuri | euri |
| Jabetza- genitiboa | neure | heure | beran | geure | zeure | zeuen | euren |
| Soziatiboa | neurekin | heurekin | berakin | geurekin | zeurekin | zeuekin | éurekin |
| | neure(g)az | heure(g)az | bera(g)az | geure(g)az | zeure(g)az | zeue(g)az | eure(g)az |
| Destinatiboa | neuretako | heuretako | berandako | geuretako | zeuretako | zeuendako | éurendako |
| | neuretzat | heuretzat | berantzat | geuretzat | zeuretzat | zeuentzat | éurentzat |
| | neuretzako | heuretzako | bera(n)gaittik | geuregaittik | zeuregaittik | zeuegaittik | éuregaittik |
| Motibatiboa | neuregaittik | heuregaittik | bera(n)gaittik | geuregaittik | zeuregaittik | zeuegaittik | éuregaittik |
| Ablatiboa | neuregandik | heuregandik | bera(n)gandik | geuregandik | zeuregandik | zeue(n)gandik | éure(n)gandik |
| Adlatiboa | neuregana | heuregana | bera(n)gana | geuregana | zeuregana | zeue(n)gana | éure(n)gana |

Berau eta berori

Berau eta berori ere 3. pertsonako izenordain indartuak dira; lehenengo eta bigarren graduko erakusleetatik eratorritakoak dira. Ez ditugu pertsona-izenordain indartuen taulan jaso, gutxiago erabiltzen direlako, baina erabili, erabiltzen dira.

*Esan jestan: "Hona bota, txikitu ta jo-ta **berorrek** zelan zertzen eban, ura zelan etarutzen..."*

*Honi lotu soka batekin ta **berorrekin** beti, jaurtittakuan be ha berakin juaten dok.*

*Ez, bakarrik ez, **beronek** erakusteko!*

*Beste anai bat zekan honek, Jesus, hil zana, difuntua, Zumarragakua, joten zebana eta **beronek** be joten zeban pixkat pianotxua.*

| | BERAU | BERORI |
|--------------------------|----------------------------|-----------------------------|
| Nominatiboa | berau | berori |
| Ergatiboa | beronek | berorrek |
| Datiboa | beroni | berorri |
| Jabetza-genitiboa | beronen | berorren |
| Soziatiboa | beronekin | berorrekin |
| Destinatiboa | beronendako beronentzat | beorrendako berorrentzat |
| Motibatiboa | berone(n)gaittik | berorre(n)gaittik |
| Ablatiboa | berone(n)gandik | berorre(n)gandik |
| Adlatiboa | berone(n)gana | berorre(n)gana |

Bigarren gradukoak (*berori*) errespetuzko harremanetarako ere erabili izan dira, baina gaur egun trataera hori galduta dago.

Pertsona-izenordain indartuen erabilera

Izenordain indartuen erabilerari dagokionez, galdegaiaren lekuan erabiltzen dira maiz forma indartuak:

*Ene ba! **Heuk** hil dittuk hórrek?*

*Ta **neuk** nahi nittuanak! **Neuk** nahi nittuan zapatak!*

*Bueno, bueno, bueno! **Geuk** ein doguna, e!*

*Eta Kuban euki zeban bigarrena. Bai. Eta ha **neurekin** etortzen zan.*

Eskribidu tarjetia, bota buzoian ta baeguan lehen tarjetaren bat hartu ta **geuria** laga.

Zelan ezagutzen ninduan jentia eta fabrikantia, **neu** juaten nintzan.

Baterixia Vitoria eta bestia, direktoria dana, Oñatin, Ibarondo, Inazito... **geurekin** jotzen zeban hamen, hamen 'sala de fiestas'-en eta zerian.

Hortik aparte, mintzagaiaren lekuan ere ager daitezke, batez ere *be* (ere), *behintzat* eta horrelakoen lagun.

Neuk *be penia hartzen najuan.*

Neuk *be bai e! Neuk be bai ta neure ahiztiak be bai, ta oin, loibak be bai, nere amari ikasitta.*

Geu, *behintzat, mendira juaten giñan.*

3. pertsonako *bera* eta *eurak* izenordainak anaforikoak dira, lehendik ezagututakoa edo aipatutakoa izendatzeko erabiltzen dira. Bestalde, balio indartzaileari dagokionez, azpimarratzekoa da edozein testuingurutan erabiltzen direla, esanahi indartzailearik izan ez arren:

*Harek, kaletik etorri, eta astua gobernau barik... ez pentsau jaten ekingo etsanik **berak!***

*Juan Bautista Gisasola, nik **berakin** mahai baten lan ein dot ofiziñan.*

*Han **berakin**, laguntzen **berari**, ze bestela bakarrik ibiltzen zan.*

*Ta hantxe eskindu etsen **eurak**, hantxe eitteko ta ez jakuen gustau hori lokalori.*

*Artu, artu-zahixa esaten etsen **eurak**...*

*Bost edo sei behi ta izkua **eurekin** ta kitto.*

*Baiña hárek ein zeben hori zerori eta zelan gerria **eurendako** gaizki zoian, ejerzito guztia ixa jaikitta zeguan gerriaren kontra, haixe aprobetxau zeben Leninek eta euren lagunak reboluziñua eitteko, **eurak** pentsatzen zeben bezela.*

3.3.1.3. Genitiboko izenordainak

Genitiboko izenordainek aipamen berezia merezi dute: alde batetik, arruntez eta indartuez gain, izenordain bihurkariak edo erreflexiboak ere badaudelako genitiboan; bestetik, izenordain-mota bakoitza erabiltzeko arauak betetzen ez direlako.

Izenordain genitiboak hiru motatakoak izan daitezke: arruntak, indartuak eta bihurkariak.

| Arruntak | Indartuak | Bihurkariak |
|--------------|--------------|--------------|
| nere | neure | neure |
| hire | heure | heure |
| harén | beran | bere |
| zure | zeure | zeure |
| gure | geure | geure |
| zuen | zeuen | zeuen |
| háren | euren | euren |

Harén, beran, bere

Hirugarren pertsonakoak beltzez nabarmendu ditugu; izan ere, forma aldetik bes-telakoak direnez, erabilera aldetik azalpen berezia merezi dute.

Izenordain genitibo bihurkariak erabiltzeko arau nagusia hauxe da: izenordain horrek perpaus bereko beste *nor*, *nori* edo *nork* sintagma batean izatea aurrekaria. Adibideak:

*Karakolak **bere** sustanzia bihar dau, ez tomatian gustua, karakol gustua euki.*

*Baiña gustatzen jakuan alarde pixkat eittia be bai **bere** jakiturixia ta **bere** harremanak eta...*

*Bera eta **bere** modukuak, España guztian albokuak, liberalaguak, demokrati-kuaguak zirala Madrikuak baiño.*

*Eta gero zigorra izan eban, **bere** partia.*

*Europak **bere** erara ein dau.*

*Neri aittak dozena bat urterako eingo estan behintzat eskopetia, hau hamabi milimetrokuau, txikixa **bere** denporan.*

*Ta gero, **bere** parriltxuak bazekazen ta gero, ba, sobratzen jakona saldu!*

Hala ere, gaur egun oro har Hego Euskal Herrian gertatzen den fenomenoa zera da: bihurkaria erabiltzen da izenordain genitibo arrunta edo indartua erabili behar denean, aurreko paragrafoan emandako araua hautsiz. Fenomeno hori Eibarren ere gertatzen da:

*Beti estimau dot **bere** konsejua eta berari entzutzia eta berak emondako bidiak eta autoriak ezagutu eta irakortzia.*

*Gerra aurreko Eibar, osorik, **bere** fotografixetan bakarrik dago.*

*Eta **bere** enkuestekin einda neukazen ordurako zer batzuk, etnografiako estudixo batzuk.*

*Eta, egixa esanda, beti-beti estimau dot hori, **bere** konsejo hórrek.*

*Ze elixako gauzetan be egon bihar giñan eta **bere** laguntasuna biharko gendun elixetan sartzeko eta zera.*

*Tradukziñua ein biharko detsegu **bere** apellidueri!*

Bestalde, kontrako fenomenoa ere gertatzen da Eibarren: *beran* izenordain indartuak lekua hartzen dio askotan *bere* bihurkariari, indartua erabiltzen baitugu eibartarrok sarri bihurkariaren lekuan:

*Baiña Eibarren meritua izan da, kuadrillia, por ejemplo, ugezaba ta **beran** langillia kuadrilla batekuak ta ez zan egoten hori amorruari.*

*Behin hartzen zebanian batek sailla, **beran** ekipuandako!*

*Harek **beran** misiñua haxe!*

*Zelan bera **beran** aittagaz _umia bera zala oindiñok_ juaten zirala hamengo herrixetara.*

*Fernando de Los Ríos-ek esaten zeban bezela **beran** idatzizan.*

Horiek horrela, esan daiteke Eibarren ez dugula irizpide zehatzik genitiboko izenordainen erabileran. Eibartarren ahozko solasaldietan forma biak (*beran* eta *bere*) nahasian erabiltzen dira, lekuko idiolektoen arabera forma bata ala bestea gehiago edo gutxia-

go. Nerea Aretaren ikerketen arabera (Areta, 2003), *bere* da aldaerarik erabiliena, lekuko guztiek baitarabilte gutxi edo asko; baina *beran* forma ere lekuko guztiek ezagutzen dute eta baita erabili ere. *Haren* izenordain arrunta gutxi erabiltzen da, beste bi formek lekua jan diotelako. Mendebaleko euskalkietan orokorra da joera hori.

Ondorioz, esan behar da jabetza-genitiboko marka aurretik hartzen duten deklinabide-kasuetan ere (destinatiboan eta motibatiboan, esaterako) aldaera biak aurki daitezkeela: *beran-* eta *bere-*. Kasu horietan, *beran-*dun formak erabiliagoak dira:

*Bai, siñisten dabenak pentsatzen dau bizimodua **berandako** hobia izango dala eta zerua billatzen dau.*

*Eta pelota onak ziran, bai **berandako** eta bai neretzako.*

Bera(n)gaittik izan ez balitz, galduta egongo zan.

Nik **bera(n)gaittik** jakin neban hori.

3.3.2. IZENORDAIN ZEHAZTUGABEAK

Izenordain hauen erreferentzia zehaztu gabe dago. Denen oinarrian galderazko izenordaina dugu; galderazko izenordaina da, hain zuzen ere, zehaztu gabeetan zehaztugabeena. Bi multzo nagusi bereiz daitezke izenordain zehaztugabeen artean: 1) *Galderazko izenordainak*; 2) *Galderazko izenordainetatik eratorritakoak*.

| Galderazko izenordainak | Galderazko izenordainetatik eratorritakoak |
|-------------------------|--|
| NOR/NORTZUK | INOR, EDONOR, NORBAIT |
| ZEIN/ZEINTZUK | EDOZEIN |
| ZER/ZERTZUK | ZER(A), ZER EDO ZER, EDOZER, EZER |

Nor, *zer* eta *zein* partikulez gain, bada beste bide bat izenordain zehaztugabeak erakitzeke Eibarko euskaran: BAT EDO BAT (*bateronbat*).

3.3.2.1. Galderazko izenordainak: **zein, nor, zertzuk...**

Zein eta nor

Nor eta *zein* izenordainak pertsonen galdetzeko erabiltzen ditugu. Eibarko euskararen *zein*-ek lekua kendu dio *nor*-i, baina oraindik erabiltzen da *nor* ere:

*Ze behin berak galdetu ein eban **nor** zan hori gaztiori.*

*Baiña hori esaten estana badakizu **nor** zan?*

*Han ikusten da **nor** zelakua dan.*

*Eta antologia horri ez dakit **nor** gelditu zan hitzaurria eitteko.*

Zein izenordaina pertsonen nahiz gauzen galdetzeko erabiltzen da:

*Urki-guenengua falta da ta gero zerana be bai, hau... bestia, **zein** dok hau?*

***Zein** sartu dok hor barruan hire alde zertzera?*

***Zein** hartuko ete juau?*

*Muzategixa badakizu **zein** dan... zera, Aldatze aldera edo... zera, hartzen dana!*

Zertzuk, nortzuk, zeintzuk

Zer, nor eta *zein* galderazko izenordainen pluraleko forma hauek tradizioa dute mendebalean, nahiz eta gainerako euskalki gehienetan tradizio gutxikoak izan. Eibarren maiz erabiltzen dira, *zertzuk* eta *zeintzuk* batez ere:

*Agustin Gisasola... Agustin... ta... **zeintzuk** ziran gehixago?*

*Normalenak **zeintzuk** izaten dira?*

*Aber etortzen jatazen **zertzuk** euki dittudazen buruan...*

***Zertzuk** pasau zittuen, nundik nora eta euren abenturak, gerrakuak.*

*Eta han, nora nindoian, irakortzen najuan dana, han herrixan **zertzuk** eguazen.*

Galderazko izenordainak

| | NOR | NORTZUK | ZEIN | ZEINTZUK | ZER | ZERTZUK |
|-------------------------------|--------------------------------------|---|---|--|---------------------------------------|---|
| Nominatiboa | nor | nortzuk ⁸⁰ | zein | zeintzuk | zer | zertzuk |
| Ergatiboa | no(r)k norek | nortzuek | zeinek | zeintzuek | zerek ze(r)k | zertzuek |
| Datiboa | nori | nortzuri nortzueri | zeiñi | zeintzuri zeintzueri | zeri | zertzuri zertzueri |
| Jabetza- genitiboa | noren | nortzuen | zeiñen | zeintzuen | zeren | zertzuen |
| Soziatiboa | norekin noregaz | nortzuekin nortzuegaz | zeiñekin zeiñegaz | zeintzuekin zeintzuegaz | zerekin zeregaz | zertzuekin zertzuegaz |
| Destinatiboa | norendako norentzat norentzako | nortzuendako nortzuentzat nortzuentzako | zeiñendako zeiñentzat zeiñentzako | zeintzuendako zeintzuentzat zeintzuentzako | zereandako zerentzat zerentzako | zertzuendako zertzuentzat zertzuentzako |
| Motibatiboa | noregaittik | nortzuegaittik | zeiñegaittik | zeintzegaittik | zere(r)gaittik | zertzegaittik |
| Ablatiboa | nore(n)gandik | nortzue(n)gandik | zeiñe(n)gandik | zeintzue(n)gandik | zere(r)tatik | zertzetatik |
| Adlatiboa | nore(n)gana | nortzue(n)gana | zeiñe(n)gana | zeintzue(n)gana | zere(r)tara | zertzuetara |

⁸⁰ *Batzuk/batzuek* kasurako esan dugun moduan, kasu honetan ere, *nortzuk/nortzuek*, *zeintzuk/zeintzuek* eta *zertzuk/zertzuek* ez dira ondo bereizten ahozko jardunean. Normalean, ergatiborako ere nominatiboa erabiltzen da Eibarren.

Galdenazko izenordainetatik eratorritakoa

| | EZER | ZERBAIT | ZEOZER | EDOZER | ZERA | IÑOR | EDOZEIN |
|-------------------------------|-----------------------------------|---|---|---|--------------------------------------|-----------------------------------|--|
| Nominatiboa | ezer | zerbaitt | zeozer | edozer | zera | iñor | edozein |
| Ergatiboa | ezek | zerbaittek | zeozek | edoze(re)k | zerak | iñok | edozeiñek |
| Datiboa | ezeri | zerbaitti | zeozeri | edozeri | zerari | iñori | edozeiñi |
| Jabetza- genitiboa | eze(re)n | zerbaitten | zeoze(re)n | edozeren | zeran | iñon | edozeiñen |
| Soziatiboa | ezeekin ezegaz | zerbaittekin zerbaittegaz | zeozeekin zeozegaz | edozeekin edozeregaz | zerakin zeragaz | iñokin iñogaz | edozeiñekin edozeiñegaz |
| Destinatiboa | ezendako ezentzat ezentzako | zerbaittendako zerbaittentzat zerbaittentzako | zeozendako zeozentzat zeozentzako | edozerendako edozerentzat edozerentzako | zerandako zerantzat zerantzako | iñondako iñontzat iñontzako | edozeiñendako edozeiñentzat edozeiñentzako |
| Motibatiboa | ezeagaittik ezetatik | zerbaitteagaittik zerbaittetatik | zeozeagaittik zeozetatik | edozeagaittik edoze(r)tatik | zeragaaittik zeretik | iñogaaittik iño(n)gandik | edozeiñegaaittik edozeiñe(n)gandik |
| Adlatiboa | ezetara | zerbaittetara | zeozetara | edoze(r)tara | zeragandik zeragana | iño(n)gana | edozeiñe(n)gana |

3.3.2.2. Galderazko izenordainetatik eratorritakoak: *inor, ezer, edozein, zeozer, zera...*

Inor eta ezer

Izenordain zehaztugabe hauek ere *nor* eta *zer* galderazko izenordainen gainean eraikita daude. *Inor* izenordainak pertsoneri egiten die erreferentzia, eta *ezer*-ek, berriz, pertsona ez direnei. *Inor* eta *ezer* izenordainek, baina, badute ezaugarri bereizgarri bat: ezezko testuinguruetan erabiltzen dira gehienbat.

*Ta atia, **iñor** ez dein sartu gu [geuezen] lekuen.*

*Ni ez, ni ez ninduen **iñok** ezautu!*

*Ta labadera be bai, **iñor** ez baeuan labaderuan ...*

*... behintzat ez zotsen **ezer** ein.*

*E, lagaixok damaskinauari, porke hortik ez dakak **ezer** ta hasi hari bestia ikasten.*

*Ez etxe eta ez **ezer**.*

Ezekako testuinguruetan ez ezik, baldintzazkoetan, galderazkoetan eta konparaziozkoetan ere erabil daitezke:

*Ba, guardixa bat nonbrau zan kalietan eta plazetan zaindu zeixen **iñor** bazetorren.*

*Eta, bestetik, euskera konturik **ezer** balego, bokabularixua jaso eta plan bat eruan.*

Bestalde, *inor* izenordaina 'beste bat' adierarekin ere erabiltzen da:

*Hitz bat eingo zeban **iñon** fabore.*

*Eze han ordu bete baten **iñogaittik** gaizki esaten ez zagoz.*

***Iñon** etxian sartzia, ez jata gustatzen.*

***Iñon** kontura kafia hartzia, gauza ona!*

Izenordaina nabarmendu nahi denean *be* partikula eransten zaio. *Iñor/ezer + be + ez* gehitzen direnean, forma trinko hauek sortzen dira ahozkoan: *iñobez, ezebez*.

*Han egon zittuan, bai? Baiña **iñor** ez zuan agertu, **iñobez!***

*Ene, **ezebez!***

Zerbait eta zeozer (zer edo zer)

Izenordain hauek pertsona ez direnak aipatzeko erabiltzen ditugu. Erabat balioki-deak dira biak. Eibarren bigarrena da gehien erabiltzen dena. *Zerbait*-en adibideren bat aurkitu dugu, dena dela:

Zerbaitt irakurtzeko, bai.

*Bueno, lehen be **zerbaitt** egongo zan, baiña gizon balio ez dabena balitza moduan.*

*... hara juaten giñan entzutziarren, ba, joño, **zerbaitt** arnasia zana.*

Zeozer da, hala ere, zabalduena:

*lñok ez genkixan ta **zeozer**, ezta?*

*...edo **zeozetarako** egon bihar dala dirubatzia.*

*Bazeguan gruporen bat, **zeozer** pentsatzen zebana hor aldian, bihar asuntuan.*

*Nik uste dot, aurretik be baten batzuek bazekixela **zeozer**.*

Edonor, edozein, edozer

Berez, *edonor* pertsonazkoa da, eta *edozein*, berriz, pertsona nahiz pertsona ez direnei erreferentzia egiteko erabil daiteke. Baina Eibarren, *zein* eta *nor*-ekin gertatu den legez, *edozein*-ek lekua kendu dio *edonor*-i eta ez da ia erabiltzen:

*Gipuzkuako **edozein**, pixkat, monumento moduan inportantia dana.*

Edozein juan leikian hara.

Edozer pertsona ez direnei erreferentzia egiteko erabiltzen da.

*Ba, igual, sartzen zeban, **edozer**.*

*Ba, behin jatordu bat edo ein ezkeriok, gero, **edozer**.*

*Herrittik urten barik eta esperientzia gitxi gerrarako eta **edozertarako!***

Edozein eta *edozer*, bestalde, determinatzaile garbiak dira, osagarria onartzen dutenak, eta determinatzaile moduan erabiltzen dira gehienbat (ikus 3.2.3. atala).

Zera

Zer galde-izenordainetik eratorritako izenordain zehaztugabea dugu hau. 'Makulu' moduan erabiltzen da, lagunarteko hizkeran batez ere, hitz bila-edo gabiltzanean (Euskaltzaindia, 1993). Deklinatuta erabiltzen da, eta, askotan, jarraian, *zera*-ren

erreferentea den hitza, hasieran bururatu ez zaiguna, esaten dugu. Ahozko hizkeran asko erabiltzen da Eibarren:

*Orduan giñan Arana, **zerakin** ezkondata dagona, Legazpiñekin ezkondata dagona.*

*Beistegin alabia ibilliko zan, **zerakin**, beran aittan bihargin baten alabiakin kua-drillan..*

*Elgeta kaletik gora eruaten jittuen behixak edo **zerak**, idixak.*

Zera eukitzia, hori amistadiori.

*Ikesi genduzen lau **zerak**, lau reglak edo lau operaziñuak.*

Bateronbat (bat edo bat)

Bateronbat izenordain zehaztugabea galderazko izenordainetatik eratorria den *nor-bait* izenordainaren ordean erabiltzen da Eibarren. Zehazki nor den esan gabe utzi nahi den pertsona aipatzeko erabiltzen da.

*Baiña beti etortzen zan **bateronbat**.*

Bateronbat bialtzeko hara, fabrikia ipini bihar dala martxan edo zeozer.

*...ta banan-banan, banan-banan begiratu ustelduta edo **bateronbat** badao, porsiakaso.*

Bate(ro)nbat izenordainaren segida osoa aurkituko dugu Eibarren: *bateronbatek, bateronbategana, bateronbati, bateronbaten, bateronbategaittik...*

3.3.3. IZENORDAIN ELKARKARIAK ETA BIHURKARIAK

3.3.3.1.- Elkarkaria: *alkar*

Izenordain elkarkari honek ez du berezko erreferentziarik. Testuinguruan egon behar den aurrekari plural batek ematen dio erreferentzia. Horregatik, anaforikoa dela esaten da.

*Leku batzuetan exitua eukitzen genduan, zekigulako arma barri ta horretan horixe besterik eztagok, fusila ta amatralladora ta tirua ta **alkar** hiltzia besterikan, ta horixe dok zera.*

*Baiña, bersuetia ta kantua asko gustau izan jatak. Gero, **alkarri** bota be bai, e!*

*Bakotxak berak eitten eben, bakotxak berak eitten eben! Ba, **alkarri** lagunduta ta, igual, batari edo bestiari lagundu eitten ta gero partidu ta holakuak eitten zittuen.*

3.3.3.2.- Bihurkaria: X-en burua

Izenordain elkarkariak bezala, izenordain bihurkariak ere ez du berezko erreferentziarik. Aurrekari batetik jaso behar du erreferentzia.

*Haxe be... gaur ikusten dot **nere burua**, han, Untzaga plazan.*

***Nere buruari** galdetu bihar detsat: zelan euki najuan nik hori buruan, orduan?*

*Eta **nere buruari** esan netsan...*

Gazteen artean gero eta gehiago, Nor-Nork aditzak Nor aditz gisa jokatzen dira, elkarkaria eta bihurkaria erabili beharrean: Nork sintagma eta Nor sintagma erreferentziakidetzat interpretatzen dira, eta izenordain elkarkariaren eta bihurkariaren erabilera saihesten da.

*Kalian ikusi **giñan**, ta ...*

*Ta agurtu **ziranian**, ...*

*Potolia ikusten **naiz**.*

3.4.- POSTPOSIZIO ASKEAK

Postposizio-sintagmak sortzeko determinatzaile-sintagmari eransten zaizkion postposizio-atzizkiez jardun dugu aurreko atal batean. Oraingo honetan, berriz, era berean postposizio-sintagmak sortzeko baliatzen diren beste postposizio-mota batez berba egingo dugu: postposizio askeez.

Askeak diren aldetik, ez zaizkie determinatzaile-sintagmei eransten, baina, gehienetan, determinatzaile edo postposizio-sintagma baten eskuinean jartzen dira, sintagma horren funtzio gramatikala adieraziz.

Albuan

*Han aurrian ein eben, ba, etxe barri bat, zera, Gonzalezenan **albuan**, azeitu-neruan **albuan**, haintxe zeguan Orbeaneko lehelengo taillarra.*

Aldamenian

*Orduan zelan eguazen andraetxiak bi, Korrida Plaza(ø) **aldamenian**, Isasikuak eta honek Untzagakuok eta Frontoi Zaharrekuak.*

*Zure aittan **aldamenian** jarri nintzan.*

Alde

*... politikamente mordo bat ez zeguazen beran **alde**.*

*... batzuek zeguazen Reboluziñuan **alde**, eta beste batzuek kontra.*

Aldian

*Kooperatibismua beste modu baten formauta dago Eibarko kooperatibismuan **aldian***

*Hamen oingo enpresarixuen **aldian** asko.*

Aldera

*Eta Aizkorri(ø) **aldera** juaten giñanian, batez be Urrexolako hatxak...*

*Eta gero harpiaren ate(ø) **aldera** jo gendun.*

*Eta neri beti gustau izan jata Baxenabarre(ø) **aldera** juatia.*

Aldetik

*Aman **aldetik** nittuan parientiak, batzuk baziran karlistak be.*

*... aurrera begira zeozer izateko formaziño(ø) **aldetik**.*

Antzera

*Horren **antzera** izango dok!*

*Juangoikuan **antzera** eindakuak garala erakusten dau fediak.*

Aparte

*Gobierno**tik aparte** zeguan instituziño baten.*

*Bai, bai, enpres**atik aparte** zelako omenajia ein estan Aiuntamientuak, Eibarkuak.*

*Baiña bestetik, baitta be, eusker**atik aparte**, bazan solidarismo giro hori.*

*Eta hort**ik aparte** oso laguna.*

*Bizixa(ø) **aparte**, dana galdu eben.*

Arte

*Hamaika t'erdia(ø) **arte** ez gendun amaitzen.*

*Eta euskeriaren prezencia han, lehelengo aldiz gerra onduan, udaletxian bertan, era hortan, hauste bat zan, lehengo, **oin(ø) arte** gerratik eguan bidiana.*

*Bueno, erdira **arte** karretera bat eguan.*

*Derrepente euskaltzale pilla bat agertu ziran, ordura **arte** nahikua ezkutauta ebizenak.*

*Gauza asko azken**era arte** reserbatzen dittut, bibliografian agertuko dira.*

Artian

*Harri(ø) **artian** eta pausu txarra eta...*

***Esku(ø) artian** daukat ointxe liburu bat!*

*Ta nere semiak sasi(ø) **artian** zihar ta erabilli eban...batian gora, bestian behe-
ra...!*

*Geuk ipiñi genduan Eibarren, lau lagun**en artian**.*

Háneri zela eitten gentsegun erderaz, gero hasi giñan geure **artian**...

Baiña hori gorrotuori gehixago izan da anarkisten **artian** sozialisten **artian** baiño.

Artetik

Etara zittuen eskonbro(ø) **artetik**.

Aurrian

Eta háren kontra juaten ziran huelgan zeguazen bihargiñak eta burruka batzuek egoten ziran taillar(ø) **aurrian** edo taillar barruan edo edozein lekutan egoten ziran burrukak.

Gu, hamahiru bat hamalau bat milla izango giñazen gerra(ø) **aurrian** eta gero berrogeta lau edo berrogeta boste millagaz etorri nintzan!

Ta hantxe zelaixak [...] etxian **aurrian**

Otola-erdiko basarrixan **aurrian** be bai...!

Azpixan

‘La voz de España-n’ argazkixen **azpixan** idazteko testotxo bat.

Eta horrek batetik reakziño bat sortzen detsu eta injustizia baten **azpixan** ikusten dozu zure burua eta gero zeozer ein nahi dozu.

Errapian **azpixan** ta gero hara botatakuan, brasatara botatakuan, harek, ba, lurruna botatzen jua.

Barik

‘Picos de Europa’-n lo eitteko zaku(ø) **barik**.

Ta txapia bihar zan poro(ø) **barik**, ahal dala!

Baiña gizonak, bihargiñak, alkar ikusten ziran: bata fraka(ø) **barik** eta beste bat kaltzetin(ø) **barik** eta beste bat zapatarik **barik** edo txamarra(ø) **barik**.

Alde batzuetatik hor, Eibar kanpotik, kanposantura eta, zaratarik **barik**.

Barru

Urtebete(ø) **barru** juango naiz ni be hara.

Behera

Eta okotsetik **behera** negar tantanak jausten.

Ze, klaro, goittik **behera** bajatu, esplorau, planua etara, datuak bihar ziranak hartu eta gora.

Danak zelaixan **behera**, antxintxiketan danak, bat... han hiltzen ziran, eta bateri oratu halan eta "Aaaaa!".

Bittartez

Ba, bestiaren esperientzia neukanez, hartu eta fitxen **bittartez**, ba bueno.

Eboluziñuan **bittartez** ekarri bihar dala hori reboluziñuori.

Orduan zeguan aurretik be, 1914 aurretik be, sozialismuan **bittartez**, Segunda Internacional-ian zeguan sartuta, mundu guztian ein bihar zala Huelga General bat eta ekartzeko beste mundu bat.

Bittartian

Lehelengo, hamazortzi bat urtera **bittartian**, katolikua izan nintzan.

Mordo bat, huelga mordo bat egon ziran hor, 1900etik 1914ra **bittartian**, huelga mordo bat egon ziran Eibarren.

Aberastasun(ø) **bittartian** ez dau urtetzen holako idearik.

Etxe(ø) **bittartian** ezkutauta zeguan.

Esker(rak)

Bueno, ni honi **esker** hasi nintzan Kant eta irakortzen.

Ni, nere ustez, nik sinismena be badaukat Jaungoikuari **eskerrak**, eta nereztzat bedinkaziño bat da.

Halan be, gauza asko galdu dira, baiña prinzipalena edo gehixengua behintzat salbau da. **Eskerrak** horri.

Esku

Nik nere zaletasunagaittik-eta arte kontua nere **esku**.

Gaiñian

1) Ein sua ta teillia ipiñi han ta teilla(ø) gaiñian erreta okelia jaten genduan.

Geu jarri asto **gaiñian**, ta asto(ø) **gaiñian** etortzen giñan!

Etxe onduan zabaldu, holan ipintzen zian, buruak kanpora diala, alkarren **gaiñian** tolostu dana, euzkittan sikatzen.

Egoten zan, holan, urkillia batzuk egoten zian, ta urkillen **gaiñian** egur bat botatzen zan.

2) Beragaz euki neban hizketaldi bat honen asuntuan **gaiñian** eta esan zestan halantxik eta halantxik, gobernadoriak ze amenaza euki zittuan.

Eibarko damaskinauan **gaiñian** ein zan liburuan be bai, Pedro Zelaiak-eta nahikua historixa jakak.

Gora

Hortxe joian motorrian, euren tabernatik **gora** ta kotxe bat atzian!

Salbador, ba, Txontatik **gora** juanda...

Aldaparia bajau, panaderixia hor Ermuarretakua, ba, aldapariori bajau ta atzera gero Elgeta kaletik **gora** eruaten jittuen behixak edo zerak... idixak... han sosiuz gero hartu deixen.

Kañamozko sokekin han, paretian **gora** eta behin begira eureri.

Inguru

Ta txapia, saltzen zebena, harek zentesima bat(ø) **inguru** eukitzen eban.

Milloi bat(ø) **inguru** giñazen UGTan geuazanak.

Inguruan

Martxu(ø) **inguruan**, egualdi ona zeguanian.

Bai, orduan hor izaten ziran, Gabonak(ø) **inguruan** ziran jaixak Azkoittikuak.

Euskaldunok ez gagozela gure basarri(ø) **inguruan** lotuta bakarrik.

Madriden **inguruan** bizi izandakuak-eta...

Kanpora

Legetik **kanpora** dagoz hori izendatu dabenak.

Porke honek Kareagak, Mateo Kareagak, dakan eskopetia, hori zapatuetan ta domeketan eindakua dok, ordutik, taillarreko ordutik **kanpora** eindakua.

Bueno, amerikuanuk eurak zertu ziranetik eta, bueno, beste urte bi pasau ziran etxetik **kanpora**.

Kontra

Orduan hor**ren kontra** ez eguan halako organizaziñorik.

Orduan, eurixa eitten badau be, lur**ran kontra** ez dao garixa, lurran kontra garixa alperrik galdu eitten da!

Eta, naturalmente, horrek ekarri zeban, holan, gizon batek entierro zibilletan holako hitzak esaten zittuanian, ez diktadur**ian kontra** direktamente, baiña geure pentsakerak defenditzen.

Lez

Mundu guzurtixan aurrian, haundixa; baiña gizon(ø) **lez**, hutsuna bat baiño gehixagoko umia.

Moduan

1) Eta nere **moduan** beste batzuek be.

Eta Benigno Baskaraneke sarrittan esan desta, zelan bera beran aittagaz -umia bera zala oindiñok- juaten zirala hamengo herrixetara UGTian izenian hitz eitten zebela, baiña sozialist**on moduan** eitten zebela hitz.

Eta hor**ren moduan**, nere familixian **moduan**, beste batzuek ondiokan gehixago.

2) Eta harek gu defenditzen ginduezen gizon(ø) **moduan**.

Eta beste mordo bat, artesano(ø) **moduan**, euren langille onak, asko irabazten zebenak, ziran sozialistak.

Eta kastigu(ø) **moduan**, nere ugezabak, arratsaldian, bestieri ipini zetsen euren lana etxietan eta ni kalian laga ninduan.

Onduan

Eta txabolara juaterakuan, txabola(ø) **onduan** nun topatzen doten Zeraingo ordekan...

Eta zekazen... lau zer zekazen, lau karril: bata atzian eta hiru sarrera(ø) **onduan** eta mostradora parian.

Hamen fabrikante bat zuan, geure etxian **onduan** taillarra ekan.

Elizkizunak Aitta Santuan **onduan** meza entzutzen be, gipuzkuarrak han, e, preferenzia!

Ostian

Hamen gerra(ø) **ostian** ez zeguan industriarik.

Eta direktibian **ostian**, Udaletxiak.

Parian

Bata atzian eta hiru sarrera onduan eta mostradora(ø) **parian**.

Ta urten fraillietatik ta Korrida Plaza gaiñera foballera ta zeretik juaten giñan, frontoian ostetik, Onaindianeko ha kalia zan, ta etxien **parian** pasatzen... atenziñua, eztakizu?

Zihar

Behintzat ez dot ardurarik eukitzen Frantzian **zihar** han bakarrik ibiltzeko.

Bazoian kalian **zihar** eta jausi zan hankaz gora.

Tunela (ø) **zihar** etorri ziran, Estaziñotik, hona Ardantzara.

Basarritxar baten esana entzunaz, basotik, arizti batzuek (ø) **zihar**, jo genduan Jañagaña'ra. (A. Iturrioz, 1958)

3.5.- ADJEKTIBOAK: ADJEKTIBOAK MAILAKATZEKO PARTIKULAK ETA ATZIZKIAK

3.5.1.- MAILA-ADBERBIOAK

Adjektiboa, zenbait adberbio bezala, maila-adberbioz lagunduta ager daiteke. Hauek dira eibartarrei egindako elkarrizketetan aurkitu ditugun maila-adberbioak: *oso*, *nahiko*, *benetan*, *zeharo*, *guztiz*, eta *hain*. Maila-adberbio hauek adjektiboaren ezkerrean jartzen dira:

*Idixek bai, **oso** inportantiek zien orduen!*

Ziharo hutsak, e! Ezebez!

*Ez da egoten **hain** lijero kanpora ta barrura sartzeko.*

Benetan polittak dira umian zapatak.

[Izena+adjektibo] hurrenkera dugunean ere, izenaren ezkerrean ipintzen ditugu mota hauetako adberbioak. *Oso* adberbioaren kasuan nabarmena da jokamolde hori, beste hizkera batzuetako joeraren aurka:

Oso maistra jatorra etorri jakun, zeretik, Tolosatik.

*Ta gure tia, nere tia bat, soltera bat, **oso** talo-egitzaille ona zan, e!*

*Kuriosua da, dalako **oso** gauza espeziala.*

*Gaiñera **oso** umore ona eukan eta ondo pasatzen gendun berakin.*

*Eta **oso** harreman onak lortzen genduzen eta lagun miñak eitten genduzen.*

3.5.2.- **-en**, **-a(g)o** eta **-e(g)i** ATZIZKIAK

Atzizki hauek adjektiboei eta adberbio batzuei eransten zaizkie, superlatiboa, konparatiboa eta larregitasuna adierazteko. Alderdi fonetikoan inguruko informazio gehiago liburu honen 2. atalean.

3.5.2.1.- Superlatiboa: **-en**

Superlatiboa adierazteko atzizkia **-en** da⁸¹.

⁸¹ Aurrerago azaldu dugun moduan, *txiki*, *haundi* eta *na(g)usi* hitzei eransten zaienean, bi motatakoa izan daiteke bilakaera artikulua hartzen dutenean: *txikixena*, *haundixena*, *nausixena* edo *txikiña*, *haundiña*, *nausiña*.

Ta han egoten giñan begira **lodixenak** zeñ huekotan dagozen, **lodixena** hartzeko. Prezio igualian, **lodixena**...

Halan be, gauza asko galdu dira, baiña **prinzipalena** edo gehixengua, behintzat, salbau da.

Perretxikuen enemigo **haundiña** da ardixa. Ardixa daguan lekuan gitxi egongo da..

Batek esan zestan, neska polit batek esan zestan: "Candido, heu haiz mutikorik hamen **polittena** eta **garbixena**" eta bata eta bestia, eta gero esan zentan: "baiña txikiegixa haiz".

Agure zaharra ez baina gure onduan zaharrak, bertako Kasinoko soziuak, **zaharrenak**.

3.5.2.2.- Konparatiboa: -a(g)o

Konparatiboa adierazteko atzizkia -ago da; Eibarko euskaran -ao/-au dira aldaerak.

España guztian albokuak, **liberalauak**, **demokratikauak** zirala Madrikuak baiño.

Eta poliziak **txarrauk**, **txartuao** portatzen jakuzen zera baiño, guardia zibillak baiño.

Bai, irakorten dana ez, baiña... bueno, pixkat ikessita jun giñan ta gero, ba, **errezao** sartu giñan.

3.5.2.3.- Larregitasuna: -e(g)i

Larregitasuna, azkenik, -e(g)i atzizkiaren bidez adierazten da.

Bigunegixa ez deilla izan eta **gogorregixa** bez. Hor noberak hartu bihar tamaiñua

Haundiegixa bada, badakizu zer gertatzen da, ba ezin.

Latza bai, komeni dok, baina **latzegixa** bez, bestela alperrik galdu be ein lekek, eta **latzegixa** ez dok komeni.

Eibarren ez dugu mendebaleko beste hainbat hizkeratan erabiltzen den **lar** erabiltzen.

3.5.3.- ADJEKTIBOAK ERREPIKATZEA

Bide hau superlatiboak eratzeko baliatzen dugu. Oso-oso erabilia da.

Ha **poli-politta** zan.

On-ona da nere alabia.

Sarri, *be* partikula sartzen da bi adjektiboen artean, indargarri gisa:

Politta be politta da zeuen txakurra.

Ona be ona zeguan atzo eran genduan sardaua.

3.5.4.- ATZIZKI TXIKIGARRIAK ETA HANDIGARRIAK

Adjektiboaren esanahia aldarazten dute nolabait, txikigarri nahiz handigarri moduan. Eibartarrei egindako elkarrizketetan, atzizki txikigarri eta handigarri hauek aurkitu ditugu

-TXO txikigarria (beste hizkera batzuetako *-xe* ez da erabiltzen): txikitxo, zabaltxo, loditxo...

-KOTE handigarria: *haundikote, lodikote, sendokote, zabalkote*...

-ZAR handigarria: *basarrizar, liburuzar*... Hau aurrekoa baino askoz gutxiago erabiltzen da.

Ha **bajutxu**agua zan, baina, ...

Gizon **lodikotia** zan ha.

Mutill **haundikote** bat agertu jatan atian parian.

3. 6.- ERATORPEN-ATZIZKIAK

Izenak, izenondoak eta adizlagunak eratorpenaren bidetik sortzeko erabiltzen diren atzizkien zerrenda dator jarraian. Azterketa hau egiteko, Toribio Etxebarriak bere lexikoian jasotako atzizkiak eta berba eratorriak hartu ditugu oinarritzat, ondoren gutxi batzuk kendu eta beste batzuk gehitu ditugun arren. Gogoan izan, berak bere liburuan aurkeztutako hitzak direla, baina ez nahitaez gaur egungo hizkeran bizirik daudenak, gehienak bizirik dirauten arren.

Zerrenda honetan, zentzu hertsian eratorpen-atzizkitzat jo ditugun morfemak ageri dira⁸², hau da, autonomia lexikalik gabekotzat jo ditugunak. Horrenbestez, zerrendatik kanpo utzi ditugu gure ustez hitz-elkarketaren bidetik aztertu beharreko morfemak (besteak beste, *alde, aldi, bako, bera, gura, larri, oste...*).

Atzizki bakoitzaren atalean, datu hauek eman ditugu: atzizkiaren esangura, atzizkia zein oinarriari eransten zaion (aditzoinari, izenari, izenondoari), eta atzizkia eranstea zein motatako berba eratorria sortzen den (izena, izenondoa edo adizlaguna). Forma bereko atzizkiei zenbakia jarri diegu parentesi artean, bereizi beharrekoak direla adierazteko: -ADA /-KADA (1) vs. -ADA/-KADA (2)

1) -ADA/-KADA (1)

Aditzari lotutako ekintza edo ekintzaren ondorioa adierazten du. Oinarriko aditza edo aditz-esapidea onomatopeikoa izaten da askotan. Toribio Etxebarriak -(K)ADA forma jasotzen duen arren (eta horrela adierazi dugu ondorengo zerrendan), ahoz erabiltzen den aldaera -(K)ARA da.

- *Oinarriaren kategoria gramatikala*: aditzoina edo aditz-esapidearen izena
- *Berba eratorriaren kategoria gramatikala*: izena

ABIXADA [abiada]: carrera
ARRAMUSKADA [erremuskada]: bufido
ARRASTADA (1): rasguño
ARRASTADA (2): arañazo
ATXIMURKADA: pellizco

⁸² Azterketa hau egiteko, UZEIk eratorpen-atzizkiei buruz landuta duen datu-basea erabili dugu

ATZAPARKADA: arañazo
ATZERAKADA: retroceso
AURRERAKADA: avance
BEGISTADA: mirada
BEHERAKADA: bajada
BETEKADA: hartazgo
BLASTIADA: paliza
BOFADA [bufada] (1): bocanada
BULTZADA: empujón
DANBADA: golpe
EUPADA: llamada
FARRASTADA [parrastada]: brazada al nadar
FURRUSTADA [purrustada]: refunfuño
HEGAZTADA: vuelo
IRRISTADA: resbalón
KARRASKADA (2): crujido
KATU-ZARPADA: arañazo de gato
KIRRIZKADA: rechinar
KORROSKADA: eructo
KRAKADA: crack
LABANKADA [labainkada]: resbalón
LARRAPASTADA: resbalón
LO-ZURRUZTADA: ronquido
PARRASTADA: chorro
PLASTADA (1): bofetón
PLOSTADA: ruido grande de caída
PURRUSTADA: refunfuño, burla
TAKADA (1): golpe
TARRATADA: rotura
TAUPADA: latido de corazón
TOPEKADA: topetazo
TRAKADA: ruido de huesos
TRUKADA: trueque
TXIRRISTADA: chirrido
TXISTADA: llamada
TXORROSTADA: chorrito
TXOSTADA: no botar la pelota al pegar la esquina de la pared
URRUMADA: bramido, mugido
ZAPLADA: azote
ZARPADA: arañazo
ZURRUTADA: sorbo
ZURRUZTADA: ronquido

2) -ADA/-KADA (2)

Oinarriari dagokion esanahiaren tasunetako bat adierazten du. Batzuetan, izenak adierazten duena bete substantzia izan daiteke (*koillarakada*); baita oinarriko izenak adierazten duenarekin emandako kolpea ere (*adarkada*).

- *Oinarria*: izena
- *Berba eratorria*: izena

ADARKADA: cornada
AHOKADA (1): bocado
AHOKADA (2): embuste
AIZKORAKADA: hachazo
ARRAUNKADA: golpe de remo
ATXURKADA [aitzurkada]: golpe de azada
BESADA: brazada
BESAKADA (1): brazada
BESAKADA (2): golpe
BURDIKADA [gurdikada]: un carro
BURKADA: carro con su carga
ERDERAKADA [erdarakada]: barbarismo hablando en euskara
ERPOIKADA: zarpazo
ERREBESKADA: golpe con el revés
ESKUKADA: cantidad que cabe en la mano
EUSKERAKADA [euskarakada]: castellano con vasquismos
EZKEREKADA: izquierdazo
EZTENKADA: pulla
GAILLEGUKADA: solecismo en euskara
GALDARAKADA: pucherada
HAGINKADA: mordedura
HARRIKADA: pedrada
IKUBILKADA [ukabilkada]: puñetazo
KATILLUKADA: contenido de una taza
KOILLARAKADA [koilarakada]: cucharada
LABAKADA: horno lleno
MAHAIKADA: mesa llena
MOLTXAKADA: porción
OSTIKADA: patada
OSTIKOKADA (1): patada
OSTIKOKADA (2): retroceso del arma al disparar
PIKUKADA (1): picotazo
PIKUKADA (2): cantidad de material en el pico
PIKUKADA (3): piscolabis
PITXARKADA [pitxerkada]: una jarra
TOPINKADA: puchero lleno
TRIPAKADA: hartazgo
TXINGORRADA: granizada
TXOLOTAKADA: cazo lleno

3) -ARI/-KARI/-LARI/-TARI (-dari)

Oinarriak adierazten duen horretan diharduena izendatzen du. Jardun horren ofizioa, lanbidea edo zaletasuna adieraz dezake.

- *Oinarria*: izen arrunta. Baten batean, aditzoina (*agindari*).
- *Berba eratorria*: izen arrunt biziduna. Baten batean, izenondoa (*ameslari*).

ADARKARI: corneador

AGINDARI [agintari]: autoridad

AGIRAKALARI: atrabiliario

AIZKOLARI: leñador

AKULULARI: boyero

AMESLARI: soñador

ANPORLARI: mentiroso

ANTXITXIKALARI: atleta

ANTXITXIKETALARI: atleta

ATXUMURKARI [atximurlari]: arañador

ATZELARI (1): zaguero

ATZELARI (2): sodomita

ATZESKULARI: última mano o bailarín que completa la cuerda de «dantzaris» de la «esku-dantza»

AURRELARI: delantero, en pelota

AURRESKULARI: bailarín de «auresku»

BARRIKETALARI [berriketalari]: charlatán

BENDAKARI [mendekari]: vengativo

BENETALARI: serio, honesto

BIDEZ-IBILTARI: nómada

BOLARI: aficionado a los bolos

BOTARI: elector

BURRUKALARI [borrokalari]: belicista

BURRUKARI [borrokari]: pendenciero

DANTZARI: bailarín

DEMANDALARI: broncas, camorrista

DENDARI: comerciante

EGUNDARI: jornalero

EHITZARI [ehiztari]: cazador

EPERTALARI: perdiguero

EPETALARI: moroso

ERBITTALARI [erbitalari]: cazador de liebres

ERREMENTARI: herrero

ERRONDALARI [errondari]: trasnochador

ERROTARI: molinero

EZPATA-DANTZARI: bailarín de la danza de las espadas

FORJARI: forjador

GALDARI: fundidor

GIDARI: guía

GUDARI: soldado, combatiente

HAGINKALARI: mordedor
HARRILARI: desbastador de cañones
HEGALARI: volador
HUSLARI: fallador
IBILTARI: andarín
IDI-PROBALARI: boyero
IGARILARI [igerilari]: nadador
IKASLARI: aprendiz
IPOINTLARI [ipuinalari]: cuentista
IRAKORLARI [irakurlari]: lector
IRUTXURLARI [iruzurlari]: traidor
JARRAILARI: rastrero
ORRUALARI [orrolari]: reprendedor
OSTIKALARI [ostikolari]: coceador
PALANKALARI: lanzador de palanca
PASELARI: cazador de palomas principalmente
JOKOLARI [jokalari]: jugador
JOTELARI: cornúpetas
KAKOLARI: liante
KANTARI: cantarín, cantante
KANTULARI (1): cantor
KANTULARI (2): juglar
KANTULARI (3): cantarín
KAZARI: cazador
KONTULARI: cuentista
KURRIKALARI: espantadizo
LABARI (1): panadero
LABARI (2): hornero
LIMA-PIKARI: picador de limas
LIMARI: limador
MAILLUARI [mailuari]: martillador
MAKILLARI [makilari]: apaleador
MANDATARI: recadista
MATXINSALTOKARI: saltamontes
MERKATARI (1): comprador
MERKATARI (2): pretendiente
MUSLARI: jugador de mus
OILLAGORTALARI: cazador de becadas, perro cazador de becadas
OILLAR BURRUKALARI: gallo de peleas
PEKATARI [bekatari]: pecador
PELOTARI [pilotari]: pelotari
PERRETXIKOTALARI: buscador de setas
PESKARI: pescador
PINTTULARI: pintor
PROBALARI (1): boyero en pruebas de bueyes
PROBALARI (2): aficionado a las pruebas (de bueyes)
PULTSOLARI [pultsulari]: competidor de pulso
SALTOKARI: saltador

SANTOLARI: santero
SOIÑULARI: músico
TABERNARI: tabernero
TOPEKARI: ganado que embiste
TOPELARI: animal que embiste
TRATULARI: tratante
TXINBOLARI: cazador de currucas
TXISPALARI: llavero
TXISTULARI (1): tamborilero
TXISTULARI (2): silbador
ZAPATARI: zapatero
ZAUNKALARI: ladrador
ZELARI: celador
ZERRARI: aserrador
ZIÑULARI: gesticulador
ZIRIKALARI: bromista
ZIRRILARI: que mete mano
ZUZOTALARI: cazador de túrdidos

4) -DI (-ti)

Landare-izenekin, landare-multzoa adierazten du. Ahozko jardunean, sarritan, *d>r* bilakaera gertatzen da bokal artean, eta *-RI* aldaera erabiltzen da. Adibidez: *pagari*.

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izena.

ARBOLADI: arboleda
ARTADI: encinar
ELORDI (1): espinar
ELORDI (2): lugar de cardos
GAZTAIÑADI [gaztainadi]: castañal
IRADI: helechal
LIXARDI [lizardi]: fresnedo
PAGADI: hayedo
URKIDI: terreno de abedules
AMEZTI: arboleda de melojos
HARIZTI: robledal
INTXAURTI [intxaurdi]: bosque de nogales
INTXAUSTI: bosque de nogales
MAHASTI: viña
SAGASTI: manzanal
ZUGAZTI [zuhaizti]: arboleda

5) -DUN

Oinarriak adierazitakoa duena izendatzen du, ezaugarria edo jabetza. Zenbait kasutan, lanbidea adierazten duten izenak sortzen ditu (*esnedun, argidun, artodun, astodun, etab.*), beste hizkera batzuetan *-zale* atzizkiak betetzen duen funtzioaren antzera. Eibarren, inguruko herri guztietan moduan, ohikoa da lanbideak adierazteko *-dun* atzizkia erabiltzea.

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izenondoa (*adardun*) edo izena (*esnedun*).

ABARKADUN: aldeano, -a

ADARDUN: cornudo, -a

AHALDUN: hombre de bienes

AHUNZDUN: cabrero, -a

AJEDUN: que da aje

ANGULADUN: angulera

ARDAU BILDUN [ardo bildun]: vino espumoso

ARGIDUN: encargado/a del servicio de suministro de luz

ARNASADUN: que alienta

ARRAINDUN: distribuidor/a de pescado

ARTODUN: repartidor/a de borona

ASTODUN: borriquero, -a

ATXEKIXADUN [aitzakiadun]: enfermo, -a

ATZAMARDUN: buril de varios filos

AZPIBIZARDUN: lengua de gato (*Hydnum repandum* edota *H.rufescens*)

BERBADUN: consecuente

BERBALDUN: charlatán, -a

BIGOTEDUN TXINBO: papamoscas común (*Muscicapa striata*)

BIZARDUN: barbudo, -a

BURPILDUN [gurpildun]: con ruedas

BUZTANDUN: que tiene rabo, cola

DIRUDUN: adinerado, -a

DOTEDUN: con dote

EGURDUN: maderero, tratante de madera

ERDALDUN: castellano

ERPADUN [erpedun]: provisto de garras

ERPOIDUN: provisto de garras

ERROSKADUN: rosquillero/-a

ERRUDUN: culpable

ESKOLADUN: instruído, -a

ESNEDUN: repartidora de leche

EUSKALDUN: vascoparlante

EZKURDUN: balanoforo

EZTIDUN: vendedor/a de miel

FAMELIXADUN [famiadun]: que tiene familia, padre/madre de familia
FEDEDUN: creyente
GANAUDUN: ganadero, -a
GARI-BIZARDUN: trigo barbudo
GATZDUN: salado, -a
GAUZADUN: rico, -a
GAZTAIDUN [gatzadun]: vendedor/a de queso
GILTZDUN [giltzadun]: llavero
HAGINDUN: dentado, -a
HAREDUN: tratante, vendedor de arena, arenero
HARTZEKODUN: acreedor, -a
HEGODUN: alado, con alas
IKAZDUN: carbonero
INTERESDUN: pudiente
IZAR BUZTANDUN: cometa
IZOZDUN: hielero, -a
JABEDUN: privado
JAUNGOIKODUN: deísta
KAMIOIDUN: camionero, -a
KOPETADUN: adolescente
KORKOBADUN: jorobado, -a
KOSKORDUN: culata tipo «pistolet»
KULPADUN: culpable
OILLARDUN [oilardun]: dueño de gallos de pelea
PARTEDUN: partícipe
SINISDUN [sinestun]: creyente
SOJADUN: metal defectuoso
TAILLARDUN: industrial
TXALDUN: caballo, en las cartas
TXARRIDUN: tratante de cerdos
UBEDUN PUNTZOI: punzón en «V»
UMEDUN: que tiene hijos
URREDUN: vendedor de oro
ZALDUN: caballero
ZORDUN: deudor, -a

6) -ERA/-KERA (1)

Aditzari lotutako ekintza edo ekintzaren ondorioa adierazten du. Euskara batuan -*era* atzizkia erabiltzen den kasu askotan, Eibarren -*ker*a aldaera erabiltzen da (*joke-ra, ezaukera, izakera, egokera, jarkera...*).

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izena.

AKABERA (1): final
BIZTUERA [piztuera]: resurrección
EGUZKI-SARRERA: puesta de sol
EGUZKI-SARTUERA [eguzki-sarrera]: puesta del sol
EGUZKIXAN URTERA: salida del sol
EKIERA: comienzo
ESNAKERA [esnaera]: despertar
ETORKERA [etorrera]: venida
ETORRERA: venida
EZAUKERA [ezaguera]: conocimiento
HARTUERA (1): acogida
HASIERA: comienzo
IBILLERA [ibilera] (2): andanza
IGOERA: subida
ILLUNKERA: anochecer
IZAKERA [izaera] (2): hecho
JAIXOKERA [jαιοera]: nacimiento
JATXIERA [jaitsiera]: bajada
JUAKERA [joanera]: manera de irse
JUERA [joanera]: viaje
SARRERA: entrada
SARTUERA: entrada
URTERA [irteera]: salida

7) -ERA/-KERA (2)

Modua adierazten du.

- *Oinarria*: aditzoina. Baten batean, izenondoa (*luzera*).
- *Berba eratorria*: izena.

ADARKERA: aspecto o estilo de la cornamenta
BERBAERA: modo de hablar
BIZIERA: forma de vida
BURUKERA: aspecto, porte de la cabeza del ganado
EGIÑERA: actitud, proceder
EGOKERA [egoera]: postura, modo de estar
ESAKERA (1): proverbio
GOLDAKERA: manera de arar
HARTUERA: manera de tomar una cosa
HIZKERA: habla, modo de hablar la lengua
IBILLERA [ibilera] (1): manera de andar
IZAKERA [izaera] (1): carácter
JANZKERA: manera de vestir
JARKERA (1): actitud

JARKERA (2): postura del baile
JOKERA [joera]: tendencia
LODIERA: espesor
LOTUERA: atadura
LUZERA: largura
ORRAZKERA: peinado
SAKONERA: profundidad
USAKERA: costumbre
ZABALERA: anchura
ZORROZKERA: afilado

8) -ETA/-KETA

Oinarriak adierazten duenaren ekintza edo ekintzaren ondorioa adierazten du. Izen bizidun nahiz bizigabeekin, berriz, bila joatea, garraiatzea edo izenak dioen horretan jardutea (*lurreta, simaurketa*).

- *Oinarria*: aditzoina. Baten batean, izena (*oillagorreta*).
- *Berba eratorria*: izena.

AFARIKETA: cosa de broma
AIZKOLKETA: manejo del hacha
ALDAKETA: cambio
AMESETA [ametseta]: sueño
ANTXITXIKETA [antxintxiketa] (1): carrera
ANTXITXIKETA [antxintxiketa] (2): carrera de atletismo
ARAKETA: labrar la tierra con la herramienta denominada en Eibar «aria»
ARRAUNKETA: deporte del remo
ARTO-ZURIKETA: pelado de las panochas
BARRIKETA [berriketa]: charla
EBAKETA: acción de cortar
EGURRETA: trabajos relacionados con la obtención y acarreo de leña
ERAGIKETA: operación, trabajo
GOLDAKETA: arar, arado
GORUETA: hilado
HIZKETA: variedad de lengua
JORRAKETA: escardado
KARDAKETA: cardado
LAPURRETA: robo
LURRETA: trabajo consistente en subir las tierras bajadas por la erosión o el trabajo a la zona más alta de un terreno
MUTILLETA: ligue o intento de ligue con chicos
OILLAGORRETA: caza de la becada
SARAKETA: trabajos relativos a la escarda.
SIMAURKETA: trabajos relativos al estiércol
UR-ERAKETA: sistema hidráulico

9) -GAITZ (-gatx)/-KAITZ (-katx)

Aditzoinak adierazten duena ezin egin daitekeena edo nekez egiten dena.

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izenondoa.

GALTZAIRU UGARKAITZ: acero inoxidable

TOLESKAITZ: difícil de plegar

ERNEKATX: planta o persona enclenque, a la que le cuesta crecer

GOZAGATX [gozakaitz]: irritable

HELGAITZ: enfermedad

MOLDAKATX [moldakaitz]: torpe

NEURKATX: inmedible

SINISGATX [sinesgaitz]: incrédulo

ZULAKAITZ: cinzel

10) -GARRI/-KARRI (1)

Esanahi arazlea: aditzoinak adierazitakoa egiten duena (*bildurgarri*) edo aditz-esapidearen izen-atalak adierazitakoa eragiten duena (*barregarri*).

- *Oinarria*: aditzoina edo aditz-esapidearen izen-atala.
- *Berba eratorria*: izenondoa edo izena.

ALTZAGARRI: calzo

ASPERGARRI: aburrido

BARREGARRI (1): gracioso

BETEGARRI: relleno

BIGUNGARRI: acolchadura

BILDURGARRI [beldurgarri]: espantoso

BULTZAGARRI: resorte

BURLAGARRI: digno de burla

DUDAGARRI: dudoso

EDERGARRI: aderezo

EUTSIGARRI (1): apoyo

EUTSIGARRI (2): freno

HARRIGARRI: asombroso

HIGUINGARRI: asqueroso

IKARAGARRI: tremendo

IZUGARRI: espantoso

JASOGARRI: calzo

KALTEGARRI: perjudicial

LEGUNGARRI [leungarri]: grasa industrial

LOTSAGARRI (1): vergonzoso
LOTSAGARRI (2): sinvergüenza
MINGARRI: doloroso
NASAIGARRI: tranquilizador
NEGARGARRI: deplorable
ONGARRI (1): abono
ONGARRI (2): útil
OSAGARRI: saludable
PENAGARRI: lamentable
POZGARRI: agradable
SIKUGARRI (1): heno
SIKUGARRI (2): material, helecho seco, para cama del ganado
ZORAGARRI: encantador
ERRUKARRI: digno de compasión
EUSKARRI: soporte
GOBAIKARRI [gogaikarri]: molesto
LOKARRI: cuerda
ZAPATA-LOKARRI: cinta de zapato

11) -GARRI/-KARRI (2)

Esanahi pasiboa: aditzoinak adierazitakoa egin daitekeena edo egiteko modukoa dena (*maittagarri*).

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izenondoa edo izena.

GORROTOGARRI [gorrotagarri]: abominable
IBILGARRI: cosa movable
IKUSGARRI (1): admirable
MAITTAGARRI [maitagarri]: adorable
MIRAGARRI: admirable
PASAGARRI (1): pasable

12) -GILLE/-GIN⁸⁴

Izen bizigabeekin, izenak adierazten duena egiten duena, izenak adierazten duenaren egilea izendatzen du (lanbidea, gehienetan).

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izena.
ABARKAGIN: abarquero

⁸⁴ -GIN/-GILLE batera jarri ditugu, esanahiari begira eta oinarriaren nahiz berba eratorriaren kategoriari begira berdinak direlako. *-gile* forma, [-gin+-le] tik datorren atzizki pleonastikoa da.

ABARKETAGIN: alpargatero
AMESGIN: soñador
APAREJUGIN: aparejero
ARMAGIN: armero
ARRAUTZAGIN: gallina ponedora
BASKULAGIN: basculero
BIDEGIN: precursor
BIHARGIN [behargin] (1): obrero
BIHARGIN [behargin] (2): clase obrera (en sentido colectivo)
BIHARGIN [behargin] (3): activo
BURUGIN: calculador
EDARRAGIN: fabricante de herraduras
EHUNGIN: tejedor
ETXEGIN: constructor (de casas)
HARGIN: cantero
HAUSPOGIN: artesano de fuelles
IKAZGIN [ikazkin]: carbonero
IZOZGIN: fabricante de hielo
KAÑOIGIN: cañonista
KATEGIN: cadenero
KAXAGIN: culatero
OGIGIN: panadero
OTXABAGIN: ochavador
OTZARAGIN: cestero
SERMOIGIN (1): predicador
SERMOIGIN (2): regañón
SERRAILLAGIN: cerrajero
SOKAGIN: cordelero
TALOGIN: cocinero de tortas de maíz
TEILLAGIN [teilagin]: fabricante de tejas
TORLOJOGIN: tornillero
TROKELGIN: troquelista
TXISPAGIN: chispero
ULTZEGIN [iltzegin]: fabricante de clavos
URREGIN: orfebre
UZTARRIGIN: artesano que hace yugos
ZULOGIN: taladrador
ZURGIN: ebanista

(-GILLE)

EHUNGILLE [ehungile]: tejedor
GARBIGILLE [garbigile]: lavadero, -a
JANTZIGILLE [jantzigile]: sastre
LANGILLE [langile]: obrero
ONGILLE [ongile]: bienhechor
OSAGILLE [osagile]: médico

13) -GINTZA

Izenak adierazten duena egitearen jarduna; askotan, lanbidea bera (*pistolagintza*).

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izena.

ARMAGINTZA: armería

BARKOGINTZA [barkugintza]: construcción de barcos

BERSOGINTZA [bertsogintza]: composición en verso

BIHARGINTZA: oficio

BURDINGINTZA: siderurgia

ETXEGINTZA: construcción

EZPALGINTZA: trabajo de hacer astillas

GALTZAGINTZA: fabricación de calcetines

GANAJATEKOGINTZA: trabajos relativos al sustento del ganado: cortar, recoger y llevar el forraje a casa

HABIXAGINTZA [habiagintza]: labor de construcción por las aves

HARGINTZA: oficio de cantero

HAUSPOGINTZA (1): fabricación de fuelles

HAUSPOGINTZA (2): fábrica de fuelles

HORMAGINTZA: albañilería

IKAZGINTZA [ikazkintza]: industria del carbón

KAÑOIGINTZA: fabricación de cañones

KAREGINTZA: fabricación de cal

KATEGINTZA: fabricación de cadenas

KAXAGINTZA: fabricación de culatas

LEGEGINTZA: legislación

LIÑAGINTZA: trabajos del lino

OHOLGINTZA: fabricación de tablones

PISTOLAGINTZA: fabricación de pistolas

SERMOIGINTZA: sermoneo

SERRAILLAGINTZA [sarrailagintza]: cerrajería

TEILLAGINTZA [teilagintza]: fabricación de tejas

TORLOJOGINTZA: tornillería

ULTZEGINTZA [iltzegintza]: fabricación de clavos

UMEGINTZA: parto

ZARTAINGINTZA: fabricación de sartenes

14) -KERIXA/-ERIXA

Tasun edo ekintza gaitzesgarria adierazten duten izenak sortzen ditu.

- *Oinarria*: izena edo izenondoa.
- *Berba eratorria*: izena.

ABERASKERIXA [aberaskeria]: alarde de rico
AFANKERIXA: ostentación
AITTUNKERIXA: pedantería
ALPERKERIXA [alferkeria]: pereza
ALPERRERIXA [alferkeria]: ociosidad
ARLOTEKERIXA [arlotekeria] (1): grosería
ARLOTEKERIXA [arlotekeria] (2): roñosería
ASTAKERIXA [astakeria]: burrada
ATSOKERIXA [atsokeria]: cosa de viejas
BASARRITTARKERIXA [baserritarkeria]: aldeanería
BASTOKERIXA [bastokeria]: salvajismo
BILDURTIKERIXA [beldurtikeria]: cobardía
DEMONIOKERIXA [demoniokeria]: brujería
DIABRUKERIXA [deabrukeria]: diablura
EPELKERIXA [epelkeria]: insustancialidad
FALTSUKERIXA [faltsukeria]: deslealtad
GAIZTOKERIXA [gaiztakeria]: maldad
GIZONKERIXA [gizonkeria]: hombrada
HARROKERIXA [harrokeria]: altivez
HAUNDIKERIXA [handikeria]: alarde
HUSKERIXA [huskeria]: nadería
IÑUZENTEKERIXA [inozentekeria]: tontería
JARDUNKERIXA [jardunkeria]: habladuría
KASKAJOKERIXA [kaskailukeria]: tontería
KERTENKERIXA [kirtenkeria]: burrada
KOPINKERIXA [kopinkeria]: fantochada
LEGUNKERIXA [leunkeria]: adulación
LELOKERIXA [lelokeria]: tontería
LIZUNKERIXA [lizunkeria]: obscenidad
LOHIKERIXA [lohikeria]: porquería
MAIXUKERIXA [maisukeria]: pedantería
MARRAJOKERIXA: jugada sucia
MIKAKERIXA [mikakeria]: remilgo
MIZKINKERIXA [mizkinkeria]: mezquindad
MOTXAILLAKERIXA [motxailakeria]: gitanería
MOZOLOKERIXA [mozolokeria]: tontería
NAGIKERIXA [nagikeria]: holgazanería
OKERKERIXA [okerkeria]: travesura
PETRALKERIXA [petralkeria]: impertinencia
SALDUKERIXA: traición
SANOKERIXA: valentía
ZAZKARKERIXA: brusquedad
SORGINKERIXA [sorginkeria]: brujería
TONTOKERIXA [tontakeria]: tontería
TXAKURKERIXA [txakurkeria]: insolencia
TXARRIKERIXA [txerrikeria] (1): porquería
TXARRIKERIXA [txerrikeria] (2): ordinarioez
TXIMIÑOKERIXA [tximinokeria]: monada

TXOTXOLOKERIXA [txotxolokeria]: pedantería
UMEKERIXA [umekeria]: niñería
USTELKERIXA [ustelkeria]: dejadez
ZATARKERIXA [zatarkeria]: grosería
ZEKENKERIXA: roñosería
ZELBEKERIXA: insidiosidad
ZIKINKERIXA [zikinkeria] (1): suciedad
ZIKINKERIXA [zikinkeria] (2): obscenidad
ZIMELKERIXA: roñosidad
ZITTALKERIXA [zitalkeria]: displicencia
ZORAKERIXA: locura

15) -KI (1)

Aditzoinak adierazten duena lortzeko baliabidea edo tresna (*estalki, epaiki*) edo ekintzaren objektua.

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izena.

EPAIKI: sierra
ESTALKI (1): manta
ESTALKI (2): tapa
ESTALKI (3): cubierta

16) -KI (2)

Oinarriak adierazten duenaren atala (*saiheski*) edo haren motako bat (*biki*).

- *Oinarria*: izena. Baten batean, izenondoa (*azkarki*) edo zenbatzaile zehaztua (*zazpiki*).
- *Berba eratorria*: izena.

AZKARKI: pertsona argia
BIKI (1): doble
BIKI (2): gemelo
HAUNDIKI [handiki] (1): clase alta
HAUNDIKI [handiki] (2): adulador de la clase alta
LAUKI: cuádruple
SAIHESKI: costilla (para comer)
ZAZPIKI (1): sietemesino
ZAZPIKI (2): impaciente
ZORTZIKI: ochomesino

17) -KI (3)

Modua adierazten du. Gaztelaniazko *-mente* atzizkiaren parekoa da askotan. Beheko zerrendan Toribio Etxebarriaren hiztegitik ateratako zenbait hitz zerrendatu ditugun arren, Eibarren *-ki* atzizkiaren orde *-to* atzizkia erabiltzea da ohikoena (*ederto*, eta ez *ederki*; *polito*, eta ez *poliki*; eta abar).

- *Oinarria*: izenondoa. Baten batean, adberbioa (*gogozki*).
- *Berba eratorria*: adberbioa.

BIGUNKI: blandamente
EDERKI: admirablemente
GAIZKI: mal
GELDIKI: despacio
GOGORKI: duramente
GOGOZKI: con ganas
LASTERKI: prontamente
POLIKI: bonitamente
ZABALKI: abiertamente
ZAZKARKI: torpemente
ZATARKI: mal

18) -KIZUN

Aditzoinak adierazten duena egiteko modukoa dena (*damukizun*) edo egiteko dagoena adierazten du (*ikusizun*). Aditzoinak adierazten duenaren ondorioa ere bai, batzuetan (*aldakizun*, *ahalkizun*, *asperkizun*).

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izenondoa edo izena.

AHALKIZUN: autoridad
ALDAKIZUN: cambio
ASEKIZUN: abundancia de comida
ASMAKIZUN: invento
ASPERKIZUN: aburrimiento
ASTUNKIZUN: aditivo para aumentar peso
AURRERAKIZUN: adelanto
BARREKIZUN: comicidad
BATKIZUN: unidad
BERBAKIZUN: que hablar, murmuración
BETEKIZUN: bulto

DAMUKIZUN: cosa arrepenible
DUDAKIZUN: duda
EDERKIZUN: aderezo
EGINKIZUN: quehacer
ELIZKIZUN: acto eclesiástico
ERREZKIZUN [errazkizun]: facilidad
ETORKIZUN: porvenir
HARRAKIZUN: odio
IKUSKIZUN: qué ver
IRAKORKIZUN [irakurkizun]: lectura
IZANKIZUN: existencia
JARDUNKIZUN: comentario
JATORKIZUN: origen
LABANKIZUN [labainkizun]: lubricante
LOTSAKIZUN: motivo de sonrojo
LUZEKIZUN [luzakizun] (1): dilación
LUZEKIZUN [luzakizun] (2): largura
OPAKIZUN: regalo
OSAKIZUN: remedio
PIXAKIZUN: peso
POZKIZUN: alegría

19) -KOR/-OR

Aditzoinak adierazten duena egiteko joera duena edo erraz egiten dena.

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izenondoa.

ALDAKOR: inconstante
AMESKOR: soñador
AUZIKOR: pleiteador
BENDAKOR [mendekor]: vengativo
BITZAKOR: quebradizo
ERANTZUNKOR: respondón
IGESKOR [iheskor]: huidizo
IRAUNKOR: duradero
IRRISTAKOR: resbaladizo
MAITTEKOR [maitekor]: enamoradizo
SINISKOR [sineskor]: crédulo
LOTSOR: vergonzoso

20) -LE/-TZAILLE (-taille)

Aditzoinak adierazten duena egiten duena.

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izenondoa edo izena.

ADAR-JOTZAILLE: bromista
AGINTZAILLE [agintzaile] (1): autoridad
AGINTZAILLE [agintzaile] (2): mandón
AHALEGINZAILLE [ahalegintzaile]: esforzado
AKABATZAILLE: pulidor
ALDATZAILLE: transmisión de movimiento a las máquinas en sistema de motor único
APURTZAILLE [apurtzaile]: destrozador
ARMATZAILLE: armador
ARRAIN-SALTZAILLE: pescadero,-a
ARRANTZALE: pescador
ASMATZAILLE [asmatzaile] (1): creador
ASMATZAILLE [asmatzaile] (2): fantasioso, mentiroso
ATE-ZAINTZAILLE [ate-zaintzaile]: guardia de la entrada
AUTUBATZAILLE [autubatzaile]: chismoso
AZPIJANTZAILLE [azpijale]: conspirador
BEHI-ZAINTZAILLE: pastor de ganado
BENDERATZAILLE [menderatzaile]: conquistador
BENGATZAILLE [bengatzaile]: vengador
BEZTITZAILLE [beztitzaile]: amortajadora
BILLATZAILLE [bilatzaile]: buscador
BIZAR-KENTZAILLE [bizar-kentzaile]: barbero
BOTATZAILLE [botatzaile]: derrochador
BOTO-BATZAILLE [boto-batzaile]: muñidor electoral
DAMASKINATZAILLE: damasquinador,-a
DENUNZIATZAILLE [denuntziatzaile]: denunciador
DOMATZAILLE [domatzaile]: debelador
DULTZITZAILLE: dulcificador
EBATZAILLE [ebakitzaile]: cortador
EHUNLE [ehule]: tejedor
EMONTZAILLE [emantzaille]: vapuleador
EMOTAILLE: bondadoso
ENREDATZAILLE [endredatzaile]: enredador
ENTERRATZAILLE [enterratzaile]: enterrador
ENTZUTZAILLE: oyente
ERAKUSTAILLE [erakusle]: maestro
ERALE [edale]: bebedor
ERANTZAILLE [edataile]: bebedor
ERATAILLE: bebedor
ERDIRATZAILLE [erdiratzaile]: mediador
ERNEGATZAILLE [ernegatzaile]: fastidioso

EROSTAILLE [erosle]: comprador
ERREGUTZAILLE [erregutzaille]: rezador (de oficio)
ERUANTZAILLE [eroale]: transportista
ESKATZAILLE [eskatzaile]: pedigüño
ESKATZAILLE [askatzaile]: libertador
ESKINTZAILLE [eskaintzaile]: oferente
FRUTABATZAILLE: camachuelo (Pyrrhula pyrrhula)
GALTZAILLE [galtzaile]: perdedor
GANAU-GOBERNATZAILLE: persona que gobierna los ganados
GARAU-SARTZAILLE: desporador
GARBITZAILLE [garbitzaile]: barrendero
GARI-EBATAILLE: segador
GASTATZAILLE [gastatzaile]: gastador
GATZAMAILLE: aprendiz de ferrería
GAU-ZAINTZAILLE: sereno
GITTARRA JOTZAILLE: guitarrista
HAGIÑ-ATARAZAILLE [hagin ateratzaile]: sacamuelas
HAGIÑETAN-HARTZAILLE: especialista de armería
HARRAPATZAILLE [harrapatzaile]: acaparador
HARRI-JASOTZAILLE [harri-jasotzaile]: levantador,-a de piedras
HAZUR-KONPONTZAILLE [hezur-konpontzaile]: cirujano de huesos
HERRI-ZAINTZAILLE: guardia
HILLETA-JOTZAILLE: quejica
HONDATZAILLE: malgastador
IDI-GOBERNATZAILLE: boyero
IGARTZAILLE [igartzaile]: adivino
IKATZ-NEURTZAILLE [ikatz-neurtzaile]: medidor del carbón
IPINTZAILLE [ipintzaile]: inversionista
IPURGARBITZAILLE [ipur-garbitzaile]: adulador
IRABAZTAILLE [irabaztaile]: ganador
IRIZTAILLE [iriztaile]: opinante
ITSU-LAGUNTZAILLE: lazarillo
JAKINZALE [jakintzale]: estudioso
JANTZAILLE [jantzaile]: comensal
JARRAITZAILLE [jarraitzaile]: seguidor
JATAILLE: comensal
JIRATZAILLE [jiratzaille]: vividor
JOKATZAILLE [jokatzaile]: competidor
KALE-GARBITZAILLE [kale-garbitzaile]: barrendero
KAPATZAILLE [kapatzaile]: castrador
KARGA-JASOTZAILLE [karga-jasotzaile]: levantador,-a de pesos
KARRIATZAILLE (1): carretero
KARRIATZAILLE [garraiatzaile] (2): aprovechado
KONBIDATZAILLE [gonbidatzaile]: anfitrión
KONPONTZAILLE [konpontzaile]: ñador
KONTATZAILLE [kontatzaile]: contador
LAGUNTZAILLE [laguntzaile] (1): ayudante
LAGUNTZAILLE [laguntzaile] (2): servicial
LEGE-JAKINTZAILLE: leguleyo

LEGUNTZAILLE [leuntzaile] (1): alisador
LEGUNTZAILLE [leuntzaile] (2): adulador
LIBRATZAILLE [libratzaile] (1): librador
LIBRATZAILLE [libratzaile] (2): librador de un giro
LIMA-PIKATZAILLE [lima-pikatzaile]: picador de limas
LORABATZAILLE: camachuelo
MEZA-LAGUNTZAILLE [meza-laguntzaile]: monaguillo
MOLDIATZAILLE [moldeatzaile]: moldeador de la fundición
MOTABATZAILLE: camachuelo
NEURTZAILLE [neurtzaile] (1): medidor
NEURTZAILLE [neurtzaile] (2): instrumento de medida
PANDEROJOLE: panderetero
PARKATZAILLE [barkatzaile]: perdonador
PARTIZAILLE [partitzaile]: repartidor
PERLIATZAILLE: perleador
PERRATZAILLE [ferratzaile]: herrador, herrero
PINTATZAILLE: pintor
PIRATZAILLE: árbitro
PREGOI-JOTZAILLE [pregoi-jotzaile] (1): pregonero
PREGOI-JOTZAILLE [pregoi-jotzaile] (2): chismoso
PUNTABATZAILLE: camachuelo
SALBATZAILLE [salbatzaile]: Salvador
SALTZAILLE [saltzaile]: vendedor
SOIÑU JOTZAILLE [soinu(-)jotzaile] (1): músico
SOIÑU JOTZAILLE [soinu(-)jotzaile] (2): acordeonista
SOIÑUJOLE: acordeonista
SONBRIATZAILLE: sombreador
TALO-ERRETZAILLE: cocinero de tortas de maíz
TENTATZAILLE [tentatzaile]: tentador
TORIATZAILLE [toreatzaile]: torero
TORNIATZAILLE: tornero
TXIKITZAILLE: jefe de ferrería menor
TXINGA-ERUATAILLE: deportista de acarreo de pesos
TXOKIATZAILLE: operario que pone a punto el mecanimo del gatillo
UME-ZAINTZAILLE: niño
URTZAILLE [urtzaile]: fundidor
ZAINTZAILLE [zaintzaile]: guardián
ZALE: aficionado
ZERBITZAILLE: servidor
ZIRI-SARTZAILLE: embustero
ZORROZTAILLE [zorrotzaile]: afilador
ZULATZAILLE [zulatzaile]: taladrador
ZURITZAILLE (1): albañil
ZURITZAILLE (2): pulidor
ZUZENTZAILLE [zuzentzaile]: juez

21) -MEN (1)

Aditzari lotutako ekintza gauzatzeko gaitasuna adierazten du.

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izena.

ADIMEN: entendimiento
AITTUMEN: entendimiento
ENTZUMEN: oído
EZAGUMEN: razón
GOZAMEN (2): sentido del gusto
IKUSMEN: visión, sentido
IKUMEN [ukimen]: tacto, sentido
USAIMEN: sentido del olfato

22) -MEN (2) /-MENDU/-PEN

Aditzari lotutako ekintza eta ondorioa adierazten ditu.

- *Oinarria*: aditzoina. Baten batean, izena edo adizlaguna (*baimen, lurmen*).
- *Berba eratorria*: izena.

ASMAMEN: fantasía
BAIMEN: asentimiento
GOZAMEN (1): dicha
ITTOMEN [itomen] (1): hinchante
ITTOMEN [itomen] (2): ahogo, sofoco
LURMEN: tierra desneuada
SINISMEN [sinesmen]: fe
TOKAMEN: parte de herencia
ZORAMEN: locura

AURRERAPEN: adelanto
ETSIPEN: desesperación
GOGORAPEN: recuerdo
ITXAROPEN: esperanza
OROIPEN: recuerdo

PAGAMENDU: pago
PARKAMENDU [barkamendu]: perdón
PENTSAMENTU [pentsamendu] : pensamiento
SUFRIMENDU: sufrimiento

23) -TAR/-AR (1)

Jatorria adierazten du.

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izena edo izenondoa.

ARABAR: alavés

ARDAU NAFAR: vino tinto

BASARRITTAR [baserritar] (1): aldeano

BASARRITTAR [baserritar] (2): rural

BILBOTAR: bilbaíno

BIZKAITTAR [bizkaitar] (1): vizcaíno

ERROMAR [erromatar]: romano

ESPAIÑIAR [espainiar]: español

EUSKALTAR: vasco

GUTAR: paisano

HERRITTAR: paisano

SKO-NAFAR [idisko-nafar]: toro bravo

KALETAR: urbanita

KANPOTAR: forastero

NAFAR: navarro

OILLAR BASARRITTAR [oilar baserritar]: gallo autóctono

24) -TAR/-AR (2)

Zalea edo jarraitzailea adierazten du.

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izena edo izenondoa.

ABADETAR: clerical

BEHETAR: del bando (político) de los de abajo, en Eibar; conservador

BIZKAITTAR [bizkaitar] (2): nacionalista vasco

ELIXATAR: feligrés, devoto; clerical

ERREGETAR: monárquico

EUSKOTAR: nacionalista vasco

GOITTAR [goitar]: liberal, en Eibar

GOIZTAR: madrugador

25) -TASUN/-ASUN

Kualitate abstraktoak adierazten ditu.

- *Oinarria*: izena edo izenondoa. Beste oinarri batzuk ere izan ditzake, salbuespenez; adibidez, izenordaina (*nortasun*).
- *Berba eratorria*: izena.

ABERASTASUN (1): riqueza
ABERASTASUN (2): hacienda (de ganadería)
ABILTASUN: habilidad
AHALTASUN: facultad
AISKIDETASUN [adiskidetasun]: amistad
ALAITASUN: alegría
ALKARTASUN [elkartasun]: solidaridad
ANAITASUN: fraternidad
APALTASUN: humildad
ARGALTASUN: delgadez
ARGITTASUN [argitasun] (1): claridad
ARGITTASUN [argitasun] (2): entendimiento
ARINTASUN (1): velocidad
ARINTASUN (2): ligereza
ARINTASUN (3): flexibilidad
ARINTASUN (4): alivio
ARLOTETASUN: abandono
AROLTASUN: superficialidad
ASKATASUN: libertad
ASTUNTASUN (1): peso
ASTUNTASUN (2): gravedad
ATSOTASUN: ancianidad, de la mujer
AZKARTASUN: rapidez
BAKARTASUN: soledad
BAKETASUN: paz
BARDINTASUN [berdintasun] (1): lisura, igualdad
BARDINTASUN [berdintasun] (2): igualdad
BATASUN: unidad
BEROTASUN (1): calor
BEROTASUN (2): afecto
BEROTASUN (3): enfado
BETIKOTASUN: eternidad
BIGUNTASUN: blandura
BILDURTASUN [beldurtasun]: temor
BIRIBILTASUN: redondez
BIZITTASUN [bizitasun]: agilidad
BIZKORTASUN: agilidad
DAMUTASUN: arrepentimiento

EDERTASUN: belleza
EMETASUN: feminidad
EPELTASUN: tibieza
ERREGETASUN: realeza
ERREZTASUN [erraztasun]: facilidad
GAIXOTASUN: enfermedad
GAIZTOTASUN: maldad
GARBITTASUN [garbitasun]: limpieza
GIZONTASUN: hombría
GOGORTASUN (1): dureza
GOGORTASUN (2): fortaleza
GORBIZTASUN: reciedumbre
GORRITTASUN [gorritasun]: lo encarnado
GORTASUN: sordera
ESTUASUN [estutasun] (1): angostura
ESTUASUN [estutasun] (2): apuro
EUSKALTASUN: vasquismo
EZBARDINTASUN [ezberdintasun]: desigualdad
EZEREZTASUN: pobreza
GOZOTASUN: dulzura
HARROTASUN: orgullo
HAUNDITTASUN [handitasun]: grandeza
HOZTASUN: frialdad
ILLUNTASUN [iluntasun]: oscuridad
ISILTASUN: silencio
ITSUTASUN: ceguedad
JABETASUN (1): propiedad
JABETASUN (2): patronato
JAKINTASUN: sabiduría
JASOTASUN (1): mejora
JASOTASUN (2): elevación
JAUNGOIKOTASUN: divinidad
JAUNTASUN: señorío
KOITTAUTASUN [koitadutasun]: humildad
LABURTASUN: cortedad
LAGUNTASUN (1): amistad
LAGUNTASUN (2): ayuda
LAGUNTASUN (3): solidaridad
LAGUNTASUN (4): comunidad
LARRITTASUN [larritasun] (1): angustia
LARRITTASUN [larritasun] (2): mareo
LASTERTASUN: velocidad
LAZTASUN [laztasun]: aspereza
LAUTASUN (1): llanura
LAUTASUN (2): llaneza
LEIXALTASUN [leialtasun]: lealtad
LELOTASUN: tontez
LEUNTASUN: suavidad
LIRAINTRASUN: esbeltez

LIXOTASUN [lisotasun]: tersura
LODITTASUN [loditasun]: gordura
LOHITTASUN [lohitasun]: suciedad
LOTSAGABETASUN: descaro
LUZETASUN (2): duración
MAITTETASUN [maitasun]: amor
MAKALTASUN: debilidad
MARDOTASUN: robustez
MEHETASUN: delgadez
MIZKINTASUN: mezquindad
MORROSKOTASUN: rudeza
MOTELTASUN: desmadejamiento
NAGITTASUN [nagitasun]: pereza
NARRASTASUN: miseria
NASAITTASUN [nasaitasun]: tranquilidad
NORTASUN: personalidad
OKERTASUN: malicia
ONDASUN (1): riqueza
ONDASUN (2): bien
ONDRAUTASUN [ondratutasun]: honradez
OSASUN: salud
POLITTASUN [politasun]: belleza
POZTASUN: alegría
SAKONTASUN: profundidad
SAMURTASUN: ternura
ZAZKARTASUN: torpeza
SEMETASUN: calidad de hijo
SENDOTASUN: grosor
SENIDETASUN: parentesco
SIKUTASUN: sequedad
UGARITTASUN [ugaritasun]: abundancia
UMETASUN (1): infancia
UMETASUN (2): inocencia
UMILTASUN: humildad
URDURITTASUN [urduritasun]: nerviosismo
ZABALTASUN (1): anchura
ZABALTASUN (2): alivio
ZAHARTASUN: vejez
ZAILTASUN: resistencia
ZALETASUN: afición
ZATARTASUN: fealdad
ZEKENTASUN: avaricia
ZINTZOTASUN: economía, como virtud
ZOROTASUN: locura
ZURITTASUN [zuritasun]: blancura
ZUZENTASUN: rectitud

26) -TEGI⁸⁵ (-degi)/-EGI

Lekua adierazten du.

- *Oinarria*: izena. Baten batean, aditzoina.
- *Berba eratorria*: izena.

AFALTEGI: cenáculo
ALKARTEGI (1): centro de juntas
ALKARTEGI (2): Centro Obrero
ARDANDEGI: vinotería
ARDAUTEGI [ardotegi]: vinotería
AROEZTEGI: carpintería, taller
ARRANDEGI: pescadería
BIZARTEGI: barbería
EDURTEGI [elurtegi]: nevera
ERITEGI: hospital
GABITEGI: departamento del mazo
GARAUTEGI: hórreo
GARBITEGI: lavadero
GIZATEGI: comedor en las ferrerías
GUZURTEGI [gezurtegi]: mentidero
HARILTEGI: cajoncito de la devanadera
HAUSPOTEGI: departamento de fuelles
IKASTEGI: escuela
IKAZTEGI: carbonera, sitio donde se construye la pira
IPUTEGI: bodega
IZURRATEGI [izorrategi]: burdel
JANTEGI: restaurante
JAUREGI: palacio
JOSTUNDEGI: costurería
LANDARATEGI [landaretegi]: semillero
LANTEGI: taller
LAPURTEGI: ladronera
LIBURUTEGI: biblioteca
LORATEGI: jardín
MAHASTEGI: lagar
MIATEGI [meategi]: almacén del mineral
MINTEGI: semillero
SARDANDEGI: sidrería
SARDAUTEGI [sagardotegi]: sidrería
SUTEGI (1): fragua
SUTEGI (2): fragua
TXAKOLINDEGI: establecimiento que vende chacolí
ZALTEGI: caballeriza

⁸⁵ Bokal arteko -g- kontsonante ahostuna erraz gal daiteke eta, ondorioz, beste inguru askotan gertatzen den moduan, Eibarren ere *-tei* ahoskatzen da beti.

27) -TI

Oinarriak dioena egiteko ohitura edo joera adierazten du.

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izenondoa.

ADURTI (1): babeando
ADURTI (2): baboso,-a
AMESTI: soñador,-a
BAKARTI: solitario,-a
BASATI: silvestre
BEKARTI: legañoso,-a
BILDURTI [beldurti]: cobarde
BIZARTI: barbado
EDURTI [elurti]: propenso a la nieve
ESKUMATI: diestro,-a
ESNATI: propenso a despertarse
EZKERTI: zurdo
GAIXOTI: enfermizo,-a
GOSETI: hambriento
GUZURTI [gezurti]: mentiroso
KAKATI: cagón,-a
KARUTI: carero,-a
KEZKATI: preocupado
LOTI: dormilón,-a
LOTSATI: tímido,-a
NEGARTI: llorón,-a
SETATI: terco,-a
TXIXATI: meón,-a
(P)UZKARTI: pedorro,-a

28) -TSU

Ugaritasuna adierazten du.

- *Oinarria*: izena. Baten batean, adberbioa (*jakintsu*).
- *Berba eratorria*: izenondoa.

ADARTSU: ramoso
ADURTSU: baboso,-a
AFANTSU: ostentoso
AHALTSU: poderoso

AJETSU: propenso a la resaca
AMORIOTSU [amodiotsu]: enamoradizo
AMORROTSU: irascible
APURTSU: friable
ARANTZATSU: espinar
ARBOLATSU: arbolado
ARDURATSU: consciente
ASMOTSU: ingenioso
ASPAMENTUTSU: espaventoso
ASTITSU: desocupado
ATXEKIXATSU [aitzakiatsu]: achacoso
AZUKRETSU: azucarado
BAKETSU: pacífico
BARRIKETATSU [berriketatsu]: hablador
BEGITTANZIÑOTSU [begitaziotsu]: aprensivo
BEKARTSU: legñoso
BERBATSU: charlatán
BIHARTSU [behartsu] (1): trabajador
BIHARTSU [behartsu] (2): menesteroso
BIZARTSU: barbudo
BORONDATETSU: aplicado
BRISTARATSU: brillante
BULARTSU (1): generoso
BULARTSU (2): tetona
BURRUNDARATSU: zumbador
BURUTANZIÑOTSU [burutaziotsu] (1): receloso
BURUTANZIÑOTSU [burutaziotsu] (2): imaginativo
BURUTSU: ingenioso
DONTSU: donoso
EGUZKITSU: soleado
ERROTSU: provisto de raíces
ERRUKITSU: compasivo
EURITSU: lluvioso
EZTITSU: dulce
GARGAJOTSU: gargajoso
GARTSU: ardiente
GORROTOTSU: rencoroso
GRAZIATSU: donoso
HAIXETSU [haizetsu] (1): ventoso
HAIXETSU [haizetsu] (2): flatulento
HARETSU [hareatsu]: arenoso
HARRITSU: pedregoso
HAZURTSU [hezurtsu]: huesoso
HILLETATSU [hiletatsu]: resentido
INDARTSU: fuerte
ITTURRITSU [iturritsu]: fontanal
IZARDITSU: sudoroso
JAKINTSU: sabio
JARDUNTSU: hablador

KAKATSU (1): fastidioso
KAKATSU (2): sucio
KERIZATSU [gerizatsu]: umbroso
KETSU: humoso
KEZKATSU: escrupuloso,-a
KILI-KILITSU: cosquilloso
KOIPATSU [koipetsu]: mantecoso
LEKA-HARITSU: vaina fibrosa
LORATSU [loretsu] (1): abundante en flores
LORATSU [loretsu] (2): madera con dibujos
LUMATSU: plumoso
MAITTETSU [maitetsu]: amoroso
MAITTETSU IBILLI: estar enamorado
MAMINTSU [mamitsu]: migoso
NAHASTOTSU: enredoso
ODOLTSU: sanguíneo
ORRITSU: frondoso
PIXOTSU [pisutsu]: pesado
SASIJAKINTSU: sabidillo
SETATSU: terco
TITITSU: tetuda
TXARATSU: abundante en jarales
ULETSU [iletsu]: velloso
URTETSU: añejo
URTSU: acuoso
ZANTSU [zaintsu]: nervudo
ZAPOTSU: rencoroso
ZORIONTSU: venturoso

29) -TZA (1)

Egintza edo tasun abstraktua adierazten du.

- *Oinarria*: aditzoina
- *Berba eratorria*: izena.

EZKONTZA: casamiento
HARLANTZA (1): taller de cantería
HARLANTZA (2): cantería
JAIOTZA: nacimiento
JAKINTZA: ciencia
LURRUNTZA: vapores
MAMINTZA [mamitza]: gorduras
TRISKANTZA: destrozo

30) -TZA (2)

Ugaritasuna adierazten du.

- *Oinarria*: izena
- *Berba eratorria*: izena.

ADARTZA: ramaje
ARDANTZA: viñedo
ARTETZA: encinar
ASUNTZA (1): ortigal
BASATZA: barrizal
BEDARTZA [belartza]: herbazal
BELATZA: bandada de cuervos
BERBATZA: palabrería
BERDETZA: fronda
DIRUTZA: dineral
EDURTZA [elurtza] (1): acumulación de nieve
EDURTZA [elurtza] (2): nevada
EGURTZA: bosque comunal
ELORTZA: abrojal
GARITZA: trigal
GAROTZA: helechal
HARIATZA [hareatza]: arenal
HARRITZA: pedregal
HONDARTZA: arenal
IRATZA [iratze]: helechal
JENTETZA: gentío
KAKATZA (1): barrizal
KAKATZA (2): cenagal
KONBIDAUTZA: banquete con invitados
LORATZA: montón de flores
ODOLTZA: charco de sangre
ORBELTZA: hojarasca
ORRITZA: fronda
OSTROTZA [hostotza] (1): frondosidad
PAGATZA (1): hayedo
SASITZA: zarzal
SIMAURTZA: estercolero
TXINDURRITZA: cantidad de hormigas
TXINGARTZA: brasa

31) -TZA (3)

Ogibidea edo jarduera adierazten du.

- *Oinarria*: izena.
- *Berba eratorria*: izena.

ARRANTZA: pesca
ERREGETZA: reino
KRIAUTZA [kriadutza]: aprendizaje
PIONTZA [peontza]: labor de peón
SOLDAUTZA [soldadutza]: servicio militar

32) -ZIÑO

Aditzari lotutako ekintza eta ondorioa adierazten du. Jatorri erromanikoa du.

- *Oinarria*: aditzoina.
- *Berba eratorria*: izena.

AMORRAZIÑO [amorratio]: problema, enfado
AZTORAZIÑO [aztorazio]: excitación
BEDINKAZIÑO [bedeinkazio]: bendición
BEGITTANZIÑO [begitazio]: figuración
BOTAZIÑO [botazio]: elección
BURU-KANTSAZIÑO: quebradero de cabeza
BURUTANZIÑO [burutazio] (1): recelo
BURUTANZIÑO [burutazio] (2): corazonada
ELEZIÑO [elekzio]: elección
ESTREMAUZIÑO [estremaunzio]: extremaunción
GOGORAZIÑO [gogorazio]: reflexión
HABITTAZIÑO: apartamento
INTENZIÑO [intentzio]: intención
KOLOKAZIÑO: montaje de fabricación
KONBESTAZIÑO: conversación
KONFIRMAZIÑO [konfirmazio]: Confirmación, sacramento
KONPARAZIÑO [konparazio]: comparación
KONZEZIÑO [Kontzepzio]: Concepción
KUBIKAZIÑO: cubicación
MALDIZIÑO [maldizio]: blasfemia
OPERAZIÑO [operazio]: operación
PARKAZIÑO [barkazio]: perdón
PARTIZIÑO [partizio]: partición
PELEGRINAZIÑO: peregrinación
SALBAZIÑO [salbazio]: salvación
TENTAZIÑO [tentazio]: tentación

Aditz sintagma

Danian euskeraz! Anekdota polit bat kontauko detsut. Eibarren, Albistegi akabatzaillia zan; jaixotzez Elgetakua zan. Baiña orduan inguruko mutillak etortzen ziran Eibarrera ofiziuia ikastera, eta asko irakurtzen eban gizona zan. Eta baten, sindikatuan, "Casa de Puebluan", asamblea baten, euskeraz erantzun eban. Eta esan etsan Toyos-ek: "¡Oye! Háblale castellano que no te entiende!". "¡Que aprenda!". Asike, ez da oingua, "Ikasi deixela!". Oin dala berrogeta hamar urte edo hirurogei urte, "Casa de Puebluan" Albistegi akabatzailliak esan eban estreñako hori: "Ikasi deixela!"



Jose Etxeberria, "Querido"

4 - ADITZ SINTAGMA

4.1.- EIBARKO ADITZAREN EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Atal honetan, batez ere Eibarko aditz-paradigmetan aurkitu ditugun ezaugarri morfolo­giko nagusiak zerrendatu ditugu. Oro har esan daiteke, Eibarko aditz-paradigmetan bizkaierazko ezaugarri nagusiak aurkituko ditugula, zenbait kasutan berezitasunak edo erdialdeko euskalkiaren eragina ere nabari den arren. Kontuan izan aditzetan agertzen diren zenbait ezaugarri (morfo)fonetiko liburu honen bigarren atalean (Ezaugarri Fonetikoak atalean) azaldu ditugula; ez ditugu hemen berriro errepikatuko.

4.1.1.- Nor-Nori-Nork saileko erroa *eutsi da (orok. *-i-)

Mendebaleko ereduari jarraituz, Eibarren ere *eutsi da Nor-Nori-Nork adizkien erroa, nahiz eta kasu honetan *eu* > *e* eginda. Ondorioz, *desku* ('digu'), *netsun* ('nizun'), *banetsa* ('banio')... bezalako formak darabiltzagu.

*Intxaurrik ez **eskuen** lagatzen osten, intxaurra saldu eitten eben, baiña gazta-
ñaia nahi genduana, e? Poltsakada gaztaiñaia.*

*Hiruretan pixkat ibilli, ta komeni jakun lekuan geldittu. Baiña ha zonan pastela
jatia, e! Ta atia, iñor ez dein sartu gu geuazen lekuan, giltza laga **eskuen** ta
geuk barrutik itxi, jarri, ta benga!*

*Aurretik, ba, infarto bat emon **zetsan** ta azkenengo bi urtian edo holan ez,
baiña... goixeko seiretan hankia kanpuan! Jangoikuak dakazen egun danetan!
Urte Zahar egunian amaittu ta Urte Barri egunian hasi!*

*Eta, egixa esan, **banetsan** holako kariño bat sartuta jente umil horri. Eta gero
soldautzara jua eta ikusi hórrek erderaz ez zekixelako zelako zigorrak eruaten
zittuen eta zelan burla eitten **etsan** jentia, tontuak balitzaz moduan.*

*Baiña han afarixan -esan **netsun** lehengunian- zortzi lagun juntau giñazen, eta
zortziretatik bat karlistia, beste bat sozialistia, beste bat republikanua, bi komu-
nista eta hiru PNVko. Zer esan gura **detsu** horrek? Zortzi lagunen artian, bost
ideologixa.*

4.1.2.- Nor-Nori-Nork saileko **eutsi*-ren erroan *-u-* galduta

Aurreko puntuan esan dugun bezala, Eibarren mendebaleko eredua jarraitzen dugu eta Nor-Nori-Nork adizkietan **eutsi* darabilgu. Hala ere, badu ezaugarri berezi bat. Izan ere, Bizkaiko zenbait hizkeratan *-eu-* da errorik arruntena (Yrizar, 1981): *neutsan*, *deutsat*... Eibar inguruko hizkera gehienetan⁸⁶, berriz, *-o-* da erroa (*dotsat*, *dost*, *notsun*...). Eibarren, ostera, ez bata eta ez bestea: *-e-* da erro bakarra.

Ondorioz, Eibarko formarik arruntenak horrelakoak dira, orainaldian zein iragane-ko formetan: *detsat* ('diot'), *detsagu* ('diogu'), *netsan* ('nion'), *gentsan* ('genion')...

Hikako adizkiak dira salbuespena, horietan *-eu-* erroa gordetzen baita: *deuat* ('diat'), *neuazen* ('nizkian'), eta abar.

Azalpen eta adibide gehiago Fonetika ataleko 2.1.2.1. puntuan.

4.1.3.- **edun*-en erroa *-o-* edo *-au-* da

Euskara batuko *-u-* erroaren alboan, Eibarren **edun*-en erroa *-o-* edo *-au-* da, adizkien arabera. Iraganaldiko batzuetan *-eu-* ere bai. Adibidez:

dot
dogu
nozue ('nauzue')

dau ('du')

dabe (<*daue*) ('dute')

neban (<*neuan*) ('nuen')

baneu
leuke

⁸⁶ Adibidez, Ondarroan (Rotaetxe, 1978), Bergara inguruan (Elexpuru, 2005), Durangaldean (Gaminde, 2003) edo Debagoienean (Ormaetxea, 2003).

4.1.4.- *egin erroa, *ezan orokorraren orde

Aditz iragankorren ahaleran, aginteran eta subjuntiboan, *egin erroa erabiltzen da (orok. *ezan). Ezaugarri hau ere orokorra da mendebaleko hizkera guztietan (Zuazo, 1998):

Ikusi zeinke ('ikus dezakezu')
Erosizu ('eros ezazu')
Jan deixan ('jan dezan')

4.1.5.- Ahalezko orainaren orde hipotetiko

Ahalezkoan, Nor saileko jatorrizko orainaldiari (*naitke, daiteke...*) hipotetikoak (*neike, leike...*) lekua kendu dio. Nor-Nork jokabidean berdin: jatorrizko taldeari (*dai- ket, daike...*) adizki-multzo berriak (*neike, leike...*) kendu dio lekua. Hau ez da Eibarko euskararen bakarrik gertatzen, bizkaiera barruan nahiko zabaldua dagoen ordezkaztea da eta.

Bestalde, badirudi beste paradigma berri bat ere hedatzen ari dela gazteen artean 3. pertsonako adizkiaren analogiaz-edo sortutakoa. Paradigma berri honetan, 3. pertsonako adizkia oinarritzat hartu eta adizkiaren amaieran ezartzen dira pertsona- markak, era honetako adizkiak sortuz: *leiket, leikezu, leike...* Belaunaldi berrien artean gero eta gehiago entzuten da, baina oraindik ere Debagoienean baino leku txikiago du, eta Eibarren hitzun gazteen artean bakarrik entzuten da, sekula ere ez 50-60 urtetik gorako hitzunen artean.

4.1.6.- Nor-Nori sailean j-dun adizkiak

Mendebaleko hizkera gehienetan, Nor-Nori saileko adizkietan *j-* tankerako ebake- rak daude, orokorragoa den *z-*ren orde (Zuazo, 1998). Adibidez:

zait > *jata*
zaizue > *jatzue*
zitzaion > *jakon*

Fonetika atalean aipatu dugun bezala, 'ez+j-' elkarketetan, *tx* ahoskatzen da.

4.1.7.- Nor-Nori saileko iraganaldia: 'oraina + -n'

Ezaugarri hau ere orokorra da mendebaleko hizkeretan. Eibarren ere horrela gertatzen da.

jata — *jatan* ('zitzaidan')
jako — *jakon* ('zitzaión')

Bizkaiko zenbait hizkeretan joera hori Nor-Nork sailera ere igaro da (*dot*—*doten* ('nuen')). Eibarren ez da halakorik.

4.1.8.- Lehenaldiko 3. pertsonetan Ø ezaugarria (edo bitasuna)

Mendebaleko hizkeren ezaugarri nagusiari jarraituz, iraganaldiko 3. pertsonaren marka Ø da Eibarren ere, z orokorraren ordeiz. Ezaugarri honetan, dena dela, erdialdeko hizkeraren eragina ere nabari da, eta forma biak erabiltzen dira Eibarren: (z)*eban*, (z)*eixan*, (z)*etsan*, (z)*eguan*, (z)*etorren*, (z)*ebillen*, (z)*ekarren*, (z)*erabixan*, (z)*eroian*, (z)*eukan*, (z)*ekixan*....

Gainera, nahiz eta nagusienek gazteagoek baino gehiago jotzen duten z- gabeko formetara, ezin esan duela gutxiko berrikuntza denik, 60-80 urteko jendearen artean ere badirelako z-dun formak darabiltzatenak; baita biak nahastean darabiltzan hiztun mordoa ere. Hurrengo azterketetan komeniko litzateke begiratzea ea koka-penak edo inguruneak eraginik duen forma bat edo bestea erabiltzeko orduan.

Hala ere, esan beharra dago Eibarren arruntagoak direla z gabeko adizkiak⁸⁷.

Gogoan izan badirela beti z-rekin esaten diren adizkiak ere: *izan*, **edun*-en pluralekoak, *egin* **edin*, *jardun*, eta *iruditu*. Esate baterako: *zan*, *zeikian*, *zeiñ*, *zekixon*, *zihardu*, *zirurixan*...

⁸⁷ Guk aztertu ditugun testu zaharren artean ere, XIX mende amaierako testuetan, ez dago z- hasieradun adizkirik. Toribio Etxebarriak, Francisco Arratek edo Antonio Iturriozek ez dute sekula z-dun formarik erabiltzen (Izagirre et al., 2000).

4.1.9.- Pluralgile ia bakarra -z da

Euskaraz, hainbat partikula darabiltzagu adizki pluralak sortzeko, adibidez: *-it-* (ditut), *-z-* (dauzka), *-z* (goaz), *-zki-* (litzaizkidake), *-tza* (dakartza)... Mendebaleko euskalkiaren berrikuntza nabarmenetakoa zera da, *-z* pluralgilea ia kasu guztietara zabaldu izana, analogiaz. Eibarren ere erabat betetzen da ezaugarri hori.

zaizkio > jakoz
daude > dagoz
dauzkagu > daukaguz
dizkigu > deskuz
ditzakegu > geinkez
daramatza > daroiaz

Mendebaleko hizkera batzuetan, gainera, berrikuntza hori **edun* eta *izan* aditzetara ere hedatu da, horrelako formak sortuz: *ditut > dodaz*; *ditu > dauz*; *nituen > nebazan*; *ginen > gintzezan*.

Oro har esan daiteke berrikuntza hori ez dela Eibarrera iritsi. Dena dela, badira zenbait salbuespen: *dozuz*, *doguz*. Hurrengo puntuan ikusiko ditugu.

Lehenaldiko formetan, pluralgilearen (-z-) eta lehenaldiko markaren (-n-) arteko lotura-bokala -e- da beti: *jakuzen* ('zitzaizkigun'), *genduzen* ('genituen'), *nekixazen* ('nekizkien')... Kontuan izan Bizkaia aldean -a- bokala arruntagoa dela horrelako loturetarako.⁸⁸

4.1.10.- Bitasuna pluralgileetan

Adizki batzuetan, Eibarren bi forma ditugu plurala adierazteko, euskarazko forma zabaldua batetik (*-it-*), eta mendebalekoa bestetik (*-z*). Bitasun hori nabarmena da Nor-Nork sisteman. Esate baterako: *dozuz / dittuzu*; *doguz / dittugu*; *neukez / nittuke*; eta abar⁸⁹.

⁸⁸ Adibiderako Zaldibarko adizki hauek: *genduezan*, *nekidxezan*, *dxakuzan*... (Gaminde, 2003).

⁸⁹ Guk egindako elkarrizketetan gai hau zehazki landu ez badugu ere, gure laginean askoz ugariagoak dira eredu estandarrak (*dittuzu*, *dittugu*), mendebaleko berriak baino (*dozuz*, *doguz*).

Nora bota? Botatzia hau lastimia dok, ba!, ta Aitorrek esan eban, "Joño, horrek neuk hartuko **nittuke**", ta han dagoz.

Kinzenako diruok ondo zainduko **bazendukez**, ez ziñake koskara ibiliko biharrian.

Eta guk hórrek prinzipixuok defenditzen **doguzela**, ez dago mastillian ze bandera klase ipini.

Nik uste danok izan **dittugula** hutsak-, baiña beste bidia hartu bagendu iskanbillak askoz haundixauak izango ziran, eta nahasketak asko be haundixauak.

Egun baten euki bihar **dozuz** hiru orduan irakitzen baiña ez erdixan, sutan erdixan, albuano edo, oin butanuak zelan dagozen, honek beste modako kristalezkuok? Ba, han, ta bajuan, baiña beti egon deilla "pil, pil, pil, pil, pil, pil...", ez fuer-tian.

Zuri notizia on bat emoten detsuenian poza hartzen dozu, ezta? Ba, nik orduan hartu neban zuk hartzen **dittuzun** pozak hamar bidar gehixao.

Arrazoi argirik ez dagoen arren, sail bereko beste adizki gehienetan ez dago horrelako bitasunik: *dodaz* beharrean *dittut* erabiltzen da, *dabez* beharrean *dittue*, eta abar⁹⁰.

Egon aditz-saileko adizkietan ere badugu bitasun hori:

daoz / dare ('daude')
gaoz / gare ('gaude')
zaoz / zare ('zaude')

Kasu honetan, ez gara ausartzen esaten zein den formarik arruntena gure herriko hizkeran, biak ala biak entzuten baitira sarri-sarri, adina ere edozein delarik.

*Hori, jende nausixak-edo, beste kapazidaderik gehixao ez daukanak edo, hórrek ondo **dare!***

*Danak eitten dabe oiñ! Oiñ etxe guztietan ikasitta **daoz**, oin danak eitten dabe. Baiña ona, geurian!*

⁹⁰ Inguruko herrietan ere antzeko zerbait antzematen da (Zaldibar, Bergara, eta abar).

4.1.11.- Plurala bikoiztuta: forma pleonastikoak

Sarritan, plurala eratzeko bi modu horiek adizki berean aurkituko ditugu, hitz berak bi pluralgile hartzen dituelako. Bi pluralgiledun forma pleonastiko hauek oso arruntak dira Eibarren: *dittuzuz*, *nittuazen* ('nituen'), *nittukez* ('nituzke'), *jittuaraz* ('dizkiat'), *giñazen* ('ginen'), *diraz*, *garaz*...⁹¹

*Eibarrera bueltau nitzanian ez **nittuazen** kaliak ezautzen. Aldatuta zeuan dana, konpletamente.*

*Lehen, bai... Lehen, goixian ikusi **jittuaraz**, kalian. Hantxe bertan, Untzagan.*

*Ez **bazaraz** ahalegintzen ezin. Ez dozu eingo. Ahalegindu ein bihar **zaraz**, bes-tela ezin.*

*Eta etxian arrebia hasarre, eta ez jakon gustatzen holan ibiltzia. Eta ez dakizu? Holan gaiñera... Gu han refujiauak **giñazen**, eta ez **giñazen**...*

4.1.12.- **-te** pluralgilerik ez da erabiltzen

Euskal Herri erdialdeko ezaugarria den **-te** pluralgilea (Zuazo, 1998) ez da Eibarko euskaran erabiltzen. Ez iragangaitzeko 2. pertsona pluralean (*zarete*, *zineten*, *zaudete*...); ez 3. pertsona pluralean (*dute*, *dakite*, *zaiote*, *diote*...); ez iragankorren orainaldi-ko 2. pertsona pluralean (*duzute*, *dakizute*...). Eibarren, mendebal guztian bezala, **-e** da pluralgilea kasu horietan guztietan: *zarie*, *zaozie*; *dabe*, *dakixe*, *jakue*, *detse*; *dozue*, *dakizue*...

4.1.13.- Aditz laguntzaileetako Nori 3. pertsona pluralaren ezaugarria: **-e**

Nori 3. pertsona pluralaren ezaugarria, singularreko formari **-e** gehituz eratzen dugu. Sortzen diren formak zertxobait aldentzen dira mendebaleko eredu klasikotik:

- *o/ko + e = oe/koe > uelkue*
- *t/a + e = tsae > tse*

⁹¹ Toribio Etxebarriak ere *zaraz* dakar bere hiztegian (Etxebarria, 1998). *Diraz*, *esaries*, *elichaques* eta beste hainbat aurkituko dugu Francisco Arraterengan XIX. mende erdian (San Martin, 1992).

Hau da, *leikie*, *jake* edo *deutsoe* bezalako formen ordez, Eibarren *leikixue* ('dakieke'), *jakue* ('zaie') eta *detse* ('die') bezalakoak eratzen dira.

Astuan pasau eben errekatik, baiña pasatzen dagozela errekatik, kajaren bat jausi jakuen. Desmontauta makiñia, e? Makiñia desmontauta. Ta kajaren bat jausi ei jakuen, itxuria, erre kara.

Eta, bueno, hantxe ekin netsan: lagunak euki nittuan onak eta, pixkaka-pixkaka, gustau eitten jakuen nik pelotia joten neban modua. Jokatzen ikustia eureri be gustau eitten jakuen, itxuria.

Oin holakuak be badagoz baiña... Honek eitten detse listia ipiñi hamen. Ta gero ipintzen etsen latoia hamen, bueltan, danian, azpittik ta gaiñetik.

Eureri esplikau leikixue hobeto; bestela alperrik! Alper-alperrik!

4.1.14.- Nork=Haiek adizkietan, pluralgilea desagertu

Nor-Nori-Nork saileko adizkietan, jatorriz, HAIEK ZUEI eta HAIEK HAIEI adizkietan *ee* bilkurak sortzen dira: *detsuee*, *detsee*, *jetseek*... Bokal bikote horiek soildu egiten dira Eibarren: *detsuee* > *detsue*; *detsee* > *detse*; *jetseek* > *jetsek*.

Ondorioz, HAIEK ZUEI adizkiak eta HARK ZUEI berdinak dira, eta HAIEK HAIEI eta HARK HAIEI ere bai. Adibidez: *detsue* ('dizue' 'dizuete'), *detse* ('die' 'diete'), *detsuez* ('dizkizue' 'dizkizuete'), *detsez* ('dizkie' 'dizkiete'), *jetsek* ('ziek' 'zietek'), *etsuen* ('zizuen' 'zizueten'), *etsen* ('zien' 'zieten'), *jetsen* ('zieran' 'zietean'), *baletse* ('balie' 'baliete'), *leikizue* ('diezazueke' 'diezazuekete'), *deixuen* ('diezaien' 'diezaieten'), eta abar.

Nor-Nori-Nork paradigma osoan gertatzen da, Ondorioan izan ezik.

4.1.15.- Trinkoen iraganaldian -e- sustraia

Aditz trinkoen iraganaldian -e- sustraia agertzen da beti Eibarren. Adibidez: *neki-xan*, *genkixan*, *nebillen*, *zebizien*, *euazen*, *jeken*, *nekan*, (z)ekazuen...

Eibarko (eta Ermuko eta Soraluzeko) berbetaren ezaugarria da hori, Deba ibarreko gainontzeko hizkeretan -a- sustraia arruntagoa delako, bai Debabarrenean (Elgoibar, Mendaro...), zein Debagoienean (Zuazo, 1999). Eibarren ez dago inongo alternantziarik.

4.1.16.- *Ibili* eta *erabili* aditzetan aditz-erroko *-l-* galdu egiten da

Ibili eta *erabili* aditz trinkoetan, aditzaren erroko *-l-* galdu egiten da askotan.

Kontsonante aurrean beti galtzen da (*gabiz, zabiz, darabitt, darabizu...*). Hitanoko formetan ere galdu egiten da (*nabik, gabixak, jarabixat...*).

Bokal aurrean ere, *erabili* aditzean galdu egiten da, eta bere lekua loturazko *-x-* batek betetzen du: *narabixe, darabixe, zerabixen...*

Hitz amaieran agertzen denean, ostera, bai gordetzen dugu: *nabill, dabill, narabill, darabill...*

4.1.17.- *Joan* eta *eroan* aditzetan *-i-* agertzen da

Fonetika atalean ikusi dugun $a+a > ia$ ezaugarria (*alaba + a > alabia*), aditz batzuetara ere zabaldu da. Ondorioz, *joan* eta *eroan* aditzetan (*juan* eta *eruan*), *-i-* agertzen da:

noa > noia
doa > doia
gindoazen > goiazen
daroat > daroiat
daroagu > daroiagu
neroan > neroian ('neraman')

4.1.18.- **edun*-en hitanoan *j-dun* adizkiak

Mendebaleko ezaugarri orokorrari jarraituz, **edun*-en hitanoko adizkietan *j-dun* formak ditugu Eibarren ere:

*diat > juat*⁹²
dik > jok
ditiat > jittuat

⁹² Euskara estandarrean ez bezala, beraz, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailletako hitanoko adizki hauek ezberdinak dira: *juat* ('diat') eta *deuat* ('diat').

4.1.19.- j marka alokutiboan

Mendebaleko hizkeretako hitanoan, ez beti baina bai askotan, adizki alokutiboak -j- darama pertsona ezaugarriaren ondoren, gutxi gorabehera eskema honetan agertzen den bezala:

NOR/NORK
 pertsona
ezaugarriak

| | | | |
|-----|------------|-------|---------------|
| N | -(a) - J - | - | - sustraia... |
| -/L | | e/ind | |
| G | | itt | |
| -/L | | | |

Zalantza barik esan daiteke mendebaleko hizkeretan hitanoko adizki alokutiboan elementuetako bat dela -j- hori. Azpi-euskalki batzuetan loturazko -a- barik sartzen da; gurean beti loturazko a-rekin batera: *najuan* ('nian'), *najittuan* ('nizkian'), *najekixan* ('nekian')...

*Bai, hogeï urtekin. Bedratzi hillabete ein **najittuan**. Beraneatzen, beraneokua! Primeran ein genduan, jesus...!! Orduan sardandeixa ta baeuan han, Parte Zaharrian, kantidadia ta sardaua nahikua eran ta geu, hamengo euskaldunok, erregiak moduan ibili giñuazen.*

*Hantxe urten **najuan** nik bi edo hiru bidar, orkestan kalera. Hauraxe ensaiatzen genduan hamentxe, bar baten ta orkestiak joten juan ta geuk gitarriaz... Izango giñuan hamar bat edo gehixao igual gitarristak orkestan ta... Han be ibili giñuazen!*

*Berak pentsatzen juan ezetz, baiña nik **banajekixan** ondo zelan ein bihar ziran horrek kontuok. Aspaldittik holakuetan, eta ba, ikasitta, eztakik?*

Sarri leundu eta ia galdu egiten da; beste askotan zeharo desagertzen da eta alokutiboak sexu-markarekin bakarrik bereizten dira (*lajeikek > laeikek; lajeukek > laeukek*). Edozein modutan ere, Eibarko hitanoan ahaztu ezin daitekeen elementua da.

Kontuan izan salbuespen direla, inguruko hizkera gehienetatik bereiztuz⁹³, EGON, ETORRI eta IBILI aditzen orainaldiko adizkiak, ez baitute -ja- markarik hartzen: *naok* eta ez *najaok*; *natok* eta ez *najatok*; *nabik* eta ez *najabik*. JOAN aditzean, aldiz, orainaldiko formetan ere agertzen da -j(a)- marka: *najoiak*.

⁹³ Adibidez, Bergara (Elexpuru, 2005).

4.1.20.- Aditz trinko iragangaitzen hitanoan **d-** marka

Aditz trinko iragangaitzen orainaldiko 3. pertsonako alokutiboko adizkietan **d-** agertzen da Eibarren, mendebaleko hizkera gehienetan (gure inguruko hizkerak barne) arruntagoa den **j-** markaren ordezt⁹⁴. Adibidez: *daok* (ez *jaok*) ('zegok'), *datok* (ez *jatok*) ('zeturrek'), *dabik* (ez *jabik*) ('zabilek')...

*Zelan dok hau! Hau alde guztietan **dabik** eta ez dabillega ezertan? Eta holan-txik, pasau ein neban narrutsik, bildotsik, Bidasoako errekia, kontrabandista batzuegaz.*

*Han! **Badatok!** Berandu **datok**, baiña **badatok!***

*"Aber! Hamen **daok** sinisten ez dabena ta erakutsi'xuaz horri!" Erakutsi netsezen ta "Ene demoniuak!", sinistu ezinda geratu zuan ha.*

Kasu honetan ere salbuespena JOAN aditza da: *joiak* ('zihoak'), *joiazak* ('zihoazek').

4.1.21.- Hitanoaren adizkietako Nor/Zer pluralen amaierak

Bizkaieraz, oro har, **-z-** pluralgilea sexu-markaren aurretik doa: **-z + aklan**; *datozak/datozan*; baina Eibarko euskaran, gehienetan, beste era honetan jotatzen dugu: **-al-na + z**; *datuaz/datonaz*.

*Ikusi dittuk? **Badatuaz**, ala? Goiz guztia zain, eta... Gehixao ez nok holako kontuetan hasi bihar, bestela...*

*Txori asuntuak, onena koñatuari preguntatzia. Ha kazarixa dok. Kazarixa? Amorratua. Hamen inguruko kontu guztiak **jakixaz** harek! Eta kontauko deuz, gaiñera.*

Dena dela, nahasteren bat gerta daitekeen kasuetan ez da betetzen arau hori. Esate baterako, *gu goiazak* da darabilguna, *goiaaz* > *goiaz* erabiliz gero ez dakigulako zuka ala hitanoan dihardugun.

⁹⁴ Eibar, Soraluze, Ermua eta Elgoibarko hizkeren ezaugarria da hori; Durangaldean eta Bergara aldean **j-** dun formak agertzen dira (Elxepuru, 2005; Gaminde, 2003; Zuazo, 1999).

4.1.22.- Hikako zenbait adizkitan sexu-marka soberan

Ezaugarritzat *h* duten hikako adizkietan, berez, ez dago sexu-markarik jarri beharrik: *haut*, *hintzan*, eta abar, gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat berdinak dira. Hala ere, zenbait kasutan, adizki normalari emakumearen *-na-* sexu-marka gehitzen zaio Eibarren. Euskal Herrian nahiko zabaldua dagoen joera da hori.

Ondorioz, Eibarren, horrelako formak izango ditugu: *haut-haunat*, *hintzan-hintzanan*, *heban-hebanan*...⁹⁵

*“Aitta! Olabek esan desta arratsaldeko seiretan itxoitzeko dibujoko arkupietan”. Eta amak: “Bai...! Eingo **hebanan** zeozer hori esateko maixo batek! Eingo **hebanan** zeozer ez zana ein bihar!”* Ixilik ni! Ta aitta juan zan arratsaldian.

Gizonezkoari dagozkion adizki batzuetan ere, sexu-marka premia barik jartzeko joera dugu, «*hitasuna*» indartu nahian-edo. Esate baterako: *heskixok**, *heskiguk**...

4.1.23.- Subjuntiboko orainaldian 3. pertsonaren ezaugarria: *de-*

Subjuntiboaren orainaldian Eibarren *de-* erabiltzen da, beste hainbat hizkerako *da-*ren orde: *deñ* ('dadin'), *deixan* ('dezan'), *deixon* ('dakion')... Kontuan izan Debagoienean ere *da-* erabiltzen dela⁹⁶.

*Metxerua joten eban leku-lekuan, hantxe ein bihar gero baskuliari be zulua. Agujia zerera jo **deixan**, kartutxua jo **deixan** pistoian, zulua hara ein. Harek zuluak baskulagiñak ein bihar jittuk, “ra!”.*

*Pixkat bigundutakuan kipulia, bota hara karakolak. Baiña uretatik etaratakuan eskurritzen euki pasador baten, ezta? Soltau **deixen** ahal dan ur guztia. Gero, txorizeruak sartu ta ogi-koskor bat sartu, ogi-koskor bat bizperakua edo sikua be igual, han biguntzen da-ta. Gero, berakatz saldia, dakazuna, bota. Tapau, tapau **deixazela** karakolak; tapauta egon **deilla** berakatz saldiakin.*

⁹⁵ *Morfología Vasca* (Azkue, 1923): «En Eibar se oye la flexion ik Praiska, ikusi BAEBANAN, *femenización forzada de ikusi BAEU, que generalísimamente y con toda propiedad aún dice el pueblo refiriéndose a agentes femeninos*».

⁹⁶ Bedita Larrakoetxea Oñatiko udal euskaltegia, 2002; Elexpuru, 2005; Elortza et al., 1999.

Holan azukria urakin ipiñi, irekitten ipiñi, eta holan ikutu eta hebra edo holan, biguna... Jausi ez **deilla** eiñ, eta gogorregixa ez **deiñ**. Hori gaiztua da eitten, e!

Lehenengo zikinkerixia kendu bihar jako ahotik... Bueno, bai, estu badago, ba... binagria edo bota ahora, espabillau **deiñ**.

4.1.24.- Egon, jakin eta erabili aditzetako lehenaldiko pluralean lotura-bokalak

Euskaraz NOR/ZER singularreko adizkietan jartzen diren lotura-hizkiok pluraleko adizkietan ere sartzeko joera dago Eibarren.

NOR/ZER singularra denean, sustraiaren (GO/KI/RABI) eta lehenaldiaren marka den *n*-aren artean *-a-* loturazkoa jartzen da: *-GO-A-N*, *-KI-A-N*, *-RABI-A-N*: *nenguan*, *henguan*, *zeguan*; *nekixan*, *hekixan*, *zekixan*, *genkixan*, *zenkixan*; *nerabixan*, *herabixan*, (z)*erabixan*, *gerabixan*...

NOR/ZER plurala denean, sustraiaren (GO/KI/RABI) eta lehenaldiko ezaugarriaren artean, *-z-* pluralgilea gehitzen da eta ez da behar loturako bokalik sartzerik. Ondorioz, forma «logikoak» horrela eratuko lirateke: *GO-Z-E-N*, *-KI-Z-E-N*, edo *-RABI-Z-EN*. Hau da: *zengozen*, *nekizen*, *gerabizen*...

Baina Eibarren, singularraren analogiaz-edo, sustraiaren eta pluralgilearen artean ere loturazko *-a-* bokala gehitzen da, horren premiarik egon ez arren. *Jakin* eta *erabili* aditzetan, gainera, *-x-* epentetikoa ere sartzten da:

(*gengozen* >) *geozen* > *geu**a**zen* ('geunden')
(*zengozen* >) *zeozen* > *zeu**a**zen* ('zeuden')
(*zengozeen* >) *zeozien* > *zeu**a**zien* ('zeundeten')
nekizen > *neki**x**azen* ('nekizkien')
hekizen > *heki**x**azen* ('hekizkien')
genkizen > *geki**x**azen* ('genekizkien')
zenkizen > *zeki**x**azen* ('zekizkien')
nerabizen > *nerabi**x**azen* ('nerabiltzan')
herabizen > *herabi**x**azen* ('herabiltzan')

Egon aditzean eredu arrunta ere erabiltzen da (nahiz eta gutxi), baina *jakin* eta *erabili* aditzetan, ostera, bigarrena besterik ez.

Han kantau genduzen Internazionala, Primero de Mayua, Marsellesia eta, en fin, holako kantu mordo bat ein genduzen eta "Viva la República"-k eta esan genduzen eta laga ein genduan hori bailiori aurrera segitzen. Baiña orduan guk gaztiok hartuta zekagun ustia Republikan sartuta **geuazela**.

Bai, ha orkestia zuan bakarrikan, "Breton", orduantxe epokan bajeuan. Ta horretako musikuak eta, orduan, Jesus! Musikuak be onak **jeuazen!**

Ikusi nebanian Rusian zer pasau zan...! Bueno, **banekixazen**, e, Kruchev-ek esan zittuan guztiak. Ordurako irakurritta neuan ni harek esan zittuan guztiak Staliñegaittik.

Nik reglamentuak ondo **nekixazen** eta. Esan estan: "Bueno, hi, nere enlaze jarriko haiz. Eta juez-arbitro nahi badok eittia San Romanekin batera".

Bai... berak **zerabixazen**. Berak **zerabixazen** onduen zerok. Bestiok ezin, txartuago, baiña ha fenomenua zan, artistia.

4.1.25.- Lehenaldiko eta subjuntiboko forma pluraletako lotura-bokala: -e-

Lehenaldiko eta subjuntiboko adizkiek **-n** bukaera izan ohi dute. Pluraleko formetan, berriz, **-z** pluralgilea tartekatu behar izaten da. Kontsonante horien arteko lotura egiten duen bokala **-a-** izan ohi da mendebaleko hizkera gehienetan (**-zan**). Eibarren, aldiz, **-e-** bokala erabiltzen da (**-zen**).

Forma guztietan gertatzen da hori: *geuazen, zeuazen, zeuazien, nekixazen, genkixazen, (z)erabixazen, deiguzen, deixazen...*

Harek danak **zekixazen**, danak burutz **zekixazen**.

Egunero, hantxe, jaiki eta ti-ta baten, hantxe lagatzen dittut, berak ikusi **deixazen**. Gero berak eitten dau dana, ein biharreko guztia.

Juan giñuan geu be, ba, ederto, dotore. Ta geu be tortilla bana edo jatera. **Bageuazen** hantxe ta, "Emete Kojua" esaten etsen, nerekin lagun eitten ebana kantuan ta: "Hi, hauxe bota bihar deuat".

Kontu honetan ere, Agiñagako hizkera da salbuespena, auzo horretan **a-**dun formak ere entzuten baitira.

4.1.26.- Nor saileko ahalezkoan -te- elementurik gabeko aditz-formak

Aditz iragangaitzetako laguntzailea *EDIN da, eta horren sustraia -di-. Jatorrizko aditz-formak aldatuz joan dira: *lediteke* > *leiteke* > *leike*. Azken hori da gaur egun erabiltzen den adizkia. Galdu egin zaigu -te- elementu hori. Oraindik ere *baleitteke* forma iharturen bat entzuten da, baina halaxe, lokuzio solte bezala bakarrik: *balei-txeke eurixa eittia*.

Aditz iragankorretako laguntzailea EGIN da, eta bere sustraia -gi-. Jatorrizko adizkiak aldatuz joan dira hemen ere: *legike* > *leike*.

Hor ba, nola itxura berdina duten adizkiek jatorri eta esangura desberdina daukaten: *leike* (*edin) eta *leike* (egin). Bizkaiera literarioak gordetzen duen -te- hori galtzeaz batera, itxuraz berdina den adizkia darabilgu ideia gertagaitzak eta gertakorrak adierazteko.

4.1.27.- Nor-Nori saileko ahalezkoan, -te- edo -ki- gabeko aditz-formak

Bai Añibarro, bai Kanpion, bai A. Irigoienen arabera, *neintekio*, *leitekit*, *leitekio* eta halakoak (bizkaierazko tauletan agertzen direnak), Bizkaiko euskaraz *nenkikio*, *leki-ket* edo *lekikit*, *lekikeo* edo *lekikio* dira (EEM, 1998).

Eibarko euskaran, ez dugu -te- elementua erabiltzen, ezta ahalezko markaren aurreko -ki- elementua ere: *neinkixo*, *leikixo*....

Gero esan neban: "Hamen zegozer asmau bihar da". Eta asmau neban erregalo bat: Eibarko zer eingo zenskixo erregalua? Damaskinauren bat!

Gaur armak dare, ba, herri osuak apurtzeko modukuak. Eta gehixen daukanak be, bestiak dañu haundixa eingo leskixo. Eta hori bakiori, gaiñera, gizon moduan, sozialista moduan, beti billau bihar dogu.

Bertan egunian hori horitzori hasten dok, eta kontinuo emon bihar jok, gitxi edo asko. Batzuk gitxi, eta beste batzuk asko, ta beste batzuk gehixago, baiña txahala eiñ arte hari ezin leikixok esnerik kendu.

Hemen ere, NOR eta NOR-NORK aditz-jokoen artean gertatzen zaigun moduan, ahalezko NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK jokabideen artean ere, zenbait adizkik forma bera hartu dute denborarekin: *lekikeo* > *leikio* eta *legikeo* > *leikio*. HA HARI *juan leikixo* eta HARÉK HARI HA *emon leikixo*.

4.1.28.- Nor-Nori saileko aditz-laguntzailearen baldintza-ondorioan eredu bi

Eredu bi aurkituko ditugu Eibarren⁹⁷:

a) Hirugarren pertsonako adizkiaren *litxa*- osagaia duena eta ondorioan *ke* > *ki* marka daroana:

Pitxar hori jausiko balitxako, apurtu eingo litxakixo.

b) Bestea *leja*- osagaidun adizkien saila, ondorioa zuzena izateko izan beharko lukeen *ke* marka gabea. Eredu honetan, baldintza eta ondorioaren arteko alde bakarra, baldintzak daraman *ba*- marka da. Adibide bera erabiliz:

Pitxar hori jausiko balejako, apurtu eingo lejako.

Gaur egun, bata zein bestea gutxi erabiltzen dira, baina guk jasotako itxuraren arabera, lehenengo ereduari apur bat gehiago erabiltzen da. «*Eibarko aditza*» (EEM, 1998) liburuan, ostera, kontrakoa diote. Ezin ondorio garbirik atera, hortaz.

4.1.29.- Nor-Nori-Nork saileko aditz laguntzailearen ondorioan eredu bi

Kasu honetan ere eredu bi ditugu Eibarren, ondorioaren *ke* marka jartzen den lekuaren arabera: a) Gipuzkoar ereduari jarraituz, NORI markaren ondoren jarritz (*netsuke*, 'nizuke'); b) Bizkaiko ereduari jarraituz, NORI markaren aurretik jarritz (*neskizu*, 'nizuke').

⁹⁷ Eibar inguruko hainbat hizkeratan aurkituko dugu ezaugarri hori, esate baterako, Durangaldean (Errazti, 1994), Lea-Artibaiko hizkeretan edo Debagoienean (Elexpuru, 2005).

4.1.30.- Baldintzan, ondorioarena den *ke* marka erabiltzeko joera

Oso zabaldua dago joera hori, bai mendebalean baita beste hizkera batzuetan ere; berdin Eibarren: *pitxarra jausiko balitxakixo, apurtu eingo litxakixo*. Joera hori aditz-joko guztietan daukagu: NOR, NOR-NORI, NOR-NORK, eta NOR-NORI-NORK sailetan.

*Mikel etorriko **balitzake**, ba, hobeto; danok pozik.*

*Gogorik ez baina, oin ez. Erropia erosi biharko **baneuke**, sikiera, ba, orduan, bai, orduan juango nitzake, baina oin ez, alperrik ez noia.*

4.1.31.- Nork aditz-jokoetan GUK, ZUK eta ZUEK marka errepikatze joera

Euskaraz, aditzaren lehenaldiko formetan, NORK ezaugarria aurrean ageri da eta gramatika aldetik zuzen eraturako aditz-formek aurrean izaten dute NORK marka hori. ZU eta GU kasuetan, adibidez, *ge(u)n-*, *ze(u)n- gei-*, *zei-*... Adibidez: *genkan* ('geneukan'), *zentsan* ('zenion'), *zeixan* ('zenezan'), *genkixan* ('genekien')...

Eibarren, baina, jatorrizko adizkien eraldaketa fonetikoaren ondorioz, ahozko hizkeran azkenean HARK eta ZUK adizkiak berdindu egiten dira; eta berdin, HAI EK eta ZUEK. Adibidez:

Harek emon zestan ('zidan')

Zuk emon zestan ('zenidan')

Sortzen den anbiguotasun hori saihesteko, ZU eta ZUEK zutabeetako jatorrizko adizkien lekuetan adizki berriak agertzen dira, beraien *zu(e)* marka indartuz. Ondorioz *zestazun*, *zeizun*, *zeizuen*, *ziñozun*, *zerabizun*... itxurako adizkiak sortzen dira, gramatika aldetik ez zuzen-zuzenak, baina jatorrizkoak baino gehiago erabiltzen direnak (batzuetan jatorrizkoak guztiz ordezkatzera ere heldu dira Eibarren).

Hona hemen jokaera hori duten aditzak:

- Nor-Nork-eko subjuntiboko lehenaldia: *zeixan* > *zeizun* ('zenezan'); *zeixen* > *zeizuen* ('zenezaten')...
- Nor-Nori-Nork subjuntiboko lehenaldia: *zeiran* > *zeirazun* ('zeniezadan'); *zeixon* > *zeixozun* ('zeniezaion'); *zeiguen* > *zeiguzuen* ('zeniezaguten'); *zeixuen* > *zeixuezun* ('zeniezaien')...
- Nor-Nori-Nork Indikatiboko lehenaldia: *zestan* > *zestazun* ('zenidan'); *zentsen* > *zetsazuen* ('zenioten'); *zeskun* > *zeskuzun* ('zenigun'); *zetsezen* > *zetsazuezen* ('zenizkieten')...
- Nor-Nori-Nork baldintza: *bazesta* > *bazestazu* ('bazenit'); *bazeskue* > *bazeskuzue* ('bazenigute')...
- Trinkoen lehenaldian:
 - EDUKI: *ze(n)kan* > *zekazun* ('zeneukan'); *ze(n)kezen* > *zekazuezen* ('zeneuzkaten'), *ze(n)kazen* > *zekazuzen* ('zeneuzkan')...
 - ERABILI: *zerabixan* > *zerabizun* ('zenerabilen'); *zerabixezen* > *zerabizuezen* ('zenerabiltzaten')...
 - ESAN: *ziñuan* > *ziñozun* ('zenion'); *ziñuen* > *ziñozuen* ('zenioten').
 - JAKIN: *zekixan* > *zekizun* ('zenekien'); *zekixen* > *zekizuen* ('zenekiten'); *zekixazun* > *zekizuzen* ('zenekizkien'); *zekixezen* > *zekizuezen* ('zenekizkieten').
 - IRUDITU: *zirudixan* > *zirudizun* ('zenirudien'); *zirudixen* > *zirudizuen* ('zeniruditen').
 - JARDUN: *ziharduan* > *ziharduzun* ('zeniharduen'); *ziharduen* > *ziharduzuen* ('zeniharduten').
 - ERUAN: *zeroian* > *zeroiazun* ('zeneraman'); *zeroien* > *zeroiazuen* ('zeneramaten'); *zeroiezen* > *zeroiazuezen* ('zeneramatzaten') ...
 - EKARRI: *zenkarren* > *zekarzun* ('zenekarren'); *zenkarzen* > *zekarzuzen* ('zenekartzan'); *zenkarrezen* > *zenkarzuezen* ('zenekartzaten') ...

Hasiera batean ZUK eta ZUEK kasuetako anbigutasun hori gainditzeko sortu den baliabidea, analogiaz, GUK zutabera ere heldu da, eta han ere adibide ugari agertzen dira: *gentsagun* ('genion'), *genkagun* ('geneukan'), *genkaguzen* ('geneuzkan'), *gerabigun* ('generabilen'), *genkiguzen* ('genekizkien'), *girudigun* ('genirudien'), *gihardugun* ('geniharduen'), *geroiagun* ('generoan' 'generaman'), *gekarguzen* ('genekartzan')....

Azken batean, adizkiaren hasierako markekin nahikoa ez, eta GUK, ZUK, ZUEK adizkiak direla nabarmentzeko, birritan erabiltzen ditugu marka horiek, forma pleonastikoak sortuz.

Joera honek bigarren fase bat ere badauka: lehenengo, adizki zuzenari, erredundantzia, atze-adizkia eransten zaio; bigarren fase batean, jatorrizko marka (aurrekoa) galdu (edo hirugarren pertsonaren marka hartu) eta atzekoa bakarrik geratzen da. Hartara:

zentsan > **zetsazun** > (z)etsazun ('zenion')
zents(a)en > **zetsazuen** > (z)etsazuen ('zenioten')
gentsan > **gentsagun** > zetsa(g)un ('genion')
geunkan > **genkagun** > zenka(g)un ('geneukan')
genkixan > **genkigun** > zeki(g)un ('genekien')

Badirudi lehenengoak desagertzen ari direla eta bigarrenak direla nagusi Eibarren; hala ere, hirugarren mailakoak ere sarri entzuten dira.

Eta hementxe ahozko jardunean aurkitu ditugun adibideetako batzuk:

*Eta... ene! Guk pentsatzen genduan "Gernikako Arbola" nazionalistiena zala! Txokautu geratu giñan! Baiña **bagenkigun!***

*Ikusi eben hasieran guk ez genduala ezautzen ha armamentua, abiaziñokua. Baiña, segiduan konturau ziran biharrian **bagenkigula**, konozimientua, prinzipixuak onak **genkaguzela**, eta segiduan ein ginduezen "jefe de escuadrilla", "jefe de tal"... Ixa danok, e... "jefe" izan gintzan.*

*Madriden -eibartar mordua eta euskaldunak asko- kuartelian guk alkarregaz euskeraz eitten genduan! Eta illuntzietan, dirurik **bagenkagun**, pixkat eraten genduanian, kantau eitten genduan. Eta gure ofizialak eta, entzutzen egoten ziran!*

*"Viva la República"-k eta esan genduzen eta laga ein genduan hori bailiori aurrera segitzen. Baiña orduan guk gaztiok hartuta **zekagun** ustia Republikan sartuta geuzela.*

*Baiña kooperatiba Mondragokua bastante diferentia da. Hor hitz asko ein leikez. Ormaetxea eta Larrañagari irakurtzen **zetsazun** eta...*

*Tontuak **girudigun**, tontuak. Danok alkarri begira, eta zain, eta zain... eta bera agertu bez.*

4.1.32.- Baldintzan hitanoa erabiltzea

Euskara batuan, mendeko esaldietan, gramatika normatiboan ez dago onartuta alokutiboak erabiltzea. Halaxe gertatzen da mendebaleko hizkeretan eta Eibarko euskararen ere; baina baldintzan hautsi egiten da arau hori eta sarri entzuten da.

Ziurrenik marka gabeko formak baino gehiago. Adibidez, *balitzok*, *balitzon* eta antzekoak ondo errotuta daude.

Etorriko **balitzok** hobe, bixkorrago amaittuko gendukek.

Ein **banajuan**, ein najuan. Gero damutu jatan ondo, baina orduan ein najuan.

4.1.33.- Partizipioa gorde egiten da ahalezkoan, subjuntiboan eta aginteran

Aditza laguntzailearekin jokatzen denean, ahalezkoan, subjuntiboan eta aginteran, aditz nagusiak partizipio-marka gorde egiten du beti: *ikusi*, *sartu*.

Neri omenajia eñ estan Aiuntamentuak, Eibarkuak. Ona omenajia, e! Hori telebisiñuan be **ikusi leike**.

Baiña guk suberatuta emoten gentsen. Bihar dan moduan amaittuta, bigunbigun. **Sartu deixen**.

4.1.34.- Nork sailetako aginterako formetan *egin aditza

Mendebal osoko ereduari jarraituz, Nor-Nork eta Nori-Nori-Nork sailetan aginterako formek *egin laguntzailea hartzen dute. Jatorrizko aginterako formak, dena dela, ez ditugu inoiz osorik aurkituko, soilduta eta aditz laguntzaileari itsatsita baidarik, trinko itxurako adizkiak sortuz.

Batetik, aginterako adizkiari dagokionez, hasierako *eg-* beti galtzen da: *egidazu* > *idazu*; *egiozue* > *ixozue*; *egizu* > *izu*, eta abar.

Aditz nagusiaren kasuan ere, soinu batzuk gal daitezke:

- *n* amaieradun aditza bada, kontsonante hori galdu egiten da: *emoidazu* ('eman egidazu'), *esaiguzu* ('esan egiguzu'), *jaixozue* ('jan egiozue'), *esaidak* ('esan egidak'), eta abar.
- *i* amaieradun aditzen kasuan, *i+i* taldeak sortzen dira eta soildu: *erosi-idazu* > *erosidazu* ('erosi egidazu').

- *u* amaieradun aditzen kasuan ere bokal hori galdu egiten da: *pentsau + egizu > pentsaizu; kantau + egiguzu > kantaiguzu*.
- *tu/du* amaieradun aditzen kasuan, ostera, *-u-* hori hiztunaren eta jardunaren araberak galdu edo gordetzen da: *konpondu + egidazu > konpond(u)idazu; sartu + egiozu > sart(u)ixozu...*
- *a, e* edo *o* bokalez amaitzen badira, ez dute kontsonanterik galtzen: *erreixok* ('erre egiok'), *jasoidazu* ('jaso egidazu'), eta abar.

Ezezko perpausetan, *ez* partikulari lotzen zaio aginterako adizkia. Kasu honetan bada berezitasun bat, laguntzaileak *-e-* bokala ere gorde dezakelako. Ondorioz: *ez(e)idazu esan, ez(e)ik bota, ez(e)ixuaz emon, ez(e)izuz bota...*

4.1.35.- Mendeko perpausetako lotura

Mendeko perpausetako atzizkiak hartzeko orduan (*-ela, -en, -enetik, -elako...*), aditzak Eibarren hiru modutan har ditzake atzizki horiek: loturazko bokalik barik, *-e-* bokalarekin edo *-a-* bokalarekin.

Gehienetan euskara estandarren antzera erabiltzen ditugu mendeko adizki hauek, baina badira zenbait ezaugarri berezi. Adizkiak beste adibide eta aukera aurkituko ditugu, baina laburbilduz, talde hauek aurkituko ditugu Eibarko hizkeran:

- **Loturazko bokal barik**

Bokalez amaitzen diren adizki askok, euskara estandarrean bezala, zuzenean jasotzen dute atzizkia: *dogu-la, jatzu-netik* ('zaizunetik'), *detsa-lako* ('diolako'), *dauka-n*, eta abar... Euskara estandarrean kontsonantez amaitzen diren adizki batzuk Eibarren bokalez amaitzen dira, eta horietan ere zuzenean ezartzen da atzizkia: *jata-n* ('zaidan'), *jata-la* ('zaidala'), eta abar.

Euskara estandarrean ez bezala, bokalez amaitzen diren adizkietan sekula ez da bokal aldaketarik gertatzen. Hau da, euskara estandarrean *da>dela, gara>garela*, edo *dira>diren* aurkituko dugun arren, Eibarren atzizkia zuzen-zuzenean gaineratzen zaio aditzari eta ez dago bokal aldaketarik. Hartara: *da>dala, gara>garala, dira>dirala...* edo *da>dan, gara>garan, dira>diran*.

Lehenaldiko adizkietan ere, euskara estandarrean gertatzen den moduan, iraganaldiko *-n* marka kendu eta zuzenean gehitzen da atzizkia, loturazko bokalik gabe: *nintzan* > *nintza+la*; *netsan* ('nion') > *netsa+la*; *neikian* ('nezakeen') > *neikia+la*... Hori dela eta, askotan sinkretismo kasuak sortzen dira: *ziñan* > *ziñan*; *zan* > *zan*; *ziran* > *ziran*; *jatan* > *jatan* ('zitzaidan').

Kontuan izan, goiko adibide gehien-gehientsuenetan adizkiaren azken bokala *-a* dela. Horrenbestez, ez dago garbi loturazko bokalik ez den gehitzen, edo lotura egiten duen bokal hori ere *-a-* den eta biak elkartzean bokal-bikote hori soildu egiten den (*a+a* > *a*).

• **-e- loturazko bokala**

Aditza kontsonantez amaitzen denean, oro har, *-e-* bokalak egiten du lotura, aditz laguntzaileetan zein aditz trinkoetan: *naiz-ela*, *nabil-ela*, *nator(r)-enian*, *goiaz-enetik*, *jataz-elako* ('zaizkidalako'), *zatoz-enez*...

Lehen pertsona singularreko adizkietan ere, normalean, adizkia zuzen-zuzenean gaineratzen da *-t-* markaren ondoren, euskara estandarreko legearen aurka. Adibidez: *dotela*, *zaittuten*, *detsuten*, *dittuten*, *detsatelako*, eta abar. Badirudi aditz trinkoetan lehia handiagoa dela: *dakittela* / *dakirala*; *diñoten* / *diñuaran*; *daroiatela* / *daroiadala*.

Republikia, esan detsuten moduan, zelan zeguan hori krisis haundixori... Eta Eibarren gero Republikian gaiñera jausi zan hori krisisori. Eibar izan zan "el detonador" izan zan. Oseake Espaiña guztian zeguan hori nahixori, baiña Eibarren izan zan horixe, esan detsutena, fosforua.

• **-a- loturazko bokala**

Bizkaiko zenbait hizkeratan *-a-* da loturazko bokal arruntena, baina Eibarren kasu bakan batzuetan bakarrik aurkituko dugu⁹⁸. Badirudi batez ere hirugarren pertsonako adizkiekin gertatzen dela (Nork=hark), *-i-*, *-o* eta *-u* bokalez amaitzen direnean.

⁹⁸ Badirudi lehen ugariagoa zela, testu zaharretan gaur egungo inguruneetatik kanpo ere aurkitu dugulako *-a-* lotura hori: *direan* 1685eko kopletan, *dattozarian*, *dauquezala*, *dagozanettatic*... 1754ko ordenantzetan, *dechaguzan* Francisco Arrateren sermoietan, eta abar (Izagirre et al., 2000).

Aditz laguntzaileen artean kasu gutxi batzuk besterik ez daude eta ez hiztun guztien ahotan: *nau* (*nauan, nauala, nauanetik...*); *dittu* (*dittuan, dittualako...*); *detsu* ('dizu') (*detsuan, detsuala...*).

Eta ikusten **nauan** bakotxian, saltuak eta zaunkak eta... sinistu be ezin leike ein zelan gogoratzen **nauan**.

Badakit esan **detsuala**, baina horrekin ez da nahikua.

Eitten **dittuan** bittartian, ba, aurrera, nahiz eta sosiguz ein. Ez eittia txarragua.

Esan bezala, hiztun guztiek ez dituzte forma horiek erabiltzen. Lehenengoaren kasuan, arruntagoak dira *naben, nabela...* tankerakoak; *detsu* aditzaren kasuan loturako bokal gabeko formak ere erabiltzen ditugu: *detsula, detsun...*

Aditz trinkoen arteko adizki batzuetan arau nagusia horixe da, *-a-* bokala izatea lotura egiten duena, eta ez *-e-*. Arau hau, *-i-*, *-u-* edo *-o-* hizkiez amaitzen diren adizkiekin bakarrik gertatzen da. Zerrenda laburra da, izan: *dihardu* > *dihardu-a-n*; *daki* > *daki-xa-lako*; *diño* > *diñu-a-n*; *dirudi* > *dirudi-xa-nez*.

Hizkuntziak bere bidia ein bihar dau, euskeria **dakixan** jentiakin, idazliekin, maixuekin. Eta hortik juan bihar da.

Gero juaten zuan, zigarro bat hartzera juaten zuan, ta jaikitzen nitzuan, ta haxe ikusi zelan eitten **diharduan**.

Egon aditzaren kasuan, bi aukera daude: loturako bokalik gabe (*nao + la* > *naola*; *dao + la* > *daola*), edo *-a-* bokalarekin (*nao + ala* > *nauala*; *dao + ala* > *dauala*).

Amaitzeko, Nor-Nork saileko *-ke* amaieradun formetan (ondoriozkoetan eta aha-lezkoetan), hautazkoa da loturazko *-a-* bokala eranstea: *neuke* > *neukiala*, *genduke* > *gendukiala*... *neike* > *neikiala*; *leike* > *leikiala*; *geinke* > *geinkiala*...

4.1.36.- Infinitiboan *-(t)u* aspektu-markaren hiru aldaera

- **tu(du):**

Euskalki gehienetan moduan, hainbat aditzetan agertzen da atzizki hau, euskaraz orokorra dena. Euskarazko erroa dutenetan, zein mailegu zaharretan: *agertu, aittatu, sartu, hartu, berotu, bildurtu, garbittu, eskatu, aukeratu, parkatu...*

Aditzoina *n* edo *l* amaitzen denean, *-tu>-du* bilakaera gertatzen da: *afaldu, aldendu, ezkondu, konpondu, ahalegindu, epeldu...*

- **au**

Gaztelaniatik mailegatutako *-ar* amaieradun aditzetan gertatzen da: *amatau, estimau, kontau, harrapau, komunikau, apartau, pentsau...* Mendebaleko euskalkiaren ezaugarria da (Zuazo, 1998). Euskal erroko beste batzuetan ere gertatzen da (*barriztau, izentau, nahastau...*), baina salbuespena dira.

- **idu:**

Amaitzeko, eta kasu honetan ere mendebaleko eredia jarraituz, gaztelaniaz *-er / -ir* amaiera duten aditzetan partizipioa *-idu* da: *atrebidu, kabidu, prijidu, segidu, zerbidu, mobidu, sufridu...* Gazteen artean galtzen dago ezaugarri hau, eta *-ittu* amaiera gero eta gehiago entzuten da: *segittu, sufrittu, prijittu, mobittu...*

4.1.37.- Aditz-izenak

Eibarren euskara batuaren erregelak jarraituz sortzen dira aditz-izenak, eta bi multzo besterik ez ditugu:

- **tzen:**

Honako aditzek hartzen dute bukaera hau:

-tu amaieradun aditzek: *apurtzen, ahaztutzen, hartzen, agertzen, saltzen...*⁹⁹

-au amaieradun aditzek: *pentsatzen, asmatzen, barriztatzen, billatzen...*

-i amaieradun aditzek (erroa ez bada frikariz amaitzen): *ekartzen, ibiltzen, erabiltzen, ipintzen, erabagitzen, irabazten, erakusten, eukitzen...* (frikaridunetan ez: *ikasten, jaus-ten, erosten...*)

-a, -e, -o amaieradun aditzek: *etaratzen, gordetzen, erretzen, jasotzen...*

Multzo honetan salbuespen bat dago: *joten*.

⁹⁹ Aditz erroan frikaria duten aditz batzuek bi partizipio dituzte: *hoztu/hoztittu; balztu/balztittu; hustu/hustittu*.

¹⁰⁰ Aditz-oina frikaria denean, eta partizipioa *-tu*, aditz-izena bi eratan eratu daiteke: *pizten/piztutzen; pozten/poztutzen; moztzen/moztutzen; hozten/hoztutzen...*

• **ten:**

Honako aditzek hartzen dute bukaera hau:

-n amaieradun aditzek: *emoten, jaten, egoten, eraten, eitten...*

-i amaieradun aditzek (baina erroa frikari batez amaitzen bada): *hasten, ikusten, ikas-ten, erosten, hezten, hazten...*

Multzo honetan salbuespen ugari dago, Eibarko hizkeraren ezaugarri delako, *-ten* beharko luketen hainbat kasutan, *-tzen* egitea. Esate baterako: *ekitzen, urtetzen, entzutzen, erantzutzen, jakitzen, jardutzen, etetzen, etzintzen...*

Joera hori mendebalean arrunta den ezaugarriaren aurkakoa da, Bizkaiko hizkera gehienetan *-ten* formak nagusitzen direlako (Zuazo, 1998): *ekarten, ibiltten, ipintten, etorten, igoten, asmaten, erreten, eukitten...* Eibarko Agiñaga auzoan, arruntak dira *hiltten, ipintten* eta antzekoak, baina gainontzeko auzoetan eta kalean ez dira ia sekula entzuten¹⁰¹.

Inguruko hizkeretan arruntak diren beste forma batzuk ere ezezagunak dira Eibarren. Esate baterako, mendebaleko hizkera askotan sistematikoak eta erregularrak diren *-etan* (*akabetan, gobernetan, toketan...* eta *-tuten* (*apurtuten, errepartiduten...*) ez dira erabiltzen (salbuespen bakarretakoa *ahaztutzen* da).

Debagoienean oso emankorra den *-ketan* atzizkia ere ez da erabiltzen, baina, hala ere, fosildutako hainbat forma gorde dira, batez ere baserriko lanekin eta jolasekin lotutako berbetan: *jorraketa, goldaketa, araketa, atxurketa, gorriketa, kardaketa, simaurketa, saraketa, zuriketa...* eta *afariketan, burruketan, antxixiketan, harrapaketan, barriketan...*

4.1.38.- Forma burutugabeak

Forma burutugabeak sortzeko bi era daude Eibarko euskararen (sintaxiko 5.2.2.5. atala ere ikusi):

1.- *-rakuan*: etortzerakuan...

2.- *-ruzkuan*: apurtzeruzkuan...

¹⁰¹ Edozein modutan, joera hori nahiko berria dela dirudi. F. Arrate, R. Galdos eta T. Etxebarriaren testuei erreparatzen badiegu, XIX. mende hondarrean oraindik ere mendebaleko ereduko aditz-izenak aurkitzen ditugu Eibarko idazleen lanetan: *etorteko, amaituteko, jarteko, iltera, ekarteko...* (Izagirre et al., 2000).

Jatorriz, beharbada, ezberdinak izango dira, bigarrenak lehenengoak baino mugimendu gehiago adierazten duelako, baina gaur egungo Eibarko euskaran erabat baliokideak dira forma biak.

Igotzeruzkuan ekarrizu ogixa, bai?

Biharretik **urtetzeruzkuan** ikusi neban, eta kasorik bez!

Eta permisua **eruatorakuan**, Timoteo Zubiatek (ha zan representantia) esan zetsan: "Bai ba, zuek koruan eta profesionalak zarie eta etarako ez dozue pre-mixua?".

Mendebaleko hizkera gehienetan formarik arruntena *-keran* da (Zuazo, 1998): *etorrikeran, ikusikeran, apurtukeran, urtekeran, sartukeran...* Eibarren, ostera, ezezagunak dira forma horiek. Beste hizkera batzuetan ondo zabaldua dagoen *-t(z)ean* (*etortzean, erostean, erabiltzean...*) ere ez da arrunta Eibarren.

4.1.39.- Partizipioak atributu gisa

Partizipioak atributu gisa erabiltzeko aukera bakarra dago Eibarren: **-ta**. Esate baterako: *atarata, ixilduta, sartuta, erositta, jarritta, ipinitta...*

Beste euskalki batzuetako **-rik** eta **-ak** aukerak (*sarturik; sartuak; egonik, egonak;* eta abar) ezezagunak dira Eibarren, salbuespen bakanen bat salbu (esate baterako, *pentsaurik*).

Ondorioz, *apurturiko* bezalako formak ere arrotzak dira Eibarren, eta **-tako** atzizkiarekin eratzen dira tankera horretako erlatiboak: *sartutako, apurtutako, etorritako, hartutako...* (eta ez *saturiko, apurturiko, etorririko, harturiko...*). (Azalpen gehiago Sintaxiaren atalean; ikus 5.3.2. eta 5.3.6. puntuak).

4.1.40.- **-gi** motako aditzak

Euskaraz ezaguna da zenbait aditz sortzeko bi atzizki daudela, euskalkiaren arabera: **-ki** eta **-gi**. Eibarren, mendebal osoan moduan, bigarren taldekoak erabiltzen ditugu¹⁰²: *eregi, esegi, ebagi, erabagi...*

¹⁰² Bizkaiko beste herri batzuetan erabiltzen den *jagi*, ostera *jaiki* da beti Eibarren. Aramaion ere *egogi* eta *jagi* jaso ditu Ormaetxeak (2003). Eibarren ez dira erabiltzen.

4.1.41.- Mendebaleko *-n* amaierako aditzik ez

Mendebaleko hizkera batzuetan sarritan *-n* kontsonantea gehitzen da aditzaren infinitiboan¹⁰³: *hartun, sartun, eukin, igon, lotun...* Eibarren ez dago horrelakorik.

4.1.42.- Jokamolde berezia duten zenbait aditz

Hasarratu

Nor-Nori erara ere joka daiteke. Gauza bera gertatzen da *amorratu, ernegau, berotu* aditzekin ere, antzeko esangura dutenean.

Hasarretu ein jako.

Pentsau

Nor-Nori erara ere joka daiteke, «iritzi» adiera duenean:

Zer pentsau jatzuen atzoko pelikulia?

Beittandu

Nor-Nori erara jokatzeko da:

Zer beittandu jakuen galdetu detset, eta ez jakuela gustau, zu. Ez jakuela bape gustau.

Akordau / Ahaztu

Nor-Nori erara jokatzeko dira normalean:

Akordatzen jatzu zelan etorri ziran? Neri ahaztu ein jata.

Damutu

Nor-Nori erara jokatzeko da beti:

Juan zaitte hara; ez jatzu damutuko

¹⁰³ Adibideak Lekeitiokoak: Hualde et al. (1994).

Entendidu / Aittu

Nor-Nori erara ere joka daiteke:

Zer, neska asuntuak be aitzen jak, ala? (Zuazo, 1999)

Ekin

Nor eta Nork erara ere joka daiteke:

*Eta **ekin** neban, azkenian, horrek biharrokin, eta ez jatan damutu. Ez jauna.*

*Baiña krisisa **ekinda** zeguan pixkat.*

*Baiña akabau zan ha zera, eta beste bat etorri bihar zan. Beste Republika bat. Constituyente ha **ekin** zan, eta Republika proklamau da, eta oin ba beste zer bat, elekziño batzuek.*

Nor-Nori-Nork erara ere joka daiteke, baina esaldian ez da zertan datiborik agertu behar:

*Eta **ekin gentsan**. Eta hiru egunetan etorri zan. Eta ein genduazen goixak eta behiak astindu*

*Han lutxa bat egon zan. Eske eze patronuak benzitzia nahi zebeu FAIXa eta CNTia. Eta CNTiak, patronuak porrot eittia. Eta alkar **ekin zetsen** hiltzen.*

*Eta nik **ekin netsan** esaten danegaz juntau bihar giñazela, "pequeña burguesiagaz" be bai eta "campesiniagaz" be bai, eta, en fin, danok juntau bihar giñazela*

Igo; urten; jardun; jarraitu

Mendebal osoan legez, iragankorrak dira Eibarren.

*Ba, **urten nebalako** kalera neure pistolatxuagaz eta reboluziñua eittera!*

*Bilbon gazterixiak kalera **urten zeban**. Eusko... hónek, Acción Vascakuak **urten zeben** eta háregaz mendigoizaliak, eta PNVko jente gaztiak! Eta, sobre todo, Jose Antonio de Agirre.*

*Eta gero hamendik, ba, Kubarako bidiak **urten zestan** eta hara juan nintzan.*

*Ni han nenguala, **igo zeban**... Nik, pentsaizu, lehelengo dolarrak erosi nittuanian, Gernikan, estraperluan erosi nittuan. "A treinta y siete pesetas".*

Laurak inguruan edo lau eta erdiak inguruan hementxe. **Igotzen dot** gora, jokuan eitten dogu eta atzera gero zazpi tt'erdietan...

Ta eskopetan uste dot **jardun ebala**, ikasten nunbaitten. Hori ez dakit nik, nere anaiak gehixago ekixan.

Trabak ipintzen **jardun zeban**. Eta horregaittik be eibartarrak kontra zeguaz-en.

Hala ere, galtzen ari da gazteen artean, inguruko herrietan bezala (Elexpuru, 2005; Larrañaga, 1998).

izena euki/izan

Hainbat modu daude. Gutxienez lau hauek:

Zelan dakazu izena?

Zer izen dakazu?

Zelan dozu izena?

Zelan jatzu izena?

Azken hori nabarmendu nahiko genuke, nagusien artean nahiko arrunta izan arren, gazteen artean ia erabat desagertu delako. Eibarren ez ezik, inguruko herrietan ere entzun izan dugu. Badirudi Bizkaian ere bazela esamolde hori, baina Eibarren bezala, gainontzeko lekuetan ere indarra galtzen.

4.2. ADBERBIOAK

Adberbioak aditzari laguntzen dioten perpaus-osagaiak dira. Hala ere, batzuetan, adjektiboari edo beste adberbio bati ere lagun diezaioke. Adberbioen artean, adizlagunak eta aditzondoak bereizi ohi dira. Adizlagunak dira kasu-marka edo postposizioa hartzen dutenak (adibidez, *etxera*, *dударик барик*, etab.). Aditzondoak, berriz, aparteko morfemaren beharrik ez dutenak, hiztegien sarreretan zuzen-zuzenean agertzen direnak (besteak beste, *inoiz*, *poliki*, *aspaldi*, etab.). Lan honetan, ez ditugu aditzondoak eta adizlagunak bereiziko, eta guztiei 'adberbio' deituko diegu.

Jarraian, bost adberbio-multzo azaltzen dira, irizpide semantikoaren arabera sailkatuta: denborazko adberbioak, lekuzkoak, moduzkoak, maila-adberbioak eta irizizkoak.

Berez aditzondoak diren hitzez gain (*atzo*, *gaur*, *inoiz*, *urrin*, *txarto...*), aditzondoak sortzeko beste lau bide ere badaude, gutxienez, Eibarren: **-bait** (*norabaitt*, *nunbaitt*, *noizbaitt...*), **-nahi** (*noiznahi*, *nunahi...*), **edo-** (*edonun*, *edozelan...*) eta **errepikapena** (*nuonora*, *noizonoiz*, *nunonun...*). Horiek guztiak aurkituko ditugu Eibarren, oso arruntak izan ez arren.

4.2.1. DENBORA-ADBERBIOAK

Funtsean NOIZ galderari edo galdera honetatik eratorriei erantzuten dieten adberbioak dira. Era honetako adberbio ugari dago:

- *Edonoiz*, *iñoiz*, *noiz*, *noizbaitt*, *noiznahi*, *noiz(ed)onoiz*

Iñoiz-iñoiz eitten eban, *baiña* ogixak gitxi, *artua* asko

Ta berak be **noiz edo noiz** gosia edo...

- *Aguro*, *aldez aurretik*, *antxiña*, *artian*, *askotan*, *aspaldi*, *astero*, *atzo*, *atzera*, *aurten*, *azkenian*, *barriro*, *barriz/berriz*, *batera-batera*, *baterakuan*, *behingoz*, *berandu*, *berihala/bela*, *beti*, *bide batez*, *bittartian*, *bixar*, *bixen bittartian*, *egundo*, *egunez*, *etzi*, *betidanik/betittik*, *etzidamun*, *gabaz*, *gaur*, *gehixenetan*, *gero*, *goiz(a)o harañegun*, *harañegun antxitxik*, *igez*, *lantzian behin*, *laster*, *lehen*, *lehengunian*, *lehelengo eta behin*, *lehenao*, *oiñ*, *oindiokan*, *oindi(txik)*, *ointsuan*, *oin hurrengo*, *orduan*, *ostera*, *pixkatian*, *sarri(ttan)*, *takian-potian*, *tarteka*, *honezkeroko*, *segiduan*, *sekula...*

*Ipiñi zeben, baiña errial bi eta bolia **aguro** juaten da eta bestia be bai.*
*Lehen Deportibuan Sarasketakin ibili zan kororen baten edo, oin dala... **aspaldi**.*
*Ta **lantzian behin**, kutxararik eta ez erabilli, holan eraiñ kazueliari.*
*Gaiñera, **sarrittan** guk jokatzen genduanian...*
*Gero hona etorri eta **takian-potian** Martutenera. Bai.*
***Oiñ** ez dao lehengo moduan sardandegirik.*
*Patrimusturri emon ez dakit **lantzian behin** zeoze, txakur haundi bat edo, ...*
*Ni be ez nok interesau **sekula** historiakiakin ta oin penia jaukat, oin penia jaukat*
*Gero, ba, suizidatzia... suizidau **azkenian** eta en fin.*
*Eta oiñ ez dakit, **honezkero** asko ezingo dogu ein!*
*Eta **bittartian** jaiki jakuzen Donostiako militararak.*

4.2.2. LEKU-ADBERBIOAK

Leku-adberbioak lau multzo nagusitan bana daitezke: erakusleetatik eratorritakoak, *ber-* aurrizkidunak, zehaztugabeak (*edonun, iñora...*), eta bestelakoak.

4.2.2.1.- Erakusleetatik eratorritakoak

Leku-adberbioen artean erabilienak erakusleetatik eratorritakoak dira. Hona hemen Eibarko formak (parentesi artean forma indartuak eman ditugu):

| | | | |
|---------|---------------|---------------|--------------|
| NUN | hamen(txe) | hor(txe) | han(txe) |
| NUNGO | hamengo(txe) | horko(txe) | hango(txe) |
| NUNDIK | hamendi(txi)k | horti(txi)k | handi(txi)k |
| NORA | hona(t)(xe) | horra(t)(xe) | hara(t)(xe) |
| NORAIÑO | honaiño(txe) | horraiño(txe) | haraiño(txe) |
| NORUTZ | honutz | horrutz | harutz |

Eta **horra** bialdu dot, ze hor jaixua zan eta.

Gero **handitxik**, arratoiak ugari!

Hamendik ixura juten giñan **hamenditxik, hamen...**

Hantxe zeguan Orbeaneko lehelengo taillarra...

Eskola Armerixia proiektau zuan **hantxe, hortxe** Korrida plaza gaiñian.

4.2.2.2.- Ber- aurrizkidunak

Talde honetakoak dira, esate baterako: *bertan(txe), bertako(txe), bertatik, bertara(xe), bertaraiño(txe), bertarutz, ...*

Ber-bertan, bere terrenua holaxe ta “¡Por aquí!”

Ta proponidu be ein zeskuen guri **bertara** juan, Madridera...

Ni ez naiz han **bertara** jun, baiña ikusi besterik ez dago liburuetan.

4.2.2.3.- Zehaztugabeak

Hauek ere asko erabiltzen dira. Adibidez: *edonun, nun(ed)onun, iñun, iñora, nunbaitt, norabaitt, nunai, noranahi* eta horiei postposizio desberdinak erantsiz sortzen direnak.

Holaxe **norabaitt** juandakuan bazkaittara edo, bien. Baiña...

4.2.2.4.- Bestelakoak

Amaitzeko, gainontzeko leku-adberbioen multzo zabala dugu: *hurrian* (‘gertu’), *urrin, kanpuan, aurrian, atzian, onduan, aldian* (‘soinean’), *aldamenian, albuan, goixan, ostian, azpixan, gaiñian...*

Barzelonara edo, **urrin** urten bihar eban.

Bai. **Hurrian** geunkan guk, Kalamuan.

Telefonua beti **aldian** jarabik harek! Biharretik deittu bihar detsela eta hango kontuak ein bihar, eta holakuak. Telefonua beti **aldian** euki bihar.

*Eta hango nausixak, **aurrian** eguazetak, ofiziñetan eta...*

*Bai, normalien, txahala ipiñi **onduan** ta mieztau ta mieztau ta mieztau eitten jok ta garbittu ta garbittu.*

4.2.3. MODU-ADBERBIOAK

Modu-adberbioak ere bost taldetan bana daitezke: erakusleetatik eratorritakoak, zehaztugabeak, *-to* atzizkiaz osatutakoak, *-ta* atzizkiaz osatutakoak eta bestelakoak.

4.2.3.1.- Erakusleetatik eratorritakoak

Talde honetakoak dira erakusleak oinarri hartuta eratzen diren modu-adberbioak, batez ere *holan* eta *halan*, eta baita euren eratorri guztiak ere: *holan(txe)*, *halan(txe)*, *halan(txik)*

Holan, goittik behera etzanda igual behixa ta urten, urten horrek boliorrek ta hori txarra dok hori!

*Geruago eta nere barrurago sartu, ikusten dot eze **holantxen** dala.*

Halantxik ein bihar dok mundua kanbixatzeko.

*Eta komunismua be **halantxen** agertu zan.*

Halan zan.

4.2.3.2.- Zehaztugabeak

Zehaztugabeak dira, besteak beste: *zeozelan*, *nolabaitt*, *iñola*, *iñundik iñora*, *ezetara* be...

*Ezta pentsau bez, **iñundik iñora** ez neban nahi holakorik etxian!*

*Batera ta bestera ibili ziran, ta **zeozelan** konpondu ziran aurrera atartzeko.*

Ezetara be ezin neban asmau harekin umiak.

4.2.3.3.- -TO atzizkiaz osatutakoak

-TO atzizkia hartuz, hainbat adberbio sortzen dira: *ondo, ederto, hobeto, txarto, politto, zatarto...* Eibarren ez da bat ere arrunta *-ki* atzizkia erabiltzea adberbioak sortzeko, *gaizki* moduko hitz solteren batean ez bada.

*Juan giñuan geu be ba **ederto**...*

Politto eitten eben batzuek, e!

*Horixe hartu neban **txarto**.*

Talde honetako adberbioak indartzeko, ohiko partikula indartzaileak erabiltzeaz gainera (*oso ondo, oso txarto, benetan politto, benetan ederto...*), beste aukera bat ere badago, *be* ('ere') partikularen bitartez:

Ondo be ondo jan genduan lehungunian.

*Bai, bai, bai... **Politto be politto** ibili giñan atzo Aramaixon.*

4.2.2.3.- -TA atzizkiaz osatutakoak

Aditz batzuei *-ta* atzizkia gehituz ere osatu daitezke modu-adberbioak. Talde honetakoak dira, adibidez: *nekatuta, eginda, esanda, nahitta...*

*Gauzak ondo **einda** egongo zirala!*

*Baiña nik alde z aurretik, lehenago **esanda** neukan.*

4.2.2.3.- Bestelakoak

Talde luzea da hau. Erabilienetako batzuk ondoko hauek: *benetan, pozik, oiñez, negarrez, saltoka, hutsik, astiro, bizkor, errez, bere kautan, birritan, bizkor, tikili-makala, urbitsetan, ziharretara, zihetz, azkar, ahuzpez, aldasgora, apropos, atzekuaz aurrera, egunaz, itxulittara, gaiñezka, ganoraz, geldiro, halako baten, harenbaten, jo-ta-pasa, ortosik, narrutsik, hegaztadian letxe, lau oiñian, makal, nahi tta nahi ez, nahiezta, piskaka, sosiguz, aidian, derrigor, egoki, eraz, antxixiketan, harrapataka...*

Eta kentzen jakue **errez-errez**.

Aidian irabazi najuan pelota partidua, **aidian**.

Bueno, hori ni eskolara hasi orduko **hutsik** e(g)uan.

Katolikua, **bene-benetan** izan nintzan.

4.2.4.- Maila-adberbioak

Ikus 3.5.1. puntua.

4.2.5.- Iritzi-adberbioak

Adberbio hauen bidez, perpausean baieztatzen dena nolabait modulatu-edo egiten da: *bai ba, jakina, beinke, duda(rik) barik, erregular, hain zuzen, nunbaitt, biharbada, bali-txeke...*

Beinke, *han be horixe eitten eben, e?*

Biharbada *gehixago emongo zebala.*

Dударик барик *baliozkotzat joten dot, baiña...*

Bueno, gero, ba, baitta be maixuen artian gero, guk **hain zuzen...**

4.3. ADITZ-TAULAK

Ondorengo orrialdeetan, Eibarko aditzen taulak aurkituko dituzu. Taula horiek osatzeko orduan ondorengo irizpideak jarraitu ditugu:

- Aditzen taulak idazteko orduan batuko grafia jarraitu dugu. Taula hauek Eibarko euskaraz idazteko ere balio dezaketenez, pentsatu dugu interesgarria dela irakurleari adizkien idazkera zein den zehaztea. Pentsatu dugu hobe dela *detsa* eta *ziran* idaztea, eta ez *detza* edo *siran*. Fonetika atalean aipatu ditugu Eibarko euskararen ezaugarri nagusiak, eta horietan aurkituko du irakurleak aditzon ahoskeraren inguruko argibide gehiago.
- *Eibarko aditza* (Eibarko euskara mintegia, 1998) liburuan, aditz-sistema osoa eta adizkien forma osoak kaleratu zituzten. Gure kasuan, ahozko formetara gehiago hurbiltzen ahalegindu gara:
 - erabiltzen ez diren adizkiak ez ditugu tauletan jarri; eta gutxi erabiltzen direnak adierazi egin ditugu (oharren bidez, edota grisez markatuz)
 - bestalde, adizkiak ahoskatzen diren moduan idatzi ditugu, eta ez dugu jo benetako jatorrizko formetara. Adibidez, *nitzan* ('nintzen') eta *neike* ('naiteke') idatzi ditugu, eta ez *nintzan* edo *neinke*.
 - Eibarren arruntak diren forma guztiak (edo gehientsuenak) taularatu ditugu, zuzen-zuzenak izan ez arren. Adibidez, analogiaz sortutako adizki berezi batzuk, edo plural-marka errepikatuz sortutakoak (*diraz*, *dittuguz*...) edo kasu-marka bat errepikatuz eratzen ditugunak (*zekizun* 'zenekien', *gentsugun* 'genizun'...). Horiek guztiak ere tauletara ekarri ditugu.
- Ondorioz, askotan adizki bat baino gehiago dago kasu berdinerako. Guk ez dugu hobetsi bata edo bestea.
- Aditzaren 4.1.22 puntuan aipatu dugun moduan, *h* marka daramaten hitanoko adizkietan ez dago sexu-markarik, eta berez, gizonetzko eta andrazko formak berdinak dira. Hala ere, Eibarren, «*neutro*» beharko zukeen lekuan adizkia aldatzeko joera handia dago, gehienbat nokako kasuetan, adizki bereziak sortuz: *hintzan* > *hintzanan*, *heban* > *hebanan*; *haut* > *haunat*, *haugu* > *haunagu**, *hittuan* > *hittunan*, *hinduan* > *hindunan*, eta abar. Tauletan izartxo (*) baten bidez adierazi ditugu.

- Gogoan izan aurrerago aipatutako puntu hau: baldintzan, izatez, ez da alokuti-
borik erabili behar, forma neutroa baizik. Hala ere, Eibarren asko darabilgu hita-
noa baldintzan (esate baterako, *balitzok* esaten dugu, *balitza* adizkiaren ordezt),
eta tauletan adierazi egin ditugu.
- Aditz trinkoen kasuan, Nori duten adizkien taulak ez ditugu sartu (ez Nor-Nori,
eta ez Nor-Nori-Nork). Nori-dun aditz laguntzaileak gutxi erabiltzen dira
Eibarren, eta trinkoak are gutxiago (edo ezer ere ez). Formak ikusi nahi ditue-
nak, «*Eibarko aditza*» liburuan ditu den-denak.
- Aditz trinkoetan, Nor-Nork aditzetan ere, taula guztiak ez ditugu jarri.
Indikatiboan bai erabiltzen dira Nor-Nork formak (nahiz eta aditz batzuekin NI,
HA eta HAREK kasuak bakarrik erabili). Gainontzeko adizkiak (baldintza-
ondorioa, ahalezkoa eta agintera) ez dira ia-ia inoiz erabiltzen Eibarren, eta ez
ditugu hemen sartu. Adizki horien taulak ikusi nahi dituenak ere jo beza
«*Eibarko aditza*» liburura.
- Aginterako tauletan agertzen diren forma asko subjuntibokoak dira izan, baina
aginterako zentzuarekin ere erabiltzen direnez, adierazi egin ditugu tauletan.
- Gogoan izan, era berean, Eibarren hirugarren pertsonaren z- marka dantzan
dabilela (ikus 4.1.8 puntua). Batzuetan esan egiten da, eta beste batzuetan ez.
Esate baterako, *eben* zein *zeben* ('zuten'), edo *ekixen* zein *zekixen* ('zekiten').
Horrelako kasuetan, tauletan parentesi artean adierazi dugu (z).
- Fonetika atalean aipatu dugun bezala, pluraleko 1. pertsonako adizkietan oso
erraz galtzen da *-gu* markako /g/ soinua ahozko hizkeran. Tauletan forma
osoak idatzi ditugu, baina kontuan izan berbetan nekez entzungo ditugula.
Ahoz, horretara: *dogu* > *dou*, *jonagu* > *jonau*, *gentsagun* > *gentsaun*, *detsugu* >
detsuu. Antzekoa gertatzen da *egon* aditzaren adizki gehienetan, kasu honetan
ere *-g-* ez delako ia inoiz ahoskatzen: *dago* > *dao*, *zeguan* > *zeuan*, *balego* > *baleo*,
eta abar.
- Ahozko jardunean, hitanoko *j* marka sarri leundu egiten da, eta batzuetan baita
desagertu ere (*najetsan* > *naetsan*), gehienbat *-ajin-* osagaitzat daukaten adizkie-
tan (*najinduan* > *nainduan*). Hala ere, tauletan osorik idatzi ditugu.

aditz-taulak

nor

NOR IZAN/*EDIN

| | ORAINA | LEHENA | BALDINTZA | ONDORIOA | AHALEZKOA ORAINA-HIP | AHALEZKOA LEHENA | SUBJUNTIBOA ORAINA | SUBJUNTIBOA LEHENA | AGINTERA |
|----------|----------------------------|--|---|--|---------------------------------|--|------------------------|--------------------------|-------------------------|
| 1 NI | Naiz Nok Non | nitzan nitzuan nitzonan | banitza banitzok banitzon | nitzake nitzakek nitzaken | neike neikek neiken | neinkian neinkian neinkenana | neiñ / naiñ | neiñ | naiñ |
| 2 HI-g | haiz | hitzan | bahitza | hitzake | heike | heinkian | hariñ | heiñ | hari |
| 3 HI-a | haiz | hintzan hintzanan* | bahintza bahintzana* | hintzake | heike | heinkian heinkenana* | hariñ | heiñ | hari |
| 4 HURA | da dok don | zan zuan zonan | balitza balitzok balitzon | litzake litzakek litzaken | leike leikek leiken | zeikian jeikian jeikenana | deiñ | zeiñ | deilla |
| 5 GU | gara gaittuk gaittun | giñan giñazen giñuan giñuazen giñonan giñonazen | bagiña bagiñuaz bagiñonaz | giñake giñakiaz giñakenaz | geinke geinkiaz geinkenaz | geinkian geinkezen geinkiaz geinkenaz | gaittian gaittezen | geinttian geinttezen | gaittian gaittezen |
| 6 ZU | zara | ziñan | baziña | ziñake | zeinke | zeinkian zeinkezen | zaittian zaittezen | zeinttian zeinttezen | zaitte zaittez |
| 7 ZUEK | zarie zara | ziñien ziñaz(i)en | baziñie baziñaz(i)e | ziñakie | zeinkie | zeinkiet(ze)n | zaittien zaittiezen | zeinttien zeinttiezen | zaittie |
| 8 HAI EK | dira dittuk dittun | zira(ze)n zittuan zittunan | balitzaz balira balitzuaz balitzonaz | litzakez lirakez litzakiaz litzakenaz | leikez leikiaz leikenaz | zeikezen jeikiaz jeikenazen | deittian deittezen | zeittien zeittezen | deittiala deittezela |

Pluraleko kasuetan (gu, zu, zuek), tauletan jarri ditugun formekin batera, sarritan-z pluralgiledun formak ere entzungo ditugu Eibarren: *garaz*, *diraz*, *zaraz*, *bagiñaz*, *ziñakez*, *giñakez*, *geinkez*, *zeinkiez* eta abar. Hala ere, -z pluralgilerik ez duten formak arruntagoak dira oro har.

Aipagarria da "zuek zara" forma, hau da, singularra erabiltzea pluralaren lekuan. Oraindik ere bizirik dago nagusien ahotan, baina galzorian. Francisco Arrateren sermoietan adibide ugari dago: "*Bachueta basara ofendituac beste bachuetan sara ofensoriac*". / "*Conformachen sara esdala egon suendaco es parcacinoric eta es amorichoric*" (San Martin, 1992).

aditz-taulak

nor-nori

INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|--------------------------------------|------------|--------------|-------------------------------------|-------------------------------------|---------------|----------------|--|
| 1 NI | | najak | najan | najako najakok najakon | | najatzu | najatzue | najakue najakuek najakone |
| 2 HI-g | hajatzat | | | hajako | hajaku | | | hajakue |
| 3 HI-a | hajataz | | | hajako | hajaku | | | hajakue |
| 4 HURA | jata jatak jatan | jak | jan | jako jakok jakon | jaku jakuk jakun | jatzu | jatzue | jakue jakuek jakone |
| 5 GU | | gajaz | gajanaz | gajakoz gajakuaz gajakonaz | | gajatzuz | gajatzuez | gajakuez gajakuezak gajakonez |
| 6 ZU | zajataz | | | zajakoz | zajakuz | | | zajakuez |
| 7 ZUEK | zajataze | | | zajakoze | zajakuze | | | zajakueze |
| 8 HAIEK | jataz jatazak jatanaz | jaz | janaz | jakoz jakuaz jakonaz | jakuz jakuaz jakunaz | jatzuz | jatzuez | jakuez jakuezak jakonez |

INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|--|--------------|----------------|---|---|-----------------|------------------|---|
| 1 NI | | nintxan | nintxanan | nintxakon nintxakuan nintxakonon | | nintxatzun | nintxatzuen | nintxakuen nintxakuen nintxakonon |
| 2 HI-g | hintxatan | | | hintxakon | hintxakun | | | hintxakuen |
| 3 HI-a | hintxatan | | | hintxakon | hintxakun | | | hintxakuen |
| 4 HURA | jatan jatan jatanan | jan | janan | jakon jakuan jakonan | jakun jakuan jakunan | jatzun | jatzuen | jakuen jakuen jakonen |
| 5 GU | | gintxazen | gintxanazen | gintxakozen gintxakuazzen gintxakonazen | | gintxatzuzen | gintxatzuezen | gintxakuezen gintxakuezen gintxakonezen |
| 6 ZU | zintxatazen | | | zintxakozen | zintxakuzen | | | zintxakuezen |
| 7 ZUEK | zintxatazien | | | zintxakozien | zintxakuzien | | | zintxakuezien |
| 8 HAIEK | jatazen jatazen jatanazen | jazen | janazen | jakozen jakuazen jakonazen | jakuzen jakuazen jakunazen | jatzuzen | jatzuezen | jakuezen jakuezen jakonezen |

BALDINTZA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|---|-----------------|-------------------|--|--|-------------------|--------------------|---|
| 1 NI | | banintxak | banintxan | banintxako banintxakok banintxakon | | banintxatzu | banintxatzue | banintxakue banintxakuek banintxakone |
| 2 HI-g | bahintxat | | | bahintxako | bahintxaku | | | bahintxakue |
| 3 HI-a | bahintxat | | | bahintxako | bahintxaku | | | bahintxakue |
| 4 HURA | balitxat balitxatak balitxatan | balitxak | balitxan | balitxako balitxakok balitxakon | balitxaku balitxakuk balitxakun | balitxazu | balitxazue | balitxakue balitxakuek balitxakone |
| 4 HURA | balejata balejatak balejatan | balejak | balejan | balejako balejakok balejakon | balejaku balejakuk balejakun | balejatzu | balejatzue | balejakue balejakuek balejakone |
| 5 GU | | bagintxaz | bagintxanaz | bagintxakoz bagintxakuaz bagintxakonaz | | bagintxazuz | bagintxatzuez | bagintxakuez bagintxakuezak bagintxakonez |
| 6 ZU | bazintxataz | | | bazintxakoz | bazintxakuz | | | bazintxakuez |
| 7 ZUEK | bazintxataze | | | bazintxakoze | bazintxakuze | | | bazintxakueze |
| 8 HAIEK | balitxataz balitxatazak balitxatanaz | balitxaz | balitxanaz | balitxakoz balitxakuaz balitxakonaz | balitxakuz balitxakuaz balitxakunaz | balitxazuz | balitxazuez | balitxakuez balitxakuezak balitxakonez |
| 8 HAIEK | balejataz balejatazak balejatanaz | balejaz | balejanaz | balejakoz balejakuaz balejakonaz | balejakuz balejakuaz balejakunaz | balejatzuz | balejatzuez | balejakuez balejakuezak balejakonez |

NOR Hura eta Haiek 3. pertsonari dagokizkion adizkiak bakarrik erabiltzen dira Eibarren. Beste guztiak oso-oso gutxi. Horien ordez NORENGANA deklinabide kasua eta NOR adizkia erabiltzen ditugu: *etorri bazintxakuz-en ordez guregana etorri baziña*, eta abar.

ONDORIOA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|---|------------------|-------------------|---|--|-------------------|--------------------|---|
| 1 NI | | nintxakik | nintxakiñ | nintxakixo nintxakixok nintxakixon | | nintxakizu | nintxakizue | nintxakixue nintxakixuek nintxakixone |
| 2 HI-g | hintxakitt | | | hintxakixo | hintxakigu | | | hintxakixue |
| 3 HI-a | hintxakitt | | | hintxakixo | hintxakigu | | | hintxakixue |
| 4 HURA | litxakitt litxakirak litxakiran | litxakik | litxakiñ | litxakixo litxakixok litxakixon | litxakigu litxakiguk litxakigun | litxakizu | litxakizue | litxakixue litxakixuek litxakixone |
| 4 HURA | lejata lejatak lejatan | lejak | lejan | lejako lejakok lejakon | lejaku lejakuk lejakun | lejatzu | lejatzue | lejakue lejakuek lejakone |
| 5 GU | | gintxakiaz | gintxakiñaz | gintxakiox gintxakixuaz gintxakixonaz | | gintxakizuz | gintxakizuez | gintxakixuez gintxakixuezak gintxakixonez |
| 6 ZU | zintxakiraz | | | zintxakiox | zintxakiguz | | | zintxakixuez |
| 7 ZUEK | zintxakiraze | | | zintxakixoze | zintxakiguze | | | zintxakixueze |
| 8 HAIEK | litxakiraz litxakirazak litxakiranaz | litxakiaz | litxakiñaz | litxakiox litxakixuaz litxakixonaz | litxakiguz litxakiguaz litxakigunaz | litxakizuz | litxakizuez | litxakixuez litxakixuezak litxakixonez |
| 8 HAIEK | lejataz lejatazak | lejaz | lejanaz | lejako lejakuz | lejakuz lejakuz | lejatzuz | lejatzuez | lejakuez lejakuezak |

AHALEZKOA (*edin) ORAINA-HIPOTETIKOA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|---|----------------|-----------------|---|--|-----------------|------------------|---|
| 1 NI | | neinkik | neikiñ | neinkixo neinkixok neinkixon | | neinkizu | neinkizue | neinkixue neinkixuek neinkixone |
| 2 HI-g | heinkitt | | | heinkixo | heinkigu | | | heinkixue |
| 3 HI-a | heinkitt | | | heinkixo | heinkigu | | | heinkixue |
| 4 HURA | leikitt leikirak leikiran | leikik | leikiñ | leikixo leikixok leikixon | leikigu leikiguk leikigun | leikizu | leikizue | leikixue leikixuek leikixone |
| 5 GU | | geinkiaz | geinkiñaz | geinkiox geinkixuaz geinkixonaz | | geinkizuz | geinkizuez | geinkixuez geinkixuezak geinkixonez |
| 6 ZU | zeinkiraz | | | zeinkiox | zeinkiguz | | | zeinkixuez |
| 7 ZUEK | zeinkiraze | | | zeinkioze | zeinkiguze | | | zeinkixueze |
| 8 HAIEK | leikiraz leikirazak leikiranaz | leikiaz | leikiñaz | leikiox leikixuaz leikixonaz | leikiguz leikiguaz leikigunaz | leikizuz | leikizuez | leikixuez leikixuezak leikixonez |

Nor-Nork taldeko adizki hauen artean, Nor-Nori-Nork adizkien antzeko formak sortzen dira. Adibidez: *Nik hari emon neikixo* (Nor-Nori-Nork) / *Ni hari juan neikixo* (Nor-Nork). Lehenengo taldekoak arruntak diren arren, taula honetan aurkeztu ditugunak ez dira larregi entzuten ahozko jardunean.

AHALEZKOA (*edin) LEHENALDIA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|---|----------------|-----------------|--|--|-----------------|--------------------|---|
| 1 NI | | neinkian | neikiñan | neinkixon neinkixuan neinkixonan | | neinkizun | neinkizuen | neinkixuen neinkixuen neinkixonen |
| 2 HI-g | heinkiran | | | heinkixon | heinkigun | | | heinkixuen |
| 3 HI-a | heinkiran | | | heinkixon | heinkigun | | | heinkixuen |
| 4 HURA | zeikiran jeikiran jeikiran | zeikian | zeikiñan | zeikixon jeikixuan jeikixonan | zeikigun jeikigun jeikigun | zeikizun | zeikizuen | zeikixuen jeikixuen jeikixonen |
| 5 GU | | geinkiaz | geinkiñaz | geinkiox geinkixuaz geinkixonaz | | geinkizun | geinkizuen | geinkixuezen geinkixuezen geinkixonezen |
| 6 ZU | zeinkirazen | | | zeinkiox | zeinkiguz | | | zeinkixuezen |
| 7 ZUEK | zeinkirazeen | | | zeinkiozeen | zeinkiguzeen | | | zeinkixuezen |
| 8 HAIEK | zeikirazen jeikirazen jeikiranazen | zeikiaz | zeikiñaz | zeikiox jeikixuaz jeikixonaz | zeikiguz jeikiguaz jeikigunaz | zeikizun | zeikizuezen | zeikixuezen jeikixuezen jeikixonezen |

SUBJUNTIBOA (edin*) ORAINALDIA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|-------------------|-------------------|
| 1 NI | | nakixan | nakiñan | nakixon | | nakizun | nakizuen | nakixuen |
| 2 HI-g | hakiran | | | hakixon | hakigun | | | hakixuen |
| 3 HI-a | hakiran | | | hakixon | hakigun | | | hakixuen |
| 4 HURA | dakiran | dakixan | dakiñan | dakixon | dakigun | dakizun | dakizuen | dakixuen |
| 5 GU | | gakixazen | gakiñazen | gakixozen | | gakizuzen | gakizuezen | gakixuezen |
| 6 ZU | zakirazen | | | zakixozen | zakiguzen | | | zakixuezen |
| 7 ZUEK | zakirazien | | | zakixozien | zakiguzien | | | zakixuezien |
| 8 HAIEK | dakirazen | dakixazen | dakiñazen | dakixozen | dakiguzen | dakizuzen | dakizuezen | dakixuezen |

SUBJUNTIBOA (edin*) LEHENALDIA

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|-------------------|-------------------|
| 1 NI | | nenkixan | nenkiñan | nenkixon | | nenkizun | nenkizuen | nenkixuen |
| 2 HI-g | henkiran | | | henkixon | henkigun | | | henkixuen |
| 3 HI-a | henkiran | | | henkixon | henkigun | | | henkixuen |
| 4 HURA | zekiran | zekixan | zekiñan | zekixon | zekigun | zekizun | zekizuen | zekixuen |
| 5 GU | | genkixazen | genkiñazen | genkixozen | | genkizuzen | genkizuezen | genkixuezen |
| 6 ZU | zenkirazen | | | zenkixozen | zenkiguzen | | | zenkixuezen |
| 7 ZUEK | zenkirazien | | | zenkixozien | zenkiguzien | | | zenkixuezien |
| 8 HAIEK | zekirazen | zekixazen | zekiñazen | zekixozen | zekiguzen | zekizuzen | zekizuezen | zekixuezen |

AGINTERA (edin*)

| | NIRI | HIRI-g | HIRI-a | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAIEI |
|---------|-------------------|-------------------|-------------------|--------------------|-------------------|-------------------|--------------------|--------------------|
| 1 NI | | | | | | | | |
| 2 HI-g | hakitt | | | hakixo | hakigu | | | hakixue |
| 3 HI-a | hakitt | | | hakixo | hakigu | | | hakixue |
| 4 HURA | dakirala | dakixala | dakiñala | dakixola | dakigula | dakizula | dakizuela | dakixela |
| 5 GU | | | | | | | | |
| 6 ZU | zakiraz | | | zakixoz | zakiguz | | | zakixuez |
| 7 ZUEK | zakiraze | | | zakixoze | zakiguze | | | zakixueze |
| 8 HAIEK | dakirazela | dakixazela | dakiñazela | dakioxozela | dakiguzela | dakizuzela | dakizuezela | dakixuezela |

aditz-taulak

nor-nork

INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|--|---------|---------|--------------------------------------|---|---------------------|-----------------------|--|
| 1 NI | | nok | non | nau najok najon | | nozu | nozue | nabe najuek najone |
| 2 HI-g | haut | | | hau | haugu | | | habe |
| 3 HI-a | haut haunat* | | | hau haun* | haugu haunagu* | | | habe |
| 4 HURA | dot juat jonat | dok | don | dau jok jon | dogu juagu jonagu | dozu | dozue | dabe juek jone |
| 5 GU | | gaittuk | gaittun | gaittu gaittuk gaittun | | gaittuzu | gaittuzue | gaittue gaittuek gaittune |
| 6 ZU | zaittut | | | zaittu | zaittugu | | | zaittue |
| 7 ZUEK | zaittuet(az) | | | zaittue(z) | zaittuegu(z) | | | zaittue(z) |
| 8 HAIEK | dittut(az) jittuat jittuaraz jittunat jittunaraz | dittuk | dittun | dittu(z) jittuk jittun | dittugu(z) doguz jittuagu jittuaguz jittunagu jittunaguz | dittuzu(z) dozuz | dittuzue(z) dozuez | dittue(z) jittuek jittuezak jittune jittunez |

Lehenengo lerroko 1f eta 1g adizkietan, tauletan adierazitako *nozu* eta *nozue* adizkiekin batera, *nazu* eta *nazue* ere entzuten dira Eibarren, baina batez ere belaualdi gazteenetan.

Guk, *Zuk* eta *Zuek* kasuen pluraletan, forma bi darabiltzagu: *doguz*, *dozuz*, *dozuez* batetik, eta *dittugu*, *dittuzu*, *dittuzue* bestetik. Azken horiek gehiago entzuten dira. *Dauz* ('ditu') eta *dabez* ('dituzte'), ostera, nekez entzungo ditugu Eibarren.

Adizki hauen artean oso arruntak dira pluralgilea errepikatuta duten forma pleonastikoak, esate baterako: *dittuguz*, *ditturaz*, *jittuaraz*, *jittuezak*, *dittuez*, eta abar.

INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|--|-----------|----------------------|--|---|------------|-------------|--|
| 1 NI | | ninduan | nindunan | ninduan na(j)induan na(j)indunan | | ninduzun | ninduzuen | ninduen na(j)induen na(j)indunen |
| 2 HI-g | hinduran | | | hinduan | hindugun | | | hinduen |
| 3 HI-a | hinduran hinduranean* | | | hinduan hindunan* | hindugun hindunagun* | | | hinduen hindunen* |
| 4 HURA | neban najuan najonan | heban | heban hebanan* | (z)eban juan jonan | genduan genduan gendunan | zenduan | zenduen | (z)eban juen jonen |
| 5 GU | | ginduazen | gindunazen | ginduzen ginduazen gindunazen | | ginduzuzen | ginduzuezen | ginduezen ginduezen gindunezen |
| 6 ZU | zindura(ze)n | | | zinduzen | zinduguzen | | | zinduezen |
| 7 ZUEK | zinduera(ze)n | | | zinduezen | zindueguzen | | | zinduezen |
| 8 HAIEK | nittua(ze)n najittuan najittunan | hittuan | hittuan hittunan* | zittua(ze)n jittuan jittunan | genduzen genduazen gendunazen | zenduzen | zenduezen | zittue(ze)n jittuezen jittunezen |

Kontuan izan, goiko adizkien artean *-nd-* kontsonante-taldeak dituzten adizkiak, hiztun askoren ahotan, *nd* > *ñ* bilakatzen direla. Ahaskazteko orduan, hortaz, horrela entzungo ditugu askotan: *ninduan* > *niñuan*, *ninduzun* > *niñuzun*, *zinduzen* > *ziñuzen*, eta abar. Eraldaketa hori, hiztun batzuen kasuan, HURA eta HAIEK adizkietara ere igaro da, eta *genduan*, *zenduan*, *zenduen* adizkiekin batera, *giñuan*, *ziñuan*, *ziñuen* ere entzuten dira (eta plurallean *giñuzen*, *ziñuzen* eta *ziñuezen*). Hala ere, forma horiek ez dira Eibarko forma arruntak, Bergara aldekoak baizik. Ohar hauek ondorengo bi tauletarako ere balio dute, hau da, lehenaldiaren gainean erakitzen diren *balidintzaren* eta *ondorioaren* tauletarako.

Nor-Nork saileko lehenaldiko formetan, hiztun batzuek, *-z-* pluralgilearen aurretik *-a-* bokala sartzeko joera ere badute, beharrezko ez denean, horrelako formak sortuz: *genduzen* > *genduazen* ('genituen'); *zenduzen* > *zenduazen* ('zenituen'). Joera hori ahalezko adizkietan ere somatzen da: *zeikezen* > *zeikiazzen* ('zitzakeen'); *neikezen* > *neikiazzen* ('nitzakeen')...

BALDINTZA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-------------------------------------|-----------|-------------------|-------------------------------------|-------------------------------------|------------|-------------|--|
| 1 NI | | baninduk | banindun | banindu banajinduk banajindun | | baninduzu | baninduzue | banindue banajinduek banajindune |
| 2 HI-g | bahindut | | | bahindu | bahindugu | | | bahindue |
| 3 HI-a | bahindut bahindunat* | | | bahindu bahindun* | bahindugu bahindunagu* | | | bahindue bahindune* |
| 4 HURA | baneu banajeuk banajeun | baheu | baheu/baheun* | baleu balajeuk balajeun | bagendu bagenduk bagendun | bazendu | bazendue | balebe balajebeke balajeune |
| 5 GU | | baginduaz | bagindunaz | baginduz baginduaz bagindunaz | | baginduzuz | baginduzuez | baginduez baginduezak bagindunez |
| 6 ZU | bazindut bazinduraz | | | bazinduz | bazinduguz | | | bazinduez |
| 7 ZUEK | bazinduet bazindueraz | | | bazinduez | bazindueguz | | | bazindueze bazinduez |
| 8 HAIEK | banittu banajittuk banajittun | bahittu | bahittu/bahittun* | balittu balajittuk balajittun | bagenduz bagenduaz bagendunaz | bazenduz | bazenduez | balittue(z) balebez balajittuek balajittune |

ONDORIOA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---|-----------|---------------------|---|-------------------------------------|------------|-------------|---|
| 1 NI | | nindukek | ninduken | ninduke nindukek najindukek ninduken najinduken | | nindukezu | nindukezue | nindukie nindukiek najindukiek nindukene najindukene |
| 2 HI-g | hinduket | | | hinduke | hindukegu | | | hindukie |
| 3 HI-a | hinduket hindukenat* | | | hinduke hinduken* | hindukegu hindukenagu* | | | hindukie hindukene* |
| 4 HURA | neuke neukek najeukek neuken najeuken | heuke | heuke heuken* | leuke leukek lajeukek leuken lajeuken | genduke gendukek genduken | zenduke | zendukie | leukie leukiek lajeukiek leukene lajeukene |
| 5 GU | | gindukiaz | gindukenaz | gindukez gindukiaz gindukenaz | | gindukezuz | gindukezuez | gindukiez gindukiezak gindukenez |
| 6 ZU | zindukeraz | | | zindukez | zindukeguz | | | zindukiez |
| 7 ZUEK | zindukieraz | | | zindukiez | zindukieguz | | | zindukiez |
| 8 HAIEK | neukez neukiaz najeukiaz neukenaz najeukenaz nittukez nittukiaz nittukenaz | heukez | heukez heukenaz* | leukez leukiaz lajeukiaz leukenaz lajeukenaz littukez littukiaz littukenaz | gendukez gendukiaz gendukenaz | zendukez | zendukiez | leukiez leukiezak lajeukiez leukenez lajeukenez littukiez littukiezak littukenez |

Alokutiboa eratzeko modu bi erabiltzen dira Eibarren: bata aditz-forma normalari *k/n* ezarri eratzten dena; bestea, *j* alokutibo ezaugarri duna. NOR = *haiek* kasuan ere, formula da daude aukeran: *-itt-* pluralgileduna bata (*littukez*), *-z* pluralgileduna bestea (*leukez*).

AHALEZKOA ORAINA-HIPOTETIKOA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAI EK |
|----------|--|----------|---------------------|--|--|-----------|------------|---|
| 1 NI | | neinek | neinken | neinke neinek najeinek neinken najeinken | | neinkezu | neinkezue | neinkie neinkiek najeinkiek neinkene najeinkene |
| 2 HI-g | heinket | | | heinke | heinkegu | | | heinkie |
| 3 HI-a | heinket heinkenat* | | | heinke heinken* | heinkegu heinkenagu* | | | heinkie heinkene* |
| 4 HURA | neike neiek najeiek neinken najeinken | heike | heike heiken* | leike leiek lajeiek leiken lajeiken | geinke geiniek geinken | zeinke | zeinkie | leikie leiek lajeiek leikene lajeikene |
| 5 GU | | geinkiaz | geinkenaz | geinkez geinkiaz geinkenaz | | geinkezuz | geinkezuez | geinkiez geinkiezak geinkenez |
| 6 ZU | zeinkeraz | | | zeinkez | zeinkeguz | | | zeinkiez |
| 7 ZUEK | zeinkieraz | | | zeinkiez | zeinkieguz | | | zeinkieze |
| 8 HAI EK | neikez neikiaz najeikiaz neikenaz najeikenaz | heikez | heikez heikenaz* | leikez leikiaz lajeikiaz leikenaz lajeikenaz | gei(n)kez gei(n)kiaz gei(n)kenaz | zei(n)kez | zei(n)kiez | leikiez leikiezak lajeikiez leikenez lajeikenez |

AHALEZKOA LEHENALDIA

| | NIK | HIKL-m | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAI EK |
|----------|--|-------------|----------------------------|--|--|--------------|---------------|--|
| 1 NI | | neinkian | neinkenana | neinkian neinkian na(j)ieinkian neinkenana na(j)ieinkenana | | neinkezun | neinkezuen | neinkien neinkien na(j)ieinkien neinkenena na(j)ieinkenena |
| 2 HI-g | heinkieran | | | heinkian | heinkegun | | | heinkien |
| 3 HI-a | heinkieran heinkieranana* | | | heinkian heinkenana* | heinkegun heinkenaguna* | | | heinkien heinkenena |
| 4 HURA | neikian neikian na(j)ieikian neikenana na(j)ieikenana | heikian | heikian heikenana* | zeikian jeikian jeikenana | geikian geikian geikenana | zeikian | zeikian | zeikian jeikian jeikenena |
| 5 GU | | geinkiazena | geinkenazena | geinkezen geinkiazena geinkenazena | | geinkezuzena | geinkezuezena | geinkiezen geinkiezen geinkenezena |
| 6 ZU | zeinkerazena | | | zeinkezen | zeinkeguzena | | | zeinkiezen |
| 7 ZUEK | zeinkierazena | | | zeinkiezen | zeinkieguzena | | | zeinkiezen |
| 8 HAI EK | neikezen neikiazena na(j)ieikiazena neikenazena na(j)ieikenazena | heikiazena | heikiazena heikenazena* | zeikezen jeikiazena jeikenazena | geinkezen geinkiazena geinkenazena | zeinkezen | zeinkiezen | zeikiezen jeikiezen jeikenazena |

Nor=Haiek kasuan (8. lerroan), *neikezen*, *zeikezen*, *geinkezen* eta *zeinkezen* adizkiekin batera, ondorengo hauek ere erabiltzen ditugu (ziurrenik analogiaz sortuta): *neikiazena*, *zeikiazena*, *geinkiazena*, *zeinkiazena*.

SUBJUNTIBOA ORINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-------------------------|----------|------------|-----------------------|-------------------------|----------|-----------|-----------------------|
| 1 NI | | naixan | naixanan | naixan | | naizun | naizuen | naixen |
| 2 HI-g | hairan | | | haixan | haigun | | | haixen |
| 3 HI-a | hairan | | | haixan | haigun | | | haixen |
| 4 HURA | deiran | deixan | deixanan | deixan | deigun | deizun | deizuen | deixen |
| 5 GU | | gaixazen | gaixanazen | gaixazen | | gaizuzen | gaizuezen | gaixezen |
| 6 ZU | zairazen | | | zaixazen | zaiguzen | | | zaixezen |
| 7 ZUEK | zaixerazen zairazien | | | zaixezen zaixazien | zaixeguzen zaiguzien | | | zaixiezen zaixezen |
| 8 HAIEK | deirazen | deixazen | deixanazen | deixazen | deiguzen | deizuzen | deizuezen | deixezen |

SUBJUNTIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|------------|----------|-------------------------|----------|------------|------------------------|-------------------------|-----------|
| 1 NI | | neixan | neixanan | neixan | | neizun | neizuen | neixen |
| 2 HI-g | heiran | | | heixan | heigun | | | heixen |
| 3 HI-a | heiran | | | heixan | heigun | | | heixen |
| 4 HURA | neixan | heixan | heixan heixanan* | zeixan | geixan | zeizun (zeixan) | zeizuen (zeixen) | zeixen |
| 5 GU | | geixazen | geixanazen | geixazen | | geizuzen | geizuezen | geixezen |
| 6 ZU | zeirazen | | | zeixazen | zeiguzen | | | zeixezen |
| 7 ZUEK | zeixerazen | | | zeixezen | zeixeguzen | | | zeixiezen |
| 8 HAIEK | neixazen | heixazen | heixazen heixanazen* | zeixazen | geixazen | zeizuzen (zeixazen) | zeizuezen (zeixezen) | zeixezen |

Jatorrizko adizkien eraldaketa fonetikoen ondorioz, azkenean HARK-HURA *zeixan* eta ZUK-HURA *zeixan* adizki bikoteak sortzen dira. Gertatzen den anbiguotasuna kentzeko ZU eta ZUEK zutabeetako jatorrizko adizkien lekuetan adizki berriak agertzen dira, beraien *zu(e)* marka azpimarratuz. Ondorioz *zeizun*, *zeizuen*, *zeizuzen*, *zeizuezen* adizkiak sortzen dira. Ez dira gramatika aldetik zuzen-zuzenak, baina jatorrizkoak baino gehiago erabiltzen dira Eibarren. Ikus Aditzaren Morfologia ataleko 4.1.31. puntua.

AGINTERA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|----------|---|---|-----------|----------|---|--|-----------|
| 1 NI | | naik | naïñ | naixala | | naizu | naizue | naixela |
| 2 HI-g | | | | | | | | |
| 3 HI-a | | | | | | | | |
| 4 HURA | deiran | -ik <i>esaik</i> <i>botaik</i> | -iñ <i>esaiñ</i> <i>botaiñ</i> | deixala | deigun | -izu <i>esaizu</i> <i>botaizu</i> | -izue <i>esaizue</i> <i>botaizue</i> | deixela |
| 5 GU | | gaixaz | gaiñaz gaixanaz* | gaixazela | | gaizuz | gaizuez | gaixezela |
| 6 ZU | | | | | | | | |
| 7 ZUEK | | | | | | | | |
| 8 HAIEK | deirazen | -ixaz <i>esaixaz</i> <i>botaixaz</i> | -iñaz <i>esaiñaz</i> <i>botaiñaz</i> | deixazela | deiguzen | -izuz <i>esaizuz</i> <i>botaizuz</i> | -izuez <i>esaizuez</i> <i>botaizuez</i> | deixezela |

aditz-taulak

nor-nori nork

* eutsi

INDIKATIBOA ORAINALDIA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--------------------------------|--------|--------|---------------------------|---------------------------------|---------|----------|------------------------------|
| 1 NIRI | | destak | destan | desta jestak jestan | | destazu | destazue | deste jestek jestane |
| 2 HIRI-g | deuat | | | deuk | deuagu | | | deue |
| 3 HIRI-a | deunat | | | deun | deunagu | | | deune |
| 4 HARI | detsat jetsat jetsanat | detsak | detsan | detsa jetsak jetsan | detsagu jetsagu jetsanagu | detsazu | detsazue | detse jetsek jetsane |
| 5 GURI | | deskuk | deskun | desku jeskuk jeskun | | deskuzu | deskuzue | deskue jeskuek jeskune |
| 6 ZURI | detsut | | | detsu | detsugu | | | detsue |
| 7 ZUEI | detsuet | | | detsue | detsuegu | | | detsue |
| 8 HAIEI | detsset jetsset jetsenat | detsek | detsen | detse jetsek jetsen | detsegu jetsegu jetsenagu | detsezu | detsezue | detse jetsek jetsen |

Nor-Nori-Nork sailean, jatorriz, HAIEK ZUEI eta HAIEK HAIEI adizkietan *ee* bilurak sortzen dira: *detsuee, detsee, jetseek...* Bokal bikote horiek soildu egiten dira Eibarren: *detsuee > detsue; detsee > detse; jetseek > jetsek*. Ondorioz, d7,8 eta h7,8 zutabeak berdinak dira. Zutabe horien arteko parekotasuna Nor-Nori-Nork paradigma osoan gertatzen da, ondorioan izan ezik.

INDIKATIBOA ORAINALDIA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|------------------------------------|----------|----------|-------------------------------|------------------------------------|----------|-----------|--------------------------------|
| 1 NIRI | | destazak | destanaz | destaz jestaz jestanaz | | destazuz | destazuez | destez jetez jestanez |
| 2 HIRI-g | deuaraz | | | deuaz | deuaguz | | | deuez |
| 3 HIRI-a | deunaraz | | | deunaz | deunaguz | | | deunez |
| 4 HARI | detsaraz jetsaraz jetsanaraz | detsazak | detsanaz | detsaz jetsaz jetsanaz | detsaguz jetsaguz jetsanaguz | detsazuz | detsazuez | detsez jetsez jetsanez |
| 5 GURI | | deskuaz | deskunaz | deskuz jeskuaz jeskunaz | | deskuzuz | deskuzuez | deskuez jeskuez jeskunez |
| 6 ZURI | detsuraz | | | detsuz | detsuguz | | | detsuez |
| 7 ZUEI | detsueraz | | | detsuez | detsueguz | | | detsuez |
| 8 HAIEI | detseraz jetseraz jetsenaraz | detsezak | detsenaz | detsez jetsez jetsenaz | detseguz jetseguz jetsenaguz | detsezuz | detsezuez | detsez jetsez jetsenez |

INDIKATIBOA LEHENALDIA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|----------------------------------|--------------------|---------------------|---------------------------------|--|------------------------|--------------------------|-----------------------------------|
| 1 NIRI | | hestan | hestan hestanan* | (z)estan jestan jestanen | | zestazun (zestazun) | zestazuen (zestazuen) | (z)jesten jesten jestanen |
| 2 HIRI-g | neuan | | | (z)euuan | geuan geuagun | | | (z)jeuen |
| 3 HIRI-a | neunan | | | (z)euunan | geunan geunagun | | | (z)jeunen |
| 4 HARI | netsan najetsan najetsanan | hetsan | hetsan hetsanan* | (z)jetsan jetsan jetsanan | gentsan gentsagun gentsan gentsagun gentsanan gentsanagun | zentsan zetsazun | zentsen zetsazuen | (z)jetsen jetsen jetsanan |
| 5 GURI | | heskun heskuan* | heskun heskunan* | (z)eskun jeskuan jeskunan | | zeskuzun (zeskuzun) | zeskuzuen (zeskuzuen) | (z)jeskuen jeskuen jeskunen |
| 6 ZURI | netsun | | | (z)etsun | gentsun gentsugun | | | (z)jetsuen |
| 7 ZUEI | netsuen | | | (z)etsuen | gentsuen gentsuegun | | | (z)jetsuen |
| 8 HAIEI | netsen najetsen najetsenan | hetsen | hetsen hetsenan* | (z)jetsen jetsen jetsenan | gentsen gentsegun gentsen gentsegun gentsenan gentsenagun | zentsen zetssezun | zentsen zetssezuen | (z)jetsen jetsen jetsenen |

Nor-Nori-Nork sailean sarri gertatzen da bi aditz forma berdintzea (HARÉK = ZUK eta HAIEK=ZUEK). Anbiguotasuna saihesteko ZU eta ZUEK zuta-beetako jatorrizko adizkien lekuetan adizki berriak agertzen dira. Ez dira gramatika aldetik zuzen-zuzenak, baina jatorrizkoak baino gehiago erabiltzen dira Eibarren. Batzuetan jatorrizkoak guztiz ordezkatzera iritsi dira (horiek parentesi artean adierazi ditugu). Analogiaz, GUK zutabera ere hedatu da joera hori. Ikus Aditzaren Morfologia ataleko 4.1.31. puntua. Ohar honek pluralerako eta baldintzarako ere balio du.

INDIKATIBOA LEHENALDIA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--|-----------------------|-------------------------|---------------------------------------|---|----------------------------|------------------------------|---|
| 1 NIRI | | hestazen | hestazen hestanazen* | (z)estazen jestazen jestanazen | | zestazuzen (zestazuzen) | zestazuezen (zestazuezen) | (z)jestezen jestezen jestanezen |
| 2 HIRI-g | neuzen | | | (z)euuzen | geuzen geuaguzen* | | | (z)jeuzen |
| 3 HIRI-a | neunazen | | | (z)euunazen | geunazen geunaguzen* | | | (z)jeunazen |
| 4 HARI | netsazen najetsazen najetsanazen | hetsazen | hetsazen hetsanazen* | (z)jetsazen jetsazen jetsanazen | gentsazen gentsaguzen* gentsazen gentsaguzen* gentsanazen gentsanaguzen* | zentsazen zetsazuzen | zentsezen zetsazuezen | (z)jetsezen jetsezen jetsanezen |
| 5 GURI | | heskuzen heskuzen* | heskuzen heskunazen* | (z)eskuzen jeskuzen jeskunazen | | zeskuzuzen (zeskuzuzen) | zeskuzuezen (zeskuzuezen) | (z)jeskuezen jeskuezen jeskunezen |
| 6 ZURI | netsuzen | | | (z)etsuzen | gentsuzen gentsuguzen* | | | (z)jetsuzen |
| 7 ZUEI | netsuezen | | | (z)etsuezen | gentsuezen gentsueguzen* | | | (z)jetsuezen |
| 8 HAIEI | netsezen najetsezen najetsenazen | hetsezen | hetsezen hetsenazen* | (z)jetsezen jetsezen jetsenazen | gentsezen gentseguzen* gentsezen gentseguzen* gentsenazen gentsenaguzen* | zentsezen zetssezuzen | zentsezen zetssezuezen | (z)jetsezen jetsezen jetsenezen |

BALDINTZA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|---------------------------------|---------|----------------------|---------------------------------|--|-----------------------|-------------------------|------------------------------------|
| 1 NIRI | | bahesta | bahesta bahestan* | balesta balestak balestan | | bazensta bazestazu | bazenste bazestazue | baleste balestek balesten |
| 2 HIRI-g | baneuk | | | baleuk | bageunk bageuagu | | | baleue |
| 3 HIRI-a | baneun | | | baleun | bageun bageunagu | | | baleune |
| 4 HARI | banetsa banetsak banetsan | bahetsa | bahetsa bahetsan* | baletsa baletsak baletsan | bagetsa bagetsagu bagetsak bagetsagu bagetsan bagetsanagu | bazetsa bazetsazu | bazetse bazetsazue | baletse baletsek baletsen |
| 5 GURI | | bahesku | bahesku baheskun* | balesku baleskuk baleskun | | bazensku bazeskuzu | bazenskue bazeskuzue | baleskue baleskuek baleskune |
| 6 ZURI | banetsu | | | baletsu | bagetsu bagetsugu | | | baletsue |
| 7 ZUEI | banetsue | | | baletsue | bagetsue bagetsuegu | | | baletsue |
| 8 HAIEI | banetse banetsek banetsen | bahetse | bahetse bahetsen* | baletse baletsek baletsen | bagetse bagetsegu bagetsek bagetsegu bagetsen bagetsenagu | bazetse bazetsezu | bazetse bazetsezue | baletse baletsek baletsene |

Lehenago ere aipatu dugu hitanoko *-aj-* marka erraz galtzen dela hitz egiterakoan. Baldintzako adizki hauetan, desagertu ere egin da. Esate baterako: *banajetsak > banetsak; balajestak > balestak; balajeskuk > baleskuk*; eta abar. Berdin-berdin plurallean.

BALDINTZA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--------------------------------------|-----------------------|-------------------------|---|--|-------------------------|---------------------------|--|
| 1 NIRI | | bahestaz | bahestaz bahestanaz* | balestaz balestazak balestanaz | | bazenstaz bazestazuz | bazenstaz bazestazuez | balestaz balestazak balestanaz |
| 2 HIRI-g | baneuaz | | | baleuaz | bageuaz bageuaguz | | | baleuez |
| 3 HIRI-a | baneunaz | | | baleunaz | bageunaz bageunaguz | | | baleunez |
| 4 HARI | banetsaz banaetsaz banaetsanaz | bahetsaz | bahetsaz bahetsanaz* | baletszaz baletszazak baletszanaz | bagetsaz bagetsaguz bagetsazak bagetsaguzak bagetsanaz bagetsanaguz | bazetsaz bazetsazuz | bazetsez bazetsazuez | baletsez baletsezak baletsenaz |
| 5 GURI | | baheskuz baheskuz* | baheskuz baheskunaz* | baleskuz baleskuzak baleskunaz | | bazenskuz bazeskuzuz | bazenskuez bazeskuzuez | baleskuez baleskuezak baleskunez |
| 6 ZURI | banetsuz | | | baletsuz | bagetsuz bagetsuguz | | | baletsuez |
| 7 ZUEI | banetsuez | | | baletsuez | bagetsuez bagetsueguz | | | baletsueez |
| 8 HAIEI | banetsez banaetsez banaetsenaz | bahetsez | bahetsez bahetsenaz* | baletsez baletsezak baletsenaz | bagetsez bagetseguz bagetsezak bagetseguzak bagetsenaz bagetsenaguz | bazetsez bazetsezuz | bazetsez bazetsezuez | baletsez baletsezak baletsenez |

ONDORIOA «a» eredia (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--|------------------------|------------------------|--|---|-------------|-------------|---|
| 1 NIRI | | heskitt heskirak* | heskitt heskiran* | leskitt l(aj)eskirak l(aj)eskiran | | ze(n)skitt | ze(n)skitte | leskitte l(aj)eskittek l(aj)eskirane |
| 2 HIRI-g | neuskik | | | leuskik | geu(n)skik | | | leuskiek |
| 3 HIRI-a | neuskiñ | | | leuskiñ | geu(n)skiñ | | | leuskiñe |
| 4 HARI | neskixo n(aj)eskixok n(aj)eskixon | heskixo heskixok* | heskixo heskixon* | leskixo l(aj)eskixok l(aj)eskixon | ge(n)skixo ge(n)skixok ge(n)skixon | ze(n)skixo | ze(n)skixue | leskixue l(aj)eskixuek l(aj)eskixone |
| 5 GURI | | heskigu heskiguk* | heskigu heskigun* | leskigu l(aj)eskiguk l(aj)eskigun | | ze(n)skigu | ze(n)skigüe | leskigüe l(aj)eskigüek l(aj)eskigüne |
| 6 ZURI | neskizu | | | leskizu | ge(n)skizu | | | leskizue |
| 7 ZUEI | neskizue | | | leskizue | ge(n)skizue | | | leskizue |
| 8 HAIEI | neskixue n(aj)eskixuek n(aj)eskixone | heskixue heskixuek* | heskixue heskixone* | leskixue l(aj)eskixuek l(aj)eskixone | ge(n)skixue ge(n)skixuek ge(n)skixone | ze(n)skixue | ze(n)skixue | leskixue l(aj)eskixuek l(aj)eskixuene |

Hitanoko *-aj-* ezaugarria erraz jausten dela aipatu dugu lehenago ere. Hori oraindik ere nabariagoa da ondorioko adizki hauetan. Beldur gabe esan daiteke oro har *-aj-* gabeko formak direla Eibarko hizkeran nagusi. Ohar honek hurrengo hiru tauletarako ere balio du, eredu bien singularreko eta plurale-rako marketarako, alegia.

ONDORIOA «a» eredia (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--|------------------------|--------------------------|---|---|--------------|--------------|---|
| 1 NIRI | | heskiraz | heskiraz heskiranaz* | leskiraz l(aj)eskirazak l(aj)eskiranaz | | ze(n)skiraz | ze(n)skitzez | leskittez l(aj)eskitzezak l(aj)eskiranez |
| 2 HIRI-g | neuskiaz | | | leuskiaz | geu(n)skiaz | | | leuskiezak |
| 3 HIRI-a | neuskiñaz | | | leuskiñaz | geu(n)skiñaz | | | leuskiñez |
| 4 HARI | neskiox n(aj)eskixuaz n(aj)eskixonaz | heskiox heskixuaz* | heskiox heskixonaz* | leskiox l(aj)eskixuaz l(aj)eskixonaz | ge(n)skiox ge(n)skixuaz ge(n)skixonaz | ze(n)skiox | ze(n)skixuez | leskixuez l(aj)eskixuezak l(aj)eskixonez |
| 5 GURI | | heskiguz heskiguaz* | heskiguz heskigunaz* | leskiguz l(aj)eskiguaz l(aj)eskigunaz | | ze(n)skiguz | ze(n)skigüez | leskigüez l(aj)eskigüezak l(aj)eskigüenez |
| 6 ZURI | neskizuz | | | leskizu | ge(n)skizuz | | | leskizuez |
| 7 ZUEI | neskizuez | | | leskizue | ge(n)skizuez | | | leskizuez |
| 8 HAIEI | neskixuez n(aj)eskixuez n(aj)eskixonez | heskixuez | heskixuez heskixonez* | leskixue l(aj)eskixuezak l(aj)eskixonez | ge(n)skixuez ge(n)skixuezak ge(n)skixonez | ze(n)skixuez | ze(n)skixuez | leskixuez l(aj)eskixuezak l(aj)eskixuenez |

ONDORIOA «b» eredia (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|---|----------------------|----------------------|---|------------------------------------|------------|-------------|--|
| 1 NIRI | | hestake hestakek* | hestake hestaken* | lestake l(aj)jestakek l(aj)jestaken | | ze(n)stake | ze(n)stakie | lestakie l(aj)jestakiek l(aj)jestakene |
| 2 HIRI-g | neuake | | | leuake | geuake | | | leuakie |
| 3 HIRI-a | neunake | | | leunake | geunake | | | leunakie |
| 4 HARI | netsake n(aj)jetsakek n(aj)jetsaken | hetsake hetsakek* | hetsake hetsaken* | letsake l(aj)jetsakek l(aj)jetsaken | gentsake gentsakek gentsaken | zentsake | zentsakie | letsakie l(aj)jetsakiek l(aj)jetsakene |
| 5 GURI | | heskuke heskukek* | heskuke heskuken* | leskuke l(aj)jeskukek l(aj)jeskuken | | ze(n)skuke | ze(n)skukie | leskukie l(aj)jeskukiek l(aj)jeskukene |
| 6 ZURI | netsuke | | | letsuke | gentsuke | | | letsukie |
| 7 ZUEI | netsueke | | | letsueke | gentsueke | | | letsuekie |
| 8 HAIEI | netseke n(aj)jetekek n(aj)jeteken | hetseke hetsekek* | hetseke hetseken* | letseke l(aj)jetekek l(aj)jeteken | gentseke gentsekek gentseken | zentsake | zentsakie | letsekie l(aj)jetekek l(aj)jetekeken |

ONDORIOA «b» eredia (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|---|------------------------|-------------------------|---|--|-------------|--------------|--|
| 1 NIRI | | hestakez hestakiaz* | hestakez hestakenaz* | lestakez l(aj)jestakiaz l(aj)jestakenaz | | ze(n)stakez | ze(n)stakiez | lestakiez l(aj)jestakiezak l(aj)jestakenez |
| 2 HIRI-g | neuakez | | | leuakez | geuakez | | | leuakiez |
| 3 HIRI-a | neunakez | | | leunakez | geunakez | | | leunakiez |
| 4 HARI | netsakez n(aj)jestsakiaz n(aj)jestsakenaz | hetsakez hetsakiaz* | hetsakez hetsakenaz* | letsakez l(aj)jestsakiaz l(aj)jestsakenaz | gentsakez gentsakiaz gentsakenaz | zentsakez | zentsakiez | letsakiez l(aj)jestsakiezak l(aj)jestsakenez |
| 5 GURI | | heskukez heskukiaz* | heskukez heskukenez* | leskukez l(aj)jeskukiaz l(aj)jeskukenez | | ze(n)skukez | ze(n)skukiez | leskukiez l(aj)jeskukiezak l(aj)jeskukenez |
| 6 ZURI | netsukez | | | letsukez | gentsukez | | | letsukiez |
| 7 ZUEI | netsuekez | | | letsuekez | gentsuekez | | | letsuekiaz |
| 8 HAIEI | netseke n(aj)jestsakiaz n(aj)jestsakenaz | hetsekez hetsakiaz* | hetsekez hetsakenaz* | letsekez l(aj)jestsakiaz l(aj)jestsakenaz | gentsekez gentsekiak gentsekenaz | zentsakez | zentsakiez | letsekiez l(aj)jestsakiezak l(aj)jestsakenez |

AHALEZKOA ORAINA-HIPOTETIKOA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--|------------------------|------------------------|--|---------------------------------------|-----------|-----------|--|
| 1 NIRI | | heikitt heikirak* | heikitt heikiran* | leikitt l(a)heikirak l(a)heikiran | | zeinkitt | zeinkitte | leikitte l(a)heikittek l(a)heikiranere |
| 2 HIRI-g | neikik | | | leikik | geinkik | | | leikiek |
| 3 HIRI-a | neikiñ | | | leikiñ | geinkiñ | | | leikiñe |
| 4 HARI | neikixo n(a)heikixok n(a)heikixon | heikixo heikixok* | heikixo heikixon* | leikixo l(a)heikixok l(a)heikixon | geinkixo geinkixok geinkixon | zeinkixo | zeinkixue | leikixue l(a)heikixuek l(a)heikixone |
| 5 GURI | | heikigu heikiguk* | heikigu heikigun* | leikigu l(a)heikiguk l(a)heikigun | | zeinkigu | zeinkigüe | leikigüe l(a)heikigüek l(a)heikigüne |
| 6 ZURI | neikizu | | | leikizu | geinkizu | | | leikizue |
| 7 ZUEI | neikizue | | | leikizue | geinkizue | | | leikizue |
| 8 HAIEI | neikixue n(a)heikixuek n(a)heikixone | heikixue heikixuek* | heikixue heikixone* | leikixue l(a)heikixuek l(a)heikixone | geinkixue geinkixuek geinkixone | zeinkixue | zeinkixue | leikixue l(a)heikixuek l(a)heikixuene |

Aditz modu hau gutxi erabiltzen da eta bere ordeaz, indikatiboko formak erabiltzeko joera handia dago: *heikitt*-en ordeaz *ahal destak* eta abar. NOR-NORI saileko adizkiekin berdintasunak ditugu: HARK HARI *emon leikixo* - HURA HARI *juan leikixo*.

AHALEZKOA ORAINA-HIPOTETIKOA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--|-------------------------|--------------------------|--|---|------------|------------|---|
| 1 NIRI | | heikiraz | heikiraz heikiranaz* | leikiraz l(a)heikiraz l(a)heikiranaz | | zeinkiraz | zeinkitzez | leikittez l(a)heikittezak l(a)heikiranaz |
| 2 HIRI-g | neikiaz | | | leikiaz | geinkiaz | | | leikiezak |
| 3 HIRI-a | neikiñaz | | | leikiñaz | geinkiñaz | | | leikiñez |
| 4 HARI | neikioxaz n(a)heikixuaz n(a)heikixonaz | heikioxaz heikixuaz* | heikioxaz heikixonaz* | leikioxaz l(a)heikixuaz l(a)heikixonaz | geinkioxaz geinkixuaz geinkixonaz | zeinkioxaz | zeinkixuez | leikixuez l(a)heikixuezak l(a)heikixonez |
| 5 GURI | | heikiguz heikiguaz* | heikiguz heikigunaz* | leikiguz l(a)heikiguaz l(a)heikigunaz | | zeinkiguz | zeinkigüez | leikigüez l(a)heikigüezak l(a)heikigüenez |
| 6 ZURI | neikizuz | | | leikizuz | geinkizuz | | | leikizuez |
| 7 ZUEI | neikizuez | | | leikizuez | geinkizuez | | | leikizuez |
| 8 HAIEI | neikixuez n(a)heikixuezak n(a)heikixonez | heikixuez | heikixuez heikixonez* | leikixuez l(a)heikixuezak l(a)heikixonez | geinkixuez geinkixuezak geinkixonez | zeinkixuez | zeinkixuez | leikixuez l(a)heikixuezak l(a)heikixuenez |

AHALEZKOA LEHENALDIA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|---------------------------------|---------------------|-------------------------|------------------------------------|----------------------------------|----------|-----------|--------------------------------------|
| 1 NIRI | | heikiran | heikiran heikiranan* | zeikiran jeikiran jeikiranan | | zeikiran | zeikitten | zeikitten jeikitten jeikiranen |
| 2 HIRI-g | neikian | | | zeikian | geikian | | | zeikien |
| 3 HIRI-a | neikiñan | | | zeikiñan | geikiñan | | | zeikiñen |
| 4 HARI | neixion neixuan neixonan | heixion heixuan* | heixion heixonan* | zeixion jeixuan jeixonan | geixion geixuan geixonan | zeixion | zeixiuen | zeixiuen jeixiuen jeixonen |
| 5 GURI | | heigun heiguan* | heigun heigunan* | zeigun jeiguan jeigunan | | zeigun | zeiguen | zeiguen jeiguen jeigunen |
| 6 ZURI | neikizun | | | zeikizun | geikizun | | | zeikizuen |
| 7 ZUEI | neikizuen | | | zeikizuen | geikizuen | | | zeikizuen |
| 8 HAIEI | neixiuen neixuen neixonen | heixiuen | heixiuen heixonen* | zeixiuen jeixiuen jeixonen | geixiuen geixiuen geixonen | zeixiuen | zeixiuen | zeixiuen jeixiuen jeixiuenen |

Ahalezkoa orainaldian gutxi erabiltzen da eta lehenaldian are gutxiago. Indikatiboko formetara jotzen da ia beti. Hirugarren pertsonakoak bakarrik erabiltzen dira.

AHALEZKOA LEHENALDIA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|---|-------------------------|-----------------------------|--|---|------------|-------------|--|
| 1 NIRI | | heikiranen | heikiranen heikirananen* | zeikiranen jeikiranen jeikirananen | | zeikiranen | zeikittezen | zeikittezen jeikittezen jeikiranen |
| 2 HIRI-g | neikiazen | | | zeikiazen | geikiazen | | | zeikietzen |
| 3 HIRI-a | neikiñazen | | | zeikiñazen | geikiñazen | | | zeikiñezen |
| 4 HARI | neixiozen neixuazen neixonazen | heixiozen heixuazen* | heixiozen heixonazen* | zeixiozen jeixuazen jeixonazen | geixiozen geixuazen geixonazen | zeixiozen | zeixiuezen | zeixiuezen jeixiuezen jeixionezen |
| 5 GURI | | heiguzen heiguazen* | heiguzen heigunazen* | zeiguzen jeiguazen jeigunazen | | zeiguzen | zeigiezen | zeigiezen jeigiezen jeigunezen |
| 6 ZURI | neikizuzen | | | zeikizuzen | geikizuzen | | | zeikizuezen |
| 7 ZUEI | neikizuezen | | | zeikizuezen | geikizuezen | | | zeikizuezen |
| 8 HAIEI | neixiuezen neixiuezen neixionezen | heixiuezen | heixiuezen heixionezen* | zeixiuezen jeixiuezen jeixionezen | geixiuezen geixiuezen geixionezen | zeixiuezen | zeixiuezen | zeixiuezen jeixiuezen jeixiuezenen |

SUBJUNTIBOA ORAINALDIA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|------------|---------|-----------|----------|------------|-----------|------------|----------|
| 1 NIRI | | deiran | deiran | deiran | | deirazun | deirazuen | deiren |
| 2 HIRI-g | deixaran | | | deixan | deixagun | | | deixen |
| 3 HIRI-a | deixanaran | | | deixanan | deixanagun | | | deixanen |
| 4 HARI | deixoran | deixuan | deixonan | deixon | deixogun | deixozun | deixozuen | deixuen |
| 5 GURI | | deiguan | deigunan | deigun | | deiguzun | deiguzuen | deiguen |
| 6 ZURI | deizuran | | | deizun | deizugun | | | deizuen |
| 7 ZUEI | deizueran | | | deizuen | deizuegun | | | deizuen |
| 8 HAIEI | deixueran | deixuen | deixuenan | deixuen | deixuegun | deixuezun | deixuezuen | deixuen |

SUBJUNTIBOA ORAINALDIA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|--------------|-----------|-------------|------------|--------------|-------------|--------------|------------|
| 1 NIRI | | deirazen | deiranazen | deirazen | | deirazuzen | deirazuezen | deirezen |
| 2 HIRI-g | deixarazen | | | deixazen | deixaguzen | | | deixezen |
| 3 HIRI-a | deixanarazen | | | deixanazen | deixanaguzen | | | deixanezen |
| 4 HARI | deixorazen | deixuazen | deixonazen | deixozen | deixoguzen | deixozuzen | deixozuezen | deixuezen |
| 5 GURI | | deiguazen | deigunazen | deiguzen | | deiguzuzen | deiguzuezen | deiguezen |
| 6 ZURI | deizurazen | | | deizuzen | deizuguzen | | | deizuezen |
| 7 ZUEI | deizuerazen | | | deizuezen | deizueguzen | | | deizuezen |
| 8 HAIEI | deixuerazen | deixuezen | deixuenazen | deixuezen | deixueguzen | deixuezuzen | deixuezuezen | deixuezen |

SUBJUNTIBOA LEHENALDIA (singularra)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|----------|--------------------|-----------------------|------------|----------|-----------------------|------------------------|------------|
| 1 NIRI | | heiran | heiran heiranan* | (z)eiran | | zeiran zeirazun* | zeiren zeirazuen* | (z)eiren |
| 2 HIRI-g | neixan | | | (z)eixan | geixan | | | (z)eixen |
| 3 HIRI-a | neixanan | | | (z)eixanan | geixanan | | | (z)eixanen |
| 4 HARI | neixon | heixon heixuan* | heixon heixonan* | (z)eixon | geixon | zeixon zeixozun* | zeixuen zeixozuen* | (z)eixuen |
| 5 GURI | | heigun heiguan* | heigun heigunan* | (z)eigun | | zeigun zeiguzun* | zeiguen zeiguzuen* | (z)eiguen |
| 6 ZURI | neizun | | | (z)eizun | geizun | | | (z)eizuen |
| 7 ZUEI | neizuen | | | (z)eizuen | geizuen | | | (z)eizuen |
| 8 HAIEI | neixuen | heixuen | heixuen heixuenan* | (z)eixuen | geixuen | zeixuen zeixuezun* | zeixuen zeixuezuen* | (z)eixuen |

SUBJUNTIBOA LEHENALDIA (plurala)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|------------|------------------------|---------------------------|--------------|------------|---------------------------|----------------------------|--------------|
| 1 NIRI | | heirazen | heirazen heiranazen* | (z)eirazen | | zeirazen zeirazuzen* | zeirezen zeirazuezen* | (z)eirezen |
| 2 HIRI-g | neixazen | | | (z)eixazen | geixazen | | | (z)eixezen |
| 3 HIRI-a | neixanazen | | | (z)eixanazen | geixanazen | | | (z)eixanezen |
| 4 HARI | neixozen | heixozen heixuazen* | heixozen heixonazen* | (z)eixozen | geixozen | zeixozen zeixozuzen* | zeixuezen zeixozuezen* | (z)eixuezen |
| 5 GURI | | heiguzen heiguazen* | heiguzen heigunazen* | (z)eiguzen | | zeiguzen zeiguzuzen* | zeiguezen zeiguzuezen* | (z)eiguezen |
| 6 ZURI | neizuzen | | | (z)eizuzen | geizuzen | | | (z)eizuezen |
| 7 ZUEI | neizuezen | | | (z)eizuezen | geizuezen | | | (z)eizuezen |
| 8 HAIEI | neixuezen | heixuezen | heixuezen heixuenazen* | (z)eixuezen | geixuezen | zeixuezen zeixuezuzen* | zeixuezen zeixuezuezen* | (z)eixuezen |

AGINTERA (singularra) (*egin)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|-----|---|---|-----------|-----|--|---|-----------|
| 1 NIRI | | -irak <i>esairak</i> <i>botairak</i> | -iran <i>esairan</i> <i>botairan</i> | deirala | | -irazu <i>esairazu</i> <i>botairazu</i> | -irazue <i>esairazue</i> <i>botairazue</i> | deirela |
| 2 HIRI-g | | | | deixala | | | | deixela |
| 3 HIRI-a | | | | deixanala | | | | deixanala |
| 4 HARI | | -ixok <i>esaixok</i> <i>botaixok</i> | -ixon <i>esaixon</i> <i>botaixon</i> | deixola | | -ixozu <i>esaixozu</i> <i>botaixozu</i> | -ixozue <i>esaixozue</i> <i>botaixozue</i> | deixuela |
| 5 GURI | | -iguk <i>esaiguk</i> <i>botaignuk</i> | -igun <i>esaigun</i> <i>botaignun</i> | deigula | | -iguzu <i>esaiguzu</i> <i>botaignuzu</i> | -iguzue <i>esaiguzue</i> <i>botaignuzue</i> | deiguela |
| 6 ZURI | | | | deizula | | | | deizuela |
| 7 ZUEI | | | | deizuela | | | | deizuela |
| 8 HAIEI | | -ixuek <i>esaixuek</i> <i>botaixuek</i> | -ixone <i>esaixone</i> <i>botaixone</i> | deixuela | | -ixuezu <i>esaixuezu</i> <i>botaixuezu</i> | -ixuezue <i>esaixuezue</i> <i>botaixuezue</i> | deixuela |

AGINTERA (plurala) (*egin)

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|----------|-----|--|---|------------|-----|---|--|------------|
| 1 NIRI | | -iraz <i>esairaz</i> <i>botairaz</i> | -iranz <i>esairanz</i> <i>botairanz</i> | deirazela | | -irazuz <i>esairazuz</i> <i>botairazuz</i> | -irazuez <i>esairazuez</i> <i>botairazuez</i> | deirezela |
| 2 HIRI-g | | | | deirazela | | | | deirezela |
| 3 HIRI-a | | | | deiranzela | | | | deiranzela |
| 4 HARI | | -ixuaz <i>esaixuaz</i> <i>botaixuaz</i> | -ixonaz <i>esaixonaz</i> <i>botaixonaz</i> | deixozela | | -ixozuz <i>esaixozuz</i> <i>botaixozuz</i> | -ixozuez <i>esaixozuez</i> <i>botaixozuez</i> | deixuezela |
| 5 GURI | | -iguaz <i>esaiguaz</i> <i>botaignuaz</i> | -igunaz <i>esaigunaz</i> <i>botaignunaz</i> | deiguzela | | -iguzuz <i>esaiguzuz</i> <i>botaignuzuz</i> | -iguzuez <i>esaiguzuez</i> <i>botaignuzuez</i> | deiguzela |
| 6 ZURI | | | | deizuzela | | | | deizuezela |
| 7 ZUEI | | | | deizuezela | | | | deizuezela |
| 8 HAIEI | | -ixuez <i>esaixuez</i> <i>botaixuez</i> | -ixonez <i>esaixonez</i> <i>botaixonez</i> | deixuezela | | -ixuezuz <i>esaixuezuz</i> <i>botaixuezuz</i> | -ixuezuez <i>esaixuezuez</i> <i>botaixuezuez</i> | deixuezela |

aditz-taulak

aditz trinkoak

EGON

| | INDIK.ORAINA | INDIKATIBOA LEHENA | BALDINTZA | ONDORIOA | AGINTERA |
|---------|---|---|--|--|--------------------|
| 1 NI | nago naok naon | nenguan najeuan / n(a)enguan najeonan / n(a)engonan najeuanan* | banengo banengok banengon | nengoke nengokek nengoken | naguan |
| 2 HI-g | hago | henguan | bahengo | hengoke | hago |
| 3 HI-a | hago | henguan henguanan* | bahengo | hengoke | hago |
| 4 HURA | dago daok daon | (z)eguan jeuan jeonan jeuanan* | balego balegok balegon | legoke legokek legoken | dagola |
| 5 GU | gaoz gare gauaz / gaozak gaonaz / gaonaz | geozen / geuazen genden geuazen / gendezen geuazazen* geonazen / gendenazen geuanazen* | bagengoz bagende bagenguaz / bagendez bagengonaz / bagendenaz | gengokez gendeke gengokiaz / gendekek gengokenaz / gendeken | gaozen garen |
| 6 ZU | zagoz zare | zengozen / zenguazen zenden | bazengoze bazende | zengokez zendeki | zagoz zare |
| 7 ZUEK | zagozie zarie | zengozien / zenguazien zenden | bazengozie bazende | zengokezie zendekie | zagozie |
| 8 HAIEK | dagoz dare dauaz / daoak daonaz / daozan | (z)egozen / (z)eguazen zeren jeuazen jeonazen jeuanazen* | balegoz balere baleguaz balegonaz | legokez legokiaz legokenaz | dagozela darela |

Hitz egiteko orduan, gehienetan, EGON aditzaren sustraia soildu egiten da eta *g* desagertu egiten da: *dagoz* > *daoak*; *nago* > *nao*, eta abar. Lehenaldiko adizkietan *ng* talde osoa desagertzen da: *nenguan* > *neuan*; *genguazen* > *geuazen*; *zenguazen* > *zeuazen*, eta abar. Joera hori ia erabatekoa da, eta esan daiteke Eibarren (*n*)*g* gabeko formak bakarrik erabiltzen direla.

Pluraleko adizkietan (GU, ZU, ZUEK, HAIEK), bi eredu daude Eibarren. Biak erabiltzen dira, gutxi gorabehera, neurri berdinean. Kasu batzuetan, hiztun berberak ere biak erabiltzen ditu.

EGON aditzean, JAKIN eta ERABILTI aditzetan moduan, sustraia eta *z*- pluralgilearen artean *-a-* loturazkoa sartzeko joera dugu Eibarren eta, ondorioz, *geozen*, *zeozen*, *zengozien*... formekin batera *geuazen*, *zeuazen*, *zeuazien* ere erabiltzen ditugu, ziurrenik aurrekoak baino gehiago, gainera.

ETORRI

| | INDIK.ORAINA | INDIK.LEHENA | BALDINTZA | ONDORIOA | AGINTERA |
|---------|--------------------------------------|--|-------------------------------------|--|----------|
| 1 NI | nator natok naton | netorren netuan najetuan netonan najetonan | banetor banetok baneton | ne(n)torke ne(n)torkek ne(n)torken | natorren |
| 2 HI-g | hator | hetorren hetuan* | bahetor | he(n)torke | hator |
| 3 HI-a | hator | hetorren hetonan* | bahetor | he(n)torke | hator |
| 4 HURA | dator datok daton | (z)etorren jetuan jetonan | baletor baletok baleton | letorke letorkek letorken | datorela |
| 5 GU | gatoz gatuaz / gatozak gatonaz | gentozen gentuazen gentonazen | bagentoz bagentuaz bagentonaz | gentorkez gentorkiaz gentorkenaz | gatozen |
| 6 ZU | zatoz | zentozen | bazentoz | zentorkez | zatoz |
| 7 ZUEK | zatozie | zentozien | bazentoze | zentorkiez | zatozie |
| 8 HAIEK | datoz datuaz / datoak datonaz | (z)etozen jetuazen jetonazen | baletoz baletuaz baletonaz | letorkez letorkiaz letorkenaz | datozela |

IBILI

| | INDIK.ORAINA | INDIK.LEHENA | BALDINTZA | ONDORIOA | AGINTERA |
|----------|--------------|----------------------|-----------|-------------|----------|
| 1 NI | nabil | nebillen | banebil | ne(n)bilke | nabillen |
| | nabik | nebixan najeixan | banebik | ne(n)bilkek | |
| | nabiñ | nebiñan najebiñan | banebiñ | ne(n)bilken | |
| 2 HI-g | habil | hebillen hebixan* | bahebil | he(n)bilke | habil |
| 3 HI-a | habil | hebillen hebiñan* | bahebil | he(n)bilke | habil |
| 4 HURA | dabil | (z)ebillen | balebil | lebilke | dabilela |
| | dabik | jebixan | balebik | lebilkek | |
| | dabiñ | jebiñan | balebiñ | lebilken | |
| 5 GU | gabiz | gebizen | bagebiz | genbilkez | gabizen |
| | gabixaz | gebixazen | bagebixaz | genbilkiak | |
| | gabiñaz | gebiñazen | bagebiñaz | genbilkenaz | |
| 6 ZU | zabiz | zebizen | bazebiz | zenbilkez | zabiz |
| 7 ZUEK | zabizie | zebizien | bazebizie | zenbilkiez | zabizie |
| 8 HAI EK | dabiz | (z)ebizen | balebiz | lebilkez | dabizela |
| | dabixaz | jebixazen | balebixaz | lebilkiak | |
| | dabiñaz | jebiñazen | balebiñaz | lebilkenaz | |

Ondorioa eta agintera ere adierazi ditugun arren, forma teorikotzat har ditzakegu, ez baitira ia sekula erabiltzen.

JOAN

| | INDIK.ORAINA | INDIK.LEHENA | BALDINTZA | ONDORIOA | AGINTERA |
|----------|--------------|--------------------------|------------|----------------|-------------------|
| 1 NI | noia | nindoian | banindoia | nindoiake | noian |
| | najoiak | n(aj)indoian | | n(aj)indoiakek | |
| | najoiari | n(aj)indoianari | | n(aj)indoiaken | |
| 2 HI-g | hoia | hindoian | bahindoia | hindoiake | hoia |
| 3 HI-a | hoia | hindoian hindoianari* | bahindoia | hindoiake | hoia |
| 4 HURA | doia | zoian | baloia | loiake | doiala |
| | joiak | joian | | loiak | |
| | joian | joianari | | loian | |
| 5 GU | goiaz | gindoiaz | bagindoiaz | gindoiak | guaz |
| | goiazak | gindoiazak | | gindoiak | guaziak / guazian |
| | goianaz | gindoianaz | | gindoiak | guazianaz |
| 6 ZU | zoiaz | zindoiaz | bazindoiaz | zindoiak | zoiaz |
| 7 ZUEK | zoiazie | zindoiak | bazindoiak | zindoiak | zoiazie |
| 8 HAI EK | doiaz | zoiaz | baloiaz | loiak | doiazela |
| | joiazak | joiaz | | loiak | |
| | joianaz | joianaz | | loianaz | |

Aditz honetan ere ez da ia sekula erabiltzen ondorioak. Aginterakoak aurreko aditzetan baino arrunta-goak dira, gehienbat, jakina, *guaz*, *guaziak/guazian* eta *guazianaz*.

EUKI - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---------------------------------|---------|---------|-----------------------------|---------------------------------|---------|----------|-----------------------------|
| 1 NI | | nakak | nakan | naka najakak najakan | | nakazu | nakazue | nake najakek najakane |
| 2 HI-g | hakat | | | haka | hakagu | | | hake |
| 3 HI-a | hakat | | | haka | hakagu | | | hake |
| 4 HURA | dakat jakat jakanat | dakak | dakan | daka jakak jakan | dakagu jakagu jakanagu | dakazu | dakazue | dake jakek jakane |
| 5 GU | | gakazak | gakanaz | gakaz gakazak gakanaz | | gakazuz | gakazuez | gakez gakezak gakanaz |
| 6 ZU | zakaraz | | | zakaz | zakaguz | | | zakez |
| 7 ZUEK | zakeraz | | | zakez | zakeguz | | | zakez |
| 8 HAIEK | dakaraz jakaraz jakanaraz | dakazak | dakanaz | dakaz jakaz jakanaz | dakaguz jakaguz jakanaguz | dakazuz | dakazuez | dakez jakez jakanez |

EUKI aditzaren erroko *-u-* galdu egiten da ia beti ahozko jardunean (*daukat > dakat; daukez > dakez...*), eta horrela adierazi ditugu tauletan ere. Dena dela, badira *-u-*dun formak darabiltzaten zenbait hiztun. Ohar honek lehenaldira eta baldintzarako ere balio du.

EUKI - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-----------------------------------|----------|-----------------------|------------------------------------|--|------------|------------|------------------------------------|
| 1 NI | | nenkan | nenkanan | nenkan najenkan najenkanan | | nenkazuz | nenkazuzen | nenken najenken najenkanen |
| 2 HI-g | henkaran | | | henkan | henkagun | | | henken |
| 3 HI-a | henkaran | | | henkan | henkagun | | | henken |
| 4 HURA | nekan najekan najekanan | hekan | hekan hekanan* | (z)jekan jekan jekanan | genkan genkagun genkan genkagun genkanan genkanagun | zekazuz | zekazuzen | (z)jekan jekan jekanan |
| 5 GU | | genkazen | genkanazen | genkazen genkazen genkanazen | | genkazuzen | genkazuzen | genkezen genkezen genkanezen |
| 6 ZU | zenkarazen | | | zenkazen | zenkaguzen | | | zenkezen |
| 7 ZUEK | zenkarezen | | | zenkezen | zenkeguzen | | | zenkezen |
| 8 HAIEK | nekazen najekazen najekanan | hekazen | hekazen hekanazen* | (z)jekazen jekazen jekanan | genkazen genkaguzen genkazen genkaguzen genkanazen genkanaguzen | zekazuzen | zekezuzen | (z)jekezen jekezen jekanezen |

EUKI - BALDINTZA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-----------------------------------|----------|-----------------------|---|--|------------------------|-------------------------|--|
| 1 NI | | banenkak | banenkan | banenka ban(aj)jenkak ban(aj)jenkan | | banenkazu | banenkazue | banenke ban(aj)jenkek ban(aj)jenkane |
| 2 HI-g | bahenkat | | | bahenka | bahenkagu | | | bahenke |
| 3 HI-a | bahenkat | | | bahenka | bahenkagu | | | bahenke |
| 4 HURA | baneka banekak banekan | baheka | baheka bahekan* | baleka balekak balekan | bagenka bagenkagu bagenkak bagenkagu bagenkan bagenkanagu | bazenka bazenkazu | bazenzie bazenkazue | baleke balekek balekane |
| 5 GU | | bagenkaz | bagenkanaz | bagenkaz bagenkazak bagenkanaz | | bagenkazuz | bagenkazuez | bagenkez bagenkezak bagenkanaz |
| 6 ZU | bazenkaraz | | | bazenkaz | bazenkaguz | | | bazenkez |
| 7 ZUEK | bazenkeraz | | | bazenkez | bazenkeguz | | | bazenkez |
| 8 HAIEK | banekaz banekazak banekanaz | bahekaz | bahekaz bahekanaz* | balekaz balekazak balekanaz | bagenkaz bagenkaguz bagenkazak bagenkaguzak bagenkanaz bagenkanaguz | bazenkaz bazenkazuz | bazenkez bazenkazuez | balekez balekezak balekanaz |

EUKI - ONDORIOA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|--|----------|-------------------------|--|--|-------------------------|----------------------------|--|
| 1 NI | | | | | | | | |
| 2 HI-g | | | | | | | | |
| 3 HI-a | | | | | | | | |
| 4 HURA | neukake n(aj)euakak n(aj)euakak | heukake | heukake heukaken* | leukake l(aj)euakak l(aj)euakak | geukake geukakegu geukakek geukakiagu geukaken geukakenagu | zeukake zeukakezu | zeunkakie zeunkakezue | leukakie l(aj)euakakiek l(aj)euakakene |
| 5 GU | | | | | | | | |
| 6 ZU | | | | | | | | |
| 7 ZUEK | | | | | | | | |
| 8 HAIEK | neukakez n(aj)euakakiaz n(aj)euakakiaz | heukakez | heukakez heukakenaz* | leukakez l(aj)euakakiaz l(aj)euakakiaz | geukakez geukakeguz geunkakiaz geunkakiaguz geunkakenaz geunkakenaguz | zeukakez zeunkakezuz | zeunkakiez zeunkakezuez | leukakiez l(aj)euakakiazak l(aj)euakakenez |

Baldintzako adizki trinkoak sarri erabiltzen ditugun arren, ondorioa askoz gutxiago erabiltzen da. Esan daiteke hirugarren pertsonako formak bakarrik direla ahoz erabiltzen ditugunak, eta horiek ere oso-oso gutxi.

EROAN - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|--|------------|------------|------------------------------------|--|------------|-------------|------------------------------------|
| 1 NI | | naroiak | narioian | naroia najaroiak narioian | | narioiazu | narioiazue | narioie najaroiiek narioiane |
| 2 HI-g | haroiat | | | haroia | haroiagu | | | haroie |
| 3 HI-a | haroiat | | | haroia | haroiagu | | | haroie |
| 4 HURA | daroiat jaroiat jarioianat | daroiak | darioian | daroia jaroia jarioian | daroia jaroia jarioianagu | darioiazu | darioiazue | darioie jarioiek jarioiane |
| 5 GU | | garoiaz | garoianaz | garoiaz garoiazak garoianaz | | garoiazuz | garoiazuez | garoiez garoiezak garoianez |
| 6 ZU | zarioiaraz | | | zarioiaz | zarioiaguz | | | zarioiez |
| 7 ZUEK | zarioeraz | | | zarioiez | zarioieguz | | | zarioiez |
| 8 HAIEK | darioiaraz jarioiaraz jarioianaraz | darioiazak | darioianaz | darioiaz jarioiaz jarioianaz | darioiaguz jarioiaguz jarioianaguz | darioiazuz | darioiazuez | darioiez jarioiez jarioianez |

EROAN - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|--|------------|--------------------------------|---|---|-------------|--------------|---|
| 1 NI | | neroiian | neroiianan | neroiian najeroiian najeroiianan | | neroiiazun | neroiiazuen | neroiien najeroiien najeroiianen |
| 2 HI-g | heroiaran | | | heroian | heroia guz | | | heroien |
| 3 HI-a | heroiaran | | | heroian | heroia guz | | | heroien |
| 4 HURA | neroiian najeroiian najeroiianan | neroiian | neroiianan* neroiianan* | (z)eroian jeroian jeroianan | geroiian geroiia geroiia geroiianan geroiianan geroiianan | zeroiazun | zeroiazuen | (z)eroien jeroien jeroianen |
| 5 GU | | geroiazan | geroianazan | geroiazan geroiazan geroianazan | | geroiazuzun | geroiazuzuen | geroiezen geroiezen geroianezun |
| 6 ZU | zeroiarazan | | | zeroiazan | zeroia guz | | | zeroiezen |
| 7 ZUEK | zeroierazan | | | zeroiezen | zeroie guz | | | zeroiezen |
| 8 HAIEK | neroiiazan najeroiiazan najeroiianazan | neroiiazan | neroiianazan* neroiianazan* | (z)eroiazan jeroiazan jeroianazan | geroiazan geroiiazun geroiiazan geroiiazun geroiianazan geroiianazan | zeroiazuzun | zeroiazuzuen | (z)eroiezen jeroiezen jeroianezun |

EKARRI - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-------------------------------------|----------|----------|--------------------------------|--------------------------------------|----------|-----------|--|
| 1 NI | | nakark | nakarn | nakar najakark najakarn | | nakarzu | nakarzue | nakarre najakarre najakarne |
| 2 HI-g | hakart | | | hakar | hakargu | | | hakarre |
| 3 HI-a | hakart | | | hakar | hakargu | | | hakarre |
| 4 HURA | dakart jakarrat jakarnat | dakark | dakarn | dakar jakark jakarn | dakargu jakarragu jakarnagu | dakarzu | dakarzue | dakarre jagarrek jakarne jagarrene |
| 5 GU | | gakarraz | gakarnaz | gakarz gakarraz gakarnaz | | gakarzuz | gakarzuez | gakarrez gakarrezak gakarnez |
| 6 ZU | zakardaz | | | zakarz | zakarguz | | | zakarrez |
| 7 ZUEK | zakarreraz | | | zakarrez | zakarraguz | | | zakarrez |
| 8 HAIEK | dkardaz jakarraraz jakarnaraz | dakarraz | dakarnaz | dakarz jakarraz jakarnaz | dakarguz jakarraguz jakarnaguz | dakarzuz | dakarzuez | dakarrez jagarrez jagarnez jagarrenez |

Ahoko jardun arruntean, sustrai -r- jan egiten da sarri kontsonante aurrean doanean: *dakart* > *dakat*; *dakardaz* > *dakadaz* > *dakaraz*. Ondorioz, EUKI aditzaren itxura bereko adizkiak sortzen dira.

EKARRI - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|--|-------------|-------------------------|---|--|--------------------------|-----------------------------|---|
| 1 NI | | nenkarran | nenkarnan | nenkarren najenkarran najenkarnan | | nenkarzun | nenkarzuen | nenkarren najenkarren najenkarnen |
| 2 HI-g | henkardan | | | henkarren | henkargun | | | henkarren |
| 3 HI-a | henkardan | | | henkarren | henkargun | | | henkarren |
| 4 HURA | nekarren najekarran najekarnan | hekarren | hekarren hekarrenan* | (z)jekarren jekarran jekarnan | genkarren genkargun genkarran genkarragun genkarnan genkarnagun | zenkarren zenkarzun | zenkarren zenkarzuen | (z)jekarren jekarren jekarnen |
| 5 GU | | genkarrazen | genkarnazen | genkarzen genkarrazen genkarnazen | | genkarzuzen | genkarzuezen | genkarrezen genkarrezen genkarnezen |
| 6 ZU | zenkardazen | | | zenkarzen | zenkarguzen | | | zenkarrezen |
| 7 ZUEK | zenkarrerazen | | | zenkarrezen | zenkarreguzen | | | zenkarrezen |
| 8 HAIEK | nekarzen najekarrazen najekarnazen | hekarzen | hekarzen hekarnazen* | (z)jekarzen jekarrazen jekarnazen | genkarzen genkarguzen genkarrazen genkarraguzen genkarnazen genkarnaguzen | zenkarzen zenkarzuzen | zenkarrezen zenkarzuezen | (z)jekarrezen jekarrezen jekarnezen |

ERABILI - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---|-----------|-----------|-----------------------------------|---|-----------|------------|---------------------------------------|
| 1 NI | | narabik | narabiñ | narabil najarabik najarabiñ | | narabizu | narabizue | narabixe najarabixek najarabiñe |
| 2 HI-g | harabitt | | | harabil | harabigu | | | harabixe |
| 3 HI-a | harabitt | | | harabil | harabigu | | | harabixe |
| 4 HURA | darabitt jarabixat jarabiñat | darabik | darabiñ | darabil jarabik jarabiñ | darabigu jarabixagu jarabiñagu | darabizu | darabizue | darabixe jarabixek jarabiñe |
| 5 GU | | garabixaz | garabiñaz | garabiz garabixaz garabiñaz | | garabizuz | garabizuez | garabixez garabixezak garabiñez |
| 6 ZU | zarabiraz | | | zarabiz | zarabiguz | | | zarabixez |
| 7 ZUEK | zarabixeraz | | | zarabixez | zarabixeguz | | | zarabixez |
| 8 HAIEK | darabiraz jarabixaraz jarabiñaraz | darabixaz | darabiñaz | darabiz jarabixaz jarabiñaz | darabiguz jarabixaguz jarabiñaguz | darabizuz | darabizuez | darabixez jarabixez jarabiñez |

ERABILI - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---|-------------|---|---|--|-------------|--------------|---|
| 1 NI | | nerabixan | nerabiñan | nerabixan najerabixan najerabiñan | | nerabizun | nerabizuen | nerabixen najerabixen najerabiñen |
| 2 HI-g | herabiran | | | herabixan | herabigun | | | herabixen |
| 3 HI-a | herabiran | | | herabixan | herabigun | | | herabixen |
| 4 HURA | nerabixan najerabixan najerabiñan | herabixan | herabixan herabixanan* | (z)erabixan jerabixan jerabiñan | gerabixan gerabigun gerabixan gerabixagun gerabiñan gerabiñagun | zerabizun | zerabizuen | (z)erabixen jerabixen jerabiñen |
| 5 GU | | gerabixazen | gerabiñazen | gerabixazen gerabixazen gerabiñazen | | gerabizuzen | gerabizuezen | gerabixezen gerabixezen gerabiñezen |
| 6 ZU | zerabirazen | | | zerabixazen | zerabiguzen | | | zerabixezen |
| 7 ZUEK | zerabixerazen | | | zerabixezen | zerabixeguzen | | | zerabixezen |
| 8 HAIEK | nerabixazen najerabixazen najerabiñazen | herabixazen | herabixazen herabiñazen* herabixanazen* | (z)erabixazen jerabixazen jerabiñazen | gerabixazen gerabiguzen gerabixazen gerabixaguzen gerabiñazen gerabiñaguzen | zerabizuzen | zerabizuezen | (z)erabixezen jerabixezen jerabiñezen |

ESAN (*iño) - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|----------------------------------|--------|---------|----------------------------|----------------------------------|---------|----------|-----------------------------|
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 4 HURA | diñot jiñuat jiñonat | diñok | diñon | diño jiñok jiñon | diñogu jiñuagu jiñonagu | diñozu | diñozue | diñue jiñuek jiñone |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 8 HAIEK | diñoraz jiñuaraz jiñonaraz | diñuaz | diñonaz | diñoz jiñuaz jiñonaz | diñoguz jiñuaguz jiñonaguz | diñozuz | diñozuez | diñuez jiñuez jiñonez |

ESAN (*iño) - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---------------------------------------|----------|------------------------|-----------------------------|---|-------------------|--------------------|-----------------------------|
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 4 HURA | niñuan n(aj)ñiñuan n(aj)ñiñonan | hiñuan | hiñuan hiñonan* | ziñuan jiñuan jiñonan | giñuan giñogun giñuan giñuagun giñonan giñonagun | ziñuan ziñozun | ziñuen ziñozuen | ziñuen jiñuen jiñonen |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 8 HAIEK | niñuazen | hiñuazen | hiñuazen hiñonazen* | ziñuazen | giñoguzen | ziñozuzen | ziñozuezen | ziñuezen |

JAKIN - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-----------------------------------|---------|---------|-----------------------------|-----------------------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 4 HURA | dakitt jakixat jakiñat | dakik | dakiñ | daki jakik jakiñ | dakigu jakixagu jakiñagu | dakizu | dakizue | dakixe jakixek jakine |
| 8 HAIEK | dakiraz jakixaraz jakiñaraz | dakixaz | dakiñaz | dakiz jakixaz jakiñaz | dakiguz jakixaguz jakiñaguz | dakizuz | dakizuez | dakixez jakixez jakinez |

JAKIN - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---|-----------|---|---------------------------------------|--|------------|-------------|--------------------------------------|
| 4 HURA | nekixan najekixan najekiñan | hekixan | hekixan hekiñan* | (z)ekixan jekixan jekiñan | genkixan genkigun genkixagan genkiñan genkiñagun | zenkizun | zenkizuen | (z)ekixen jekixen jekiñen |
| 8 HAIEK | nekixazen najekixazen najekiñazen | hekixazen | hekixazen hekiñazen* hekixanazen* | (z)ekixazen jekixazen jekiñazen | genkixazen genkiguzen genkixaguzen genkiñazen genkiñaguzen | zenkizuzen | zenkizuezen | (z)ekixezen jekixezen jekiezen |

JAKIN - BALDINTZA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|-----------------------------------|---------|-----------------------|-----------------------------------|--|------------------------|---------------------------|---------------------------------------|
| 4 HURA | baneki banekik banekiñ | baheki | baheki bahekiñ* | baleki balekik balekiñ | bagenki bagenkigu bagenkik bagenkixagu bagenkiñ bagenkiñagu | bazenki bazenkizu | bazenkixe bazenkizue | balekixe balekixek balekiñe |
| 8 HAIEK | banekiz banekixaz banekiñaz | bahekiz | bahekiz bahekiñaz* | balekiz balekixaz balekiñaz | bagenkiz bagenkiguz bagenkixaz bagenkixaguz bagenkiñaz bagenkiñaguz | bazenkiz bazenkizuz | bazenkixez bazenkizuez | balekixez balekixezak balekiñez |

IRUDITU - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|------------------------------------|---------|---------|------------------------------|--------------------------------------|----------|-----------|-----------------------------------|
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 4 HURA | diruditt jirudixat jirudiñat | dirudik | dirudiñ | dirudi jirudik jirudiñ | dirudigu jirudixagu jirudiñagu | dirudizu | dirudizue | dirudixe jirudixek jirudiñe |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 8 HAIEK | | | | | | | | |

IRUDITU - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|---------|---|-----------|---------------------------|-------------------------------------|--|-----------|------------|-------------------------------------|
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 4 HURA | nirudixan najirudixan najirudiñan | hirudixan | hirudixan hirudixanan* | zirudixan jirudixan jirudiñan | girudixan girudigun girudixan girudixagun girudiñan girudiñagun | zirudizun | zirudizuen | zirudixen jirudixen jirudiñen |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 8 HAIEK | | | | | | | | |

JARDUN - INDIKATIBOA ORAINALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | ZUK | ZUEK | HAIEK |
|--------|-------------------------------------|----------|----------|---------------------------------|--|-----------|------------|------------------------------------|
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 4 HURA | dihardut jiharduat jihardunat | diharduk | dihardun | dihardu jiharduk jihardun | dihardugu jiharduagu jihardunagu | diharduzu | diharduzue | dihardue jiharduek jihardune |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

JARDUN - INDIKATIBOA LEHENALDIA

| | NIK | HIK-g | HIK-a | HARK | GUK | Zuk | ZUEK | HAIEK |
|--------|--|-----------|--------------------------|--------------------------------------|---|------------|-------------|--------------------------------------|
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 4 HURA | niharduan najibarduan najibardunan | hiharduan | hiharduan hihardunan* | ziharduan jiharduan jihardunan | giharduan gihardugun giharduan giharduagun gihardunan gihardunagun | ziharduzun | ziharduzuen | ziharduen jiharduen jihardunen |


Sintaxia

Guk ez dakigu zuen moduan eskolan ikasitakorik, e?, kaliañ baiño! Ta pentsatzen jata edozeiñ herrittan baiño berbak hobeto eitten dittugula guk! Eibarko euskeriak fama txarra...

Euskera txarra? Ointxe esango detsut: refugixauta egon giñanian Sopelanan, Lekeittioko bat, ta "hamen datoñ eibartarrak, 'bentania' ta 'kaballua' ta...". Ez dakigula berbetan! Ta eurak ze esaten dabe ba? Guk 'caballua', 'bentania'...

txarto. Ta eurak 'peoriari' zelan esaten detse? 'portalia', ezta? Euskeraz da ala erderaz da hori?

Ta guk pasilluari 'karrejua' beti, ta harek 'pasillua'. Hor ba! Ondo dakixenak nun dare ba?



Faustina Lopez

5. SINTAXIA

Era askotako perpausak aurki ditzakegu, eta hauek sailkatzeko modu bat baino gehiago dago, gainera. Esaterako, **beregainak** edo **mendekoak** izan daitezke perpausak. Izenak berak adierazi bezala, perpaus beregainek ez dute besteren beharrik, eta mendekoek, aldiz, beste perpaus batean txertatuak egon behar dute zentzua izateko.

Bestetik, aditz bakarrez osatutako perpausari **perpaus bakuna** deitu ohi zaio. Baina perpausak elkarren arteko loturak ere egiten dituzte, eta perpaus bi elkartzean, aditz bat baino gehiagoko egitura zabalagoak sortzen dituzte: **perpaus elkartuak**. Hauek ere, aldi berean, bi eratakoak izan daitezke. Juntaduraren bidez maila bereko perpaus bi edo gehiago elkartzen dira; menderakuntzan perpaus bat (mendekoa), beste batean (nagusia) txertatzen da, osagai gisa. Hortaz, bi perpausak parekoak badira, **juntadura** deritzo; bata bestearen mendekoa bada, osagaiari **perpaus txertatua** edo **menderatua** deitzen zaio.

Hala ere, perpausen egituratik gorako loturarik ere gerta daiteke, testu mailakoa, hain zuzen ere. Testu mailako lotura egiten duten osagai hauei **lokailu** deitzen zaie. Horrelakoak sarri erabiltzen ditugu esaldiak lotu nahi ditugunean.

Beraz, perpausak lotzeko, lokailuak, juntagailuak eta menderagailuak erabiltzen ditugu. Lokailuek testu mailako edo solas mailako lotura bideratzen dute, eta juntagailuek eta menderagailuek perpausak lotzeaz gain, elkartu ere egiten dituzte, elkarketa horren ondorioz beste perpaus berri bat sortuz.

5.1.- PERPAUS BAKUNAK

5.1.1.- ADIERAZPEN-PERPAUSAK

Adierazpen-perpausak, hitzak berak dioen bezala, besterik gabe zer bait adierazten dutenak dira. Adierazpen hau baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke eta markatua ere egon daiteke. Azken banaketa hau egiteko garrantzi handia du ahoz ematen zaion entonazioak, baina idatziz ere nabari daiteke ezberdintasuna. Markatuak ez diren perpausak ordena neutroa izan ohi dute eta elementuak maila berean daude, hau da, pareko garrantzia dute elementu guztiek. Baiezko perpausetan haxe izan ohi da ordenarik arruntena perpaus markatu gabeetan:

Subjektua + Osagarria + Aditza

Ezezko perpausa denean, aldiz, egitura ez-markatua horrelakoa litzateke:

Subjektua + Aditza + Osagarria

Gure transkripzioetatik jasotako ondoko adibideotan elementurik azpimarratzen ez duten adierazpeneko perpaus markatu gabeak ikus ditzakegu:

Bakotxak bere txabolak eukitzen genduzen.

Don Inazion alabak pixkat korrientetxuaguak ziran.

Leku batzuetan exitua eukitzen genduan.

*Sagarrak **ez** jakozen gustatzen.*

Bederatzi hillabete ein najittuan.

*Andriak **ez** zetsan gertau afaririk gizonari.*

Orduan jente ignorantia jeuan.

Nik gitarria bastante ondo manejatzen najuan.

Hau bihar delikaua zuan.

Horrek errezak dittuk.

*Orduan sasoian **ez** genkan dirurik.*

Baina perpausoko elementuren bat markatu nahi denean, hau da, garrantzi handiagoa eman nahi zaionean, elementu hori aditzaren aurreko kokagunean jartzen da, galdegaiari dagokion lekuan, alegia.

Hari emon netsan errekaia.

Errekaia emon netsan, badaezpada.

Gaur etorri da oporretatik.

Oporretatik etorri da gaur.

Politta zan mutikua.

Mutikua zan politta, neskatxua ez hainbeste.

Bestalde, aditza bera denean indartu nahi dena, *egin* aditza sartzen da indargarri¹⁰⁴:

Guk txispia baskuliari ajustau **eitten** getsagun.

Lutxau **ein** bihar dok.

Ekarri **ein** dau gaiñera!

Adizkiak trinkoak direnean, *ba-* partikula jarri ohi zaie aurretik indartu nahi diren edo galdegaiaren lekua betetzen duten adizkiei.

Badator alabia.

Banoia hemendik.

Zuazok (2002) aipatzen du “*juan doia*” gisako egiturak erabiltzen direla halako kasuetan Deba ibarreko hizkera batzuetan, baina guk ez dugu horren adibiderik jaso Eibarren.

5.1.2.- AGINTE-PERPAUSAK

Aginte-perpausei dagokienez, era ezberdinez osatutako egiturak aurkitu ditugu gure adibideetan:

Aditz jokatua duten aginterako forma arruntak

Kasu hauetan sarri perpausaren hasieran jarri ohi den adizki berezi bat (aginteke-ra) erabiltzen da¹⁰⁵.

¹⁰⁴Mendebaleko zenbait hitzunek bakarrik erabiltzen omen dute egitura indargarri hau (*Euskal Gramatika laburra: perpaus bakuna*, Euskaltzaindia, 1993).

¹⁰⁵Aditz-morfologiako 4.1.34. atalean azaltzen den moduan, Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailetan **egin da* laguntzailea, baina normalean soilduta eta aditz nagusiari lotuta agertzen da: *eidazu, eixozu, oratizu, hartidazu...*

Nik botako deuat hiri ta hik **botaidak** gero bestiori, hau gustauko jakuek eta

Gerran bateron batek agindu biharra: "Hau **eiñeik**" edo "Bestia **eiñeik**", edo "**makur-tu hari**" eta...

Bixar, igual, akordauko jatan ta esango jetsanet. Kapaz non deitzeko: "Aiba: **apuntaik** hori hor, izena".

Oillagorrek nun daren? **Begiratik** hara gora!

"**Etorri hari** hona!", deittu estan ta juan nitzuan ta "Aber, hamen dagok sinisten ez dabena ta **erakutsixuaz** horri!"

Ataraizu zeozer txikixa. **Zabaldizu** zera eta esango detsuet.

Eta esaten desku amak: "**Hartuizue** farol bat (...)" Eta eurixa zan. Eta zan "cuatro de diciembre", eta amak esan eskun: "**Hartuizue**¹⁰⁶ bai, farola eta **juan zaittie** farolakin".

Aditz jokatugabea duten aginterako forma arruntak

Aginterako forma hauek aditz-partizipioa erabilita osatzen dira.

Hil ta, sei edo zortzi-hamar hil, ta tiari: "Aiba! **ipiñi** horrek!" Lumatu ta ipintzen jittuan harek.

"Hi, zaindu hari ta **segi** pelotan jokatzen".

Estankuan banatzen dittue. Zuk periodikua erosten dozunian, estankuan **eskatu**, edozein periodikokin emoten dabe.

Zeharkako aginduak

Zeharkakoak diren aginduak, *esan*, *agindu* edo antzeko aditzen bat + *-(z)eko* forma dutenak:

Eta orduan, *ba*, *dana* jentia etortzen zan ikustera eta esan eskuen **ipintzeko** tabernia eta **ipintzeko** tabernia eta, *ba*, *gu* aizta bixok eskolan genbizen eta gure amak esan eban : "Bueno".

Eta honek, nere semiak, esplikau etsen hauxe ta hauxe daguala aitta, eta aitta ez daguanian mesedez **etortzeko**.

Amak esaten eban harutz **juateko** perretxikutara, Elgoibarrera, ta oiñaz, goizeko hiru-retan ta urtenda, oiñaz, "taparra, taparra", egunsentirako pagadixan egoteko.

¹⁰⁶ *-tu/-du* bukaera duten aditzekin honako bi aldaera hauek erabiltzen dira: *zabaldizu/zabaldizu*; *hartuizu/hartizu*; *oratuizu/oratuizu* (ikus 4.1.34. atala).

Subjuntibozkoak

Subjuntiboa erabiliz ere eratzten dira aginterako perpausak:

*Ta esan najetsan: "Bueno, bi tiro [heuk] ein ta horraxe direziñua ein dau ta **guazen!**"*

*"Zer? Agarraurik ezin leikiala jo, ala?" "Ez, ez. Hamen prohibiduta dagok". Di-da: "Itxi soiñua eta **guazen** etxera".*

*Bizkor **etorri dein** eskatu detsagu.*

Subjuntiboa + -(e)la

Subjuntiboa + -(e)la forma duten aginterako formak:

*Amak agindu detsa dana **jan deixala**, baiña honek kasorik be ez!*

*Nota onak **ekarri deixezela**, eta aitta on bat izan bihar dok!*

*Gero tapau, **tapau deixazela** [... karakolak], tapauta **egon deilla** berakatz saldiakin.*

5.1.3.- HARRIDURA-PERPAUSAK

Harridura-perpausetan hiztunak zerbaitek sortzen dion harridura ematen du aditzera. Ematen zaion doinuaren arabera, edozein adierazpen-perpau harridura-perpau bihur daiteke.

Hala ere, hiztunak baditu harridura-perpausak sortzeko formulak edo markatzaile bereziak ere, harridura hori indartzeko balio dutenak. Besteak beste, hauek dira horietako zenbait: erakusleak, galdetzaileak, *ba-* partikula, *gero*, *baiña*, *ona*, *barren*, *behintzat*, ordena aldatzeak, errepikapenak... Formula hauek erabiltzean, harridura perpausak entonazio berezia izaten dute, eta, normalean, perpausaren azkenengo silaba indartzen da.

Erakuslea aurretik jarrita

*Jesus...! Jo-ta danak... **Haura** zuan txalokia! Segi!*

***Holakorik** ez zan orduan!*

***Ha** zuan meritua! Nik hari emon najetsan meritua!*

*Ene! Zapatak etxian! Ta neuk nahi nittuanak! **Ha** zuan pozá! **Ha** zuan pozá!*

Ba partikularekin indartuta:

Ez jakiñat **bá!**

Joño! Juan **bá!**

Kauen diez! Oillagorrrakin dagok **bá!**

Gero partikularekin indartuta

Kasu honetan oso nabarmena da azentuaren garrantzia, ohiko entonazioaren ordeztu gero hitza indarra bukaeran emanaz ahoskatzen baita:

Gaiztua zara, **geró**, e!

Tiratzen be jakin ein bihar dok, **geró**, e!

Batek esan estan "hori ez hartu, **geró!**" "Ez, honek ikusteko".

Oin ez dago... Jentiak hori baiño... oin listuagua da, **geró!**

Ordena arrunta aldatuta

Azkarra gizoná!

Bai ba, zuek koruan eta profesionalak zarie eta **etarako ez dozue** premixuá!

Sentidu ez jok, ba, ein usaiñá!

Karo! **Entzungo ez zan**, bá!

Jatorra, jatorra mutillá!

Indartu nahi dena errepikatuta

Aurreko azken adibidean ikus daitekeenez, errepikapena ere harridura-perpauusak indartzeko modua izan daiteke:

Erakutsi esten harek... jo! **Ikusgarri! Ikusgarri!** Sardaua zelan eitten zan ta **ikasi** najuan ofiziuá, **ikasi!**

Bai, **haundixa** gaiñera, **haundixa!**

Baiña zenbat perretxiko ekartzen genduan **baiña!**

Baiña partikularekin indartuta

Aurreko adibidean ikusten den antzera, **baiña**-k ere indargarri zeregina bete dezake harridura-perpauetan:

Harek gu baiño zahartxuaguak zittuan **baiñá!**

Agure zahar guztiak han. Andrekin **baiñá**

"Beste leku baten lagako heban", eta: "Ez, hamentxe laga dot", eta: "**Baiña** ez dagon **baiñá!**"

Paluekin edo... orbel artian ta, paluekin, ta tapauta. Ekartzen genduan **baiña**... perretxiko batzuk...! Guk zenbat perretxiko ekarri dogun...! Zenbat, **baiñá!** Ta zelakuak!

Galdetzailleekin indartuta

Azken adibidean ikus daitekeenez, **zelako** bezalako galdetzailleak ere erabili ohi dira harridura-perpausen indargarri. Ez dira erabiltzen, ordea, **zer** edo **zein** galdezailleekin osatutako harridura-perpauzak:

Aber **zelako** biharra dan...! Ez eguan ordurik eta egunik eta ezebez!

Ba, ikusi eizu **zelako** aldia dagon batetik bestera!

Eta hori ein neban eta horrek, irakorri ebanak, bestiak, esan estan: "**Zelako** zera!"

Zelako artista! Gure beheko loibia ein eban, pintau eban. Baiña zoragarri pintau eban!

Zenbat gaztaña egoten zan! Holako lokalak bi! Esajerau barik hori, e!

Eibarrek **zelako** kanbixua emon daben!

Ona adjektiboarekin indartuta

Kasu honetan ere behar-beharrezkoa da **ona** hitzaren entonazioa aldatzea perpau-sari harridura kutsua emateko:

Ta beste baten, hori be txarragua zan ha, gerra ostekue zan ha, dios! [...] Ha zan **oná!**

Ja-ta sartu etsa gaintxua aittek... ta betiko moduan oratu ta ekarri. Ha zan **oná!**

Bai, ha zan numero **oná!** E? Ointxe be, ojo, e!

Hasi zuan jan ta jan, ta esan najetsan: "Zuk jaten dozu **oná!**"

Barren lokailua erabilita

Eibar inguruan arrunta den **barren** lokailuak ere harridura-perpauetan indargarri gisa joka dezake:

Gizonak gara, **barrén!** Ez garala diferentiak!

Eta esaten netsan: "Hauxe dok edozer! Ni lehengua nok, **barrén!**"

Han juaten zanak ezer be: berrogei duro kobratzen zittuan, **barrén!** Ez zan ezer be.

Behintzat lokailuarekin indartuta

Basarrixetan ta bai, **behintzát**, e!

Ene! Hor ezin neike nik sartu, **behintzát**! Pentsau bez!

Zakua bete, guk eitten genduan, holako altura baten gaztaiñak botatzen genduan, honen lokalonen... ba, bi bai, **behintzát**!

Beste partikula batzuk erabiliz

Harridura adierazten duten esamolde, esaera edo interjekzioak erabilia:

Joño! Ikusi ez baneu, ez neban sinistuko!

Enee! Ene, ene! Gerrateko ipuiñek... eskasak die e! Eskasak!

Bueno...! **Jesus, Maria ta Jose!** Guk, bueno...!

Ene demoniuk! Bost oillagor gaur? Hamen usuak pasatzen ta...!?

Beinke! Han be horixe eitten eben, e?

Bai, **jakiña!**

Kontxo! Gabon zaharretan eingo juau.

Beti etorriko dala ta etorriko dala, ta oin ez datorrela **ostera!**

5.1.4.- GALDE-PERPAUSAK

Galde-perpausetan galdera bat egin ohi da eta, galdera horren edo erantzun posibleen arabera, era bateko edo besteko galde-perpausak sortzen dira:

Gadetzailez osatutakoak

Era honetako perpausetan, galdera galdetzaile baten bidez egiten da eta erantzuna ezin da *bai* ala *ez*-koa izan:

Ene! Horrek neskok **ze** dittuk?

Zeri diharduzu?

Nun hago? **Zetan** hago?

Sanguesara **zenbat aldiz**? Baiña Sanguesara **zetara**?

Aukera ematen dutenak

Kasu honetan galderak berak aukera bat agertzen du, eta erantzuten duenak horietako erantzun bat hautatu beharko du. Zuazok (2002) aipatzen duen moduan, Deba ibarrean, beste inguru askotan bezala, *ala* juntagailua erabiltzen da gehienbat aukerak emateko:

*Diruakin tapau **ala** holaxen laga bihar dozu ba?*

*E... liberalismuak ekarri eban sozialismua, **ala** industriak ekarri eban sozialismua?*

*Zelan hobeto, lehen **ala** oin?*

Bai ala ez-ko galderak

Galde-perpau mota honek erantzun bakarra onartzen du: *bai ala ez*. Era honetako galderak hainbat modutara egin daitezke: adierazpen-perpau arrunt bat galdera bihurtuz, *ba-* tankerako galderen bidez edo aukera bat ematen duten galderen bigarren zatia ezabatuz eta *ala* erabiliz.

Sentidu dok, ba, e?

Heuk hil dittuk horrek?

*Hik badakan, **ala**?*

*Ikusten dozu, **ala**?*

Bazatoz?

Horrelako galderetan *al* partikula erabiltzen da erdialdeko euskalkian. Deba ibarreko herri batzuetan ere erabiltzen omen da (Larrañaga, 1998; Zuazo, 2002), baina Eibarren ez.

Azkenik, badago beste partikula bat galderetan zalantza adierazteko erabiltzen dena: *ote*. Eibarren *ete* aldaera erabiltzen da eta, besteak beste, honako adibide hauek jaso ditugu gure hiztunen artean:

*Joe! Ze elementu **ete** dok hori...?*

*Ta, "Zein hartuko **ete** juau? Hau? Hau?... Enee!"*

*Eta esaten zetsan: "Kauen! Hori nun jirau **ete** leike?"*

*Eta: "Ene! Topauko **ete** jonau bidia?"*

5.2.- JUNTADURAZKO PERPAUSAK

Perpau bat baino gehiago jasotzen dituen perpau zabalago bati deitzen zaio perpau elkartua, hau da, perpau bakuna baino konplexuagoa den perpauari. Hala ere, perpau elkartu guztiak ere ez dira mota berekoak, perpau nagusi horren barneko perpauak **juntaturaz** edo **menderakuntzaz** elkar daitezke eta. Juntaturaren bidez maila bereko perpau bi edo gehiago juntatzen dira; menderakuntzan, perpau bat (mendekoa) beste batean (nagusia) txertatzen da, osagai gisa.

Esan bezala, juntagailuek maila berean dauden elementuen edo juntagaien arteko lotura egiten dute normalean, nahiz eta zenbaitetan maila ezberdineko juntagaiak ere elkartu. Hala ere, elkarketa horretan ere gorabeherak egon daitezke eta, ondorioz, juntagailu bakoitzak perpau mota ezberdinak sor ditzake.

5.2.1.- EMENDIOZKO JUNTAGAILUAK

Emendiozko juntagailuek bi zeregin nagusi dituzte. Lehenengoa juntagailu guztiak bete beharrekoa da, hain zuzen ere, bi elementu lotzea edo elkartzea. Bigarrena, aldiz, emendiozko juntagailuak besteengandik bereizten dituen funtzio edo ezaugarria da, juntagailu hauek duten gehitze edo emendatze zeregina, hain zuzen. **Eta** da elkartze eta gehitze zeregin honetarako erabili ohi dugun emendiozko juntagailua.

Eta

Forma desberdinak izan ditzake: **ta**, **txa**, **da**. Eibarko euskaran eta aztertu ditugun hiztunen artean ohikoak dira **eta** juntagailu nagusiaren aldaera horiek guztiak. Bestetik, Debagoieneko **enda** aldaera arrotza da Eibarren, adibideren bat jaso dugun arren.

a) **Txa** edo **tta** *i* bokalez bukatzen diren hitzen ostean erabiltzen da:

*Hemen ez zan gustora bizi **tta**, azkenian, alde ein eban.*

*Ein zittuan hogeta bi **tta** hiru tantogaittik irabazi eban partidua.*

b) **Da** kontsonante albokari, dardarkari eta sudurkarien atzean erabiltzen da gehienbat:

*Ta taillarra be bajeken zerian, Donostian, eurak sotano baten, taillarra, trokelajeko taillarra, ta baten haraxe eruan niñuen, ajustatzeko gauza batzuetan **da** limia ta aprobatzera.*

*Ikusi niñuen, **da** nik berari, eskopeta bat arreglatzen jiharduan, eskopeta bat ajustatzeko arreglatzen, da totaleko aldrebes jiharduan, **da** barre ein najetsan.*

*Bat bihar **da** bera be ez!*

*Orduaintxe etorri zuan Migel, **da** alde ein genduan.*

- c) *Ta* bokal ostean erabiltzen da gehienbat, baina kontsonante albokari, dardarkari eta sudurkarien atzean ere sarri ageri da:

*Martxia hartzen genduanian ezin geratu **ta** "bau!" eskua ipini arbolan da geratzen giñan.*

*Ta gero, ba, gurasuekin igual Izarraitzera **ta** haundittutakuan, ba, Klub Deportibuan sartu **ta** medaillia etaratzia zan zerori.*

*Orduan zelan euazen andraetxiak bi, Korrida Plaza aldamenian, Isasikuak eta honek Untzagakuok eta Frontoi Zaharrekuak eta ha ikusten eben han mobimentua **ta** harek baekixen ze zan **ta** guk ez!*

- d) *Eta* kontsonante herskarien atzetik erabiltzen da gehienbat:

*Bolio baten ipini najetsan zirixa eta geuzak **eta** "grak" **eta** ajustau najetsan.*

*Armeruak zittuan harek, baiña armeruak fusillanak, **eta** horrek amatralladoranak eta geuzak jakingo jittuezen.*

5.2.2.- JUNTAGAILU HAUTAKARIAK

Juntagailu hauen zeregin nagusia perpaus edo atalen arteko hautaketa edo aukera adieraztea da. Bi multzotan ere sailkatu izan dira sarri juntagailu hauek, alde batetik "disjuntiboak" eta bestetik "distributiboak" banatuz, baina guk atal berean sartuko ditugu *edo*, *edota*, *ala*, *nahi(z)* eta *zein* bezalako juntagailuak. Beraz, hauek ditugu juntagailu hautakari nagusiak, baina, beste askotan gertatzen den antzera, ez dira aukera guztiak jasotzen euskalki bakoitzean, hau da, juntagailu hauetariko batzuk bakarrik erabiliko dira zenbait euskalkitan eta beste batzuk beste euskalki batzuetan. Hori dela-eta, aipatu ditugun juntagailu hautakarien artean *edo* eta *ala* dira nagusi gure hiztunen artean, nahiz eta besterik ere erabiltzen den Eibarko euskaran.

Edota

Ez da ez arrunta Eibarko euskaran; lekuko guztien artean adibide bakar hau jaso dugu:

*Holan, orfeoiko kantuak be "Goizeko izar" **edota** "Ilunabarra" ta... Horrek kantu mordua dotore kantatzen giñuazen kuadrilliak.*

Juntagailu hautakari honek oro har *edo*-ren banaketa bera duela esaten da, eta kasu honetan zeregin berbera betetzen duela ematen du. Beraz, ondoren *edo* juntagailuaren banaketa eta funtzioa aztertuko ditugu, *edota* alde batera utziz, ez baita arrunta Eibarko hizkeran.

Edo

Edo juntagailua dugu hedatuena hautakari guztien artean, eta badirudi zenbait hiztunek hautakari hau besterik ez darabilela bere hizkeran. Euskara batuko forma onartua *edo* den arren, Eibarko euskaran **ero** aldaera da nagusi, gazteen artean aldaera hau galduz doala badirudi ere. *Edo* juntagailuak ere, emendiozko juntagailuaren antzera, maila guztietako osagaiak elkar ditzake, baina, kasu honetan, hautaketa *edo* aukeraketa bat adierazten da bi osagai horien artean.

*Eta gu gari ebaten **ero**... ni merienda eruetera **ero** ez dakit zer, neska koskorra nitzen, hamalau urte oindiok...*

*Su hartu kotxiak! Su hartu kotxiak ein zeskun! Ez dakit ba, txisparen bat **ero** euki, kabliak soltau **ero**... Su hartu!*

*Eruaten eban gure amak orduan bazkaltzeko bakillaua prejiduta **ero** bakillaua xehe, xehe, xehe ein ta tortillia einda ta gero okelia, tajadak e!*

*Ta jarri asto gaiñian ta ogixa **ero**, zeoze, mahatsa badago mahatsa **ero**, zeoze jan.*

Azken adibide honetan ikus daitekeen bezala, *edo* juntagailu hautakariak perpau-sak bakarrik ez, bestelako osagaiak ere elkar ditzake. Bestalde, adibide hauetan ikus daitekeenez, sarri bigarren osagaia ezabatu egin ohi da. Hona hemen horren adierazle diren adibide gehiago:

*Orduan danak ez zittuan juango Melillara baiña, honenbestetik honenbestera **ero**, sorteora **ero** ez jakixat zelan eitten eben.*

*Gure gurasuak billurtuta, ta gurien moduan beste asko be bai, ta ipini juen, ba, nahi dabenak pagau ta, bederatzi hillebete **ero** zuan eitten genduana bertan, geure kontura zera, lo ta jan ta horrek geure kontura, kuarteletik fuera, baiña kuartelian goixian bertako kuartelekuen moduan, lehenengo zererako, "vamos", listia pasatzen erenian soldaueri, ba, bederatzirak **ero** dana dala, "ra!" ta hantxe [...]*

Bestalde, *edo* juntagailu hautakariaren kokalekuari dagokionez, normalean, lotuko dituen bi osagaien artean agertzen bada ere, lehenengo osagaiaren aurretik ere ager daitekeela ikus dezakegu ondorengo adibide honetan:

*Ta gero urte guztirako! **Ero** bera erreta jateko, **ero** babak eitteko, **ero**... bueno, zuk bihar dozunerako, harek esegitta egoten zien ta...*

Horrenbestez, *edo* juntagailuak orobatasuna ere adierazten du, *zein* edo *nahiz* juntagiluen antzera jokatuz.

Ala

Esan bezala, gure hiztunengan nagusi den beste juntagailu hautakaria *ala* da. Badirudi forma aldetik ez duela inolako aldaerarik eta, *edo*-ren antzera, maila guztietako osagaiak elkar ditzake. Hala ere, bada ezberdintasun bat bi juntagiluen artean, batetik zein motatako perpausetan agertzen diren kontuan izanda eta, bestetik, zein baliorekin erabiltzen diren ikusita. Ez dira oraingoak bi juntagailu hauen arteko ezberdintasunak argitu nahian sortutako eztabaidak. *Ala* hautakaria galde-perpausetan ageri da gehienbat. Adierazpen-perpausetan ere aurki daiteke bi osagai elkartzuz, baina osagai hauek ez dira perpaus jokatutako izaten, EGLUn adierazten den moduan¹⁰⁷. Guk jasotako adibideetan *ala* galde-perpausetan (bai zuzenetan eta bai zeharkakoetan) agertzen da soilik, eta *edo*, aldiz, adierazpen-perpausetan eta galde-perpausetan aurkitu dugu. Bestalde, galderetan *edo* juntagailuak sinonimoak diren osagaiak lotzen dituela dirudi eta *ala*-k, aldiz, kontrakoak direnak.

*Baiña haraxe begira eguan ta harek kanpora urten bihar juan ta, bueno. "Ikusten dozu **ala**?" "Bai!" "Joño! Juan ba!"*

*Eta esango detsut: bat, nere aitta besuetakua, elorrixoarra, ez dakit kabua **ala** sargentua izan zan karlistegaz.*

*Ba! Horren bildurra dakak **ala**?*

*"Bueno, bueno... hori jatekua dok **ala**?" esaten netsan ta "Onak dittuk, onak dittuk..."*

*Ez dakit, ba, nik, injenierua **ala** zer zan edo, eta ha gizon majua zan eta ha ibili zan frentiak guriak zertzen.*

*Ez dakit zenbat konzejal izango ziran, hamazazpi **ala** hemeretzi.*

*Zer nahi dozue, cognac **ala** anisa **ala**... zer nahi dozue?*

¹⁰⁷ EGLU-IV (Euskaltzaindia, 1994).

Nahiz (nahi)

Formari dagokionez, *nahi* aldaera da aipagarriena. Bestalde, juntagailu honen erabilera-eremua mendebalekoa dela esan behar da, EGLUn¹⁰⁸ aipatzen den moduan. Orobatasuna adierazten du normalean, hau da, aukera bat edo bestea berdintsu zaiola adierazten dio hiztunak entzuleari. Hona hemen Toribio Etxeberriak *nahi* aldaerarekin bere hiztegian jasotako adibide bat:

Nai euri eta **nai** euzki, ezerk ausiko haren eguneroko bidia. (Etxebarria, 1998)

Eta XX. mende hasierako «*Caleco biargiñac*» testu ezagunean hauxe dugu (ikus testu osoa 7.5. atalean):

...leguian debecauta dago iñori votua quentzia amenasuequiñ eta compromi-suequiñ; **nai** saltzia eta **nais** erostia, **nais** aintzia voto truque edoser gausa, **nais** venetan, **nais** gusurrarequiñ generalian eichen daben moduan.

Gure hiztunengandik ere jaso ditugu zenbait adibide, baina juntagailu honen erabilera Eibarren gaur egun apaldu egin dela ematen du eta, gainera, gazteen artean galduz doala dirudi.

Ta horra bota bihar detsazue tomatieri, **nahiz** piparreri, **nahiz** lekiari...

Eta orduan, sorketarako, **nahi** poesiagintzarako, **nahi** ipoiñak edo narratibia idazteko, *nahixago dot nere hizkuntzia, euskeria.*

Zein

Nahiz juntagailu hautakariarekin batera, *zein* juntagailuak ere “orobatasuna” adierazten du. Honen esparrua ere mendebalera mugatzen dela esan daiteke, baina badirudi, gainera, honek eremu murriztagoa hartzen duela¹⁰⁹. Aipagarria da, *nahiz* ez bezala, Toribio Etxeberriak ez duela jasotzen *zein* juntagailua bere lexikoian. Gure adibideen artetik jaso dugu juntagailu honen adibideren bat edo beste, baina gaur egun Eibarren ez da larregi erabiltzen.

¹⁰⁸ EGLU-IV (Euskaltzaindia, 1994).

¹⁰⁹ EGLU-IV liburukian *zein* bizkaierazko testuetan bakarrik aurkitu dela adierazten da (Euskaltzaindia, 1994). Larrañagak (1998) ez du bere lanean aipatzen. Durangaldean, ostera, erabiltzen da (Bravo, 2001; Gaminde, 2003).

5.2.3.- AURKARITZAKO JUNTAGAILUAK

Era askotara gauza daiteke aurkaritzako juntadura. Izan ere, nahikoa baita aurkakoak diren bi osagai alboan jartzea, besterik gabe; honekin batera, *eta* emendiozko juntagailuak berak ere aurkaritza adieraz dezake, kontrako ideiak elkartuz gero. Hala ere, badaude berez aurkaritza zentzu hori duten juntagailuak, eta hauen artean nagusia *baina* dugu, beste batzuk ere badiren arren, hala nola *baizik*, *baino* eta antzekoak.

Baina

*Bueno, ointxe pixkat... Oin arte ez, **baiña** oin ya badoia pixkat gorutz! Lehen esaten eben, ba, azkeneko mundua zala, **baiña** ez jauna! Tamaiña horretaraiñok ez, ezta?*

*Klaro, eske oin bi urtekin ta hiru urtekin ta hari ezin leikezue... **Baiña** orduan, ba, nik, pentseizu, zortzi urte ta ya zortzi urtera ezker... Bai, irakorten dana ez, **baiña**... bueno, pixkat ikessita jun giñan ta gero, ba, errezago sartu giñan.*

*Ta hemen ikusi barik papelezko galletak. Egongo zien igual nunbaiten, **baiña**... Basarrixetan ta, behintzat, ez zan egoten orduan.*

*Orduan... oin ez da hartzen, **baiña** orduen arto pillia hartzen zan! Asko! Ta hemen geunken beheko sua, geunken lehen, gero kendu genduan **baiña**... Ta gure tia, nere tia bat, soltera bat, oso talo-eitzaille ona zan, e! Eitten zittun talo batzuk...!*

Adibide hauetan ikus daitekeenez, *baina* juntagailuak aurkaritza adierazten du eta, gainera, normalean, aurkakoak diren bi elementu horien artean kokatzen da. Lehenbiziko osagaiak zerbait adierazten du, eta juntagailuaren ostean ageri denak aurkako adierazten duela esan daiteke nolabait. Adibide hauetako askotan, esaterako, "lehen" eta "orain" kontrajartzen dira eta, beraz, nabaria da aurkaritza hori.

*Gure aitta juaten zan manzanillatara, perretxikutara, karakoletara, intxaurretara... ta ni juaten nitzan gaztañatara, gaztaña sasoian. Eskolara ez juatiarren **baiña**, e!*

*Enee! **Baiña** zenbat perretxiku ekartzen genduan, **baiña**!*

*Paluekin edo... orbel artian ta, paluekin, ta tapauta. Ekartzen genduan, **baiña**... perretxiko batzuk...! Guk zenbat perretxiko ekarri dogun...! Zenbat, **baiña**! Ta zelakuak!*

*Bein, jua zan guraso bat bere semeari elgorrixa osatzen ibilli zan medikua-rengana kontua pagatzera. "Zerbait merkatuko destazu **baña**". "Merkatu? Zer dala-ta?" (J. San Martin, Zirikadak, 16)*

Azken adibide hauetan ikus dezakegunez, *baina* juntagailuak beste kokagune bat ere izan dezake: bigarren osagaiaren bukaeran edo tartean ere ager daiteke. Hala ere, erantzun laburretan, galde-perpauetan edo harridurazko perpausa denean gertatu ohi da gehienbat.

*Pagua bazeguan, bai. Haritza... gitxiago **baña**, konparaziñuan.*

*Gaur berandu helduko naiz, juango naiz, **baña**, zuen etxera.*

Baino eta antzekoak

Aurkaritza-mota hau ez da aurrekoa bezalakoa. Lehenbiziko motak “kontra” dau den juntagaiak batzen dituen antzera, honako honek galdegaien arteko kontrastea adierazten du; hau da, lehenbiziko osagaia beti ezezkoa izango da eta bigarrenak baiezkoa emango digu. Bestalde, multzo hau *baizik*, *baino* eta *ezpada* bezalako juntagailuez osatua dagoela esan behar da. Aukera hauetatik *baino* besterik ez darabilgu gure inguruan, eta honek ere eremua nahiko murriztua duela ematen du, ez baitugu adibide bakar bat ere aurkitu. Dena dela, ondorengo adibide hauek Toribio Etxeberriaren lexikoitik jasotakoak dira:

*Ez genduan bihar oiñ orixe **baño**. (Etxebarria, 1998)*

*Neu **baño** besterik ez da agertu batzarrera. (Etxebarria, 1998)*

Zuazok (2002) aipatzen du *besterik* eta *baino* (gutxiago) erabiltzen direla Deba eskualdean. Hala ere, *besterik* juntagailuak perpausak baino gehiago hitz solteak edo sintagmak lotzen dituela dirudi.

5.3.- PERPAUS MENDERATUAK

Juntaduraren antzera, menderakuntza ere perpausak elkartzeko bidea dugu, baina kasu honetan elkartutako perpaus biak ez dira parean egoten, bata bestaren mendea baizik. Hori dela-eta, mendeko perpausa beti goragoko perpaus baten osagaia izaten da, honi txertatua egoten baita.

5.3.1.- PERPAUS OSAGARRIAK

Perpaus osagarriari buruz labur zerbait esateko, mendeko perpausak sustantibo edo izen baten lekua betetzen duela esan dezakegu eta, izenak berak adierazten duen moduan, normalean osagarriak izan ohi direla, hau da, perpaus nagusiko elementu batekin “konplementazio-erlazioa” dutela. Ondoren ikusiko dugun moduan, era ezberdinez sor daitezke perpaus osagarriak.

5.3.1.1.- Adierazpen-perpaus osagarriak

Izenak berak agertzen duen moduan, sail honetako perpaus osagarrien mendeko perpausa adierazpen-perpausa da. Hala ere, mendeko perpaus horiek menderagailu bat baino gehiago darabilte perpaus nagusian txertatzeko. Perpaus osagarrietan menderagailu hedatuena *-e(la)* atzizkia dugu:

Ta hori sarrittan komentau da, ta eskribidu be bai iñok iñoix, Eibarren horixe egoten dala, sekula ez dala distinziñorik egon bai ugezaba, jefia, enkargaua, bihargiña, akabatzaillia edo ingeñierua... danak nahastaut!

Nik pentsatzen dot gustorago ez ebalá hartuko haxe erregalua baiño.

Ba pentsatzen dot izeten zala ordua bederatzirek, uste dot. Bederatziretatik hamabixetara izeten zan ta gero, uste dot, zala ordu bi ta erdietatik, bostak, edo bost eta erdiak artekue edo.

Nik pentsatzen dot beste bide baten doiazela, bide apartekuan goiazela, baiña bixok nahi dogula ontasuna geuretako eta bestiendako.

Baina bada, antzekoa izan arren, honengandik bereizten den menderagailu bat: *-(e)na*. Honako hau zerbait ziurra denean, hau da, “badakit” edo “ikusten da” bezalako egituren osagarri erabiltzen da:

Banekixan han izan **zana**, baiña berak ez zestan esan nahi.

Ikusten neban euskaldun bakarra nintz**ana** ta isilik egon bihar!

Ba, hori enpeñau zan nik lagunduta Mitxelenagana juaten eta Salvatore Mitxelenari galdetu ia egixa dan denunziau eb**ena**.

Baietz uste dot, baiña oin ezin neiketzu esan [...] ta igual da, baiña badakit aponeketan eitten gendu**ana**.

Ermua-Eibar-Elgoibar eitten zeбен eta ikusten ginduzen estu gebiz**ena** eta Pesakuak be aprobetxau ein zeban.

Gero badakit dato**zena** gogorrak.

Oseake, ez dozu irakorri zuk hori, e, urten dab**ena**.

Bazekixen gurera etorri eta salduta zeuk**ena**, eta gurian hustutzen zeбен eta juaten ziran.

Orduan "derecha"-k —ikusiz zan gero— indar haundixa eken. Eta dudarik be ez, gaur be dak**ena** euren indarra.

Bi atzizki hauen arteko bereizketa **-(e)la/-(e)na** ez da leku guztietan egiten, baina bai Eibarko hizkeran. Badirudi ezaugarri hau Deba ibar osoan betetzen dela (Zuazo, 2002) eta mendebal gehienez ere bai. Berrizen (Bravo, 2001), Antzuolan eta Ermuan (Larrañaga, 1998; Aranberri, 1996) ere jaso da.

Normalean **-(e)la** menderagailua bera bakarrik erabiltzen den arren, badago beste aukerarik ere; esaterako, **eze** (**ezen**) partikula jartzea aurretik. Gure adibideen artean aurkitu dugu halakorik.

Geruago eta nere barrurago sartu, ikusten dot **eze** holantxe dala.

Sozialistak presentau zeбен moziño bat esaten **eze** juntau bihar dirala dirua zeken guztiak.

Adibideetan ikus daitekeenez, **-(e)la** eta **-(e)na** menderagailuak baiezko perpausetan agertu ohi dira, baina ezezko osagarrietan **-(e)nik** erabiltzen da:

Nik ez dot pentsatzen kontrarixuak diran**ik**. Nik pentsatzen dot beste bide baten doiaz**ela**, bide apartekuan goiaz**ela**, baiña bixok nahi dogula ontasuna guretako eta bestindako.

Eta gaur egunian ez dot uste marxista purua naizen**ik**, ezta gitxiagorik be. Gaur egunian, pentsatzen dot indar ona eta indar txarra geure barruan dagola, egoismuan.

Ez dot uste hamen iñor eguan**ik**...

Ni ez noia esatera gaurko pelotarixak txarrak diran**ik**.

Esan bezala, *-(e)la* da osagarrietarako menderagailu hedatuena, eta *-(e)na*, *-(e)nik* eta *-(e)n* bezalako atzizkiek esparru mugatuagoa dute, hizkeraren arabera baitira. Badira, bestalde, zehargalderen antzera, galdetzailez eta *-(e)n* atzizkiaren laguntzaz osatutako perpaus osagarriak ere, baina zehargalderetan ez bezala, perpaus haue-tako *nola* edo *zelan* hitzek lokailu zeregina betetzen dute hemen. Adibideetan ikus-ten den moduan, halakoak zerbait kontatzerakoan erabili ohi dira, batez ere, *esan* eta *kontatu* bezalako aditzekin (Euskaltzaindia, 1999).

*Bai, hori... Toribio Etxebarriak badaukaz beran liburuetan... hori... zer bat, **zelako** gosiak pasatzen ziran eta **zelako** miserixia zeguan.*

*Ta, pentseizu, frailliak etorri arte, hau morduak ez daki, **zelan** Bidebarrixetakuak juaten giñan kuarteleko eskolara, Jardiñetakuak-eta eskola batera, hamenguak Frontoi Zaharrera, bestiak...*

5.3.1.2.- Galde-perpaus osagarriak edo zehargalderak

Izenak berak adierazten duen moduan eta adierazpen-perpaus osagarrien kasuan esan dugun antzera, honako multzo honek duen bereizgarria, mendeko perpausaren oinarrian galdera bat edukitzea da. Beraz, zuzenean egindako galderak izan beharre-an, izenak adierazten duen moduan, zeharka egindako galderak edo zehargalderak izango dira. Adibide haueetan ikusten den moduan, zehargalderak osatzeko era ohi-koena aurretik galdetzailea jarri eta ondoren aditzari *-(e)n* atzizkia eranstea da.

*Ta neri, lehenengo-lehenengo, nik badakit **zeiñek** esplikau estan. Isasiko mutil batek esplikau estan **ze** dian harek.*

*Ba, oin urtietan be ez naiz jua ni ta ez dakit **zelan** daguan...*

*Ta han egoten giñan begira lodixenak **zein** huekotan dagozen, lodixena hartzeko.*

*Oin dago geuria, hamen auzuan beste bat... bueno, lau edo ez dakit **zer** gera-tzen dan...*

*Ta gero zan Agiña-erreka esaten jakona; ez dakit **zelan** esplikauko dotsuten...*

Orain aipatutako partikula hauek ere menderagailuak dira, baina badago aukera-koa den beste partikula indargarri bat: *ea*. Eibarren *ia* da erabiltzen den aldaera.

*Etorri zan eta euskeraz ein eskun. Eta esan eskun **ia** nunguak giñan.*

*Eta lagun bati idatzi netsan handik **ia** gramatika bat billauko estan euskeria ikasteko zerbaitt.*

Eta hango mendizale ziranak behin eskatu esten, mendizale hórrek eskatu esten, **ia** lagunduko netsen.

Horregaittik laga zan zortzi edo hamar urteko epia nahi ebenak hartu praktikan **ia zer** erabagi [hartzen eben] edo **zer** bide jokatzan zan.

Dena dela, Eibarren *ea*-ren parekoa den beste partikula bat ere erabili ohi da zehargalderen indargarri, gaztelaniatik jasotako *aber*.

Aber honekin **zer** eitten duan eta aber honekin.

Egurra ez baiña, ño! **Aber ze** sasoi dan etortzeko eta... bueno, errespetua.

Preguntatzen ibili ziran **aber** zekixen **zelan** eitten zan, ta...

"E! Horretara, gerra bat ingo jau!", eta "Bai!", "**Aber zeñek** hobeto afinatzen dogun geure tirua, fusillekua".

Eta galderak ein zestazena, **aber zein** naizen, nungua nintzan, zer neukan eskuetan irakurtzeko —liburuori—, eta danok harek ein zestazen.

Hau bialdu jok **aber zetara** etorri naizen jakitzera.

Azkenik, beste partikula bat ere aipatu beharra dugu: *ete* (*ote*). Galde-perpaua zuzenetan *ete* partikulak eragina du esanahian, zalantza adierazten baitu. Zehargalderetan, aldiz, ez du esanahia aldatzen, baina zehargalderak berak adierazten duen zalantza indartzen du. Dena den, aukerakoa da.

"Ene ba! Munduan azkena! Kitto! Munduan azkena!" pentsau genduen ta juen giñen besteko kortara, orduen bi etxe ta bestera, han hobetotxuago **ete** geuzen edo demontres!

Ta gero, gure aitta zana ezkutau zan jo-ta eurekin eruango **ete** daben ta ezkutau zan horra beheko, ez dakit nongo, larrarte [...] ta gabien etorri die reketiok!

Eta nik esaten detsut: komunista **ete** naizen pentsatzen dabe.

Badittu bere alde onak. Hau da: iñor ibili ez dan lekuetan **ze** deskubriduko **ete** doten.

Eta gero korrontia gora urtetzen, gerriraiñoko uretan, bueno, gaiñera jakin barik **nun** zuloren baten sartuko **ete** giñan.

Gehixago: berak ikusten eban bere artxibua deseingo **ete** zan edo: bildurra

Bajatu nintzan, eta han nekazen beheian arkuetako zerian eta danak (...) espektatiban eguzen **zer** pasatzen **ete** zan.

5.3.1.3.- Subjuntiboko perpaus osagarriak

Aurreko bi multzoetako aditzak indikatibokoak ziren, baina honako talde hau subjuntibokoak diren aditzek osatzen dute, eta *-(e)n* edo *-(e)la* atzizkiak har ditzakete.

*Hain dok kanbixo gogorra eze, nahixago dozu eboluzionatzen juan **dein** soziedadia, jo eta apurtu baztar guztiak baiño.*

*Gero tapau, tapau **deixazela** [karakolak], tapauta egon **deilla** berakatz saldia-kin.*

Azken adibide horretan ikusten den moduan, normalean, agintera kutsua izaten dute era honetako perpaus osagarriek.

5.3.1.4.- Perpaus osagarri izenlagunak

Orain arte ikusitako perpaus osagarri guztiak aditz batek edo predikatu-egitura batek gobernatuak dira, baina badaude izenlagun diren, izen batek gobernatzen dituen perpaus osagarriak ere.

Enbenenau ingo dialakuan...

Lumatu ta ipintzen jittuan harek! Ta harek be “como si no”, holaxen dalakuan.

Soiñuakin juan giñan eta urten eskuen besteren bat giñalakuan. Besteren bat giñalakuan, itxuria. Beste bat giñalakuan gu.

Beti txakurrak, ba, karizia eittera koittaua, aiztiari atzetik oratu eitten etsan. Eta bateron bat zalakuan etorri! Baiña sano, e!

Esan etsen Etxabek lagatzeko —hil ein bihar dabelakuan— konfesatzen, bera abadia zala ta. Eta gero osatu zan. Baiña gaixki egon zan, hil bihar zalakuan.

Hik jakingo dualakuan deittu juat.

Adibide hauetan ikus daitekeenez, atzizkiaren ondorengo izena (“*uste*”, “*esperantz*” edo antzekoren bat izango dena, ziurrenik) ezabatua egon daiteke, eta, gainera, kasu hauetan *-(e)lako* atzizkiari, izena desagertzean, *-an* marka gehitu zaio.

5.3.1.5.- Aditz jokatugabedun perpaus osagarriak

Orain arte ikusi ditugun guztiak aditz jokatuez eratutako perpaus osagarriak izan dira, baina badira aditz jokatugabeak dituztenak ere. Jokatuekin gertatzen den

antzera, bigarren hauek ere forma bat baino gehiago onartzen dute. Adierazpen-perpauak direnean, perpau osagarria nominalizazioen bidez sortu ohi da eta, gainera, nominalizazio edo aditz-izena hainbat formatan ager daiteke: *-t(z)ea*, *-t(z)eak*, *-t(z)erik*... Eibarren *-t(z)ia*, *-t(z)iak*... aldaerak aurkituko ditugu.

*Ta gero, ba, gurasuekin igual Izarraitzera, ta haunditzen giñazengan, ba, Club Deportibuan sartu ta medaillia **etaratzia** zan zerori.*

*Hi zaindu hari eta segi pelotan jokatzen. Eta nik... nere pentsamentua horixe zan: pelotarxa **izatia**.*

*Jokatzen **ikustia** eureri be gustau eitten jakuen, itxuria.*

*Eta gero, hortik aurrera, nik enpresarixueri diru gehixago eskatzen netsen kanpeonatuan **jokatzeko** eta enpresarixuak ez esten nahi **pagatzerik**.*

*Ostian, serbizia ezebe ez dok ha **eittia**.*

Bestalde, galde-perpauak direnean, partizipio hutsa erabiltzen da aditz jokotuga-bedun galde-perpau osagarriak eratzeko.

*Kaniketara, poltxillotxua ein ta hara **zeiñek** kanikak **sartu**.*

***Zein** bizkorrago **allegau**, karrerak eitten genduzen.*

5.3.2.- PERPAUS ERLATIBOAK

Perpau erlatiboek funtzio adjektibala dutela esan ohi da; hau da, perpau osagarriek izen baten lekua betetzen duten antzera, perpau erlatiboek adjektibo edo izenlagun baten lekua betetzen dute. Beraz, perpau erlatiboa izen baten ondoan agertu beharko da, nahiz eta zenbaitetan izen hori ezaba daitekeen. Adibideetan ikus daitekeen moduan, perpau erlatiboak eratzeko atzizki ohikoena *-n* dugu:

*Lehen pelotia zulotik etarutzen zanian, ezkerakiñ eta joten zan zabalera eta erdixan dagon **n** jueza hanka ein ezinda ibiltzen zan.*

*Ni hasi nitzan zortzi urtekin eskolara ta hortxe ikesi neban, ba, hamalau urte arte, ikesi gendu**ena**.*

*Hantxe dakaraz danak, holakotxe liburuak, bertso morduak dittu**enak**.*

*Jaiko erropia daukan**ak** jaikua, ta ez daukan**ak** garbittu ta daguan**akin**, ezta?*

*Gero be bota genduazen halakotxe geuk ikasitta gekaguzen**n** bertsuak.*

Hala ere, ondorengo izena desagertzean, determinatzailea eransten zaio sarri atzizki erlatiboari eta, beste zenbaitetan, ondorengo adibide honetan ikus dezakegun bezala, izena ezabatu ez arren, honek daraman marka bera hartzen du erlatiboak ere:

*Neretzako, nik euki doten**nik** plazarik onena Franzia izan da.*

Esan bezala, *-n* da markarik arruntena aditza jokatu duten perpausetan, baina aditz jokatugabea dutenetan *-dako* edo *-tako* da atzizki erabiliena. Beste euskalki batzuetako *-(r)iko* ez da erabiltzen¹¹⁰.

*Txandan zain eukitzen nittuen etxien **eindako** gaztaia hartzeko! Euki genduen ganbaran ipinita egurrakin **eindako** zera, barilla edo zer estu-estuekin ta han-txe siketzen zian ta koloria hartzen ebenian, saldu ta kitto!*

*Eruaten genduan bazkarixa jan ta kafia hartzera gero iñon kontura, lapurretan **eindako** txakur haundixekin!*

*Tokatzen bajatzu usteldu**tako** bat... adios! Juan zan ha kazuelia!*

*Apartau zuan ha, goittik behera edo hara gora edo... nunbaittera ta ze ein najuan, ta, ni sartu ezin**dako** moduko piñudi bat eguan zerratua ta sasixa ta geuza asko ekazena ta goittikan bidia ekan, geiñetikan librian.*

Aditz jokatuak dituztenen artean, beste alderdi batzuetan badaude perpaus erlatiboak sortzeko beste bide batzuk ere; esaterako, *zein* erlatiboaren bidez edo *bait* aurrizkiaren bidez eratuak. Eibarren ez dago horrelakorik.

5.3.3.- Konparazio-perpausak

Gure hizkuntzaren barnean badauzkagu zenbait kualitate edo nozio, eta nozio horiek mailakatuta egon daitezke. Horrela sortzen dira konparaziozko perpausak. Gainera, bi kontzeptu konparatzean berdintasunari edo desberdintasunari begira diezaiokegu, bi gauza antzekoak edo desberdinak izan daitezkeelako, eta baita horren arabera alderatu ere. Hori dela-eta, euskarak *adina*, *bezain*, *bezala* eta antzekoak erabiltzen ditu berdintasuna markatzeko, eta desberdintasuna adierazteko, berriz, *baino*... *-ago* bezalakoak.

¹¹⁰Bravok (2001) Berrizen erabiltzen dela aipatzen du, baina Ermuan (Aranberri, 1996) eta Antzuolan (Larrañaga 1998) ez da azaltzen.

5.3.3.1.- Berdintasunezko konparazioa

Maila: bezain, -en moduko, besteko.

Maila-konparazioa adjektiboen eta zenbait adberbioren gainean egiten da. Hauek mailakatzea onartzen badute, beste erreferentzia bat hartuta, bien arteko konparaketa egin daiteke. Maila-konparazioan berdintasuna adierazteko euskarak darabilen morfema nagusia *bezain* da, bere aldaera guztiakin. Eibarren *bezin* aldaera erabiltzen da.

*Eta edozein geittan be, bueno!, erderaz gehixago daukazu ohittura, baiña morroitza bada nik badakit ha ez dala bestia **bezin** ona.*

*Zu **bezin** aberatsa aurkitzen naiz nere moduetara lamai euki ez arren. (Etxebarria, 1998)*

Dena dela, adibide apur hauek jaso ditugun arren, morfema hau ez da oso arrunta Eibarko hizkeran. Hori dela-eta, askotan bestelako bideak erabiltzen dira maila-konparazioa egiteko, esaterako, *-en moduko* eta *besteko* bezalako egiturekin.

*Ez zan hemen inguruan egongo horren **moduko** mendirik, e!*

*Ha be, **nere moduko** rubixua zan eta: "Zuri-zurixa heu be, ba!"*

*Aitta **bestekua** hazi da, barren, mutikua!*

Zenbatasuna: adina, beste, lain

Berdintasunezko kantitate-konparazioa adierazteko Eibarren erabiltzen diren morfema nagusiak *aíña* (*adina*) eta *beste* ditugu.

*Eta hala eta guzti be, gaur **aíña** langabetu zeguazen.*

*Oso maistra jatorra ta ikesi genduen. Defenditzeko **beste** ikesi genduen behintzet.*

*Oin **beste** pentsu ez e! Ene! Orduen, zela ekarriko zenduan, ba? Nundik?*

*Ekartzen genduan, baiña, baiña... geuk nahi genduan **beste** ekartzen genduan!*

Eibar inguruan *beste* da lehen aipatutako morfemetan erabiliena, baina, hala ere, badago mendebalean eta Gipuzkoako zenbait alderditan¹¹¹ konparazio-morfema-

¹¹¹ Zuazok (2002) Deba ibar osoan erabiltzen dela aipatzen du. Urola aldean eta Goierri inguruan ere ez da arrotza.

tzat erabiltzen den beste hitz bat: *lain*. Askotan konparazio-elementuen antzera jokatzen duen arren, ez dirudi zehazki parekoa denik, besteak beste, destinatiboko atzikia eskatzen duelako beti, Zuazok (2002) adierazten duen moduan.

Bizitzeko lain bagenkan behintzat eta aurrera!

Hau eitteko *lain* izango naiz behintzat!

Ez zeguan danontzat *lain* fusillik, baiña egoten zan fusil bat lau edo bost lagunentzat ezer estuasunik baldin bazan jaurtitzeko eta zera, eta bestela trintxerak ein, zakuak bete, telefonuak e...

Arendako lain iñoiz ez jata falta. (Etxebarria, 1998)

Ondo bizi izateko *lain* eiñ dabeanian, kendu dau amantala betiko. (Etxebarria, 1998)

Modua: bezela, moduan, lako(xe)

Esan bezala, konparazioa zenbatusunari, mailari edo moduari buruz egin daiteke; horrenbestez, modu-adberbioei ere maila ezar dakieke. Modu-konparazioan hedatuena *hala* adberbio anaforikoan oinarritutako *bezala* modu-adberbioa da. Hala ere, *legez* morfema ere erabilia da mendebalean.

Eibarko hizkeran erabiltzen den forma *bezela* da, eta ez *bezala*. Honen adibide asko jaso ditugun arren, adibide guztiak hiztun gutxi batzuegandik jasoak dira:

Ta zeu **bezela**, beste batzuk juaten zian ta harek be bi-hiru dozena!

Baiña hárek ein zeбен hori zerori eta zelan gerria euren dako gaizki zoian, ejerzito guztia ixa jaikitta zeguan gerrian kontra, haixe aprobetxau zeбен Leninek eta euren lagunak reboluziñua eitteko, eurak pentsatzen zeбен **bezela**.

Hamen pixkat, zuk esan dozun **bezela**, irakurritakua eta instrukziño gehixagokua eta beste edukaziño bat hartutako jentia zan Eibarren.

Bai, hori da, gorputzak hankak bihar dittuzen **bezela** mobimientuetarako, eskuak dira gure ideak modelatzeko.

Hik, argixa haiz, eta hire semieri erakutsi gero, e, bihar dan **bezela** eskolia, e!

Gaur egun gero eta gehiago entzuten bada ere, badirudi lehenago ez zela hainbeste erabiltzen Eibar inguruan eta halaxe adierazten du Toribio Etxebarriak ere bere lexikoian: “*poco usado en Eibar, por dominar los sinón. letz y leztxe*” (Etxebarria, 1998, 254. orr.). Beraz, gaur egun Eibarko hizkeran ia galduta dauden *legez* eta *lege(z)txe* eta *moduan* sintagmek beteko zuten egunotan *bezela* betetzen ari den tokia.

Moduan sintagmari dagokionez, ez da konparazio-morfematzat hartzen, *modu* ize-naren gainean eraikia dagoelako. Ezkerreko osagaia genitiboan egotea eskatzen du eta, beraz, ez du modu-konparaziorako morfema arrunten antzera jokatzen. Hala ere, *bezala* eta *legez* morfemen antzera ere joka dezake zenbait ingurutan ezkerretarra perpaus bat eskatuz, osoa edo erabat murriztua. Hau mendebalean gertatzen da, batez ere, eta guk ere denetarikoa adibideak jaso ditugu:

*Baiña orduan zelan eguan dibersiño gutxiau, itxuria, ba, jentiak euren kuadrilletan, lehen esan doten **moduan**, tabernetan zelan alkarrekin egoten... askok ekixen gitarria jotzen.*

*Jan ta eran ondo, tabernan, ta lo ta dana ta erregiak **moduan** bizi ta ondo [jotzen] dogu guk, geure kintako denporiori.*

*Pixkat zertu, txikito mordo bat eran ta jo-ta oillarren **moduan** gero danok han!*

*Ahal zan **moduan** baldiakin garbittu ta musikara gabian dantzan eittera, Untzagara, dantzan eittera.*

*Bai ta hemen gure ataittik pasatzen zien Markiñakuek be bai, Bariñakuek be bai... iguel... hau zan bide... oin kamiñua izetia **moduan**, ba, bide zahar bat danak pasatzekua.*

Azkenik, mendebaleko hainbat hizkeratan erabiltzen diren *lako* eta *lako(t)xe* ere aipatu behar ditugu.

*Hauxe mahaixau **lakoxe** edo txikitxuagua izango zuan, fusilla dana pieza guztiak desmontauta, dana!*

Zuazok (2002) zehazten duenez, forma hau arrotza da Debabarrenean, Bergaran, Sorluzen eta Antzuolan. Ikus daitekeenez, Eibarren ere ez da oso erabilia gaur egun, eta, gainera, gazteen artean galtzen ari dela ematen du.

5.3.3.2.- Desberdintasunezko konparazioa

Maila: baino...-ago, -n aldean

Berdintasunezko maila-konparaziotik desberdintasunezkora bi gauza aldatzen dira funtsean. Alde batetik, morfema ezberdina erabiltzen da, desberdintasunezko maila-konparazioan, *bezain* beharrean, *baino* delako morfema nagusia. Bestetik, morfema nagusiarekin batera doan adjektiboari edo adberbioari *-ago* gehitzen zaio: *baino... -ago*. Egitura honen forma arrunta *baiño... -ao* da Eibarren.

Batzuek askoz bizkor**ao** garbitzen dia, igual hiru egunera, ba, esne garbi-garbixa.

Hori normalian botatzen jok sei ordu **baño** lehen**ao**, sei ordura, txahala ein ta sei ordura.

Lehelengotik, bueno, Vitorixara fan **baño** lehen**ao** fan nintzan frentera.

Baiña lehen joten zan moduan joko bazan, aurrelarixak esfuerzo haundix**aua** ixa eitten eban "mano y mano" jokatzan **baño**.

Ikusten den moduan, era askotara osa daitezke desberdintasunezko modu-konparazioak. Gainera, adibide hauetan ageri denez, *baino* morfema perpaus barnean edo bukaeran ere ager daiteke eta zenbaitetan ezabatu ere egin daiteke, lehendabiziko konparagaia ere ezabatzen bada.

Bestalde, badugu antzeko esanahia duten perpausak sortzeko beste egitura bat: **-naldian** egitura:

Sufritzen egotian **aldian** ederra da trankil bizitzia.

Lehengo moduan arduratan ibiltzian **aldian**, beste gauza bat don hau trankilidadiau.

Zenbatasuna: **gehiago**, **gutxiago**

Desberdintasunezko zenbatasun-konparazioa bideratzeko, modu-konparazioan egiten den antzera, *baino* morfemaz baliatzen gara. Hala ere, zenbatasunaz ari garenez, zenbatzaileak ere agertu behar du. Beraz, *gehiago* edo *gutxiago* zenbatzaile konparatiboak agertuko zaizkigu eta hauek markatuko dute desberdintasuna. Eibarren *gehixao* eta *gitxiao* aldaerak erabiltzen dira.

Gauza bategaittik: nere independenziaren barruan nik badittut nere ideak eta sinpatia **gehixao** edo **gitxiao** bestiari.

Eta motelduta **baño gehixao** ikusten nittuan –ez dakit– Alfa ondo zoian martxan.

Baiña, itxuria, lantegixetarako **baño gehixao** eguan jentia hortarako eta Madriden egon giñan lehelengo eta handik gero destino bat, hainbeste: hiru hillebete ein genduzen.

Baiña ikusten neban dinamika **gehixao** eukela abertzaliak, resistentziarako.

Asko klitxez eindakuak, lehengo sistemiakin, eta hori. 1914tik –etaraizumende erdi **baño gehixaoko** lanak han zittuan berak pillatuta.

Pelotan ta harrapatzen ta ezkututzen ta... Oin **baño** traste **gitxiaokin**.

5.3.3.3.- **Zenbat (eta)... -ago eta gero(ago) eta... -ago erakoak**

Eibar inguruko hizkeretan ez dira ohikoak era honetako konparazioak, baina, hala ere, tankera ezberdinetako korrelazioak jaso ahal izan ditugu:

Zenbat (eta)... -ago

Hainbat korrelazio sor daitezke *zenbat (eta)...-ago* egiturarekin. Forma hau korrelazioaren hasiera besterik ez da, eta bigarren zatia (ondorioa-edo adierazten duena) osatzeko aukera bat baino gehiago dago: *...-ago, askoz...-ago, hainbat...-ago* edo *orduan eta...-ago*. Aipatutako egitura hauetan nabarmentzekoa da *askoz* eta *hainbat* hitzak indargarriak direla. Bestetik, adibideetan ikus daitekeenez, korrelazioaren lehenbiziko zatian, aukerakoa da *eta* agertu edo ez. Konparazioa egiterakoan, *-ao* da Eibarren erabiltzen den aldaera.

Zenbat beherao, **lehenao** heldu goixan baiño. Akondia basarrixan, haura basarrixa Akondian, hamabost bat egun berandua hemen behian baiño. Hotzaua goixan, freskuaua. **Zenbat gorao**, **freskuao**.

Ta harek zelan haize haundixa botatzen eban, **zenbat azkarrao** erein, ba, gehixago haizia!

Zenbat eta deporte gehixao ein, **askoz hobeto** sentitzen da pertsonia!

Zenbat eta gehixao ibili, **orduan ta urriño** zeguala emoten eban!

Zenbat lehenao etorri, **hainbat hobe**!

Gero(ago) eta... -ago

Egitura hau aurrekoaren tankerakoa da, baina denborarekin zerikusia du *gero* adberbioaren eraginez. Aipatu dugun moduan, halako korrelazioek bi zati izaten dituzte, baina kasu honetan, bigarren zatia bakarrik ageri da, lehenbizikoak denborari egiten diolako erreferentzia. Hau da, denbora aurrera joan ahala zerbait *X-ago* egiten dela ulertzen dugu (Euskaltzaindia, 1999).

Geruao ta gitxiao jatxi, gabian bakarrik edo goixian bakarrik, ta holan gitxitu eitten jako ta... Ez?

Oindiokan gehixao nahi dogu eta hori gehixao nahi izatia dala-eta, **geruao eta geruao** terreno **gitxiao** dakagu.

5.3.4.- Ondorio-perpausak

Ondorio-perpausek, izenak adierazi bezala, kausa baten ondorioa markatzen dute. Kausa eta ondorioa agertzen duten bi perpau hauek menderakuntzaz (perpau bat bestearen barnean txertatuz) edo alborakuntzaz (bi perpauak elkarren alboan jarritz) elkar daitezke. Baina, bi kasuetan, ondoriozko lokailuen bidez (*non* eta *ezen*) edo bi gertakizun horiek bata bestearen ondorio gisa lotuko dituen maila-hitz batekin (*hain*, *honen*, *horren*) egiten da perpau hauen arteko lotura.

Ondorengo adibideetan Eibarren erabiltzen diren *hain*, *hainbeste* eta *horrenbeste* maila-hitzekin osatutako ondorio-perpausak ditugu, baina perpau hauetan ondorioa falta dela antzeman dezakegu:

*"Eneee! **Hainbeste** kotxe dagoz ta mekaueñ!"*

***Hainbeste** ikusi eban... "Iguar son venenosas... ¡yo no!"*

*Gehixenak... **hainbeste** abade eta **hainbeste** fraille eguan euskal literaturan!*

*"Hau irakurri banajuan 18-20 urtegaz, ez jakixat izango nintzan rebozulionari-xua". **Hain** gogorra da, **hain** sikua da..."*

*Gero **hain** umil bizi zan, ba askok badakit nik ez etsena... pentsatzen dabe...*

*Baiña **hain** eguan illun... baiña juañ ein bihar genduañ derrigor.*

Jarraian datozen adibide hauetan, aldiz, ondorioak ere agerian daude edo, behintzat, ingurunearen arabera jakin dezakegu zein den ondorioa Ondorioa adierazten duen perpau hori, gehienetan, alborakuntzaz txertatua dago, hau delako ondorio-perpausak sortzeko modu arruntena Eibarren.

*Doktriñan ibili nintzan gerra aurrian, doktriñan euskeria. Baiña euskeria **hain** garbixa eta **hain** zera, ba nik ez neban aitzen eta ez neban nahi.*

*Batzuk, ezer ez diranak, **hain** itxututa dagoz euren zerakin... ba, hárek, ba, burua galtzen dabe.*

*Baiña iñok ez eban pentsatzen —ha **hain** zan kuriosua eta garbixa— akabatzailia zanik.*

*Eta gero jестиñuekin eta batakin eta bestiakin, **hain** zan ona eta majua, etara eben eta...*

***Hainbeste** dakaraz kontatzeko, egongo nintzake...*

Esan bezala, alborakuntzaz txertatzen dira gehienetan ondorio-perpauzak, edo, zenbait kasutan, *-n* atzizkiaren bitartez. Gure adibideetan jasotzen ez den arren, aipatzekoa da gazteen artean gero eta zabalduago dagoela *hain...-ela* forma okerra.

Bestetik, esan bezala, zenbaitetan *eze* (*ezen*) lokailuak ere ager daitezke ondorio perpausetan:

Hain ez zan bromia **eze**, gaur ikusitxa, euskeraz ez, erderaz: tragedia ikuste dot nik, izan zala ha.

Baiña, **hain** exito haundixa euki eban **eze**, ba gero jarraitu ein genduan, jarraitu ein genduan.

Hain dok kanbixo gogorra **eze**, nahixago dozu eboluzionatzen jua dein soziedadia, jo eta apurtu baztar guztiak baiño.

5.3.5.- DENBORA-PERPAUSAK

Denbora-perpausetan, mendeko perpauzak, perpau nagusiari erreferentzia eginenez, denbora bat edo garai bat markatzen du. Hala ere, denbora hori era ezberdinez adierazia egon daiteke, *noiz* galderari erantzun baitiezaioke, edo baita *noizko*, *noiztik* edo *noiz arte* galderei ere.

5.3.5.1.- NOIZ galdetzaileari erantzuten dioten menderagailuak

Kasu honetan, perpau nagusiak adierazten duen ekintza noiz gertatzen den adizteraz ematen du mendeko perpauzak. Hala ere, bi perpausen arteko erlazio hori ez da beti berdina izaten batoren eta bestearen denboraren arabera eta, ondorioz, hiru eratako adibideak aurki daitezke:

Ekintzak aldi berean gertatzen direnean:

Ta jo! Emon **ahala** jan.

Burrukan ein bihar dok, lutzau ein bihar dok eta ekarri ein bihar juau hori —geure ontasuna— lur barruan, hamentxe, bizi garazen **bittartian**.

Neuk eitten dot elixako kargua, kanpaia jo, edo hildakua datorren**ian** hari atendidu, edo telefonuari edo, hango gauzia neuk eitten dot.

Txakurak horra behera lagundu eskunian eta txakurra ikusi genduanian, bueno, jo-ta zapatia jaurti gentsan amorruekin.

Baiña barritan... geur ein ta bixar... ha epela dagon artian... artua oso gozua da e!

Umia nitzala hasi nitzan ni kasan.

Txokolata ta ogixa hartu ta Elgoibarrera goiazela kamiñuan jateko, bidian jaten txokolata ta ogixa, "taparra, taparra" Elgoibarrera.

Eta harek, ni bautizau ninduanian, despedidia izaterakuan, "ai, ume. Ze leku txarretan lagatzen haut".

Ba, bazkalostian, "da!" taillarreruzkuan, kafiori ta zigarro-puruakin, fariasakin taillarrera!

Eta haruzkuan, ordu bete inguru han frontera euki ginduazen geldirik, horixe papeleri dala eta ez dala.

Ez, ez... beheruzkuan oiñez jun bihar zan... Gero, gero! Etxerutzien! Beherutzien astua kargauta [...] ta gorutzien geu jarrita!

Amaierako adibideetan ageri diren hiru formak (-rakuan, -ruzkuan, -rutzian) apur bat bereziak direla esan beharra dago. Lehenengo bi kasuetan, -rakuan eta -ruzkuan egituretan, denborari erreferentzia egiten dion hitzen bat ezabatu dela ematen du. Hau da, azpian '-rako orduan' edo '-rako unean' bezalako egituraren bat dugula dirudi. Azken kasuan (-rutzian), ostera, aditza dela ezabatu dena ematen du: 'etxerutz goiazenian'. Beste ezaugarri batek ere bereizten ditu lehenengo bi kasuak azken horretatik: bi hauek aditz-izenei nahiz izenei lotuak joan daitezke. -rutzian forma, ostera, ezin da aditz-izen bati lotuta erabili. Adibideetan ikus daitekeenez, azkenengo forma hau ez dela besteak adina erabiltzen ematen du.

Azkenik, egitura edo forma hauetatik aparte, gisa honetako denborazko perpausak sortzeko beste hainbat perifrasi ere badirela esan behar da. Esaterako, -en momentuan edo -en denporan.

Ekintzak bata bestea baino lehen gertatzen direnean:

Bueno, herritik urten baiño lehenao, lehelengo alkatiagana noia.

Diskua grabauta dakat nik. 'Amparito Roca' eta 'Silencioso' eta. Orduan, e!
Ameriketara jua aurretik: hamasei urtekin grabau nittuan.

Ekintzak bata bestearen ondoren gertatzen direnean:

Republikia montau zan**erako**, agertu zan**erako**, Goikoetxea eta, zerian zeguaz-zen, Italian zeguazen faxistegaz hizketan!

Eta nik ikusi **orduko**: “Baiña zelan? Ez zan pistoidunik orduan!”

Gero nik bentajia nekan, franses eitten neban, zera, hara juan **orduko**.

Hurrengo beste arbolan, ta drauna jo **orduko** ya Txontan gengozen.

Lehenago, ba, bateron bat fumatzen ikusi**ttakuan** —gu gaztiak giñanian—: “Ene ba, hori fulania”, esaten eben.

Kasu honetan ere badira gisa honetako denbora-perpauak sortzen dituzten beste egi-tura batzuk: *onduan, ostian, ondoren, ta gero, ta lasterrera, ta segiduan, ezker, bezin laster...*

5.3.5.2.- Noizko, Noiztik eta Noiz arte galdetzaileei erantzuten dieten menderagailuak

Noizko

Ni allegatzen naizen**erako** zuek aspertuta egongo zarie, baiña!

Hau trastiau martxan ipintzerako illundu be eingo desku!

Noiztik

Hamalau urte nekazen**etik** zerbitzen nabil, e!

Kolekziño guztia daukat nik Eibarrera etorri nintzan**etik**: lehenengo numerotik azkeneraiño.

Ba, oin urtietan be ez naiz juan ni ta ez dakit zelan dagan... zatittu dan**etik** ni ez naiz juan Urkira.

Oin, gaiñera, gitxiago, inseminaziñua dagan **ezker**, oin iskorik bota bez!

Jaixo dan **ezkeroztik** ez dot ikusi!

Zu izan ziñan **ezkerik**, asko azi da zuen mutikua. (Etxebarria, 1998)

Azken adibide hauetan sakonean “gero” hitza dagoenez, aurretik aipatzen den ekintza gertatu ‘eta gero’ (-ez gero, -ez geroztik) gertatzen den zerbait azaltzen zaigu. Halako egiturak Ermuan eta Berrizen ere jasotzen dira (Aranberri 1996; Bravo, 2001). Eibarren *ezker*, *ezkerio*, *ezkerik* eta *ezkeriok* aldaerak erabiltzen dira, nahiz eta hedatuena *ezker* izan.

Noiz arte

Ta, pentseizu, frailliak etorri **arte**, hau morduak [...] ez daki, zelan Bidebarrixetakuak juaten giñan kuarteleko eskolara, Jardifñekuak-eta beste eskola batera, hamenguak Fronto Zaharrera, bestiak...

Etxatak [ez jatak] etortzen ta kapaz nok gaur gabian, pentsatzen jartzen banok... ez nau luak hartuko ha etorri **arte**, e!

Holan noia, **harik eta** ahal doten **arte**.

Ba, Agiñagan ez zan egon eskolarik nik zortzi urte nittuen **arte**, ta zortzi urtekin ein zan eskola bat.

Ointxe-ointxe azkeneko urtietan zertu da baiña ointxe gitxi **dan arte**, danak ez baiña bastante bai!

Harek amaittu **arte**, iñok ezin jokatu han.

5.3.5.3. Maiztasuna adierazten duten menderagailuak

Zenbaitetan, menderagailuek ekintza baten maiztasuna, hau da, 'zenbat aldiz' gertatzen den adierazten dute. Tankera honetakoak dira, esate baterako: *-en bakotxian*, *-en guztian* edo *-(e)netan*.

Juaten nitzan **guztian** harrapatzen neban katarrua!

Harek be etortzen ziran **bakotxian** eruaten eben urria hara.

Etortzen diran**netan** beti ekartzen dabe zeoze.

5.3.6.- MODU-PERPAUSAK

Modu-perpausek *nola* galderari erantzuten diote eta, beraz, modua adierazten dute. Era ezberdinez gauza daitezke modu-perpauak, esaterako, *-n moduan* sintagmarenkin. Horien adibideak konparazioen atalean (5.3.3. atalean) ikusi ditugunez, beste batzuei emango diegu lehentasuna honako honetan, aukera ugari baitago:

-ta/-da

Hau da modua adierazteko era arruntenetako bat. Beste hainbat ingurutan ez bezala, Eibarren ez da *-rik* menderagailua erabiltzen.

Lehen trankillago eta oin, ba, oin gehixago eta argixak be ipin**itta** eta, ba, hobeto oin, ezta?

Orduan tokau zuan, zerian, Melillan ta hor Afrikan gerria egon zuan ta hamendik eru**anda** mordua hil ei zittuen.

Juan giñuazen ta... "raa!" ta han ikusten juat nere txakurra "da!" para**uta**, kieto.

Zenbaittek topatzen jittuk ta gero hil ezin**da** ibiltzen dittuk!

Ta Elgoibarko San Bartolomietan juan giñuazen ta danok txikiteuan pixkat iku**tuta**, kanturako amorratzen ta guk kantau eitten genduan... danok kantau.

Barik

Gero askok esaten eban: "Ene! Onena da, ba, astelehen guztietan zelebrau ta azertau!" Dudan ibili **barik**.

Ta San Juan bizperia aillegau ta zapatak erosi **barik** oindiokan.

Bai ba, klaro, iñok hartu **barik** eta... Sekula ez dot ikusi halako susa pillarik etxien!

Harek, kaletik etorri, eta astua gobernau **barik**... ez pentsau jaten ekingo etsanik berak!

Damaskinau-eskolan ikasteko, alumnuak urriakin ein **barik**, zidarrakin eitten eben dana.

Baiña ez, diskutidu **barik** ez zan ein.

-t(z)eke/-t(z)eka

Barik partikularen antzera, modua adierazten du eta beti da ezezkoa, hau da, "eza" adierazten du. Deba ibarreko herri batzuetan eta Gipuzkoako ondoko beste batzuetan besterik ez da erabiltzen. Dena dela, azken eremu honetan -t(z)eke dela forma bakarra ematen du, eta Eibar inguruan, aldiz, biak erabiltzen dira: -t(z)eka eta -t(z)eke. Hala ere, eibartarren artean *barik* da modu-perpauzetan "eza" adierazteko modu arruntena.

Gaur be egongo ziran hirurogei edo, bat be enkargat**zeke**, e!

Kargatzera doianian, jaurti zelaixan han zihar, baiña hau etortzen danian han etortzen dia harek, lotuta dagoz ta, sekula galt**zeke**.

Danak ekarri zittuan, baiña bustit**zeka**, e!

Ezinda

Egitura honek ere modua adierazten du adibideetan ikus daitekeen bezala. Gure hiztunen artean aurkitu dugun forma bakarra, horixe da, ez baitugu inguruko herri batzuetako *eziñik* jaso¹¹².

*Erakutsi netsezen ta "Ene demoniuak!", sinistu **ezinda** geratu zuan ha.*

*Zenbaittek topatzen jittuk ta gero hil **ezinda** ibiltzen dittuk!*

*Baten, Villarrealetik Eibar alderutz, zela esaten zetsen hari pagadixari? Sartu giñan han ta "ummmm!", zein hartu pentsau **ezinda**! Zein perretxiko hartu pentsau **ezinda**!*

*Txarrixa sartu **ezinda** dabizela tokira, urten ein etsela ta... Harek asmau **ezinda** harek guzurra.*

Hau izan arren egitura ohikoena, zenbaitetan *ezinda* forma hori banatu egiten da eta *-ta/-da* atzizkia partizipioari berari eransten zaio; esanahiari eutsi egiten zaio, hala ere.

*Motibo batzuk eukin genduzen: miserixia eta sakrifiziuk famelixa guztietan, euren semiak **ezin** etarata.*

*Haren izena zein zan **ezin** akordauta nabik.*

*Sartu zuan zulo baten, ta **ezin** urtenda ez dok, ba, geratu!*

-(e)nez

Esaten dabenez, 13an kontaktuan jarri zirala eta Bilbotik edo Madrirttik emon ebela "bixar eingo da".

Eskolan dibujuan nintzan —ez dakit—, esaten dabenez, oso esku onekua, dibujante abilla nintzan.

Partizipioa + -(a)z

Kotxiakin norabaitt juan ein bihar ta, eguna pasauaz, eruaten genduan bazkarixa ta, eguna pasauaz, batzen genduan.

Haretxegana juan giñan bisitta bat eiñaz.

¹¹² Larrañagak (1998) *eziñik* forma ere jasotzen du Antzuolarako.

Bakillaua batzuetan tajadak, ezta? [...] arraiña prejitzen dan moduan, tajadak, ta beste batzuetan, xehe, xehe, xehe ein ta tortillia einda, zein da patatia ustez dala, bakillauakin eindakua.

Kazueliak [...] daben bahuakin, ba, esan leike, ura, ustez saltsiak urtetzen detsala, baiña gitxi urtetzen dau, kazuela-erdi edo urtetzen dau.

Azkeneko bi adibide hauek bereziak direla esan beharra dago. *Ustez* horrek modua adierazten badu ere, *uste* aditzak perpaus osagarri bat eskatzen du eta, ondorioz, *ustez...* -la dela egitura ematen du.

-(e)la

Nora jua ez zekixala geldittu zan gizajua!

Zakua besapian zebala alde ein zeban.

5.3.7.- HELBURUZKO PERPAUSAK

Helburuzko perpausetan, perpaus nagusiko ekintza zertarako edo zein helbururekin egin ohi den adierazten du mendeko perpausak.

-t(z)eko

Hauxe dugu perpaus-mota hau burutzeko morfemarik erabiliena:

Amak bildurra eukitzen eban eitteko, prejitzeko edo zera eitteko, olixo asko gastatzen dala.

Orfeoian ensaiua atsaldeko seiretan, San Juan bizperan, gabian kantatzeko ta zapatarik ez etxian probatzeko.

Edo bera erreta jateko, edo babak eitteko edo... bueno, zuk bihar dozunerako, harek esegitta egoten zien ta.

Esan bezala, morfema hau asko erabiltzen da, baina ez da helburuzko perpausak sortzeko modu bakarra.

-t(z)eagatik (-t(z)ia(g)aittik)

Esate baterako, ez da nik esatiagaittik, baiña ni Don Manuelekin ibili naiz, noberan eritxixak ipintzen, hamen bertan Hondarribian, urte asko dala.

Ba, orduan, hemendik mutillak kriaue bialtzen zittuen Riojara ta horretara erderaz ikastiagaittik.

Gaiñera, denunziau eitten zinduzen beste soldadu batek euskeraz eittiagaittik.

-t(z)earren (-tziarren)

Orokorra den *-t(z)earatik* atzizkiarekin batera, Eibarren *-t(z)iarren* ere erabiltzen da, inguruko herri guztietan bezala (Zuazo, 2002):

Eta batzuek, aberatsak be, erakustiarren eurak be herrixan dagozela, erosten zeben hori jatekuori.

Eurak asko gehixago irabaztiarren eta euron premixuak hartziarren gerran, gora igotzekuok kategorixan, ba gerrara sartu ziran, baiña haixe emonda Erregiak.

Eta orduan, ba, sarri juaten giñan elixara juaten ez giñanak be. Hara juaten giñan entzuztiarren, ba, joño, zerbait arnasia zana, haize freskua guretzat esaten zittuan gauzak.

Horiez gain ere badira helburuzko perpausak eratzeko beste hainbat modu edo egitura:

-t(z)era

Zertara galderari erantzuten dio eta ‘aditz izena + ra’ (adlatiboko marka) egituraz osatua dago.

Baiña bestia abariziosua zan eta duruan billa, duruan ipiñi entradia eta bete zan jentez eta esan zeban: “Gehixago ez najoiak ipintzera bailerik”.

Fueraka zan, danok batera ekintzen gentsagun, eta tantua galtzen ebanak, jun bihar izaten eban aguazilla zaintzera, amaittu arte.

Eta geure etxera etorri zan bizi izatera.

Danok, bai aittittak, aittittan aittak eta osabak, nere ama, nere aitta be juaten zan musika ikastera zerera, nere aman etxera.

Zenbait ingurutan, Bizkaian eta Leintz-Aramaion zehazkiago, *-t(z)en* ‘aditz izena + n’ (inesiboko marka) erabiltzen da adiera honekin. Ermuan bertan aurki ditzakegu halako adibideak (Aranberri, 1996), baina badirudi Eibarren ez dela egitura hori erabiltzen.

Subjuntiboa

Metxerua joten eban leku-lekuan, hantxe ein bihar gero baskuliari be zulua. Agujia zerera jo **deixan**, kartutxua jo **deixan** pistoian, zulua hara ein.

Gero atia, ez **deixan** hoztu, zarrau ondo ta amak kalkulauta eukitzen zeban, ba, igual ordu bi edo inguru erretzen.

Baiña uretatik etaratakuan eskurritzen euki pasador baten, ezta? Soltau **deixen** ahal dan ur guztia.

Dana pest dakagu jua **zaittien**, baina ez badozue nahi, ba, gu be jua geinke.

Uruna pasatzen eban, gero ur berua bota, labaduria bota, ogixari moduan, labaduria bihar dau pixkat, labaduria botatzen etsan, harrotu **deixan**, ez?

Ta errementau ez **deixen**, ba, beti zainttu, irakin ez **deixen** ta haintxe ño...!

-t(z)ekotan

Atzizki honek baldintza ere adieraz dezake, baina adibide hauetan ikus daitekeenez, zerbait egiteko “asmoa” eta, beraz, “helburua” ere erakusten du.

Eta zuk orduan eitten zendun horrekin zor bat, baiña alde ona zetorrenian ordaintzekotan.

Hamen gelditzekotan etorri gaittuk, ba!

-t(z)e aldera

Halako egiturak be sarri erabiltzen dira. Hona hemen zenbait adibide:

Kobrau? Berotze aldera edo eingo jua biharra... ba... zeoze emongo jetsen, pagaren bat edo emongo jetsen gaztiari ta.

Hamahiru urtekin, errekauek ein ta ofiziu ikaste aldera, ba, maixuari ikusi ta... erakutsi, gauza askorik ez zua erakutsiko, baiña... emongo jetsan lantzian behin bihar bat eta eitten jua ta ikasi!

Esate aldera esan jua!

5.3.8.- KAUSA-PERPAUSAK

Kausa-perpauetan, izenak adierazten duen moduan, zerbait egiteko “arrazoia” adierazten digu mendeko perpausak. Egitura bat baino gehiago dago era honetako perpausak sortzeko:

-(e)lako

Nahiko erabilia da oro har, baita gure inguruan ere:

Leku batzuetan exitua eukitzen genduan, zekigulako armen barri ta horretan horixe besterik ez dagok, fusilla ta amatralladora ta tirua ta alkar hiltzia besterikan, ta horixe dok zera.

Baiña esaten detsut, gauza mordo bat esaten detsut, eibartarrak famia eukin dogula, baiña alde batetik etorritako famia, euron kontra ein gendualako, euronak ez giñalako.

Eta gabian deittu zesten eta: "Hi! Mutil on bat haizelako hago bizirik, e! Bestela garbittuta heguan".

-(e)la (e)ta

Baiña berandua zan eta ez giñan atrebidu hor be deitzen, molestatzia zala ta.

Amak bildurra eukitzen eban eitteko, prejitzeko edo zera eitteko, olixo asko gastatzen dala ta...

Esan etsen Etxabek lagatzeko —hil ein bihar dabelakuan— konfesatzen bera abadia zala ta.

Batzuk nahi eben, bik, behera bajatu, ze ikusten eben goixan txarragua zeto-rrela eta.

Azken adibide honetan *-(e)a ta* egituraz gain kausa adierazten duen *ze* (zegaittik) menderagailua ere ageri da. Ez ditugu partikula hau darabilten adibide asko jaso eta, gainera, aurreko adibidearen antzera, kausa adierazten duen beste menderagailuren batekin ageri da normalean:

"Ez noia ni Maria zapaterianera ze neri ez jataz gustatzen ta!"

Eta

Perpausaren bukaeran jarrita, *eta* juntagailuak ere kausa zentzua har dezake. Egitura hau oso erabilia da, gainera.

Guk, por ejemplo, nik ekin netsan dantzan hamazortzi urtekin edo, baiña Untzagakuak? Asko lehenau! Zegaittik? Musikia hor zeken ta!

"Nik botako deuat hiri ta hik botaidak gero bestiori, hau gustauko jakuek eta!"

Aldazabalen-ta aittittak, "Artua topau bihar juat, gastau ein bihar jakuzak eta!"

Eta orduan zortzi duro kobratzia edo hamar duro kobratzia zan millonarixua izatia, ez genduan dirurik eta.

-t(z)earren

Aurretik aipatutako helburu zentzuaz gain, atzizki honek kausa ere adieraz dezake, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez:

*Ta ni juaten nitzan gaztañatara, gaztaña sasoian. Eskolara ez juat**iarren** baiña, e!*

*Ta emoten zestan errialbiko moneda zidarrezkua neri, eruat**iarren**.*

*Eta esan netsan: "Bueno, eskerrik asko hori esat**iarren** eta eingo dot ahalegiña kentzeko".*

Aranberrik (1996) honen balio berarekin jokutzen duen *-t(z)egatik* ere jasotzen du Ermuan. Eibarren guztiz arrotza da forma hau.

-nez (gero)

Kausa-perpausetan ematen du *-nez* menderagailua bera bakarrik erabiltzen dela normalean Eibarren, eta *ezker*o egitura, berriz, denborazkoetan eta baldintzazkoetan.

*Eta erderaz banekix**nez**, esaten netsen: "Nik erderazkua nahi dot".*

*Hortik aparte, bere aitta minetako ingiñero z**anez**, alde horretatik bazekixazen geologia gauzak be.*

*Mendizale hórrek eskatu esten, ia lagunduko netsen edo, soketako teknikak ezagutzen nittu**nez**, nahiko leukiela esploraziño bat ein Gesaltzan.*

*Ze hónek, eskolan eindakuak zir**anez**, merke ziran.*

*Eta orduan, ba, herri ipoiñak, bildutakuak zir**anez**, eta berak konpondutakuak bere erara, penaz eguan eta emakumia, gaiñera, maestra zan.*

Zegaittik, ze, zegaittik eze, porke

Hiru morfema hauek osatzen dituzten kausa-perpauzen egiturak gaztelaniatik jasotakoak direla dirudi, nahiz eta azkenengoa izan nabarmenena (egituraz gain hitza bera ere gaztelaniakoa delako). Hala ere, adibide ugari jaso ditugu:

*Ez da erreza neurtzen, **ze**, jakiña, era askotakua, gaiñera, eta toki askotan.*

*Gerría amaitzian aitta lehelengo espetxian egon bihar izan zan, **ze**, klaro, Republika sasoian maixu armero moduan Valenziaraiño jua zan armerixak montatzera, beste batzugin batian.*

*Eta harek emoten eskun dirua korredorieri pagatzeko. **Zegaittik eze** "Subida a Arrate"-n ni hasi nintzianian —aurrerago ez zan pagatzen—, baiña ni hasi nintzianian bene-benetan "Subida a Arrate"-k indar haundixa hartu ebanian.*

Zegaittik eze ezin leike, jentiak gaur egunian ezin leike sinistu be ein, ze indar zekan orduan denporan "Subida a Arrate"-k.

Kale bakotxak bere espezialidadia ekan: gu Txontakuok eta [matadero] ta Barakaldokuak peskan giñan gogorrek, **zegaittik eze**, horrek ez zian juaten Maltzagara ta gu Maltzagan, behe-aldekuok, [...] eitten genduan loiñatan, loiñak hartzen...

Izan bihar ziñan: Alfako bihargiñaren semia edo akzionisten semia, **zegaittik eze** Alfatik fuera, akzionista asko zan Eibarren.

Pixkat influentzia haundixa ekan Bizkaixan, **zegaittik eze**, orduan zan koman-dante Doval, guardia zibilletako bat, "Jefe del orden público de Vizcaya".

Bueno, ni egunero juaten nitzan, **porke** nere kontura be, ba, gustatzen jatan... Neri bakarrik ez, Eibar guztiari!

Guardia zibillak hobeto portatzen jakuzen. **Porke** nere gizona gaixorik eguan bihotzetik eta ez jakon komeni holako gauzarik.

Zelan... -n

Gaztelaniaren ereduari jarraituz erabiltzen da zenbait ingurutan *zelan/nola... -n* egitura. Hau ere eibartar askok darabilte:

Orduan **zelan** eguazen andraetxiak bi, Korrida Plaza aldamenian, Isasikuak eta honek Untzagakuok eta Frontoi Zaharrekuak eta ha ikusten eben han mobimentua ta harek baekixen ze zan ta guk ez!

Ta domeka guztietan **zelan** juaten giñan, ba, ikasi ein genduan kantua be guk!

Ta nik **zelan** nekixan horren kontestaziñua... "Ixi! Ixi! Ixi!", basarritar danak, "Ixi! Ixi!"

Lehenago bai, karia botatzen etsen ta lurra **zelan** egoten zan garbixa, ba, lurra garbixa **zelan** egoten zan, bitxorik ez zan egoten!

Ta harek **zelan** haize haundixa botatzen eban, zenbat azkarrago erein, ba, gehixago haizia.

-(e)netik

Kausa adierazteko egitura hau ez da hain hedatua, baina zenbait eibartarrek, batez ere nagusienek, erabiltzen dute:

Eta igual ez dogu**netik** pentsatzen, alkarrri jardutzen dogu kontraka.

Eta ez dot esaten hori ni Eibarkua naizen**netik**.

Ba, txikitan frailliekin apur bat, hasiera bat emon genduan, eta urte bi besterik ez nittuan**netik** ein fraillietan, gero lanian hasi nintzan hamahiru urterako, eta akabo!

Abrillekua naizen**etik**, gerriak urten zeban eta lehelengo egunetik hasi giñan gu hor zihar.

5.3.9.- PERPAUS KONTZESIBOAK

Perpauk kontzesiboetan, badirudi mendeko perpaua nolabaiteko oztopoa dela perpau nagusiko ekintza burutzeko. Hala ere, oztopo hori ez da nahikoa perpau nagusiko ekintza galarazteko. Era askotara gauza daitezke tankera honetako perpauak:

Nahiz eta

Eibarren *nahixeta* edo *nahitta* ahoskera entzuten da gehienbat:

*Nik oroitzen asko daukat, **nahixeta** justu orduantxe bete nittuan hamalau urte, gerriak urten ebanian.*

*Eta gero, hain zuzen, lehen esan detsut nere lagun medikua, Fernando Zuloaga, medikua zan, **nahixeta** beste milla gauzetarako afiziñuak euki.*

*Kazara be alkarrekin, peskara be alkarrekin... **Nahixeta** taillarrian Cosme eta Juanito ugezabak izan, kalian ez ziran ugezabak.*

*Eta atzekuaz aurrera, baiña dotriña, haxe erakutsi ondo! **Nahitta** eskolarik erakutsi ez! Ha ondo erakutsi behintzat, dotriña.*

*Bidian sagarrak ostu, keixa sasoian keixak ostu... **nahitta** jan ez. Sagarrak... ostu.*

Nahixeta kanpuan musikia egon, frontoiak ekan indar haundixa.

Arren

*Tapoia ipintzen jakuan han ta ezin! Ha etorri **arren**, barruan euki bihar!*

*Gero ezagutu izan dittugu artesano mordo bat, izan ziranak pixkat intelektuallak, biblioteka onak eta zeukezenak; langilliak izan **arren**, irakurtzen bastante ondo zeguaztenak.*

*Eske eze kartzelatik urten eta lehenagoko gerria pasau **arren**, oindiokan geure ideak segitzen zeban!*

Baiña abilidadia bazeukazun, hárek kontra ein **arren**, zeuk demostratzen bazenduan frontoian, haren kontra ezin zeikian ein.

Eta ahalik jatorrena ein **arren**, danok dittugu gure hutsuniak eta gure neurri-xak.

Nik ez detsat iñoiz hizkuntziari preferenziarik emon euskaltzaiña izan **arren**, eta hortik atakatzen eben hórrek, eta bestiak ez ninduen defenditzen.

Partizipioa + -ta/-da be

Txokolate ontza bat **janda be**, ba, [...] eguardixan etxera juatia baiño hobeto ta nik eta beste batzuk jaten genduan bertan. Ta esan be bai eitten zoskuen guri amak eta, “Hara, ontza bat txokolate ta ogixa”. Egixa da, ontza bat txokolate ta ogixa **janda be** bertan hobe.

Nik ondiokan, karzelatik urtenda **be**, han segitzen neban, firme!

Pixkat bustitta **be** ez zeskun bape ardura.

Ba... be

Ez **bajatzu** gustatzen **be**, jan ein biharko dozu!

Berandu allegatzen **bagara be**, ez detsa ardura.

5.3.10.- BALDINTZAZKO PERPAUSAK

-t(z)en (baldin) ba-, ... -ko

Baldintza errealak burutzeko erabiltzen da.

Etxatak [ez jatak] etortzen ta kapaz nok gaur gabian, pentsatzen **jartzen banok**, ez nau luak hartuko ha etorri arte, e!

Tokatzen **bajatzu** usteldutako bat... adios! Juan zan ha kazuelia!

Ez **badetsue** emoten, eskatu kioskuan eta gratis emongo detsue.

“Ai” —nik esaten neban— “atzera **juaten bagaittuk** —Cayetano-eta han ezaunak— haretxeri deittuko detsegu”.

Gaiñera, **jakitzen badozu** nora juan bihar zaran kotxia hartzera, ondo. Baiña ez **badakizu**...

Egitura orokorrean, *baldin* erabiltzea aukeran dagoela ikus daiteke. Aurreko adibideetan ez da ageri, baina bai, ostera, ondoko adibideetan, esaterako:

Ez zeguan danontzat lain fusillik, baiña egoten zan fusil bat lau edo bost laguentzat ezer estuasunik **baldin bazan** jaurtitzeko eta zera, eta bestela trintxerak ein, zakuak bete, telefonuak...

Ez dakit, ba, nik, injenierua ala zer zan edo, eta ha gizon majua zan eta ha ibili zan frentiak guriak zertzen: frentiak erakutsi, eta zela gorde bihar giñan eta atakia **baldin bazetorren** zertu, eta en fin!

Hor, peligrua, albuana bateron bat jausten **baldin bazan**, orduan ikusten zan.

Jangoikuak nahi **baldin badau**, txak!

Gizonari itxaropena kentzen **baldin badetsazu**, zer? Diruakin tapau, ala?

Nik esaten detsarana jendiari: "Irakortzen **baldin badozue**, hobe da gauza onak irakorri, mundua zela doian, nora doian, Jesukristok zer esan zeskun eta hórrek gauzok interesantiaguak dira han ordu erdi baten errosarixua erreza-tzen egon baiño".

-ko ba-, ... -ko... -ke

Baldintza irrealak burutzeko erabiltzen da.

Zer pentsauko **zenduke** zuk gazteleraz batek esango **baleu** "me ha tocado el cuerno"?

Ama ama izaten da eta ama kolkuan eruango **baneu** atzera, holaxe izango **litzake**.

Zegaittik esaten dozu halako personiana? Eta bestiana? Eta hori. Minduko **balira**?

Baiña nik alde zurretik, lehenago esanda neukan hitzaurre baten Mitxelenak hor gatzizenez, siglaz eta izenik barik erabillitakuak zeintzuk ziran eta danak bilduko **balira**, ikaragarritzko obría dala.

Gaurko bihargiñak orduango moduan **balitzakez**, egongo **litzake** pelotera bat, eingo **litzake** reboluziño bat, ez **giñakez** geldittuko.

Azken adibide honetan ikus daitekeenez, sarri baldintzaren atalean jartzen da ondorioan behar lukeen *-ke*, okerra izan arren (ikus 4.1.30. atala).

(Izan) ba-, ... -ko

Iraganeko formak burutzeko erabiltzen da.

Hori jakin **izan baneu**, ekarriko netsuan nere kondenia, "La pena de muertia" emon zesten.

Hau **izan** balitza oin lau urte edo bost urte, hobeto ikusiko **neban**. Eske oin eze...

“Joño! Ikusi ez **baneu** ez **neban** **sinistuko!**”, esan estan.

-ez gero

Eibarren *ezkero*, *ezkerio*, *ezkeriok* eta *ezkerik* aldaerak erabiltzen dira, nahiz eta hedatuena *ezkero* izan:

*Eta hori abadiori hor eguan ta, badakizu, orduan abadiak eta harrapau **ezkero** “Adios los demonios”, ezta?*

*Eibartarra izan **ezkero**, derrior jakin bihar jua euskeraz!*

*Jo, ni ezin naiz egon danian, eta topau dittut, topau dittut datuak horrenak, baiña zabaldu **ezkero** beste batzuk dagoz, eta oso dato interesantiak dagoz hor, hizkuntziakin zerikusixa daukenak.*

*Han ez dozu bihar jatekorikan fuerte, esnia euki **ezkero**, esnia, eta ogixa.*

-t(z)ekotan

Helburuzko perpausen atalean azaldu dugun moduan, *-t(z)ekotan* honek baldintza zentzua ere izan dezake:

*Hárena ez da errua euskeraz eittiana, abadiak ez diranena da, errurik egote-**kotan**.*

*Hori bakarrik eitte**kotan**, bapez einda hobia zan.*

Ezean (ezian)

Ezezko baldintzetarako erabiltzen da morfema hau. Egitura honekin erabiltzen da: *-(r)ik (partitiboa)+ (partizipioa) + ezian*:

*Ba, besterik **ezian**, berak erakutsittako obrak, gauzak eta esanak, háreri jarraitu bihar.*

*Jolasteko lagunik euki **ezian** aspertu eitten da.*

*Dirurik **ezian** gaizki bihar dau!*

5.4.- LOKAILUAK

Hitz egiten dugunean edo idazten dugunean, esaldiak erabiltzen ditugu. Esaldi horiek, gainera, era egokian "josiak" egon behar dira, testu horrek zentzua eta behar bezalako lotura eta batasuna izan ditzan. Testuak "hari" bati jarraitu behar dio beti. Horretarako, maiz, esaldi baten eta bestearen artean, zubi gisa, zenbait hitz eta esapide aurkitzen ditugu: **lokailuak** edo **testu antolatzaileak**. Bata bestearen ondoren datozen bi perpausen arteko lotura semantikoaren berri ematen digute; perpausak, edozelan ere, bere eskuko izaten segitzen dute.

Lokailuak perpaus elkartuetan ere ager daitezke, bereziki juntagailuren baten inguruan. Kokalekuari dagokionez, askatasun handia dute. Batzuk leku jakin batean aurkituko ditugu ia beti, baina gehienak bigarren perpausaren edozein lekutan ager daitezke: hasi-hasieran, tartean edo amaieran.

Lokailuak, askotan, jatorriz bestelakoak izanik, gerora zeregin honetara ekarritako hitzak edo esapideak dira. *Bestela* eta *hala ere*, adibidez, adberbio dira izatez. Eta gauza bera gertatzen da gehienekin. Juntagailuak eurak ere agertu daitezke perpaus baten hasieran, aurrekoarekin perpaus elkartu bat osatzera iritsi gabe; hau da, lokailu gisa. Har dezagun, adibidez, honako hau:

*Ez zen, noski, lagun-arteko berriketarik, niganako agertzen zuen halako urriki hotza baizik. **Eta** berriz giltzapean uzteko puntuan, honelako zerbait esan zidan:*

Goiko adibidean *eta*-k lokailu zeregina betetzen du, testu mailako lotura egiten duelako, ez perpausen artekoa.

Juntagailu eta lokailuen arteko bereizketa egiteko badaude arrazoiak, izan ere, argi ikusten da lokailuek juntagailuek ez bezalako jokabidea dutela:

- a) lokailuak (*bestela, berriz, beraz, ...*) juntagailuekin (*eta, edo, baina...*) batera ager daitezke. Hau honela izanik, pentsatzekoa da lokailuen zeregina testu mailan kokatzen dela eta ez dutela perpausarekin perpaus zabalagoak osatzeko gaitasunik, juntagailuek ez bezala. Perpaus konplexuetan agertzen direnean ere, perpausak elkartzeko indarra juntagailuarena izango da eta ez lokailuarena berarena.
- b) oso kokaleku librea dute bigarren perpausoko osagaien artean. Juntagailuak, juntagailu denean, leku finkoa du.

Dena dela, mugak ez dira erabat argiak, eta, sailkatzeko orduan, zalantzak behin baino gehiagotan agertzen dira.

Lokailu-motak eta euren ezaugarri nagusiak

Lokailu deitu ditugun guztien egitekoa funtsean bat bada ere, adierazten duten harreman-motari begiraturaz gero, sail ezberdinak bereiz daitezke hemen ere.

Emendiozkoek gehitze-zentzua dute (*bederen, behinik behin, behintzat, bestalde, bestela, ere, gainera, ez ezik, halaber...*); **hautakariak** aurreko perpausaren aurrean aukera edo hautabide bat aurkezten dute (*bestela, bertzenaz, ezpabere, osterantzean, ostian, gainerantzean...*); **aurkaritzakoek** aurreko perpausari buruz bigarrenak duen kontraktasuna markatzen dute (*alabaina, aitzitik, barren, berriz, bien bitartean, dena dela, dena den, hala ere, hala ta guztiz ere, horratik, ostera...*); **ondoriozkoek** aurreko esaldiak baieztatzen duenaren ondorioa aurkezten dute (*bada, beraz, hortaz, horrenbestez, orduan...*); **kausazkoak** goragokoen guztiz kidekoak dira, txanpon baten bi aurpegiak lirateke ondorioa eta kausa. Bigarren perpausa aurrekoaren zergatia edo arrazoa dela adierazten dute hauek (*zeren, zergatik, alabaina, izan ere, baizik eta...*).

5.4.1.- EMENDIOZKO LOKAILUAK

Emendiozko lokailuek gehitze-zentzua ematen dute. Hala ere, funtzioa aztertuz, bi azpimultzotan sailka daitezke. Alde batetik, *ere, ez ezik, gainera, bestalde* eta *halaber* ditugu. Horiek aurreko perpausaren esandakoari zerbait gaineratzen diote; gaineratze hori nahiko neutroa da, zerbait gehitu besterik ez da egiten eta. Bigarren azpimultzoan, *behintzat, behinik behin, bederen* eta *bederik* sartuko genituzke, besteak beste. Azken horiekin, gehitze hori ez da hain neutroa; aurreko perpausetik biltzen dugun erreferentzia nahiko markatua da, kontzesio kutsua izanik batzuetan, baldintzazkoa besteetan, etab.

Horiez gainera, badago gehitze-zentzu hori nabarmen adierazten duen partikula bat: *eta*. Partikula hori, aurreko ataletan ikusi dugun moduan, berez juntagailu baldin bada ere, askotan lokailu moduan agertzen da, eta testu mailako lotura egiten du.

*Geure barruan sentitzen doguna idealizaua, eta nahi dogula ontasuna. **Eta** ondasuna billau leike bai bide batetik, bai bestetik.*

*Pentsau eben bateron bat zala, eta gu ikusi ginduzenian ba, geratu ziran. **Eta** gure bildurra! Ha zan bildurra!*

*Bai, bai, famelixiana, bai. **Eta** horretxengana, tio eta tiagana juan, eta lagun-
tzera juaten nintzan, eta 44 urtian nabil hortxe. **Eta** oin ez dakit, honezkero
asko ezingo dogu ein!*

Ondorengo lerrootan, Eibarko euskaran erabiltzen diren lokailuak aztertuko ditu-
gu, bai eta horien aldaerak eta adibideak eman ere. Landu diren testuetan oinarri-
tuz, Eibarren horietatik gehienbat *be* 'ere', *gaiñera* 'gainera' eta *behintzat* erabiltzen
direla ondoriozta daiteke, eta baita *ez eze* 'ez ezik' ere, neurri txikiagoan izan arren.
Horiez bestalde, *eta gero* esamoldea ere askotan erabiltzen da emendiozko lokailu
moduan. Azkenik, eta testuotan aurkitu ez dugun arren, *behinipein* 'behinik behin'
lokailuaz jardungo dugu, Toribio Etxebarriak bere lexikoiari batu zuelako eta herri-
ko zaharrenen artean oraindik bizirik irauten duelako.

Be

Euskara batuan lokailu honen forma *ere* den bitartean, Eibarren *be* erabiltzen da.
Eibarko kantu, agiri eta koplak zaharretan *bere* agertzen zaigu.

*"...ostera **bere** eguingo ditus bacoach Vere Cantuac." (1685eko Koplak zaha-
rrak)*

*"2. **Baita bere** errico alcatiac estaichala permitidu eguittia..." (1754ko
Ordenanza Municipalak Eusqueras)*

*"**Bai eta** ausi **bere** / ipartxo senduak" (Arrateko Kantategia)*

Baina gaur egun ez da *bere* aldaeraren aztarrenik geratzen, ez ahoz, ez idatziz.
Erabat arrotza egiten zaio eibartar orori.

Lokailu honek ezin dio inola ere hasierarik eman perpausari, izen sintagma, aditz
edo adizlagunen baten laguntzan erabiltzen dugulako, beti zerbaiten ondoan eta
ondoren. Balioaren aldetik, lokailu honek zabaldu egiten du perpausaren errefer-
entzia-mundua. Hona hemen adibideak:

*Ni beti izan naiz bat. Eta leku guztietan esaten hiru txamarra kanbixau dittutela?
Bien. Baiña hiruretan prest bai nere askatasuna eta bai nere bizixa emoteko.
Horregaitik pentsatzen dot beste batzuek **be**, beste aldian dagoen batzuek **be**,
nere moduan, bizi-bizi, sentidu guztiagaz, euren idealizaziñua daukela.*

*Gorrotorik eta ez da hamen egon izan. Hasarriak, bai. Ikubilkada batzuek, bai.
Baiña hori hasarriori nik neure onduan ez dot ikusi, ez nere famelixan, ez nere
lagun artian. Eta, bertan Eibarren **be**, nik lagunak dittut alde guztietan.*

Eibarrek ekan Casadepueblo haundi bat, ekazen sindikatuak, ekazen agrupaziño sozialistia, juventud sozialistia, eta beste entidade deportibo batzuek Casadepueblo barruan. Horrekin esan gura dot, *ba*, herrixak, ondo definituta eguan ze gogo ekan eta ze organizaziñotzuk aberasten zittuan bere bultzakiak. Bibliotekia **be**, 2000 bolumenekua ekan.

Nahi izaten juen gu ridikuluan lagatzia **be**, hango tenientiak eta, eurak zekixenak fusillan izenak eta. Esan gura dot, fusilla desarmau, ezta? Fusil guztia, ta harek dakazen piezen izenak eta. Gítzik jakitzen jittuen. Han inguruetakuak iñok **be ez**.

Perpau koordinatuetan ere erabiltzen da lokailu hau: 'eta X be (bai/ez)'. Adibideetan ikusten denez, *be+bai* elkartzean, *bebai* ahoskatzen du hiztunak, elementu autonomotzat hartuz:

...fabrika haundixak **eta** lanak **be** gogorraguak eta gitxiago irabazi.

Paulino **eta** Jose **be bai**, Jose Querido *be*, asko.

Millaka gizonak hil ziran eta egon ziran manifestaziñuak Espaiña guztian **eta** Eibarren **be bai**.

Gurian ez ekan holan pistolarik **eta** ezer **be** gu galtzekorik.

Koordinazioan ageri den bigarren perpauaren baiezkotasuna nabarmentzeko *bai* jartzen da askotan juntagailuaren ondoren: 'eta bai X be':

..., **eta bai** partido sozialistiandako **be**.

Sarri, 'bai+eta' eta 'ez+eta' elementu autonomotzat jotzen ditu hiztunak, *baitta* edo *ezta* ahoskatuz, eta 'ezta X be', 'baitta X be' segidak sortuz:

Eta gaur egunian ez dot uste marxista purua naizenik, **ezta** gitxiagorik **be**.

Eta insurrekzio batian *be*... **baitta**, parte hartu gendun.

Ez eze/ez ezik

Gazteen artean galtzen ari dela dirudien arren, oraindik ere bizirik dago *ez eze* emendiozko lokailu hau Eibarren. Antzuolan ere erabiltzen dela ematen du (Larrañaga, 1998) eta Toribio Etxebarriak ere jasotzen du bere lexikoian:

Dirua **ez eze** bizixa *be* han laga biar izan eban. (Etxebarria 1998)

Bihotza **ez eze** burua *be* berua daka harek!

Toribio Etxebarria berak aipatzen duen moduan, *ez eze* lokailuak ere gehitze zentzua du, eta *baita* ordezkatu dezake. Honekin batera, esan daiteke *ez ezik* aldaera ere erabiltzen dela Eibarren, baina lokailu honek oraindik eremu murriztagoa duela ematen du.

Gainera

Lokailu honek ere aurreko perpausean azaldutako informazioari zerbait eransten dio. Perpaus hasieran, amaieran nahiz barnean joan daiteke. Zenbaitetan ‘eta’ juntagailuarekin ere agertzen da.

*Guk ume-umetatik, bandera txiki gorri batzuk hartu eta manifestaziñuaren atzetik juaten giñanian, zortzi urte edo hamar edo hamabi urte edo, en fin! Eta gero, **gaiñera**, ba, horrek legiok defenditzen han.*

*Jateko onak, e! Ondo ipiñitta eta ondo einda. Eta abundante, **gaiñera**.*

*Juaten giñan erromerixara eta bixak bildurtixak, eta bueno, bildur batekin etxera! Mendira jua bihar, **gaiñera**!*

Adibide horiek guztiak ikusita, esan daiteke *gainera*-k balio indargarria duela, esandakoaren bermagarri edo indargarri erabiltzen baitu hiztunak, aurretik aipatutako beste zerbaiten alboan.

Eta gero

Lokailutzat jo daitekeen unitate hau aurretik esandakoari zerbait eransteko erabiltzen dugu, eta *horretaz gaiñera* edo *gaiñera* lokailuen ordeztu erabil daiteke. Perpausaren hasieran kokatzen da gehienbat:

*Hori eta ni, ene! Zenbat holako estuasun pasauta! Desastria! Bai. **Eta gero**, ba, ni kobardia izan naiz beti ibiltzen eta, gabian eta, baiña kobardia!*

*Problema da zerekin emon leikian frente zerari, Republikiari eta lege barrixeri. **Eta gero**, urnetara juateko be, indarra euki, euki gendun moduan!*

Behintzat

Aurrerago aipatu dugun bezala, lokailu hau emendiozko lokailuen bigarren azpimultzoan sartzen da. Ez da gaineratze hutsa adierazteko besterik erabiltzen; aitzitik, esan denari buruz nolabaiteko muga jartzeko erabiltzen da.

Eibar bihotz onekua da. Izan zan, behintzat.

*Eibarren, represalixarik ez dakit egon zan, zera, diktadura denporan. Guk ez genduan, **behintzat**, notatzen.*

*Hárek ba, burua galtzen dabe. Burua galdu edo, **behintzat**, beste mundurik ez dabe ikusten!*

*Eta, ba, hórretxek gauzok ein. Eta mesede ein **behintzat**, mesede ein.*

Harridurazko perpausetan ere erabiltzen da:

*Aaaaa! Horixe ikasi don, **behintzat**!*

Lehenengo perpausean baieztatutakoari bigarren perpausean adierazitakoa gehitzen dio, baina, aldi berean, muga jartzen dio, zalantzan jartzen du, bigarrena gauza segurutzat jotzen duen bitartean. Perpaus barruko kokapenari dagokionez, aurreko adibideetan ikus daitekeenez, perpaus hasieran, bukaeran edo tartean joan daiteke.

Gitxienez

Aurreko atalean aipatu dugun *behintzat*-en antzekoa da; honek ere muga jartzen dio aurretik esandakoari. Baina badute ezberdintasun txiki bat: *gitxienez* lokailua zenbatasuna adierazten duten sintagmekin erabiltzen da normalean. Adibideetan ikus daitekeen moduan, juntagailuekin batera ere ager daiteke, eta kokaleku nahiko librea du.

*Gustatzen jata irakortzia; pare bat periodiko irakortzen dittut egunian **gitxienez**.*

*Ba bai, neurri baten bai. Edo, **gitxienez**, lehengo tradiziño zaharretik gerora lotura bat.*

*Gehitxuago bihar zan! Dibujua eta gero han ekiñaldixak, ba... **gitxienez** bai urte bi, hiru be igual!*

Beñipein

Lokailu hau ere aurrekoen sinonimotzat har dezakegu. Eibarren gutxi erabiltzen da¹¹³. Lokailu hau darabilten hiztunek *beñipein* edo *beñipeiñian* aldaerak erabiltzen dituzte. Hona hemen Toribio Etxebarriak bere lexikoian emandako adibideak:

*Bizixa **beñipein** lagairak, naiz ostian narrugorrixan laga. (Etxebarria, 1998)*

***Beñipeñian** aitzen emon balesku aurretik. (Etxebarria, 1998)*

¹¹³ Larrañagaren (1998) laneko ohar honek bete-betean balio dezake Eibarko kasuan ere: “Adin batetik aurrekoek baino ez dute erabiltzen *beñi peñi*. Gazteek ia ez dute erabiltzen. Gazteren bati galdetutakoan esan dute batutik ikasitako forma dela, Antzuolan ez dutela entzun”

5.4.2.- HAUTAKARIAK

Lokailu hauek hautakari izena hartu dute, hiztunak hautaketa bat adierazi nahi duenean erabiltzen dituelako. Hautakariak agertzen diren perpausetan halako kontraesan bat aurkituko dugu: bi zatien arteko aukera egin behar da, biak batera ezin baitira bete. Dena dela, sarri mugak ez daude batere garbi eta esanahi bat baino gehiago eskuratzen dute. Hortaz, ez da harritzekoa honako lokailu hau hautakaria dela bai, baina aldi berean emendiozko edo aurkaritzako kutsua duela ikusten badugu. Eibarko euskararen *bestela* eta *ostian* lokailu hautakariak dira gehien erabiltzen direnak. Ez dira asko erabiltzen inguruko herrietan aurki daitezkeen *ost(er)antzian* edo *gaiñontzian* (Aranberri, 1996; Larrañaga, 1998).

Bestela

Lokailu honek bi egiteko bete ditzake:

- a) Gehienetan, aurreko perpausak adierazten duena oinarri hartu, eta esandakoa betetzen ez bada gerta daitekeena aurkezten du.

*Gazte denporan, ba, illunabarrerako etxera. **Bestela** aittak eta amak, bueno!*

*Horrek dira barrutik datozenak. Geure gorputzak eskatu eitten dittuanak. **Bestela** ez giñake biziko.*

*Horregaittik egon zan aurrian, **bestela** kendu eingo zeben.*

*Eta Franzian genguazela, Barzelona jausi zan, hartu eben faxistok. Eta **bestela** Barzelonan bigarren aldiz hartuko ginduezen prisionero!*

*Ezin dot kontau dana, **bestela** egongo nintzake hiru bat egunian be hamentxe zueri hizketan.*

Adibide horietan ikusten denez, *bestela* lokailua perpaus oso baten laburduratzat har genezake, '*aurreko perpausak esaten duena betetzen ez bada*' esapidearen laburduratzat, alegia.

- b) *Bestela* lokailu honek beste esanahi bat ere izan dezake, baldintzazko perpausaren kutsua gutziz galtzen ez duen arren: '*delakoa alde batera utzita*', '*hori bazter utziz*' eta antzeko esapideen baliokide izango litzateke:

*Batek irakurtzen dabenian manifesto komunista, haixe da marxismuan poesia apur bat dakana; **bestela** ez da poetikua bat be marxismua.*

Formari dagokionez, forma bakarra du Eibarren, ez dugu *bestelan* (Aranberri, 1996) bezalakorik aurkitu. Bere kokagunea, aurreko adibideetan oinarrituz, badirudi per-pausaren burua dela; hala ere, atzean ere joan daiteke.

*Bota ein bihar detsazu, e! Ez da hartzen bape **bestela!***

Ostian

Lokailu hau *bestela*-ren kidekoa dugu, bizkaieraz maizago erabilia. Aurkitu ditugun adibideetan ikus daitekeenez, *bestela*-ren bigarren adierarekin ageri zaigu gehienbat, hau da, '*horretaz aparte*' esanahiarekin. Bere kokalekua perpaus hasiera izan ohi da.

*Pamplonako karzelara eruan ginduezen eta hori bentaja bat izan zan gero ez eukitzeko kastigorik. **Ostian**, ba, irakorrialdi batzuk ein eta ba, lagunekin edo, demandan be ein ein bihar bada eta holan zertu giñan.*

*Telebisiñuan neretako gauza bat dago politta, eta dibujo animauak dira. **Ostian**, ba, bai, pelikula batzuk onak be ikusten dira, baiña ...*

*Amak betik erderaz, eta gero aittak be, beti etxian, jaten, erderaz amagaittik. **Ostian** beti euskeraz.*

*18 kilatekua hor asuntuan. **Ostian**, damaskinaurako dana fiña, 24kua.*

*[Bazan] hor estaziñoko neska bat edo bi edo ta horrek euren kuadrillatxua, baiña **ostian** ez, **ostian** danok giñan lagunak.*

Azken adibide honetan ikus daitekeen bezala, batzuetan *baina* juntagailuaren ondoran ageri da:

*Min bat be hartu neban eta harek be asko ein zestan, **baiña, ostian**, ikusten nintzan ez nintzala nahikua persona, nahikua gizon, harek gizonen kontra jardutzeko.*

*Hantxe pixkat galdu nintzan. **Baiña ostian** bastante ondo nago.*

*Oin, edur haundi-haundixek eguezenien, ba, ez giñen urteten porke... urrin eguen ta... **Baiña ostien**, edur pixkateaittik-eta bai.*

Ost(i)antzian

Esan bezala, gaur egun ez da larregi erabiltzen Eibarren; gure herrian arruntagoa da *ostian*. Jaso ditugun adibide bakarretakoak idatzizko testuetatik jaso ditugu, Toribio Etxebarriaren lexikoitik eta 1754ko ordenantzetatik:

Dirua doten guztian ase ta bete; **ostiantzian**, barau eitten dot Jaungoikuan grazian irautzeko. (Etxebarria, 1998).

...erregue Magesttariaren escribau nauci Camaracoaren escubettara berroguetta armar milla marabidiren penan, da **ostteruncian** izangodala gueure erregueren Casttiguba, ó Gracicha bere vorondattera. (1754ko udal ordenantzak).

5.4.3.- AURKARITZAKOAK

Izenak berak erakusten duen bezala, bi perpausen artean gerta daitekeen kontraktasuna edo aurkaritza aditzera emateko erabiltzen dira sail honetako lokailuak. Beraz, alde horretatik *baina*-ren pareko dira nolabait. Gehienetan juntagailu den *baina* batzuetan lokailu bezala ere erabiltzen dugu, testu mailako lotura bideratzeko, hau da, ondoan duen perpausak aurrekoekin nolako erlazio semantikoa duen adierazteko, gramatika juntadurarik gauzatu gabe. Horren adibide argia da hau:

*Republikiakin esperanza haundixak agertu ziran. Gero gauzak enredau ein ziran, **baiña!***

*Hainbeste urtian badakizu zenbat gauza pasauko jatan? **Baiña** etxata [ez jata] akordatzen!*

Aurkaritzako lokailuek ere horixe egiten dute, hau da, perpausen arteko kontrastea agertu. Lokailuen arteko talderik handiena da berau: *berriz, ostera, barren, halan be (hala ere), hala eta guzti be (hala eta guztiz ere), edozein modutan be, dana dala, horraitxio eta artian*. Horiez gainera, Etxebarriaren lexikoian ahozko berbetan oso arrunta den —*baina* testuetan agertu ez den— *bixen bittartian* aurkitu dugu eta, testuetan bertan, *en kanbio* mailegua. Inguruko herri “gipuzkoarragoetan” aurki daitekeen *nolatanai ere* (Larrañaga, 1998) ez da Eibarren erabiltzen.

Berriz / barriz

Lokailu honek aurretik esandakoaren kontrakoa adierazten duen arren, ez du guztiz ezabatu edo ukatzen. Aurretik esandakoari zerbait berria eta desberdina erants-teko erabiltzen da. *Berriz* eta *barriz* aldaera biak erabiltzen dira:

*Untzagakuak ziran pilluenak. Gu, **berriz**, behetarrak, peskarixak giñan onak.*

*Gero, **berriz**, esan dotena, batzuk hiltzera, Melillara gerrara, ta gu aittak-eta hortxe salbau giñuezen.*

Igarri, **berriz**, zer daguen... Bueno...! Onguan useña...

Ta Kalamua, **berriz**, Kalamua zeguan mendixa...

Ta horra Lejona aldera juanda, **berriz**, guk baiño txartuago mordua! Hor, Bizkeixan? Bueno...!

Gehienetan bi perpausek egitura bera dute eta *berriz*-ek bien arteko kontrastea markatzen du.

Ostera

Berriz lokailuarekin batera, *ostera* ere erabiltzen dute hainbat eibartarrek aurkaritza adierazteko. Hala ere, *ostera*-k kokaleku libreagoa du, bigarren perpausaren bukaeran ere ager daiteke eta:

*Eta ez zeban pentsatzen Gobiernuak, por ejemplo Castrok, **ostera**, alrebes...*

*Gu bagoiazela ta bagoiazela, ta hau ointxe allegau da **ostera**!*

Hala ere (hala be)

Aurkaritzako lokailuen artean, badirudi multzo honetakoak direla euskaraz hedatuena eta euskararen eremu osoan erabiltzen direnak. Eibarren ere erabiltzen da, *hala be* formarekin:

*Nik, **hala be**, bueno, desastria, e!*

*Eta txorixa hilko dabena edo hilko dabena eitteko be ez. **Hala be**, historiazole be banaiz eta, historiazole moduan, nik armen ikerketak edo estudixuak estudixau dittut, historian zihar egon dan eboluziñua.*

*Baiña nik, **hala be**, aire libria nahixago.*

*Ez galtzia zan [helburua], horren artxibua ez galtzia. **Hala be**, gauza asko galdu dira, baiña prinzipalena edo, gehixengua behintzat, salbau da.*

Hala eta guztiz ere (Eibarren *hala(n) (e)ta guzti be*) multzokoak, *berriz*, mendebaleko tradizioari dagozkio batez ere:

*Gaurtik begiratuta, betiko moduan, gauza bat ikusten da, bertan gaur egunian Gobierno sozialistia dakagu eta, **hala eta guzti be**, guk frente emon bihar izaten detsagu horrerri gauza guztiori.*

*Bueno, nik ez dakit bildurra zelan neurtu leikian, zegaittik eze bildurra danok eukitzen dogu gitxi edo asko. Gero, bildurra euki eta, **hala eta guzti be**, noberrak jokutzen dabengan noberan kartia, haretzek balio dau.*

*Ixa beteta dago merkaua, ez dakagu nun saldu. Eta, **hala eta guzti be**, gabiz lantokixak kendu eta makinariak ipiñi.*

*Eta orduan ez zeguazen ez emakumerik, ez beste herrixetako jenterik. Eta **hala eta guzti be**, gaur aiña langabetu zeguazen.*

Kokapenari dagokionez, bigarren perpausaren hasiera dute ohiko kokaleku. Aurreko adibideetan *eta* juntagailuaren alboan doaz, juntaturiko perpausei aurkaritza-balioa emanez.

Dena den / Dena dela (dana dala)

Aurrekoen oso antzekoa da lokailu hau ere. Eibarren *dana dala* forma erabiltzen da.

*Ako agurian xaxaria, alako epelkerixak aomiñian ditzuala. Baiña, **dana dala**, biotzeko kutunian dakartena da ta nik bai uste zuetarikoan bat izan neikiala lagun, gertaera zar onen unak ausnartuz, ulerbera edo «konprensibua» izaten. (Antologixia, 2000)*

*Baiña nik ez dakitt aittak eta amak zelan eingo zittuen gauzak. **Dana dala**, ni trabiesua nintzan eta, trabiesua nintzalako edo, begittan hartu eta doktriñan ez ninduen ondo tratatzen.*

*1951 edo 52xan. **Dana dala**, hárek hasi zittuan, baiña gero lezak agortu zira-nian, 25 edo 30ekua, zuluak, ausartu ez.*

*Egongo dira noiz hasi zan katalogo hori eitten... **Dana dala**, hortik atara bihar dittugu gauza batzuk eta oin eske, beste aldera datoz eske.*

Barren

Lokailu hau izan daiteke aurkitu ditugunen artean berezietakoa. Izan ere, Eibar inguruko herrietan asko erabiltzen da; ez, oster, ingurune honetatik kanpo. Zuazok Eibar aldeko hizkeren ezaugarri gisa hartu du¹¹⁴. Badirudi *ba(da) arren* esapiderearen laburdura izan daitekeela, eta bigarren perpausaren azken muturrean kokatzen da beti. Normalean, alde zurretik adierazitako zerbait erantzunez-edo egiten diren perpausetan agertzen da. Gaztelaniazko “*pero si..*” esapiderearen pareko da. Adibideetan ikus daitekeen moduan, zenbaitetan *baina* ager daiteke zurretik, perpausa indartzeko (harridurazko perpausetan, batez ere).

Pixkat jaikitze bat euki zeban Espaiñiak ekonomikamente. Eta bihargiñak be

¹¹⁴ Mendaron, Elgoibarren, Sorraluzen, Eibarren, Ermuan eta Mallabian erabiltzen dela zehazten du Zuazok (2002).

geldittu giñan, "ene, **baiña** lana dakagu **barren**, honegaz", "ondo goiazak".

Eta esaten netsan: "Hauxe dok edozer! Ni lehengua nok **barren!**"

Han juaten zanak ezer be: berrogei duro kobratzen zittuan **barren!**

Batzuk aberatsaguak eta bestiak pobriak izanda be, danok gizonak gara **barren!**

Zelan eurixa diharduala? **Baiña** ointxe euzkixa zeguan **barren!**

Bien bitartean (bixen bittartian)

Talde osoa bezala (*bitartean, bizkitartean...*) *bixen bittartian* ere adberbio da izatez, eta zaila izan ohi da lokailu noiz den zehaztea. Bigarren perpausaren hasieran agertu ohi da, batzuetan tartekatuta ere ager daitekeen arren. Eibarren oso erabilia da denbora kutsua duen *bixen bittartian* lokailua. Hona hemen zenbait adibide:

*Nik lan ta lan dihardut beti; **bixen bittartian** zu golferixan*

*Eta orduan esan netsan: «komunera noia, baina **bixen bittartian** zeuk ikusi zer ein». Eta holaxen.*

Bixen-bittartian zeregaz biziko naiz? (*Etxebarria, 1998*)

Horratik (horraittio)

Horratik erakuslearen motibatibotik erakarritako lokailua da. Beti da lokailu eta mendebaleko euskalkian da zabalduen. Bigarren perpausaren hasieran edo barruan ere joan daiteke, baita juntagailu baten ondoan ere. Eibarren erabiltzen den aldaera *horraittio(k)* da. Beste lokailu batzuk baino gutxiago erabiltzen da. Literaturan ere aurkituko dugu, bai Antonio Iturrioren lanetan, zein Francisco de Arrateren sermoietan (Eizagirre eta al., 2000).

*"Ene ba! Munduan azkena! Kitto! Munduan azkena!" pentsau genduen ta juen giñen besteko kortara, orduen bi etxe ta bestera, han hobetotxuago ete geuzen edo demontres! Ta **horraittio**, pixkaka, pixkaka, pixkaka igo eben Usartzaraiñok.*

*Ipur-mamiñak lokatzeko añakuak ziran ango burdiña-dardarak, baña gu, ezta konturatu be. Aurrera! Aurrerakizun laburra, **orraittio**. (*Antonio Iturrioz, 1958*)*

Edozein modutan be

Benetako lokailuez gain, aurkaritza adierazteko lokuzio edo esapide mordoa dago.

*Bueno, **edozein modutan be**, ha juañ zan republikanuen billa.*

En kanbio

Gaztelaniazko lokailu honek indar handia duela nabarmena da. Eibartar edadetu gehienek erabiltzen dute eta batzuek mailegu hau dute aurkaritzako guztien artean maiteen. Gazteen artean, aldiz, ez dugu adibiderik jaso.

*Berak langilliak beraren millioitxo bat edo bi badakaz, atzera beste kapital moduan ipintzia —ño!— nekosua da! **En kanbio**, kapitalismuak beraren kapitalak fazil billatzen ditu.*

*Eta hamen, guretako, Eibarrendako, liberalismuak —esaten detsuten moduan, zelan O'Donellek kalia daukan— euki zittuan hórrek ontasunok. **En kanbio**, lehenago jauntxuak eta karlistak pixkat gogorak ziran.*

*Bueno, ba, nik pentsatzen dot, gaztiendako Elixikiñ enfrontauta egotia, hor aspektuan, ez da izan problema! **En kanbio**, elixara barik ezkontzen diranak mordua dira gaurko gaztiak be!*

5.4.4.- ONDORIOZKOAK

Ondorioa adierazten dute. Neurri batean aurreko solasean gordea dago handik ondorioztatzen dena, eta ondoriozko lokailuak eduki hura agerian jarri baizik ez du egiten.

Euskaraz ondoriozko lokailurik ezagunenak hauexek dira: *beraz*, *bada*, *hortaz*, *horrenbestez*, *orduan* eta *hala*. Horien artean, *orduan*, *ba* (*bada*) eta *hortara* eta *hartara* dira eibartarren elkarriketetan aurkitutakoak. Horiez aparte, *os(e)ake* 'o sea que' eta *asike* 'así es que' maileguak ere arruntak dira.

Bada (ba)

Ba (*bada*) elementuak jokamolde ugari ditu; baina, zenbaitetan, *beraz*-en parekoa da, eta ondoriozko lokailu zeregina bete dezake. Beste leku askotan bezalaxe, Eibarren ere ahozko hizkeran sarritan erabiltzen den berba da.

*Aurreragoko ordu larenian edo hamar minutuan. **Ba**, Eibarko Casadepuebluan ein zan batzar bat abruillian 12xan urten eben konzejal guztiena eta hantxe akordau zan Republikia inplantatzia udaletxetik.*

*Eta hárek zelan eurak asko gehixago irabaztiarren eta euron premixuak hartziarren gerran, gora igotzekuok kategorixan, **ba** gerrara sartu ziran, baiña haixe emonda Erregiak.*

*Egon zan herri txiki bat —ez dakit Ciudad Realekua—, han zeguan generala Segundo Garcia eta harek be orduantxe egunian proklamau zeban Republikia eta harek be Ciudad Privilegiada moduan dauka titulua. Bueno. **Ba**, orduak pasau eta arrasaldia be agertu zan eta “danian ezetza dago” eta ez bakarrik aiuntamientoko jentia, kaliau geuzenak be hamentxe geunkazen”.*

Orduan

Izen arrunt bat dugu jatorriz, inesibo kasuan ipinita. Jakina da gero denborazko adberbio izatera pasa zela («*orduan ezagutu genuen*»), eta gaur egun lokailu gisa ere erabiltzen da, ahozkoan batez ere.

*Bai, ezta? Ene! Horretxekin atarako dot **orduan**, txikixakin, e!*

*Gero harek ein eban urtebete eta gero Luis Bergaretxek hartu eban. Eta nik **orduan**, Alejandro Etxebarria zelana entzunda nekan, ni ibiltzen nintzan batera eta bestera eta diar ein esten.*

***Orduan**, nun esan dozu euki zenduela?*

Perpousean hartzen duen lekuari dagokionez, aurreko adibideek garbi erakusten dute lokailu mugikorra dela, edozein kokaleku izan baitezake.

Hor(re)tara, har(e)tara

Hortaz lokailuaren antzera jokatzen dute eta, honen antzera, erakusleetan dute oinarria. Toribio Etxebarriak (1998) ‘de esa manera’ esapiderearen ordezkotzat ematen ditu. Hala edo horrela adberbioekin gertatzen den antzera, zenbaitetan, perpousearen hasieran jarriz, ondoriozko lokailuen zeregina betetzen dute:

***Artara**, ni ez naiz iñor. (Etxebarria, 1998)*

***Ortara** zeuk dakazu errezoia. (Etxebarria, 1998)*

*Pesak absorbiduko jok urbanua eta hik segidu eik ointxe moduan lanian: urbanuen zera hik eruan eik eta “todo queda en esto”. Eta **hortara**, bestiak urten zeben handik.*

***Horretara**, gaur be berandu allegauko zara.*

Os(e)ake (o sea que) / Asike (así es que)

Euskarazko jatorrizko lokailuetatik kanpo geratzen diren arren, mailegu hauek ere zerrenda honetara ekarri ditugu. Izan ere, ondoriozko lokailu erabilienetakoak dira.

Eibarren gero Republikian gaiñera jausi zan hori krisisori. Eibar izan zan “el detonador” izan zan. **Osake** Espaiña guztian zeguan hori nahixori, baiña Eibarren izan zan horixe, esan detsutena, fosforua.

Jentia ez zan gehitu, “al contrario”, bajatu pixkat, baiña afiliauak bastante ondo gelditu ziran. **Osake**, ez zebeu eukin kontrarixorik Primo de Riveragaz, ez zebeu eukin.

Mutillak, neuk ikusittakua dok hori. Neuk ikusi juat eta neuk entzun jittuat hórrek hitzok. **Asike** ez dittuk hórrek ipuiñak.

Asegarce, horrek pentsatzen jatak guri eingo deskula kontrata txiki bat, bixori. **Asike**, hi be zaindu ein bihar haiz eta ni be bai. **Asike**, alkarrekin egongo gaittuk hurrengo egun baten.

Nazionalista bat, eta beste guztiak republikanuak eta sozialistak izan ziran. **Asike**... herri guztia.

Hortaz, aurkitu ditugun ondoriozko lokailuen laburpen gisa esan daiteke azken bi mailegu horiek direla arruntenak Eibarren. *Orduan* eta *ba* elementuek ere ondoriozko lokailuen lana bete dezakete, eta sarri erabiltzen dira ahozko berbetan *asike* eta *os(e)ake* maileguekin batera. Beste euskalki batzuetako *beraz* eta *hortaz* ez dira ez Eibarren ez inguruan erabiltzen, baina bai antzeko zeregina duten *hor(re)tara* eta *har(e)tara*.

5.4.5.- KAUSAZKOAK

Nola edo hala *zergatik*, *nolatan*, *zer dela-eta* eta abarrei erantzuten dieten perpausak sarritan lokailu batez hasten dira. Hauei deitzen diegu kausa-lokailu. Talde hone-takoak ditugu *alabaina*, *bada*, *zergatik*, *izan ere* eta *zeren*. Orain gutxi arte esparru geo-grafiko zabala zuten denek. Harritzekoa da, hala ere, azken urteotan izan duten alboratzea, nahiz eta *zergatik* ahozkoan asko erabili.

Zergatik izan da mendebalean leku zabalena izan duena, eta horixe da Eibarko euskararen corpusean ere gehien ageri dena: *zegaittik eze*. Horretaz gainera, *eske* (*eze*) mailegua ere aurkitu dugu eta *izan be* lokailua ere erabiltzen da, gazteen artean gal-tzen ari dela dirudien arren.

Zergatik eze

Lokailua *zergatik* (Eibarren *zegaittik*) da, baina Eibarren kasu gehienetan *eze* (*ezen*) partikularekin batera aurkitu dugu. Osagai horrek indartu egiten du lokailua.

Eta harek emoten eskun dirua korredorieri pagatzeko. **Zegaittik eze** "Subida a Arrate"-n ni hasi nintzanean —aurrerago ez zan pagatzen—, baiña ni hasi nintzanean bene-benetan "Subida a Arrate"-k indar haundixa hartu ebanian.

Gehixago! **Zegaittik eze** Realak eta Athletic de Bilbaok ez dabe euki hain zerik.

Indalecio Prieto, sozialistekin, Eibarkuekin, "carne y uña" zan. **Zegaittik eze**, seguramente, gehixago gustatzen jakon Eibarko sozialistia —sozialismua— beran ingurukua baiño.

Adibide guztietan ikusten denez, beti perpausaren buruan doa.

Eske eze

Azken honek, aurrekoaren antzeko izanik ere, gaztelaniako sustraia du: *es que*. Hala ere, *eze* partikula indartzailea hartuz nolabait euskaldundu egiten dute hiztunek.

Bueno, ein zan Casa del Pueblua; bueno, parte bat ein zan bakarrik. **Eske eze** Casa del Puebluak zeukazen piso bi: ha behia eta piso bi.

Nik neuk be beti errespetau izan dot siñismena. **Eske eze** ni zelan siñistailia izan nintzan gaztetan, ze modutan ez dot, ba, pentsauko beste batzuek be neure sinzeridadiagaz dirala kristianuak edo katolikuak?

Egun haundixa izan zan! **Eske eze** Republikiakin esperanza haundixak agertu ziran.

Izan ere (izan be)

Esan bezala, gazteen artean galtzen ari den lokailua dugu *izan be*. Kokalekuari dagokionez, perpausaren hasieran eta barnean ageri da normalean, baina bukaeran ere ager daiteke:

izan be erraldoi galanta ago i. (Etxebarria, 1998)

Aberatsa zu **izan be**, dirua jaurtitzen ibiltzeko. (Etxebarria, 1998)

Ez dogu zeregiñik **izan be**, zuk barrixak ekarri deiguzuzen. (Etxebarria, 1998)

Lexikoa

Eibarren zan gizon famoso bat: Cayetano Kareaga. Republikanua zan. Egun baten, Azkoittixan, lagunak zittuan eta bazkarixa. Eta badakizu, pixka bat edaten zanian, ba pentsau, itxuria, adarra jotia zera... eta esan etsen eze:

“Hi, Cayetano! Zuek euskaldunak zarie, eta bata eta bestia, baiña zuek ez dozue ondo eitten euskeraz”. “Bueno. Euskeraz ez, baiña eibartar bai”. “Zelan dok hori? Zuek hitz asko dakazue, zera, erdeldunak”. *Esan etsan, eze:* “Hi, Azkoittixan zenbat periodiko saltzen dittuk egunian? Eibarren hori baiño ehun bidar gehiago saltzen dok. Eta ikusiko dok Azkoittixan be horrenbeste periodiko saltzera aillegatzen danian, zelan Azkoittiko euskeran sartuko dozuezen berba erdeldunak”



Jose Etxeberria, "Querido"

6.- LEXIKOA

Eibarren hainbat lan kaleratu da bertako euskararen ezaugarri gehienak aztertuz. Horien artean ugarienak hiztegiak dira. Aspaldikoa da T. Etxebarriaren “*Lexicón del euskera dialectal de Eibar*”; horren osagarri, duela pare bat urte “*Eibarko Hiztegi Etnografikoa*” kaleratu zen. Lan bien artean, 10.000 hitz baino gehiago jasotzen dira, denak ere adibideekin eta azalpenekin. Horiez gainera, beste hainbat lan txiki eta bilketa ere burutu dira gure herrian: “*Eibarko basarrixak*”, “*Eibarko mapa*”, “*Eibarko hiri-toponimia*”, “*Botanika lexikoa*”, “*Taillerrerako hiztegia*”, “*Hegazti-izenak*”, eta abar. Ezin esan, hortaz, Eibarko hiztegia ezezaguna zaigunik¹¹⁵.

Lan garau hori esku artean izanda, ez du zentzu handiegirik guk liburu honetan berriro ere hiztegia aztertzea. Eibarko berbak, adierak eta aldaerak ezagutu nahi dituenak, goian aipatutako lanetara jo besterik ez du. Bibliografia atalean ere beste hainbat lan aipatu ditugu, eta liburu honetan bertan, fonetikari dagokion atalean, hainbat aldaera lexikal ere bildu ditugu.

Hala ere, interesgarria pentsatu zaigu pare bat zerrenda labur sartzea, Eibarko euskararen hiztegi bereizgarriaren ezaugarri direlako, eta batez ere gazteenei zuzenduta.

6.1.- EIBARKO BERBA PETOAK

Hurrengo lerroetan, Eibarko-Eibarko berben hustuketa txiki bat ikusiko duzue. Hau da, Eibarren erabiltzen direnak, eta inguruko herrietan (Deba ibarrean eta Bizkaiko inguruko eskualdeetan) erabiltzen ez direnak edo gutxi erabiltzen direnak.

Horietako asko beste herri batzuetan ere erabiltzen dira, jakina, baina zerrenda osoa erabiltzen duena eibartarra izango da, seguru-seguru.

Lehenengo zutabea Eibarko hitza jarri da; ondoren, inguruko herrietan erabiltzen dena (batzuetan Eibarren ere erabiltzen da bigarren hori):

¹¹⁵ Zerrenda guztiak Interneten daude, webgune hauetan: www.eibarko-euskara.com eta www.egoibarra.com

abendu / miru, arraipardo, zapelaitz
afariketan egin / etxetxeka egin,
jolastu
aldapara / aldats, aldapa
aldra / moltzo
amain emon / jarein, askatu
antxitxiketan / lasterka, saltaka...
añube / ospel
aratuste / karnabal
ardi / arkakuxu
arrio eñ / atzeraka eñ
barauts / broka
barixako / bariku, eguakotx
bezau / hezi
bihargin / langille
bili / paitta, ahata
duan / debalde
enor / garitxu, garatxo
enparau / gaiñetiko,
osterantzeko
erramu / elauntz ('laurel')
erregular / jakina, baiba
firin-faran ibili / hara eta hona
ibili
foball / futbol
gaberdiko mozolo / hontz,
mozolo
gandor, gangor / gangar,
txantxar
garandu / urkuldu, aletu
girgilluak / mitxelinak
granuja / mutiko
harriabar / harri ('kazkabar')
hirutxur / txoko, baztar
ipuru / arabaota
itxuski / erratz, eskoba

ixu-egun / su-bedeinkatu egun
karrajo / pasillo
katamixar / katagorri
koko jantzi / mozorrotu,
disfrazau
kopeta / trentza
kopiñ / andere
kurrikak / porrikak
laba-txirtxil / kukaratz
maratilla / destornillador
marraskillo / karakol
masma / hamarratz
motxailla / ijitto, ijittano
otxin / diru
parra-parra / txirrista
pella / letxefrita
peora / atarte, eskape, bebarru
pitxada / dejada (pilotan)
saltamatxin / matxinsalto
satandera / ogigaztai, erbinude
sosiguz / poliki, astiro
tartako / tartamutu
txorokil / kaskara, artakaskara
ugaratxo / ugarixo, igarixo,
txantxiko
ziburu, zibili-zabulu / txin-txaun
(‘columpio’)

6.2.- GURE BERBAK ERE EUSKARA BATUA DIRA

Hiztunaren euskalkia euskara batutik zenbat eta urrunago, orduan eta konplexu gehiago ditu hiztunak. Orduan eta deserosoago sentitzen du bere burua batuan idazteko orduan, eta itxuraz ederragoa den eredu baten bila-edo, bere eguneroko jardunean erabiltzen dituen berba arrunt eta egokiak alde batera laga ondoren, beste euskalki batzuetakoak hartuko ditu bere altzoan, bere hiztegikoak baino dotore eta hobeak direlakoan.

Gipuzkeraz egiten zuten berba XIX. mendeko abade bizkaitarrek, gipuzkeraz kantatu XX. mendeko bertsolari eibartarrek, eta gipuzkeratik zetozen berba politak gogo biziz jaso Bergara aldeko herritarrek.

Euskara batua indartu ahala, joera hori handitu egin da. Euskara batuaren garrantzia eta beharra ezin dira zalantzan ipini, noski, baina esangura bereko berba bi ditugunean, zergatik jotzen dugu beti gipuzkerakora? Zergatik laga behar dituguk egunero erabiltzen ditugun berbak?

Gure berbak ere euskara batua dira. Begibistakoa dirudi baieztapen horrek, baina harrigarria da nolako nahastea duten gazte askok, eta zelan uste duten gure hitzak euskalkian berba egiteko bakarrik balio dutela.

Kanpotik hartu, bai. Gure hiztegia aberastu, konforme. Baina ez gurea bazterrean ahaztuta laga. Eibartarrok batuan idazten dugunean, zergatik hasten gara beti *bukatu*, *ulertu*, *utzi* eta *eraman* esaten? Zer dute, ba, txarra, *amaitu*, *aditu*, *laga* eta *eroan* moduko hitzek?

Aldaketa automatikoa da. Eibartarrok hau esan/idatzi nahi dugunean:

«*hori larregi da; laga amaierarako*»

euskara batuko «txipa» piztu, eta zera esan/idatziko dugu:

«*hori gehiegi da; utzi bukaerarako*».

Biak dira zuzenak; biak egokiak. Baina lehenengoa bigarrena bezain batua izateaz gain, gureagoa da, eta kasu askotan egokiagoa eta komunikatiboagoa.

Zerrenda luzea egin daiteke; hemen behean, guri bururatu zaizkigun batzuk. Egunero-eguneroko berbak dira.

Helburua ez da txarto/ondo zerrenda egitea; bata zein bestea egokiak eta zuzenak dira. Beheko zerrendaren helburua honakoa da: batuan idazten dugunean, kanpoko hitzak bezain erabilgarriak diren gure betiko hitzak erabiltzeko aukera dugula adieraztea. Zerrenda honek, jakina, euskalkian idazteko orduan ere balioko digu.

Lehenengo zutabeen batuan nagusitzen diharduen berba dago. Horren ostean, aurrekoa bezain batukoa dena, eta gurea izateaz gainera, gure inguruan askotan hobeto ulertzen dena.

| | |
|--|---|
| adibidez / esate baterako | bi auto / auto bi |
| agian / beharbada | bildu / batu, elkartu |
| aitona / aitaita, aitajauna | bilera / batzar |
| amona / amama, amandre | bilutsik / narrutsik (‘bilutsik’ ere bai) |
| apaiz / abade | bukatu / amaitu |
| apostu / postura, trabes | burbuila / puspilo |
| ari izan / jardun | dena den / dena dela |
| armiarma / marasma | duela / orain dela |
| astearte / martitzen | ederki / ederto |
| asteazken / eguazten | ekaitz / trumoi, hodei |
| atera / irten (‘salir’) | eraman / eroan |
| axola / ardura | ero / zoro |
| aztarna / aztarren | esanahi / esangura |
| bailara / ibar (‘bailara’ ere bai) | eskumin / goraintzi |
| bait- / -eta (bainaiz -> naiz-eta) | exeri / jarri |
| baratxuri / berakatz | gabe / barik |
| bat-batean / batera-batera, baterakoan, bat-batera | gai izan / gauza izan |
| batez ere / gehienbat | gaizki / txarto (‘gaizki’ ere bai) |
| begirada / begirakune | garatxo / enor |
| beraien / euren | garrasi / kurrixka |
| beraz / orduan, horretara | guraize / artazi |
| bergarar mutil / mutil bergarar | hala ere, dena den / dena dela, hala eta guztiz ere |
| berriz / berriro (‘berriz’ ere bai) | haragi / okela |
| besape / galtzarbe | harreman / hartu-eman |
| bezala / moduan, le(ge)z (‘bezala’ ere bai) | haur / ume |

| | |
|--|---|
| hein / neurri | masail / matrail |
| heldu / oratu | nabaritu / igarri |
| heze / umel (˘heze´ ere bai kasu batzuetan) | nazka / higuin |
| hitz / berba | nola / zela(n) |
| hitz egin / berba egin | noski / jakina, bai ba |
| hitzaldi / berbaldi | odolki / odoloste |
| hizkera / berbeta | oihu / orru, txilio |
| hurbil / hur(rean) | oinutsik / ortozik |
| -i buruz / -en gainean, -en inguruan, -(eta)z | omen / ei |
| igande / domeka | ongi / ondo |
| igel / ugaratxo | ostegun / eguen |
| igorri / bidali | ostiral / bari(xa)ku |
| inauteri / aratuste | otarre / otzara, zara |
| ilargi / ilatargi | pasa den / joan den (zen) |
| iritzi / heldu | piztu / isiotu (˘piztu´ ere bai) |
| irrist / laban | prest / gertu (˘prest´ ere bai) |
| isats / buztan | prestatu / gertatu |
| itsusi / zatar | saiatu / ahalegindu |
| itzal / keriza | sugandila / sugalindara |
| itzali / amatatu (emetatu, emendatu) | sustrai / zuztar (˘sustrai´ ere bai) |
| izkin egin / zirkin egin | triku / kirikino |
| jadanik / honezkero | tximista / oinaztarri |
| jolasean / olgetan (˘jolasean´ ere bai) | udare / madari |
| kaskabar / txingor | uholde / ufal, ujal |
| kilker / txirtxil, kirkil | ukuilu / korta |
| kopeta / bekoki | ulertu / aditu |
| laguntza / laguntasun (˘laguntza´ ere bai) | utzi / laga |
| laino / behelaino | zango / berna, hanka |
| larunbat / zapatu | zikoitz / zeken, zuhur |
| lepo / sama | zomorro / koko, momorro |
| lerde / adur | zorne / pasmo |
| magal / altzo | zutik / tente, zutinik |
| makar / bekar | |
| martxo / marti | |

6.3.- EIBARKO TOPONIMIA

Lexikoaren atala amaitzeko, Eibarko toponimoen zerrenda ere bildu dugu. Uste dugu gure herriko mendi, erreka eta basoen izenak ere lagun dezaketela ezagutzen gure herria herri denetik izan duen izaera eta hizkera.

| | | |
|-------------------|----------------------|------------------|
| Aasua | Akondiaeretzaga | Apalategiburu |
| Aasubia | Akondiagaina | Arana |
| Aasuerreka | Albizuri | Aranbaltz |
| Abarkola | Albizuriaurre | Arando |
| Abauntzaga | Aldabe | Arandoaurtena |
| Abauntzaga erreka | Aldabeerreka | Arandoetxebarri |
| Aboagaazpikoa | Aldaiak | Arandoguena |
| Aboagagainekoa | Aldapa | Arandoiturralde |
| Aboagazabala | Aldazabal | Arantzategi |
| Adarratza | Aldostea | Arbillaga |
| Agiñaga | Altamirabekoa | Ardantza |
| Agiñagaagirre | Altamiraerdikoa | Arestibaltz |
| Agiñagaazpikoa | Altamiragoikoa | Arestizabal |
| Agiñagagainekoa | Altun | Areta |
| Agiñaldapa | Altzaga | Aretaabeletxe |
| Agirre | Altzarte | Arexitabekoa |
| Agirreazpikoa | Altzerreka | Arexitagoikoa |
| Agirregainekoa | Altzeta | Argiñao |
| Agorriaga | Altzorbe | Aritxulueta |
| Aiaga | Altzu | Aritxuluetabarri |
| Aiagaerreka | Altzualde | Aritzaga |
| Aillora | Altzubarren | Arizbakar |
| Aingerugarda | Amaña | Arizmendi |
| Aitorbe | Ametzaga | Arizmendiguena |
| Aitxustun | Amezabalegiabeletxea | Arizpe |
| Aitzorrotz | Amezabalegibekoa | Arizti |
| Aixpuru | Amezabalegigoikoa | Aritzizabal |
| Aizketa | Amezti | Arkatxa |
| Aizketape | Amurutegi | Arlaban |
| Akartegieta | Andirao | Arlabanburu |
| Akondia | Apalategi | Arlasta |

| | | |
|-------------------------|--------------------|-----------------|
| Armaxio | Azitain | Eluts |
| Arpide | Azkonabieta | Erdiko zabala |
| Arraieta | Azpiri | Eriano |
| Arrajola | Babalapiko | Erreaga |
| Arramendi | Baiarao | Errekagaizto |
| Arraoz | Barrenetxe | Errekalde |
| Arraska | Barrundi | Errentziño |
| Arraskazulo | Barrutia | Errialtzu |
| Arrate | Basategi | Erribaso |
| Arratebekoetxe | Basausi | Errotatxo |
| Arrazola | Basobaltz | Eskaregi |
| Arribillaga | Bekoetxea | Eskaregierrota |
| Arrikurutx/Akondiagaina | Berdengillo | Esparru |
| Arriarte | Berretxinagabekoa | Esparrua |
| Arrobia | Berretxinagagoikoa | Estiaga |
| Arroeta | Biotzate | Estil |
| Artaluze | Biriñao | Etzintza |
| Artatxueta | Bizkartegi | Gainbe |
| Asola | Bolingoa | Galartzeta |
| Asolaazpikoa | Bolunegi | Galdaramiño |
| Asolabarri | Burrukaleku | Garagarrondo |
| Asolagainekoa | Buztiniturri | Garagoiti |
| Asolaigartza | Buztinitxi | Garro |
| Asolaurre | Egazelai | Gaztañadisakona |
| Asolia | Egiguren | Gaztañadizulo |
| Astabizkar | Egigurenabeletxe | Gaztañazabaleta |
| Asurtza | Egiluze | Gaztelu |
| Asurtza erreka | Egitxo | Gisasola |
| Asurtzaburu | Egizabal | Gisastu |
| Ataiaurre | Egunoak | Gisastuburu |
| Atxeko tontorra | Egurtzegi | Gisatsa |
| Atxekoa | Eizkoaga | Goikoetxe |
| Aubixa | Elexoste | Goikolea |
| Auntzarte | Elorreta | Gorosta |
| Auntzesieta | Elorretaburu | Gorostaabeletxe |
| Aurreko | Elorriaga | Gorostaazpikoa |
| Azaldegiazpikoa | Eltartzaga | Gorostabeña |
| Azaldegigainekoa | Elusburu | Gorostagainekoa |

| | | |
|-------------------|--------------------|--------------------|
| Gorostiaga | Irunatxiki | Kortalarrañeta |
| Gorostondo | Irupago | Kortatxo |
| Gorrotzeaga | Irupagoeta | Kortazar |
| Ibur | Irure | Kortondo |
| Iburrerreka | Isasitorre | Krabelin |
| Igartua | Iteriaga | Kukutegi |
| Igartualde | Itolatza | Kurutzea |
| Igereta | Itsaso | Kurutzepe |
| Ikaztoi | Iturguen | Kutunegieta |
| Ilariaga | Iturralde | Kutunegietabarre- |
| Illo | Iturraoabeletxe | nengoa (Narru) |
| Illordo | Iturraobekoa | Kutunegietaerdikoa |
| Illordogaina | Iturraogoikoa | Kutunegietaguenen- |
| Illundegi | Iturrieta | goa (Guenetxe) |
| Iñarra | Iturripe | Landareta |
| Iñarrasakona | Iturrizarreta | Landazuri |
| Indurio | Itzei | Larraintxueta |
| Intxaurdieta | Izua | Larrañeta |
| Intxaurkorta | Izumendi | Larregiko bizkarra |
| Intxaurtxikiondoa | Izupe | Laugaztañeta |
| Intxausti | Kalamua | Laukara |
| Intxuspe | Kaminburu | Laupago |
| Iparragirrebarri | Kaminpe | Lazareto |
| Ipurtier | Kañondo | Lekamendi |
| Ipurua | Kanterako atxa | Lekamendiburu |
| Irabazia | Kanterako bizkarra | Lekondiola |
| Iraegi | Kapelako atxa | Lezea |
| Iraegiabeletxe | Karabia | Lezeta |
| Iraegigoiti | Kareaga | Lezetaabeletxe |
| Iraegitxikia | Kaskarrein | Lezetabeitia |
| Iraleku | Katalangoa | Liñapozueta |
| Iraragorri | Katamenga | Liñazelai |
| Iruatxeta | Katillutxueta | Lindari |
| Iruintxaur | Kiñarra | Lixarreta |
| Iruitz | Kindape | Lixiberrekaburu |
| Iruka | Kindeta | Lixiberreketa |
| Irunabe | Kirua | Lizundia |
| Irunaberri | Kirueta | Loidi |

| | | |
|------------------|--------------------|---------------------|
| Loiola | Murgia | Pagolaerrekalde |
| Loiolaabeletxe | Mutegi | Pagolagoikoa |
| Lubarriak | Mutegieta | Pagolatxabola |
| Maaldegi | Nagiorbebekoa | Pagoloste |
| Maapilla | Nagiorbegoikoa | Pagozarreta |
| Maaspe | Nebera | Pagutzi |
| Maaspezabal | Olabaso | Palankaleku |
| Maastia | Olamendi | Petramuñoko atxa |
| Madariaga | Olarreaga | Potrozulo |
| Magdala | Olarreagako errota | Saabil |
| Makatza | Orbe | Saapita |
| Maltzaga | Orberreka | Sagarbakotxa |
| Mandaitz | Orbesoraen | Sagarbieta |
| Mandiola | Ordegi | Sagartegieta |
| Mandiolaazpikoa | Oregibaso | Sagastia |
| Mandiolaerdikoa | Oregizar | Sagastiko tontorra |
| Mandiolagainekoa | Orla | Salbador |
| Mandoiturri | Orlaburu | Salbadorpe |
| Mantziber | Ormaztegi | Sallabente |
| Markiegi | Otabaltz | Sandroman |
| Matxaria | Otalarra | Sangointxo |
| Matxarigain | Otaola | Sanjuangoa |
| Mendibil | Otaolaerdikoa | Sanmartinburu |
| Mendiburu | Otaola-Kiñarra | Santela |
| Mendigoiti | Otegi | Santupe |
| Mendilaua | Otun | Santutxu |
| Mendilubarria | Pagadibaltz | Saratsuegi (Sautsi) |
| Mendizuloa | Pagadizar | Sardinatxa |
| Mertxete | Pagaegi | Seipagoeta |
| Mirafloresbekoa | Pagaegiabeletxe | Soraen |
| Mirafloresgoikoa | Pagaegiaurre | Sorginbaso |
| Moru | Pagaegikorta | Suiñaga |
| Motea | Pagoaga | Suiñagatxo |
| Mugitza | Pagoagaabeletxe | Sumendiagabekoa |
| Mugitzabarri | Pagoagalde | Sumendiagoikoa |
| Mundio | Pagola | Sutxuegi |
| Munikola | Pagolabekoa | Tellaiturri |
| Muntegi | Pagolaerreka | Tontorra |

| | | |
|-----------------|--------------|--------------|
| Topinburu | Untzama | Zearreta |
| Torrea | Untzeta | Zelaiguren |
| Trango | Upartiño | Zelaikoa |
| Tutulu | Urdandegieta | Zelaitxueta |
| Txabolalde | Urgoiti | Zelarte |
| Txaltxaburu | Urkidi | Zelata |
| Txaltxakoa | Urkidia | Zentenotza |
| Txaragoikoa | Urkiditorre | Zerratokia |
| Txarako erreka | Urkieta | Zertzemin |
| Txarakoa | Urkiola | Zesterokoa |
| Txarea | Urkiolatxiki | Zezeilbekoa |
| Txarrondo | Urkitxa | Zezeilgoikoa |
| Txindurrierreka | Urkizuegi | Zozola |
| Txingotegi | Urko | Zozolabarri |
| Txintxasti | Urresti | Zubiaga |
| Txonta | Urritxain | Zudeia |
| Txurrio | Urzulueta | Zumaran |
| Udana | Usartza | Zumaranbarri |
| Umaio | Usatorre | Zurrin |
| Unbe | Zaturio | |

Eibarko euskaraz idatzitako testuak

*Hau 'partikia', honek 'ezpatak', hau
'burkaiñekua'... Guk 'esagia' esaten jetsagu
horri, baiña askok hau 'burkaiñekua', burdixan
gaiñekua. Hemendik behera... 'burkaiñekua',
edo 'gaiñeria'. Horrek badauka izenetan...
Noraki zer! Guk 'esagia'. Ta gero honek hemen
daukazenak 'errailak', honek trabes
dagozenok, ta honek 'arasak', ta, gero,
'ardatza', burdixan ardatza ta honek 'burpillak',
ta honek 'dragak'. A! Ta 'zirixa', estutzeko,
egurrezko zirixa, kate txiki batekin lotuta.*



Vicente Areta, "Mendigoitxi"

7 - EIBARKO EUSKARAZ IDATZITAKO TESTUAK

Ondorengo orrialdeetan, Eibarko euskara hobeto ezagutzeko pasarte batzuk erantsi ditugu. Eibarko berbetaren benetako doinua entzuteko aukera hobea da liburu honekin batera banatu dugun DVDa, baina idatzizko testu batzuk ere argigarriak izan daitezkeela pentsatu dugu.

Eibarko idazleen pasarteak dira. Hemen aurkituko dituzu Eibarko euskaraz idatzirik ezagutzen diren testurik zaharrenak, eta gure idazle klasikoen lan batzuk¹¹⁶.

Hauek dira aukeratutako lanak:

- 1685eko koplak zaharrak
- 1754ko udal ordenantzak
- *Peru Abarca* liburuko pasarte bat (Juan Antonio Mogel)
- Franciso Arrate Agiñagako abadeak 1870 inguruan idatzitako sermoia
- *Caleco biargiñac basarricueri* testua (Eibarko sozialistek 1902 inguruko hauteskundeetan atarian idatzitako testua)
- Toribio Etxebarriaren hiru itzulpen
- *Egazkiñak* (Antonio Iturriozen ipuin bat)
- Juan San Martinek *Zirikadak* liburuan argitaratutako zenbait kontakizun.

¹¹⁶ Azpialde honetako testu guztiak, Juan Antonio Mogelena izan ezik, *Eibarko idazlien eta idazlanen antologia* liburutik hartu ditugu (Izagirre et al., 2000). Mogelen pasarteak Internetetik eskuratu dugu, Klasikoen Gordailutik: <http://www.armiarma.com/klasikoak/idazlanak/M/MogelJAAbarca001.htm>. Grafia ez dugu moldatu.

7.1.- Contubarribat suçediduda

Hemen segidan aurkeztuko ditugun koplak dira Eibarko euskaraz idatzitako dokumenturik zaharrenak, 1685. urtekoak. Antxon Narbaizak aurkitu zituen Tolosan, Gipuzkoako Artxibo Nagusian, eta J. M. Lekuona eta J.I. López de Luzuriagarekin elkarlanean kaleratu zituzten 1992an, *1685eko Kopla Zaharrak* izenburupean¹¹⁷. Kopla hauen inguruko informazio guztia liburu hartan aurkituko du irakurleak.

Koplak Miguel de Basterretxea izeneko norbaitek kantatu omen zituen Eibarko Untzaga plazan 1685ean, jendaurrean. Ondoren, bertsoetan aipagai den bikarioak salaketa jarri omen zuen Basterretxearen aurka, kopletan irain egin omen ziolako. Epaiketa izan zen, eta horregatik heldu dira gaur egunera koplak, Artxibo Nagusian gordetako epaiketako paperekin batera. Basterretxeak onartu zuen epaiketan, koplak abestu abestu zituela, baina ordurako ahoz aho zebiltzala herrian, eta gainera idatziz ere zabaldu zirela. Lekuko guztiek ere gauza berbera azaldu zuten epaiketan.

Edukia eta hizkuntza ez dira argiegiak. Garai hartako Eibarko euskara diren ere ezin dugu esan, orduko beste dokumenturik ez dugulako alderatu ahal izateko. Hala ere, dokumentu honen garrantzi linguistikoa begibistakoa da. Hona hemen koplak:

“Contubarribat suçediduda errebalecto Calean,
errebalecto Calean eta andragasteen artean.
Zeloac gora zeloac beera zeloac euren artean,
Ugarteq orain ateracodau, salsea beregainen.
Vicarioa dogoaleguez alegrea ta librea,
andragustioc baterren beste âdarabile maitea.
Amodioa zorodabeti amoraduen artean,
Ugarteq orain probacen diti(u) zeloak cerzuq direan.
Variacua soiladaleguez aric zapatu goiseco,
ordubietan presente dago Vicarioaren aurrean.
Zeloe gaitic enojaduta asserra zite zanean,

¹¹⁷ *1965eko Kopla Zaharrak* (Lekuona, López de Luzuriaga, eta Narbaiza. 1992).

bere Volsearen escatu jaco publico Calebetean.
aeq alaniq yragoarren Ugarte beti Calean,
Magdalenchori bentanaraco videa galduartean.
falta estitu adisquideac Ugartec Vere aldean,
ybarrecoac eguin ditue baqueac aen artean.
San christobalgo señaladuta meriendea formadu,
San christobales acordatuta mirabailesen juntadu.
Aldasetican Vicarioa ta macharirean Ugarte,
ybarrecoac aldean ditu Verelagun sât ambere.
echean ondo guiaduarren ara ordu ocitu,
Verotu baga meriendea jan ecin leique ciertu.
Zua daleguez gaussabearra aldeandabe ifini,
ango abarrac argui daquic errigustiti,
mirabaylesco Palaciooac obato daquis Contuac,
ostera bere eguingo ditus bacoach Vere Cantuac.”

7.2.- Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinueta raco

Izenburu hori daramate 1754-1758 urteen artean Eibarko udaletxean erabili ziren ordenantzak¹¹⁸. Gorago aipatu dugun dokumentua baino ia 100 urte beranduago idatzitako testua da, eta ezagun da, gaur egungo Eibarko euskararen ezaugarri gehiago aurkituko ditugulako bertan. Koplak herriak entzuteko eta kantatzeko izan arren, eta ordenantzak herriko adituentzako idatzitako testu juridikoa izan arren, aurreko testua baino ulergarriagoa eta hurbilagoa egiten zaigu. Sintaxi eta gai astu-na ditu; ulertzekoa den moduan, grafia eta idazkera ere ez oso zainduak. Hala ere, Eibarko euskararen azterketa egiteko oso testu egokia da, eta adi-adi irakurriz gero, hainbat harribitxi aurkituko ditugu zuzenbidatzeko testu korapilatsu honetan.

XX. mendera arte euskaraz sortu ziren udal ordenantzak oso gutxi izan ziren, doze-na erdi eskas, eta Eibarko hau da guztien artean zaharrena. Gainontzekoak (Goizueta, Bera, Tolosa eta Usurbil), XIX mendekoak dira.

¹¹⁸ Testu honen azterketa sakona Imanol Trebiñok (2001) egin du: *Administrazio zibileko testu historikoak*. Interneten ere kontsultagai dago, Eibar.Org webgunean: <http://www.eibar.org/materixala/orde2.html>.

Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaraco.

- 1.- Jaunac, en resumidas cuenttas, onec esan gura dabena da, ze esteila izan inorbere atrebiduba, da adelantauba, elejizera, Alcateric personaric, seiña baitta espada persona onrrauba, Idalgua Aberaza, da Erraizac daucasana, da guison Abonauba da oficio Charric esttaucana, baita bere esteila izan oficialic edo oficialeric soldau danic, Erregue maggestariaren errejimenttuban serbizen dabenic estta bere Idacortten da escribizen esttaquichanic, eta bardin Jottenbadau, alacoric, izango dabela, vimilla marabidiren multia, da Jaquinda egondella.
- 2.- Baitta bere errico alcatiac esttaichala permitudu eguitia execucinoric bere flogedades Dattozarian Juezac Campoetatic, inor arzera bere Jurisdiccinuan, ó pezquisa eguitera edocem bere persona, ya Cedulaequin, ó probisinuequin segatic lelengo biardabe izan instrumetubones exhaminaubas, Juntan, ó Dipputtacinuan, da emonbiar Jaquiela, uso correspondizen dan legues, da Aguinzendanlegues bigarren Leguiac Provinciaco Fueruac, seina baitta esatten daben legues ttitulo ogetta bat garrenac.
- 3.- Baitta bere Alcate Ordinarichua Errigustietacuac Escribauric ilttendanian eguinbiar dabela, Alcatte Jaunac, Imbentaricho barricha, Numerichan Dagozan erregistruena, gustiena, da Papel sueltto gustichena, Escribauba Ylorduco baldin numerala bada, etta imbenttarichuau, acabau deinian beriala, da demporaric galdubaga, Alcatte Jaunac, bialdu daichala ttesttimonio bat Diputacinora, da baldin eguiten espadau izango dabela multtia, Alcatte Jaunac, da erregidore Jaunac, berroguetta amarna ducat bacoachac.
- 4.- Baitabere Electoriei oz eguiten deuzenei Eleccinuetaraco Alcatte Jaunac Elecinua eguitemo, edo nombramentua Alcatiac, Errejidoriac, sindicubac eta bestte errico empleo gustiac urtebarritic aurrera, yzanbiacodabenac, eguiten badabe Elecino Charric, eta onec izatten badabe, quiebraric, edo Jatten baditube errico errenttac, Electoriac, eurac Yzanbiacodabela fichadore, da Abonadore, da pagau izan biaco dabe la aren falta gustichac Zergaitterren, Errichac esttabela biar perjuicioric, es quiebraric da esttabela Pagauco, electoriaren Culparic, berac baiño da Conttuban egonditiala.
- 5.- Baitta bere Justticia, errejimenttu gusticha egon deella Conttuban da cuidado eguin-daichela, baita procedidu bere Jitanuen bagamunduen, da pecattu Publicuan dabil-zanac Jangoicuan bildurraga, Baita bere amenzebaubac, izanditiala Castigaubac etta desterraubac.
- 6.- Baitta bere Alcatte Jaunac daucala faculttadia moradore gustiac erritic bottazeco, urte bette yrago esquero baldin presenttazen esbajaco bere noblecia, ó Ydalguicha, eguina Provincian usazen daben legues etta lenagotic egonesquero nottificautta edochein bere Alcate Jaunec.
- 7.- Baittabere erricodan Alcatte Jaunac esttayala permittidu personai esconzettara Juatteric, yrugarren graduban haide esttanic, etta contu izandequiala beguiracia esconsac diranian espaere multauba izangodala.

- 8.- Baita bere egon della Conttuban Justticia, Errejimenttu gustticha esteila nombrau escribauzatt, habaderen semeric verrogeitta amar ducatten penan bacochac.
- 9.- Baittabere Justticia rejimenttubac errichan izenian esttaychala arttu diruric Censora mottibuac, da prettesttuac daucasala pensauaz estta necesidade andiric, da urgenciaric baleuca bere Conzejubaren izenian faculttade errialbaga, da bardin onela attrebimentturic arzen badabe procediducodala persona onen Contra rrigorosamente Leguiac aguinzen daben leguez, etta eguingodala onelaco Censuaren Erredencinua Alcatte Jaunaren, Errejidoren, etta sindicubaren haciendettatic, da erri noblea, hizangodala libre da exempto onelaco Censuettatic.
- 10.- Baitta bere Justticia, Errejimenttubac, esttaychala permittidu plaza publicuan tambolinic, es attabalic, es fiesttaric Jai quendu, da reformautta dagozanettatic, Aitta santtubac quendutta Daucasanac.
- 11.- Baitta bere Justticichac procurau Daichala cuidado etta vigilanci andicharequin Casttigazia erregueren contra dabilsanac, contrabanduan tabacuac pasazen Gastelara, Erregue Magesttariaren interes errialaren Contra, eta onec, dauquezala señalauta pena andichac, Casttigubac, ala Consejo realac ifinita, baitta bere gure Provinciac Decretto, etta cedula errial ascottan gueure oneraco, baitta bere galdu esttittian gueure Ama Provinciacuan fueruac seinu baitta combeni Jacusan, gueure liberttaderaco, da Pechupian es egotteco.
- 12.- Baitta bere esttaychala permittidu Justticiac arzia da usazea tabacua esatten deuzena rapè franciacua ceña batta daguan debecauta Gueure, Erregue ganic, bost eun ducatten multtiaren Azpichan da esttablecidutta dagosan penen beian da izatteco onelaquac desterraubac errochonettatic.
- 13.- Baitta bere Justticia Jaunac Probinciaco errigusttiettacuac bialdu daychela urttebarrico Ylian, ceina baitta usttarrilian urtegesttiettacuan ttesttimonio originala errico Conttu municipalettacia gasttelaco Conseju Errialera, da erregue Magesttariaren escribau nauci Camaracoaren escubettara berroguetta armar milla marabidiren penan, da ostteruncian izangodala gueure erregueren Casttiguba, ó Gracicha bere vorondattera.
- 14.- Baitta bere Justticiac procurau Daichala, obserbau eraguitia gordecia falttabaga Correxidore Jaunac emoeban auttuba Arratteco fiestten gainian, baittabere Provinciaco Decrettuan gainian seinettan Conttenizendan debecacia Cazia, etta Pesquia Multta andichen gainian, da presentte euqui dayela astubaga.
- 15.- Baitta bere gorde Deila Cumplidu da ejecuttau esatten daben legues gauza gusttian orainengo Auttuba Probidenciettacia bere oguetta amasaspi Capittulubequin probeiduba gure Correjidore izanzana Provincia onettan Dn Pedro Cano Mucientes, baitta bere gueruago ettorri izandiran Decretto Errialac.

7.3.- Juan Antonio Mogel (1745-1804)

Mogeldarrak jatorriz Alfarokoak (Errioxa) ziren, baina Juan Antonio Mogelen aittitta Markinara etorri zen lanera (medikua zen), eta aita hemen jaio eta Xemeingo Gabriela Urkizarekin ezkondu zen. Juan Antonio Mogel Eibarren jaio zen, bere aita gure herrian ari zelako lanean. Lau urte zituela Debara joan ziren, eta handik gutxira berriro Markinara.

Aragoiko jesuitek Nobleentzako Erret Mintegi bat zuten Calatayuden, jauntxoan semeentzat goi-mailako ikastetxe bat, eta Juan Antoniok han egin zituen gazte denborako ikasketak. Ondoren teologia ikasketak ere egin zituen, eta 1770ean Markinara itzuli zen. Han bizi izan zen hil arte, 1788tik aurrera bertako erretore izan zelarik.

Bere lanen artean, erlijio-gaia duten hainbat lan eta liburu heldu zaizkigu; baita Markinan egin zituen lehenengo urteetan idatzitako zenbait sermoi ere. Edozelan ere, bere lan guztien artean *Peru Abarca* gailentzen da. 1802an idatzia, askoz geroago argitaratu zen, 1881ean, idazlea hil eta denborara. Peru baserritar jakintsuaren eta Maisu Juan kaletar sasi-letratuaren arteko elkarrizketa agertzen digu lan honek, baserri munduaren aberastasuna, euskalduntasuna eta zoriontasuna nabarmenduz.

Liburuaren balio linguistiko eta literarioa ahaztu gabe, beste arrazoi batengatik ekarri dugu idazle hau gure liburu honetara. Peru Abarkak finkatu zuen bizkaiera euskalki literario gisa, eta Mogelen idaztarauak izan ziren bere ondorengo eibartar idazle guztiek euskalkian idazteko jarraitu zituztenak (Etxebarriak, Iturriozek, Galdosek, San Martinek, Laspiurrek, eta abarrek). Uste dugu hori bakarrik arrazoi nahikoa dela markinar honen testu-zati batzuk eibartarron artea ekartzeko. Izan ere, txikikeria batzuk gorabehera, Mogelek darabilen fonetika, morfologia, sintaxia eta lexikoa oso-oso gutxi aldentzen dira gure herrian darabilgun hizkeratik.

El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua vascongada en la universidad de Basarte ó diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan ¹¹⁹

Dialogo primero, entre el inculto bascongado y barbero maisu Juan y el culto casero Peru

PERU: Jangoikuak egun onak emon daijozala.

MAISU JUAN: Bai zuri bere adiskidia.

PERU: Berori baisen jaun apaindu batek oñak imini ardan-etxe onetan? Toki au gizon baldres, zantar, aziera txarrekuentzat obia da, berori languentzat baño. Ez naz ni Jauna; abarkak oñetan, txapel bat buruban, gerrestuba gorputzian; au da nire apaindurija guztija: baña etxagun, izen onaren zalia nasan aldeti, ez oi nas sartu ardantegijetan nora ezian, premiñaz, ta ezin bestez baño, ez jakolako etxagun begiratu bati ondo egiten buruba bat egitia gizon ospetsu, burrukari, ondatzalle, alper, ta baldanakaz. Ez nau oraingño inok ikusi ardauek igarota, gatx eginda, zabuka oñak lokaturik, ez miña motelduta, ez begijak lausotuta, asko legez euren osasun, ondasun ta arimen kaltian. Bein baño geijagotan izan nas neure erriko Buru, edo Piel, ta darda gañian erabilli daruadaz ardao saltzallak belutu, edo ondo gautu artian daukeezanian etxe barruban nekezaliak, edo ate edegijaz ardauek salduten badabe debekauta daguan orduban. Ez deust ezek gorroto ta iguin geijago emoten nekezale edan-sarri, ta ardao zaleegijak baño. Zer esan nei bada berori emen ikusita? Aserraturko ezpalitxakio jakin gura neuke nor dan, ta zek ekarri daben ona.

MAISU JUAN: Adiskidia; imini egizu txapela buruban, ta esango deustut nor nasan. Nas bada oraingño igaro dozun erriko Barberua, ta deitu nabee gaiso bategana. Pagau deuste bisitako errial zidarra; baña ain dollorrek izan dira, zein da ez deusten atera trago bat: alan sartu nas emen kuartillu bat atera, eta zerbait jaatera, bada urrin egiten jat neure etxia barurik biurtuteko.

PERU: Nik uste neban bene benetako andikiren bategaz berba egiten nebala; agaiti nenguan txapela buruti kenduta lotsa nintzala berba egiten. Jakin baneu lenengoti Barberu txar bat baño etziniñala, ez nintzan Jaunka zugaz egongo, ez da bere buru utsian. Eta Barberu errukarri bat, ta inoren gatxaz bizi dana; gaisorik ezpadabil zer jan ez daukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soñoko bitxidunez, eta ori astegun buru zurijan bidez zabiltzala?

MAISU JUAN: Adiskidia, egizu berba modu obian: zuk ezdakizu zer dan Barberu izatia: lengo Barberu txarrak ibilli oi zirian deshonetan euren opizijo onrauba; batuten zirian tabernetan ta nun nai; gitxi estudijau, ta gero ill edo bizi, errezeta bat egin, boti-

¹¹⁹ Klasikoen Gordailua, <http://www.armiarma.com/klasikoak/idazlanak/M/MogelJAAbarka001.htm>.
Josu Lavinek transkribatua.

kako asko artu eragin, erremienta txarrak euki, ta barriketa batzuk nekezalialai esanda, trago galantak ezarrita, Mediku jakitun batek baño pama geijago euki eruen. Baña gaur Medikuben pare gara. Asko aurreratu da Zirujijan. Ni egon nas Madrilgo ospitalian urte bijan. Asko ikusi dot; ta asko dakusanak, asko ikasi darua. Ostera bere dirautsut; zer dala uste dozu Barberuba?

PERU: Barberuba barberu ta mozolua mozolo. Mozolua baño nun dago egazti edertuago janzirik? Baña ez dau inos mozolo izateti urten. Soñoko apaindubak ez deutsa gaisuari osasuna emongo. Biajon dagijala nire erriko Barberubak? Bere bideko janzija da txano gorri bat ta bere ganian txapel eskerga berrogei urte eukiko ditubana. Eztabil zu legez basatzarik basatza oñetako meiakaz, ta bai zaldi, berak beste urte ditubanian. Egija da, nun nai topetan dabela bazkari ta aparija. Guztijak asko gura deutsee bere lautasuna gaiti, ta jaten dau edozein gauza baserrijetan. Autor deutsut, ardao zaletxuba dala, buruba ta barruba berotu daruazala larregi, ta ori eria dan guztijan. Baña katubagaz zutirik zuzen egon ezin darian, topetan ditubala zanak, ta eskutur sendo ta ikara bagiaz ateraten deutsala ederto odola gaisuari. Au zelan dan ez dakit, alan dala bai.

(...)

Diálogo segundo

MAISU JUAN: Ezneban sinistuko baserritar batek jakin leijala ainbeste izen, ta euserkia zala ain aberatsa bere berbeetan. Nik ezin artu neiz buruz izen guzti orreek illabetian bere. Iminiko ditut paperian, erakusteko beste nire opizijokuai.

PERU: Ordu onian; ta esango deutsudaz bein banaan. Txarrijak berak, ain ezaña izanirik daukaz izen asko. Batzuk esaten deutsee, lauñekua; bestiak belarluzia, beste batzuk *ganau zurdaduna*; leku askotan *ganadubaltza*; ez ain ondo, bada asko dira zurijak bere; badira *urdia* esaten deutseenak. Lau oñekuak batzuk dira *ordotsat*, bestiak *aardijak*; edo arrak, ta emiak. Gurasotzat artuten dirianai, edo aitatuteko, deituten jakee *apua*, ta parkaziña eskatu baga, ezin emon deutsee nekezale prestubak onelango izenik. Inos erosi gura badozu lauñeko etxian aztekorik, begiratu ondo belarri, ta bizkarrari. Belaarri luze, apal, ta makalak ditubana, ta bizkargora, edo jasua dabena, gizendu, ta aziko da tint. Maisuba, ona etorri garian ezkerro, zabaldu biar da ziskuba, ta emon zerbait, epailla ta batu dirianak ardaua edan dajen. Pitxar bete biarko dabee gitxienez, ta zerbait geijago guztiok edango badogu. Alan oi da; ta zuk ain apainduba egon ezkerro, eztozu prestubez dollor, zikotz, zeken, ta zisku-estutzat zeure buruba agertu biar.

MAISU JUAN: Ondo dinozu, ta errazoia da neuk ekartia konbita. Baña eurak bere prijidu daigubela gibela, edo erre kunzurrinak, ta solomo zati bat.

PERU: Ezin iñori aitatu ginaijo orrelangorik, eurak aurreratuten ezpadira; esango leuke lotsabaga, ta dongaro azijak gariala; belutuko bere litxakegu etxerako.

MAISU JUAN: Orra lauñeko bati emoten jakon paguba urte betian erregaluban eukita.

PERU: Ondo dinozu, ta orain jatort gogora gaztetan ikasi neban asko esan gura daben ipuin au.

Eldu zan korta batera azeri bat, ta topau eban an belarluze, edo txarri gizen ta mardua. Esa-eutsan onek, Zer darabilk emen lapur zital orrek? Iri guztiok deubee gorroto. Eizaan dabiltzanak, eruaten ditubazalako eurak ill gura jituben eperrak. Gurago juek ilako bat, sei eper baño egiten ditubazan kaltiak gaiti. Etxeetan ezin ikusi abee, olluak atrape-tan ditubazalako. Txakurak urrinetik igarten jeutseek, botaten duan atsaz, urrian abille-la. Asko ostu, ta beti argal, beste lapurrak legez. Ase ollakiz, bildotskiz, ta eperkiz, ta beti aragi txarra egiten duala. Illten baabe bere, ezabe ezertako gura. Ezdakusk barriz nire bizitza ona? jan ta lo, ta nos bait urten ibiltera. Jatort neskatillia zukubaz, arta garaubaz, ta kastañakaz. Sabelpian ta lepo ganian niri igorzten oi dabill, ta bere poza da, nik ondo jaatia, gizen egitia; ta egun baten jan gura ezpadot, illunduten jako biotza, ta dino negarrez legez; jangarzutu da gure lauñekua, ta jabilt eregau ta palagetan jan eragiteko. Esaeutsan azerijak, ah tontotzarra! Lo egik; gizendu adi. Maite jitubek ire odoloste, lukainka, gibel, bare, solomo, ta duan guztia. Ire urdai gozatubak urte guztian egon biar-ko jok egozten, kunzurrin ta solomuak sutan erreten. Jatorrian epallia, ta iru edo lau gizonek oratuta, sartuten deubanian ganibeta samati erraijetaraño, irrinzaka aguanian oñi ezin eraginda, esango dok. O azeri zorionekua! eta zeinbat dontsubagua asan ni bano! Orra zetara jo dabeen nire jan, lo, bizitza onak.

Dialogo tercero

PERU: Eldu gara bada gabiltzan gabiltzan, o adiskidia, neure etxaguntzara ta jakin egizu deritxola Landeta, landa eder baten dagualako. Ezta gizon aldi dakigunian, etxe onetara ezkondu mutil arrotz, edo beste etxetakorik; belaunik belaun gizon etxeko semeetati eldu da nigana; agaiti aldatu ezta niganaño neure izen ondokotzat etxe onen izena; alan derist *Peru Landeta-ko*. Belutu jaku bidian, baño oraindiño etzirian nire emazte, ume ta otseiñak oera juango. Eztauke nire usterik gaur gabeko. Zurturik geratuko dira nire umiak zu zakusezarian, etorri ez oi dalako ona zu baisen gizon apaindurik; igesko dabee zokonduetara kuijak legez

MAISU JUAN: Peru, atia jo baño leenago esaidazu arren zer da kuija?

PERU: Zubek konejua esaten deutzazuna, ta esaten jako kuija, kui kuika, edo kukuis-ka legez dabiltzalako emen urten, an sartu, burubak orain agertu ta gero ezkutetan.

MAISU JUAN: Peru, txakur zaunkia da, ta andijarena. Oratuten badeust?

PERU: Ez bildur izan; bakarrik etorri banintz, ez eban zaunka aserre usaiñekorik egingo, ta bai urten bidera pozkariaz alliari eragin ta parlanzuban neugaz ibilteko;

egingo zituban pozezko inzirijak. Etzaitu usigiko neugaz zakusazanian, igarriko deustulako zatozala bakez, ta ez ezer eruatera. Txakurrari dagoka zaunka egitia, ta etxe ur ta inguruban ibiltia. Ogi puska bate gaiti; zelango oniritxi ta asko-guria artuten ezteutsa bere ugazabari? Makillaka banatu arren ugazabak, inziri illetazkuak egingo ditu, ez baña jarki ta aginik erakutsi. *To, to* bat esan orduko, enzuten dau, ta igarten dau ardi, auz, idi edo beiren bat dabillela soluan, ta ateraten ditu arin onian. *Urtik bat* esaten bajako, alde egingo dau maijaren alboti goserik andijena badauka bere; alperrik izango da gosesto salobria. Ipiñi gura zaitut gauza askoren jakitun etxian sartu orduko. Daukat Jangoikuak emonda emazte otzan, baketsu, euli bati bere gatxik egingo ez leuskiona. Azten ditu umiak lotsa onian, mankau baga, ondo esanaz, ta Jangoikuaren bildurra irakatsijaz. Zorionez umiak eurak bere esanekuak dira jatorriz legez; eztakije erremuskada, bekoki illun, ta mustur astinketarik egiten. Eztozu enzungo nire etxian biraorik, ez baralla, ozpe, atralaka, ta iskibidurik; bai berba onak, elesako gauzaak, ta bake betekua. Daukadaz seme bi ta beste ainbeste alaba. Gari ta artuak daukadaz giltz baga ganbara zabalian; bada daukaguzan otseinak bere, azi ditugu geure umiak bagenduz legez, alkar maite dogula. Iñoren basori orri bat kenduten ez jako, bai zaindu ondo geuriak. Orregaitiño Jangoikuak emoten deusku gauzia ugari; topin ona beti izaten da; ilten dogu lauñoeko gizona, idi lodi zezin ederra dabena. Euren denporetan izaten da jan al baño geijago kastaña ta sagar. Urte guttian, esaterako, daukagu eznia ta aurreratuten ditugu dirubak lagunduteko gero umiai, aututen dabeen bizieran. Dakustaz nik iru ta lau etxaguntzaren jaube dirianak, zoorrez beteta, bururik jaso ezinda, gosia emoten deutseela euren ume ta ogitukuai. O zorigaistoko ardantegiak! Eta, zeinbat kalte egiten dozuben! Bizkairik geijenak erriojara darua dabena ta eztabena.

MAISU JUAN: Peru, zorionekua zu! Errege bera ezta zu baño obeto bizi. Guazan laster barrura; jo eizu atia.

7.4.- Francisco Arrate

Oso gutxi ezagutzen dugu Francisco Arrate eibartarraren inguruan. Dakigun apurra, 1861etik 1873ra barrena Agiñaga auzoko San Migel elizako erretore izan zela. Berak idatziak dira Juan San Martinek 1972an Agiñagan bertan aurkitu zituen 46 sermoi. Eibarko euskaraz idatziak izanik eta ahozko jardunetik oso gertukoak, gure hizkeraren azterketa egiteko lanabes zoragarria izan daitezke.

Orain arte kaleratu den bakarra beheko hauxe dugu, San Martinek berak transkribatua eta argitaratua¹²⁰. Ez litzateke txarra datozen urteotan besteak ere kaleratzen eta aztertzen joatea.

Del perdon de las ofensas

Ego auten dix vobis: Diligite mimicus vestroi benefacita his qui oderun voi, orata pro perrequentibus et caluniantibus vos.

Cristau eguichascuac esdau esanbiar judichuac lez bacarric obra asalecuac euquesenai onchat espada dirauscu Jesucristoc obren Santidadiadi gueitu biechala pureza intenciñoco eta viocheco suentasuna bacarric obra on olacochiequin espera gueinque Cerua. Ceun obra onac espadira perfectuaak eta fariseuenac baiño esaries sartuco Ceruan.

Ceinda bat lapurra dan es bacarric bestiari quencharren bere gaucia, baita bere decio esan dabelaco quencia, igualmente Sn. Juanec dirauscunes llegachenda guizona iltera es bacarric quenduric vicicha projimuari baita bere gorrotua euquiric bere contra. Orregatic dirascu Jc. aguinchen dechuet: amai deichusela gorrotachen oituana eta eguin deichosuela ondo gaisqui eguin dechuanari eta erregutu deichela perseguidu eta falso testimoniua jaso dechuecengaitic.

Obligacino gach eta andia bacarric Jo. on batec ipini leiQuiana eta bacarric berac bere graciaquin cumplidu gueingaina... Obligacino altu eta perfectua cumplidu esdabena judicho gentil eta bacarric Cristaueri escachen

¹²⁰ *Francisco Arrate. Eibarko Aginaga auzoko parrokoaren sermoi argitaratuak. Juan San Martinek bilduak. (San Martín, 1992).*

jacuena Obligacino estu eta nai ta naiscua; bada bertatic dator arimaco baque unicho anaitasunecua baque famelichacua eta baque verdadecua.

Sn. Pabloc esanetan Jesucristori: S Jc. nere anaiac ofendichen banau cenbat bidar parcaucochat? bastante da parcatua deichoran 6 zaspi bidar? Es contestau echan Jc., caspi bidar es da bastante parcatu biechasu ceure anaiari ola da eta beti, Mandamentu danen oservanchiac dichugu.

Juan discipulu eguichascuac beste guizonengandic; mandamentu jasochen dituana guizonen semiac Jn. semien dignidades da Mandamendu achenic ichi dabezena bere testamentuan cumpliduric berac lelengo curuchetic escatu ebanian baque eta parcacinua bere berduguendaco: Aita Neuria parcatichosue.

Eingosuan acaso projimuac culpa bata abertidu baco bat broma fiestaco bat, falta eceves bat; acaso esango da cumplidu dabelaco abligacinuaq.n ceguidu gura esditalaco bestien perjuiciuac guero anbicino charrac pretencino injustu eta falchuac. Achenic acaso esango da culpable desondradu gura esditala: gure pasinuac onore ontasun conciencia eta locha eta perjudicau balesun se interes eta deituan esanda bere injusticietaco /—/ Ceruco instrumentu bat lez, modu orretan /—/ castigau gura izan dituana Jc. euren lujuricha eta gaistaquericha secretucuegaitic. Baiña guc Ji. sor dechagu falta amaibacuagaiti —/ ascuegaitic /—/ eta viot /—/ gogorragaitic. Sor dechagu Ji. ainbeste mecede artutacuagaitic ainbeste escandalu emondacuegaitic /—/ lapurreta maldecino murmuracino eta /— / gaistaquericha egindacuegaitic /—/ Elizaco gauzetan

Ala projimuanac sor descuesenes eceves bachuc eta Ji. guc dechagus sor andi bachut. gauza sorprendentia! Jc. parcatu descucen instantetic sor andichac gure pecatuen injuricha andichac ondioc pe daucagus /—/ gure orguillua eta ecin convertidu gara parcachera projimuac eguin descusasan injuricha eceves bachut. Oindioc icusico gaitue alimentachen gorroto zarrac, unetan guresta escandalo saltachen dabenac mundu gustian vistara, cecula esdogu cedido gura eta bildurres ori concediduric baque projimuez eta Jc. escachen descuna /—/ beragaitic.

Da bada fedeco gauza bat parcachen espadechagus projimuari egin descuzan maldadiac Jc. pe esdescusela parcatuco. Cergaitic faltachen dosun gustian obligacinora ucaturic projimuari sor dechagun misericordicha bat. /— / daucasue obligacino bat usacheco misericordia /—/ cergatic munduco

fameliza andicha ecin leeguian vici, gorde ecic bata bestiandaco cadidadeco leguian.

Eta eguicha. Nun vilatucoda cecula guizon ain reservan bere juiciuetan ain ajustaua bere berbetan represino bacua bere condutan cecula inor ofenditu esdabenic? Emenche bertan nundago cristau erabili esdituana asmuchar icilecua asmacinochar desaire falso testimonio publicuac /—/ obra gogorrescuac juicio arinac edo berba asaltuac esan esdituanic projimuaren contra? Nun dago guizon eguichas daiñoric eguin esdabenic edo perjudicau esdechanic projimuari deitu edo interesetan? malesias espada ligereza eta consideracino baric? Bachuetan basara ofendituac beste bachuetan sara ofensoriac.

Libre bagengu gorrotachia eta archia benganchia ofenditu gaituan contra; derecho. Iguala /—/ euci leuquie bestiac pe /—/ gorrotau ala venganchia archeco gueure contra derecho ceñequin juango guinaquesen castigu baric projimuaren vicicha acienda eta deituaren contra igualmente eraco leuque projimuac pe castigu baric guere vicicha acienda, eta deituan contra joateco ofenditu gaituenac egon biarco leuquie guere coleraco enojuaren vildurres momentu bacochian, /—/ baiña gueuc pe momentu bacochian egon biarco guenduque beran gorrotoco /—/ bildurres. Elichaques egongo, seguru guere compaiñian ceinda gueuve egongo esquinchaquesen euren compaiñian. fuertiena edo malesiosuena esango lichaque afortunatuena aldencheco vestien venganchatic: presisua esango lichaque escutachia basuetan: inobe eslichaque egongo seguru es bere echian eta es iñonian. gustiac egongo lichaques bildurres billatuco ete diran guizon ilsailen batequin, famelicia esango lichaque presicho bat lez, munduco bachar andia guizon burruquen circulu bat lez. Naturalezaco lasua gustia ausico lichaque. escutauc lichaque confianchia /—/ seguranchiac galduco lichaque momentu bacochian ausico lichaques aisquiretasunac eta munduco bachar andicha etorrico lichaque ondachera. Eta ainbeste ondamentin bistan Jc. ipini baric ichileique ofensen parcacinuan mandamentua? Bai mandamentu ori da.

ural eta necesarichua da munduco bachar andichan fundamentua. Ce ederra justu eta viarra dan, eta parcacinoco erechichen demasean mandamentu ondo (sic) deichesuenoc gogorra, Considerau suc bestiac pe obligacheituala parcachera.

Cenbatec ceuc esdaquisuela confesorian consejuz edo conversino eguichasco baten virtutes enchun dabelaco /—/ parcacinoco Sermoi Santu

bat abandonau dabe ofendichia edo ichideche acusacino murmuracino eta falso testimoniueri galduco cinuecenac beti? Gaur gozachen bosue baquia eta basara dichosuac, sordechasua Jc. ceueri parcacheco bestieri ipini dechen mandamentuari. Ah! bestiac gorderic mandamentu ori, eguin badabe gustia ceun provechuraco. Cergatic suec eguines esdosue eser euren provechuraco gorderic mandamentu ori? Gurosue egon dein mandamentu bat, locheco bestic min (sic) eta obrac? eta ceundaco libre? Gurosue parcatuac esansaitiasen parcatu baric bestieri? Gurosue eguin daquisuen justicia daiñuac eguin dechuesenari eta ceun falta pecatu eta gaistaquerichac astu eta parcatuac es anditisen betico? Gurosue justici osua bestiendaco eta ceundaco bacarric misericordicha? Gurosue bestiac viar eguindeicen pagau baric, baiña ceuc aldan gustia quenduta. Yaque beste nauci baju eta igualac parcatu dechuen eguin biosue beste ainbeste. Es dosue eguiten bada erremedicho baric ba janés juango saries infernuco su isugarrichetara.

Ofensoriac topachen espadau bere necesidadietara Cadidadecoric apoioric gueugan; ecin gueinque espera graciatic Jn. precencian. Gura espadosue euquichia berbaeratic ceuen enemiguaquin eta idistia Jc.pe esaitu icusi guraco eta gorde guraco bere compañian. Ceun enemigua sarchen /—/ esposu ceun viochetan ceuec pe esaries sartuco Jn. vioteta amorichuan. Usauco da ceuequin neurri iguala ceinda ceuc usachen dosuen bestiegn. viotchian daucasuen artian gorroto eta venganza ori, religinoco obra onac esdechue balicho ceruraco eta /—/ Eliza ama Santiac botacochus decreto Condenacinoenac ucatu bendecino Santua eriochaco orduan. Es ceun oracino luciatic, es ceun limosna andichac es vareu es Mesa es ceun penitencia andichac aisquiratuco saitue Jn.

Errezachen dosuenian Aitaguria esaten dosue: Parcatigusus guere sorrac gueuc parcachén dechegun lez gueure sorduneri au da suplicachechugu tratagaisuena lez geuc tratachen ditugun lez bestiac eta parcatu ecic edo parcatuic gaisqui esaten dechasu Ji. oracino orretan: parcachén espenchegu ofendichen gaitueneri, erreuchechugu esdaigusula parcatu.

Aretara viotgorroto envidichen eta rezentimentus beteric projimuan contra oracino ori errezachen dosunian, desafichachen dosue Jo. eta provocauric guerria odichuari odichuagaitic. Conformachen sara esdala egon suendaco es parcacinoric eta es amorichoric. Suen oracinua convertichen da orduan maldiciñuan. aichu biar lezquisunac parcacinua provocachen dau /— / Jn. enojua. Jecristoc dirauscu suetatic bacoachac parcachén espeche

viotechic bere anaieri esango dira condenauac baiña parcachen beche esango dira pagauac.

Ola bondadian Ola Jn. humailtasuna! Ofenza sarritan ceinchuequin quejachen garan sarrichagotan dira beguitancino bachuc /—/ aprensino bachuc eguichascuac baiño. Sarritan esan dira eguinac maglesia eta intenciño char baric, sarritan esan dira provocau eta medeciduac guere partetic; baiña Ji. eguin dechaguzan ofensac esan dira eguinac malecia gustiaquin, esquergaistotasun gustiaquin. Ofenditu dogu Jº. maguestade eta grandeza amaibacua gauza gustien Criadoria guere Jn. eta javia. Mundu gustico Erregia.

Eta orraitioc bere Jº onac gura dau comprendichia esan dein guizoneri aguinduechen mandamentu onetan jartzen da condecino igualian, igualacheitu bere derechuac criaturianaquin obligachen da parcachera parcachen bechegu guere anaieri. dichosua bada cristau parcachen dituana generosidade gustiaquin ofensa eguin dechesanac. Cergatic asegurachen daben ciurtasunaqn. Jn. Contra eguin dituan ofensen parcacinua, eta apuntau leiquian Jesusen odolaqn. bere izena justuen liburuan.

Enemiguendaco amorichua da agradabliago Jº. martirichua bera baiño eta dirasen Sn. Gregorioc Sn. Estebanegaitic medecien ebala gueisago erregutu ebalaco verduguegaitic bere vicichia emoebalaco Jesusegaitic baino. Sn. Juan Galvertoc /—/ bere anai ilebanari parcaturic viotechic eta libauric /—/ vicichatic sartu san Elicha baten escacheco Ji. bere falten parcacinua eta oracinuan euala Sº Cristuan aurrian icusi eban Sº Cristº movichen vuruva beragaz dirau-chala buruaqn. Cein da ceuc parcatu ditusun neuc pe parcachen dechudas.

Jesto. dirasen ofensen parcacinua urten biar dabela viotechic berba orretan Conde (sic) disputa eta asarre publicuac baita bere asarre suave eta bildurescuan eta resentimentu cecretucuac barrucorrec armachen espada be be ofendichian besua ichulcheco ofensorian odola; armachen dabe orraitioc bere intencino eta miña galcheco bere ondra eta ederto balicho dabena gueichago baiño.

Eguichas enchuten da esaten: nic esdot gorrotachen nere enemigua; baiña ecin astu jata eguin destasen malac esdauca vorndate charric; baiña esdot gura eser berag.n es daucat viochian gorrotoric baiña esdot icusi gura nere presencian. Orra parcache modu bat berbas baiña es efectus.

Eta eguichas dirauco Sn. Juan Crisostomoc gustauco lequisu J.c
parcachia modu onetan? Gustauco lequisu J.c esango balechu: parcachen
dechudas ofensac, es dechut gura malic, baiña esdechut desio icustia nere
urrian? Gustauco lesquisu J.c asolviduric erainic ichuran lurrian. Conferc.
parcatu es espalechu Ceruan? Esango lichaque ori parcacino eguichascubat
J.n partetic? Orain bada suen parcacinua da ichurasco bat al salaco bt,
cergatic urtechen esbaden viochetic.

dagos beste bachuc hipocrita eta falso bachuc visitache / ituenac
ofendichen dituenac errecibidu echian. Saludau convida eta alabanchas
betecheituenac; baiña achetic biar eguiten dabe errebajachen bere deitua
murmuracino charrañqn.

/—/ Es dira geldichen intriga escutueqn. bajachen bere utilidadiac eta
trastornachen /—/ bere vicimodua es dira geldichen asmo bere intriga
aspijan eta gusurres.

Bada au gustia es da bestegausaric gorroto envidicha vengancha
eguichascu bat.

Es dot esangura orraitioibe daladirala biar jacola gorrotoco ceñailliac
bat colera eta odolac iciotuta bere cenetic urten da, esper (sic) tachia gorroto
bat icustias beste baric enemigua enchutias beste baric bere berbia bates bere
eria frescua dananian movimentu pronto colera eta odoleco onec errezoian
auretic urtechen dabenac geungandic guere vorondatia parte artu baric
euretan dira naturalezan movimentu bachuc culpa bacuac an eta llegau
leiquezenac esatera meritucuac procurachen bogu guenchen /— —/

Acordau saite Sn. Cristobal Martiri Andichag.n artu eban plaza publicuan
matraillaco bat persona baju batengandic bere colera euan coleras beteric an
eizan ofensorian gainera bota eban lurrera eta etaric bere espacia juan iltera.
Baiña acordauric prontuan mandamendu onequin /—/ urteban coleratic
gorde eban espacia eta vueltauric erri diar eguitebanagana: Ildeila atrevidua...
contestau eban: neuc ilgo neuque cristaua espanis

Generosidade onen urrengo llegau zan ezatera Mar Sn. Andi eta Martir
andi bat gerrerosua lurrian eta gloriosua Ceruan.

Modu onetan eranchun biechagu pasiño tentachen gaituanari eta mundu movichen gaituanari venganzara Ez gara Cristauac. Bada cristau eta guizon parcachen dabena.

Quendu deigun guere enemiguac daiñacheco asmo gustiac viurtu gaitian guere amistadede eta amorichora eta gorpucheco velarrichequin espada ve guichienes /—/ arimacueq.n Enchun gozaus Espiritu Santuari amorichoco verbac. asegurauc descuenac guere parcacinau consolauc gaituana vicichan cendatu eriochaco orduan eta eregui biena venturanchaco atia.

Amen

7.5.- Caleco biarguiñac Basarricueri Elesiñuen gañian

Orain dela urte batzuk, Pablo Iglesias Fundazioak Madrilen daukan egoitzan, XX. gizaldi hasierako orritxo bat aurkitu zuten. Eibarko sozialistek 1902-1920 bitartean argitaratzen zuten *Adelante* aldizkariaren orrien artean agertu zen. Badirudi garai beretsukoa dela, 1902 ingurukoa. Ez dago garbi *Adelante* aldizkariarekin batera kaleratu ote zen, edo bestela heldu ote den Madriler. Egilea ere ezezaguna da.

Labur-labur esanda, kaleko beharginek baserrikoei euren botua eskatzen diete; ordura arte moduan, *goitarreri* (republikano eta liberalei) eta *behetarreri* (jauntxo eskumatarrei) eman beharrean, botua sozialistei emateko. Badirudi, idatzizko argitalpen bat baino, ahoz esan beharreko hizketaldiren baten zirri-borroa dela, jendaurrean egin beharreko hitzaldi bat.

Ez dago dudarik, testu hau idatzi zuenak ondo zekien zer den erretorika eta jende aurrean hitz egitea; lehenago ere idatzita izango zituen antzeko testuak. Baliteke Akilino Amuategi «*Txikillana*» sozialista ezaguna izatea egilea.

Ahozko hizkeraren ezaugarriak betea, testu ederra da, aberatsa eta arina, pasarte zoragarriak jantzia. Batzuetan, berba gutxi batzuetan, gipuzkerako aztarnaren bat nabaritzen zaio (*ere, gueyena...*), testu «jasoagoa» idazteko egileak egindako ahalegina, baina oro har, Eibarko euskara petoa azaltzen zaigu bizi-bizi lerrootan.

Caleco biarguiñac Basarricueri Elesiñuen gañian

Elesiñuetaco demporan icustendosue bastarra gustiac comprometitzen sela ibiltzen diran votua quentzeco, eta gueyena gusurra, jaunchuac voto batzallien bitartes darabien; eta onegaichic pentzaudogu caleco biarguiñoc basarricueri, aitzen ematia serbait ser pasatzendan calian.

Urte guchi dala biarguiñoc guengosen, ascomodutaco ugasaben gusurrequin biarreco presiua galduta, alcarren beserueri campuan mercatzen etzen armia, eta bearguiñen lepora jausten sen erresultaua; merqueta ondo sela esiñ leiquian eiñ biarric, escopetia desacreditauas oian egunetic egunera, eta orregatic biarra guichitzen, ala eta gusti ere basarrico mutilles betetzen tallar gustiac eta gentia sobratzen san, gueuc ere lenas gañera alcarren contra mercatzenraño, eta gueldituguiñan criauric ere mantenidu esiñ eta atzera euren echetara bialtzen guendusela.

Eta biarric charrenac eguiten situen ugasabac, errico biarra desacreditatzen sutenac, amar valio suen gausegachic iru aintzen suenac, eta erria osticopian artzen se biltzanac, gure desgrasiac aprovechauta dirua aurreraterá llegausiran, eta gaur dirua daucana sela dan jauna, nais eta edoser isan, pentsaisu selaco jaunchuac diran batzuec, ichu ichuan votua emoteco.

Piscabac mejoratzeco pentzau guenduan biarguiñen Sociedadia eichia; presio obiac ipiñi gueure biarrerri, gueuc probauta biarra entregau ugasaberi acreditaudeiñ escopetia, eta criau larregui es artu, esta beste onelaco errian comenisiran gausa on batzuec eicheco.

¿Uste dosue aintzallec, uguesaba aundic, edo jaunchoc lagunduescunic?

Ona sala ori danac esaten escuen, baña iñoc ere es lagundu; eta gueuc biarguiñ guisajuoc maquiñabat gau eta dempora galduta, eta pauso emonda conseguidu guenduan ofisiuetaco Sociedadia eichia, eta desio guendusén gausa asco conseguitzia; eta gaur dagos Eibarren Sociedadia presiua jaso eta jateco beste irabastendabela len irabasten es eban asco; biarra obia eichenda eta gente guchiago sobratzenda oraiñ, biarran creditua gueichu da, eta errira dator asco diru gueyago; eta calia sembat obeto dabillén basarria ere obeto ibiltzendana danac daquigu; eta gura dogu ejempluau erri gustian sabaldu, biarguiñ gustiac gueu besala obeto jarri deichian, eta danoc bat eiñda iñdar gueyago daucagulaco, eusteco conseguidu dichugun gauseri eta aurrerá juateco asi garan birian.

Dabiltzas oraiñ jaunguac nundic gure sociedade ederrac apurtuco, eta nundic biargui-

ñoc benderago artuco, eta nundic lagun batibe biarguiñan aldecarí Ayuntamientoura jua-
ten es lagaco; eurac nai daben moduan erria manejazdeco; eta aspertugará osticopian
euquigura gaichuen guisonac gueure votuequiñ gueuc aintzen ipinches.

Orregaichic lenguan batuguiñan saloyan biarguiñ daneri deichuta, eta pentzatu guen-
duan gueure artian apartautaco guisonac Sosiedadiequiñ eta biarguiñequiñ ondo beti
portau diranac eruatia gueure votuequiñ Ayuntamientoura, biarguiña defenditzeco.

Sobre larregui desgrasias icusi dogu, goicharrac eta betarrocc biarguiñen mejoren con-
trariuac dirana, eta gueuc apartauta cuac gueure votuequiñ ataratzen es badichugu con-
trariua beneric aintzen euquico estoguna. Caleco biarguiñac eiñgo dogu aleguiña biar-
guiñari triunfua emoten; emen votua voto dala, seguru daucagu triunfua; baña basarri-
cueri besela amenasuac emoten descues, vоторic votatzen es badogu contrariuan favo-
re, echetic quentzeco aintzerañ.

Baña votua sela dan norberac naidabenari votatzeco, votantiac nai dabena aintzen ipiñ-
checo, es edoseiñ guisonec iñori quendutaco votuequiñ berari conveni jacosen guisonac
aintzen ipiñcheco: leguiian debecauta dago iñori votua quentzia amenasuequiñ eta com-
promisuequiñ; nai saltzia eta nais erostia, nais aintzia voto truque edoser gausa, nais
venetan, nais gusurrarequiñ generalian eichen daben moduan.

Eta guc biarguiñoc gura dogu votua voto isandeilla, Ayuntamientouco eiñ deichian erriac
nai dichuan guisonac, eta es comprometedorienac eta tramposuenac. Orregachic que-
jauco gara biardan lecura, votua biar estan moduan quentzen dabeneгаichic, eta justi-
cia billa juan gausia isandeiñ biardan moduan, eta topatzen es badogu es daualaco biar-
guiñari norc entzun arrosairic; gueu obligauco gará eichera. Eta uste dogu suec ere
lagunduco descusuna gausa guichibat biarguiñan favorecuac ataratzen.

Biarguiñen parteco comisiñua

7.6.- Toribio Etxebarria (1887-1968)

1887an Eibarren jaioa, oso gazterik hasi zen irakurtzen, idazten eta politikan parte hartzen. Sozialista, alderdi horrek 1910-1936 bitartean Eibarren izan zuen buru nagusietakoa, guztien lider intelektuala, eta ziurrenik herrian maitatuena. 1936an gerra hasi eta Espainiako Gobernuarekin batera alde egin behar izan zuen, lehenengo Valentziara, handik Bartzelonara eta. Azkenik, Frantziara. Frantzian pare bat urte igaro ondoren, Caracasera joan zen eta hantxe hil zen, erbesteraturik, 1968an.

Autodidakta eta irakurle amorratua, oso ikasketa gutxi izan arren kultura eta jakintza-maila izugarria izan zituen. Bere lanik gehienak atzerrian idatzi zituen, Caracasen. Gai politikoak, sozialak, filosofikoak eta erlijiosoak landu zituen, baina bere lan guztien artean Eibarri buruzko hirurak nabarmentzen dira: *Viaje por el país de los recuerdos* (bere gazte-denborako Eibar azaltzen digun kontakizun liburua), eta euskaraz, Eibarko euskaraz idatzi zituen lan biak: *Ibiltarixanak* olerki-bilduma (1967) eta *Lexicon del euskera dialectal de Eibar* (1966). Etxebarriaren lanak mugarri izan ziren, ez bakarrik Eibarko euskararen azterketan eta bilketan, baizik eta euskalkien azterketan oro har, herri-hizkeren ikerketan aitzindari izan zelako.

Ondorengo lerroetan aurkezten ditugun testuak itzulpenak dira, horretara mugatu zen eta gure herkidearen prosa-lana euskaraz. Bere itzulpenak zenbait aldizkaritan argitaratu zituen, baina hemen aurkezten ditugunak bere eskuizkribuetatik ateratakoak dira, *Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia* libururako berreskuratu zirenak.

Senar begi-bakarra eta emazte ariña

Alenzon-go Dukiak (Margaritan lehenengo senarra) eban zerbitzari bat begi-bakarra ordu gaizto bat ezker. Baiña nahiz da akats hau arpegixan eta urtiak aurrera, ezkondu zan emakume gazte ederragaz. Eta Dukiak eta Dukeziak gura ebenetik zerbitzari hau bere kidekuen artian gehixen, sarri eban honek etxetik huts egin biharra Jauregixan, emaztiak alperrik ohia berotzen zetzala.

Eta hau izan zan okasiñua, andrakume ariña begixa joteko bere sasoiko gazte bati; zein egaz ederto konpontzen zan behiñ alkar aittu ziranetik. Baiña ez zan izan hau ixileko ipoiña, aзуak be konturatu ziran erebixen tratuagaz eta zurrumurrua heldu zan senarran belarrixetara.

Eta sinistiak lanak euki arren senarrantzat zori oneko emaztiak haiñ ondo hartzen ebanetik, hainbeste legunkerixa eta gozamenekin, pentsau eban probia eittia, erabagitzeko zalantza mingarri hau edo mendekatu merezi letz egi agertzen bazan zurrumurru lotsagarrixa.

Honetarako aitzen emon zetsan emaztiari, aldendu biharra ebalak kanpora egun batzuetarako, Dukian mandatu bategaz. Eta behiñ illuntzia urtentziaz bat senarra guzurrezko jua-biharrera, emaztiak deittu zetsan betiko bidetik Aiskidiari, sekulako jolasetarako.

Baiña ordu erdi baiño lehen, hor nun uste barik ate-joka zan bateronbat ataixan. Ezaguna eban emaztiak senarran ate-jokeria, eta zein zan jakiñaz hartara estutu zan Aiskidia laga biharko ete eban narrua; baiña ez hala emaztia, zeiniek aindu zetsan lagunari jantzi eta itxain zeixala nasai baztar illun baten.

Artian, ateko deiza zan geruago ta gogorragua, eta emaztiak, ezagutuko:

– Zein da horrelako zaratia darabixana? Ordua al da hau baketango etxian deitzeko ainbeste kanpaikin? Nere senarra etxetik balitza, ez zenduke bizkarreko berotu makala eruango!

Senarrak, entzunaz emaztian orruak, ziñuan bere aldetik orrua haundixauegaz:

– Zabaldirazu, andra atiori! Egun-sentiraiñok bihar al nozu ataixan, madarikatuorrek!

Pekatarixak ikusi ebanian Aiskidia jantzi eta gertau zala urtentzeko aukeria emon zeixonian, zabaldu eban atia eta hasi zan esanaz senarrari besarkatuaz:

Aufa! Zer alaitasun neria! Pozarren zure itxulitziakin! Amets zoragarrixa nerebixan zure zaratak esnatu nabenian! Pentsatzen neban begi galdutik oiñ ikusten dozula!

Eta hau esanaz, estaldutzen zetsan ona, probatzeko begi galdutik ikusten ete eban, ametsetan pentsau eban bezela; eta begitsuan eban artian senarra, emon zetsan Aiskidiari nahikua asti urten zeixan akerra konturatu barik.

Baiña ez zan ala izan albidade guztiak alperrik; eta senarrak esan zetsan zorrotz emaztiari:

–Ez andra, ez nozu gehixago talaixan erabiliko! Zu harrapau gurarik neu harrapau nozu! Jaungoikuak lagundu deizula hobia izaten! Ez ba munduan andrakumian burugintzak azalduko dittuanik. Eta nere ondo hartze guztiak alperrikuak izan diranetik zuretako, bihar bada aintzakotzat ez hartziak aurreran, hobeto erakutsiko detsu.

Eta laga eban bizi-alargun, negar eta hilleta haundixetan, nahi ebanera joteko. Baiña, batera eta bestera, lagunen bitxartez, guztiro garbatu zanetik pekatarixa, aurrera leixala izatekotan, alkartu ziran gero, eta baketan bizi izan ziran handik aurrera, hil arte.

Jan-txakur bi

Fray Anselmo de Turmeda. Katalana, hamabostgarren gizaldixan bihurri askoko bizitza eruan eban fraille ipoinlarixa. Hamen bere aletako bat. Fraile sermoilari bat, Tarragonako lurretan Cambrils deritzen den herritik zoiala etxeruntz, Gabonetako sermoia eitten izanda gero, aurkitu zan San Francisco-n kideko Fraile bigaz, eta egun onak emotian ondoren, itaundu zetsen hareri ia nora zoiazen.

Eurak Tortosa-ra, eta, ordiaz, euren aldetik gura izan eben jakin, zelan hartu eban herri hartako Retoriak Gabonetan.

Sermoilariak ez eban zer gorde egixa, eta esan zetsen, adurra darixola ago ertzetik:

–Hobeto ezin. Sinistiak be lanak dittu; hango arkume erriak, hango haragi gixauak, era batera eta bestera saltsa txukunekin; arda gorri, galeper, usakume, pipar eta abar, uste hantxe zala antxiñako Paradisua. Eta atzo erosi eban aurrerako, sei libra-rañok itxas-aingiria, eta entzun netsan aintzen Katalin, bere neskamiari, gertau zeixala labarako pastel bat arraiñ haregaz.

Hontara, arin bazabiz, bazkari ederra harrapau zenkizue eguardirako heltzekotan hara. Ez eban sermoilarixak guzti hau esan belarri-gor biri; ba entzutziak bat, jaso zittuen abittu barrenak eta hasi ziran arinka herrirutz, Retoriarena, bazkari ederran asmuhan.

Katalin, Retorian neskamiak, ikusi-eziñ haundixa eban Fraillien aurka, honek ez ebelako ondo ikusten, Retoria emakumiagaz bizi izatia. Eta beti haren kezkiagaz, esan zetsan Retore jaunari:

–Bazkaldu deigun, jan-txakurren bat agertu baiño lehen.

Retoriak hainbeste bildur ez eukanetik, esan zetzan:

–Zer jan-txakur agertu laike hona egun honetan?

–Fraille alperren bat, gertau doran pastel ederran usain gozuak tiratuta.

–Hala bada, bazkaldu deigun Jaungoikuan izenian, eta kitto.

Eta aindu ziran mahaira, eta jartiaz bat, hor nun gure fraille bixak ate joka ataixan. Kataliñek beitu eban giltz zulotik eta ikusirik fraille bi zirana, itxuli zan ondoezik lurra jo biharrian:

–Zer da, itandu zetsan Retoriak hartara ikusirik neskamia.

–Izan leikianik txarrena. Fraille bi dagoz atian!

–Egixa esakeriana –Retoriak– bildur daben gaitzak hiltzen dau gizona!

–Ez ba, Jaungoikuan heriotziagaitik! Kataliñek eindako pastel ederretik ez dabe jango fraille horrek.

Eta gorde eban ezkutuan pastelan erretillua eta juan zan atia eregitzera.

Sartu ziran fraillioek egun onak emonaz eta Retoriak esan zetsen:

–Asko poztutzen nau, haiñ egoki bazkaitarako zuek heldutziak; baiña ez dot aukeran gauza haundirik mahairako, sardiña zahar batzuk izan ezik.

–Jauna –erantzun zetsan bixetatik ausarkixenak– zure borondate ona, janari on ugari guztien beste estimatzen dogu.

Berba honen hartu-emonan ondoren, jarri ziran danak mahaira eta neskamiak ekarri zituan sukaldetik, azpillakada sardiña bakoxtantzat. Bedinkatu eta hasi ziran hortzak lanian, eta honetan fraille ausarkixenak, apur bat janda gero, ebagi zetsan burua bere sardiña bati eta eruan eban belarrira, zegozer aittu bihar balezkixo bezela arraiñari, eta gero ekarririk aurrera, ein zetsan, guztiak aitzeko moduan, bere erantzuna, esanaz:

–Ez dot uste egixa izan leikianik zuk diñozuna!

Retoria eta Katalin mira einda zegozen Frailliak ziharduanakin. Eta beste apur bat jan, eta jarraixan, eifñ eban beste hainbeste, sardiña-burua eruanaz belarrira eta gero erantzunaz hari:

–Sardiña txaplatori! Ez dot sinisten diñozuna, ez ba Retoria zekenkerixa hori eitteko gizona!

Andrazkua nola dan beti dana jakin biharreko sorgiña, Kataliñek ein zetsan kiñu Retoriari, eskatu zeixon frailliari, azaltzia zer demonio erebixan arraiñakingo jardunian. Frailliak ez baleu gura bezela azaldu, harekin erebixana, ezetzian egon zan luzero, baiña azkenian, Retorian erregetara apaldurik, esan zetsan:

–Jauna, nik argituko dot sardiñiagaz erabili doran autua guztiro, baiña zuk ez ukatzekotan egixa izatera harek diñuana.

Retoriak aindu eban baietz juramentuz, eta Frailliak orduan esan eban honetara:

–Retore jauna: Nik itandu detzarana sardiñiari izan da, zein dan itsasuan arraiñik haundiña eta gizenena; eta erantzun destana da, uretatik kanpora denbora asko daroiala gatzetan, eta ahaztu jakola gauzia; baiña ezkutuan dozun itsas-aingiriak freskua danetik, ez ba egun bi uretatik atara dabela, jakin leikiala ondo gauzia.

Hau entzunaz hasi zan barre algaraz Retoria eta esan eban mahaixa ikubillakin apurtu biharrian:

–Bai demoniua! Egixa sardiñiak ziñuana! Eta aindu zetsan Kataliñi, eruan zeixazela aurretik sardiña zaharrok, eta ekarri zeixala itsas-aingiria, apainduta eukan bezela laban.

Eta honetara lortu eben fraillioek gura eben bazkari ederra.

Erantzun egokixa

Ez dakitt nungo erregiari, zein bere jatorrixakin harrua, esan zetsen behin, nola ebillen erbesteko gazte bat, guztiro bere antzerakua, bera beziñ hazixa eta adin bardinekua.

Erregiak hainbeste entzun ebanetik bat baiño gehixago gandik, gura izan eban erbesteko gaztiori ezagutzia. Eta berak agindurik, eruan eben erregian aurrera, eta ikusirik honek egixa zana esaten ebena itandu zetsan esanaz:

–Esairazu, gazte: ba aldakizu zure ama iñoiz izan zan alde honetan?

Eta gaztian, jarraiko erantzuna:

--Nere ama ez Jauna; baiña nere aitta bai sarri.

Bixak guzurretan

Ziran lagun haundixak ofiziutako auzo bi: bata eunlia eta bestia gizajostuna. Denboriak hasarratu ziran, eta lehengo aiskidetasuna bihurtu jakuen alkar ikusi eziñian.

Eta giza-jostuna zan beti gaizki esaten alde guztietan eunlian gaittik; eta eunlia, bere aldetik, beti ondo esan biharrian giza-jostunak kontura.

Ikusirik andrazko batek zer erebixen, itandu zetsan eunliari zergaitik hainbeste ondo esate giza-jostunak gaiñian, harek bestera ziharduan artian bere kontra.

Eta erantzun zetzan eunliak:

–Jardun deigun bixok guzurretan.

7.7.- Antonio Iturrioz (1900-1984)

Antonio Iturrioz Urizar, 1900eko martxoaren 3an Eibarren jaioa, Antonio Iturrioz alkatearen semea. Bere bizitza ez dugu larregi ezagutzen. Armeria Eskolan ikasi zuen, gero Moskura joan zen Zientzia Polikikoak ikastera, eta Gerra Zibilarekin batera, beste hainbat eibartarrek moduan, herritik joan behar izan zen, lehenengo Valentziara eta azkenik Mexikora.

Idazlan gutxi laga zituen, Pio Barojaren *Zalacain* eta *Las aventuras de Jaun de Alzate* liburuen itzulpenak, eta Eibarko euskaraz idatzitako testu labur batzuk, besterik ez. Azken horiek dira guretzat interesgarrienak, gure herriko hizkeran idatzita daudelako eta bere umetako gorabeherak kontatzen dituelako.

1958an, *Eibar* aldizkarian, ondorengo lerroetan aurkituko dugun kontakizuna argitaratu zuen, *Egazkiñak*, idazlea bera umea zela Durangora egindako osteraren gora-beherak kontatzen dituen lana. Ondoren, *Egan* aldizkarian beste lan bat ere argitaratu zuen, *Danetik pixkat. Aintziñako gogorapenak Eibarko euskeran*¹²¹.

Beste euskalki batzuen interferentzia gutxi batzuk igartzen zaizkion arren, Eibarko euskara ederra darabil Antonio Iturriozek. XX. mende hasierako euskara eta Eibarko bizimodua ezagutzeko testu aproposa da *Egazkiñak* hau.

Egazkiñak

Amaikatxo egazkin (*avion*) pasatzen jakuz odeiak ziar gaurko egunetan, gure aldetik begistada bat merezi izaten eztezkuela. Oso ederrak, indartsuak eta biskorrak izanda be, eztxiguru aintzakotzat artzen, ikustiaren ikustez oitxu gara-ta.

Baiña burdiñazko txorixok begixen aurrian, ditxudanian, beti etortzen jata burura, bizi naixen artian sekulako aztu ezingo dodan zeozertxo, emen azaltzera noiana.

Zuek, gau eguneko gaztiok, orrenbaten eingo dozue barretxo errukitsuren bat kontu-kontari natorkizuen gertaera kaxkar au dala-ta; bateronbatek esan be esan leike: «Ako agurian xaxaria, alako epelkerixak aomiñian ditxuala». Baña, dana dala, biotzeko kutu-

¹²¹ *Egan*, XXV (1966): 96-98

nian dakartena da ta nik bai uste zuetarikoen bat izan neikiala lagun, gertaera zar onen unak ausnartuz, ulerbera edo «konprensibua» izaten.

Ekin deixogun ba: 1910'garreneko garagarrilla, Sanjuan maitien illa. Sasoi onetara ezkerorlorik be ezin ein izaten genduan, eguneri ta gaueri bultzaka, Sanjuanak noiz etorriko.

¡Baña, ara! demoniua, or ikusten dogun arratsalde baten Orue'tarren inprentako Elias, eskillaratzua bizkarrian, papel-zorrua besapian eta itsaskai edo engrudo ontzixa beste eskuan zeroiazela. Betikua, autubazaille ta jakingose giñalarik granujok, jarraitxu gentzan ondorik inprenteruari. Kantoi egoki batera eldu zanian ipiñi eskillaria orma-kontra ta an ezarri eban zeozer, guretzat arritxutzekoa zana. Sekula alakorik...!

Egazkin edo abioi aundi bat zetorren, berakin ega eingo eban bibote izugarriak gorutz zuzen-zuzen zitxuan gizonakin. Egataldixa, Sanantoniuetan Durango'n izatekoa.

Ene, ba mutillak!, zer juau au...! Esaten, aobetian, mutil-koskorrok; ordurarteko egazkiñak ipoin-gauzatzat baño ezbageunkazen. Erriko kalertzetan ikusi zitxetekian mutil-pilluak gure bibotedunari aduradarixola begira. Arek bai gure amesak, gure eztabaidak, gure zalapartak.

Zoratu giñan danok. Ain zoratu eze, Sanjuanak eurak be aztu jakuzen. Zer zan a!!

Egunak jua ta egunak etorri, aundi ta txiki, geruago ta beruago giñoiazan Eibar'aldian, Durango'ko gertakizun galanta zala ta etzala⁵⁵. Ala-biarrez, bein edo bein, eldu zan ordua. Mutil-koskor pillo bat Durango'ra juateko erabagixa artuta genden. Oñez jua biar ta boltza ariñakin gaiñera. Ala be pozarren. Jakifia, etxekuan ixilixan.

Amak somau zoztan nere buruan nerebixana ta domeketako erriala emon biarrian semaiko bat emon. Abarketak nai nik jantzi, ta orduan, amak:

«Tira mutil! Tira mutil!: abarketak domeka artsalderdixan? Eztago abarketarik lluntzirarte».

Gero au dala ta bestia dala, euki ninduan etxian ordubixak jo ebeneño. Xemeikua boltzilluan, zapata estuak, eta ordubixak erlojuan zirala ikusiz, kendu jakon amari bildurra Durango'rutz artuko nebana: nik, amar urteko ume-gorri nintzan onek. Eta emoeztan kalerako baimena.

Ataixan nitxuan zain laguntxo aritxalarixok.

Abixau giñan Isasi'xan gora ta, Otelenerdikorutz giñanian, or dator Urkuzu'ko lando aundixa bost edo sei zaldi aurrian zitxuala. Urten danok bere ondorik aintxitxiketan eta Elgetakale'ko Miel Txotxolua ta neu eldu giñan lelen atzeko burpil bien erdiko ardatzian jartzera. Ipurmamiñak lokatzeko añakuak ziran ango burdiña-dardarak, baña gu, ezta konturatu be. Aurrera!

Aurrerakizun laburra, orraitxio: baiba, Baldaxar gurtzain edo kotxeruak igarri bezero eze-gokixak zeroiazela atzekaldian eta jaurti eban zartaillukada bat, jo ninduan arpegixan ta lurrera bueltaka bota ninduana. Latiokara ta lurrian artutako danbatekuaz kornot barik gelditxu nintzan. Artu lagunak besuetan eta eruan ninduen errekarra, bai ainbat bidar burua uretan sartiaz berialako bizkorren gorbiztu be ein nintzan.

– Zer egingo juau ba oin, Anton?– galde eiezten.

– Zer eingo dogun? Ori be esan? Durango'ra jua ta arioplanua ikusi.

Eta danen aurrian urten neban, begi bata kedarrria baño baltzago ta arpegixan alde bate-tik besterañoko zanbruaz.

Ernu'ra orduko, lagun aldria urritxuaz zoian, igeslarixeri esker. Aritxixo'ko aldapan gora, Ardantza'ko Txakur Karo billau ta galde ein gentzan:

– Txakur, mezedez, oindiokan urrin dago Durango?

– Durango? Ara, mutillak; begira aldapa gaiñari... Ikusten dozue? Ba pasau axe ta... fitx! Durango'n zaoze.

Ezin, ba, Txakur'ek sinistu alako ibillaldi garratza eitxeko lain giñanik. Orregaitxik bota eban bota ebana.

Jua da jua giñoiazela, bat emen, urrengua arutzago, asi giñan lagunak bide baztarrian lagatzen ta, Aritxixo gañera orduko, Miel ta neu gelditxu giñan bakarrik. Bixok eldu be, Durango'ra, Jaungoikuak dakixan orduren baten. Nik neroian semeikuagaz erosi Santa Maria elixaurrian laranja bat, erdixan bi ein, ta jan genduan. Kitxo gure diruok, Miel'ek lausikorik ezbazeroian.

Orretan, burdiña zarataz bai txinparta jarixoz, agertu jakun tranbia. Ene bada ta ba!; zer zan a! Ao-zabal gengozkixon begira, ezazi edo enano txikirrin bat etorri jakunian. Beriala lotu giñan berakin izketan:

- Zuek -esaezkun– probintzianuak zarie, ezta?
- Probintzianuak?
- Bai, nuntarrak, ba, bestelan?; eibartarrak edo.
- Eibartarrak probintziano izatera, bai, -erantzun gentzan.
- Eta zer, tranbixa ederri begira, e? Eibar'en ez baña bai Durango'n, tranbixak.... Ji! Ji! Ji!... Ta aldendu zan pozik, gizontxua.
- Ji! Ji!...? Buruaundi!! –deitxu gentzan.

Burua euki be, erregaldarian lazkotxia eukan.

Ein genduan andik egazkin-ipoiña zeuan alderutz. Benetako ipoiña, axe, bada erlamiño arek ez-eban ein Isasi'ko Oillalokiak ein zeikian baño egaztada aundixagorik. Ori berori zala-ta bertan bera su emon eta erre eben. Guk ezgenduan orretxen beste be ikusi, ara eldu giñanerako zalapartak eta jentien anka-jokuak baño ezbazebizen, txapel-okerrak an da emen ondorik zitxuela.

Ori ezkeru etxerutz artu biar, laster zetorren illuna-ta. Txede edo intentziñoz amak emon-dako zapata estuak zatitu eztezen anakak. Ezin, ba, eurekin bidian osteratu. Orrela, oñe-takuak eskuan, ortozik abixau izan nintzan. Ederra girua, antxen neukana.

Urriñegi izan jakun Durango'rañokoa ume-zorri bixori, ta bidia nola moztu arduratan, asi giñan nundik nora juan biar genduan bez galdezka. Zaldibar'erutz artzeko esaezkuen. Berriz'era barik. Zaldibar'ko tunela ziar ba'zan biderik laburrena. Ta bai guk ondu be, tipi-tapa trenbidetik ibillixaz, tunelaren aorañokua; baña, ara orduko gau illuna zalarik, bil-durtu giñan tunelian sartzen.

Basarritxar baten esana entzunaz, basotik, arizti batzuek ziar, jo genduan Jañagaña'ra. Jakizue sasoi artan Zaldibar'tik Jaña-gaña'rako bide-zabala burutasunian be ezeguala.

Baña, ariztixan galduta sortu giñanian, Miel ni baño be gaztiaua izanta (bedratzi urteko umetxua) emoetzan negarrari Ama Doloretakuak baño soillago. A ikusitxa, nik be negar. Axe bai guk geunkan erromerixia: gosiak eregitxa, anak zatitxuta, nekian nekez beia jota, basoko kerizak gabe baltzian sorgin-dantzetan, bildurrez ikaraka ta nora jo geinkian be ezjakinian.

Nik eztakitx zela, baña nundik edo andik atara genduan adoria ta bai aurrera ein be, Ermu gañera agertu arte. Andik, erdi-arrastaka ba'zan be, eldu giñan, gaberdirako, Eibar'era.

Nik entzun nitxuan entzuteko agirakak:

– Ikusten dok zer ein duan, tonto-lapiko? Juari barrero, arioplano ikusten, zapata estu ta guzti... Juango intzake?

Buru-makur, begixak lurrari jositxa esan neban ezetz. Baña ezan egixa, garbai izpirik biotzian somatzen ezpaneban. Tranbiak ezautu. Durango be bai, ta enanuakingo artu-emo-nak aintzakotzago nitxuan neke ta gañerako lor zitxal guztiak baño.

Etxatan, ez, garbatu...!

Antonio Iturrioz
Mexiko'n, 1958'garrengo Dagonillaren 19'an
(EIBAR aldizkaria, 18 zkia./ 1958ko urria)

7.8.- Juan San Martin (1922-2005)

Juan San Martin Eibarren jaio zen 1922ko ekainaren 23an, eta Eibarko herriko seme kutun izendatzeko egun gutxi falta zirela hil zen Hondarribian, 2005eko maiatzaren 30ean.

Juan San Martin tornulari hasi zen lanean egunez, eta gauez, berriz, eskolara joaten zen. Gazte-gaztetatik irakurketa-zaletasuna bizi-bizirik izan zuen eta horrek eman zion autodidakta oinarriaren heziketa. Euskaraz alfabetatzeari ere, bere kasa ekin zion.

Biografia oparoko eibartarra, euskaltzain oso 1964ko abenduaren 18tik, eta makina bat lan burutu eta hainbat kargu izan zituen erakundean. Euskal Autonomia Erkidegoko lehen Ararteko –1989. urtean izendatua–; Ombudsman Europear Institutuko buru izan zen 1994tik 1995era bitartean. Liburu-egile, itzultzaile, poeta, mendizale, arte ederretan aditu, edizio-paratzaile...

Behargin porrokatua, Juan San Martin, «*Juanito*», Euskal Herriak ezagutu duen kultura-eragile eta euskara-bidegilerik finenetakoa izan da. Bere lanen zerrenda amai-gabea da. Hamaika liburu eta artikulu idatzi zituen, beste horrenbeste gairen inguruan, botanika, mendia, artea, euskara, historia, etnografia...

Euskeraz idatzi zituen guztien artetik bitan eibartarren eta plazentziarren arteko adar-jotzeak bildu zituen: *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965). Liburu ederrak, gozagarriak. Lehenengotik atera ditugu hurrengo ipuinak.

Zein baiño zein txartuago

Gerra ondorioan, Eibarko atso zahartxo bat, burutik eitten ebala-ta, eruan eben Santa Agedako zoro-etxera. Sartu orduko tope eñ ei eban beste eibartar bikin eta antziñako ezagunak ziranez, alkar agurtu ondoren, esan ei zetsen, sartu barrixak:

–Da, ondo zaoze hemen?

–Ondo bagendenazen ez giñonazen hemen egongo. Hemen ondo, erlojua bakarrik dagon.

Bigarrenak barriz:

–Hemengo gauzok ondotox jakitzera helduko haiz, da kontagun kontau Eibarko barri.

–Ene! Eibarren etxerik pe ezton geldittu zutiñik. Barrenkalia be lautu jone!

Egixak izan arren, beste bixak eziñ holakorik siñistu. Ta diñotse alkarri:

–Hau, gu baiño askoz be txartuago jakarrene.

Murgil luzia

Azkenengo gerratian, tekniko aleman bat ebillen Plaentxia'ko kañoifabrikian, Alemania'rako eitxen ziran biharren direttore. Plaentxitarrak diñuenez, harro txamarra ei zan. Bere ustez, ez ei zan bera lakorik.

Plaentxiatarrek, haizpietan peskan eitxen zaliak dira ta zer esanik pe ez, murgilari onak dirana. Behin, alemaniarra, ba ei hebilen panpana joten, Plaentxia'n ez euala bera lango murgillaririk esaten. Berbatu da plaentxiatar batekin da ein dabe posturia norek murgil luziagua ein. Domeka goizeko bedratzietarako zitau ziran presapian. Alemaniara zintzo juan zan bere ordurako, baña plaentxiatarra ez zan azaldu beste ordu erdi batian. Ta, hara nun agertu zan bizkarrian morrala ta eskuetan arda botia zeroiala.

Alemaniarrek mendira edo ete zoian itxuria hartu bihar izan zetsan, ta harriturik esan zetsan:

-Hi, baña, murgilla eitxekotan gelditxu giñuan da hi, morrala ta botia eitxuala hator?

-Ni bai, ni egun guztirako najoiak.

Hori entzun ebanian, bildurtu ei zan alemaniarra ta arrio ein ei-heban.

Handik aurrera ez ei heban erabilli panparreriarik.

“Berori”

Abade jaunak deitu zetsan dotriñan hebillen ume baten gurasuari ta esan zetsan:

-Hi, Paulo, hire semiari berbetarako edukaziño pixkat emon bihar detsak; ze, hikan tratatzen najok eta. Ba-dakik hori eztana itxura bestien aurrerako be.

-Lelo madarikatua. Horrenbeste jakin bihar heban ba. Hikan tratau abade jaunari? Ederki horixe. En fiñ, lotsagabe txamarra be bada-ta; baña, neuk erakutsiko detsat hari, gizonak da batez be abade jaunak nola tratau bihar diran. Txakurto halakua.

Etxera juañ zan Paulo eta semiari esaten detsa:

-Hi, baña, ik eztakik abade jaunari “berori” deitu bihar jakona ala?

-Izena aldatu detse ala?

-Ez!, ze izena aldatu ta ze otxo-kuarto. Izena aldatu detselako ez; abadieri errezpeturako beti holaxen deitu bihar jakuelako.

Ondoren emon zetsan milla esplikaziño, berorika zelan ein bihar zan konprendidu eian.

Hurrengo egunian juañ zan dotriñara ta soltau zetsazen, abadiari, “berorikada” batzuek. Abadia poztu zan gurasuak bere esana aintzakotzat hartu ebala ta mutillan edukaziñua leunduko zala pentsaurik. Hala be, berekautan pentsatzen heban zuka eingo balezkio be nahikua litzakiala. Ta modu onian preguntau zetsan:

-Norek esan deuk “berori” ein bihar jatala?

-Ba, aitak esan jestak hiri “berori” esateko.

Gaur egungo hiztunen lekukotza

*Bai, gerra ostian. Gerran! Gerria pasau zanian,
ba, ez eben lagatzen euskeraz eitten eta
orduan, ba, danak erderaz. Orduan, ba, txarto
edo ondo, ba, erderaz ein bihar! Iñork ez eban
eitten ixa erderaz!*

Dolores Berasaluze

8 – GAUR EGUNGO HIZTUNEN LEKUKOTZA



JOSE ETXEBERRIA “KERIDO”
Kaletarra, 1912

Umetan mendixa zan euren jolas lekua

– Gure jolas tokixa zan Salbador! Goizian urten Salbadorrera, arbola gaiñian txabolia ein! Bai, ba! Bakotxak bere txabolak eukitzen genduzen. Goizian juaten giñan ta orduan ez zeguan piñadirik, zian pagadixak edo gaztañadixak. Bueno, juaten giñan hara. Erlojurik ez genkagun ta ez genduan ikasi euzkixakin be ibiltzen! Baiña Eibarren hamabixetan drauna jotzen zan. Drauna zan kanpai haundi bat. “Boum!... Boum!...”. Ta “boum!” entzuten gendunian hasten giñan goittik behera mendixan aintxixiketan. Bidetik ez, e? Martxia hartzen genduanian ezin geratu ta “bau!” eskua ipiñi arbolan ta geratzen giñan. Hurrengo beste arbolan, ta drauna jo orduko ya Txontan gegozen. Aittak urten, Beistegiñetik etxera etortzen ta gu Salbadorretik, mahaira batera etortzen giñan. Bazkaldu, igari ein lehenengo Txontan ta atzera Salbadorrera. Bidian sagarrak ohostu, keixa sasoian keixak ohostu... nahi tta jan ez. Sagarrak... ohostu. Intxaurrik ez zeskuen lagatzen ohosten, intxaurra saldu eitten eben, baiña gaztañia nahi genduana, e? Poltsakada gaztañia. Ta perretxikua eguan edozein lekutan orduan, hongua ta, sasoian, ezta? Etxera eruan gaztaiñak ta ama pozik, perretxikuak eruan ta hasarre. Zegaittik pensatzen dozue zala? Gaztañak ura ta gatza bakarrik bihar dabe ta perretxikuak olixua.

(...)

– Ta kuadrilla haundixa ibiltzen ziñazien?

– Bueno, orduan, ba, 12-14 lagun ta ibiltzen giñan urte biren barruan, eztakizu? Urte bete edo gaztiaguak, igual gaztiaguak... Txontan, porrejenplo, grupua haundixagua zan baiña edadian, sasoian alde haundixagua, zegaittik eze, zelan lagun gitxi zian, jente gitxi zan, ba... Gu gehituago. Ta, pentseizu, frailliak etorri arte —hau morduak ez daki— zelan Bidebarrixetakuak juaten giñan kuarteleko eskolara, Jardiñekuak-eta beste eskola bate-ra, hamenguak Frontoi Zaharrera, bestiak... Ez giñan nahastatzen! Bidebarrixetakuak Bidebarrixetakekin ibiltzen giñan, Isasikuak Isasikuekin ta Estaziño kalekuak... Kale bakotxak bere espezialidadia ekan: gu Txontakuok-eta matadero ta Barakaldokuak peskan giñan gogorak, zegaittik eze, horrek ez zian juaten Maltzara ta gu Maltzan, behealdekuok, eitten genduan loiñatan, loiñak hartzen. Estaziño kalekuak artistak zian estaziñoko bagoietan, abillena [rapeatzen?]. Honek plaza inguruok, M^a Angela-ta, plazan. Inteligentienak. Guk, porejenplo, nik ekin netzan dantzan hamazortzi urtekin edo, baiña Untzagakuak? Asko lehenau! Zegaittik? Musikia hor zeken ta! Gu haraiño jua bihar giñan ta gu, ba, ez giñan etortzen. Ta pikardixia be bai. Orduan zelan eguazen andraetxiak bi, Korrida Plaza aldamenian, Isasikuak eta honek Untzagakuok eta Frontoi Zaharrekuak eta ha ikusten eben han mobimentua ta harek baekixen ze zan, ta guk ez! Baiña prailiak etorri zianian, Isasira, orduan, Bidebarrixetako mutil batzuk, Barakaldoko batzuek, kale bakotxetikan jua giñan Isasiko fraillietara ta orduan hasi zan nahastia. Ta neri lehelengo-lehelengo, nik badakit zeñiek esplikau estan. Foallera zeretik, Korrida Plaza gaiñian eguan leku bat foallerako... Ta urten fraillietatik ta Korrida Plaza gaiñera foallera ta zeretik juaten giñan, frontoian ostetik, Onaindianeko ha kalia zan, ta etxien parian pasau bihar giñan ta atenziñua, eztakizu? *“Ene! Horrek neskok ze dittuk?”* Ta Isasiko mutil batek esplikau estan ze dian harek. Harek guk baiño lehenau ekixen horrek.



PEDRO ARRIZABALAGA "ZOZUA" Kaletarra, 1906

Ehiza kontuak

–Neri aittak —ez jakixat, ba, nik— dozena bat urterako eingo estan behintzat eskopetia, hau hamabi milimetrokuau, txikixa bere denporan. Ta orduan ezebe, ezebe ez jeuan kontrolik kazarako. Ni Mendaron egoten nitzuan basarrixan, nere aman etxera juanda. Eruan eskopetia, keixapia [ya], geuzarik grabiena horixe da, keixian daguan umiekin ta zozuak darella ta zozokumak be igual ta... *"Tapa! Tapa! Tapa!"* Ze eitten nebanik be ez! Hil ta sei edo zortzi-hamar hil ta tiari *"Aiba! Ipiñi horrek!"* Lumatu ta ipintzen jittuan harek! Ta harek be *"como si no"*, holaxen dalakuan. Dakan inportanziakin, keixapian, umiekin ta arrautzekin txorixak eta! Orduan ezebe ez jeuan. Halaxe ekin najetsan. Gero... gero ez. *"¡A respetar todas las cosas!"* Beste edozeiñen moduan.

(...)

Kazarixa izateko pixkat responsabilia izan bihar dok eta gastua be ein ein bihar dok, zegaittik eze, eskopetak be karuak daguaz ta, eskopetak karuak, ta gero muniziñua be ez dao merkia ta gero hamen ez dok eingo kazerixa haundirik baiña Burgosera edo... jolin!... juan ta gastua! Beti gastua eitten!

– Gaztetan Eibarren nun ibiltzen ziñazien kazan?

– Hamen Eguarbitzatik, Elgetatik ixa Anboto barreneraiñok, horrek danok ta gero Kalamua aldera ta hau, zerok be... *"lo mismo"*. Oizera be bai. Oizen hilda nago ni... hasieria dok, e! Dominu santuak edo esaten dok, *"el treinta de Octubre"*edo *"treinta y uno"* edo... pasia eguan, *"pase de palomas"*, ta Trabakuan-ta mordua kazarixak pasian. Ta, ni erbittalarixekin juan nitzuan basarri batera lo eittera Oizko mendira. Ta txakurrakin ni oillagorretara. Oillagorretara edo... *"lo que sea!"*. Kustiñua dok eze, egun hartan, Dominu

Santuetan, bost oillagor hil najittuan nik, egun baten. Piñadi bat hor ta beste bat hamen ta hamen bittartian-bittartian garo sailla. *"Trin, trin, trin, trin, trin..."* Hor garotzan ta ni hamen bidian behetikan ta txakurra hor zihar garotzan ta *"krak!"* isilduta garotzan. Akabo! *"Zer da hor?" Zer dagok?"* Ta berbetan txakurrari ta... *"Bat! Zer? Zer daok?"* eta zertzen najuan pixkat, aztoratzen najuan ta garotzan *"pro, pro, pro, pro, pro!"*... *"Danba!"* Ta behera, oillagorra. Garotzan, e? Holakotxe zera... Gabian etorri barrixak... pasia ta pasia ta behian, hamen herri bat daok behian, Munittibar edo, ha aldian. Hónek AYA, Agirre-Aranzabaleko hórrek kazarixok ta bertan Trabaku ondoko basarri bateko bat, alkarrekin, oillagorretan begira han. Ez ei juen topatzen ta *"Ta! Ta!"* Nere tiruak han goi-goi-xan. Sei! *"Ta! Ta!"* Oillagor bateri ein najetsazen sei tiro! Ez, bi, lau... bosgarrenian hil, bosgarrena. Baiña oillagor bat... Txakurra espabillaua zuan, txakurra arrastuan hamen... *"Pra, pra, pra!"* jaikitzen zuan. Aiba dios! Hantxe gora doiala *"Ta! Ta!"* eitten gentsen ta aurre-ra! Barriro beste leku baten be bai ta *"hor joiak jaikitta barriro be!"* ta tiro txarrak e, *"a la deriva"*. Bestiak ez, bestiak tiruak tiro ein najittuazen. Holaxen, bi tiro biko ein netse-zenian, etorri jatan hori Trabaku ondoko basarrikuori: *"Zeri diharduzu?"* ta, *"Zeri dihardu-ten? Oillagorri! Oin be bi tiro biko einda hamen daok ta honek hildakuak"*, bi edo hilda najekazen. *"Mekauen! Hor, sinistu ezinda gare"*. Behian ebillen AYAKo ugezabakin, [...kin], AYAKuekin ta *"Oillagor bat ez dago hor behian!"* (...) Ta esan najetsan: *"Bueno, bi tiro heuk ein ta horraxe direziñua ein dau ta guazen!"* Juan giñuazen ta... *"raa!"* ta han ikus-ten juat nere txakurra *"da!"* parauta, kieto. Kanpora begira eguan, piñudixan amaieran zuan, gero kanpora libria eguan. Baiña haraxe begira eguan ta harek kanpora urten bihar jua ta, bueno. *"Ikusten dozu ala?" "Bai!" "Joño! Juan ba!"* Juan nitzuan ta bera begira neri atzetikan ta *"bra, bra, bra!"* urten jua zuzen-zuzen. *"Dale!"* ta bota najuan. *"Joño! Ikusi ez baneu ez neban sinistuko!"*, esan estan. Apartau zuan ha, goittik behera edo hara gora edo nunbaiterra ta ze ein najuan, ta, ni sartu ezindako moduko piñudi bat eguan zerra-tua ta sasixa ta geuzta asko ekazena ta goittikan bidia ekan, geñetikan librian. Ni handik eta txakurra han sartuta *"drnn, drnn"* ta *"trin, trin, trin, trin, trin..."* azkenian nere ondo-raiñok etorri zuan txakurra. *"Nun hao?"* Ta, geldi! Ta, *"zetan hao?"* ta, berba eitten najetsan nik, holaxen, harrikada batera. *"Kauen diez! Oillagorrikin daok, ba!"* ta *"Ia! Ia Bat!"* ta haixau najuan pixkat eta *"pra, pra, pra, pra, pra!"* sentidu najuan hego-hotsori, nere buru geiñetik zihar *"rrraaa!"*. *"Danba!"* ta *"brrrrrrr..."* Eguan erreka-zulo billurgarri bat, holan goittik *"brnnnn..."* mendi falda bixen zulua, haundixa ta pago zahar haundixa jo-ta... haraxe behia jota! Ha urtietan edo egongo zuan igual! Baiña, pago demasa ta dana, erreka-zulo guztia, oillagorra jausi zan lekua, dana jo-ta tapauta berak! *"Eneee! Hor ezin neike nik sartu behintzat! Pentsau bez!"* Ta txakurrari esaten detsat: *"Hortxe, bai, hortxe"*. Ta adar gaiñetatik eta *"di-da! di-da!"* juaten zuan, paguan adar gaiñetatik ta... Sentiru ez jok ba ein, usaiña? Igarri najetsan, *"Sentiru dok ba, e?" "Trak, trak, trak..."* Beste arbola batera bajatu ta *"tak!"* handik beste batera ta, zulua, gero ta behera ta... Sartu

zuan sakoneraiñok eta hor urtetzen jok oillagorrakin! Ha zuan meritua! Nik hari emon netsan meritua! Etorri jatan ta... *"Kauen diez! Hau...!"* Bai. Halaxen, bost oillagorregaz bazkaldu ta banagok eta hau, famosua zuan kazan, izena ezin jatak akordau..., ha ohi-ttuta eguan hara basarria juaten kazara, berak urtetzen ebanian. Ezaunak najittuan ta *"ra!"* etorri zuan guk bazkaldu ta gero. Sukaldian han eguazen eseitta oillagorrok ta, *"Ta, Zozua, oillagorrak nun daguaz ba?"* ta, *"Oillagorrak nun daren? Begiratik hara gora!"* ta *"Ene ba! Heuk hil dittuk horrek?"* ta *"Ez, heuk!"* .

– Kazarik zaillena oillagorretan ibiltzia izango da, ezta?

– Bai, bai. Ibilli asko ein bihar dok ta txakurra bihar dok, txakurra bihar dok ona. Txakurra? Txakurrak euki jittuat nik... Hiltzen dabenak erakutsi be ein eitten jetsak, hiltzen dabena, ta nik hil be eitten najetsezen *"taka, taka, taka.."* bai batari ta bai bestiari, hiru edo lau txakur euki jittuat eta. Ta, joder! Holaxen, txokauta geratu zuan ta... Hamen fabrikante bat zuan, geure etxian onduan taillarra ekan... Ha paselekuan eguan, nik esan dotenori, kazarixa zuan bera, oillagorretalarixa geiñera, baiña pasian eguan Trabakuan ta hori esan doten hori, gurekin egon zan hori, jua jakuan hari ta: *"Fulano,"* ta *"Zer?"* ta *"gaur be oillagorrak ikusi doguz ba txortia"* ta *"ze, oillagorrak?"* *"bai, Zozuak hil jittuk. Bost!"* *"E? Bost? Ez juat sinisten!"* *"Ez dozula sinisten? Laste etorriko dia hamen zihar, hamendik pasau bihar dabe"*, hortxe geiñeko bidetik pasau bihar genduan ta. Efitibamente, bagenden ta horrek deittu ein estan: *"Zozua!"* *"Zer?"* *"Etorri hari hona!"*, deittu estan ta jua nitzuan ta... *"Aber, hamen daok sinisten ez dabena ta erakutsizuaz horri!"* *"Aiba!"* Erakutsi netsezen ta *"Ene demoniuak!"*, sinistu ezinda geratu zuan ha, *"Bost oillagor gaur? Hamen usuak pasatzen ta!?"* *"Bai baiña, hor, hortxe! Hantxe geratu-takuak goixan!"* *"Mekauen diez!"* Holaxen.

(...)

Oillagorretan txakurra bihar dok. Txakurra! Txakurra ona! Gero, tiratu be... jakin ein bihar dok, e! Hutsak eitten badittuk akabo! Zenbaittek topatzen jittuk ta gero hil ezinda ibiltzen dittuk! Txakurra parau ta *"bra!"* bertara urtetzen dabena...



ARNALDO BOLUNBURU

Kaletarra, 1933

Taberna girua gerra ostian

Girua esan dozu? Edarra! Danak kantuan! Hor, zerian... Badetenian... "La escala" deitzen getsagun. Badetanekeo taberniari? "La escala de Milán". Han illuntzietan ta zapatueta ta... grupuak, ondo kantatzen ebenak, ta gaizki kantatzen gendunak be bai. Aitzen dozu? Pixkat zertu, txikito mordo bat eran ta jo-ta oillarren moduan gero danok han! Baiña ondo kantatzen ebenak gehixenak hara azaltzen zian, Badetenera, ta han kantau ta... Beste zer batzuetan be bai, e? Beste taberna batzuetan be bai. Bueno...! Eibarren? Eibarren hori zan... bueno...! Ta gero, ba, giro ona. Gauza bat eguan geiñera ona, bai direktoria, bai ugezaba, bai enkargaua edo bihargiña... txikiteuan alkarrekin danak. Ez zeguan zerik... Ni jefia nitzanian GAC-n, ba, katia, porejenplo, "cadena de montaje", orduan lehelengua Eibarren ipiñi zana, GAC-ak ipiñi eban, ta nere egunian danak inbitatzen nittuan kafia hartzera zerera, Agiñazpiñera. Baiña euren eguna [...] be, ixa egunero kafia hartzen Agiñaspiñian! Bueno, ni egunero juaten nitzan, porke nere kontura be, ba, gustatzen jatan... Neri bakarrik ez, Eibar guztiari! Ba, bazkalostian, "da!" taillarreruzkuan, kafiori ta zigarro-puruakin, fariasakin taillarrera! Joe...! Pufa...! Baiña gero biharrera, e! Ez gero jokuan eittera, e! Taillarrera juaten zanian, biharrera! Bai. Horrek, horrek danok. Bueno! Ta hori sarritan komentau da, ta eskribidu be bai iñok iñoix, Eibarren horixe egoten dala, sekula ez dala distinziofiorik egon bai ugezaba, jefia, enkargaua, bihargiña, akabatzaillia edo ingeñierua... danak nahastauta! Alkatia be igual! Alkatia be txikiteuan zerekin, "con el populacho"!

Esteban Orbea ta... gero, hau, Javier Eguren ta... txikiteuan, kuadrilliakin! Egon dia pixkat zerauak, baiña honek, Egia, Esteban Orbea, hau zerau... Juanito Egia, Antxon Iraolagoitia ta horrek kuadrilliakin ta... Ta hori izaten zan, kanpoko jentandako-ta, "Joño!" atenziñua deitzen eben. Ta ugezabak eta... Neri ugezabak, bueno! Noraki zenbat denporan, nausixak, jerentiak, "director gerente", Paco Anitua zan, eguardixetan urtetzeruzkuan zain egoten zan, nerekin etortzen zan barriketan. Bera hamen bizi zan Zuloagasen ta ni Dos de Mayuan... Alkarrekin berbetan. Iñoix esan be bai batzuek: "Pelota!" ta holan, pixkat broman. Bai, nerekin... sarri etortzen jatan mahaira be bai, ta komentariuak ta bestia ta. Horixe da gauza ederra! E? Zera eukitzia... hori amestadori.



LUZIANA LARREATEGI

Kaletarra, 1912

Perretxikotara

Gure aitta juaten zan manzanillatara, perretxikutara, karakoletara, intxaurretara... ta ni juaten nitzan gaztaiñatara, gaztaiña sasoian. Eskolara ez juatiarren baiña, e! Hasten giñan... San Juan egunian hasten giñan: urritxak ta urdiñak. Bueno, lehelengo urritxak hasten zian, San Juan urritxak, San Juan urritxak lehelengo. Gero, urritxak, urritxak esaten jakona, ta urdiñak, perretxiko batzuk. Honguak setienbrian baiña setienbrerarte urritxak eta urdiñak ta saltsa-perretxikuak ta *"lenguas de vaca"*. Ekartzen genduan, baiña, baiña... geuk nahi genduan beste ekartzen genduan! Juan ein bihar zala... urrin juaten giñan, ezta? Kotxiakin norabaitt juan ein bihar ta, eguna pasauaz, eruaten genduan bazkarixa ta, eguna pasauaz, batzen genduan.

Aittak perretxikuak ekartzen zittuan, kantidadia! Kantidadia, e! Amak bildurra eukitzen eban eitteko, prejitzeko edo zera eitteko, olixo asko gastatzen dala ta... *"En aquellos tiempos"* geiñera... bueno! Olixuak, litruak, zenbat balioko eban, ba? Hamaika txakur haundi. Hamaika txakur haundi edo... Hamaika txakur haundi: pezetia ta hamar zentimo edo... Hamaika txakur haundi. Ta olixo asko txupatzen dabela ta bera ez doiala gastatzera olixua perretxikuekin. Perretxikuak duakuak ba! Duakuak bai, baiña... Amak esaten eban harutz juateko perretxikutara, Elgoibarrera, ta oiñaz, goizeko hiruretan-ta urtenda, oiñaz, *"taparra, taparra"*, egunsentirako pagadixan egoteko. Abarketekin, aste guztian taillarrera eruaten abarketekin. Aitzen dozue? Ta bueltarako barrixak, estreñiatzeko, ta harek apurtu, klaro, ensegida, espartuzkuak eta ahua zabalik ta... Harek bota ta estreñiatzeko dakazanak jantzi ta *"taparra, taparra"*, etorritta. *"Horrek abarketok nik pagau ein bihar izaten jittunat"*, amak esaten eban.

Ta gero aittak eitten eban, ba, kuadrillara eruan. Bueno, lehenengo, medikuandako. Apartatzen zittuan onenak, dozena bi edo, dozena t'erdi edo dozena bi, porai. Lehen zan medikua, kabezerakua, ezta? Lehen ez zeguan gaurko moduan anbulatorixorik ta medikua bihar bazenduan etxian, ba, abixau medikuari ta etortzen zan etxera medikua. Ta

horri esaten jakon *“médico de cabecera”*. Haretxendako ipintzen zittuan onenak e! Ai! Baiña... hermosura bat...! Fuente baten amak ipintzen ta, ontzixak sikatzeko trapua lehen izaten zan metrokua. Tapau ta ni izaten nitzan medikuana [...] Medikuak aprezia-tzen eban ha fuentekada perretxikua! Nik pentsatzen dot gustorago ez ebal hartuko haxe erregalua baiño. Ta emoten zestan errial biko moneda zidarrezkua neri eruatiarren. Ta ni be pozik! Ta bera be pozik! Ta fuentia emoten zestan hutsik eta errial biko txixixa zidarrezkuakin, etxera! Gero, gelditzen zianak lagunartera, kuadrillara. Ardantzan eguan lehen, paso nibelian, guarda bat ta harek ekan ortutxo bat txabola batekin, Ardantzan. Haraxe txabolara eruaten zittuen. Bertan prejidu, honguak zianian danak xehe, xehe, xehe einda ta kipulak eruaten zittuen ta eitten eben ta gure aittak, ba, duan eukitzen eban han afaltzia, eruaten ebalako perretxikuak. Beste batek kipulak eruango [...], beste batek olixua, bestiak terrenua ipini ta gero gelditzen zianak, ba, ardaua, etarutzen ebena, pagatzeko. Ba! Halaxen izaten zan lehen.

Ta juaten giñanian Izarraitzera manzanillatara be goizeko hiruretan urtetzen genduan, e! Aitta, ama ta alaba bixok. Goizeko hiruretan! Txokolatia ta ogixa hartu ta Elgoibarrera goiazela kamiñuan jateko, bidian jaten txokolatia ta ogixa, *“taparra, taparra”* Elgoibarrera. Gero, Elgoibartik Madarixaraiñok jua ein bihar da e! Beste tretxo bat. Gaur igual honutzago etorritta egongo da, etxiak edo igual eingo zittuen ta! Oin Elgoibarrekin bat einda igual egongo da! Eruaten eban gure amak orduan bazkaltzeko bakillaua preji-duta edo bakillaua xehe, xehe, xehe ein ta tortillia einda ta gero okelia, tajadak e! Txuletara ez zan ailleatzen, tajadak e! Ta teillia! Ein sua, mendixan, ezta? Ein sua ta tei-llia ipini han ta teilla gaiñian erreta okelia jaten genduan. Bakillaua batzuetan tajadak, ezta? Arraiña prejitzen dan moduan, tajadak, ta beste batzuetan, xehe, xehe, xehe ein ta tortillia einda, zein da patatia ustez dala, bakillauakin eindakua. Gozuagua izaten zan ha! Goizeko hiruretan txokolatia ta ogixa jan lehelengo.

Sanjuanak

Neri akordatzen jatan... zapatak! Orfeoian kantau bihar San Juan bizperan ta zapatak gus-tatzen neri, *“seis cincuenta”*. Zapatak, e! *“Seis cincuenta”*. Zapata batzuk polittaguak...! Eskaparatian. Ta amak: *“Hi, zapatak noiz erosi bihar dittun?”* *“A! Neri gustatzen jataz holako lekuan dagozenak, hau preziau dake ta haretzek gustatzen jataz!”*. Ta, *“Ez, ez, ez, ez... Pentsau be ez! Tres cincuenta-kuak dagonaz Maria zapaterianian ta haretzek dittun hireta-ko modukuak”* ta *“A! Ba neri haretzek, seis cincuenta balio dabe, bai? Ta harek ez badozu nahi erosterik nik ez dot nahi zapatarik, nik ez dot ez dot erosiko zapatarik!”*. *“Ba horrek karuak dittun ta ez dao erosterik! Tres cincuenta Maria zapaterianian, apartau!”*, *“Ez noia ni*

Maria zapaterianera ze neri ez jataz gustatzen ta!" Ta San Juan bizperia aillegau ta zapatak erosi barik oindiokan. Orfeoian ensaiua atsaldeko seiretan, San Juan bizperan, gabian kantatzeko ta zapatarik ez etxian probatzeko. Ta, bai? *"Ba ez non juango neu be..."* Hartuta amorrua amari, e? *"Ez ba, harek zapatak ez badestazuez erosten, ez jittuat ba beste pare bat erosiko!"* Ta, seiretan ensaiora ta zapatarik ez! Erosi barik oindiokan ta San Juan bizperia ta atsaldeko seirak! Ensaiotik jua etxera afaltzera ta gero aittakin enbolaura juateko, aittakin ta amakin. Ensaiotik jua etxera ta *"Ene!"* Zapatak etxian! Ta neuk nahi nittuanak! Ha zuan poza...! Ha zuan poza...! Numerua ta dana jakiñian ama! Neuk nahi nittuan zapatak! *"Behin edo behin... Nere gustua ein dabenian behin edo behin..."* Gero, San Juan egunian, ba, soiñoko barrixa ta zapata barrixekin! *"Oo!"* (...) Akordauta be... *"Seis cincuenta"*-ko zapatak, karuenak orduan! Ta dantzara eurekin! Dantzara eurekin! Hankako miñik be ez... Zapatak be miñik be ez... Ta ezebez orduan sasoian! Horregaittik esaten jonat, ba, nik: *"¡Quién te ha visto y quién te ve! Luziana, ¡quién te ha visto y quién te ve!"*. Sueltuak eitten genduzenian dantzan...! Frontoian, e!

Karamelerua

Domeka guzti-guztietan etortzen zan, kalerik kale. Ardantzara etortzen zan ta kantau eitten eban. Ha kantua entzutzen genduanian, bueno! Gure aintxixiketia pirulixori erostera! Ta papelakin batuta egoten zan pirulixa ta han papelan barruan begiratu ein bihar zenduan premixua daguan, ta premixua zan *"uno"* bat urtetzia haintxe papelan barruan. Ta ha *"unua"* bazekan harek papelak, beste bat emoten zetsun duan, baiña *"bi"*-rik eta sekula bez, e! Ta *"bat"* be... *"de pascuas San Juan"* ta kantau eitten eban harek ta kantatze eban: *"A perra chica el pirulé, de piña, plátano, menta, limón y alé, de la Habana el pirulé, a quién se le olvida, a quién se le olvida el pirulí, que quita el catarro y mata la lombriz, el piruliiiiii"* Eitten eban orrua bat azkenian ta gero *"¡Allá voy!"* esaten eban. Ta domeka guztietan zelan juaten giñan, ba, ikasi ein genduan kantua be guk! Ta karameluak be Untzagan saltzen zittuen, karameleruak, karro batekin, ta *"caramelos de malva-bisco, caramelos de menta, caramelos de fruta, chupetes"*... *"chupetes"* zian luziak, ta juaten giñan lehelengo orduan hara be, bagenkagun txikita bat, txupetia erostera. Ta *"chupetes"* zian, holan, kanelen forman, baiña karamelua. Kanelen forman, ezta? Holan, luzekiña, baiña karamelua. Ta han egoten giñan begira lodixenak zein huekotan dagozen, lodixena hartzeko. Prezio igualian, lodixena... Holan ibiltzen giñan, aztarka, lodixauak urtetzen daben azpittik. Ta *"¡Que no se puede revolver tanto!"* esaten zeskuen karameleruak. Danak kastillanauak karameleruak, e! *"¡Que no se puede revolver tanto!"* ta hori esaten ebanian, ba, egon holan pixkatzen begira ta ba! Begixa zeñiek betetzen daben haxe hartu ta listo.



EUXEBI GISASOLA **Zumaran (Agiñaga), 1922**

Eskola kontuak

Ba, Agiñagan ez zan egon eskolarik nik zortzi urte nittuen arte ta zortzi urtekin ein zan eskola bat. Bialdu eben hamengo seme batek Ameriketatik dirua. Ta ein zoskuen eskolia. Hasi giñan... ni hasi nitzan zortzi urtekin eskolara ta hortxe ikasi neban, ba, hamalau urte arte, ba, ikesi genduen.

(...)

Zertu zan, urrixan hogeita bederatzixan inaugurau zan. Ba... nik zortzi urte neukazen... oin hirurogeita hamabi urte. Eta, bueno, hantxe segidu genduan. Ta bueno, ba, zeoze ikasi genduan. Oso maistra jatorra etorri jakun, zeretik, Tolosatik, Purificación Iturrioz. Ointxe be... Ta bueno, oso maistra jatorra ta ikesi genduen. Defenditzeko beste ikesi genduen behintzet. Ikesi genduzen lau zerak, lau reglak edo lau operaziyuak eta pixkat gehixago be bai eta oin nahi tta ahaztu, ba, orduan... Irakortzen ta, hori bai. Irakortzen laste hasi giñan, ensegida hasi giñen irakorten ikesten. Eske orduan izeten zan etxian, katona. Abeza lehenengo, gero katona, ezta? Oin horrek ipoiñak dia, baiña... Ta etxien, gurien ama zanak eta, ba, abeza lehenengo. Abeza, ba, txikixagua izaten zan ta katona gehixago... Ta horrek etxien ikesitta jun giñen, e! Garbi esanda. Bai, bai, bai. Horrek etxien ikesitta, e! Bai, bai, bai. Klaro, eske oin bi urtekin ta hiru urtekin ta hari ezin leikezue... Baiña orduan, ba, nik, pentseizu, zortzi urte ta ya zortzi urtera ezker... Bai, irakorten dana ez, baiña bueno, pixkat ikesitta jun giñan ta gero, ba, errezago sartu giñan. Eta gero, ba, erderarik ez guk! Erderarik bape ez genkixan eta ipiñi eskuen, ba, orduen txakur txikixa be dirua zan, ta txakur txikixa multia euskeraz eitten dabenari. Ta bata bestia zaintzen! Ño! Txakur txikixa zertzeko! Ta hasi giñan ta holaxe ikesi gendun, ba, erdera pixkat. Ta gero, ba, defenditzeko beste.

– Orduan, kastigua zekazuen...?

– Kastigua! Klaro! Iñork ez genkixan ta zeozer, ezta? Ta orduen erderaz jakittie zan oin ingles jakittia modukue, e! Basarrixetan ta bai behintzat, e! Ba, oin ingles, ba, derrigo-rrekua modukua, ezta? Ba, orduan, hemendik mutillak kriaui bialtzen zittuen Riojara ta horretara erderaz ikastiagaittik. Bialdu morroi, ezta? Urte baterako ta, ba, [sartu] deixan erdera pixkat. Eske, ez zeguan ta! Ez ekixan iñok eta! Eta, holan, holantxek defendidu giñan.

– Eta eskolan zuen maistria euskalduna izango zan, ez?

– Euskalduna, euskaldun-euskalduna zan. Lehenengo zan horixe, Purificación Iturrioz, ta gero zan eibartar bat. Etorri zan Isabel Gabilondo. Ta gero, hori... hemen ein zittuen urte mordoska bat eta juen zan Reinosara. Ta gero atzetik etorri zien beste batzuk eta, bueno, ixa ahaztu be ein jataz, baiña harek urte mordua ein eban. Ta gero eskoliek eukan sukaldetxo bat eta goixan habitaziño bat, ezta? Ta bertan bizi izan zien! Bai, beran ahizta edo beran zeoze etortzen zan ta hantxe jan ta... Ta hemendik zelan urrin eguan, badakizu, guretik Agiñagara... Txokolate ontza bat janda be, ba, [...] eguardixan [...], baiña hobeto ta nik eta beste batzuk jaten genduan bertan, bazkaltzen genduan, bai, jeneralmente. Beti ez, baiña jeneralmente. Eta bertan bazkaltzen genduan ta, ba, gero segi.

(...)

Bederatziretatik hamabixetara izeten zan ta gero uste dot zala ordu bi t'erdietatik bostak edo bost eta erdiak artekue edo. Baiña, eguardixen denpora gitxi geratzen zan ta handik hona etorri, ordu-erdi bizkor ibilitta, e! Oin balitza, ez dakit zenbat... Baiña, gero, bide txarrak danak.

(...)

Neguan be haxe, iguala. Neguan be haxe ta udan be haxe ta edurrakin be haxe ta kitto! Ta orduan halaxe zalakuen... Oingo aldien edur haundixak eitten zittuen lehen, e! Oin, edur haundi-haundixek eguezenien, ba, ez giñen urteten porke urrin eguen ta... Baiña ostian, edur pixkateaittik eta bai. Geiñera, bertan bazkaltzia izen ezkerro, gustora! Bestelan ez. Handik etxera etorri orduko... egarrixa ta jateko gogorik be ez da egoten, kantsauta egoten giñan! Ta ezebez! Ta atzera buelta ein ta "tzz", derrepente. Ta esan be bai eitten zoskuen guri amak eta, "Hara, ontza bat txokolate ta ogixa", egixa da, "ontza bat txokolate ta ogixa janda be bertan hobe". Askoz hobeto, e! Bai. Ta, bueno, holan, holantxek ein genduan gure eskoliori.

Basarriko bizimodua

Ni, ba, bastante ondo defendidu nitzen, porke neu bakarrik nitzen ni ta ereitten zosten [...] ta horretan, baiña ibilli nitzan denporan, jeneralmente, eskolara bialdu eitten niñuen. Baiña beste asko igual ez! Igual, *“Bueno, gaur ez dao astirik eta bapez!”* ta biharra ein bihar. Holaxen.

(...)

Oin nik esaten dotset semiari ta: *“Oingo bizimodua? Isildu zaitte! Oin coser y cantar oin basarrikua, e? Lehengua ikusitta...”* Egixa da hori, e? Bueno, bueno, bueno! Geuk ein doguna, e! Bueno! Ba, nere gizon difuntuak, ba, azkenengo bi urtian edo holan ez, baiña... goixeko seiretan hankia kanpuan! Jangoikuak dakazen egun danetan! Urte Zahar egunian amaittu ta Urte Barri egunian hasi! Ta *“¡sigue!”* Kitto! Ta hemendik Eibarrera, badakizu, esniekin ta gero azken aldian, ba, kotxiakin ibilli nitzan, baiña hemendik Eibarrera astuakin jun zaitte, ba, egunero! Ta etorri ta gustora ibiltzen giñan! Hori zan bal-tza! Zu, disfratau eitten genduan, e? Ta ez genduan pentsatzen munduan hoberik egue-nik! Ba, juntatzen giñan iguel lau edo bost astuek, pillak, eta jarri asto gaiñian. Ta jarri asto gaiñian ta ogixa edo, zeozer, mahatsa badago mahatsa edo, zeoze jan! Ogi zati galantak eta kontuak esan ta barre galantak ein ta...(...) Hori bidian! Kamiñuan! Eibar... (...) Beheruzkuan oiñez jun bihar zan... Beherutzien astua kargauta ta gorutzien geu jarritta! Geu jarri asto gaiñian ta asto gaiñian etortzen giñan! Ta, bueno, ba, zu! Guk geure erara disfratau genduan! Ta gero, ba, urrin bai, e? Ta neke haundixa ta horrek danok, baiña! Igual ein goixian kalera osteria ta zeozer, patatia edo, eguenien atsaldien [...] atsaldien barriro igual, bigarren osterie ta... Pentseizu, e! (...) Astua zan dana!

(...)

Plazan eguen asto-tokixa, asto-kortie esaten jakona. Asto-kortie eguen ta ez dakit ze pagatzen zan... txakur haundixa edo xemeikua edo... ta haintxe bat zaintzeko ta haintxe sartzen zian!

(...)

Muzategixan, oin ez dakit zer dagan... Han eguan gizon zahar bat, ointxe be ikusten dot, Patrimustur esaten etsen gurian. Ta haren aurrian be bi edo hiru aston lekua ta gure tia zanak eta ha ezauna ei euken ta Patrimusturri emon ez dakit lantzian behin zeoze, txakur haundi bat edo, orduan txakur haundixa dirua ta, ba, zainttu eitten ebal! Ointxe

be ikusi eitten dot ha gizona! [...] holakotxe zer bat zan! Patrimustur! Ta halakotxe ipuiñak zu! Lehenagoko gauzak... enee!

Ira-ebatiak eta aberiak

Iria ebaten zan orduan ta orduan ez eguen ez larrik eta ez... dana zelaixa moduen! Baiña! Arbolak, ba... bai, pagadixak eta baeguezen, baiña oingo... piñurik eta ez orduen. Hau piñuau oingua da, e? Orduan eguezen pagadixak. Dana ez, baiña bakotxak pagadi zati bat eta holan. Ba, oingo aldien... enee! Garbixek eta... alde edarra [...]! Ta bidiek be ordu erdi ibili eitten ziñen danetik ta oin nundik ibili bihar dozu, ba? Zera, piñutarako pistia eitten ez badabe ez dago nundik ibili. Hemendik ezin leike pasau! Kitto!

(...)

Iria eitten zan. Bai, iria eitten zan. Hor iratan nik... bueno! Zenbat! Geuk be Urkon badaukagu terrenua ta urtero burdikarak, pilla bat ekartzen zan! "Zama ta burdikua" esaten jakon, ba, burdixa ta gero atzian ipintzen zien egur luziek, zamia, ezta? Ta horixe, behe-tik gora zanian ezin, baiña goittik behera, ba... (...) Eruan baba-lapikua eguardixan ta... Hemendik Urkora jun bihar zanian erun bihar dabena txarto, hartu lepuan ta, "je!", ta dagozenak zain jateko!

(...)

Ebaten zan, ba, segiakin, ta gero, batu iria ta gero burdixakin jun ta lehen esan dotena, eitten jakozen, sabrak edo zer luze... holan rama batzuk atzian ta... "Zama ta burdikua" esaten zan. Ta, iguel, ba, zer esango dotsut nik? Ba, zenbat metro? Ba, iguel sei metroko luzerakua ekartzen zan. Idixek inportantiek zien orduen!

(...)

Gurien, egixa esateko, gure tia zana, enee... Astua zaintzen eban harek... Jesus, Maria eta Jose! Beran burua baiño gehixago! Harek, kaletik etorri, eta astua gobernau barik ez pentsau jaten ekingo etsanik berak! Ez, ez... berezkua... Ta idixek, ba, bai, idixeri be zeoze emoten... Oin beste pentsu ez, e! Ene! Orduen, zela ekarriko zenduan, ba? Nundik? Idixekin jun ta ekarten zan burdikadatxo bat, baiña...! Ha segiduen gastatzen zan ta... Bueno, beste gauza bat eguen orduen, e? Etxien hartzen zan artua ta garixa ta artua ta emoten jakuen; neguen-ta, arto pixkat emoten jakuen ganaueri. Biherko! Zeoze emon bihar zan ta! Esnie jazteko ta horrek be bai.

(...)

Ardixek, hortxe Isu-mendi esaten jakona, Isutik gorutz, hortxe ibiltzen zien beti ardixek. Kamiñuan gaiñekaldian, hona... Hortxe ibiltzen zin gure ardixek be. Urkora juten zien behin edo behin, baiña gitxittan. Ta txakur bat euki genduen, ha zan txakurra, zu! Izena *Txuki* ebena. Ta, "*Txuki, ekarri ardixek!*" ta, zu, etxeko ardixek apartauta ekartzen zittuan. Ein ein biher zan hori, e! Hori ein ein biher zan, e! Sekula halako animalixaik! Enee...! Ha zan... ona zan! Bai, ardixek bai. Ardixek eta... Handitxik bizi giñen ta! Zu, ez eguen orduen kaletik... xemeikorik ez zan etortzen, e! Ta nunbaitetik bizi biher zan!

(...)

Bildotsak saldu ta gero, ba... ardi-esnia ta gaztaia be eitten genduan etxian. Danok haxe. Egixa esateko, ez dago norberak esatia ondo, baiña bueno! Txandan zain eukitzen nittuen etxien eindako gaztaia hartzeko! Bueno, hori geruago, ni... ezkonduta gero, ezta? Baiña... Bai, bai, danak zain eukitzen nittuen, txandan, gaztaia hartzeko. Ta, ba, zeozer! Diru pixkat hartzen zan ta!



**BARTOLO ARRIOLA eta
AGUSTIN ARANA**
Kaletarrak, 1912 eta 1913

Maltzagara juaten ziran igarixan eittera

- Eibarren, esango detsut ba, bakotxak, batzuk, igarixan ondo ta jakiñian zertzen dabena Maltzagara faten zian. Ta Maltzagako trenbideko zeretik eitten eben salto be, baiña...
- Trenbidako barandatik batzuek! Beste batzuek pillarretikan, pillarren ertzetik...
- Baliaentia izan bihar zan handik salto eitteko...
- Gaiñera, barandatik salto eitten zebenak, pillarrak holan jeukan, ba, barandia hemen, ta hau be pasau ein bihar bertara fateko!
- Ostian, hurrago ibiltzeko, Txontan zan presia, Txontako presia esaten etsen, Txontan eguan presa bat. Haintxe eitten genduan beste kuadrilla batek, ta beste batzuk...
- Matsarixan be bai!
- Matsarixan be bai! Ta baitta oin Gabilondok taillarra dakan lekuan be...
- Han, Barrena...
- Barrena Zaharra! Ze eguan, ba, han?
- Han errotia eguan han! Ta errotarako presan!
- Haintxe, ostian...
- Ta zerian be bai, presa-gaiña esaten jakon lekuan...
- Baitta!

– Otolu-erdiko basarrixan aurrian be bai! Haintxe dago presia ondiokan apurtuta! Baiña presia han dago! Nik [...] ein erdixan ta presia apurtu [...], total, kendu barik dago. Han be bai, ta zerian be bai, hemen, oin hotela dagon aurrian be presia eguan, ba, hona Cachonerako ura... Eibarren industria ein dok, horretxeaittik ein dok Eibarren industria. Lehen elektrizidaderik ez eguanian, urakin ein bihar zuan, ba, mobimentu guztia! Ta Eibarren ur asko jeguan, errota asko... Hangotxiaaittik ein zan industria, ta gero, bertan jentia lanian ikasi ta gero elektrizidadia etorri zanian, jarraitu bertan! Baiña uragaittik izan da. Eibarren presa asko... Askok eguazen presak! Askok, asko... Eibarren, hasi bai Olarriatik eta Maltzagara, estaziñuan ondora, hamar bat, hamar edo hamaika presa jeguazen Eibar barruan zihar! Kontau be ein leikez harek. Hasi zerian, Olerrian eguan lehenengua, Zamakolaneko zererako, panaderixarako errota bat. Gero eguan Otolu-erdi onduan jeguan, gero Amañan jeguan beste bat: hiru. Bat, bi...

– Ta hamen Ariatzan be baeguan...

– Ariatzan be baeguan... Ta gero Bidebarrixetan jeguazen, zerekua, Txomonerakua, gero beste bat jeguan Arotz-Haundixanerakua...

-Arotz-Haundixanerakua, errota...

– Asike, herrixan erdira inguru edo sei presa edo eguazen! Gero erdittikan, Urkusuko, oin, itturrixa badagok, ba...

– Urkusuko itturrixan onduan...

– Botijerua ipiñi juek, ba? Han be presia jeguan! Hango ura faten zuan...

– Orbeanera!

– Orbeanera! Orbeak lehelengo taillarra ipini zaban lekura! Oin... zera dagon lekuan dok hori, eztok? Horrek etxe barrixok ein jittuek, ba, klinikia dagan lekuan... Han aurrian ein eben, ba, etxe barri bat, zera, Gonzalezenan albuana, azeituneruan albuana, haintxe zeguan Orbeaneko lehelengo taillarra. Ura faten zuan hara ta haintxe eguan...

– Lehelengo Eibarrera indarra emon ebana haxe izan zan.

– Gero argixa hartu zebana.

– Argixa lehelengo emon ebana. Bai, bai, bai. Elektrizidadia handitxik. Ordura arte danak kandlekin edo...

- Kandillakin! Karburuakin! Karburuakin ta olixuakin be bai kandillak.
- Igarixan, orduan, edozein tokittan eitten zenduen...
- Edozein lekutan ez, ahal dan lekuan! Potzua eitten zan lekuan! Ni akordatzen nok Matsari...
- Gero, pelotan ta foallian ta, ba... Foallian ekipua edo behin pixkat distingitzen zanian, korrida plaza gaiñian eguan zer bat, lau-una bat, bustiñakin ta, dana bustiñakin ta zera...
- Badakik ze pasau zan harekin, haren istorixia entzunda hago? Eskola Armerixia proiektu zuan haintxe, hortxe Korrida plaza gaiñian, Korrida plazia dagonan gaiñian. Ta ein jittuen, esplanadia ein juen: esplanada bat hola, ta beste bat hola, eskudran ein juen. Ta gero, Isasi gaiñian ein juen gero. Baiña Eskola Armerixiandako ein zuan ha. Ta badakik ze izen ipiñi zetsan hari, Eibarren bajeguan, Argomániz-ek ipini etsan izena hari: "Campo de la casualidad". Foallian eitteko beste lekurik ez jeguan ta haintxe, ta horixe izenori ipini etsen. Horretxeaittik, kasualidadez urten juan harek! Haintxe eitten genduan foallian ta orduan, gaiñera, jaixegunian ta domeketan aste guztian biharra eitten zuan, ba, jaixegunian kanpua hartzeko goixeko seiretarako juaten zuan jentia! Harrapatata danak! Behin hartzen zebanian batek sailla, beran ekipuandako! Harek amaittu arte iñok ezin jokatu han. Kanpo haundixa ta kanpo txikixa esaten jakuen.
- Gero ze eitten zian, partidu haundixak edo?
- Ooo! Bertakuen artian! Bertako ekipuen artian!
- (...)
- Ni akordatzen nok han. Baten, gaiñera, abarketekin nebixan ta jo najuan... Ein bihar izaten zuan, gaiñera, ebaitta jeguan ba, ta kanpua, ba, kanpora ez zuan juaten baloirik...! Oin izaten dan moduan, berriro eskuekin etara ta holakorik... Jo orman ta [...] ein ta bes-tekaldera jua ta aurrera! Jo najuan baten hor, zera, ostikuakin jaurti baloiori ta, jo najuan mendixori ta abarketia apurtu jatan ta hanka guztia geratu jatan baltz-baltz einda!
- Ta zein zan zure ekipua?
- Ba, guk... lehelenguan "Montesinos" ipini jakon izena.
- "Montesinos" lehelengo, ta gero "Aberrixa".
- Gero "Aberrixa".



GLORIA LIZUNDIA

Kaletarra, 1912

Rekadistak

– Gure ama hasi zan; *“como renovera”* ta, ez dakizu? Errekauak eta gauza askokin, zanholan *“como recadista”* be. Ta gero batak *“Benigna, loterixia ekarridan Bilbotik, bestia egidan”* ta gero, zapatak ekarri, bestiak ez dakit ze ein ta holaxen hasi giñan ta gero neu be bai. Ta gero, ni ezkondu nitzanian, nere gizona. Asike danok sartu giñan. Gero autuakin hasi ziran ta kitto, baiña lehelengo-lehelengo gure ama zan. Konparaziñuan, harek... bizimodua etaratzekua zan, bai, danetik. Esaten detsut, batian, plazara igual, arrautzekin edo lekekin edo bestiakin edo... beti-beti zeoze ekan. Beti zeoze. Harek pezetia edozein lekutatik etaratzen eban. Bihargiña ta saladia. Horregaittikan gero... Benigna... kartzelan gero... lau urtian. Ba, lau urte inguru.

– Zeintzuk ziran orduan errekaurik normalenak? Nora juaten ziñazien edo... Zuen ama nora juaten zan?

– Han jeneralian, ba, honek komerziuak... *“tejidos y...”* honek, modistak eta, danak handik [...] teliak eta. Ta honek eken muestrarixuak, ointxe dakezen moduan, ezta? Baiña, beti-beti kartak, jeneralian, kartak, tejiduak edo zerak eta... Eguneko gauzia, egunerako: hau hartzen badozu, goixian hartu ta gabian hamentxe. Ointxe eitten dan moduan. Bueno, orduan zapatak be bai, zapatak be ekartzen zian Muroneko, *“calzados Muro”* eguan orduan, zapatak hamen... Bueno...! Gure ama danetik [emoten]...! Zapaterixia ipintzia nahi izan etsen gure amari! Baiña ederto eitten zan biharra...!

– Eta nora juaten zan errekauiak eta eittera?

– Bilbora! Eibartik Bilbora.

– Beti Bilbora?

– Beti Bilbora. Beti han.

– Donostiara ez?

– Ez, ez, sekula bez. Bilbora, dana Bilbon.

– Zegaittik hori?

– Ba... ez dakit ba nik... Hamendik... hamen jenerala, pentsau, Donostian [...] Jenerala modistak, ointxe be bai, gastatzen dabe danak Bilbotik. Nik ez dakit zegaittik izango dan, baiña Bilbotik. Orduan be dana Bilbon zan. Dana handittik. Loterixia bazan be Bilbon, ointxe eitten dan moduan, Azkarretatik. Ai! Loterixia ekarri [bihar dot] Azkarretatik, [ustez] berak urten bihar dabela...! Sekula ez jata... Ni hamendik eruanda nao loterixa gordua hamendik Bilbora.

– Zelan juaten zan Bilbora orduan?

– Trenian. Orduan eguan, ni gero hasi nitzanian... ni hamabost urtera arte edo eskolan ibilli nitzan, honek be, mutillak be [zertuta], gero trenian. Eguan trena... bat hamaika t'erdietan; etxian bazkaldu ta juaten nitzan neu ta gero ordu bat eta erdietan beste bat, ta ordu bat eta erdietan etortzen zan ama. Oseake, harek ekarten eban gero, nik eruan-dako kartak eta zerak, barriro beste errekauekin. Gero eren Elgoibarkuak ta [Eibar ...] zertuta asko, baiña trenian juan ta gero eguan han seiretan honuzko; zazpi t'erdietan Eibarren berriro, errekauekin. Gero [...] partidu ta zertu, baiña ederto eitten genduan. Bueno...!

– Orduan Bilbo zoragarri ezautuko zenduen?

– Bueno, gehixago ez dot nahi... Ni gehixago juan be ez naiz ein... Higoindu be bai...! Kantsau! Danetik pasatzen genduan! Bai ba... errekauekin be ointxe pasatzen dana, edo taillarrian pasatzen dana, edo hau falta edo bestia ein edo... hau ez dozula ein edo bestia ez dozula ein... Beti egoten da disgustua zeozena.



ROBERTO ISASI "CALLÓN"

Kaletarra, 1935

Perretxikotan

– Lehen famosua zan San Romango pagadixa! Famosua! Joe... Danak haraxe. Bai, baiña beti emoten, e! Juaten ziñan eguardixan igual, bazkaixakin ta andriakin ta be juaten ziñan ta "ra!ra!ra!..." [batera] bazkaldu ta emon bueltia ta bi-hiru dozena! Ta zeu bezela beste batzuk juaten zian ta harek be bi-hiru dozena! Beti emoten! Beti emoten! Oin ez dau emoten, oin ya kanbixatu ein dok hori, piñuak be bai tartian ta... Ziharo trukauta, trukauta dao! Trukauta... joe...! Baiña lehen aberatsa...? [...] "txuk! txuk! txuk!" ta beti urtetzen!

– Eta bestekaldian?

– Hamen? Bua! Hamen danian... Hamen lehen dana pagadixa zuan! Hamen Erdiko-zabal ta hor danian, joe...! Perretxikua... ez zuan jua biharko urrutira. Bertan!

– Erdiko-zabal esan dozu? Nun dao hori?

– Hamendik... Ez jakixat hamendik ikusiko dan. Hortxe, deposituan gaiñekaldian. Uran depositua?

– Katalangua inguruan edo...?

– Ez, ez, harutzagokua! Gure kalia, gure kalia. Repetidora ta badaguaz, ba? Txontako repetidora? Haretxen gaiñekaldian. Haretxen gaiñekaldian [eguan] Erdiko-zabal. Erdiko-zabal ta Haitz-bakar. Gero [gorago] Haitz-bakar. Hor bittartietan, hortxe perretxikuak...

– Haitz-bakar? Ta han ze egoten zan?

– Perretxikua! Bueno... Urritxa ta urdiña... gorago jun be ez! Zetako? Nahikua zan ta...

– Han urriñago Osteitta ta...

– Osteittara asko juaten giñuan! Ene! Ointxe akordau destak! Osteittara asko! Baiña haxe tope, e! Tope haxe! Baiña Osteittan pagadixa ikusgarrixa! Ikusgarrixa! Emoten eban harek perretxikua... Buofa! Azkena haxe zuan tope, e! Tope! Handik iñora be ez gehixago! Tope! Urritxa ta urdiña. Asko, baiña asko! Jo! Pagadi edarra! Edarra pagadixa! Pagadi haundixa, baiña, ba, [perretxikurako] ondo, oso ondo! (...) Oin, aittakin juten nitzanian beti Karakatera. Jeneralian Karakatera [...] Jente gutxiago hara, urruti, orduan ez eguan pistarik eta.

– Eta tokixan arabera kanbixau eitten da? Ba, ez dakitt, Iparraldian edo zuloren...

– Ez! Han emoten badau hor be bai e! Bai, bai, bai!

– Ez dago tokirik, ba, honguak gehixago edo...?

– Bai, hori bai! Danian... Hamen hongua igual, ta, hor batez, ta hurrenguan juan ta hamentxe beti. Beti toki baten! Bai, bai, hori bai, e! Beti toki bat, e! Gaur [be] hartu badok hurrengo [urtian] be jun hara, hantxe urtengo jok eta! Hantxe bertan! Ez han, hor! Bai. Ta urritxa be berdiña e! Urritxa be, hartu gaur hamen, hurrenguan be jun hara! Haraxe! Hori... Ehizian be berdiña! Ehizian be oillagor bat gaur hamen, hurrengo be hara! Bai, euren tokixa dake! Hil, e? Hurrengo, bestia hamen? Haraxe etorriko da. Euren gauzak dakez. Ez bertara, holan, puntara, baiña ondora!

– Eta hor, perrikotalarixen artian beti izaten da, ez? Lokalizau holako toki bat eta ez...

– Isildu! Epa! Jo! Bai, ba! *“Nun hartu dittuk?”* eta, *“Salbadorren!”* Baiña esaten [detset] *“Ermittan ez, e!”*, esaten [detset][...] *“Ermittan ez, e!”* Jo...! *“¡Por aquí!”* Nik toki onak-eta darenian, jendiak alde ta gero! [...] zaindu ta gero *“[...ez da egongo... Bueno, ointxe!”* Noberanera! Zaintzen [...] Aldrebes be eitten dittugu, e! Aldrebes be! Okerkerixak e! Ez dagon lekuan batu ta... Beittu ta ikusten dozunian baten bat zaintzen ta *“koño! Hau be zain dao...”* Joe... Juan... Erabili bat eman, lehenengo erabili haundi bat eman! Erabili gora ta behera ta gora ta behera erabili, ta *“da!”* itxain berriro ta izardi pixkat atera ta *“ra!”* itxain ta azaldu berriro ta *“ra!”* Edozein bazterretan ta *“ra! ra!”* ta poltsara! Ezebez, baiña... gustora! *“Koño! Harrapau detsat horri!”*, *“Harrapau detsat...¡Por aquí!”* Horrek eitten dittugu bai... Aurten be ein dau semiak! Hortxe joian motorrian, euren tabernatik gora ta kotxe bat atzian! Ta pasua emoten ei etsan, pasua... ta bestiak kasorik be ez. Ze karajo... ta begiratu dau ta *“Ene! Fulano!”* Basarritar bat, beran ondorian. Erabili eban hamen... Joe! Galdaramiñon gora, behera... erabili juan atzera ta aurrera, zoratu arte! Ta galdu ei jakon ta honek mendi gaiñera igo ta *“E! Hamen naok!”* ta [...] ta aspertu zanian alde! Baiña erabili eban, jo-ta izardi baten bestia. Gizurretan! Bestia hantxe! Arratoian bezala atzetik-atzetik... Ta nere semiak sasi artian zihar ta erabili eban; batian gora, bes-

tian behera...! Hantxe, bengal! Benga hantxe! Ta ez dagon lekuan... erabili bakarrik

– Oseake, holako historixak perretxikotalarixen artian mordua, ez?

– Joe! Ba, jentia... Kanpora juaten garan lekuan ta dana dakixe! Gu nora goiazen ta dana dakixe! Baiña jun bihar danian, topatu ez guria! Jakin bai, euren ustez, tabernan-ta, ez dakizu? *“Jo... hara juaten nok, nik bakit [...] nora juaten dan...”* ta *“¡No!”*

– Perretxikueri ze izen esaten detsezue bakoitxari?

– Ooo! Gero txarrerri kasorik be ez jetsagu eitten guk, e! Txarrerri ta... [*¡“A bola!”*] Uuu... kasorik be ez!

– Txarrerri izenik-edo emoten detsezue?

– Ezerrez!

– Holan... Suba-perretxikuak edo...

– Buoo... *“Honek...”* ta *“Txarrak!”* ta ba! Ikuturik be ez; ta bestiak... eta txarrak! Ta batu be ez! [Han] perretxiko asko dare gero jaten diranak, baiña guk biltzen ez dogunak... Jatekuak, e! Baiña inportantzia baekuak. Ta, ba, bapez! Beste batzuek *“Edarra! Ona! Ona euan!”*, *“Ba, nik ez jittuat, ba, batuko!”* esaten detset eta hor konpon! Nik ez! Nik emoten dotena ona!

— Zuek ze klase batzen dozuez?

– Urritxak, urdiñak, saltsa-perretxikuak ta horretxek! Azuliñak noizik behin, [azulinarixo] batzuk ta horretxek, onguak ta... Horrek... Neguko susa batzuk... horretxek! Ba, askorik ez, baiña hartzen dana ona! Ongua ta urritxa ta urdiña onenak, ta robilloia be asko gusatzen zait. Askok! Nik haxe jaten dot bakarrik, e! Nik besterik ez dot jaten!

– Ongorik...

– Ez! Nik ez! Batu, ahal dittuten danak, baiña jan ez! Pentsatu be Ez! Useiñak be atzerakadia! Tabernan edo nun-nun, etxeren baten ipini, *“Jo!”* sentitzen dot eta... Ez dot nahi! Ez dot nahi useiña! Igarri, berriz, zer dauen... Bueno! Onguan useiña... Ez da, nere gus-tokua ez da! Larregi janda edo, larregi janda edo... aspertuta! Lehen jaten nittuan, baiña oin ez!

– Eta kuletrua?

– Kuletrua gitxi daok! Joe...! Hortxe, beste basarri bat daok, hortxe, Sagarbitsa daok hortxe. Ta hantxe zelaixak [...] etxian aurrian ta Eskola Armerixako maixu bat da soziedadekua, hantxe soziedadekua ta haretzek dakaz erakutsitta, *“Hortxe urtetzen juek”*, ta basarritarrari aittatu be ez, bestela akabo! Jo...! Aittatu be ez! Ber-bertan, bere terrenua holaxe ta *“¡Por aquí!”*

– Eta kuletrua bai da gozua edo...?

– Nik ez juat jan! Sekula ez juat jan! Behin pasau jatan, halakotxe bi topau nittuan honek, Arrate baillian zan, goittik behera ta, halakotxe edarrak ta, nere lagun batek: *“Hi! Han kuletruak bi!”* ta *“Joe...!”* Handik egun batzuetara, egunero txikiteuan alkarrekin ta esan netsan: *“Hi, kuletruak zer?”* Ta, *“Basurara bota najittuan!”* Hori be neri tokau bihar! Mundua emon netsalakuan ta... basurara gero! E? Joe...! Hortarako!



JULIAN ETXEBERRIA
Ubitxa (Otaola-Kiñarra), 1913

Karabixak eta ikazgintzia

– Karia ein eitten zan? Ezautu zenduazen zuk karabixak eta?

– Ein, ein! Onbre! Ezautuko ez nittuan, ba? Ubittan bazeguan bat! Ubitta itturrixa baiño honutzatxuaguan. Oin, badakit, desapareziduta dagoz horrek! Aintxiña eruan zittuan horrek aurrian eskabadorak! Baiña hori eitten eben, holan zulo bat harrixakin, bueltan bueltan eitten eben ta gero, kareharrixa zeguan, ba, igual... kareharrixa, egon ein bihar da harrixa, e! Eguarbitza dao bat harrixa, kareharrixa. Oin be badao ta beste lekun bat be egongo zan! Ta hori [...] etara ta idixekin jun ta ekarri eitten eben! Ta gero, bota haral! Ta azpixon sua eitteko lekua lagatzen etsen ta, otia badakizu zer dan? Otia badakizu zer dan, ezta? Erderaz ez dakit zelan esaten jakon otiari... Bueno, igual da. Lora horixa dakan, otia. Hori. Lehen ota asko zeguan hemen, ta otia ebagi, sikatu ta otia sartzen [jakon] azpixon. Ta harekin harrixa erre eitten eben. Erre, e? Ta gero ha eitten da, ba, masia eitten da ta ya, ba, ha aprobeztatzen eben sororako, soruandako ona zan ha botata...

– Ta ze eitten zeban?

– Kariak? Karia da... erre eitten eban lurra ta harek bitxo guztiak erre eitten zittun! Harrak, honek beste gauza guztiak, bitxo guztiak... Soruan bitxo asko urtetzen dau! Ta karia botatzen etsen ta lurra harrotu eitten dau harek! Ta bitxuak danak akabau! Ta oin horregaittik da, basarrixetan pasatzen dana da, oin karerik ez detsa botatzen iñok ta oin sulfatua dau espeziala, eztakizu? Baiña oin sulfato hori ez badetsazu botatzen ezebe ez da hartzen! Bitxuak jaten dabe dana! Ez dau ortuan ezer hartzerik ez badetsa botatzen! Oin dao, likiduak dao, ta karuak, e! Ta horra bota bihar detsazue tomatieri, nahiz piparreri, nahiz lekiari... Bota ein bihar detsazu, e! Bestela ez da hartzen bape! Lehenago bai, karia botatzen etsen ta lurra zelan egoten zan garbixa, ba, lurra [...] zelan egoten zan, bitxorik ez zan egoten! Ta oin tomatia be palua ipintzen jako gora ta lotu, ezta? Hori ikusiko zenduen. Lehen tomatia sartu ta lurrian egoten zan tomatia! Ta ez zeben jaten! Eske bitxorik ez zeguan ta. Zerak jaten zittuen... Horrek kariak eta danak... Garbixa zeguan lurra!

– Eta ikatza be eitten zan?

- (...) Eingo ez zan, ba, Eibarren ikatza? Ene! Baita hor be Ipuruako zerietan ta edozein lekutan eitten zan ikatza orduan! Eitten eben, ba, pagua bota, paguak eta egurrak, bota egur pillo haundixa, e? Ta eitten zebeu erdixan zulo bat ta gero, zohixa, badakizu zer dan? Zohixa... zerak... lurra, bedarrakin ebagi, atxurrakin, holan, zohixak ta gero eitten eben egur montoï haundixa: pago-adarrak, pago-buruak... Ta gero, eitten eben bueltan lurrakin tapau dana. Ondo tapau bihar da, e? Bestela su hartzen dau! Ta tapau ondo ta erdixan zulo bat lagatzen etsen ta gero eitten eben albuana brasa bat, brasa haundi bat. Brasia badakizu zer dan, erretako egurra, ez dakizu? Ta ha paliakin botatzen etsen erdi-erdira. Ta gero tapau ta gero denporiakin harek su hartzen dau ta harek egurrak danak erretzen diaz. Erre ez, egosi! Erreko balitz ez dau balio... Ikatza horregaittik da, gasa daka ikatzak. Egurra... badakizu, ikatzak gasa daka. (...) Zuei ez jatzue akordauko baiña hemen ale banaketak, gerra denporan, gasolinarik ez zeuanian, ikatzakin kamioiak ibiltzen zian! Ez jatzue akordatzen hori? Ta entzun be ez dozue ein? Ikatza botatzen eben ta kamioiak albuana, gasolinarik ez zeuana ba, ta ikatzak, holako zer bat, tubo haundi bat eken ta ikatza bota ta su emoten etsen ikatzari ta gero harek gasa zelan dakan, ha motorrera juaten zan ta harekin ibiltzen zan motorra! Hori sekula ez dozue entzun zuek? Ba hori *"kuarentaiunuan"*, *"kuarentaiunuan"* ibili zan hori, oin dala berrogei urte. Baiña ez ekan indarrik gasolinia moduan. Indar gutxiagokin., baiña ibili eitten zian kamioiak! Ikatzak!

– Eta ikatza ze eitten zan, batzuk zeren ikatza eittera dedikatzen ziranak edo...?

– Bai, bai, ikatza eittera dedikau! Dedikau eitten zian batzuek! Igual egurra hemendik botatzen eben, pagua ... orduan egurra asko zeuana, e? Pagua oin baiño gehixau ez dakitt ez euan... Botatzen zittuen paguak ta [erdiko gerrixa], materixal ona, aprobetxau eitten etsen ba, tabletarako ta gauza... materixaletarako. Ta gero burua, adarrak... horrek ebatzen zittuen zerriakin, eskuz ebagi be, ez eguana oingo moduan motozerria! Eskuz ebagi ta gero ikatza *"ta"* ipintzen eben ta su emon ta gero tapau eitten eben. Tapatzen ez bazan ondo! Su hartzen eban ta erre eitten zan ta erretzeko ez daka indarrik! Egosi ein bihar zan ha! Zortzi egunian edo, hamar edo hamabi egunian egongo zan igual. Edo gehixau, ez dakit nik zenbat egunian egoten zan. Ni neu ez naiz ibili sekula! Ikusi bai! Hementxe edozein lekutan eitten zan ikatza orduan!

– Nun eitten zan?

– Bai hor Tutulunguan ta han Arraotz-tik aurrera... Arraotz badakizu nun daon basarrixa? Galdaramiñotik behera... Han ikatz asko eitten eben, lehen. Oin dana garbittuta dao, ez dake egurrik eta ezerre.

– Eta beti pagua izaten zan edo...

– Ez, zeuk nahi dozuna, baiña pagua zan onena! Ikatza eitteko egurrik onena pagua! Ta gero ha erre ta baltz-baltz urtetzen dau harek! Badakizu...Ta gero ba lehenau, ba, labetan probatzen eben ha! (...) Eitten eben, labia eken, bustiñakin einda. Bustiña badakizu zer dan, ezta? Erderaz ez dakit zelan esaten jakon. Bueno, igual da. Ta ikatzakin zulua eitten etsen ta gero ipintzen etsen kañoi bi, holan kañoi bi zelan dakazen eskopetiak, badakizu, holan kaiñoi bi. Honek eitten detse listia ipiñi hemen. Ta gero ipintzen etsen latoia hemen, bueltan, danian, azpittik ta geiñetik, ta gero beste eraztun batzuk sartzen etsezen ta harek laban sartzen [...]. Ta latoia burdiña baiño lehenago urtzen da, asko lehenago, ta gero han ikatzetan berotzen zanian kañoia, harek latoiak korriru eitten dau! Ta gero ikusten ebenian ya, *“korriruta dao latoia, urtu da ondo”*, atara eitten eben ta kanpuan hoztu arte laga. Holatxen eitten eben. Holan alkartzen zian kañoi bixak, bai. Eske nik eskopetiakin ein dot biharrarian nere denpora guztian; horrek ondo dakiz.

– Eta ikatzana esan dozu zohixa erabiltzen zala, baiña zetako, gaiñetik tapatzeko?

– Tapatzeko! Tapau eitten zan dana! Ta gero gabian be bertan lo eitten eben porsiakaso. Zuloren bat eitten bazeban, igual garrak urtetzen eban. Ez? *“Llama, ¿no?”* Ta zaindu ein bihar zan erre ez dein! Ta garra urtetzen badetsa tapau barriro be ta barriro be zain! Hantxe gau guztian zain! Relebuak eitten diaz! (...) Ta gero, ba, ha erretzen zanian, kentzen eben ta zatixak ein, zakuak bete ta gero saltzen zebe, ba, taillarretan! Sutegirako, *“fragua”* esaten jakon, ez dakizu? Sutegirako ikatza, ba, gauzak berotzeko ta herreminttak eitteko ta, ba... Hartu idixekin burdikadia ta kalerik kale saltzen! Ta ofizinetara jua ta *“Zu, ikatza dakat”* ta *“Ekarrizu zaku bi!”* Ta horretxek. Saldu!

Morokilla

- (...) Morokilla iguala baiña morokilla... urunakin eindakua! Ura ta arto-uruna. Morokilla eitten da, galdaran ipiñi, ezta? Galdarakada haundi bat ura. Segun zenbat zagozen etxian, gitxi be bai ta asko be bai. Galdaran ipiñi ura irikitzen. Gero artiriña bota kurioso-kurioso ta ez bazaraz argi ibiltzen, hori [...] pelotillak eitten dia, uruna batu eitten da ta harek... gero txarto geratzen da. Ta lantzian piskaka-piskaka bota ta hari makilla... egur bat eukitzen dau, holako egur bat, ta erain asko, pelotarik [...] formau. *“Dale! Dale! Dale!”* Hori igua-iguala da, frituak eittia moduan. Ez bazabiz argi, ha uruna botatakuan, ba, pelotak eitten diaz. Ta hari erain ta erain ein bihar jako ta gero hasten zan *“Plist! Plast! Plist! Plast!”* [Morokillari erain!] [...] igartzen jakon, amak igartzen etsan *“Ene! Erre useiña botatzen dao! Hori [galdariori] kendizue, erre bihar dau ta!”* Ta atara kanpora ta hoztutzen laga pixkat ta gero batzuk jaten dabe morokilla berua ta esnia hotza, ta beste batzuk jaten dabe morokilla hotza ta esnia berua! Nik beti esnia berua jaten genduan

guk. Morokil hotzari esnia bero-berua botata morokillari zulua ein ta esnia hara “prrrrr” ta gero esnia ta morokilla nahastauta. Gozua da! Esniakin! Bera bakarrik, hutsik, zatarra da!

(...)

– Hori, jeneralmente, afaittan jaten genduan guk. Ni gaztia nitzala. Hori afaittan jaten da, jeneralmente afaittan. Aurretik gaztaiñak edo berakatz-zopia ta gero morokilla gaiñian. Bai, hori zan menuori. Morokilla jan, bete-bete ein ta ohera. Gero lo edarto ein! Han ez eguan pattarrik, alkoholik eta kristorik! Gauza naturala! Puf!

– Ta artua be eitten zenduela kontau zendun lehenguan...

– Bai, artua amak! Artua eitten zeban; amak bai, artua. Saldu eitten zeban artua! Gure amak arto mordua saltzen eban. Astian pare bat hiru bat bidar eitten zeban. Batzutan hiru bidar, bi bidar beti. Arto erria. Artua erosi eitten eban, gure etxian ez eguan hain-beste arto, baiña errotan erosi eitten dau artua. Asto txiki bat gekaun ta amak esaten [estan]: “*Juari errotara ta ekarrixaz berrogei kilo urun!*” Berrogei kilo urun ekartzen genduzen ta amak ha pasau ein bihar zan galbahian. Zela esaten jako horri erderaz? Bueno, galbahia, badakizue zer dan, haura pasatzeko. Uruna pasatzen eban, gero ur berua bota, labaduria bota, ogixari moduan, labaduria bihar dau pixkat, labaduria botatzen etsan, harrotu deixan, ez? Eitten eban halako [...] haundi bat, gero zekan holako kazo haundi bat egur luziakin, labia... egurra sartzen zeban ta labia zuri-zuri eitten da asko berotzen danian labia, hain teillak bueltan ipiñitta, labia zuri-zuri eitten da... Ta harek egur zahar-rrak batu, danak garbittu ta ha kazua, artua, bete kazua ta sartu [pala] ta “*plast!*” bota. Gero zabaldu pixkat, holako tamaño bat. Gero, atia ez deixan hoztu, zarrau ondo ta amak karrulauta eukitzen zeban, ba, igual ordu bi edo inguru erretzen. Ta gero ikusten zeban ta gaiñian baltzitzen hasittako, holan, ondo erreta dagozenak, gero beste para mehe bat zekan ta, mango luziakin, ta “*dza!*” Sartu ta kanpora etara. Ta gero saldu. Goixian ein ta atsaldian kalera artua saltzera. Asto txiki bat enkargauta, [ba igual...] gure amak. Ba, igual, [sartzen zeban... edozer...] hartu artua asto gaiñian ta saldu ta... Saltzen eban libria “*treinta céntimos*”, ta kilua “*cincuenta*”. Arto bero-berua. Ni baten akordatzen naiz, ni [...] nitzan da “*Hi, Julian, etorri hari nerekin*”. (...) Ta, amak “*Arto bero-berua!*” ta nik hartu neban sustua nik! “*Ama, zuk dakazu baloria! Artua [ekarri] ta deika zabiz?*” Nik hartu neban sustua nik! “*Arto bero-berua!*” ta andrak bajatzen zian ta batek esaten eban “*Ba, libra bat*”, bestiak kilo bat, bestiak igual holako zati bat. Eske artua epel-epela zan, gozua artua! Bero berua, artua einbarrixa gozua da, e! Behin pasatzen dittuanian zortzi bat egun edo, zatartu eitten da artua, e! Askoi! Baiña barritan... geur ein ta bixar, ha epela dagon artian... artua oso gozua da, e! Bai, gu haretxekin hazitta gaoz!

Gaztaiña kontuak

– Gaztaiñena, esan dozu, azala edo oskola edo... Horrek izenik badaka? Lakatza edo lokotza edo...

– Bai, lakatza. Lakatza! Bai, lakatza esaten detse, euskeraz lakatza esaten jetsek horri. Ta horrek konserbau eitten dau gaztaiña! Bestela gaztaiña segiduan galtzen da! Gaztaiña, oskolik barik batizu, bai? ta handik hille bi edo igual lehenago, hille bete pasau, ez dau balio gaztaiñiak, alkortau eitten da, gogortu eitten da ya, ezin leike jan! Ezin leike jan! Hori baten akordatzen jata neri, “Mari-Katillu”, oin Maixa badao ba? Maixa tabernia Kalbetoian? Han lehenago zeuan, Mari-Katilluneko tabernia zan ha. Harek, lehenago hemen Eibartik danak, ba, gaztaiña-denporan, hamen dana gaztaiña zelan zeuan, goixian juan ta danak gaztaiñatara! Gaztaiñatan danak. Ta gaztaiña ohostu eitten eben, [...] gaztaiña kantidadia ohostutzen eben, mordua egoten zan ta goixian jentia! Ta hartu, karro, zakukadak bete ta kalera! Ta gero, ba, ostian lekurik ez ta kamapian bota, ohepian, “vamos”. Ta gero ohepian, badakizu, gaztaiña asko batu gendun ta [lehenengo] barrittan ondo, eztakizu? Baiña gero, ba, denporiak ez da... alperrik galdu eitten da haura! Alkortu eitten da ya, sikatu eitten da gaztaiña. Oskolik barik... Ta gero hasarre, gure aitta juaten zan, ba, [eruatara], Eugenio, ta “Eugenio, hor ibilli...” esan netsan, “Eugenio, hor ibilli nok [...] lapurretan ta oin bota ein bihar jittuat, ez juek balio jateko.” Sikatu eitten da gaztaiña oskolik barik. Baiña oskolian, eta zenbat eta montoi haundixaguan, hobeto. Konserbau eitten dau oskolak! Konserbau eitten dau, ez da sikatzen gaztaiña! Ya, guk oktubria pasauta gaztaiña ta Gabonetan be gaztaiña ona egoten zan, e! Behin ya Gabonak pasauta aurrera ya...

(...)

– Klase diferentiak gaztaiñak zeuzen! Goiz-gaztaiña. Beste bat abadiño-gaztaiña esaten jakon, ha pixkat flojuagua zan. Beste bat zan erreta, erreta jateko, txapardia esaten etsen. Bueno, horrek lehengo izenak diez, e? Gure aittak holan esaten etsen. Ta beste bat txargaria esaten etsen, hari txargaria esaten etsen, lokotzak eukitzen zittuan igual, igual hamar ale, txikixak! “En general”, hiru ale eukitzen dittu gaztaiñiak, e! Baiña harek mordua eukitzen zittuan! Lokotz baten hamar ale! Bai, bai, txargaria esaten etsen. Ta ale txikixagua eukitzen eban harek! Eskasua! Onena zan goiz-gaztaiña, hiru ale eitten jakozen, hiru ale edarrak. Haixe zan gaztaiñarik onena. Txapardia zan, ba, erreta jateko. Tanboliñan erre ta... ha bestia baiño hobia zan. Hori, txapardia, beranduago dator ta hori nobienbrian erdi ingurura edo heltzen da gaztaiña hori. Abadiño... ha eskasagua zan, baiña ha be... bai, ondo jaten zan gaztaiña. Abadiño-gaztaiña esaten etsen.

Zeeze txikitxuagua! Ta harruagua eukitzen eban geiñeko oskola be harruagua, ez dakizu? Onena goiz-gaztaiña, “por mucho”, e!



VICENTE ARETA
Mendigoitti (Arrate), 1938

Txahalgintzia

- Txahala jaixotzen danian, ze ein bihar jako? Zeoze ein bihar jako txalari ala...
- Txahalari horitza emon, aman titixa lehenengo. Ha emoten ez bajako...
- Baiña lehenengo zikinkerixia kendu bihar jako ahotik...
- Bueno, bai, estu badao, ba... binagria edo bota ahora, espabilau deiñ. Ez. badao, ez dakizu, arnasia etorri bai-ez, ba, binagria edo gatza edo, ba, zertu eitten da, mobidu. Orduan ,ba, lehenengo arnasia edo...
- Eta gero esan dozu horitza edo...
- Horitza emon bihar dok! Horitzik barik txahalik ez jaok etaratzetik!
- Eta ze da hori?
- Amak daukan esnia! Ta ama akabatzen bada, beste batena! Bestela, txahalak ez jok balio! Lehenengo beran esnia. Esnia barik... odol modoko... Ha eraten ez badau txahala akabauta dago! Haxe eran bihar jok lehenengo, aunke sea Donostiatik ekarrirta. Txahala jaixo ta ama akabauta badago, nunbaitten, auzuan edo han edo Elgoibarren edo, nun-baittetik. Nun dagan txahala, beste bat jaixota, jaixotakua bada, igual-igual da honena emon, zuria emon, neria emon... Horitzik barik txahalik ez dabela urtetzen esaten juek. Txahala jaixo ta emoten ez bajako, akabauta dago! Lehenengo-lehenengo... holan...egun baten edo... Etxekuak ez badauka, amak ez badauka, beste batena edo Elgoibartik edo auzotik edo...
- Tokau izan jatzu beste tokiren batetik ekartzia...?

– Bai! Baita neuk emon be! Gurian jaixota igual, txahala, ezta, gaur? Ta beste baten ama akabatzen bada, ba, “*Koño! Badaukek?*” eta “*Bai!*” Eruan litro bi edo... [Iñarra(ra)] ez daki-zu zelan eruan neban ointxe pare bat urte edo... Matian bizi da bera ta hor... akabau edo ein zan ama... Ta [...] gurien! Halaxen eruan zittuen bi litro edo ta gero beterinarixuak, ba, behin jatordu bat edo ein ezkeriok, gero, edozer.

– Eta zenbat denporan eukitzen dau behixak horitza?

– Batzuek gehixago, beste batzuk gutxiago... Zelako... Batzueri ensegida garbitzen jakue erateko moduan eta beste batzueri igual, hamar bat egun edo... Holan esnia garbitzeko, hamar bat egun edo holan, erateko moduan. (...) Batzuek asko bizkorrago garbitzen dia, igual hiru egunera, ba, esne garbi-garbixa. Baiña honetxek pintionek be, zortzi egun edo ondio... txokolatia modoko sendua ta... Odola ta esnia nahaste modoko holako...

– Orduan txahalari horitza emon...

– Txahalari horitza emon bihar jako lehenengo jatordu bat edo bi.

– Baiña lehenengo behixari erun bihar jako txahala, mieztau deixan...

– Bueno, hori be ez da... Bai, jaixo ta, ba, ipiñi muturrian ta mieztau ta mieztau eitten jok.

– Ze eitten detsa?

– Ba, garbittu! Zikiñak kendu ta... Haxe!

– Orduan behixak garbitzen dau txahala...

– Bai! Ondora eruaten bajako bai! Bueno, danak ez, beste batzuk adarkadia igual, baiña... Bai, normalien, txahala ipiñi onduan ta mieztau ta mieztau ta mieztau eitten jok ta garbittu ta garbittu.

– Lehen aittatu dozu lohixa edo bota bihar dabela, zer da hori?

– Bai, karena. Karena edo lohixa edo... Ba, txahala egoten dan zera, txahala egoten dan kapa bat.

– Poltsia edo...

– Bai, boltsia. Hori normalian botatzen jok sei ordu baiño lehenago, sei ordura, txahala

ein ta sei ordura. Ta eitten ez badau, ba, gero, oin etara eitten jotsek.

– Orduan hori bota ein bihar dau derrigor...

– Bai, bota ein bihar dau, bestela infeziñua dator.

– Ta karena ta lohixa berdiña da orduan?

– Bai, guk lohixa esaten detsagu ta beste batzuk karena ta beste batzuk beste... Karena.

Behixa izko eske

– Lehen txahala zelan jaixotzen dan komentau dogu. Gero zelan jakitzen da noiz dagan berriz ume eske?

– Eurak esaten juek! Marrusia edo... Marrusaz edo beste bati saltoka edo...

– Eta hori txahala ein ta zenbat denporara izaten da?

– Bueno, hori... pare bat hilabete edo... Urtian txahal bat korriente ein bihar jok behixak, urtian bat. Batzuetan zeoze aurreratxuago baiña... ba!

– Eta beti sasoi berdiñian izaten da edo ez daka...

– Horrek ez jaukak...

– Bardin izan leike neguan edo udan edo...

– Bai, bai, bai, bai. Txahala noiz eitten daben ta behixa zelan... gogor badago bizkor-txuago igual edo... Batzuek bizkorrago, beste batzuek motelago...

– Eta orduan, zelan esaten dozue, ume-eske dagola esaten dozue?

– Bai, edo izkuan eske edo... Izko eske edo ume eske. Beste batzuk... Izko eske edo ume eske, ta hor behe aldian-ta susa, susa esaten juek hor.

– Baiña hemen ez da esaten...

– Ez ba! Baiña hor behe aldian behixa susa... bai, susa uste dot dala...

- Eta orduan, ume eske dagonian, ze eitten da?

- Ba indeziñua ipiñi edo bestela [...] izkua dakagu ta bera enkargatzen da. Zelaixan dabi-zenian ezta kasorik be! Izkua han dago ta... Lehen, ba, beterinarixuari deittu bihar edo lehen-lehen izkua egoten zuan hemen. Izkua etxian! *“Behixa izkuan eske dago, ba”* ta hartu behixa ta izkua txabolara edo ta [bere] lekura eruan ta izkotu ta...

- Ta izkotu... Osea, izkua botatzen jako?

- Bai, lehen-lehen bai. Gero beterinarixuak ipintzen eutsen. Lehen-lehen izkua, ez zeguan insemnaziñorik eta, lehen-lehen izkua!

- Gaiñera, Erdikokuak eta Arikittakuak-eta be hona etortzen zian...

- Koño! Izkua nun dagan! Hik izkua... tokatzen bada hemen igual izko majua igual, ba, bueno...! Arikittatik be igual geurera. Hurrengo norberak izkorik ez ta *“Hi!”* Arikittan edo Barrundixan edo beste... *“Banajatok!”* ta *“Bai, ekarri!”* Izkua nun tokatzen zan. Auzuetan, etxian ez baeguan, ba...

- Ta gaiñera izko ona tokauko da, ez?

- Bai, ba! Izkua, ba, koño! Itxurazkua, eskasa barik...

- Eta ze eitten zan, izkua eruatzen zan behixagana ala...?

- Ez, ez, ez, behixa, behixa.

- Eta izkua ze eukitzen zan, aparte?

- Lehenago bai. Oin urte asko, hemen baille guztian bat egoten zuan, Erdikuan, ta haraxe eruan, baiña ni gaztia nitzala. Hori urte asko, e? Baiña ni umia nitzanian, paradako izkua, bat.


- Paradakua?

- Paradako izkua, bai. Behixak izkotzeko, paradako izkua. Erdikuan akordatzen jata neri, baiña ni umia nitzala, e!

- Eta izkua ekanak...

- Bai, zeoze kobrau be eitten eban. Baiña baille guztirako, e!

- Eta hori holan izaten zan baillara guztietan ala hamen kasualidadez...
- Danian izango zuan hori igual. Baiña guk geure akorduan beti, ba, koño! *“Mendigoittixan dago izkua! Gurian dago izkua!”* Ba, Lezetakua ta... *“Hi! Behixa [...] izkua!”* *“Ekarri!”* Baiña hurrengo, ba, Barrundixan dagola izko on bat edo Erdikuan igual, han goixan edo... *“Izkua [edarra dakagu ba!]”* Ta haraxe eruan. Izko... [...] ba izko dezentia edo dagan lekuan. Guk beti holaxen!
- Eta lehen esan dozu Erdikuan edo zeguanian paradako izkua kobrau eitten zala, baiña bestela, normalian, ez...
- Ez! Guk alkarri ez! Ba, bueno... Kobrau, nik sekula ez juat kobrau! Horrengo igual atsalde bat biharrera etorri edo... hori bai. Edo norbera jua edo... baiña ez. Batak ez daukarian, ba, bestiagana jua. Beti ez dok izkua egoten toki bardiñian ta holan... itxurazkua be ez igual ta... hobia dagan lekura jua!
- Eta izkua, orduan, normalian ez da eukitzen basarrixan?
- Ez, ez! Oin, gaiñera, gitxiago, inseminaziñua dagan ezkerero, oin izkorik bota be ez!
- Oin kanporako...
- Izkua botatzen jako, ba, kanpua dagozelako ta harek ezin leikezelako ekarri ta... diabruak dialako. Horrek ez dia honen modokuak eta kitto. Ta ixa gehixenak dake izkua oin! Bost edo sei behi ta izkua eurekin ta kitto. *“Allá cuidaos!”*



FERNANDO ETXEBARRIA «URREDUNA» **Kaletarra, 1927**

Urredunaneke erre-fabrikia

– Aitxitxa zan, Mateo Etxebarria. Uste dot zala, Markiña aldekoa zan. Hona etorri zan, Eibarrera, arman, eskopetan ofiziuua ikastera. Ezkondu zan Maria Luisa Agirregomezkorta, orduan “Irustanekua” deitzen zetsen horrerri familixiorreri. Eta itxuria ziran herrixan, pixkat honek, “señorito” edo zera. Eta ezkondu zan horrekin, Maria Luisa Agirregomezkorta. Ta eskopetan uste dot jardun ebalu, ikasten nunbaitten. Hori ez dakit nik, nere anaiak gehixago ekixan horrek gauzok. Ta, ba, orduantxe hasi zan damaskinaua, itxuria, Eibarren, ta pentsau eban, ba, urria preparatzen hasi, edo zelan. Oin, ez dakit nun ikasi eban be eta zera. Txirixokalian, Txiriokale 6, hor bizi ziran, eta hortxe ipin eben taillarra planta bajan. Bai. Eta nik entzunda dakaten moduan, ba, orduan... zelan deitzen jako “yunkiari” euskeraz? Beno, orduan, zera, ba, kalia joten ei eben. Bihar erdixa, itxuria, kalia eitten eben, Txirixokalian. Eta hor be jaixo ziran, hor etxian, ba, Toribio Etxebarria, Blas Etxebarria... horrek danok hor jaixuak dira. Hor urte askuan itxuria egon ziran.

– Zelan lortzen zenduen materixala-edo? Zure aitxak nun lortzen zeban urria? Edo zer prozesu zekan horrek?

– Hori, ba, erosten genduan... lingotiak izaten ziran. Eta zeguazen lingotiak, ba, 250 gramo, kilua, 500 gramokuak... Ta neri akordutzen jata gehixen erosten ebela Donostian. Eguan bat urria afinau eta lingotiak ein. Madriden be baeguan, Madriden, eta ondiok seitzten dau. Baiña jeneralian gure aitxak, nere akorduz, hor erosten eban, Donostian. Ni juaten nitzan. Eta gero, ya, piskat martxan hasi gintzazenen Bilbon be bai. Bilbon be baeguan etxe bat, *Polispania*-edo zan orduan (gero *Indumetalek* hartu eban). Hor jardutzen genduan; neu juaten nitzan erostera.

– Zelakuak ziran?

– Lingotia. Txokolatian ontzian tamaiñokuak batzuk eta beste batzuk luzetxuaguak. Eta gero hasi gintzazen, ba, laminatzen. Laminatzen. Eta harixa eitteko fundidu eta barrak etaratzen genduzen: barrak etara eta, ba, trefiladoria pasau. Bai!

– Eta hor trefiladoran pasauta, zer lortzen zenduen, harixa?

– Harixa; trefiladoretan harixa. Harixa izaten zan damaskinaurako, mehiena, 7 zentesima t’erdi, 7 zentesima t’erdi. Ta txapia, saltzen zebena, harek zentesima bat inguru eukitzen eban. Da gero, ba, izaten zan, bihar hobia eittia nahi bazan, txapia lodixagua, harixa be loditxuagua... Bai ba, zenbat eta lodixagua sartu karestixago urtetzen zeban, baiña hobia. Hobeto, hobeto!

– Eta urre klasiak zeren?

– 24 kilatekoa. 24 kilate, fin-fin-fiña. Gero zidarra be sartzan zan. Zidarra merkiagua beti, askogaittik gaiñera. Baiña zidarrian perleaua-eta eitten eban. Eta zidar hau izaten zan ikasten, damaskinau-eskolan ikasteko, alumnuak urriakin ein barik, zidarrakin eitten eban dana. Zidarra be prozesu iguala.

– Eta zeuek zidarra be...

– Bai, bai. Zidarra ta urrea. Bai. Da gero, 18ko urrea eitten genduan, txapak. Harek eitten ziran inzialak, “*efia*”-eta, inzialak eitteko. Eta eskopeteri be sartzan zetsen, eskopeta oneri. Ba, igual, inzialak, eta kañoiari, ba, “*uno y dos*”.... 18 kilatekoa hor asuntuan. Ostian, damaskinaurako dana fiña, 24koa.

– Hobia da?

– Maleabliaua, bigunaua, eta puru-puru-purua. Bai, puru-purua.

– Eurak damaskinadoriak esaten dabe, urre berdia eta urre gorrixa.

– A bai! Urre berdia ta gorrixa. Gorrixa zan, ba, fin-fiña, urrea bakarrik. Eta urre berdiari zidarra nahastatzen zetsagun. Ahaztuta dakat oin zer proporziño. Ez dakit zenbat zan, 20% edo zenbat zan. Zidarra sartu eta urtetzen eban urre berdiak.

– Zertarako erabiltzen zan hori?

– Distingitzeko. Distingitzeko damaskinauan, ba, distingitzeko. Pintturan esaten dan moduan pixkat gorrixa ta horixa, pixkat distingitzeko. Ba hor be eitten eban, ba, urre gorrixa eta urre berdia sartu, figurari zertzeko.

– Animalixian parteren bat...

– Bai, bai. Edo bertan zerian. Gero relibia eguan. Reliebia izaten zan alanbria. Alanbria, ba, 7 dezima inguruko alanbria, milimetrua baiño mehiagua. Eta harekin eitten zittuen

reliebian. Ha ya zan kategorixa haundixa. Animalixak, zuk esan dozuna, animalixeri korputza ta arpegixa ta honek zerak reliebian. Ta eskopetetan be askotan sartzen eben reliebia inisialak eitteko, reliebiakin, urre fiñakin.

– Guzti hori eitteko prezisiño asko biharko zenduen, ez?

– Ez! Hilerak ziran, diamantezko hilerak izaten dira. Eta hantxe pasau, eta norberak nahi eban medidara. Ta baitta damaskinadoriak eurak eukitzen zittuen hilerak, terrajia esaten etsen eurak, burdiñazkua. Ta igual, eruaten eben *cero-ochentakua*, alanbria. Ta gero eurak ipintzen eben eurak nahi eben medidara. Porke, por ejemplo, animalixiari hankak-eta mehiaguak dira, ta eurak ipintzen eben, ba, *cuarentara*-edo jatsi, ta *cuarentakuakin* ein. Da korputza pixkat lodixagua, ta bai.

– Zuek saldu beti...

– En bruto. Bueno, einda. Zera, txapia ta harixa, holaxe. Beti hori.

– Baiña harixa beti klase bat.

– Eskatzen zebena; eskatzen zebena. Mehiena izaten zan 7 zentesima t'erdi. Hortik gora nahi ebena. Gero eguan, hori be loditxuagua, harixa. Hobia nahi bazan eittia, harixa be lodixagua sartu.

(...)

– Orduan zenbat fabrika zeren urre-harixa eitten zebenak?

– Iñor bez. Madriden eguan bat, *Sociedad Española de Metales Preciosos*. Oin be bada-go. Ta hor fransesak ziran. Baiña ez eben konseitzen txapia eittia. Ez!

– Lehen orduan zuek zekazuen patentia.

– Bai, geuk! Ta danera etortzen ziran. Parisen be baeguazen damaskinadore bi-edo, baeguazen. Harek be etortzen ziran bakotxian eruaten eben urria hara.

– Eta sekretua zein zan?

– Ba, pazienzia! Pazienzia zan. Porke batzuk pentatzen eben dana automatikua zala; makiña automatikua. Ta ez! Pazienzia. Ta gero, suberatu be urria eitten genduan guk, zerian, lanparilla alkoholezkuetan, suberatu. Gero pasadia emoten, pasadia emoten gogortu eitten zan ba "*krrrraa*", ta bigarrena ezin zeikian emon. Pasadatik pasadara suberatu, "*recocer*" esaten zana. Ta harixa be igual. Harixa be pare bat bidar-edo suberatu. Gero, zerian sartzeko be, damaskinaua eitteko be suberatuta. Guria bigun-bigun-biguna bialdu bihar zan.



ANGEL ALBIZURI

Kaletarra, 1921

Keixapian eitten eben

– Lehen eitten zan keixapian. Keixapia zan keixia, ta egunsentixan jartzen ziñan, ta zozo-birigarruak etortzen ziran. Orduan Eibarren afiziño haundixa eguan horretarako. Orduan be Guardia Zibillak ibiltzen ziran, ta Mikeletiak, baiña zainduta.... Goixeko bostetan danak etortzen ziran, keixapera. Jartzen ziran txabola bat einda ta mordua hiltzen zenduazen: zozo-birigarruak kantidadia. Prohibiduta zeguan. Ta gaur egunian esaten dot nik astoke-rixia dala umiak holan hiltzia, ezta? Baiña orduan holaxe zan. Orduan pentsatzen zan hori normala zala.

– Zer zan, nausixena edo gaztiena? Jende nausixa?

– Jente nausixa. Ta harek nausixak, gaztieri guri, eskopetiakin ibiltzarren, ba, euregaz juaten giñan, gaztiak. Behin akordatzen naiz, zerian, goixeko... gabian sapaixan ein genduan lo, basarri baten sapaixan. Akordatzen naiz ointxe be, sapaixan. Jota, badakizu, zapaixak lastua sartzen jatzun. Jole! Bueltak ta bueltak! Gero jua giñan, ta han, zu arbo-la baten ta bestia handik kilometro batera-edo. Ta bat zan, Orbeanian biharrian eitten zeban, ta ha ipinitta zeken beste baten, beste leku baten, ta gabian harek bilddurtu ein zan, ta deittu etsan gure aitxari: *"hamen bat pasau dok aintxixiketana"* goixeko bostetan esan etsan, ta, *"goixeko bostetan zelan pasauko dok bat! Eure zerak dittuk horrek"*. Ta hantxe zerian mordua ein genduazen. Baiña, gero, Guardia Zibillak-eta zaindu ein bihar ziran, Mikeletiak-eta. Mikeletiak txarraguak Guardia Zibillak baiño. Mikeletiak segidu eitten etsuen antxixiketana, bertakuak ziran-ta! Ta, Guardia Zibilla ikusten zenduan, ta bai, hartu ezkeru bai. Baiña Mikeletiak! Harek gogorrek ziran! (...) Mikeletia bertakua zan, ta ha gatxagua zan.

– Eibartarrak ziran? Mikeletiak Eibartarrak ziran?

– Hamen ingurukuak, hamen ingurukuak. Hamen jeneralian ez. Hamen, inguru... Oñati, eta... Euskaldunak baiña! Ta basarriko semiak!

Perretxikotan gazte-gaztetatik

– Nik ekin netsan zortzi urtegaz-edo. Aitxagaz juaten nitzan perretxikutara. Eta badakizu gero: bata hartu eta afiziñua [bertara] eta ikasi! Txarrak eta onak eta zerian. Eta gero segi zerian. Gu einda gaoz, aitxa ta bixok, zerian, Andra Mari Martiko esaten etsen, zerian, martzuan (ez dakit 25 zan, edo... Andra Mari Martiko euskeraz esaten detse). Ta ekarri genduazen, ba, perretxikuak hiru bat dozena, edo dozena bi, urritxak, ta beste dozena bat birigarrokumak. Esaeria esaten da, "*Andra Mari Martiko, karga-abarra lepuan ta birigarrokumak kolkuan*". Ekarri genduazen orduan. Perretxikua, hamen inguruan gehixen zana, Moru esaten etsen. Lurra diferentia da, gorrixa. Lehelengo etortzen dana. Oin be iñun ez dagona botako eban. Oin kanbixauta dago piskat, baiña zera. Hori dago... Arraotz? Badakizu Arraotz? Bueno, Arraotzko goixa baiña beherago. Han txabola bi dagoz, behian. Ta ha, oin galdu da zera, baiña ha mendixa, Moru esaten etsen, Moru ez, hari esaten detse, zelan esan detsut lehen? Hori ez da... Moru zera da, Maltzan gaiñekua.

– Elgoibarko...

– Bai. Baiña hau Buztingorri! Buztiña gorrixa. Ta lehelengo perretxikua ekartzen zana hori. Ointxe be lehelengo bat edo bi botako dittu horrek, zerian. Ta horra juaten giñan lehelengo.

(...)

– Gu gaztiak eta aitxak ekartzen zittuan, astegunian, juan ta mahaixa, zerekua, komedorekua goixeko zazpi t'erdietarako, garbittuta danak, urritxak edarrak. Ta ama jaikitzen zan, ta: "*ene urritxak!*" ta esaten etsan "*emon honeri laguneri, honek olixo asko gastatzen dabe-eta*".

– Orduan, batzuk pozik perretxikuak jatiarren, baiña beste batzuk...

– Bueno! Olixo asko zala, ta... Gerra aurrian olixua! Badakizu, jentiak "*al dia*" bizi ziran orduan! Eibarren jente mordo bat, ta perretxikuak... Pentsaizu orduan, tabernetara, perretxikuak eruan, kazia be ein, ta tabernarixak eurak garbittu, ta dana eitten eban. Hutsa kobratzen etsuan, gerra aurrian. Gero, gerria akabau zanian, eruaten etsuan, ta iñok ez eban nahi zerik, ez lumatzia, ez garbitzerik, ta ezebez, zerian.

– Gerra aurreko ohitturia zein zan, holan, hartzen zenduezenian perretxikuak, gero afari-merienda edo zeozer eittia tabernetan?

– Bai ! Hartzen genduan, ta gu por ejemplo, Bariñan igual hartzen genduan susak igual, neguan. Juan susak, bajatu, (lehengo susak edarrak izaten ziran Bariñan), eruan ta zarbuzkailluak eukitzen zittuan. Lehelengo perretxikuak jan... zarbuzkailluak lehelengo, Bariñan zarbuzkaillua tabernan kazueletan etaratzen etsuen *trrrrrr* zarbezkaillua. Bueno, ezkaillua gehixago. Ha jan ta gero urritxak. Jaten zenduan, bueno!

Perretxiko-lekuak

– Hamentxe zeguan, Bariñan, Agiña aldian, basarri bat. Ta piñadi bat eguan. Ongotan? Ha zan gauza ederra! Piñua garbi-garbixa zan, makurtu bai holan? ta onguak ikusten ziran. Ha zan han ha! Jole! Atsaldeko, taillarretik urten sei tx'erdietan, juan ta hartzen zenduan. Bota eben ta fuera! Hamen perretxikuetan, hamen inguruan gehixen, hamen Osteittako pagadixa. Badakizu zein dan Osteittako pagadixa? Salvador? Ba hortik ekin ta Plaentxiaraiñok dana pagua zan. Osteitta. Zan hori zerian, Plaentxiaraiño. Ta pentsaizu, badakizu [jendiak] zer eitten daben? Goxian, zortziretan, goxian, zu pasatzen zara, hartzen dozuz perretxikuak; arratsaldeko bostetan bazatoz bertan lekuan, ta atzera perretxikua. Perretxikua bertan! Hazitta! Ta hamen egoten da, Osteittan, gaur juan, batu, bixar juan, ta atzera be bai. Jentia holaxe juaten zan.

– Tokirik onenetakua horixe.

– Bai. Hamen inguruan Osteittakua zan... Bestiak be bai. Hamen Moru, ta... asko zeguaz. Hamen zerian, hamen, Azkonabittan, ta Egotxiakua. Egoetxia, Egotxia. Egotxia da, Elgeta badakizu, igo ta eskumatara. Egoarbitzarutz! Ha dana pagua zan. Laua. Ha egoten zan perretxikuz jositta. Ha zan! Jentia juaten zan, domeketan-eta, familixak jatekuakin haraxe. Zerera, jateko. Ha zan ederra. Baiña haren moduan beste mordo bat zeguazen! Urriñera juan barik! Pentsaizu, kuletrua-ta hartzen genduan guk Matsarixan. Matsarixan gaur egunian zera dago han, ABCia. Han, ABCia baiño lehenago gaztaiñadixa zeguan. Handik kuletruak ekartzen genduazen. Ta Katxoneko gaztaiñadixan, hamen zerian be bai, hamen, Dos de Mayo hortxe, zerian, egoten zan perretxikua.

– Nun zeguan hor gaztaiñadixa?

– Ba, Katxoneko gaztaiñadixa esaten etsen, ba, gaur egun egongo da, Katxoneko gaztaiñadixa izango da, tabernak badagoz, ba, Dos de Mayuan, calle San Juanen? Haxe aldia, haretzek danak izango ziran.

– Ta bestekalderutz? Urko ingururutz edo Kalamuarutz?

– Kalamuan be bai. Kalamuan be San Romaneko pagadixa famosua zan, San Romanekua.

Ta ointxe be hartzen diraz han perretxikuak; urdiñak han. Hartzen da, han be hartzen diraz. Ta Santakruz aldian be bai, baiña ez hainbeste. Baiña hamen, Egotxian-ta... Honek hamen, zerian, Beizuko zabaliam, ta hor behian... Beizuko zabala. Gorago. Osea, Azkonabittan beherutz. Badago ba han oin, bide bat dago, Azkonabittara igotzeko. Bidia, Azkonabittara igotzen dozu. Ha dana. Oin piñua dago, baiña dana ha pagua zan. Han paguak dana, paguz jositta. Ta hantxe zeguan zer bat. Jaten genduan guk lanpernia, maietzian ekinda: lanperna horixa. Ta ha hasten zan.... zer arbola zan ha? Musgua bai? Musguan urtetzen eben maietzian. Gozua! Horixa, e? Gozuetakua! Jaten genduan, maietzian jaten genduan. Harrezkero jua nitzan ta ez. Ez dago oin zerik, dana apurtuta dago, baiña musguan urtetzen zeban. Ta lanpernia be, aitzak-eta ekartzen eben. Martzurako ekarri eitten eben ha; jaten genduan lanpernia. Ta oin lanpernia be galduta dago. Ona dala, baiña ez da fixatzen jentia. Osea, kanbixauta dago atmosfera edo zera. Piñarixa... ez zan piñarixia. Ta hori horixori hasten da oin piñadixan, ta paguetan be. Paguetan ekarri dittut nik.

(...)

Onguak jeneraliam, nik neretzako, hau parajiau, San Migel parajia-ta, ta hau Anbre parajia, Oiz, gehixen horretzek diraz. Ta hamen be botatzen dau, hamen zerian, Salvador onduan, baiña horrek gehixago diraz. Oiz ta horrek, horretzek diraz gehixen. Ta enkanbio, enkanbio urritxa ez dabe botatzen horrek; gitxi botatzen dabe. Gitxiago botatzen dabe. Urritxak-eta hamen, hamen zerian, botatzen dabe, oin gitxi dago, ezta? Baiña hamen inguruetan gehixago botatzen dau urritxa. Hamen ta zerian, Elgetan ta Kanpazarren, ta zerian, gehixago urritxak eta urdiñak.

– Gozuenak zuretzat, jateko, zeintzuk dira zuretzat danetatik?

– Kuletrua edarra da. Kuletrua ixa... Neretzako onenak diraz kuletrua, urritxa... oin udabarriko zera, urdiña be bai; horrek hirurok. Horren modokorik ez dago. Ongua-ta... baiña nik ongua baiño nahixago horrek. Urritxa be ederra da, hori urritx txiki zerori, oingo barrixori, hamengua. Pua! Hori piskat berakatzaz... hori inponentia da. Eta hau kuletrua be gozuetakua, bai prejiduta ta bai tortillan.

(...)

– Maietzian lehelengo ekitzen dana, bueno oin ez da hartzen asko, baiña lanpernia. Lehelengua lanpernia etortzen da. Lanpernia batzuek jaten dabe, beste batzuek ez. Ta lanperna horixa be, ni neretzako jan leike, baiña jentiak ez dau jaten oin. Gero etortzen da urritxa, urritxa. Por ejemplo, maietzian ekitzen detza lanperniak, marzo-maietza, gero juniuan urritxa parte batzuetan ekitzen detsa. Oin ya junio zerian urritxa; urdiña be bai. Ta julio erdi inguruan zera, urdiña leku askotan sartzen da. Ta egualdixak eitten badittu

zerak, ongo batzuek be bai, onguak be bai ekitzen detse, segun egualdixa zerian. Ta gero, agosto pasautakuan, setienbrian ekitzen [jakuan] pardillia ekitzen detsa, pardillia. Ta gero ekitzen detsa, pardillia ta zera, setienbrian ekitzen detsa rebolloioa. Horrek bixok ekitzen diraz. Ta gero nobienbrian hauxe negrilliori. Oktubrian eta nobienbrian ongua. Ongua ekitzen detsa. Ongua, hamen, botadak egon diraz, hamen be bai, zerian, onguetan. Esan detsut, hamen, Oiz eta San Migel aldiak gogorrek diraz. Ta hau, Salvador be bai, zerian. Gero, onguetan, zera da onguetan igual, Billareal. Onguetan botatzen dabenian kantidadia botatzen dau, baiña igual biaje mordua hara, ta hamen fazillago juaten zara. Ongua. Ta oin dabil, neguan, ba ongo batzuek: bata hartu dabela hiru edo lau... Baiña nobienbrian botakadia egoten danian, ongua ekitzen da, ongua. Gero horrek salto eitten dau udabarrira.

– Neguan, gero, ez dago ezer?

– Ez dago hola, zerian. Ta kuletruak ekitzen detsa, ba, berak nahi dabenian, julio, juniuan be bai, oktubrian be bai, kuletrua... Baiña ha banakia. Ta gero susia ekitzen detsa, hortxe marzo lehelenguetakuan susak. Susia zerian. Ta hauxe, senderuelia be, denpora asko eitten dau horrek. Igual setienbrian be bai, zerian. Ta txanpiñoiak, julio-setienbre. Honek hille mordua eukitzen dau segun zer egualdi eitten daben, baiña oin desaparezidu ein da. Urte batzuetan nik ez dakit zer pasatzen jakon! Oin, horrek urten dabena... txanpiñoiak ganaua daguan lekuan urtetzen dau, ni neretzako ganauan zimaurrek... Ta oin ganaua ixa dana kenduta dago! Ni neretzako horrek... juan ein detsa. Ta gero beste bat perretxikuen enemigo haundiña da, urritxan ta urdiñan enemigua, ardixa. Ardixa daguan lekuan gitxi egongo da. Jaten dau harek! Arrasau eitten dau!



Candido Eguren "Oka txiki" **Kaletarra, 1906**

Sozialismuaz eta munduaz

– Ez! Ez naiz izan izan beti sozialista. Lehelengo, hamazortzi bat urtera bittartian, katolikua izan nintzan. Eta egunero nere errosarixua, bai goiz eta bai illuntzian be, errezatzen neban. Eta nere boltsilluan egoten zan egun guztian errosarixua: hamazortzi bat urtera bittartian. Orduan (...) pixkat duda batzuek (...) eta irakurtzen eta ekin netsan gauza batzuek eta pasau nintzan "*al marxismo revolucionario*". Ezta? *O sea que*, komunista, esate baterako, baiña ez nintzan egon partiduan, komunistan. "*O sea que, como marxismo revolucionario*". Eta gero pasau ziranak Krustxev-egaz eta Rusian eruan ninduen sozialismo demokratikora. Eta gaur egunian ez dot uste marxista purua naizenik, ezta gitxiagorik be. Gaur egunian, pentsatzen dot indar ona eta indar txarra geure barruan dagola, egoismuan.

– Bereizkuntza bat egin duzu, kontraposizio bat egin duzu: kontra jarri dituzu batetik sozialismoa eta gero katolizismoa. "Ni katoliko nintzen..."

– Ni, lehelengotik, *católico, cristiano*.

– Horregatik, diot, hori gaurko gure egunetatik begiratuta, harrigarri bezala egiten zaigu. Zergatik zer hori?

– Ez. Ez dot uste. Nik uste dot barru-barruko... *Raíz* zelan esaten da?

– Erroa, sustraia.

– Sustrai, hori da. Guretako, sustraia. Sustrai bai relijiñuak eta bai sozialismuak sustrai bat dakela: gure ontasuna izan deilla: *el bienestar social*. Hori barruan dakagu. Bai siñisten dabenak pentsatzen dau bizimodua berandako hobia izango dala eta zerua billatzen dau: azkenengo beraren deskantsua eta beraren ontasuna. Eta hori ez dabenak siñisten pentsatzen dau bizimodua ondo ein eta aber lurrian eitten dogun paraiso bat. Baiña sustraia bixak dake bata: geure barrua da, sustraia. (...) Ni izan naizenian katolikua, katolikua, bene-benetan izan nintzan. Eta ni orduan egon nintzan ixa ordenetan sartzeko be. (...) Ni beti izan naiz bat. Eta leku guztietan esaten hiru txamarra kanbixau dittutela?

Bien. Baiña hiruretan prest bai nere askatasuna eta bai nere bizixa emoteko. Hiruretan pentsau izan dot. Horregaittik pentsatzen dot beste batzuek be, beste aldian dagozen batzuek be, nere moduan, bizi-bizi, sentidu guztiagaz, euren idealizaziñua daukela: nahi eittia haixe: zer idealizatzen daben, zer modutan nahi daben mundua gero izatia... Haixe nahi dabe eittia, bata bide batetik, bestiak bestetik, baiña danondako ontasuna ekartzera.

(...)

– Gorrotorik eta ez da hamen egon izan. Hasarriak, bai. Ikubilkada batzuek, bai. Baiña hori hasarriori nik neure onduan ez dot ikusi, ez nere famelixan, ez nere lagun artian. Eta, bertan Eibarren be, nik lagunak dittut alde guztietan. Idea guztikuak dira eta nere lagunak: bai anarkistak, bai elizatarrek, bai republikanuak, bai komunistak. *En fin*, danerakuak laguntzat hartzen dittut nik. Nik ez dot pentsatzen nere kontrarixuak diranik. Nik pentsatzen dot beste bide baten doiazela, bide apartekuan goiazela, baiña bixok nahi dogula ontasuna geuretako eta bestiendako. Eta horregaittik Eibarren ez da ezautu hori gorrotuori, beste herri batzuetan ezautu dittugun moduan: *“Zuek handik eta guk hamendik”*. Hamen izan da... Lagunok izan gara idea guztietakuak. Kuadrillak hamen egon diraz idea guztietakuak. Lehengo egunian esan neutsun zelan behin, konkurso baten, Eibarko orfeoia -hogeik konponitzen zebena, orfeoia– Portugaletera juan zan. Eta han etara zeben ‘El Missouri’. Candido Bustelos, sozialista bat, zan hango alkatia. Eta permisua eruaterakuan Timoteo Zubiate -konserbadoria, Eibarkua-, ha zan representantia Eibarko koruaren alde -bueno, orfeoia-. Eta esan zetsan Candidok: *“Bai ba, zuek koruan eta profesionalak zarie eta etarako ez dozue premixua?”*. Eta esan zetsan: *“Gu danok korukuak? Ez, mutil. Etorri hari”*. Banaka-banaka erakutsi zetsen hoge personak: bat alde batekua zan, bestia beste aldekoa, hurrengua beste aldekoa eta danak ziran diferentiak; danak desberdiñak pentsatzen zebenak. Eta orduan, Candido Bustelosek eskuak jaso zittuan korura eta *“Mekatxis, hori ez dok pasatzen! Eibarren bakarrik! Ez dok hori iñun pasatzen. Hori Eibarren bakarrik pasatzen dok”*.

(...)

– Beraren gaiztokerixak daukaz. Batetik, nik fooballian jokatu izan dot eta bastante jokatze... ondotik eitten neban. Iñoiz baiño gehixagotan agertu nintzan isparringietan *“El mejor de los 22, Eguren”*, baiña txikixa nintzan. Medio-zentro jokatzen neban, orduan izaten zan medio-zentro. Eta nere delantero-zentruak ziran danak ehun kilo, berrehun kilokuak. Eta horregaittik fooballari laga ein bihar izan netsan, ez nintzalako gorputza eta indarra nahikua fooballian aurrera seitzeko. Min bat be hartu neban eta harek be asko ein zestan, baiña, ostian, ikusten nintzan ez nintzala nahikua persona, nahikua gizon,

hárek gizonen kontra jarduteko. (...) Gero emakumietan. Emakumietan be. Batek esan zestan, neska batek, neska polit batek esan zestan: *"Candido, heu haiz mutikorik hamen polittena eta garbixena"* eta bata eta bestia. Eta ein zestan lehelengo alabanza bat eta gero esan zestan: *"Baiña txikixegixa haiz"*. Ikusizu ze eskopetazo, ze ikubilkada emon zestan harek neskiak. Eta, holantxik, txikittasunak beraren erruak... beraren gauza txarrrak daukaz.

– Baina gizon izateko nahikoa.

– Gizon izateko ni bestien beste izan naiz eta sekula ez naiz bildurtu metro biko gizonen aurrian.

(...)

– Liberalak ez ziranak, karlistak, Eibarri fama txarra emon zetsen. Eske eze Eibar zan punto bat Donostiagaz eta Bilbogaz eta, ez dakitt, Irunegaz, ziran ez ziranak karlistak; mordo bat zeguazen han liberalak. Lehelengo gerran asko resistidu zebe Eibartarrak, baiña gero Zumalakarregik irabazi zeban batailliori eta Eibar hartu zebe. Baiña borroka haundixa einda. Eta bigarren Karlistadan zientuka gizonak iges ein zebe Donostiara Aiuntamientu guztiagaz. *O sea que*, Eibarrek ez zetsan emon laguntasunik karlismuari. Eta hórrek ekin zetsen eibartarrak gaiztuak giñala, madarikatuak giñala.

- "Eibartxarrak".

– Eibartarrak. Hórrek ekin zetsen. Eta esango detsut: bat, nere aitta besuetakua, Elorrixoarra, ez dakitt kabua ala sargentua izan zan karlistegaz; eta harek, ni bautizau ninduanian, despedidia izaterakuan, *"ai, ume. Ze leku txarretan lagatzen haut"*.

– Eibarrengatik.

– Eibarregaittik. Hori amak eta tiak neri kontatzen... sarrixan esaten zesten hori: *"Hire aitta besuetakuak hauxe esan zeuan"*. Bai, bai, "eibartxarra". Eibarrek fama txarra euki zeban, madarikatua zan Eibar.

(...)

– Baiña hori naturala da. Nik esango neuke elixan be katolizismua eta protestantiak dirala bestekaldera. Eta alde guztietan, grupo bat eitten danian, gizonak segiduan dibiditzen dira: batzuk alde batera eta beste batzuetara. Ez dogu igual pentsatzen. Eta igual ez dogunetik pentsatzen, alkarri jardutzen dogu kontraka. *"Ene, zer esan gura dok horregaz? Zer ein bihar dok horregaz? Hemen ikusi deigun"*. Eta juan barik holantxe estudixa-

tzen gauzak: "Horrek A esaten dau; nik, B. Akabo". Eta batak alde batera eta bestiak bestera. Eta komunismua be halantxen agertu zan. Komunistak diktaduria... zera, indarragaz ekarri bihar zala eta gero diktaduria eukin bihar zala Gobiernuan. Eta, *en cambio*, sozialista demokratik: ez, demokrazia barruan, botueguz eta ekarri bihar dala, pixkaka-pixkaka; eboluziñuaren bittartez ekarri bihar dala hori reboluziñuori.

– Biak dira, gainera, urbanoak. Kalekoak dira. Ez dira baserritarren artekoak.

– Ez, ez, ez. Urbanuak dira. Hórrek basarritarrak eta gero etortzia gerokua da. Beraren sustraixa —bai sozialismuak esan gura dot, bai anarkismuak be— zerian eukin dabe beheko herrixan.

– Herri apalean.

– Herri bakokuan, gosia eta nezesidadia zeguan lekuan. Aberastason bittartian ez dau urtetzen holako idearik. Aberatsa ondo bizi da. Harek ez daka [...]. Kanbixorik ez dau nahi beraren bizimoduan. Kanbixua nahi dabenak: ez daukanak nahi dau kanbixua. Eta ez daukana zein da?

– Behean dagoena.

– Eta gero esan dozuna: basarritarrak ez eta zera. Basarritarrak beraren bizimodu aparteko bat badau. Bera bakarrik bizi da: bera eta zerua eta lurra. Basarritarra. Baiña gizonak, bihargiñak, alkar ikusten ziran: bata fraka barik eta beste bat kaltzetin barik eta beste bat zapatarik barik edo txamarra barik. Danak falta zebeñ, zeozer nahi zebeñ gizonak ziran. Eta alkar... danak juntauta zeozer ein. Ezta? Hartzen dozu madal bat, hartzen dozu madal txiki bat, hartzen dozu eta ha bizkor apurtuko dozu. Baiña madal mordo bat juntatzen badittuzu eitten da forma bat ezin dozuna apurtu: danak juntauta gehixago gara bakarrik juanda baiño. Eta hori berezko bat da, zitudade baten, herri baten, jente asko juntatzen dan lekuan, izatia sozialismuak eta etortzia. Basarritarrak ez da eukin... gaizki bizi izan dira basarrixan eta mordo bat, e! Ez dira basarrixan danak ondo bizi... Baiña hárek bakarrik ziran, bakartadia zeuken. Eta, *en cambio*, kalian, alkar ikusten gara: eta ez bakarrik bat eta bi, zientuak edo millaka.

– Eta gero, gainera, ordu gehiago ere bai eta liburuak manejatzeko modua ere eta keja ere: bai gosea eta dena.

– Gosia eta dana. Eske eze zuk ikusten badozuz basarritarrak, esaten dotena: zerua, lurra eta bera, beraren famelixia. Baiña kaletarrak aberatsak, pobriak, batzuk ondo bizi diranak, batzuk dirua gastatzen mara-mara esaten dana eta beste batzuek zentimo barik. Eta hórrek kontradiziñuok jente asko dagon lekuan, herri baten, agertzen dira, ez basarrixan.

MIGUEL GALLASTEGI **Asoliartza (Mandiola), 1918**

Pelotan zelan hasi zan

– Ba, pelotan ni hasi nintzan... Lehelengotik Aiuntamentura, eskolara edo, hamar urtekin edo, hamaika urtekin edo holan pixkat. Eta gero aittari eta amari soluan biharrian eta laguntzen netsen pixkat. Eta handik hanka eitten neban batzuetan frontoira. Han gure etxetik, bastante urrin eguan, Eskola Armerixatik aurrera fanda, frontoia, Kiputxanekua. Eta hantxe jokatzan genduan lagunak eta pelotan. Eta beti, *en fin*, afiziñua neukan pelotarako haundixa.

– Eta jada hamazazpi urterekin, oker ez baldin banago, debut egiten duzu. Hamazazpi urterekin.

– Bai. Hamazazpi urtekin ekin netsan. Pelotazo haundixak jotan nittuan: batzuek hutsak be haundixak eta beste batzuek esaten esten *“hik pelotarixa izan bihar badok, ni fraille izango nok”*. Orduan karrera zan fraille izatia eta. Eta beste batzuek, beste intendido batzuek, esaten esten: *“Hik dakaan formia pelotia joteko, hik dakaan itxuria, iñork be ez jakak. Hi zaindu hari eta segi pelotan jokatzan”*. Eta nik... nere pentsamentua horixe zan: pelotarixa izatia. Eta nere aureola zan, aber, pelotari nahi urtetzia, nahi izatia. Eta debutau neban.

– Eibarren.

– Eibarren. Astelenan. Fronton Astelenan. Eta Marinori jokatu netsan lehelengo partidua. Eta galdu ein netsan. Eta gero...

(...)

– Gerra aipatu duzu eta badakit garai hartan bai Karakate eta bai Kalamua inguruan frentek bazirela eta Eibarko Astelena pilotalekuan soldaduak ere sartu zirela eta ez pelotan jokatzera, ezta?

– Ez, han koziñia ipiñi eben. Eta zer eitten genduan? Koziñiak zati bat okupatzen eban eta beste zati bat frontoia libre. Eta garbitzen genduan frontoia eta hantxe eitten genduan. Donostiako jentia eta eguan, pelotan eitten ebenak batzuek. Eta hantxe jokutzen genduan pelotan, frontoian, Astelenan.

– Eta gero Gasteizera, Vitoriara, joan zinen. Eta han ere bazenuen nonbait tenienteren bat edo lagunen bat pelotarako bidean jarri zizuna, ezta?

– Lagunak ein nittuan. Lehelengotik, bueno, Vitorixara fan baiño lehenagotik fan nintzan frentera. Frentetik etorri nintzan Vitorixara. Picos de Europa, Peñas Blancas... hori danori ein genduan frentetik. Eta gero Teruelera jua biharra euki genduan. Teruelera eruan ninduen. Eta handik gaixorik etorri nintzan Vitorixara. Eta Vitorixan elgorriza pasau neban. Eta, bueno, hantxe ekin netsan: lagunak euki nittuan onak eta, pixkaka-pixkaka, gustau eitten jakuen nik pelotia jotzen neban modua. Jokutzen ikustia eureri be gustau eitten jakuen, itxuria. Eta beti. Bueno. Ba orduan eguaztenetan edo faten nintzan ensaia-tzera. Eta afiziñua, Vitorixakuak: faten ziran, zain-zaiñ. "Etorriko dok ba gaur jokatzera? Ez dok ba etorriko?". Eta hantxe. Eta igual biren kontra edo jokutzen genduan eta, *en fin*, baiña pelotari handixa. Eta akordatzen jata, egun baten, bertako enpresarixua, Fiz Alti, gizon ona...

(...)

– Zer zinen, apetito onekoa? Ehun kilotan jartzeko ez zinen apetito makalekoa izango

– Bai. Orduan apetito ona. Orduan apetito ona. Ona. Baiña beti zainduta, e! Ez naiz izan hori asko jan eta betetzekua eta ez dot nahi izan. Ondo bai jan. Eta ondo zaindu.

– Eta atentzioa eman dit zure inguruko kronika batzuk elkarrizketa prestatzerakoan irakurtzen aritu naizenean. Ba ikusi dut zure entrenamenduetan ia egunero aizkora ere sartzen zela. Joaten zinela baserrira eta hogeit bat minutuz edo beti aizkoran saioaren bat egitzen zenuela.

– Nik lagunak beti euki dittut panaderuak. Bueno, hau, nere zera, managerra izan zan, partiduetan laguntzen zestana, panaderua zan. Eta beste panadero bat be, Jesus Ugalde, zan panaderixia eukana. Eta orduan panaderixara egurrak ekartzen zittuen: bertan brinkatzeko eta bertan laban sua eitteko. Eta ni han beti egoten nintzan. Eta nik eitten neban –baiña hori sarri– fan eta ordu laren bat edo hogeit miñutu aizkoran. Eta neretzako, besuetarako eta eskuetarako aizkora kertena baiño hoberik pelotarixandako ez dago. Batzuek barre eitten esten. Baiña nik nere zera eitten neban. Eta han etara bai izardi pix-

kat eta kotxia hartu eta frontoira, fronton Astelenara. Eta Fronton Astelenan igual biren kontra, entrenamentura. Baiña gogor gaiñera, e! Igual kilo bi kendu. Sarrittan kendu dittut nik kilo bi entrenamentuan, frontoira fanda. Kilo bi e! Eta orduan nere pentsamentua izaten zan: nik entrenamentuan ondo ez baneban jokatzek —biren kontra jokatu bihar nebanian edo hiruren kontra edo—, ez badozu ondo jokatzek entrenamentuan, partido bat ezin dozu ondo jokatu. Neretzako entrenamentuan jokatu bihar da ondo. Eta gero, *ya* partidua jokatzera zoiazenian, “*hombre, hau dok erreztasuna dakatena pelotan jokatzeko!*”. Hori ba batzuek siñisten dabe; beste batzuek ez dabe siñisten. Orduan denporan be horixe: pelotari batzuk pentsatzen eben... *Mano y mano* jokatu bihar, eta jua ten ziran frontoira ensaiatzera eta izardi pixka bat etaratzen eben eta “bueno, nahikua ein juagu eta ondo daok”. Eta ez. Ni ez naiz holan. Ni sarrittan fan naiz, partidua jokatu ta baiño, kantsauago einda entrenamentutik etxera.

(...)

– Hárek ziran pelotak, gustoko pelotak! Hori sarri esan dot: nik jokatu dittut partidu guztiak Atanokin berak ekarrittako pelotekin jokatu dittut. Eta pelota onak ziran, bai berandako eta bai neretzako. Gustokuak. Eta horixe bihar da pelotan. Sentidu ein bihar dozu pelotia. Ez badozu sentitzen pelotia alperrik da.

– Gainera, Miguel, esan behar da ia esku hutsik jokatzek zenutela. Esparadraro txiki batekin.

– Klaro. Bai. Horixe bazeukazun, hamen daukazun moduan ebagixa, hamen eta hamen ebagixa. Hori tapau ein bihar dozu pixkat. Baiña gaur ipintzen daben moduan trapua eskuetan, ezin leike pelotarixak gozau pelotarik. Hori sarri esan dot: ezin leike gozau. Gaiñera beste gauza bat hor pasauko da, seguramente. Eskua tapauta, lotuta trapuekin, bai, eta izardixan gorputza eta eskua hotzak. Eta hori zegaittik da? Odolak ez dabelako korritzen. Eskuak libre egon bihar dau. Eta pelotia sentidu ein bihar da eskuan, neretzako e! Eta pelotia eskuan sentitzen badozu, bota eitten dozu kortadia edo zabalera edo atzera, badakazu formia pelotia joteko. Baiña gaur, klaro, ni ez noia ezer zertzera, baiña gaur pelotan eittera igual detsa atzelarixari pelotia hiru kuadrutan hartu edo bost kuadrutan hartu. Atzera, atzera eta atzera. Klaro, hori konprenditzekua da: holan, eskua tapauta, harek ez dau sentidu be eitten pelotia. Atzera. Azpittik igual joken dau eta atzera pelotia. Akabo. Klaro, gaur ez da egoten kortada bat, ez da egoten. Zabalera ez da joken eta lehen pelotia zulotik etaratzen zanian, ezkerakin eta joken zan zabalera eta erdixan dagon jueza hanka ein ezinda ibiltzen zan. Eta kortadia, igual, zabalian hartzen zenduanian kortadia, hiru kuadro inguruan joken zenduan kortadia txapa gaiñera eta boterik be ez igual. Eta aurrelarixa ibiltzen zan aurrera, atzelarixa edo hortxe maneju ezinda. Baiña gaur dakazuz partiduak kortada bat jo ez dabenak, zabalera ez dabena joken. Ni ez noia esatera gaurko pelotarixak txarrak diranik.

(...)

– Zan orduan... Dana goixan eta dana zan kristala, dana kristala. Dana kristala zan. Eta behian pixkat koskak baeguazen, baiña frontisa ona. Eta ezkerreko pareta be onenetakua. Pelotan jokatzeko, bai orduan eta bai gaur be frontoirik onena Eibarko Fronton Astelena da. Gaur nik ez dot jokatu baiña ikusi ein dot pelotan eta zelan pelotia faten dan eta dana. Jokatu ein bihar da. Han jokutzen dabenak... Jokatu ein bihar da, Eibarren jokatu. Eta, hortik aparte, oindiokan be, fronton Astelenan daguan jenterik eta gehixen entenditzen dabena asko dago frontoian. Eta ez dot esaten hori ni Eibarkua naizenetik. Nik Eibarko jentiarri asko gura detsat. Eukiko dittut kontrarixuak, naturala dan moduan. Baiña neretzako gaur be Fronton Astelena Eibarkua da onena. Eta han triunfatzen dabenak daka plazia leku danian. Lehen behintzat. Lehen holan zan.

RAMON SARASUA

Kaletarra, 1917

Musikia Eibarren

– Bueno ba, ni jaixo nintzan ba, famelixa... musikuen famelixan (...). Nere aittitta eta aittittaren aitta izan ziran organistak, titularrak San Andresko elizakuak hemen Eibarren, izan ziran. Gero, nere osaba zan Juan Bautista Gisasola. Konpositoria, gaur konserbatorixuari bere izena ipini detse Eibarren, ipini detse. Danok, bai aittittak, aittittan aittak eta osabak, nere ama, nere aitta be juaten zan musika ikastera zerera, nere amaren etxera. Bueno, bere aittagiñarreba izan zana, harengana juaten zan musika ikastera. Hantxe ein ziran nobixo eta hantxe ezkondu ziran. Bai. *Oseake* guk famelixan, ba, gero lau anaiok ikasi genduan musikia baiña bik ez eben segidu. Bakarrik segidu genduan, ba, anai nau-sixak —Antonio— Coral Eibarresa-ko direktoria izan zanak, eta neuk. Ba ni, e, koru asuntuan sartu nintzan milla... Bueno, egon nintzan *Orfeón Eibarresian*, egon nintzan. Nere osaba, Gisasola, zan zuzendarixa. Han segidu neban, eta gero formau neban koru bat hemen, neskena: Goiargi. Hor, e, 'Dos de mayo'-n dake soziedadia hórrek. Bai. Eta hori izango zan milla bederatzirehun eta berrogeta... ez dakit. [Walksman] etorri zan hona. Aiuntamentura eruan eben «Basman» hori, estreptomizinia edo asmau ebana. Eta ekarri eben, eta aiuntamentuan, eta guri abixau eskuen juateko e... zeozer rezepeziño bat ein bihar etsen, eta kantura. Eta nere anaia jua zan gizonezkuen koruakin eta ni jua nintzan neskenekin. Eta armau zan sekulako foilloia.

– Zer ba?

– Hónek karlistok, han eguazen konzejalak eta, sekulakuak euskeraz kantau nebalako. Pentsau ze denporatzuk ziran. Hori izango zan... 1949xa izango zan hori. Gero aurriz, Gabon egun baten —1943an edo 1942xan izango zan— deittu zesten aiuntamentotik eta ein bihar zala hemen '*La Navidad del pobre*' edo, ez dakit zer zan. *Cáritasekua* zan. Eta orduan esan esten, ba, asmatzeko, bandiak in urten bihar genduala. Banda munizipalakin urten bihar genduala. Eta formau neban nik grupua. Ba, asko-asko giñan, neskak eta mutillak ba, izango giñan 80 edo izango giñan, edo gehixago. Eta danok basarritar jantzitta jua bihar giñan. Eta nik zuzentzen nittuan, eta gero, ba, bandiak in zan. Bandia eta korua, eta Olentzeroren zerori, karroziori edo zerori. Eta Gabon gaban, ba, oitturia da, goixago afaltzekuada ezta, ohitturia. Eta ni jua nintzan, basarritar jantzi nintzan osaba

baten etxian eta juan nintzan akademixara —hau musikako akademixiau, horkua—. Llegau nintzan hara eta zain eta zain eta zain, eta ez eban urtetzen horrek kabalgatio-rrek edo zerorrek. Eta musikuak, zaharrak. Ni baiño zaharraguak ziran bandakuak eta: *“Hi, ze pasatzen dok hemen? Ixa zazpirak dittuk eta sei eta erdietan esan eskuek urte-tzeko!”* Eta: *“A, ez jakixat nik! Hemen ordenak daguaz eurak esango dabela, aiuntamentu-kuak, noix urten”* Eta holakoren baten etorri jatan bat, errekadista bat aiuntamentu-kua, eta juateko plenuetako zerera. Juan nintzan, eta han hartu ninduen, ba, bueno, kris-tonak esaten! Bandera espāñoliakin ez bagenduan urtetzen, ez ebalu urtengo kabalga-tiak. Eta nik esan netsan: *“Bueno baiña neri ze esaten destazu ba? Neri, elixiak deittu desta neri, eta ni hemen ensaiotan hille eta erdixan egon nok eta...”* Eta amorrua emon zestan. Bajatu nintzan, eta han nekazen beheian arkuetako zerian eta danak (...) espektatiban eguazen zer pasatzen ete zan. Eta esan esten: *“Ramon, zer ein bihar juagu ba?”*, *“Nik, neri, erabagixa hartu juat nik zer ein bihar doten”*. Eta juan nintzan, nere osaba eta bizi ziran Txomiñeneko goixan. Oin Ecuador edo badago ba? Viajes Ecuador, haren goi-xan. Juan nintzan, aldatu nintzan eta kalera. Eta beste guztiak be iguala ein eben. Eta bakarrik urten eban, Olentzerok eta bandiak urten eban. Bai. Eta gero, ba, han gabian, Gabon gaba zan, eta ni, hau konpositoriaren etxian genguazen ama eta aitta eta, gen-guazen ba afaittara Gisasolanian. Eta urrengo egunian Bilbora juan bihar nintzan eta esa-ten desta e... Biharra eitten neban nik Aranberrinian, eta esan estan e... ugezabak esan estan: *“Poliziakuetatik zera dagok, deixa dagok”*. Bueno, juan nintzan eta poliziakuetan genguazela, neneguala, esaten desta poliziako eitten ebanak, esaten desta: *“A usted le conozco yo. Yo le he visto actuar a usted en el salón teatro algún festival benéfico”, “Si”, “Pues tiene usted mala papelata. Tiene usted una denuncia”* Telegramatik erakusti estan, esaten gobernadoriak e: *“...motivos por los cuales fulano de tal a ver cómo se había negado a tomar parte ahí”*. Bueno, gauzia arreglau ein zan. eibartar batekin ezkondu zan hori *Jefe de policía*kuak eitten ebana. Alargunduta eguana, eibartarrakin ezkondu ein zan, Rocha. Eta geldittu zan zerori. *Asike* lehelengo horixe zan 1942xa edo 1943a. Bueno, gero esan detsuet, gero hasi nintzan neskekin, hōnekin eta seitzen neban orfeoian. Gero, nere anaiak formau eban *Coral eibarresa* eta nik orduantxe zelau zabaldu genduan guk Amaia zinia eta ni han sozio nenguan, eta bueno, administradore han. Eta nik ez nekan astirik laguntzeko eta zera. Bueno, gero kuru parrokiakera. *Asike* beti barruan ibili naiz zerakin, musika asuntuakin. Horixe da musikako zera dakatena.

(...)

– AEKra juaten da hori! Ba, hor politto eitten jok euskeraz. Etxian danak eitten juek, jente guztiak eitten juek euskeraz. Horren sasoian ixa erderaz ez genkixan eta!

– Oin desberdiña da. Jente askok —euskaldun jentia— erderaz berba eitten dau fiñagua beittantzen jakolako.

– Ba. Ni nere sasoian esate baterako. Nik, *ya* hamabi-hamahiru urtekin euskerazko antzerkixak eitten nittuan nik! Batzokiko... Eta hori, ba, hasi hamabi-hamahiru urtekin eta gerria urten ebanian... hemeretzi urte nekazen nik gerria urten ebanian. Hemeretzi urteraiñok antzerki guztiak euskeraz eitten genduazen. Gipuzkuaeraz, e! Baiña...

– Ondo azeptatzen zan euskeria, edo...

– Eibarren? Eibarren guardia zibillen semiak be euskeraz eitten juen igual. Derrigor ein bihar. Beste ez zittuan enteratzen eze euskeraz eitten zuan. Dana! Dan-dan-dana. Eibar izan dok euskerarik gehixen ein dana

BENIGNO BASKARAN

Kaletarra, 1908

Sozialismua eta Toribio Etxebarria

– Guretako *primero de mayua* –eta neretako– beti izan da jairik nausiña. *Primero de mayua* da jai bat langilliak, bihargiñak, kontuan euki bihar dabena. Eta neri umetako gauzak akordatzen jataz *primero de mayo* aittatu ezkerik. Guk ume-umetatik, bandera txiki gorri batzuk hartu eta manifestaziñuaren atzetik juaten giñanian, zortzi urte edo hamar edo hamabi urte edo, *en fin!* Eta gero, gaiñera, ba, hórrek legiok defenditzen han. Neri sekula be ez jata ahaztutzen, *por ejemplo, 'ocho horas de trabajo, ocho horas de ocio y ocho horas de diversión', o sea*, hárek zortzi orduak eskatzen ziranian, eskatzen ziranian... Eta ume-umetatik manifestaziño guztietan, hori zortzi ordukuori etorri arte, beti ikusi izan dittut. Eta neri ez jataz ahaztutzen sekula be *primero de mayoko* manifestaziñuak, ez umia izan naizenian eta ez nausixa izan naizenian. Neretako *primero de mayua* da jairik nausiña, danen gaiñetik dagona. Neretako ez dago beste jairik.

– Oso ondo, baina beste gauza bat ere badago. Gure munduari begiratzen baldin badiogu, ezta? Ikara pixka bat. Esan nahi dut, desastre ekonomikoak eta sozialak, krisis ekonomikoak gerraren bitartez soluzionatu dituela kapitalismoak orain artean; eta zuk, Benigno Baskaran, beste gerraren baten beldurrik ba... ikusten al duzu? Ba al daukazu?

– Ez dakat bildurrik beste gerra batendako zegaittik eze bai Rusia eta bai *Estados Unidos*, bixak dakixe gerriak urtetzen badau, bixak apurtuko dirana. Eta horra, ez dot pentsatzen horra potzura iñok salto eingo dabarik.

– Gaur kainoiak ezezik beste arma batzuk erabiltzen direlako?

– Gaur armak dare, ba, herri osuak apurtzeko modukuak. Eta gehixen daukanak be, besitiak dañu haundixa eingo leskixo. Eta hori bakiori gaiñera, gizon moduan, sozialista moduan, beti billau bihar dogu. Gero, sekula be ez jata ahaztutzen Toribio Etxebarriak esan zestan argumentu...

– Toribio Etxebarria izan zen sozialisten artean *número uno*, ezta?

– *Numero unua*, bai. Toribio Etxebarriak esan zezana Pamplonako karzela pasian gabi-zela: “*Gu, bagabixaz hamen. Guk bajiharduagu burrukan gure ideologixia defenditzen, baiña dudarik be ez dagok munduan sozialismua eta baketasuna ailegauko dala nahiz eta etxian sartuta geratu danok. Berez etorri bihar dok! Gizonak ez jakak beste erremer-dixorik, bertara errendidu eta bere ideak sanuak etara flaterera, esaten dan moduan*”.

DOLORES BERASALUZE **Arrazola (Otaola-Kiñarra)**

Arrazola inguruaz

– Gazte-denporan, ba, illuntabarrerako etxera. Bestela aittak eta amak, bueno! Ixe, illundu... illunakin batera aitzia eta ni. Ni eta beste aizta bat neri seitzen destana. Hiru gara baiña bestia asko be gaztiagua. Eta gu bixok, ba, aldekuak eta beti alkarrekin ibiltzen giñan. Juaten giñan erromerixara eta bixak bildurtixak, eta bueno, bildur batekin etxera! Mendira jua bihar gaiñera! Eta bueno, ze bildur eruaten genduan gu bixok! Nik halan be, bueno, desastria, e! Eta holaxen. Bildurtixa, bueno baiña demasa bildurtixa. Eta beti bildurretan illuntzia etortzeko eta gero... Gaiñera orduan pixkat beranduago juaten bazan... Oin goixeko hiruretan eta lauretan eta bostetan eta, hori etortzen da askotan. Hori bestiori ezkondata dago, nausixa. Baiña bestia, ba, hogeta hiru urte pasauta dakaz eta ba, hori ba, berandu etortzen da. Baiña gu goixago juaten giñan eta illuntabarrian ez bazan agiri, aittak eta amak gaiñera, bueno! Oingo konturik ez eguan lehen! Bueno! Egurra, egurra! Egurra ez, baiña ño! *Aber* ze sasoi dan etortzeko eta... bueno, errespetua.

– Arduratuta.

– Arduratuta, bai. Gero oingo... Orduan, ba, trankil-trankill ibiltzeko moduan eguan baiña oin ezin leike ibilli lehengo moduan. Orduan ez eban iñok be urtetzen eta ezer be ez, ezer be ez, e! Zenbat bider juaten giñan etxera eta sekula be ez eskun iñork urten. Baten zerian, nere gizona etxian, eta hori soiñujolia da eta soiñuakin jua giñan eta urten eskuen besteren bat giñalakuan. Ba, orduan, automobilik be ez eguan eta igual, e, berrogei urte bai. Eta bagatoz bixok, eta horrek soiñua lepuan eta etxera arte. [...] ondio goratxuagoko basarri batetik. Eta za! Urten eskuen. Txistua jo etsen alkarri eta, za, urten eskuen Elgoibarko, horko bidian. Ene, guk pasau genduaz en orduan estuasunak! Bixok!

– Lapurretan?

– Besteren bat giñalakuan itxuria. Beste bat giñalakuan gu. Pentsau eren bateron bat zala, eta gu ikusi ginduzenian za, geratu ziran. Eta gure bildurra! Ha zan bildurra! Baiña zenbat holakotxe bildur pasau! Gero, gaiñera illunduta eguan orduan, bueno berandu. Gonbidau eguan basarrixan eta! Eta etorri giñan etxera eta bueno, ez giñan atrebitzen bidetik be juaten. *Eske* atzian-atzian, atzian-atzian etortzen ziran eta: “*Ai*” —nik esaten

neban— *“atzera juaten bagaittuk —Caietano eta han ezaunak— haretxeri deittuko detsegu”*. Baiña illundu eta berandua eta ez giñan atrebidu han be deitzen, eta gero: *“Azittaiñera juango gaittuk eta Azittaiñen deittuko juau”*. Baiña berandua zan eta ez giñan atrebidu hor be deitzen, molestatzia zala eta. *“Oin juango gaittuk, ba, erreka-zulorik erreka-zulo”*. Baiña erreka-zulo batetik jua giñan gure etxera, basarrira; bidian urten eingo eskuela bai, eta erreka-zulotik. Okerreko bidietatik. Bueno! Hori eta ni, ene! Zenbat holako estuasun pasauta! Desastria! Bai. Eta gero, ba, ni kobardia izan naiz beti ibiltzen eta, gabian eta, baiña kobardia! Eta gure aitzia be bai. Ba, bi kobarde pentsaizu zelan ibiliko giñan! Edozein zarraparria: pin!, jo eta geratu. Beste baten, Plaentxiako bat hil zan. Gerran gurian egondako... gazte-gazte hil zan, hogeta bots urtekua. Eta entiarrura jun bihar genduan, eta orduan gerra ostian segidan zan eta orduan ez eguan ez automobillik, ezta ezer be, ezer be, ezer be ez. Eta jua bihar genduan oiñez, eta eguan zortziretan entiarrua, pentsaizu! Goizian. Eta esaten desku amak: *“Hartu eizue farol bat [...]”* Eta eurixa zan. Eta zan *cuatro de diciembre*, eta amak esan eskun: *“Hartu eizue bai, farola eta jua zaittie farolakin”*. Aizta bixok, ni eta gaztena. Eta txakurra beti solte egoten zan gurian, eta bagatoz eta hartu dogu farola eta haixiak eta eurixak, jo eta segiduan, etxetik beheratuago, illunian geratu giñan. Linbo, e! Eta: *“Ene! Topauko ete jonau bidia?”*. Baiña hain eguan illun... baiña jua ein bihar genduan derrigor. Erropak alde baten jazteko kalia, zapatak... Eta bagoiaz goittik behera eta gure aiztiak esaten dau eze: *“Ai! Atzetik oratzen jestene!”* Eta: *“Ba etorri hari aurrera!”* nik estuasunakin. *“Etorri hari aurrera aztetik oratu barik”*. Eta, txakur iñuzentia. Bajatu giñan honaxe behera bai? Baiña bidian ze estuasuntzuk pasauta? Beti txakurrak ba, karizia eittera koittaua, aiztiari atzetik oratu eitten etsan. Bueno oratu edo zertu. Eta bateron bat zalakuan etorri, baiña sano e! Guk pentsatzen genduan ba! Txakurrak horra behera lagundu eskunian eta txakurra ikusi genduanian, bueno, jo eta zapatia jaurti gentsan amorrakin. Bai, holaxen. Gero, jua giñan oiñez atzera Plazentziara. Gero handik basarrira, eta gero handik zerera, atzera entiarrura behera. Ba holaxen, ene! Zenbat holakotxe estuasun pasauta gatzetan, bueno!

– Eta zer, ibili ziñan eskolan edo...?

– Eskolan hamalau urtera arte, eta gero ipini eben tunela ipini eben Plaentxiatik eta Eibarrera —gure etxe ondora—.

– Hamen bertan ez baiña hortik gora eskola bat edo zeguan, ezta? Hortik gora igota...

– Santa Kurutz. Hamen zera dago, La Salle.

– Baiña oin apurtuta dago. Hori baiño gorago, La Salle baiño gorago.

– Apurtuta, bai. Gorago, bai.

– Ermittia dagon lekuan.

– Bai, han goixan. Baiña gu Salbadorren orduan bizi giñan. Salbadortik beheratxuago eta gero tunela hasi zanian...

– Zein tunel, hor Maltzagakua?

– Ez, tunela dago, Plazentziatik eta gure etxe ondora. Eroaiben azpittik, baiña ez dakit zenbat kilometruan! Eta orduan ba, dana jentia etortzen zan ikustera eta esan eskuen ipintzeko tabernia eta ipintzeko tabernia, eta, ba, gu, aizta bixok eskolan genbizen eta gure amak esan eban: “*Bueno*”. Nik gaiñera afiziñorik ez nekan eta bildurra emoten estan. Edo, ez nekan ha fazillidadia -ez dakizu?- eskolarako eta ni -gure aitzia pozik juaten zan– beti eskolara... penaz beti. Juan nahi ez eta. Eta gero amak hori esan zeskunian, pozik. Eta gero tabernia ipini genduan eta hantxe segidu nintzan, tabernan.

– Ze tunel eguan ba?

– Tunela, urana, urana. Eibarrerako ura Plaentxiatik. Plaentxiatik ekarri eben, baiña ez dakit zenbat metruan, e! Metro askuan azpittik.

– Ura?

– Ura ekarri eben. Ba, oin zenbat urte? Berrogeta... *cincuenta y cinco o seis* edo...

– Ur korrientia, ezta?

– Bai, bai, bai. Herrirako ura, herrirako. Eta gero hortik Iragorrira , eta gero Iragorritik ura zabaltzeko. Eta halaxen orduantxe geratu giñan, ba, hantxe. Eta kitto.

– Eta jentia juaten jatzuen tabernara?

– Asko, asko juaten zan. Asko, asko.

– Salbador ondokuak?


– Ez, Salbador ez, Arrazola. Guk beti Arrazolan, geure etxian, Arrazolan tabernia.

(...)

– Bai, lehen *alrebes*. Lehen iñok be ez erderaz! Baiña iñork be ez, e! Dotriña zererako be, komuniorako be euskeraz ikasi genduan guk. Atzekuaz aurrera. Eta atzekuaz aurrera, baiña dotriña, haxe erakutsi ondo! Nahiz eta eskolarik erakutsi ez! Ha ondo erakutsi behintzat, dotriña. Ezertarako be ez dana hori! Dotriña... Oin Aitta Guria dakit bakarrik eta lehen dotriña, dana e! Hasi aztekuaz aurrera eta aurrekuaz atzera. Eta oin ezer be ez. Aitta Guria ez jakiñat oin! Egixa da!

– Eta ze urtetan hasi zan aldaketia euskerian... Noiz igarri zan aldaketa haundixena?

– Bai, gerra ostian. Gerran! Gerria pasau zanian, ba, ez eben lagatzen euskeraz eitten eta orduan, ba, danak erderaz. Orduan, ba, txarto edo ondo, ba, erderaz ein bihar! Iñork ez eban eitten ixa erderaz!



JUAN GISASOLA "TXOKO"

Kaletarra, 1917

Bizikletian hasieria

– Ni akordatzen naiz... Granujia nintzan eta pixkat okerra. Baiña bizikletia aittak erregalau estan eta harekin bizikletia kin hasi nintzan hōnek zirkoko gauzak eitten. Untzaga plazan eitten nittuan bizikleta gaiñian: bizikletia bota eta jaiki. Eitten nittuan eta jentia, pozik. Eta batak xemeiko bat emoten estan eta bestiak perrotxo bat, baiña ni, pozik. Aittak beti bronkia, hōrrek gauzok eitten nittualako, baiña ni pozik. Eta gero, holan denporia etorri zan eta gerriak urten eban. Ibili nintzan gerran eta han Gijonetik hanka ein bihar. Eta Gijonetik Franzia jun nintzan eta han arrebria nekan, Hendaian, pistola fabrikia eken. Eta egon zan fabrikia Ollagarena, fabrika haundixa, eta han egon nintzan urte batzuetan. Eta han be bizikletia gustau eitten jatan. Eta behiñ, holaxen, jun giñan bizikletan, zerera jua giñan, *a Pau*. Eta bizikletan. Eta bueno ba, jua. Neu be bai, konforme. Eta bizikletan gindoiazela, korredore bat juntau zan gurekin eta ikusi ninduan zelan ibiltzen nintzan eta eitten desta: "*Hi, hi*", franses esan estan eta nik orduan pixkat aitzen neban. Esan estan: "*Hi, hi. Parte hartu bihar dok karreretan*". Eta badakizu: "*Lagaidak bakian*". "*Bai, gizona, etorri hari eta etorri*". Eta holaxen parte hartu neban (...). Ein estezen jaramonak, ein estezen papelak eta gauzak arreglau esten. Eta hasi nintzan. Lehelengo karreran, ein eben eta bastante karrera luzetxua zan: ez dakitt (...) 90 kilometrokoa edo zan eta ein neban eta, nundik nora, nik karrera irabazi! Neuk ez neban sinisten nere buruakin.

– Eta korritzen zenuen lehenengo karrera zen, ezta?

– Lehelengo nere bizi guztian. Karrera moduan, lehelengua. Eta gero egon zan *contra-reloj* Hendaia-San Juan de Luz, San Juan de Luz-Hendaia, eta han ein neban hirugarren. Eta gero beste karrera baten be bigarren ein neban eta beste baten laugarren. Eta etxian arrebria hasarre eta ez jakon gustatzen holan ibiltzia. Eta ez dakizu? Holan gaiñera, gu han refujiauak giñazen eta ez giñazen... eurak ez ziran geldittu pozik edo nik ez dakitt ze pasatzen zan. Nik, bueno, esan neban: "*Ez noia gehixago parte hartzera*". Gero handik kantuan hasi nintzan eta Franzian, Hendaian, egon nintzan hiru urtian eta pozik. Eta hona etorri nintzan, etorri, beste batzuk etorri diran moduan: han gerriak urten ebanian, hona. Eta hamen ba tokau

zan... Hasi nintzan lanian. Zaldibarren egon nintzan urte eta erdixan, tiokin, tio zan Pedrokin. Eta gero Eibarrera etorri nintzan, hasi nintzan lanian taillar baten eta, ene, ha zan denporia! Neuk be ez neban sinisten: hamabi pezeta irabazten nittuan. Eta 11 pasau pagau, popillo. Pezeta bat geratzen jatan. Pezeta bat, eta harekin.

(...)

– Eta hori zergatik zen? Eibarren halako giro berezia zegoen ala zuk eduki zenuen afizioa?

– Bai. Orduan ba... Ni... Gerra aurrian, bizikletak eitten hasi zan —gaiñera nere aittak erosi estan— Bicicletas GAC. Haixe izan zan lehelengo fabrika Eibarren hasi zana. Eta aittak haixe erosi estan errege egun baten. Granuja nintzan. Neri eta nere anaiari, bizikleta bat bixondako. Baiña nik afiziño gehixago nekan anaiak baiño eta han ni ibiltzen nintzan. Bueno. Orduantxe hasi zan bizikleta eitten. Gero, gerra ostian, bueno gerra ostian, etorri zan hau jokeriau: Orbea be hasi zan, BH hasi zan... Eta Eibarren egozen fabrika mordua. Bueno, fabrika mordua... Akzesorixo zelan esaten dan euskeraz ez dakitt, baiña bizikletiandako batak pedalak eitten zittuan, bestiak erroberak, bestiak eitten zittuan kuadrak, bestiak... Eibarren zulo guztietan bateron batak edo bestiak zegozer eitten eben bizikletiandako.

– Eta jende guztiak ere izango zuen Eibarren bizikleta orduan.

– Baaai. Orduan, orduan izan zan, Eibarren mundu gehixena-gehixena bizi zan eskope-tiakin eta bizikletiakin.


– Eta mutikoentzat, beraz, deporteia eiteko aukera on bat. Eta ziklistak ere aterako ziren horrexegatik hemen.

– Ez, hamen ez da egon askorik. Orduan, gerra aurrian, gerra aurrian, nik ezautzen nittuan —ni granujia nintzan eta—, orduan gerra aurrian. Hemeretzi urte, hamasei urte, hamazazpi urte nekazen, baiña orduan ezautzen nittuan Eibarren Felix Gojenola, Mardaras, Basarri eta bestela gitxi. Baiña Eibarren ez dau urten ziklistarik. Bizikletak ein, bai. Ein artaren moduan, garixaren moduan eitten ziran bizikletak. Baiña ziklistarik ez eban urten.

Taberna girua

Orduan jentia eitten eban bihar... lana eitten eben, ba, atsaldeko bost eta erdiak-seirak ingurura arte. Urtetzen eben handik, etxera jua, ta mokaua edo bokadillo bat hartu, ta bestia, ta tabernara. Ta tabernara sartzen zian, ta jartzen zian euren tokixan; bakotxak

beran tokixa eukitzen eban. Eskatzen eben baso haundixa. Baso haundixak ixa litro bat zekan. Joe...! Basua...! [...] eben asko gaiñera! Baso haundixa. Juaten zian pitxarrakin ta bete. Baiña betetzen-betetzen zera, basua, botatzen, ta: *"Benga txo-txo! Gehixago! Gehixago!"*, *"Baiña... beteta dago barren!"*, ta *"Bota gehixago!"*. Ta borlian akaberan hantxe geratzen, ta: *"Ointxe dagok ondo! Geldi!"*. Ta jaikitzen zian ta *"drzzzt"* zurrustadia! Zurrustadia eitten eben. Basua, jausi baiño lehenago, ez dakizu, gaiñian han geratzen zan... haxe *"ra!"* Ta [...] eitten eben ta gero, ba, kostunbria eguan, bokadillua ein, ta gero, nere amak eukitzen zittuan, ba, tripakixak edo musturrak edo bestia ta... *"Bueno hi! Eingu juagu bakotxak hamar errial edo bost errial bota bakotxak eta afarixa?"* Ta eitten eben, ba, lau edo bost lagunek afarixa. Orduan ez zeguan telefonorik Eibarren! Urrutizkiña edo... zelan dok hori? Telefonua. Ta ez zeguan telefonorik Eibarren! [...] Eibarren egongo zian, ba, danak kontauta be ehun! Ehun e! Taillarrak eta zer guztiak eta [...] aberatsen etxiak eta bestia, ehun telefono ez zian egongo! Ta horrek esaten eben, afaittan geratzen zianian esaten esten: *"Hi! Txo-txo! Hator hona! Hi! Juari gure etxera ta esaixok ez noiala afaittara!"* Bestiak: *"Hi! Juari nere etxera be!"* Ta bestiak be: *"Hi nere etxera..."* Ta kauen dios! Bata bizi zan Bitor Sarasketa behian, bestia [...] inguruan, bosgarrengo pisuan, bestia bizi zan Muzategixan parian hirugarren pisuan, bestia Bidebarrixetan, ta juaten nitzan ta batian errekaue emon, bestian errekaue emon ta bestia... Behiñ esan netsan aitxari: *"Zu, aitxa, honek hona bialtzen nabe, gero estankora bialtzen nabe..."* Orduan ez zeguan tabakorik tabernetan, fariasak bakarrik, puruak. Ta *"Hi! Ekarridak tabakua bestia eta bata... Ekarridak eta bestia eta..."* Esan netsan aitxari: *"Aitxa, honek bata bialtzen nau beran etxera ez doiala afaittara, bestiak tabako billa, bestiak ez dakit zetara... Sekula ez deste emoten pagarik" ta "Ez deue emoten?" ta "Ez, sekula bez", "Ba, ez hari juan gehixago". Holan egun baten... *"Hi! Juari gure etxera!"* ta *"Ez!"* ta *"Hi!"* nere aitxari esan etsan: *"Hi, Benito! Hire semiak ez jok nahi gure etxera juaterik eta errekaue ta..."*. *"Hi!"* nere aitxak: *"Hik biharra eitten duanian kobratzen dok?"* eta *"Bai"*, *"Ba nere semiak be zeoze kobratzia nahi jok!"* Ta handik aurrera emoten esten txikitia edo perrua ta... Orduan bai ni pozik!*



JUSTO LARRAÑAGA

Kaletarra, 1912

Gaztetatik panaderixan

– Nere aittak ekazen 54 urte ni jaixo nitzanian. Eta amak 40 urte. Haregaittik urten neban nik halako, halako erraldoia, bai.

– Eta, zenbat urtekin hasi ziñan zu okin?

– Ni, lehelengotik behintzat, Santanderren estudixatzen. Ta fubolian. Baiña fubolista txarra nitzan da estudiante edo ikasle bezela txarrago ondiokan; ez jatan gustatzen bape. Eta gero, ba, llegau zan, ba, 20 urte edo, ta handik Santanderretik be, profesional moduan nenguan, eta botqa ein ninduen txarra nintzalako, eta gero etxian esan esten: “*Bueno, nahikua golferrixa ein dok, bai? Oin etxera!*” Eta ekin netsan nik... 20 urtekin edo ekin netsan nik. 20 urtekin ekin netsan panaderixan. Eta, gero, ointxe urte bi edo laga gentsagun. 75 urtekin laga netsan panadero izatiari, bai. Panaderixan jaixo nitzan ni eta bizi guztian panaderixan.

– Orduan eskuz eitten ziran ogixak.

– Bai. Nik ezautu neban ya makiñekin; eskuz ez. Ezautu neban nik makiña... makiña oso, zera, oso [traketsak] ziran, ezta? Baiña nere anaiak ezautu zebeñ errozia malakatiakin ibiltzen zan. Malakatia zan, ba, asto bati, edo mando bati, ba, lotuta haixe, buelta-buelta ibiltzen zan. Argi-indarra etorri aurretik, ba, eitten zan gure etxian, zera, errozia —errotako harrixak— mobitzen ziran malakatiakin.

– Errotarrixa.

– Bai, errota-harrixa. Lehen harrixakin zertzen ziran, bai. Oin fabriketan-ta ez dago harririk, baiña lehen... Horregaittik, basarriko ogixa, lehen, oingua baiño hobia zan. Bueno hobia edo desberdiña behintzat. Ha garixa, ba, errotetan ijotzen zan harrixakin. Eta oin, berriz, ba, [...] Lehen giñan okindunak edo panaderuak. Eta oin garaz hurun-fabrikantiak. Gerra ostian ipini genduan Naparruan hori fabrikatxua eta hortitxik bizi garaz. Bestela ez genkagun zerekin...

– Eta bihargiñak ez zekazuen gerra aurrian?

– Ez; gerra aurrian ez. Gerra aurrian, ba, orduan ia sosiguz eitten zan eta gaiñera kantidade txikixak.

– Zu, eta, orduan, panaderixa asko eguan Eibarren.

– Bai. Eibarren, ba, bost bat panaderixa eguazen. Da, eitten genduan, ba, gehixen eitten zebanak, ba, bost edo sei kintal, 500-600 kilo. Guk eitten genduazen, ba, 350 kilo lagun biren artian. Eta, gero, bihar piskat zerau, gehixau zeguanian, ba, bai amak, ta bai nere tiak, ba, harek lagundu eitten zebe. [...] Orduan andrakumiak oinguan...

(...)

– Orduan, lehen nun esan dozu euki zenduela panaderixa?

– Guk Arraindegi kalian. Arrandegi kalian. Arrandegi kalia kale txiki bat zan eta zeguazen hiru panaderixa: *Benitonekua. Oka Txiki... Benitonekua*. Eta gero, Birjiñapian zeguana. Ha zan Roman Larrañaga. Eta geu. O sea, kale txiki baten hiru panaderixa zeguazen. Eta ez bakarrik hiru panaderixa; eta gaiñera zeguan, orduan, bañuetxia. Arraindegi kalian zeguan hori.

(...)

Ta, han, ba, udan ta udabarrixan da... ba, zapatuetan eta, jentiak, biharretik urtendakuan, ba, hartu mudia besapian eta juaten zan... txandia egoten zan! Dutxia hartzera! Eta ur hotza, baiña hotza. Errekatik hartutakua zan! Baiña hangua izaten zan, bueno! (...) Han egoten zan: txandia, kolia, egoten zan han. Eta jentia zain. Batak urtetzen zebanian sartu beste bat eta jaboi-jaboi ein ta dutxia emon, ta... Etxietan, orduan... Ni akordatzen naiz, Arrandegi kalian lehelengo dutxia ipini zana, ba, nere anaia ezkondu zanian, geure etxia izan zan. Eta hara etortzen zan jentia, ba, bueno, ba, ingurukuak eta etxe-barrukuak eta, ba dutxia hartzera. Eta guk ipini ta gero, *Karralenukuak*, gure goixan bizi ziran, eta harek be, gero, segiduan ipini zebe dutxia. Radixorik be ez zeguan orduan...

(...)

Gurian panaderixa egonda, etxe [barruan] genkagun: batian lau pisoko etxia eta han lo eitten genduan; eta, gero, beste hiru pisoko zera, etxia, han panaderixa eta goixian zeguazen, ba, Zenarruzabeitiatarren... ba hórrek bizi ziran. Ta, lehen, ba, ez zeguan. Gure etxian, ba, gau guztian, zera, zabalik egoten zan atia. Tio ohian egoten zan eta sartzen giñan piskat beranduago eta: "*Zein da?*" eta "*Justo*". Eta hori esan ezkerik, ba ia einda zeguan. Ha zabalik. Eta panaderixan beti egoten zan, diru asko ez, baiña diru piskat, behintzat, baiña iñoiz iñor sartuko zanik pentsau bez. Eta gure tia zaharra —zaharra... hirurogeta urtiak eukiko zittuan—, ba, ha egoten zan bakar-bakarrik han lotan.

EMILIO AZURMENDI "SAGARBITSA" **Sagarbieta (Mandiola), 1936**

Garixan biharrak

Garixa eraitten zan nobienbrian. Iñoiz, sikutia tokau izan danian, eneruan be ereindda gare garixa. Lurra sikua egualako. Eneruan erain, ta ez zala eingo, ta jentiak... Eta ona izan zan. Baiña normalian, nobienbrian.

(...)

Hiru klase zeren: bat gari bizarduna, bestia hauxe modukua, eta bestia malgarixa esaten jakona. Malgarixa kanpotik ekarrittakua zan, berrixa zan, hori nere akorduan ekarri zan. Eta horrek eitten eban ale haundixagua, eta lastua sendo-sendua. Hori lastuori izan leike! Bizarduna txarra izaten zan, lanian pikau eitten eban! Punta zorrotza eukitzen eban, eta bizarrak ale guztietan. Eta laugarrena izaten zan goizgarixa; goixo emoten eban. Ha etor-tzen zan Sanjuanak baiña lehenuago, San Antoniotan! Baiña ha sartzen zanian, akordatzen naiz behin, geuk be erain genduan, ta orduan ein eban maietzian edurra. Jo-ta danak apurtu zittuan! Bai ba! Dana haundixa eguan, eta danak apurtu zittuan. Jentiak, danak eukitzen eben, baiña gitxi. Normalian izaten zan gari normala, hau modukua. Burua haundixagua, baiña hauxe estiluau. Esan gura dot, lixua.

Gari-hazixa espresamente gordetzen zan. Eta kanbixau be eitten zan. Igual, Kiñarra Balletik Arrate Ballera, kanbixau eitten zan hazixa. Jorratzia lan txarra zan. Jeneralian oin-txe jorratzen zan, enero azkena, febrero erdi... hortxe. Eta hotza beti! Hotza! Jantzitta danak. Klaro, izaten zan lan, zera, inddarrik bakua, atxurra mobidu bakarrik. Eta supurua, supurua kentzia izaten zan inportantia. Bedarra, bat bera be ez zan geratzen, jo-ta garbi! Eta hartu, depende, segun zelan datorren. Baiña normalmente, pixkat urte bizkorra zanian, San Pedruetarako. San Pedruetan ganau premixuak izaten ziran, eta ordurako. Ganauakin jua etxera, eta gero gari-ebatera, akordatzen nok! Behin, nik, atxaparrak ebagi nittuan, hiru! Beti orduan, San Pedro San Fermiñak bueltan. Batzuetan etortzen zan zortzi bat egun beranduago, edo lehenago etortzen zan, baiña hortxe. Pixkat sasoiz berotzen badau, bixkorrago.

(...)

Normalian batzen zan San Pedruetan. Segun egualdixa zelan datorren, gora-beheria iza-

ten zan hamar egun edo. Konparaziñuan, udabarrixa berua bazan, ba, etortzen zan behe aldian San Pedruetarako, eta goi aldian San Fermiñetarako. Aldia eguan behetik gora. Garixa ereitten zanian, honek danak ikusten ziran garixa, eta behian ya hori koloria hartuta, eta gora berdetxuago-berdetxuago-berdetxuago... eta berdia goixan.

(...)

Garixa ebaten zan beti igitaixakin, segiakin sekula be ez. Hamen garixa izaten zan sagraua! Garixari biharra eitten jakon oin ajustadore batek moduan! Garixa detaillera! Ahal dala, igitaixakin ebaten danian be, kuidauakin. Holan hartu, eskuakin, eta igitaixakin ebagi, "ra-ra-ra". Baiña beti, lurrian lagatzeruzkuan be, beti laga, jaurti ez. Jaurti ez! Holakuak izaten ziran gari-ebataille txarrak! Igitaixakin ebaten zan, ebateko kurioso. Segiakin ikusi izan dot nik, segiakin, nik be probau izan dot, baiña igitaixak moduan ez dau ebaten. Lehelengo ebagi eta soltian laga, lurrian. Eta hurrengo egunian, edo piskat sikatzen danian, lotu eitten da. Eta lotzeko, barriz, holan, korapillua. Burua lagatzen da, eta honekin eitten da korapillua, estutu nahi dan beste, azaua eitteko. Estu-estu einda be, ez da apurtzen. Gogor gelditzen da.

(...)

Konparaziño baten forma honetara, kristauak, personiak hartzeko moduan. Eta gero, lotutakuan, hontara lagatzen da, burua gora, terrenuan forman. Eta lagatzen ziran, beti bost, hamar edo hamabost. Kaso baterako, holan, hauxe distanziau. "Bostekuak" esaten etsen, "hamarrekuak" edo "hamabostekuak". Eta gero, batzera juaten zanian, hamabostekua bazan, ba, besaria esaten jakon. Eta burdixa kargatzeko, hartzen zan holan, eta zerian ipini. Hori zan ohiturgia, kontatzeko, eta ipintzeko, jakitzeko gitxi gora-behera. Esaten jakon *bostekuetan ipini* edo *hamarrekuetan* edo *hamabostekuetan*. Gehixenak, normalmente, bostekuak eta hamarrekua izaten ziran. Eta soluan dibujua gelditzen da, urriñetik beiratuta; oso politta izaten zan. Garixa batzen danian hauxe forman ipintzen da, hillaran, kontrari; eta beheko hillaria kontrara, holaxen. Urriñetik beitu eta basarri ingurua zuri-zuri.

(...)

Beste egun bat edo, egualdi ona badago, lagatzen jako sikatzen. Eta gero, batu eitten da, eta orduan eitten dira metak. Gari-metak. Eta gero, metetan eukittakuan, hamabost egu-nera, hiru aste, edo dana-dalakua, makiñan joteko, atzera zabaldu eitten da. Metia hamabost-hiru bat astian euki, tta gero jo! Garixa jo; ta garixa joteko atzera be zabaldu ein bihar izaten zan. Zabaldu esaten jakon: metatik hartu, ta junto laga bihar izaten ziran danak. Konparaziño baterako, holan; eta gero beste hillaria holan, burua tapau barik. Inportantia izaten da burua. Burua beti gora, sikatzeko, burua beti gora lagatzen zan.

(...)

Gari-joteko makiñia adelantua izan zan. Lehenago txanketian (txanketian esaten jakon), losa baten gañian. Hamen losia, azaua hartzen zan holan, eta jo. Gero egon zan makiña bat, hau baiño antigualekuagua. Ha izaten zan paladuna, eta hagiñik barik. Eta harek eukitzen zittuan pala senduak, eta harek beste txapa senduago baten kontra, eten eitten eban, eten baiña! Dana apurtu; txarra zan ha! Gurian dago makiña oin dala 50 bat urte, gerra ostetik. Ni, hau, akordatzen jata makiña ekarri bihar zala, eta makiña ikusteko ilusiña! Ni, eta Felix Azpirikua. Makiña barrixa datorrela, eta bueno! Ilusiña! Holaxe has-ten zan gari-jotia eitten, estilo hontan. Hasieran lau.

(...)

Gari-pillia lagatzen da, jeneralian, gari-joteko makiña onduan. Gari-burua joterakuan, puntia apurtu eitten da, eta lasto txikixak geratzen dira garixakin nahastuta. Eta hor traiektuan, garixa behera juaten da, eta lasto txikixak atzera juaten dira. Garixa piskat garbittu eitten dau. Gelditzen da bakarrik gari-alia kaskariakin. Eta gero, garixa gehixago garbitzen da, galbahietan. Gari-alia goittik behera doiala be, garixa doia toki batera, gan-belara, eta alotza beste batera. Garbi-garbixa urtetzen dau, zakuan moduan. Eta galbahiak aldatu ezkerro, ba, beste batzuk eguazen babiandako, edo artuandako. Galbahiak aldatu, beste juego bat ipini, eta kitto. Gari-pillia da, normalmente, garixa makiñan jota-kuan, honek alde batera botatzen daben pillia. Gari-aliana.

(...)

Gari-joteko makiñak eta gari-garbitzekuak, hasieran, gitxi zeren. Makiña batekin, igual, hamar edo hamabi basarri. Sei edo zortzi sozio izaten ziran. Guk geuk, hau erosi zanian, guk eta Azpirin artian erosi zan. (...) Ta, gero, ba, lehen esan detsuten moduan, zabaldu-ta euki, euzki beropian, ta gero makiñara. Makiñara ekartzen zan; hamen holako pillia eitten zan, ta makiñara. Honekin joten eben. Azaua hartu, burua aurretik, eta sartu maki-ñara. Lehelengo alde batera, gero bestera; alde bixetatik, aprobetxatzeko. Ta hau eitten zan, "*ri-ra*"! Peligrosua be izaten zan, eskua hartu makiñiak...

Honek makiñok agertu ziranian, orduan dirua... ta eitten zan kuadrillia: sei edo bost basarri, soziedadian. Normalmentian, hamen, zortzi, edo sei, edo hamar, eta horrek txandaka juaten ziran: egun baten batek, eta bestian... Bestela be, soziedadekuak ez ziran basarriretakuak be agertzen ziran. Baiña hori aparte izaten zan. Orduan izaten zan, zeozen zorra izaten zan, konparaziñuan, kasu baterako, behixa izkuagana eruan, eta pagau bihar-rian, gari-ebaten edo gari-joten atsalde bat. Edo bestela, gaur ni basarri batera, eta gero bera nerera. Jornalian sekula bez, e? Auzolana hoixe da.

(...)

Familixa guztiak eitten zeban horretan biharra, danak! Umiak be bai! Gari-jotia zanian 5 urteko umiak be bai, besterik ez bazan, ba, azau bat edo bi ekarri, edo ura ekartzera beste batzuk, hamen biharrian dabilienari ekarri zeozer erateko, edo... Eran ein bihar izaten zan, hautsa, eta... Hor danak biharrian, andrak be bai.

(...)

Soziedadian danian, egun baten joten dabe, atsalde baten. Jo bakarrik, garbittu ez, jo bakarrik. Izaten zan ordu bixak inguruan hasi, eta seirak inguruan amaittu. Segun, gehi-xago edo gitxiago, sei tx'erdia, edo zazpirak... amaittu. Guk zelan makiñia guk genkan, egun baten hasi eta amaittu ez; bi egunetan, edo. Noberak eukitzerakuan errezago, tran-killago hartzen zan.

(...)

Inportantia izaten da azaua eitterakuan, buruak lagatzia danak parian, altura bardiñian. Bestela ez da aprobetxatzen makiñian. Gero, lastua hiru zatittan ebaten zan, kutxilla honekin, hiru zatittan. Eta gero, ganauari emoteruzkuan....

(..)

Gari-jotian eitten zan edarixa, limoiakin, eta ez dakit zerekin... eta esne hotza arrautza gorringuekin, eta rona.... Dana ondo eragin, eta alimentau eitten zeban horrek.... Eta azukarilluak izaten ziran lehen, luze-luziak, arru-arruak.... Eske bihar zatarra izaten zan. Kaso baterako, nik taillarrian ein dot biharra, eta gari-jotia gogorragua zan neretako. Eta gaiñera, zenbat eta beruago lana hobeto eitten da, eta aguntau ein bihar. Gari-jotia sekula ez da eingo laiñua daguanian, holan egualdi freskorik-eta, sekula! Egualdi txarrakin ezin. Pasau dira kasuak, asko, igual hasi egualdi edarra, bero-berua, jo trumoia, eta jo-ta antxixiketan danak, jente guztia dana pillatzen ta tapatzen, etxe barrura sartzen. Ta gero barriketan. Beti egualdixan zain egoten zan. Eta askotan pasau zan, konparaziñuan, kaso baterako, garixa ebagi tta, gari-jotia juliuan azkenian edo agoztuan lehelenguan, hortxe bittartian eitten ziran, normalmente hortxe eitten ziran. Eta jo ezinda! Eta Arratietan: *"Arratietan jo bihar juat nik garixa?"* Izaten zan urte txarra. Gaiñera, garixa pixkat humela, edo zertu ezkeriok, ez dau balio.



FAUSTINO LARRAÑAGA

Arandoaurtena (Agiñaga), 1904

Ardixak eta gaztaia

- Gaztairik eitten zenduen?
- Gaztaia bai, neuk be bai! Neuk bakarrik be igul hori! Hori ezkondu ta gero be, gaztai mordua einda nago ni! Lierra emon, ta...
- Zelan eitten da gaztaia? Kontau piskat...
- Gaztaie, ba, gaztaie.. lehelengo ein bihar jako lierra emon, ur epeletan. Ure egosi, bai? Ure, bizixe hori, ezta? Ta liarra emoten jako, liarra. Billotsak lierra eukitzen dau, billotsak. Ta haren liarra egoten da batute, ezta? [Holan eskutakada bat], ta haixe sartu.... Gatzatua modun, lodi-lodi eitten dau hak! Ta gero, ba, iragaztontzixakin ipini, [...] ta esku-kin estutu ta estutu ta estutu. Ta urek etara behera. Piskat gogortutakun, buelta emun ta gaztanontzire. Ta [...] seittun saldu.
- Gaztanontzixa zer da?
- Gaztanontzixa, ba, noberak eitten daben aparatu bat, listoiak holan, gaztaiak [gan-ganin] eukitzeko, listoiak holan. Haixetan bentana parian, holan, sikatu deixen.
- Araza modoko bat?
- Bai, bai, bai, bai. Honen armarixo posturako bat, igula. Bittartik hutsik eukitzen zittuna, bittartik hutsik, listoiak holan. [...] Ganbarako bentana parin ipiñi ta sikatutakun, ba, plazara.
- Ona eitten zenduen? gaztai ona?
- Bai, ardi esniekin. Ardi esnia ona da ganauen esnian aldien. Ganauen esnin gaztaia maskala izaten da. Maskala, baiña ardi esniana ederra. Gaztaia, horixe. Gaztaie? Bai.
- Eta ketu eitten zenduen? Keiakin edo...

– Keie, bai. Keie... Neguen ta, sukalde zaharrak [...] basarrixen, ta eseite ke apurrien eukitzen genduzen. Keiek eitte dutse kolori emon, horittu.... Piskat kolorie emoten utsen. Keia apur bat ona da gaztaiantzako, kolorie emoteko. Oin, udan, euzkitten euki ezkeru, bringau eitten da, zartiau. Ez dau balixo; kerizan euki bihar da, kerizan! Euzkitten ez dau balixo! Zartiau eitten da, zartiau, pikau. Zera, kerizan-ta eukitzen gendun, kerizan. Bestela, gaiztaigiñen!? Hori ez dakit sekula [...], baiña nik gaztaigiñen sarri jardun neban. Ardixak, lehen ardi mordo bat. Baiña harek kendu, harek kendu eta labrantziari, gorritziari itxi gentsonin, ganaua kendu, bai? ezta? ta ardi hutsekin egon nitzen, ardi hutsekin. Billotsak be bai ederrak, baiña billotsak saldutakun ardixak jatsi in bihar, ta esnie kalera nok saldu ez, ta zer eitten neban? Gaztaiek ein! Nik gazta mordua eitten neban. Gaztaie!

(...)

– Ardixak nun eukitzen zenduezen ardixak? Basarrixan bertan, edo arditokiren baten?

– Txabola baten, txabola bi genkuzen, neuk eindako txabolak, ederrak mendixen! Aitta hil zanin neuk [...] . Bata etxondun egun ta bestie mendixen. Ta ointxe apurtu bixek piñuk azpizan hartute [...] Piñu handixek albutan, bai? ta itxuli ta bixek apurtu, txabolak. Hain zuzen, neuk eindako txabola bi, eta bixak apurtu. Oin txabola barik gaiz. Etxie! Etxie dakagu oin txabola! Etxie! Hutsik dago dana-ta!

– Nun zeguazen? txabolak nun zeguazen?

– Txabolak, bata eguen Urkoko karreran, zelai bat Azuntza aurrien. Azuntza ez dozu jakingo zuk nun dauen! Azuntza aurrien, ta bestie etxondoku solopunta baten. Etxien errealdien, ba, solo bat eguen, ta hantxe solopuntan ein genduen. Ardixak, ba, mendixen Azuntza bittartien, mendi hori, Arteraraiñokue. Kaballuk be eukitta gaz, kaballuk be bai. Mendixen, kaballuek. Mendiko kaballuk be eukitta gaiz. Lehen dozena bat kaballo inguru. Ta danetik! Danetik! Danetik! Ondo hezitta geozan gu basarirako! Ondo hezitte!

Oinaztarrixak, haixiak eta trumoiak

– Geruago izango balitza bilddurra eukiko gendun! Han, ikatza guk eitten genduan lekun, gizona oiñaztarrixak hil eban! Urrupiño zana. Arandogueneko semie, Urrupiño zana. Hiru ume gazte etxien, ta soluen nabo-orrixa eitten ziharduela, udaguenien, [nabo-orritan egon] zaparradie etorri zanian, ein dau arbol bat juen behera. Gure piñupia zan, gure piñupie. Ta piñue tiratu oiñaztarrixek. Jo-ta seko! Berrogetamar metro baiño gehixago jaurti gizona! Ta bixotza errementau otsen. Topau ezin ha gizona! Oiñaztarrixak itxi eban arbola dana zurittuta, ta gizona topau ezin! "Nora koño jun da!?" Ta abarkak eta erropak? Hau baiño txikixago, honek baiño txikixago itxi zittun erropa danak. Oiñaztarrixak [jo-ta zeratu] ta bera topau ezin. Ta halako baten, topau eban gure anae batek topau eban. Mendira [...] jun ta lehen ez egon zurittasuna hura [...] hantxe basun behien. Ta gu jun giñen ta behien euen, laharrak oratute; piñun gaiñetik-edo haixiek erunde.

– Orduan oiñaztarririk eta tximistak eta trunboiak asko egoten ziran?

– Tira-tira-tira! Gurien, etxeostien erre [...] horman, etxeosteko kantoiien, horma-kantoiien, etxian hegaliien, oiñaztarririk jo-ta dana apurtu auban. Ta kortan ganaue makakoroka baten, ta zer pasatzen zan, ta hormako katie, ta, dardarie jo ta soltauta... Ganaue kortan katiak etenda, harutz ta honutz, ta... Txakurra be, ardi-txakurra gurien balientie, ezta? ganaua, ganauen azpira junda, bere burue [sokorritzera]. Ganauan azpira jun, bai? Ta txakurra kendu ezin. Ganaue, behixak, bai? Ganauk? [...] Txakurra sustau, bai? ta hor lotan, ta, ganaun azpire! Ganauk euazan lekura. Ta kendu ezin, gaiñera, txakurra! Euren azpin egon nahi txakurrek be.

– Ta, oiñaztarrixa, ta tximistia, ta oiñaztua, ta... bardiña da dana?

– Oiñaztarrixa tximistie baiño... tximistie [asko] izeten die; tximistie lantzien-lantzien. Baiña oiñaztarrixe noizik behin jausten da. Oiñaztarririk tiratzen dau jeneralien arbola luziek. Ta mendixen, mendixen be, bizkarrien, bizkar-bizkarrien barik, oiñaztarrixe albora jausten da jeneralien. Alde batetik gora haixik jotzen dau bai? Ta beste nordetik be bai, ta haixe bixok alkarrekin kruzautakuen, hortxe [haixiok] ataraten dau oiñaztarrixe [...] izeten da. Baiña jeneralien, Gipuzkuako partetik. Gure mendixen Gipuzkoako partetik jausten zan sarri beti, ta gaiñien bapez. Han ira-sailletan, gero ezaun zan [ira-erre una], oiñaztarrixa nun jausten zan, erreta idak.

(...)

- (...) Ifarra, ifarra egoten da udan, ezta? Ta gauza ederra da, ifarra! Bero haundixan ondoren ifarra etorten da. Goixeko hamarrak inguruen urteten dau ifarrak! [...] Ifarra ederra! Baiña nordie txarra! Nordetik... zeozer apurtu-edo... Nordia txarrena da. Nordie, hemen, Gernika aldetik etorten da, nortetik. Zelakua dan? Haixerik ez da ikusten, zelakue dan! Haixie ezkutuen ibiltzen da!

– Eta nordiak zer ekartzen dau, eurixa? Edo trunboia?

– Bai, nordiek tenporaldi txarra. Iparra da sikue, iparra da. Hamen Kalamua aldetik jotzen dabena. Hamendik jo bihar dau iparrak. Nordiek handik. Nortia nortetik. Iparra hamendik. Ta itxos-haxi be egoten da lantzin behin, itxos-haxi. Ondarrua aldetik etorten da ha be, baiña itxos-haxie esaten jako hari. Baiña iparra jeneralien egoten da, tenporal ona, udan, ipar-haixie dala, ta denpora ona. Baiña "*nordian ikutua, ta nordia etorriko da laster*" ta bai etorri be laster! Nordiek txarra dakar beti. Eurixe, edo edurre, edo sasoiien klase danetarakuek.

– Eta mendebala?

– Mendebala, ba, mendebala dagonin denpora biguna egoten da jeneralien. Denpora biguna mendebala. Etxiek be bustitte iguel egoten die, ta. Mendebala biune da. Mendebalak be zeozer ekartzen dau lantzin behin, baiña harek ekarten dau, mendeba-

lak, denporian mudanzie. Mendebala datorrenien zeozer badator. Mendebala be etxe barrun, danien, ta zeozer etorri be bai. Mendebalak. Mendebalak zeozer beti ekarten dau.

– Eta esan dozu, “itxos-haxi” be egoten dala?

– Itxas haixie, bai. Itxos-haxie ez da ona! Itxos-haxie berdia da, berdie! Itxasotik datorren haixie berdie da. Hotza! Hotza, bai. Itxus-haxie? Itxos-haxie berdie! Haixie, epela da hegoie. Trumo-denporie beti da epela, trumokue. Haretzek joten dau trumoi berotik. Negun hotzetik be joten dau noiz, ta udan berotik jeneralin. Urten dau laiño-moltzuk — iñoz ikusiko zenduan laiño-moltzu udan— eta harek trumoi-joten egoten dira beti, harek laiño-moltzuek. Trumon-adarrak joten nunonun parien, guk sentidu ez arren! Ta noberan parera etorritakuan, hankak altzau bai? ta.... Badezpada be! Ni baten aittari hanka einda nago mendittik.

– Zer ba?

– Trumoa ekin! Aitta guria sanua zan itzela. Jun giñen ota-elbitzan eske esparru batera gora, Urko partera. Ta hemen Oiz partetik harrixak ekarren hots bat! Ta, “*aitta! Harrixa dator, harrixa dator!*” ta “*Ez, hona orduko... Hara joiek, hara joiek! Trumona hara joiek.*” Ta ganaue kargau ta hasi nitzen [hortxen] gora. Ta erremara orduko, ni estutute egon, ta erromarian [...] nik burkadiari betik oratu, bueltan erromarian bueltan kanpora urten biher ta urten ezin, ta, [...] estan burdixak, burdixan atzien. Burdixa eusten egon bera, itxuli ez deiñ. Ni negon aurrien, ta, kasorik be nik, etxera ni!, *Echando chichas!* [Arriau] orduko etxera heldu nitzen ni! Ta han erremara ondun... Ama zana jun zan aittagana. Erromaran... Arantzan kontra han eguan geldi! Burkada horrekin! Baiña harrixa haundixa ez eban ein han, baiña... Hona Ermu partera, hona bota eban, nortiek hona bota eban. Baiña hotsa zelan ekarren harrixek?! Aitta zanak kasorik bez harrixai. Ni sustau, harek entzun nittun, ta ni sustau! Kasorik bez harek! Ta ni sustau nitzen, ta hanka nik!

– Esan dozu esparrura jua... zer da esparrua?

– Esparrua zan, esparrua. Itxittako esparrua zan. Otelbitza eguen. Gero zelaixa ein gendun han, ta txabolie be bai, geruago. Bedar[...] ein genduan han. Oin piñu dago.

Sorgiñak

– Sorgiñek? Sorgiñek bai, horrek bai. Horrek bertan, sorgiñek eta lapurrok bertan egoten zien hemen, hemen urriñago juteka! Bertan! Horrek die esakerak, esakerak! Baiña sorgiñe, sorgiñek eta lapurrek hori bertan, urriñago juteka! [...] esan bai, klaro. Bai, urriñegi barik; bertan.

– Eta zeuen aittajaunak-eta kontaktzen zeuben, holako konturik eta kontaktzen zeuben?

– Kontau? Harek, e, harek ardaue. Gure aittak-eta pixkat erandakuek zien, ardaua kontatzen zeuben. Ta pistak-eta benetan. Harek sano handixek zien. Harek, harek sekula ezer ikusteka hil zien! Sekula... Lehengo zaharrak? Biharra ein, biharra ein... Pua! Perixara [...] mozkorra hartu eta burrukan be igual, ta pistakin etxera! Burruka alkarri hatzamarka ein ta, etxeruzkuan igual. Pistak ein ta etxera. Edo proban bat ipiñi, demandan proban bat; proba kontukuek bazien. Probatxuk ipiñi, Agiñan be probalekua plazan zan-eta. Probak, desapixuk, ta diru apur bat aldien erabilten zeuben perixa zoiazazien. Diru apurtxu bet, ta hau [zan], probie ta drogie. Lehengo zaharrak probie edo horixe. Bestelakuan harek, e, harek... Harek lo bizi zien, lo! Harek, harek, harek basarrixetan umiek! Umie ugeri! Umie! [Haxe hazi ezin] ta bizi zela-halan! Haxe! Basarritarrak umiek? Bakotxak zortzi-hamar ume! Ta hantxe erdi-ortosik; ira-artetan, ta mendixen ardixen ondoren, ta gixajuek! Ira-tronkue sartute ta handittunak eindda, ta ahal dan moduen! Lehen? Oin umerik be... Lehenagokuen? Zazpi-zortzi. Lehengo, lehengo, lehengo zaharrak hau palta zeuben, hau: "kabezie"! Hori ez dozu pentsatzen zeuk? Errentie pagau bihar; errentie pagau biher ta bizi eziñik. Koño! Zortzi-hamar ume, ta. Bai, bai, bai, bai... Lehengo zaharrak kaskuan paillo handixa zeuben!

Karabixak

– Eta esan dozu karabixak be bai, etxaburuan zekazuezela?

– Bai, bai. Karabixie. Ni gaztie nitzala, karabixak. Ni karabixetako harrixa etaratzen Urkon... Karabixe-harrixek, harek karatxa biher dau, karabixa eingo bada karatxa bihar! Eta karatxa eguan Urkoko [...] parien, goixen. Ta haraxe juten nitzan ni, granujie, astuakin! Haraxe ni gaztie nitzenien; nik goguen dakat bete-betien; nik eukiko nittun lau-bost urte orduen. Lau edo bost urte, edo... Baiña astuan ondorien, banekixen parajie nun eguen ta juen. Ta han karabixa erretzen jentie. Arandoko lau bat gizon, ta... karabixe erretzen ez, harri-ataratzen! Harrixa atara bihar karabixa gero [...] mendixen burdixekin harrittan jentie. Arandoko etxaburuen, Arandoko etxaburuen egozen karabixa-zulo bi. Eguen, gu eta Arando Guenengue ta Etxebarrikue, ta Juan hau, Zubixe bizi zan orduen, ta haxe laugarren. Ta Arando Aurtengue ta Agiña Aizpekiek beste karabixa-zulo bat euken, beste bat harek bixek. Guk lauk beste bat. Karabixa-zulo bi. Han dagoz ondiok. Bai, karabixa-zulo modukuek, izendakuek. Oin apurtute, oin apurtute. Baiña nun dagozen banekixen. Arandoko etxaburuen, karabixa-zulo moduko bi. [Karabixagiñen].

– Gero, orduan, zu asto gaiñian juan kanterara, karatxa etartzera, ta...

– Urkoraiño, nik, astuakin bazkarixa eruaten notsen bihar [bizardunei].

– Eta gero, karia zelan eitten zan gero?

– Karie? Karegiñan ibilita nago ni Asuntzan laguntzen. Karie eitten da, karabixa-zuluen, lehenengo hormia ein gora. Ta harrixe barrun tolostu, ta barruen karabixa-zuluai... Iñoiz ez dozu karabixa-zulorik ikusi? Aurretik, behetik, zulotxo bat eukitzen dau, ta harrixe arkuia ein bai? sua azpitan eitteko bestekue, ta goixan dana harrixe, arkue eindde, hormie eindde zubixa moduen. Ta arkue ein, ta ha zulotik egurra sartu ta egurra sartu, harrixa erre artien. Harrixe erre eitten da, ta harrixe erretakun, behera jausten hasten da, bidera, zulue betetzen. Karie eitten dau harrixek urtu ezkeru, karie; haustu ein [biher] Erre ta erre; arte-egurra emon karie erretzeko. Ta arte-egurra berue da ba; arte-egurra sartu ta sartu, ta hiru bat egun... Ni goiz erdi baten ibilita nago kanpuen. Etxin ez, baiña. Ni gaztie nitzala etxekuek amaittu zien, baiña Asuntzak ointsun ein eban karabixa, oin dala 40 bat urte, ala... Ordun sasoi baten karabixa erretzen laguntzen izeten giñen, ta neu be Arandotik izenda nago, karabixa erretzen. Gabien, gabien, hari beti segidu bihar jako [...] erreko bada amatau barik; azpittik, han zulotik egurra emon ta egurra emon; karabixia erretzeko lehenik egur pillo handixe ein bihar izeten zan, egur pilla handixa erretzen dau ha(re)k harrixa erre orduko! Egur pilla handixe!

– Eta esan dozu artia? Egurra, artia zan?

– Egurra artie. Beruena haxe. Artie, arte-egurre.

– Eta besterik ez? artia bakarrik?

– Bai, bai, bai... Egurre edozer! Otie be iguel! Edozer. Baiña haxe, beruena haxe. Sartu bardiñien beruena, egur... Gaztaiñie-edo sartzen badotsazu, eskasago, hilddague. Baiña arte-egurra berua, ta pague be ona; pague ta artie ta horrek, sua eitteko onak.

– Eta gero, karia, jaso...

– Gero karie eindakuen soluen bota, azalien, zuri-zuri. Hori kariori, kokue erretzeko, lurra garrazteko ona izeten da hori. Kariiek lurra garbittu eitten dau horrek. Lurrak garbitzie behin-o-behin... Oin ez dau iñok kasorik eitten, baiña lurra garbitzie ona! Ta koko guztiek, eta... horrek hil eitten dau. Ta lurra garraztu. Lurra garbittu, horrek eitten dau. Karie ona da lurrantzako, karie. Kariiek koko guztie erre eitten dau ba, kendu. Karie ona da lurrantzako, karie ona da, ona. Simaurra bez txarra! Simaurra be ona, ardi-simaurra be, simaurzegie ardi-simaurra. Garixantzako-ta, garixa hartzeko ardi-simaurra biher izeten da. Ganau-simaurrak [garixandako] bape ez dau balixo. Ganauan simaurrak garixa bastotu eitten da, ta heldu orduko behie joten dau. Baiña ardi-simaurrak gogortu, ardi-simaurrek gogortu! Ardi-simaurrek gogortu eitten dau. Ardi-simaurra ona. Gurien, ardi asko, gure aitta zanak eukitzen zeban. Etxian kalte eukitzen genduzen! Baztar guztiak jaten zittuan, eta etxian kaltien derrigor ardixak euki bihar, ardi-pillo txikixa barik, haundixe! Ehun ardi inguru ixte. Ta hortxe danak gosiak hiltten, koño! Gora ta behera gosiak hiltten danak!



ROSARIO ALTZERREKA

Kaletarra, 1911

Errekan eta Deban igarixan

– Hamen Amañan eguan presa bat eta han be bai Txontan, Txontan gora juanda, holan, presa txiki batzuk, igarixan ikasteko! Baiña gero hamen, igarixan ikasi ta hamen, pentseizu zelan egongo zan Maltza(ga)n zubixa...! Handik salto eitten eben erre kara e! Ya nausixak, e? Ya nausixak haratxe juaten zian, traje de bañua jantzitta igarixan eittera. Baiña oin ezin leike ein Han ezin leike sartu! Han salto eitten dabena oin juan da! Baiña lehen ura juaten zan “rrrr”.... Ta hamentxe ikasten eben igarixan!

– Baiña orduan gehixen bat mutikuak eitten zeben, ezta? Neskak ez zenduen...

– Ez, ez, ez, neskak ez, mutillak. Neskak hamen Debara. Ni neu sekula ez naiz bañau, e! Ez jata gustau sekula be! Ez...!

– Eta Debara juaten ziñan?

– Bai, juaten giñan, baiña meriendiakin ta... Eguna pasatzera be bai, baiña ni neu uretara sekula bez. Ertzian ibiltzen banaix, bien, baiña... Gero be ez, e! Neri ez desta emon sekula hori tentaziñuori, esaten dana. Nik esaten netsen: “Ez, ez, neretako, neretako [ez dago...]”. Juan Debara, bai, udaro juaten giñan; oin juaten dian moduan gaztiak, geu be juaten giñan, bazkarixakin ta, hurrengo, meriendiakin-ta. Eitten genduan, baiña diferentia da.

– Ta zelan juaten ziñazien Debara?

– Trenian! Trenian! Trenian, trena egoten zan ta trenian! Ta hamen... Ostian, oiñez ta ez, ez, ez... Trenian juaten giñan!

– Ta autobusak be egoten ziran, ez?

– Bai, baiña trenian gehixen. Bai, autobusian nola juaten zan... autobusian danak... Zabalak eta abiertuak, *Cachonekuak* esaten etsen, ta horrek jeneralian egoten ziran hartuta. Bai, gero, udan tenporadan juaten zian egunero, ta jentia juaten zan, baiña hartu... Gu trenera! Enee! Trena merkiagua zan ta! Trenera! Ta gaztiak eta, mutillak eta, "ja!", billeterik barik igual! Hamen sartu ta urten gero ta bestera juan ta... eitten zittuen! Bai! Beti egon dira eitten dittuenak gauzak! Bai! Granujia! Izena horretxegaittik dake, granujia! Baiña, bai, konpletamente diferentia...



MERCEDES TELLERIA **Kaletarra, 1913**

Ixu Eguna eta Gaztaiñerre

– Ixu eguna? Ba, eitten zebeñ gehixenak, juan ta sua, ixua... Oseake, txatal batzuk egurrana; egurra, ixipua [hartu]... Hantxe ipintzen eben, sua haintxe sartu ta, etxerik etxe, begixak erre biharrian, ba, txakur haundi bat edo... Granuja guztiak tunikia-ta erre biharrian haintxe erabili! Ta gero ur bedeinkatua be bai. Pixkat handik hartu ta bestia iturrirttik; hango pixkat eta gero iturririxan bete! Baiba! Ta ha senidietan ta euren zerian partidu. Txakur haundi bat, edo zer emongo etsen? Ixua, ba, urteko zera, ez deixan suak... Su ona, su bedeinkatua!

– Eta noix izaten zan hori? Ze egunetan?

– Hori izaten zan, ba... Aste Santua baiño lehenago! Ba, Aste Santua baiño lehenago!

– Eta etxez etxe juan, eta etxequak ze ein bihar zeban su horrekin?

– Harek? Sutara bota! Sutara bota! Sua egon deixan bedeinkatua! Ta ura, ura... txorruan botillekin. Han batzuek zertuko eben, baiña gero beste morduak handik! Bedeinkatutakua zan... zinko porziento bat edo zan bedeinkatua, beste guztia... hortxe hartutakua! Gero etxietara partidu!

– Ta hori be egun berian eitten zan?

– Bai, bai. Bertan, bertan, bixak batera.

– Ta lehen San Andresak baiño inportantiagua Gaztaiñerre izango zan, ez?

– Bai... Gaztaiñerrian... bueno...! Danak gaztaiñak jatera basarrixetara! Bai, talua ta esnia ta gaztaiñerriak! Baiña handik hori etorri da... lehelengotik eitten zebeñ, elizkizuna eitten zebeñ hildakuenda[ko]. Ta gero handik juaten ziran basarrixetara meriandia eittera. Hortik dator hori.

– Hori da ohitua?

– Bai! Hildakua, baiña noberak gero [biziakin] disfrutau! Lehelengotik... bai, lehelengotik eitten zan elixan, elixakua eitten zan hildakuendako. Bai ba!. Ta gero jentia juaten ei zan [...]. Gu be jua gara, baiña guk elixakua eta horrek ez. Gu [...] lehenagokua, gu juaten giñan, ba, Olarria(ga)ra edo Azittain, edo enkargauta talua ta esnia ta morokilla edo... zerak. Edo gaztaiñak! Gaztaiña erriak!

– Ta marraskillorik ez?

– Baita! Hori be bai! Horretzek dira...! *"Típicos"* horretzek dira!

– Etxian eitten zenduezen zuek marraskilluak?

– Horrek... kanpora juaten zian jeneralmente famelixak horrek eittera. Afari-meriandia edo, kanpora juaten zan jeneralmente. Bai...

– Baiña zuk jakingo zu baiña marraskilluak ipintzen...

– Bai... Ipintzen... bai, bai, bai, bai... Baiña nik... urtietan ein desta letxeriak bialdu. Zoragarriak...! Eurak etxeko inguruana ein ta ekarri destaz.

– Einda ekarri detsuz?

– Einda! Einda! Bu...! Zelakuak baiña! Zoragarriak! Kostunbriak horretzek.

– Sekulako biharra izango da, ez? Marraskilluak batu ta garbittu ta...

– Harek garbittu ta, ondo garbittu, ta harek gero gatzakin ipini ta harek [... ondo garbittu]. Ta gero, gero, nahikua bota atzera, gauza gozuak be: koñakak eta zer guztiak eta harek dana ona! Harri-koskorak be holan ipini ezkerio... Ona izan bihar da! Jateko pixkat gogorak... baiña besterik ezebez!



JOSE MARI KRUZETA

Kaletarra, 1930

Kruzetaneke zinia

– Eta teatrua hamentxe, ta kafia eta teatorra sartzen zan aldamenetiko... oin dagon “Bambino” dendatik, eta hamen eitten zan kafia ta batzuetan bailia. Ba, Aratostietan ta San Blasetan ta Aratostietan ta... eitten zan bailia.

– Orduan lokal bi zeren, bat aurrekaldian bailiana ta gero teatrua atzian...

– Bai, bai, bai... Bai, bat atzian.

– Bueno, eta atzerago taillarra...

– Taillarra, bai. Osea, Pagei kale guztia. Bai, bai, holan zeguan.

– Ta sarrera hamendik zekan...

– Zinera bai, baiña urtera beste aldetik be bai, e! Beste aldian... Gero anekdotak kon-
tauko detsueraz, porke kuriosuak dagoz anekdotak.

– Eta zelan izan zan... bera... beran ofiziua ez zan izango...

– Aitta? Grabadoria.

– Hori, ez zan izango ziniakin ta...

– Ez, baiña... gero ta... zelan... grabauan eitten eban ta gero gabian kafian, laguntzen famixiari... Ba, gero teatruak be berak organizatzen zittuan; juaten zan artisten billa. Ta hamen garaiko artistarik onenak hamenditxik pasau zian. Euren artian Raquel Meyer ta beste artista batzuk, osea, inportantienak zeguzenak. Orduan izaten zan kupletista gehi-xena eta teatroko konpaiñiak, eta aitxa juaten zan billatzera ta lokalizau konpaiñia edo

Bilbon edo... Donostian baiño gehixago Bilbon. Bilbora juaten zan, porke Bilbora, ba, juaten zian konpaiña teatrokuak emotera funziñuak eta orduan juaten zan han Bilbon ta eitten eban kontratua eurekin, ta ekartzen zittuan Eibarrera.

– Orduan, lehelengo-lehelengo teatrua hasi zan ta...

– Ta “La Bracamonte” be, beste kupletista bat be, hamentxe. Artistia! Ta esaten dabe “La Bracamonte” enamorauta zeguala gure aitta Perikokin! Esaten dabenez! Aitxa oso salaua zan e! Neure aldian oso guapua! Ta gaiñera jenixo bizikua! Jenixo... Nerekin ez, baiña beste jente... errespeto haundixa sartzen ebana! Piano pianolia! Erabiltzen zana bai lehelengo bailiak eitteko kafian ta gero balio izan eban zine muduan, ba, musikia joteko. Ta pianistia zan Hernando, Isaías Hernando. E? Oseake, guk Hernando-tarrekin tratua dakagu, ba, hamen joten ebala. Ta, batzuetan, ez zeguanian Hernando, ba, hamen dakaguz pianolian rolluak, ipintzen zian rolluak hamen eta gero, hau zabaldu ezkeriok, pedal batzuk dagoz, pedaleri emon eta musikiak jote eban! Oseake, pasatzen zan, ba, zuluetatik... E? Kuriosua zan. Baiña horregaittik hau pianoliau historikua da, zegaittik urte asko dakaz, baiña gauza asko ein dia; soiñu asko jo dittuz, bata pianistiakin ta beste batzuk rolluekin, bakarrik.



JOSE BERGARA "AGARRAZPI" **Agarreazpikoa (Gorosta), 1928**

Oilluak nun eitten dittuen arrautzak

– Arrautzak? Ba eurak, abixia, abixia esaten jakok arrautzak [eukitzeko] tokixari, eurak harrapatzen daben lekuan, libre badare. Oin, oillotegi batera erretirutzen badia, ba, zerraduran baten, euren lekuan eitten dittue arrautzak. Baiña ostantzian? Iguar arbola-zulo baten, mugan holako zulo bat dagon lekuan... holakotxe tokixetan. Edozein tokittan. Honek oillo txikixok, endemas, honek txorixen [estilokuak] dittuk pixkat; honek [horren] ostian dagok beste [...] holako gaztaiña zahar bat untzakin... han gaiñian be eitten jittuek! Arbolian gaiñian! Untza badakik zer dan, eztok? Arboliak eukitzen daben [adarzar] bat, holako [aixena] batzen jakona...? Harek... holako pillo bat [eizu] ta hantxe gaiñian be bai, nunahi.

– Ta abixia ze eitten dabe, zeoze espeziala?

– Ez, lekua ein bakarrik, sakon-unia! Txorixak be horrek bedarrik eta holakorik ezer ez juek eruaten, ez. Oseake, sakon-unia topau erpekin ta sakon-unatxua ein ta hantxe ein.

– Eta danak eitten dabe? Oillo guztiak eitten dabe edo...?

– Arrautzia? Bai. Oin, batzuk gehixago eitten dittue, beste batzuk gitxiago, baiña ein, danak. Oilluak arrautzia ez eittia milagrua dok. Hamen azpikaldian dagok holako muga-zulo bat, hor [...] txitxak eta dana be etarutzen jittuek horrek! Euren kasa! Sarrittan! Iñok topau ez abixia ta lokatzen dianian jartzen dittuk gaiñian ta urtetzen dabenian, [txitxak einda] kanpora.

– Eta "lokatzia" zer da orduan? "Oillolokia" ze da?

– Oilluak "klok-klok" eitten jok, ba, zertu, txitxak etaratzeko prestau da "lokatzia".

– Eta danak lokatzen dira?

– Ee... Oin lehengo moduan ez. Oin, lehenago bai, lehenago milagrua ez lokatzia zuan. Honek txikixok lokatzen dittuk, baiña oingo oillo haundixa, zelan pentsu preparau [janda] ta gero [...] oillandak dianak eta danak harek ez dittuk lokatzen. Baiña pentsu normala emonda zertu ezkeru, danak lokatzen dittuk oilluak. Lehen danak.

– Eta lokatu ze eitten dira, lantzian behiñ edo sasoi baten edo...?

– Buo... urtian... urtian tanda baten normalmente, baiña banaka-banaka juaten dittuk, e! Danak batera ez. Banaka-banaka.

– Eta oillarrak, orduan, badaki zein dan lokatzen dana eta...

– Ee! Oillarra beti egoten dok gaiñian! Ha urte guztian ibiltzen dok! Harek ez jakak lokarik euki biharririk! Loka dagonian ez jetsak lagatzen oillarrari! Lokatutakuan ez jetsak lagatzen. Honek txikixok? Han handikaldian dago bentana bat ta barrutik [... tapautakuan], han bentanatik edo nunbaittetik etara txitxak eta honek igual holako bi alturatik jausten dittuk [...] euren txitxak. Zelan txikixak dian eta ariñak... Ta gogorrek dia berez... Ba, gosiak hartu zittuanian, nora-nora jua bihar ta [...] salto ein juen ta bape ez zuan akabau! Han iñok ez zekixan abixarik ekenik be!

– Eta, orduan, oillokia da, ba, altan edo, txakurra altan egotia moduan ba...

– Hori dok! Umiak etaratzeko preparau! Baiña arrautzarik ez jok eitten orduan, e? Ez! Lokatzen dok arrautzak eittiarri lagatzen detsanian. Lokatzen da, harik eta barriro txitxak etara ta pixkat zertu arte, ez dau eitten gehixago arrautzarik oilluak.

– Orduan, lokatzen da eta arrautzak hasten da zaintzen....

– Hori dok! Arrautzen gaiñian jartzen dok txitxak etaratzeko. Gero txitxak etara ta harik eta pixkat koskondu arte, ez jok eitten arrautzarik gehixago. Karo, atzera arrautza barrirak eitteko denporia bihar jok eta.

– Orduan, lokatzen danian ez da altan egotia moduan, da ya arrautzak dakazenian... zaintzia.

– Hori! Hori! Porrejenplo, ganau bat umia eittia preparatzia moduan dok.

– Eta bardiña ixaten da lokatuta egon edo ez egon edo... problemaren bat da lokatuta egotia oilluak eta...?

– Eez! Harek ez jakak oilluandako ezebe! Ha pasatzen jakonian, ba, yasta.

– Ez, baiña norberandako be bai, zaintzeko edo...

– Et-et-et-et... ke ba! Ke ba! Ezebez! Lehenago eitten zuan sarritan, oillolokak, igual, bat edo ipintzen zuan etxian, baiña bestiak mordua egoten zittuan sobre ta sarepian sartzen zittuan azkarrago pasatzeko! Bestela loka igual eitten juek... Honek oillo txixok gitxia-go, baiña lehengo horrek beste oillo haundixok, lehengo oillo klasiak, igual eitten jittuen hillebete loka! Ta aguro pasatzeko, ba, sarepian sartu!

– Zeren pian?

– Saria! Zestua. Ez dakik ze dan? Hori zumitzezkua? Harekin tapau ta hantxe euki egunetan. Azkarrago pasatzen jakok! Bai. Emon uretan [sartuta] ta haren azpian laga ta jateko apur bat bota ta ensegida pasatzen jakok. Ta bestela eitten jok oilluak, abixan egoten lagatzen bajako, ba, pillo bat, denpora pillo bat! Txitxak etara ta gero be *“klok, klok, klok”* eitten jok harik eta lokia pasau arte ta.

– Eta zelan igartzen jako lokia daguala?

– Berak kantatzen daben [...]! Oilluak ostantzian, badakik, *“kara-kara-kara”* kantatzen jok eta loka dagonian, *“klok-klok-klok”* eitten jok, lumak harro-harro einda bakarrik. Haretxegaittik.

– Oseake, askan sartu ta gero...

– Askan sartu, ba, bizkorrago lokia pasatziarren, eitten jakuen.

– Orduan ez da komeni...

– Ez da komeni ez! Arrautzarik be ez jok eitten bestela ta! Alperrik han euki bihar dok ta halan bizkorrago pasau ezkerok, ba, bizkorrago arrautzak ein! Ta txitxak [ez etaratze] ezkerok, ba, [...] egotia. Ta zelan, igual, berrogei oillo eren kaso baterako, harek ixa berrogei lokatzen zittuan urtian, ba, hainbeste txitxa ezin leikek etara ta ba...

– Batzuk askara...

– Hori dok.

Oilluak oillotokixan eta abixondokua

– Eta bestela, normalian, oilluak nun eukitzen ziran lehen, oillotokixan edo itxitta edo...?

– Ez, ez, ez! Oilluak oillotokixan beti! Gurian be hamendik ez dagok pasorik, kortatik bueltan dagok pasua. Hor hortikaldian dagok oillotokixa, han etxaburuan txabolian onduan be badaukagu beste bat, baiña, hortxe egoten dittuk eta gero hor kanpuan alanbradu-

riakin itxitta ibiltzen [dittuk] kanpuan, bestela solte laga ezkeru, ortura ta danera juaten dittuk eta. Oin, kaixoletan lehenago [ez zuan egoten bape] oillorik, ezta granjetan be. Zamakola difuntuak Eibarren granjia euki juan oilluena, han Olarrea(ga)n, baiña orduan denporan, harek be eukitzen jittuan alanbraua itxi ta [alanbrauakin zerrauta], baiña kai-xolan ez. Hori kaixolakuori oingo modernua dok. Itxittura bat ein ta haintxe! Haintxe ta barruan! [Illuntzian eurak ...] ta goixian eguna mobidutakuan, jaiki.

– Eta gero lotara ez dia juaten makilla baten gaiñera edo?

– Otia esaten jakok, holako egurrekin eindako zer bat alturan. Haxe. Oilluak ez jok lurrian lo eitten.

– Eta ze da, makilla bat?

– Makilla batzuek! Mordua! Oillo mordua badare, ba, igual hamar edo hamabost edo holako altura baten, porrejenplo, hamen behetik gora horrenbeste luzekua, holako kua-dro bat ta hantxe gaiñian. Eurek igotzen juek.

– Eta gero, ez dakit izena zelan dakan, arrautza bat edo ipintzen jakue batzutan...

– A! Abixondokua esaten jakona! Bai. Postizua arrautzia!

– Eta hori zetako zan?

– Hori? Ba, abixara jun deittian arrautzia eitteko! Bestela danak kendu [...] oillo batzuk manixia hartzen juek ta igual beste leku batera juaten dittuk oilluak abixan ein barik. Kortan dagonian normalmente halako lekuan, ba, lehenago, batzuk kajia, beste batzuk holako zesto zahar batzuk ipintzen jakuen, bedarrondo pixkatekin abixia arrautzia eitteko. Ta haraxe juan deittian. Badago lekua beste batera eittera juaten dok oillua ta. Hartarakotxe.

– Eta zelakua zan? Zelan eitten zan? Zeuek eindakua zan?

– Ez! Ha izaten zuan, katillua, ez dakik? Lurrezko katilluak? Halakotxiak, esmalte zurixa edo zera emonda, [laban einda] etortzen zittuan. Saltzen egoten zittuan harek, Maria Ospittalenian ta... Lehen? Oin ez dagok holakorik, baiña lehen bai! Mallabin dendan ta... Bueno, zuek ez dakit Mallabin dendia ezautuko zenduen... Urkusuan, Agiñazpiñekua baiño goratxuago, denda komestible bat...? Urtiak dia kendu ebela ta...! [... berak be eukitzen jittuan] ta Maria Ospittalek, berriz, ixa ointxe arte euki dittu harek. Ez dakizu zelan eukitzen [zittuen] umiendako lurrezko itsulapikuak be? Holakotxe materixal iguala, dana esmalte zurixa emonda. Arrautzian koloria izaten dok pixkat. Ta ha izaten zuan hartarakotxe, abixara arrautzia eittera juateko.

Oilandak, oillaskuak, txitxak

– Txikixak dira txitxak, ez?

– Bai!

– Eta gero? Hazten diranian?

– Gero oillanda-oillaskuak esaten juek batzuk. Oilandak izaten dittuk oilluak eittekuak ta bestiak oillaskuak oillar eittekuak. Oillanda-oillaskuak, haundittuaguak dianian.

– Oillaskuak, orduan, harrak ta oilandak...

– Hori dok!

– Ta gero oillua ta oillarra.

– Gero hazten dianian, ba, “*ya está*”. Ta oillarra, ba, izaten dok berrogeta hamarrendako bat edo izaten dok nahikua ta harek, ba, jateko!

– Oillaskua jateko...

– Ta oilandak be bai sobre badare! Sobre badare bai! Lehenago Elgoibarren, oin galduta dagok, bueno, eitten da oin azokia edo, baiña hillan ferixia eitten dan moduan edo, hillian behin... baiña Elgoibarren lehenago? Oillaskua [...] basarritik juaten zan holaxen, plazia bete. Donostiatik [be] etortzen zian erostailiak, basarriko oillaskua erostera. Restauranak ekezenak eta... Elgoibarrera. Hamen, Eibarren be saltzen zian plazan, baiña Elgoibarrera ferixara pillo bat eruaten zan. Igual, saltzeko baiño gehixago plazan ta hara eruan ta han etortzen zian Donostiatik restauranak ekenak oillaskuak erostera! Ta [...zittuan] kajekin etortzen zittuan ba, igual, Elgoibarren danak ixa erosten zittuen igual batzuek. Ta [hemengo] basarrittarrak astuakin juaten zittuan, andrak Elgoibarrera! Mordua igual etxian, ba, saltzeko ba... Plazara be eruaten zittuen, baiña plazan, zelan orduan plazan jente asko batzen zan... bat edo bi bai, baiña mordua erenian saltzia zailla zuan. En kanbio, [...] handik zelan etortzen zian, danak eruaten jittuen, batian gitxittuago, bestian gehittuago pagauta, baiña... eruan danak behintzat! Asko baeguan, gitxiago pagatzen juen; gitxi baeguan, gehixago!

– Eta zelan saltzen ziran, bizirik ala hilda?

– Bizirik! Bizirik! Bizirik eruaten jittuen. Orduan restaurantiak eurak hiltzen jittuen oillaskuak! Oingo moduan ez jeguan [mataderorik], orduan ez jeguan oillaskuentzako mata-

derorik eta espiritu santurik! Bakoitzak beria! Lehenago tabernarixak, porejenplo, bildotsa? Tabernarixak hiltzen juen etxian! Normalmente. Egoten zian taberna [batzuk] lekurik ez dakenak edo, baiña honek Paulo Azitaiñek ta be bai ta Usartzan ta han... Ixuan ta danian lehenago! Oin ez da libre! Baiña [Juan...] basarritarrak bildotsak saltzeko ekazen ta erosi, bi edo hiru edo lau, bihar dittuanak, eruan etxera ta hil, eseitta ipiñi ta...

Sagarrak

– Orduan, gaiñera, sagar-klase asko zeren, ez?

– Bueno...! Oin be bai, pillo bat dare sagarrak. Beti egon dia sagarrak pillo bat. Hamen inguruko sagarrak zerenak zittuan urtebetia, urdin-sagarra, asilokia be bai, baixona zuri-xa ta... Holakotxe, gero hamen inguruan, ba... Gero beste sagar-klase batzuek, ba, [ez zuan egongo] bakutzak bere izena ipinittakua. Hainbeste sagar-klase zittuan ta! Asilokia, ba, bai beste bat.

– Eta asilokia zer da?

– Asilokia? Izena haxe ekan ta, nik ez dakit ba zegaittik esaten etsen. Ta neuk be baja-karazak zeretik ekarritta, Gabiriatik ekarritta. Bi arbola. Ni gaztia nitzala [ezautu nittuan] gurian ta galdu zittuan ta ez jeguan gehixago. Ta holan ferixan batera jua ta Gabiriako gizon batek asilokak jekazen ta esan netsan berari: “Zu, *mentua emongo [destak ...]*” ta “*Bai gizon! Etorri nahi duanian!*” esan estan. Juan nitzuan jai baten, ekarri najittuan ta aliak emoten [jazarazak].

– Mentua hartu, mentua ekarri eta sartu hamen...

– Ipiñi hamen ta yasta.

– Eta zelakua da sagar hori?

– Ez dok ale haundixa, baiña oso biguna ta gozua sagarra jateko! Dok, ez dok zapal-zapala, pixkat puntia eitten dabena. Beste bat bost-kantoia! Ha be galduta dago ya, baiña hamen asko eguan sagarra! Horrek, bost-kantoia, [ez dok]? Bost punta modukuak ekazen, eitten jittuan goixan. Oin be bajagozak hamen Berrizen ta!

– Eta bestia esan dozu urtebetia?

– Urtebetia, bai. Urtebetiak bi klase dare: bat urtebete haundixa ta bestia urtebete txiki-xa. Bi klase. Gero sardau-sagarra, gaza-gorrixa. Gazia dok sagarra, holan sakatu eskuan ta “*plast*” berez maillatzen dana. Ha sardau eitteko dok ona. Jateko be bai batzuk, baiña

jateko asko mingotsak dittuk. Ta sardau eitteko dittuk hobiak. Oin lehenagoko sardaorik haretxegaittik ez jagok. Oin sardaua eitten dok [dagon] sagar danekin, ta lehenago sagar gaziakin bakarrik eitten juen sardaua.

– Eitten zenduen zuek?

– Etxian bai! Baiña sagar gaziakin bakarrik, garratzakin pentsau be ez eitterik! Sagar garratzakin? Kolore zurixa... [Hara], oin daren sardauak ikusten dok zelako koloria... Horrek ez jakek sardauan kolorerik! Ez, ez!

– Lehengo sardauak ze kolore zekan ba?

– Hori-hori-horixa! Hori gorriskia! Ta oinguak berdeskak dittuk! Oin hurrenguan be, Berriatun egon giñuazen gaztia ta bixok, hillan hamaikan, urteko ferixakuan. Ta haintxe ekan batek, Ondarru ondoko batek, sardaua politta. Direziñua hartuta dakat hurrengo baten kaja bat edo ekartzeko. Lehenago sardaua, porrejenplo, sardau botillak? Tamaiño onian enkortxau, etzinda laga holako beheko fresko baten, ta bost urtian ta seixan ta bentajau eitten zittuan. Kortxua ta... bu! Bueno, batzuk kortxua jaurtitzen juen ta hustu. [Harek bakarrik ezebez]. Baiña ostantzian? Tirua eitten juen! Ta bota ta bitsa zerbezian moduan! Ta oin hor saltzen dabizen sardauak zenbat denporako bizixa dakala pentsatzen dozu? Ba urte ta erdi hartzen gaizki ibiltzen dittuk. Ein juat nik aprobia.

Eibarko euskararen kokagune dialektologikoa



*Kardantxillua kantuan entzun eta aittu batek
zer txori klase dan igartzen ez badau, ez da
kardantxillo ona edo ez da kardantxillua.*

*Bakotxak beran kantua dakan moduan,
eibartarrok geure euskeria dakagu.*

Imanol Laspiur

9 - EIBARKO EUSKARAREN KOKAGUNE DIALEKTOLOGIKOA

9.1.- MENDEBALEKO EUSKALKIAREN EZAUGARRIAK EIBARREN

Eibarren, oro har, mendebaleko euskalkiaren ezaugarri gehienak (ia denak) aurkituko ditugu. Hona hemen nagusiak:

9.1.1.- FONETIKA ETA FONOLOGIA

1. *-a* batez amaitzen diren hitzei *-a* mugatzailea gehitzen zaienean **a + a >ia** bila-kaera gertatzen da (*alaba + a > alabia*).
2. **txistukari sail biak zeharo berdinduta** daude; ondorioz txistukari bi besterik ez dira ahoskatzen: **s** eta **tz**.
3. *r*, *l* eta *n* ondoren *s* frikaria ahoskatzen da hitzak batzerakoan: *juan san, il san...* (vs. *jun'tzan, il'tzan...*)
4. Erdal **-(c)ión > -(z)iño** bilakatu da. *Habitaziño, kalefaziño*, eta abar.

9.1.2.- IZENAREN MORFOLOGIA

1. Sozietiboko atzizki berezia dago: **-gaz**. Hala ere, Eibarren, Bizkaiko beste hizkera batzuetan baino gutxiago erabiltzen da (*-kin* da arruntagoa gaur egun), eta pluralean zein singularrean forma berbera du **-(g)az**.
2. Hurbiltze adlatiboko atzizki berezia dago mendebalean. Hizkeraren arabera, **-rantza** edo **-rutz**. Eibarren **-rutz** darabilgu, mendebal sortalde osoan moduan: *etxerutz, beherutz...*
3. Hirugarren graduko erakuslea **ha** da, ez *hura*.
4. **Erro bereko erakusleak** erabiltzen dira singularrean eta pluralean. Azentuak bereizten ditu. Esaterako: *honétan* (sg.) / *hónetan* (pl.).
5. Erakusleak eta erakusleetan oinarritutako adberbioak indartu nahi direnean, **izenaren ezker eta eskuin** ipintzen dira: *hori etxiori, hau pastelau*.

6. *Edozer* egiturako sail osoa dago mendebaleko hizkeretan (*edonor, edonora, edonoiz, edonun...*). Eibarren ere horrela da. Halere, ezagunak izan arren, galtzen ari dira, eta gaur egun eremu zabalagoa duten *edozein* eta *edozer* dira gehien erabiltzen direnak.
7. *Zer edo zer* egiturako sail osoa dago. Aldaera laburtua erabiltzen da ahozko jardunean: *zeozer, noixonoix, nunonun, nonora...*
8. *Neuk* tankerako izenordain indartuak bakarrik erabiltzen dira.
9. *-txo* txikigarria da aukera bakarra; ez dago *-xe* atzizkirik (*txikitxua*, vs. *txikixea*).

9.1.3.- ADITZAREN MORFOLOGIA

1. *Edun*-en erroa *-o-* edo *-au-* da adizkien arabera. Iraganaldiko batzuetan *-eu-* ere bai: *dot, dau, baleu*.
2. Nor-Nori-Nork saileko erroa *eutsi* da: *detsat* ('diot'), *gentsan* ('genion').
3. Aditz iragankorren ahaleran, aginteran eta subjuntiboan **egin* erroa erabiltzen da: *deigun* ('dezagun').
4. Nor-Nori saileko adizkietan *j-* tankerako ebakerak daude. Horrekin batera, *ez + j-> tx* ahoskatzen da hitzak batzerakoan: *ez jata > etxata* ('ez zait').
5. Nor-Nori saileko **iraganaldia = oraina + n** bidez osatzen da.
6. Iraganaldiko **hirugarren pertsonetan (ø)** ezaugarria dago. Hala ere, *z-* ahoskatzen duten hiztunak ere badaude. Adizki biak darabiltzagu Eibarren: (z)*euan* ('zegoen').
7. Mendebaleko ezaugarri den **-z pluralgilea** agertzen da adizki gehienetan; ia beste pluralgilerik ez dago: *dozuz* ('dituzu'), *dakaraz* ('dauzkat'), *ekizuezen* ('zenekizkiten')...
8. *Edun*-en hitanoko adizkietan *j-* tankerako ebakerak daude: *juat* ('diat'), *jok* ('dik'), *jittuat* ('dizkiat').
9. Gaztelaniatik mailegatutako partizipioetan **-ado > -au** gertatu da (*kantau*), eta **-ido > -idu** (*serbidu*).
10. Iragankorrek dira **igo** eta **urten** aditzak: *berandu urten dot biharretik*.
11. Ez da erabiltzen *ari izan* orokorra. *Ibili, egon* eta *jardun* dira ordezkioak.

9.1.4.- SINTAXIA

1. Kausazko eta helburuzko perpausetan *-t(z)earren* dago aukeran: *Probatziarren erosi dot hori.*
2. Esaldi kontzesiboetan *arren* gorde da: *etxia erre arren, bertan gelditu dira.*
3. Esaldi osagarrietan *-(e)na* atzizkia erabiltzen da aditz eta predikatu jakin batzuekin: *banekixan egixa zana.*
4. *Ala* eta *edo* hautakariak bereizten dira.
5. **Bi zenbatzailea** izenaren eskuinetara ezartzen da (*etxe bi, lagun bi...*). Gaur egun galtzen ari da joera hori, eta ezkerretara ere sarri entzuten da.
6. Orobatasuneko **zein** eta **nahiz** partikulak erabiltzen dira.

9.1.5.- ALDAERAK ETA LEXIKOA

Aldaeren alorrean, hainbat adibide izango ditugu, Eibarko hizkera mendebaleko euskalkira hurbiltzen dutenak, besteak beste: *ardau, burdi, ete* ('ote'), *kipula, suiñ, hazur, burdiña, gaztai, txarri, barre, keixa, txixa, mamiñ...*

Lexikoari dagokionez ere, hainbat adibide sar daitezke multzo honetan. Hona hemen Eibarren erabiltzen diren eta mendebaleko euskalkiaren ezaugarri diren berbetako batzuk: *martitzen, barixako, berba, marti* ('martxo'), *okaran, abade, osatu, zil* ('zilbor'), *ganora, keriza, batu, gatzato, odoloste, jaramon...*

9.2.- EIBARREN AGERTZEN EZ DIREN MENDEBALEKO ZENBAIT EZAUGARRI

9.2.1.- FONETIKA

1. Bizkaia gehienez betetzen da *iz-* > *-ix-* bustidura (*bixer* 'bizar', *ixerdi* 'izerdi', *ixer* 'izar' eta abar). Eibarren ez.

9.2.2.- MORFOSINTAXIA

1. Aditz-izenak sortzeko orduan, **-ten atzizkiak** mendebalean baino leku txikiagoa dauka. Mendebaleko hizkera gehientsuenetan: {*r,l,n,g,k*}+i amaiera duten aditzek, **-ten** atzizkia hartzen dute: *ekarten*, *ibiltzen*, *ipintzen*, *eukitzen*... Eibarren ez: *ekartzen*, *ibiltzen*, *ipintzen*, *eukitzen*... **-tuten** atzizkia ere ezezaguna da (*konturatu-ten*, eta abar).
2. Denborazko perpausetan '**partizipioa + -keran**' dago mendebalean (*urtekeran*...). Eibarren ez.
3. **Aditz-izenak**, norabidea adierazten dutenean, **inesiboan** agertzen dira mendebaleko hizkeretan (*amama ikusten joan naz*). Eibarren ez da erabiltzen horrelako egiturarik.

9.3.- SARTALDEKO AZPIEUSKALKITIK BEREIZTEN DUTEN EZAUGARRI BATZUK

Mendebalean bi azpieuskalki nagusi bereizten dira (Zuazo, 1998): Sartaldekoa (Mungialdea, Uribekosta, Arratia...), eta Sortaldekoa (Lea-Artibai, Durangaldea eta Deba ibarra). Zenbait ezaugarri ezberdin dituzte. Eibarko euskararen sortaldekoak aurkituko ditugu beti.

9.3.1.- FONETIKA ETA FONOLOGIA

1. /u,i _/ a>e bilakaera indartsuagoa da Sartaldean. *Lagun bet, sartu de* eta antzekorik ez dago Eibarren.
2. Sartaldeko hizkera gehienetan ez bezala, **partizipioetako -i** ez da galtzen: *ikusi dot*.
3. **o+a>ua / e+a>ia / i+a>ixa** bilakaerak: *astua, loria, mendixa*. Sartalde gehienean arrotzak dira.
4. **Geuza** eta **geur** erako formak (-au->-eu-) arrotzak dira Eibarren; hiztun gutxi batzuek bakarrik erabiltzen dituzte.
5. *Joan* eta *eroan* aditzen adizkietan **-i-** sartzen da Eibar inguruko hizkeretan: *zoian, daroiaraz*. Durangaldetik sartaldera dauden hizkeretan ez.
6. Hitz hasierako *j*-ren ahoskera beti da <j> tankerakoa, eta ez <y>.
7. **Bokal luzeak** ageri dira, gazteen jardunean galtzen doazen arren. Ezaugarri hori ez da hain nabaria sartaldeko hizkeretan.
8. /i_+bokal/ arteko **x epentesia**. Emankorra da, gaztelaniazko maileguetan ere betetzen da eta: *radixua, premixua*...

9.3.2.- MORFOLOGIA

1. **Soziatiboan**, *-kin* erabiltzen da gehienbat, Sartaldean *-gaz* besterik erabiltzen ez den bitartean.
2. Hurbiltze adlatiboan **-rutz** atzizkia erabiltzen dugu Eibarren, eta ez sartaldeko *-rantza*.
3. Destinativoko morfema **-endako** da, gaur egun *-entzat* ere erabiltzen den arren.

4. Estandarreko “*ari izan*”-en ordez *jardun* erabiltzen da Eibarren, eta jokamolde hori ez da erabiltzen Bizkaia sartaldeko hizkeretan.

9.3.3.- SINTAXIA

1. Esaldi konparatiboetako *lako* eta modu-esaldietako *legez* oso gutxi erabiltzen dira Eibarren. Nagusi-nagusien ahotan, eta gutxitan. Horien ordez *moduko* / *moduan* erabiltzen dira.

9.3.4.- ALDAERAK ETA LEXIKOA

Sartaldeko aldaera hauek ez dira Eibarren eta inguruan erabiltzen: *akar* (‘aker’), *hamaka* (‘hamaika’), *amoztu* (‘moztu’), *anaje* (‘anai’), *baie* (‘baina’), *bere* (‘ere’), *burrine* (‘burdina’), *garri* (‘gerri’), *geitu* (‘deitu’), *txiker* (‘txiki’), *uzen* (‘izen’)..

Hitz hauek ere ez dira erabiltzen Eibarren: *abazuza* (‘txingor’), *inetazi* (‘txingor’), *aitixe* (‘aitaginarreba’), *arrankari* (‘amuarrain’), *artez* (‘zuzen’), *asago* (‘urrun’), *ebatzi* (‘erabaki’), *garnu* (‘pixa’), *opetzi* (‘eskaini’), *sute* (‘eskatz, sukalde’), *zenbagure* (‘edo-zenbat’)..

9.4.- MENDEBALEKO EUSKALITIK BEREIZTEN DUTEN ZENBAIT EZAUGARRI

Erdialdeko hizkeren ezaugarri gutxi aurkituko dugu Eibarren, baina neurri batean Eibar ingurura ere heldu dira zenbait berrikuntza. Aipatzen ditugun ezaugarri batzuk ezin esan erdialdekoak direnik (eremu zabalagoa dute), baina bai mendebaleko hizkeratik urruntzen direnak:

1. *d > r* bilakaera indartsua da, Gipuzkoako hizkera gehienetan bezala: *eran*, *basokara*...
2. Aditz-izenak sortzeko *-tzen/-ten* bikotea besterik ez dago. Mendebalean erabiltzen diren gainontzeko atzizkiak (*-tuten*, *-etan*, *-ketan*...) ez dira erabiltzen.
3. Gutxi bada ere, baldintza-esaldietako *baldin* eta konparatiboetako *bezin* entzuten dira Eibarren (ez dira mendebaleko hizkeretan erabiltzen).

4. *Zein* galdetzaileak ia erabat baztertu du *nor*.
5. **Iraganaldiko 3. pertsonako** adizkietan, gehienetan mendebaleko formak erabili arren (\emptyset marka), *z-* duten formak ere sarri entzuten dira (gazteen artean nagusi dira forma horiek): *zeban, zetsuan, zekizuen, zetorren...*
6. Mendebaleko eredutik aldentuz, *nere* tankerako izenordainak aurkituko ditugu Eibarren (mendebalean *nire*).

9.5.- INGURUKO HERRIETAKO HIZKERETATIK BEREIZTEN DUTEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Inguruko herrietako hizkerak aztertuz gero, Eibarkoak gehienbat Bergara eta Leintz aldeko hizkerekin egiten du bat. Hala ere, zenbait ezaugarritan gure berezitasunak ditugu. Hona hemen esanguratsuenak:

9.5.1.- FONETIKA ETA FONOLOGIA

1. Aurrerago esan bezala, Eibarren eta alboko herrietan (Elgoibar, Ermua, Soraluze, Elgeta, Elorrio eta Bergara) **ez da *a > e* bilakaera** gertatu *i* eta *u* bokal ostan: *dirua* (ez *dirue*). Debagoiengan, Durangaldean, Urola-kostan eta Markina aldean, ostera, bai.
2. ***tt > tx*** bilakaera ia erabatekoa da. Debagoiengan eta Bizkaian oraindik bizirik dago ezaugarri hori (*itturrixa* vs. *itxurrixa*).
3. ***-dd-*** bustidura ere, inguruko herrietan baino gutxiago entzuten da Eibarren: *eindda, bilddotsa...*
4. Bizkaiko ezaugarri diren *i > u* bilakaeradun formak arruntagoak dira Eibarren Bergara aldeko hizkeretan baino: *urun, uzan, ule, urten...*
5. *Zerbizixo, erlijixo, komunixo, demonixo* tankerako ebakerarik ez dago Eibarren (Eibarren *zerbizio, erlijio, komunio, demonio...*).

9.5.2.- IZENAREN MORFOLOGIA

1. Hiztun batzuek erabili arren, Eibarren ***ha*** da hirugarren mailako erakuslea, ez Debabarrena eta Bergara aldeko *haura*.

2. Hirugarren graduko erakusleetan *haretan, harek, haretatik...* tankerako formak erabiltzen dira Eibarren. Debabarreneko eta Debagoieneko hizkera batzuetan arruntak dira *hark* edo *hartan* bezalakoak.
3. Bergara aldeko eta Leintz aldeko hizkeretan, neurri batean behintzat, oraindik bizirik dira ablatiboko *-ti* eta motibatiboko *-gati*. Eibarren ez.
4. Leintz inguruko hizkeretan *-gaz* da sozibatiboko marka. Eibarren ere entzuten da nagusien ahotan, baina *-kin* da formarik arruntena.
5. Badirudi *-tzuk* pluralgile zaharra inguruko beste hizkera batzuetan baino indartsuago dagoela (*elixatzuk, erropatzuk...*).

9.5.3.- ADITZAREN MORFOLOGIA

1. Aditz trinko iragangaitzen orainaldiko 3. pertsonako hitanoetan *d-* esaten da: *daok* (ez *jaok*) ('zegok'), *datok* (ez *jatok*) ('zetorrek'), *dabik* (ez *jabik*) ('zabilek')... Eibar, Soraluze, Ermua eta Elgoibarko hizkeren ezaugarria da. Salbuespena *juan*-en adizkiak dira: *joiak* ('zihoak'), *joiazak* ('zihoazek').
2. **Eutsi*-ren adizkietan *-e-* da erroa, eta ez *-o-*: *detsat, netsan, gentsagun...* (eta ez *dotsat, notsan...*)
3. *Esan* aditzaren forma trinkoetan *-n-* agertzen da Eibarren: *diñot, diñozu, niñuan...* Debagoiena eta Debabarreneko hizkera gehienetan ez dago horrelakorik.
4. Aditz trinkoen iraganaldian *-e-* da erroa: *nekixan* 'nekien', *zebizen* 'zebiltzan', *nebillen* 'nenbilen', *nekan* 'neukan', eta abar. Deba ibarreko ia hizkera guztietan *-a-* da sustraia (aurreko adibideak jarraituz: *nakixen, abitzen, nabillen, nauken...*).
5. Nor-Nori-Nork saileko orainaldian, **datiboa 3. pertsona** denean, adizki bereziak sortzen dira Bergaran, Antzuolan eta Oñatin¹²²: *jat* ('diot'), *jatzu* ('diozu'), *jau* ('diogu'), eta abar. Eibarren ez dago horrelakorik. Bergara aldean erabiltzen diren *dostat* ('diat'), itxurako adizkiak ere ezezagunak dira Eibarren.
6. Kontsonantizazioz, *neban, (z)eban* formak agertzen dira Eibarren (eta ez Debagoieneko *neuan, euan* tankerako adizkiak).
7. Debagoien osoan nahiko arrunta da adizki singularrak eta pluralak berdinak izatea, **komunztadurarik** ez izatea. Eibarren ez da horrelakorik gertatzen.

¹²² Oñatiko kasuan, noski, *j-*dun formak izan beharrean, *x-*dunak erabiltzen dira: *xat, xau...*

8. Bergara inguruko hizkeretan (Soraluze barne) iragangaitzetako 2. persona pluraleran *-te* aldaera dago; Eibarren ez, mendebaleko eredu jarraitzen dugulako, (*-e*). Adibidez: *zabizie* (ez *zabizte*), *zoiazie* (ez *zoiazte*), *zarie* (ez *zate*), *zagozie* (ez *zarete*), eta abar.
9. Aditz-izenen artean, Eibarren ez da Debagoieneko *-ketan* atzizkia bezalakorik; Eibar aldekoak dira, gainera, *entzutzen*, *etzintzen* ('etzaten'), *jardutzen* tankera-ko forma batzuk.

9.5.4.- SINTAXIA

1. *Barren* aurkaritzako lokailua erabiltzen da. Bergara eta Leintz aldean ez. Durangaldean ere ez.
2. *-tzeke* moduzko atzizkia ("gabe" aditz-atzizkia) Debaerdiko gainontzeko hizkeretan ere erabiltzen da, baina ez (horrenbeste) Debagoienean eta Durangaldean.

9.5.5.- ALDAERAK ETA LEXIKOA

Hona hemen, Eibarko hizkera ingurukoetatik bereizten duten zenbait aldaera eta hitz.

Aldaeren artean aipa daitezkeen batzuk: *aldapara*, *barixaku*, *foballa*, *gitxi*, *higoñi*, *ipoiñ*, *irakorri*, *mustur*, *orixo*, *sabai*, *ugaratxo*...

Eta **lexikoan**: *abendu* ('miru, zapelatz'), *afariketari* egin, *aldra*, *amaiñ emon*, *antxitxiketan* ('korrika, lasterka'), *aratuste*, *ardi* ('arkakuso'), *barrero*, *beinke*, *biharra*, *bili*, *gertau* ('preparatu'), *ira* ('garo'), *jirau*, *koko-jantziz*, *kopin*, *larregi*, *ortozik*, *peora* ('portal'), *satandera* ('ogigaztai, erbinude'), *sosiguz* ('soseguz, poliki'), *takian-potian*, *uezaba*, *ugar*...

9.6.- GAZTEEN ARTEAN ALDATZEN ARI DIREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Azken atal honetan, Eibarko gazteen artean aldatzen ari diren ezaugarriak aipatuko ditugu, belaunaldien artean bereizten ari direnak. Oro har, esango genuke, Eibarko euskara oraindik ere bizirik dagoela gazteen artean, eta herriko berbetaren ezaugarri nagusiak oraindik ere gordetzen direla. Dena dela, liburu honetan aipatu ditugun ezaugarri asko eta asko ahulduta daude belaunaldi berrien jardunean, eta beste hainbat desagertuta (liburuan bertan ere aipatu ditugu). Arrazoi nagusiak, gure ustez, hiru dira: batetik, hizkuntza estandarrak eta alfabetizaziok ekarri duen homogeneizazioa; bestetik, transmisioan izan den etena, eta gazte askok duten erreferentzia falta (guraso erdaldunak edo beste herri batzuetakoak); azkenik, belaunaldi gazteek, oro har, hizkuntza eta hizkera gehienetan duten hizkuntza-maila apalagoa, aurreko belaunaldiena baino murriztagoa.

Horren guztiaren ondorioz, gaur egun Eibarko gazte euskaldunek darabilten «eibarrerak», ondorengo ezaugarriak ditu aurreko belaunaldienarekin alderatuta: 1.- euskara estandarraren eragin nabarmena dago, batez ere lexikoan (*barixakua* > *ostirala*; *martixa* > *martxua*); 2.- hizkera murriztagoa, elementu gutxiagokoa (hitanoa edo subjuntiboa ez dira erabiltzen, sintaxian askoz baliabide gutxiago erabiltzen dira, eta abar); 3.- beste euskalki edo hizkera batzuen eragina (*detsat* > *dotsat*; *genduan* > *giñuan*); edo 4.- Eibarko euskarara hurreratzeko saio «okerrak» (*anaia* > *anai-xa*). Halere, galtzen ari diren ezaugarri gehientsuenak, lehendik ere galtzen ari zirenak dira, nagusiek ere gutxi erabiltzen dituztenak eta muga-mugakoak direnak; belaunaldi zaharretan hasitako bidea indartu besterik ez da egin gazteen artean. Horrekin batera, baina, beste hainbat ezaugarri ere aldatzen ari dira. Ikus ditzagun:

9.6.1.- FONETIKA ETA FONOLOGIA

1. Eibarko euskarara hurbiltzeko ahaleginean, gazteek nagusiek baino gehiago erabiltzen dute *x* epentetikoa: *junio* > *junixo*; *guztia* > *guxtixa*; *sei tt'erdiak* > *sei t'erdiak*.
2. *tt* > *tx* bilakaera erabatekoa da: *itturrixa* > *itxurrixa*.
3. Bustidurak indarra galdu du. Hasteko, *-dd-* bustidura ere erabat desagertu da: *eindda* > *einda*. *-itz* > *-tx* erako bustidurak ere desagertu egin dira: *hatxa* > *haitza*; *bakotxa* > *bakoitza*. Beste ingurune batzuetan ere bustidura ez da hain automatikoa (*bi txa bat* > *bi eta bat*).

4. Arau morfofonologiko batzuk ere zeharo aldatu dira. Besteak beste, *ez + j-* > *etx-* araua ia guztiz desagertu da (*etxatzu* > *ez jatzu*), eta oro har, aditz nagusia eta aditz laguntzailea osorik ahoskatzeko joera dago gazteen artean (*ikusitu* > *ikusitu ditte*; *erosi bozu* > *erosi badozu*; *emon bietsat* > *emon bihar detsat*).

9.6.2.- IZENAREN MORFOLOGIA

1. Sozietiboko *-gaz* marka erabat galdu da. (*umieaz* > *umiekin*).
2. *-dako* / *-t(z)ako* atzizkiaren lekuan *-tzat* ari da nagusitzen (*zuendako* > *zuentzat*).
3. *-tzuk* atzizki pluralgile zaharra (*elixatzu...*) ia erabat desagertu da gazteen jardunean.
4. *Bi* zenbatzailea izenaren aurrealdean darabilte gazteek.
5. Erakusleak euskara estandarrean bezala erabiltzen dira, izenaren ostean (*hau txarrixau* > *txarri hau*).
6. Izenordain indartuak (*neuk...*) eta *-xe* morfema indargarriak (*hauxe*, *honetxeri*, *hortitxik...*) indarra galdu dute.
7. **Azentuan** ere aldaketa nabarmena da. Singularra eta plurala bereizten dituen azentua galdu egin da izenetan: *úmiak* > *umíak* ('umeeak'); eta galtzen ari da erakusleetan (*hónekin* vs. *honékin*). Horrekin batera, Eibarko hizkeraren bereizgarri diren hitz esdrújula batzuen azentukera ere indarra galtzen ari da: *ikástolia*, *pátatak*, *íntxaurrak*, *Úntzagan*, *Élgetan*, *bázkarixa*, *éuskeria*, *kánpóra*, *lándaria*, *bérbetan*, *txíngorra*, *árrautzak*, *áurrian...* > *ikastólia*, *patátak*, *intxáurrak*, *Untzágan*, *Elgétan*, *bazkárixa*, *euskéria*, *kanpóra*, *landária*, *berbétan*, *txingórra*, *arráutzak*, *aurrián...*

9.6.3.- ADITZAREN MORFOLOGIA

1. Oro har, erabiltzen diren adizkien eta aditz-sailen kopurua jaitsi egin da. Hitanoa desagertu egin da, subjuntiboa ia-ia, eta trinkoen erabilera ere behe-raka doa.
2. Aditz-forma batzuetan inguruko euskalkien eragina igartzen da gazteen hizketan: *nozue* > *nazue*; *genduan* > *giñuan* ('genuen'); *detsat* > *dotsat* ('diot').
3. Ahalerazko adizki berriak agertu dira: *neike* > *leiket*; *geinke* > *leikegu*.

4. Hirugarren pertsonako marka, (**ø**) beharreen **z- da**: *ekixan* > *zekixan* ('zekiten'); *eben* > *zeben* ('zuten').
5. Nor-Nori-Nork saileko eta trinkoetako adizki batzuetan **forma pleonastikoak nagusitu** dira: *gentsan* > *gentsagun*, *zetsagun* ('genion').
6. **Urten** ('irten') aditza iragangaitz bihurtu da, euskara estandarrean bezala: *urten dot* > *urten naiz*.
7. Hirugarren pertsonako adizki batzuetan, **-te pluralgilea** agertu da, euskara estandarren eredia jarraituz: *dittue* > *ditxuzte*; *nabe* > *naute*.

9.6.4.- SINTAXIA

1. Gazteen artean arrunta da **baizik** aurkaritzako juntagailua erabiltzea (nagusiek ez darabilte).
2. Konparaziozko perpausetan, *lez* eta *lako* erabat desagertu dira, eta *moduan* ere indarra galtzen ari da. Horien lekuan **bezela** erabiltzen dute gazteek.
3. Perpaus osagarrietako **-ena** atzikiak indarra galdu du.
4. **-tzeke** moduzko atzizkia ("gabe" aditz-atzizkia) desagertzen ari da gazteen jardunean.
5. Kontzesiboetako **arren** ere indarra galtzen ari da, eta bere lekuan **nahiz eta** nagusitu da.
6. Lokailu hautakarien artean, **ostian** eta **ostantzian** galtzen ari dira.

9.6.5.- ALDAERAK ETA LEXIKOA

Lexikoari dagokionez, euskalkia/estandarra lehia nabarmena dago. Nahastean erabiltzen dira bertako formak eta euskara estandarrean nagusitu direnak.

Aldaeren artean, esate baterako, forma hauek guztiak lehian daude: *edur/elur*, *zidar/zillar*, *baltz/beltz*, *hazur/hezur*, *lora/lore*, *izardi/izerdi*, *baztar/bazter*, *urun/irin*, *gitxi/gutxi*, *urrin/urrun*, *narru/larru*, *ezpan/ezpain*, *ahizta/ahizpa*, *mallubi/marrubi*...

Hiztegi mailan ere alfabetizazioaren eragina nabaria da, eta bertako hitzen alboan, euskara estandarretik jasotako beste hainbat erabiltzen dituzte gazteek. Eragina

nabarmena da asteko egunetan eta hilabeteetan; bertako formak baino gehiago, estandarrekoak erabiltzen dira gazteen artean (*martzua, iraila, uztaila... asteartia, asteazkena, larunbata, ostirala...*). Animalien izenetan ere ikastolaren eragina handia da (*kirikixua > trikua; katamixarra > urtxintxa; ugaratxua > igela...*). Bizkaieraren ezaugarri diren beste hamaika hitz ere indarra galtzen ari dira, eta euren lekuan beste euskalki batzuetakoak agertu dira: *abade > apaiz, armozu > gosari, bihargin > langile, eruan > eraman, larregi > gehixegi, matrallako > zaplasteko, sasoi > garai, itxuria danez > dirudienez, kopin > panpin.*

Bibliografia

10 - BIBLIOGRAFIA

- Agirretxe, J.L., M. Lersundi eta O. Olaetxea. 1998. *Pasaiaiko hizkera*. Pasaiko Udala.
- Aguirre, V. 1898. *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra*. Imprenta Pedro Orue, Eibar.
- Alberdi, I. eta Sarasua, A. 2005. *Eibarko mapa*. Eibarko Udala.
- Allieres, J. 1995. «Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaz», in R. Gómez eta J. Lakarra (arg.), 45-58.
- Altube, S. 1960. «Eibartarrak eta euskera». *Euskera*, 5 (1960): 61-65.
- Aranberri, F. 1996. *Ermua eta Eitzako Euskara*. Ermuko Udala.
- Aranberri, L. A. «Amatiño». 2005. «El euskera de Eibar». *Revista Eibar*, 67 (2005): 7.
- Areta, N. 2003. *Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea*. Deustuko Unibertsitatea.
- Argoitia, J.A., N. Azkarate eta X. Gezuraga. 1995. *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*. Eibarko Udala.
- Aurrekoetxea, G. 1995. *Bizkaieraren Egituraketa Geolinguistikoa*. Serie Tesis Doctorales. Argitalpen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
- Aurrekoetxea, G. eta X. Videgain (arg.). 1992. *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak*. Euskaltzaindia, Bilbo. [Iker-7].
- 1993. «Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: Galdesorta». *Euskera*, (1993-3), 38. liburukia. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Azkarraga, J. eta F. Muniozguren. 1996. *Eibarko bilakaera soziolinguistikoa (1981-1991) eta 1995-2000 jardunbiderako oinarriak*. Euskara Batzordea, Eibarko Udala.
- Azkue, R. M. 1923. *Morfología vasca*. Bilbo (1969ko edizio faksimila, La Gran Enciclopedia Vasca).
- 1984. *Diccionario vasco-español-francés*. Berrarg. Euskaltzaindia, Bilbo. (lehenengo edizioa, 1905-1906).
- Azkue Ibarbia, X. 2000. *Hitanoa Zumaian*. Zumaiaiko Udala.
- Azpiri, B. 1991. «Caleco biarguiñac basarricueri elesiñuen gañian edo eguneroko kontuak euskaraz eman ezina gezurtatzen duen testua». *SENEZ*, 1991 (I): 117-119.

- Azurmendi, J. M. 1996. *Ataungo euskara*. Goiherriko Euskal Eskola Elkarte, Mazpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
- 1998. *Zegamako euskara*. Goiherriko Euskal Eskola Elkarte, Mazpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
- Baraiazarra, L. 1986. «Markina-Xemeingo euskara aztertzen». *Euskera*, XXXI (1986,1): 143-159.
- Basauri, S. eta J. San Martin. 1972. «Eibarko euskerari buruz». *Egan*, 1972 (1-6): 32-37.
- Basauri, S. eta A. Sarasua. (koor.). 2003. *Eibarko Hiztegi Etnografikoa*. Euskara Mintegia, Eibarko Udala.
- Bilbao, B. 2002. *Bermeoko euskera kresaltsua. Aditza eta fonetika*. Bermeoko Udala, Euskera Zerbitzua.
- Camino, I. (arg.). 1998. *Nafarroako hizkerak*. UEU, Bilbo.
- Del Castillo, V., B. Giralt eta J.A. Romo. 2001. *Azkoittiko euskerie*. Aizkibel beka, Azkoitiko Udala.
- Echaide, A.M. 1984. *Erizkizundi Irukoitza*. Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Eibarko Euskara Mintegia. 1997. *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak*. Eibarko Udala.
- 1998. *Eibarko aditza*. Eibarko Udala.
- Eibarko Natura eta Etnografia Taldea. 1998. *Laixetan, Garixetan: Basarrixa Eibarren*. Egoibarra Batzordea, Eibarko Udala.
- Elexpuru, J.M. 2005. *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta*. Bergarako Udala.
- Elortza, J., E. Garro, J.L. Ormaetxea, J.M. Garai eta E. Plazaola. 1999. *Arrasateko euskara*, Arrasateko Udala.
- Erdozia, J.L. 2001. *Sakana erdialdeko euskara*. Nafarroako Gobernua.
- 2004. *Sakanako hiztegi dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- Errazti, A. 1994. *Iurreta elizateko euskara eta toponimia*. Iurretako Udala.
- ...eta kitto! Euskara Elkarte. 1998. *Tailerrerao hiztegi teknikoa*. ...eta kitto! Euskara Elkarte.

- Etxabe, K. eta L. Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*. Zaldibiako Udala.
- Etxebarria, J. M. 1991. *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etnolinguistikoa*. Ibaizabal, Euba.
- 1991. *Euskal fonetika eta fonologia. Euskera biziaren azterbidean*. Labayru ikastegia, Bilbao.
- Etxebarria, T. 1967. *Ibilarixanak*. Itxaropena, Zarautz.
- 1998. *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar*. 3. Argitalpena. Eibarko Udala. (Lehenengo argitalpena, 1965-1966).
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1990. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1994. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1995. *Eibarko hiri-toponimia*. Euskaltzaindia, Gasteiz.
- 1999. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak- 1)*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- 2000. *Hiztegi batua*. Euskaltzaindia, Bilbo [“Euskera XLV 2”].
- 2000. *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fraile, I eta A. Fraile. 1996. *Oiartzungo hizkera*. Oiartzungo Udala.
- Gaminde, I. 1988. «Bizkaiko Aditz Trinkoen Alokutiboak». *F.L.V.*, XX. 52 (1988): 181-240.
- 1999. *Bakio berbarik berba*. Labayru Ikastegia.
- 2002. «Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan». *Euskalingua*, 1 (2002): 4-14. Mendebalde Kultur Elkarte.
- 2003. *Zaldibar berbarik berba*. Zaldibarko Udala.
- Gaminde, I. eta Salterain, M. 1990. *Abadiñoako Lexikoaz*. Abadiñoako Udala.
- Goenaga, Patxi. 1980. *Gramatika bideetan*. Erein, Donostia.

- Gómez, R. eta J. Lakarra (arg.). 1995. *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*. ASJUren gehigarriak, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J.I. 1997. *Euskararen Azentuerak*. ASJUren gehigarriak XLII, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J.I., G. Elordieta eta A. Elordieta. 1994. *The Basque Dialect of Lekeitio*. ASJUren gehigarriak, XXXIV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J.I., P. Mugarza eta K. Zuazo. 2003. «The accentual system of Mallabia Basque». *Studies in the Linguistic Sciences*, 32 (2003): 39-56.
- Hurtado Mendieta, I. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. IX. Gerriko Ikerlan-sariketa. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.
- Iturain, I. eta L. Loidi. 1995. *Orioko Euskara*. Orioko Udala.
- Iturrioz, A. 1958. «Egazkiñak». *Revista Eibar*, 18 (1958): 6-7.
- 1966. «Danetik pixkat. Aintziñako gogorapenak Eibarko euskeran». *Egan*, XXV (1966): 96-98.
- Izagirre, E., Lizarralde, M. eta Narbaiza, A. 2000. *Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia*. Eibarko Udala.
- Izquierdo, J. 1996. *Plazentziako aditzaren paradigma*. Argitaragabea.
- Karasatorre, R., J. L. Erdozia eta E. Ulaiar. 1991. *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*. Altaffaylla Kultur Elkarte.
- Larrañaga, J. 1998. *Antzuolako hizkera*. Antzuolako Udala.
- Larrañaga, R. 1995. «Relación de algunas palabras euskericas habituales en Soraluze-Placencia de las Armas», *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura*, 13 (1995): 35-42.
- Lasa, X. 2004. *Urretxu eta Zumarragako euskara*. Zintzo-mintzo elkarte, Urretxuko Udala eta Zumarragako Udala.
- Laspiur, I. 1979. «Azentu diakritikoa Eibarko euskeran». *Euskera*, 24-1 (1979): 175-268.
- 1999. *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua*. Euskara Batzordea, Eibarko Udala.
- 1999. *Eibarrera jatorraren bidetik. ...eta kitto!* Euskara Elkarte, Eibar.
- Lekuona, J.M., J.I. López de Luzuriaga eta A. Narbaiza. 1992. *1965eko Kopla Zaharrak*. (Ego Ibarra bilduma, 6). Eibarko Udala.

- Leon, J. 2004. *Elgoibartarren esanetan*. Elgoibarko Udala.
- Michelena, L. 1990. *Fonética Histórica Vasca*. ASJUren gehigarriak, IV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (Lehenengo argitalpena, 1961).
- Mogel, J.A. 1999. *Peru Abarka*. Edizio dijitala: Josu Lavin, Euskal Literatura Konputerizatua, Eibar.Org Elkarteak interneten ezarria (<http://www.eibar.org/materixala/peru>), 1999.11. (Lehenengo argitalpena, 1883).
- Narbaiza, A. 1990. *Eibarko gatzizenak*. Egoibarra Batzordea, Eibarko Udala.
- 1998. *Eibarko Euskara: Gutxiespenaren Historia*. Euskara Batzordea, Eibarko Udala.
- Olano, M. 1998. *Areso eta Leitzako hizkerak*. Nafarroako Gobernua, Aresoko Udala eta Leitzako Udala.
- Oñatiko udal euskaltegia. 2002. *Oñatiko euskeriaren aditz-atalak*. Bedita Larrakoetxea Oñatiko udal euskaltegia.
- Oñederra, L. 1990. *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Argitalpen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ormaetxea, T. 2003. *Aramaioko euskara*. Aramaioko Udala.
- Roman Bravo, I. 2001. *Berrizko euskera*. Berrizko Udala.
- Rotaetxe, K. 1978. *Estudio estructural del euskera en Ondarroa*. Durango, Leopoldo Zugaza editor.
- San Martin, J. 1958a. «Burdin laneko zenbait tekniku itz». *Euzko-gogoa*, 9-1 (1958): 39-51.
- 1958b. «Eibar'en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikuak». *Euskera*, 3 (1958): 141-158.
- 1959a. «Eibar'en teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz». *Euskera*, 4 (1959): 127-139.
- 1959b. «Mogel, Agirre ta Galdos, Eibartar euskeltzaleak». *Revista Eibar*, 27 (1959): 10-11
- 1960. *Zirikadak*. Itxaropena, Zarautz.
- 1965. *Eztenkadak*. Itxaropena, Zarautz.
- 1975. «Perretxiku izenak Eibarren». *Euskera*, XX (1975): 317-324.
- 1981. «Eibarko aditz-laguntzailearen paradigmak». *IKER-1* (1981): 331-342.

- 1990. «Botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren Lexicon lanari gehigarriak». *Euskera*, 35-2 (1990): 337-365.
- 1992. «Francisco Arrate. Eibarko Aginaga auzoko parrokoaren sermoi argitaratuak. Juan San Martinek bilduak». *Iker* 6, (1992): 435-449.
- Sangroniz, M. 2001. *Eibarko euskeriaren unidate didaktikua*. Euskara Saila, Eibarko Udala.
- Sarasketa, A. eta A. Sarasua. 1998. *Eibarko basarriak*. Ego Ibarra batzordea, Eibarko Udala.
- Sarasua, A. 1996. *Eibarko hegaztiak*. Ego Ibarra batzordea, Eibarko Udala.
- 1997. «Eibarko hegazti-izenak». *Revista Eibar*, 16 (1997): 22-23.
- Simal, A. *Eibarko euskara: 1974-1980ko belaunaldia*. Argitaragabea.
- Trebiño, I. 2001. *Administrazio zibileko testu historikoak*. HAEE-IVAP.
- Txurruka, A. eta J. Urbietia. 2003. *Debako euskara*. Debako Ostolaza Kultur Elkartea.
- Ugarte Azurmendi, M. 1995. *Legazpi Barrutiko Itzen Bilduma*. Legazpiko Udala.
- UNED. 1988. *Bergarako Euskara*. UNED, Bergara.
- Villasante, L. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Serie «Luis de Eleizalde», fascículo 3. Editorial Franciscana Aranzazu, Oñate.
- Yrizar, P. 1981. *Contribución a la dialectología vasca*. Donostia.
- Zuazo, K. 1998. «Euskalkiak gaur». *FLV*, 30 (1998): 191-233.
- 1999. *Deba Ibarreko Euskeria*. Deba ibarreko udalak.
- 2002. *Deba Ibarretik Euskararen Herrira*. Badihardugu Euskara Elkartea.
- 2003. *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Elkarlanean.
- Zubeldia, K. 2005. «Urruñako euskararen azterketa dialektologikoaren hasiera. Fonetika eta Fonologia». *EuskoNews&Media, Gaiak*.
<http://www.euskonews.com/0285zkb/gaia28504eu.html>.

Liburu hau Gertu Inprimategian amaitu da
2005eko azaroan.
1000 ale kaleratu dira.

EIBARKO EUSKARA LANTZEN DUTEN LIBURUAK:

Eibar kantuz kantu (Sangroniz, M.)

Eibarko aditza (Eibarko Euskara Mintegia)

Eibarko basarrixak (Sarasketa, A. eta A. Sarasua)

Eibarko bilakaera soziolinguistikoa (1981-1991)
(Azkarraga, J. eta F. Muniozgueren)

Eibarko euskara: gure hizketaren doinu eta berbak
(Sarasua, A., A. Agirrebeña eta L. Zenarruzabeitia)

Eibarko euskara: gutxiespenaren historia (Narbaiza, A.)

Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea
(Areta, N.)

**Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako
berezitasun batzuk** (Argoitia, J.A., N. Azkarate eta X.
Gezuraga)

Eibarko euskeriaren deklinabidea eta entonaziñua
(Laspiur, I.)

Eibarko euskeriaren unidate didaktikua
(Sangroniz, M.)

Eibarko gatzizenak (Narbaiza, A.)

Eibarko hiri-toponimia (Zarraua, E., R. Kerexeta eta
A. Ogiza)

Eibarko hiztegi etnografikoa (Basauri, S. eta A.
Sarasua, koor.)

Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia (Izagirre,
E., M. Lizarralde eta A. Narbaiza)

Eibarko mapa (Alberdi, I. eta A. Sarasua)

Eibarrera jatorraren bidetik (Laspiur, I.)

Eztenkadak (San Martin, J.)


**Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de
Eibar** (Etxebarria, T.)

Ibiltarixanak (Etxebarria, T.)

Laixetan, garixetan: basarrixa Eibarren (ENET)

Zirikadak (San Martin, J.)

1965eko Kopla Zaharrak (Lekuona, J.M., J.I.
Luzuriaga eta A. Narbaiza)



X euskara gozatu
EIBARKO UDALA

